Euskal Autonomia Erkidegoa

MEMORIA Sozioekonomikoa 2012

CES EGAB

Consejo Económico y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea



I. KAPITULUA
EAE-N JARDUERA EKONOMIA GARATZEKO BALIABIDEAK

1.	**GIZA BALIABIDEAK EAE-N**	**2**
1.1.	DEMOGRAFIA ETA IMMIGRAZIOA	2
1.1.1.	Oinarrizko adierazle demografikoen bilakaera	3
1.1.2.	Immigrazioa EAEn	13
1.2.	HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA SUSTAPENA	21
1.2.1.	Unibertsitatekoa ez den hezkuntza	21
1.2.2.	Unibertsitateko irakaskuntzak	23
1.2.3.	Hezkuntzaren adierazleak	26
2.	**EGITURA PRODUKTIBOA ETA BERRIKUNTZA EAE-N**	**43**
2.1.	EGITURA PRODUKTIBOA	43
2.1.1.	Enpresa egitura eta demografia	43
2.1.2.	Nekazaritzaren eta Arrantzaren sektorea	49
2.1.3.	Industria	51
2.1.4.	Eraikuntza	57
2.1.5.	Zerbitzuak	58
2.2.	I+G+B JARDUERAK ETA IKT-AK	70
2.2.1.	I+G+B-ko Euskal Sistemaren Adierazle Nagusiak	70
2.2.2.	I+G+b jarduerak EAEko enpresa sektorean	74
2.2.3.	Unibertsitateetako ikerkuntza. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea	81
2.2.4.	IKTen ekipamenduak eta erabilerak EAEn	83
2.2.5.	Merkataritza elektronikoa EAEn. Familiak eta erabiltzaileak	88
3.	**NATURA-INGURUNEAREN EGOERA EAE-N**	**91**
3.1.	EAE-KO 2002-2020KO INGURUMEN ESTRATEGIAREN JARRAIPENA. INGURUMEN ADIERAZLEAK	91
3.2.	ENPRESA INDUSTRIALA ETA INGURUMENA	105
3.2.1.	Enpresa industrialen gastua ingurumena babesteko	105

II. KAPITULUA
EKONOMIA EAE-N

1.	**KANPOKO INGURUNE EKONOMIKOA**	**108**
1.1.	FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK	108
1.2.	BILAKAERA EKONOMIKOA GUNEEN ARABERA	109
1.3.	EUROPAR BATASUNA. EUROAREN EREMUA	112
1.4.	ESPAINIAKO EKONOMIA	115
1.5.	AUTONOMIA ERKIDEGOAK	119
2.	**EAE-REN ABAGUNE EKONOMIKOA**	**120**
2.1.	EBOLUZIO OROKORRA	120
2.2.	BARNE ESKARIA	123
2.3.	KANPOKO ESKARIA	124
2.4.	ATZERRIKO INBERTSIOA	129
3.	**PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK**	**135**
3.1.	ONDASUNEN ETA KONTSUMOKO ZERBITZUEN PREZIOAK	135
3.2.	KOSTUAK	137
3.3.	ERRENTAK	142
4.	**SEKTORE PUBLIKOA**	**145**
4.1.	DIRU-SARRERAK	146
4.2.	GASTUAK	148
4.3.	AURREKONTUKO SALDOA	150
4.4.	SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA	152
4.5.	ERAKUNDEETAKO TRANSFERENTZIAK	153
5.	**GIZARTE EKONOMIAREN KONTUAK EAE-N**	**156**
5.1.	2010EKO GIZARTE-EKONOMIAREN ESTATISTIKAREN EMAITZAK ETA 2011KO DATUEN AURRERAPENA	156
5.2.	GIZARTE-EKONOMIAREN FORMA BERRIAK. 2010EKO DATUAK	160

6.	**LAN-MERKATUA**	**162**
6.1.	JARDUERAREN, OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA	163
6.1.1.	Jarduera eta okupazioa	163
6.1.2.	Langabezia	167
6.2.	KONTRATAZIOEN ETA IRAIZPENEN BILAKAERA	170
6.2.1.	Kontratazioaren egoera	170
6.2.2.	Banakako eta taldeko iraizpenen bilakaera	172
6.3.	LANEKO OSASUNA	174
6.4.	LAN HARREMANAK	176
6.4.1.	Lan-gatazkak	176
6.4.2.	Negoziazio kolektiboa: soldata igoera eta lanaldia	177
6.5.	SOLDATAK EAE-N	179
6.5.1.	2010eko Soldata-egiturari buruzko Inkestaren emaitzak	179
6.5.2.	Lan-kostuari buruzko urteko inkesta2011ren emaitzak	181
6.6.	ENPLEGU POLITIKAK	182
6.6.1.	Enplegu politika aktiboak	182
6.6.2.	Enplegu politika pasiboak	188

III KAPITULUA
BIZI KALITATEA EAE-N

1. FAMILIAK ETA FAMILIA, NORBERAREN BIZITZA ETA LANA BATERATZEA 192

1.1. FAMILIA EAE-N 192

1.2. LANA, NORBERAREN BIZITZA ETA FAMILIA BATERATU BEHARRA 195

1.3. FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKA PUBLIKOAK 200

2. BIZI-BALDINTZAK 203

2.1. BIZI-BALDINTZAK EAE-N. 204

2.1.1. 2011ko Bizi-baldintzen Inkestaren emaitzak. 2012ko aurrerapena. 204

2.1.2. Pobrezia eta bazterketa: 2012ko Pobrezia eta Desberdintasunaren Inkestaren emaitzak. 207

2.2. ADINEKOEN BIZI-BALDINTZAK 210

2.2.1. Adinekoek gizartean eta ekonomian duten rol berria. Zahartze aktiboa 212

2.2.2. Bizi-baldintzak 216

3. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA 222

3.1 OSASUN EGOERA 222

3.1.1 Bizi itxaropena 222

3.1.2 Hilkortasuna 223

3.1.3 Ospitaleko erikortasuna 225

3.2 OSASUNAREN ERABAKIGARRI EZ MEDIKOAK 228

3.3 OSASUN SISTEMA ETA PRESTAZIOAK 228

3.3.1 Sarrera 228

3.3.2 Egitura, baliabideak eta osasun-laguntzako jarduera 230

3.4 OSASUN SISTEMAREN GASTUA ETA FINANTZAZIOA 237

3.4.1 Osasun Sailaren gastua 237

3.4.2 Laguntza jarduerako gastua 237

4. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA 241

4.1. LURZORUA ETA PRODUKZIO KOSTUAK 241

4.1.1 Lurzorua EAEn 241

4.1.2. Eraikuntza kostuen estatistika 243

4.2. ETXEBIZITZAREN ESKAINTZA 244

4.2.1. Salgai dauden etxebizitzen eskaintza eta prezioak 245

4.2.2. Alokairu araubidea 247

4.2.3. Etxebizitzaren prezioen erkaketa, autonomia erkidegoen arabera 248

4.2.4. Eraikuntza jarduera 248

4.3. ETXEBIZITZAREN ESKARIA 240

4.3.1. Etxebizitzaren beharra eta eskaria 250

4.3.2. Familien finantza-ahalegina 251

4.3.3. ETXEBIDEn erregistratutako etxebizitza babestuaren eskaria 252

4.4. HIGIEZIN JARDUERA: ETXEBIZITZEN SALEROSKETA 253

4.5. EAE-KO ETXEBIZITZA HUTSAK. 2011KO DATUAK. 254

4.6. ETXEBIZITZA POLITIKA 255

4.6.1. Eusko Jaurlaritzako etxebizitza politika 255

4.6.2. Foru Aldundietako etxebizitza politika 259

4.6.3. Udal etxebizitza politika 261

5. AISIALDIA ETA KULTURA 261

5.1. POPULAZIOAREN OHITURAK 261

5.1.1. Hedabideen eragina 261

5.1.2. Biztanleriaren kultur ohiturak eta jardunak 262

5.2. KULTURA ETA AISIALDI JARDUEREN ESKAINTZA EAE-N 263

5.2.1. Bisitarien bertaratzea kultura ekipamenduetara 263

5.2.2. Biltzar eta azoka jarduera 264

5.3. ARGITALPEN-PRODUKZIOA 266

5.4. FINANTZAZIOA ETA GASTU PUBLIKOA KULTURAN 268

5.5. FAMILIEN GASTUA KULTURAREN KONTSUMOAN 270

IV. KAPITULUA
GIZARTE BABESA EAE-N

1. GIZARTE ZERBITZUAK EAE-N 273

1.1. GIZARTE ZERBITZUEN EGOERA 273

1.2. MENDEKOTASUNERAKO ARRETA 274

2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK 277

2.1. TRANSFERITU GABEKO KUDEAKETA DUTEN GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK 277

2.2. TRANSFERITUTAKO KUDEAKETA DUTEN GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK: ORDAINDUTAKOAREN ARABERAKOAK EZ DIREN PRESTAZIOAK 280

2.2.1. Gizarte Segurantzaren kotizaziorik gabeko pentsioak 280

2.2.2. Gizarte Ongizateko Funtsaren laguntzako pentsioak 281

2.2.3. MGL prestazioak 281

3. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO NEURRIAK EAE-N 282

3.1. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO SISTEMAREN PRESTAZIOAK 283

3.1.1. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta 283

3.1.2. Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria 285

3.1.3. Gizarte Larrialdiko Laguntzak 285

3.2. GIZARTERATZEA LAGUNTZEKO PROGRAMAK 286

3.2.1. Gizarte esku-hartzearen esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak 286

3.2.2. Laneratze enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak 287

4. GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMA OSAGARRIAK EAE-N 288

4.1. MAGNITUDE NAGUSIAK 289

4.2. ARAUBIDE FISKALA 290

V.KAPITULUA
JARDUN ARAUGILEA EAE-N

JARDUN ARAUGILEA		292

VI. KAPITULUA
LABURPENA ETA GOGOETAK

1.	ERREFERENTZIA-ADIERAZLEETAKO SINTESIS-A	301
2.	LABURPENA	306
2.1.	DEMOGRAFIA ETA IMMIGRAZIOA	306
2.2.	HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA PROMOZIOA	307
2.3.	I+G+B+IKT JARDUERAK	310
2.4.	NATURA-INGURUNEAREN EGOERA	311
2.5.	EAEREN EGOERA EKONOMIKOA ETA KANPO TESTUINGURUA	313
2.6.	SEKTORE PUBLIKOA	316
2.7.	LAN-MERKATUA	317
2.8.	FAMILIAK ETA LANEKO BIZITZA, BIZITZA PERTSONALA ETA FAMILIA UZTARTZEKO ARAZOAK	319
2.9.	BIZI-BALDINTZAK	320
2.10.	OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA	323
2.11.	HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA	325
2.12.	GIZARTE BABESA	327
3.	GOGOETAK	329
3.1.	DEMOGRAFIA ETA IMMIGRAZIOA	329
3.2.	HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA PROMOZIOA	340
3.3.	I+G+B JARDUERAK ETA IKTAK	342
3.4.	NATURA-INGURUNEAREN EGOERA	323
3.5.	EAEREN EGOERA EKONOMIKOA ETA KANPOKO TESTUINGURUA	334
3.6.	SEKTORE PUBLIKOA	338
3.7.	LAN MERKATUA	339
3.8.	FAMILIAK ETA LANEKO BIZITZA, BIZITZA PERTSONALA ETA FAMILIAKOA UZTARTZEKO ARAZOAK	341
3.9.	BIZI BALDINTZAK	342
3.10.	OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA	345
3.11.	HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA	345
3.12.	GIZARTE BABESA	346



URTE ZAIL-ZAILA

Batzordeko Osoko Bilkurak ekainaren 26an egin zuen bileran 2012ko Memoria Sozioekonomikoa onetsi zen, EGABen Erregelamenduan ezarritako epeen barnean, eta dagoeneko Eusko Jaurlaritzaren, Eusko Legebiltzarraren eta gizarte zibilaren esku dago, EGABek alde ekonomikoen eta sozialen 2012ko bilakaerari buruz duen ikuspuntua zein den jakiteko. Hainbat hiletan gogor lan egin dugu, pasa den urteko azarotik Batzordeak Memoriaren egitura eta egutegia finkatzeko aurretiko lanak abiarazi zituenetik. Hilabete horietan, halaber, eztabaidak eta akordioak egon dira berez korapilatsuak diren gaietan ikuspegi komunak ezartzeko; izan ere, krisiak ertzak gaineratzen dizkie gai horiei eta batzordeko kideen hizketaldi irekia beharrezkoa bihurtzen da entzutea osagai nagusitzat izanik.

Beraz, sarrera honetan eskerrak eman nahi dizkiet memoriaren batzordea osatzen duten pertsona horiei, haiei esker izan baita posible: Inmaculada Gallastegui batzordeburua eta Antxon Tomasena, Eduardo García, Maribel Ballesteros, Raúl Arza, Eduardo Aréchaga, Jaime Fernández, Carlos Pereda, Mikel Ruiz, Pedro Martínez de Alegría, Javier Muñecas, Xabier Iraola, Aitor Bengoetxea, Ignacio Barrenetxea, Felicísimo Ayastuy eta Carlos Trevilla batzordekideak.

Eta azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxiagorekin, Leire Ozerin eta Arantza Unzurrunzaga Azterlan eta Proiektuen arduradunak, memoria idaztearen garrantzi materiala izan baitute eta euren esperientzia eta ezagutzarekin lanen koordinazioa erraztu baitute.

EGABek memoriaren bidez azterketa tresna baliagarria eta erabilgarria eskaintzen du; izan ere, euskal gizartearen bizitza ekonomikoa eta sozialaren erradiografia egiten du ekitaldiko datu kontrastatuak oinarritzat hartuta, gogoetak gaizki bidera zitzaketen egoeraren araberako larrialdietatik urrunduta. Gainera, uste dut oraindik inguruan dugun krisialdi sakon honetan berebiziko garrantzia dutela Lanari, Lan-merkatuari, Bizi-baldintzei eta Gizarte babesari buruzko kapituluek, pertsona batzuek jasaten dituzten egoera zailak zein egoera horiek arintzeko abiarazi diren neurriak islatzen baitituzte. Hala eta guztiz ere, memoria sozioekonomikoaren abantaila nagusia eragile ekonomiko eta sozialen artean adostutako gogoeta izaera da.

2012ko ekonomiaren bilakaerarekin hasita, adierazi behar da hazkundearen dezelerazioa joera nagusia izan zela mundu mailan. Munduko ekonomiak bere hazkunde-erritmoa moteldu zuen % 3,2raino, 2010aren aldean 2011n abiarazi zen beheranzko ildoari jarraituz. Beste behin ere garatzeko bidean dauden herrialdeak izan ziren hazkundeari ekarpen handiena egin ziotenak, eta ekonomia garatuen artean, mutur batean AEBren eta Japoniaren portaera ona dago, eta beste aldean, berriz, Europak izan duen atzeraldia, urte osoan % -0,3ko tasa izan zuela. Zor subiranoaren zenbait herrialdetako krisia, Europa osoan jarduera eten zuen zorroztasun politika eta Europako erakundeen erantzun geldoa bilakaera horren mamian daude. Bilakaerak hiruhilekoka egoera batez ere Euroaren Eremuan okerragotu dela erakusten jarraitzen du, hasierako % + 0,3tik azken tarteko % -1era.

Euroaren Eremuan nahiko atzerakorra den testuinguru horretan, euskal ekonomia ere atzeraldian egon zen, baina oraingo honetan modu nabarmenagoan egin zuen. 2012aren hasieratik hiruhilekoka okerragotu egin da, urtearen hasierako % -0,4tik azken hiruhilekoko % -1,7ra heldu arte. Hori

Euskadik 4 urteko aldian izan duen bigarren atzeraldia izan da, eta 2009koa bezain sakona izan ez bada ere, krisialditik irteteko unea atzeratuko du.

Bilakaera txar horren ondorioz, okupazioa murriztu egin da (% -2,5), aurreko urteetan izandako tasa baino txikiagoa erregistratuta. Ondoz ondoko bosgarren urtez handitu egin da langabezian dauden pertsonen kopurua. Izan ere, urtean 43.000 lanpostu suntsitu dira, horrek urtearen amaieran langabezia-tasa % 12,8koa izatea eragin duela. Lan galerari dagokionez, 2012a urte txarrena izan da krisialdia hasi zenetik, 2009an suntsitutako 26.600 lanpostuak baino askoz gehiago suntsitu baitira.

Logikoa denez, inguruan dugun langabezia egoerak langabeziarako babesari eragiten dio zuzenean. 2012an onuradunen batez besteko kopurua % 7,7 handitu da, eta langabeziaren gastua, aldiz, % 9,9. Horrek esan nahi du langabezia babesteko sistemak arazoari aurre egiteko gaitasunari eutsi diola, urte zail-zaila izan den arren.

Baina, jakina denez, langabezia babesteko sistemak bere denbora mugak ditu, eta horiek gainditzen direnean pertsonek gizarte babeseko sistemara jo behar dute. Adierazi behar da sistema iraunkortasuna bermatzeko erronkari aurre egiten ari dela beharrizanak etengabe gehitzen dituen testuinguru honetan. 2011n (ezagutzen den azken datua) Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaren gastua % 5,8 handitu da, eta, 2008ko (krisiaren hasiera) datuak erreferentziatzat hartzen baditugu, gehikuntza % 96koa izan da guztira. Gauzak beti hobetu daitezkeen arren, adieraz daiteke gizarte babeseko sistema tinkoa dugula. Erreferentzia gisa aipatu behar da EAEko gastua estatu osoko gastuaren % 40,9 dela eta gure sistemak oztopo jarduten duela pobrezia egoeraren aurrean, % 37,5 murriztuta. Gertaera hori pobreziaren atalasaren azpian bizi diren biztanleen adierazlean islatzen da: Euskadin biztanle horiek % 10,8 dira; Estatuan eta EBn, berriz, % 21,8 eta % 16,9, hurrenez hurren.

Beraz, epe laburraz egin dezakegun behaketa kontuan hartuta, esan liteke krisiaren luzapena Euskadi ere jazartzen ari dela. Hala eta guztiz ere, jada ikusi ditugun maila publikoko zein familiaren babes-eremuko maila pribatuko elkartasun mekanismoak langabezia egoeraren eta bizi-baldintzen (besteak beste, pobrezia) gainerako ondorio zuzenenak arintzen ari dira.

Testuinguru zail horretan Enplegu Politika Aktiboak (EPA) garatzen eta aplikatzen lan egiten jarraitu da, 2011ren aldean haien zuzkidura % 14,8 handitu dela. Egia da mota horretako atzeraldietan EPAek enpleguaren gainean duten efektua kaltetzen dela jardueraren jaitsieragatik, baina kontua epe luzera hausnartu behar da, politika horien alde garrantzitsuena pertsonen kualifikazioa hobetzea baita. Horrela, beren gaikuntza lan-merkatuaren eskakizunetara egokituko dute, eta haien enplegagarritasuna handiagoa izango da, egoera ekonomikoa hobetzen doanean.

Dena den, luze azaldu diren egoeraren araberako alde horiek alde batera utzita, egiturari lotuta dauden epe luzerako beste kontu batzuk ere hausnartu behar ditugu, EAE nahiko indartsua dela horietan.

Lehenik eta behin, I+G+Bko gure bilakaera aipatu nahi dugu. 2003an gure I+Gko gastuak BPGd-aren gainean zuen tasa 17ko Euroaren Eremuko batezbestekoa baino 0,6 pp txikiagoa zen, baina 2010erako batezbesteko horren parean geunden, eta 2011n nahiko hurbil egon gara Frantziako mailatik. Egia esan, oraindik urrun gaude arloan liderrak diren lauzpabost herrialdeetatik, baina distantzia erlatiboari eusten jarraitzen dugu, nahiz eta krisiak gu gogorrago kolpatu. Beraz, nabarmendu behar da, krisian murgilduta egon arren, BPGd-aren gaineko gastuari eutsi ahal izan diogula, arlo hori beharrezkoa dela gure kanpoko lehiakortasuna defendatzeko eta oso abantailatsua izango dela Europa krisialditik irteten hasten denerako.

Hasierako iruzkin hau amaitu baino lehen, egiturazko beste alde bat aipatu nahi dut: hezkuntza. Izan ere, historikoki EAEk arreta berezia eman dio arlo horri, Jakintzaren Gizartean sartu ginenean konturatu baitzen funtsezko garrantzia zuela. Bai “Eskolatze tasa garbiak” bai “Eskola modu goiztiarrean uzteko tasak” eremuen adierazleak 15eko EBren parean daude, Europako helburuetatik gero eta hurbilago, hain zuzen. Horrez gain, Zientzia eta Teknologiako Goi mailako Hezkuntzako graduazio tasa ere handia da: EAEn % 26,6, Estatuan % 13,9 eta EBn % 15,2. Lanbide

Heziketaren garrantzi bereziak eta haren kudeaketa bereiziak aipatutako erreferentziek baino maila hobea izatea ahalbidetzen dute.

Sarrera honetan arreta berezia jarri nahi izan dut gizartearen kezka nagusi diren elementutzat jotzen ditudanen inguruan. Baina EAEko ekonomia eta gizarte bizitzak, gainera, interes eta garrantzi handiko alderdi asko ditu, irakurleak memoriaren egituraren bidez ezagutu ahalko dituenak.

Memoriak herritarrentzat, profesionalentzat, gizarte agenteentzat eta politikako arduradunentzat erreferente erabilgarria izaten jarraituko duelakoan nago. Pertsona horiek guztiak euskal gizartearen bilakaeran inplikatuta daude eta euren eguneroko lanarekin herri honentzako gizarte bidezko eta zuzenagoa lortzen laguntzen dute.

I. KAPITULUA

EAEn jarduera ekonomia garatzeko baliabideak

1. GIZA BALIABIDEAK EAE-N

1.1. DEMOGRAFIA ETA IMMIGRAZIOA


NBEk eskura dauzkan azken datuek diotenez, munduan 6.900 milioi biztanle bizi ziren (2010ean). Bestalde, EUROSTATEN zenbatespenen arabera, Europar Batasunean 503,7 milioi biztanle daude, 2012ko urtarrileko datuen arabera, hain zuzen 2011ko urtarrilean baino 1,2 milioi gehiago. Milako 2,4ko hazkunde horri esker -milako 2,7koa izan zen aurreko urtean-, beste urte batez eutsi ahal izan zaio 1960tik gertatu izan den etengabeko hazkunderako joerari, egungo Batasunaren populazioa 400 milioi biztanlekoa zenetik. Beste urte batez, bilakaera positiboa immigrazioaren portaerari zor zaio, aldaketa osoaren %33 baino ezin baitzaio egotzi berezko hazkundeari (jaiotzen eta heriotzen arteko alde positiboa).

I.1.1. KOADROA. EAEko BIZTANLERIAREN EGUNGO BILAKAERA 2007-2012.

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	Ald. 11-12
ARABA	305.459	309.635	313.819	317.352	319.227	322.557	+3.330
BIZKAIA	1.141.457	1.146.421	1.152.658	1.153.724	1.155.772	1.158.439	+2.667
GIPUZKOA	694.944	701.056	705.698	707.263	709.607	712.097	+2.490
EAE	2.141.860	2.157.112	2.172.175	2.178.339	2.184.606	2.193.093	+8.487

Iturria: INE. Biztanleen Udal Errolda.

I.1.1. GRAFIKOA. EAEKO BIZTANLERIAREN EHUNEKO BANAKETA, ADINEN ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA. 2012



Iturria. INEren datuekon landutakoa. Udal errolda.

Etorkizuneko bilakaerari dagokionez, EUROSTATek aurreikusten duenez, 27-EBko biztanleriak gora egingo du 2040an 526 milioi bizilagun izan arte. Jaiotzen urteko kopuruak behera egingo du aldi osoan, baina heriotza-kopuruak gora egingo du "baby boom" delakoko belaunaldiak zahartzearen ondorioz. Aurreikuspen demografiko horien arabera, biztanleria Batasuneko 27 herrialdeetako 14tan handitu egingo da eta gainbehera demografikoak bereziki eragingo die ekialdeko herrialdeei emigrazioagatik eta jaiotza-tasa txikiagatik. Espainian badirudi %13,7ko hazkundea jazoko dela, 2011ko biztanleriaren zifrekin alderatuz gero.

EAEn, Biztanleen Udal Erroldak[1] 2012ko urtarrileko erreferentziari buruz emandako azken datuen arabera, biztanle kopuruak 2000n hasitako goranzko bideari jarraitu dio, hazkundea gero eta txikiagoa bada ere. Zehazki, 2.193.093 pertsonako populazioa dago 2012an (2011n baino %+0,4 gehiago), hots, aurreko urtean baino 8.487 gehiago eta ia 78.000 gehiago 2005ean baino. Lurralde Historikoei dagozkien datuek erakusten dutenez, igoera nabarmenagoa dago Araban (%+1 azken urtean), eta neurri txikiagoan Gipuzkoan (%+0,4) eta Bizkaian (%+0,2).

Zifra horiei, gainera, EAEn erroldatuta dauden herritar atzerritarren %6,9 gehitu behar zaie (eta ia %8,4 atzerrian jaiotako herritarrak aintzat hartzen baditugu, nazionalizatutako pertsonak barne hartuko lituzkeena), 2011ko urtarrilaren 1eko %6,6ren aurrean. Horrek 3 hamarreneko aldaketa erlatiboa dakar. Epe berean, atzerritar biztanleriaren pisuak behera egin du apur bat estatu osoan (%12,2tik %12,1era), baina EAEko datua oraindik oso urrun dago Espainiako batez bestekotik -erroldaren azken eguneratzean 5,7 milioi

1 Biztanleen Udal Erroldako kopuruak ezin dira modu zorrotzean konparatu Biztanleriaren eta Etxebizitzaren zentsuko kopuruekin, metodologia diferentea daukatelako. Udal Errolda erregistro administratiboa da, eta Espainian dauden 8.000tik gora udaletako bakoitzak eratu, mantendu eta kudeatu behar du. Errolda horren datuak udal mugartean bizilekua eta egoitza izatearen froga dira, eta bere egiztapenak agiri publiko eta fede-emaileak dira, ondorio administratibo guztietarako. Aitzitik, Biztanleen Zentsua estatistika hutsa da, eta Estatistikako Instituzionalak egin behar du. Zentsuan ageri diren datuak sekretu estatistikoaren babespean daude. Erroldan, aldiz, pertsonak identifikatzea ezinbestekoa da.

atzerritar izan dira eta 6,75 herrialdetik kanpo jaiotakoak kontuan hartzen baditugu- eta, batez ere, beste erkidego batzuetatik; besteak beste, Balear Uharteetan, Valentziako Erkidegoan eta Madrilen atzerritarrak bertako biztanleriaren ehuneko oso handia dira.

Azkenik, EUSTATek EAErako egindako proiekzioek, 2020. urtea mugatzat jarriz, biztanleriaren bilakaera orokorra antzematen dute, baita bilakaeran eragina duten aldagai bakoitza ere. Heriotzen, ugalkortasunaren eta migrazioen etorkizunari buruz egindako hipotesiak oinarri hartuta, epe laburrera mende aldaketarekin hasi zen hazkunde txikiaren joerari eutsiko zaiola aurreikusi da, eta ondoren biztanleriaren kopuruak egonkorrak izango dira. Halaber, eta eraginezko haurrak nolabait berreskuratu diren arren, euskal gizartearen heltze- eta zahartze-prozesua biziagotuko da.

Hazkunde erritmoa pixkanaka moteltzea eragile biren uztarketaren emaitza izango da: alde batetik, lehenengo urteetan saldo begetatiboa apur bat positiboa izango da, baina joera aldatuko du 2014az geroztik, orduan heriotzen kopuruak jaiotzena gaindituko baitu berriro. Bestalde, migrazio saldoak positiboa izaten jarraituko du, baina neurri gero eta txikiagoan: 2007an 18.000 migratzaile garbi baino gehiago izatetik 2020an 4.000 baino zertxobait gehiago izatera igaroko da.


Azken bosturtekoetan gertatu den bezala, biztanleriaren bilakaera migrazio-saldoaren zeinuaren eta intentsitatearen araberakoa izango da batez ere. Horiek markatzen dute biztanleriaren hazkundearen abiadura. Grafikoan ikus daitekeen moduan, epe laburrera, jaiotzen eta heriotzen arteko aldeak mesede egingo dio hazkundeari baina ez da oso aipagarria izango. Alde horren zeinua aurki aldatuko da eta denboraldiaren amaieran saldo begetatiboa dela eta galerak sortuko dira, aurreko mendeko 90eko hamarkadan erregistratutakoak baino handiagoak. Zenbakiei buruz ari garela, hazkunde naturalak ia 15.000 biztanle kenduko ditu 2016 eta 2020 bitartean. Saldo begetatibo gero eta negatiboagoak eragindako galerak ezingo dituzte migrazioek orekatu, eta epe luzera aurreikusten da, joera horiei eutsiz gero, EAEn bizi diren biztanle guztien zenbatekoa berriz jaisteko fasean sartuko dela.

1.1.1. Oinarrizko adierazle demografikoen bilakaera

a) Biztanleriaren berezko mugimendua.

2011ko behin-behineko datuen arabera, hazkunde begetatiboa (biztanleriaren bariazioa, jaiotzen eta heriotzen arteko aldearen arabera, migrazio-mugimenduak aintzat hartu gabe) zortzigarren urtez jarraian positiboa izan da; hori gure erkidegoan ez zen gertatu 1986az geroztik: urte horretan 21.180 jaiotza gertatu dira, aurreko urtean baino %0,1 gehiago, eta 19.235 heriotza, 2010ean baino %0,6 gutxiago. Horren ondorioz, hazkunde begetatiboa +1.945 izan da, hots, milako 0,9koa.

I.1.2. GRAFIKOA. 2020rako EAEren PROIEKZIO DEMOGRAFIKOA: OSAGAIKA AURREIKUSITAKO HAZKUNDEA. MILAKA PERTSONAK



Iturria. EUSTAT. Proiekzio demografikoak.

I.1.2. KOADROA. JAIOTZAK ETA HERIOTZAK EBn MILA BIZTANLEKO 1975 ETA 2011.

	JAIOTZAK		HERIOTZAK	
	1975	2011	1975	2011
27-EB	14,7	10,4	10,7	9,6
ALEMANIA	9,9	8,1	12,6	10,4
AUSTRIA	12,4	9,3	12,7	9,1
BELGIKA	12,2	11,6	12,2	9,5
BULGARIA	16,6	9,6	10,3	14,7
ZIPRE	16,3	11,3	9,8	6,5
DANIMARKA	14,2	10,6	10,1	9,4
ESLOVAKIA	20,6	11,3	9,5	9,6
ESLOVENIA	16,6	10,7	10,1	9,1
ESPAINIA	18,8	10,2	8,4	8,4
ESTONIA	14,9	11,0	11,6	11,4
FINLANDIA	13,9	11,1	9,3	9,4
FRANTZIA	14,1	12,6	10,6	8,4
GREZIA	15,7	9,4	8,9	9,8
HOLANDA	13,0	10,8	8,3	8,1
HUNGARIA	18,4	8,8	12,4	12,9
IRLANDA	21,1	16,3	10,4	6,3
ITALIA	14,9	9,0	10,0	9,8
LETONIA	14,2	9,1	12,2	13,8
LITUANIA	15,7	11,3	9,5	13,5
LUXENBURGO	11,1	10,9	12,2	7,4
MALTA	18,8	10,3	9,5	7,9
POLONIA	19,0	10,1	8,7	9,8
PORTUGAL	19,8	9,2	10,8	9,8
ERRESUMA BATUA	12,4	12,9	11,8	8,8
TXEKIAR ERREP.	19,1	10,4	12,4	10,2
ERRUMANIA	19,6	9,2	9,3	10,8
SUEDIA	12,6	11,8	10,8	9,5
EAE	19,1	9,7	7,1	


Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.

I.1.3. KOADROA. EAEko BIZTANLERIAREN MUGIMENDU NATURALA

	Bizirik jaiotakoak	Tasa	Heriotzak	Tasa	Hazkunde begetatiboa	Tasa
2004	19.594	9,3	18.684	8,9	910	0,4
2005	19.715	9,3	19.425	9,2	290	0,1
2006*	20.043	9,4	18.507	8,7	1.536	0,7
2007*	20.596	9,6	19.252	9,0	1.344	0,6
2008*	21.315	9,9	19.437	9,0	1.878	0,9
2009*	20.928	9,7	19.624	9,1	1.304	0,6
2010*	21.159	9,7	19.357	8,9	1.802	0,8
2011*	21.180	9,7	19.235	8,8	1.945	0,9

(*) Behin-behineko datuak. Mila biztanleko tasak.
Iturria: EUSTAT "Jaiotzen eta Heriotzen Estatistika" eta testuaren egileak egindakoa.

I.1.3. GRAFIKOA. JAIOTZA-TASEN BILAKAERA LURRALDEKA, ETA EZKONDU GABEKO AMENGANDIK JAIOTAKOEN EHUNEKOAREN BILAKAERA.



Iturria.- EUSTATen datuekin egindakoa.

EAEko hazkunde begetatiboak 14 urtez jarraian behera egiteko joera adierazi zuen eta, behin betiko daturik lortu ezean, azkenean ere badirudi 2004an gelditu egin zela. Hala ere, joera hori baieztatu egin beharko da hurrengo urteetan. 60ko hamarkadan eta 70ekoaren hastapenetan gertatu ziren saldo begetatibo positibo indartsuen ostean, 1990a negatiboa izan zen lehen aldiz 1937tik, eta 1996an saldorik txikienera iritsi zen, urte hartan EAEk 2.000 biztanletik gorako hazkunde begetatibo negatiboa izan baitzuen.

Beraz, ikusten denez, saldo begetatibo positiboa izan da 2011n jaiotzak arinki handitu direlako eta heriotzak, berriz, erori direlako: +%0,1 eta -%0,6 hurrenez hurren. Gainera, ohikoa denez, 2011ko portaerak aldeak izan ditu lurraldeen arabera: Bizkaiak, saldo positiboak berreskuratzeko atzeratuago egonda, urte horretan 38 biztanle irabazi ditu, behin-behineko datuen arabera, Gipuzkoak eta Arabak beste urte batez euren joera positiboak sendotu dituzten bitartean, hurrenez hurren, 898 eta 1.009 biztanle gehiago izanik.

2011n hiru lurraldeetako jaiotzek zeinu eta intentsitate desberdineko bilakaera izan zuten; alde batetik, Araban 3.429 haur jaio ziren (+%2,5), eta Bizkaian, aldiz, 10.687, aurreko urtean baino %0,8 gehiago. Gipuzkoan, aldiz, 7.064 jaiotza izan ziren, 2010ean baino %2,1 gutxiago. Emaitza horiek EAE osorako milako 9,7ko jaiotza-tasa egiten dute, aurreko urtearen antzekoa. Antza denez, 1995ean hasitako jaiotza-tasaren gorakada sendotzen ari da. 60ko

hamarkadan kopuru hori milako 20tik gorakoa zen, eta Estatuko batez bestekotik gorago zegoen. Gaur egun, igoera gertatu arren, EAEk estatuko eta EBko batez bestekoak (milako 10,2 eta 10,4, hurrenez hurren) baino tasa baxuagoei eusten die.

Lurraldez Lurralde, Bizkaiaren jaiotza-tasa milako 9,2 da –azken hiru urteetan konstantea izan da-, Arabarena milako 10,6, eta Gipuzkoarena milako 10.

Horrez gain, jaiotza-tasak oso desberdinak dira amaren herritartasuna kontuan hartzen bada. 2011n bizirik jaio ziren 21.180 haurretatik 3.429k ama atzerritarra dute, alegia, jaiotakoen %16,2k (%16 2010ean), herritartasun atzerritarra duten biztanleen proportzioa txikiagoa denean, dagoeneko ikusi den moduan. Horrek esan nahi du etorkinen jaiotza-tasa milako 20koa dela, bertakoaren milako 8,2koaren aurrean. Proportzio horiek azken urteotan ohikoak ari dira izaten.

Beste urte batez, azpimarratu behar da ama ezkongabeengandik jaiotakoen portzentajea gero eta handiagoa dela. 2011n ezkontzatik kanpo jaiotakoak 7.270 izan ziren, guztien %34,3 (%32,8 aurreko urtean). Bizkaia izan zen EAEn ehuneko handiena izan zuen lurraldea (%35,4) eta Araban eta Gipuzkoan balio erlatibo txikiagoak izan ziren (%34,1 eta %32,8 hurrenez hurren). Egungo ehunekoa 1990ekoarekin (%7,7) alderatuz gero, ikusten da ama ezkongabeengandik jaiotako haurren ratioa ia boskoiztu egin dela. Herrien arabera, EBko ehunekoak Estonia (%59,6) eta Esloveniako (%56,8) mailen eta Zipre (%16,9) edo Greziakoen (bizirik jaiotakoen %7,4) artean mugitzen dira. Batasuneko batez bestekoa %39,5 da, eta bertatik kanpo, nabarmentzekoa da Islandiako ratio handia. Bertan, 2011n jaiotakoen %65en amak ezkongabeak izan ziren.

Beste alde batetik, EUROSTATen datuek diotenez, 2011n guztira 5,23 milioi jaiotza izan ziren EBn, aurreko urtean baino 130.000 gutxiago, eta hirugarren urtez jarraian jaitsia da kopurua, 2000 eta 2008 bitartean egondako joera positiboaren ostean. Jaiotza-tasarik handienak Irlandan eta Erresuma Batuan izan dira (milako 16,3 eta 12,9, hurrenez hurren). Tasarik txikiena, aldiz, Alemanian izan da (milako 8,1) eta, bigarren postuan, Hungarian (milako 8,8). Espainian milako 10,2koa da.

Azken urteetan jaiotza-tasa jaisteari mesede egin dion faktoreetako bat, jakina den bezala, amatasuna pixkanaka atzeratu izana da. 2011n joera bera egon da, eta haurrak izan zituzten emakumeen %79,6k 30 urte edo gehiago zituzten. Talderik jendetsuena 30 eta 34 urte bitarteko emakumeena da, jaiotza guztien %41,6 hartzen baitu. Halaber, 35 urtetik gorako amek izandako haurren jaiotza kopuruak (%38) handitzen jarraitzen du, eta 25 eta 29 urte arteko taldea (%14,7) nabarmen gainditzen du. Amen batez besteko adina 32,8 urte izan zen; ama hasi berriena, aldiz, 31,9 urte izan zen. Zifra horiek azken bi urteetako kopuruen antzekoak dira. Horrela, EAEn bizi diren ama lehenerdiak EBkoak baino nagusiagoak dira. Halaber, beste urtebetez 25 urtez azpiko amen pisua murrizten da, guztien %5,7 dira (%6,1 2010ean).


Bestalde, INEren Jaiotzen Estatistikak jaiotakoen aiten adina ere jakitea ahalbidetzen du: haietako gehienak, %37,4, 2011n 35 eta 39 urte artekoak ziren, eta haien atzean dago 30 eta 34 urte artekoen taldea, %32,7.

Heriotzei dagokienez, 2011n EAEn 19.235 lagun zendu ziren, aurreko urtean baino %0,6 gutxiago; haietatik, %51,7 gizonak eta %48,3, aldiz, emakumeak. 2011n zendutakoen %31,7 tumoreengatik hil ziren. Haien atzean, zirkulazio sistemaren gaitzak datoz, %28,3, eta hirugarren tokian, urrunago, arnas eritasunak, %8,8[2].

Halaber, EUSTATen Heriotzen Estatistikak hauxe agertu du: 2011n EAEn hildakoen batez besteko adina 78,1 urte zen, 74,8 gizonezkoena eta 81,7 emakumezkoena, bizitza-luzeagoa izaten baitute. Hala, azken hamarkadan gure autonomian bizi-itxaropena gizonentzat 3,4 urte handitu da eta emakumeentzat, berriz, 1,8.


2 Memoria Sozioekonomiko honetako "Osasuna eta osasun sistema" kapituluan euskal biztanleriaren heriotzen arrazoiak zehazki aztertzen dira.

I.1.4. GRAFIKOA. JAIOTZEN BILAKAERA AMAREN ADINAREN ARABERA. EAE.




Iturria.- EUSTAT. Jaiotzen estatistika.

I.1.6. GRAFIKOA. EAEn HILDAKO PERTSONEN BATEZ BESTEKO ADINAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA.



Iturria.- EUSTAT. Heriotzen estatistika.

I.1.5. GRAFIKOA. 1905. eta 1970. URTEEN ARTEAN JAIOTAKO EMAKUMEEK IZANDAKO SEME-ALABA KOPURUA ETA AMATASUNAREN BATEZ BESTEKO ADINA. EAE .2011



Iturria. EUSTAT. Inkesta demografikoa 2011. .

Europar Batasuneko datuei dagokienez, 2003an lortu zen mailarik altuena, ia 5 milioi zentze; hori milako 10,5eko tasa gordina da, EAEn urte horretan 9,2koa izan zen bitartean. Jaisteko ageriko joeren barruan EBko heriotzen kopuruek urtero gorabehera handiak izaten dituzte, hortaz, urte batzuk itxaron beharko dira joera hori baieztatzeko. 2011ko datuen arabera, 4,8 milioi pertsona hil ziren, aurreko bost urteetan bezalaxe (milako 9,6), eta, beraz, hazkunde begetatiboa edo berezkoa (jaiotzak ken heriotzak) 400.000 lagun ingurukoa izan zen Batasunean.

Beste alde batetik, EUSTATen Inkesta Demografikoak, zeina zentsuen artekoa baita, informazioa ematen du familien osaketaz, tamainaz eta seme-alaben kopuru eta haien arteko urte-aldeaz, baita ere beste zenbait ezaugarriren gainean, gertakizun demografikoetara hurbiltzeko atzera begirako metodoa erabiliz. Euskal emakumeen ugalkortasunari dagokionez, 2011ko Inkestaren datuek agerian utzi dutenez, 50eko hamarkadako bigarren zatian jaiotako emakumeak dira belaunaldien arteko ordezkatzea lortu zuten azkenak, hots, batez beste 2,1 seme-alaba izan zituzten. Hurrengo belaunaldien seme-alaba kopuruak behera egin du pixkanaka. Hala, 1966 eta 1970 urte bitartean jaiotako emakumeek 1,4 seme-alaba izan zituzten, ugalkortasun historia osotzat har daitezkeen azkenak hain zuzen.

Halaxe gertatzen da Europako ia herrialde guztietan, non 1950etik aurrera jaiotako emakumeen seme-alaben kopuruaren jaitsiera orokorra ikusten den, eta ez da lortu belaunaldien arteko ordezkatzea 60ko amaieratik aurrera jaiotako belaunaldietan, Eskandinaviako herrialdeetan izan ezik. Indizerik txikienak dauzkaten herrialdeen artean Alemania nabarmentzen da. 1968an jaiotako emakumeen seme-alaba kopurua 1,4 da; apur bat handiagoa Italian (1,5 seme/alaba), Austrian (1,6), Grezian eta Portugalen (bietan 1,7).

Beste alde batetik azken belaunaldien amatasunaren batez besteko adina belaunaldirik zaharrenenaren antzekoa da, 75 urte eta gehiago dauzkatenena, baina kasu honetan, hori gertatzen zen hirugarren seme edo alaba eta gerokoak guztizkoaren ia %50 zirelako, eta aldiz, 2011n 40 eta 50 urte bitarteko adina zuten emakumeen artean, hirugarren seme edo alaba edo gerokoak ez dira iristen ondorengoen %10era. Belaunaldirik berrienetan, lehenengo haurra jaiotzeko adina 29 urteen ingurukoa da, eta belaunaldirik zaharrenenetan, ia-ia 27 urtekoa.

I.1.4. KOADROA. MIGRAZIO-SALDOEN BILAKAERA EAE-N

	ATZERRI-AREKIN	ESTATU-KO GAINE-RAKO LURRAL-DEEKIN	GUZTIZKO / KANPOKO MIGRAZIO SALDOA*			
			EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZ-KOA
2005	14.742	-1.478	13.264	3.028	7.603	2.633
2006	18.134	-3.676	14.458	3.271	8.021	3.166
2007	19.884	-2.192	17.692	4.224	9.209	4.259
2008	14.903	1.898	16.801	4.207	8.773	3.821
2009	9.802	3.452	13.254	3.670	7.394	2.190
2010	9.342	3.686	13.028	3.902	6.562	2.564
2011	8.689	6.297	14.986	3.704	8.333	2.949

(*) Estatuarekiko eta atzerriko herrialdeekiko migrazio-saldoarekin batuketa.
Iturria: EUSTAT. "Migrazio Mugimenduen Estatistika".

b) Migrazio mugimenduak.

EUSTATen 2011ri buruzko "*Migrazio mugimenduen estatistikak*" 14.986 laguneko hazkundea zenbatu du gure erkidegoan urte horretan (aurreko urtean baino %15 gehiago), eta hamabi urtez jarraian migrazio saldoa positiboa izan da. Lurraldeka, Bizkaiak, 8.333 lagun irabazita, migrazio saldorik handiena dauka zenbaki absolutuetan, %27 igo da 2010aren aldean. Bestalde, Arabak 3.704 lagun irabazi ditu (-%5, 2010eko saldoarekiko) eta Gipuzkoak 2.949 (+%15).

Era berean, azken 20 urteetan laugarren urtez jarraian EAEn beste erkidegoetatik iritsitako immigrazio gehiago gertatu dira haietarako emigrazioak baino, eta horrela estatuarekiko migrazio saldoa positiboa izan da (+6.297).

Hala ere, ezin dugu ondorioztatu saldo hori aurreko urteen aldean joera aldaketa denik. Horretarako gutxienez hurrengo bosturtekoan erregistratuko diren datuen sail historikoa ikusi beharko da, horri buruzko hipotesiak egiteko.

Baina azpimarragarria da aurreko urteetako bilakaera, haietan EAE eta Estatuaren arteko migrazio saldoa negatiboa izan baita etengabe eta beti. Zentzu horretan, erreferentzia gisa 1997-2007 hamarkada hartuta, saldoa negatiboa da, ia-ia 35.000 lagunekoa.

Kopuru horiek are deigarriagoak dira EAEren eta atzerriaren arteko migrazio saldoarekin erkatuz gero, aldi berean positiboa izan baita, 106.000 lagunekoa. Ematen du 2008an gertatu zela joera-aldaketa. Harrez geroztik, saldo biak positiboak dira, eta ordutik 2011ra arte, 15.000 eta 43.000 pertsonako kopuru garbia etorri da gutxi gora behera Estatuko gainerako aldeetatik eta atzerritik, hurrenez hurren (58.000 pertsona guztira).


Europar Batasun osoko joerei buruz EUROSTATen datuek zera agertzen dute: 90eko hamarkadan nahiko jaitsiera handiko aldiaren ondoren, EBn nazioarteko migrazio-mugimenduen saldo positiboa 2003an bi milioi pertsona gehiagoren bidez hazi zen, finkatutako datuen arabera. Bestalde, 2011n migrazio saldoa mantendu egin da 2010arekin alderatuz gero, 0,8 milioi lagunekoa (-0,9 milioi aurreko urtean); migrazio tasa gordina milako 1,8koa izan da 27-EBrako eta milako 2koa eurogunerako. Saldo positibo horren %83 hiru herriri dagokie: Italia, Alemania eta Erresuma Batua. Bestalde, Batasuneko bederatzi herrik (Bulgaria, Irlanda, Grezia, Espainia, Letonia, Lituania, Polonia, Portugal eta Errumania) migrazio saldo negatiboak dauzkate.

I.1.5. KOADROA. AUTONOMIA ERKIDEGO BAKOITZEKO FENOMENO DEMOGRAFIKOAK 1.000 BIZTANLEKAKO TASA. 2011.

	Jaiotza-tasa	Heriotza-tasa	Ezkontza-tasa	Ezkontza-desegiteen tasa
ANDALUZIA	10,38	7,95	3,43	2,34
ARAGOI	9,58	10,48	3,27	1,89
ASTURIAS	7,30	12,08	3,75	2,55
BALEAR UHARTEAK	10,40	7,15	3,71	2,61
KANARIAK	8,16	6,32	2,62	2,86
KANTABRIA	9,18	9,75	3,78	2,30
GAZTELA ETA LEON	8,00	10,95	3,11	1,76
GAZTELA-MANTXA	10,41	8,92	3,52	1,78
KATALUNIA	11,13	8,24	3,65	2,63
VALENTZIAKO E.	9,90	8,13	3,35	2,70
EXTREMADURA	9,20	9,81	3,32	1,70
GALIZIA	7,94	11,20	3,38	2,18
MADRIL	11,04	6,55	3,87	2,40
MURTZIA	11,81	7,04	3,22	2,22
NAFARROA	10,77	8,15	3,58	1,89
EAE	9,80	9,33	3,88	2,00
ERRIOXA	10,13	8,97	3,46	1,94
CEUTA	14,85	6,54	5,65	2,34
MELILLA	18,66	6,33	4,31	2,71
GUZTIRA	10,16	8,40	3,50	2,34


Iturria: INE.

I.1.7. GRAFIKOA. MIGRAZIO-SALDOEN BILAKAERA EAE-N



Iturria.- EUSTAT. Migrazio mugimenduen estatistika.

I.1.8. GRAFIKOA. EAEKO MIGRAZIO-SALDAREN BILAKAERA, IKASKETA-MAILAREN ARABERA. BOST URTETIK GORAKO PERTSONAK.



Iturria.- EUSTATen datuekin landutakoa. Migrazioa mugimenduen estatistika.

Bestalde, 2011n, 198.972 lagunek, aurreko urtean baino %0,6 gehiagok, bizileku aldaketaren bat egin zuten EAEn (EAEko biztanleen %9,2); mugikortasun horren %46,5 udal beraren barruan izan zen eta %24,5 EAEko bi udalerriren artean. Gainontzekoetatik, 36.366 mugimendu kanpoko immigrazio lirateke (jatorria erkidegotik kanpo eta helmuga EAE) eta 21.380 kanpoko emigrazio (jatorria EAE eta helmuga handik kanpo, haietatik 4.019ren helmuga atzerrian).

Barneko migrazioei, hau da, EAEn abiapuntu edo helburu dauzkaten biztanleria-mugimenduei dagokienez, argigarria da azterketa Lurralde Historikoen arabera zehaztea.

I.1.6. KOADROA. BARNEKO MIGRAZIOAK, ABIAPUNTUKO ETA HELBURUKO LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2011

	Helburua							
	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
Jatorria		%		%		%		%
EAE	48.779	100,0	4.365	100,0	29.694	100,0	14.720	100,0
Araba	4.209	8,6	2.751	63,0	938	3,2	520	3,5
Bizkaia	30.001	61,5	1.129	25,9	27.769	93,5	1.103	7,5
Gipuzkoa	14.569	29,9	485	11,1	987	3,3	13.097	89,0

Iturria: EUSTAT. Migrazio-mugimenduen Estatistika

Lehenengoz, Bizkaiko biztanleriak Euskadi osoan daukan garrantziagatik espero daitekeen moduan, barneko biztanleria-mugimendu gehienak Lurralde horretatik etortzen dira (Euskadiren barruan mugitzen diren 3 lagunetatik ia-ia 2 Bizkaikoak dira).

Beste datu esanguratsu bat hau da: hiru Lurraldeetako bakoitzera migratzen dutenak, batez ere euren probintziatik bertatik etortzen dira, batik bat Bizkaiaren eta Gipuzkoaren kasuetan, eta Araban ere bai, neurri txikiagoan bada ere. Zenbakitan azalduta: Bizkaiko udalerriaren batera migratzen dutenen %93,5 Bizkaiko beste udalerri batekoak dira; Gipuzkoako udalerriaren batera migratzen dutenen %89 Gipuzkoako beste udalerri batekoak dira; eta Arabako udalerriaren batera migratzen dutenen %63 Arabako beste udalerri batekoak dira.

Kanpoko edo erkidegotik kanpoko mugikortasun geografikoari dagokionez, 2011n EAEko mila biztanleko 26,6ri eragin die (Araban milako 32,9, Bizkaian milako 27,3 eta Gipuzkoan milako 22,5); tasa horiek nahiko txikiak dira gainontzeko autonomia erkidegoekin erkatuz gero, haietan, batez beste, mila biztanleko 40 mugitzen baitira. Galizia izan ezik, estatuko gainontzeko autonomia erkidegoek biztanle gehiago ematen diote EAEri bertatik jaso baino; EAEko emigranteentzako erakarpen poloak, ordea, honako erkidegoak dira, ordenan: Madril, Kantabria, Katalunia, Nafarroa eta Andaluzia. Sei erkidego horien artean EAE uzten duten pertsonen %66 jasotzen dute.

Azkenik, 2011n atzerriko naziotasuna dutenen immigrazioak 20.863 izan dira, 2010ean baino 679 gutxiago, eta gure erkidegorako sarreren %57 izan dira. Atzerritarren emigrazioak, berriz, 2011n 5.873 lagunenak izan ziren, 2010ean baino 239 gehiago.

Titulazioari dagokionez, EAEren migrazio-saldoa positiboa da ikasketa-maila guztietarako (hau da,

kontuan hartutako edozein ikasketa-mailatarako, gure Erkidegora etorritako immigrante gehiago erregistratzen dira aldi horretan bertan emigratzen duten pertsonak baino). Gainera, titulu-maila apalenetakoak (lehen mailako ikasketak edo beheragokoak) dira immigrazioen %80 eta emigrazioen %78; goi-mailako tituluetan, ordea, emigrazioen %9 eta immigrazioen %10 eman ziren. Hala, gure erkidegora 2011. urtean heldu ziren 5 urtetik gorako 33.868 pertsonatik 3.016k erdi- edo goi-mailako ikasketak edo goi-mailako ikasketak zituzten (%8,9). Emigratu zuten pertsonen kasuan, 5 urtetik gorako 20.125 pertsonatik 1.969k zituzten aipatu ikasketak, alegia, %9,8k. Hortaz, ikasketa maila altuenetan 1.047ko migrazio-saldo positiboa erregistratzen da (-%46 2010arekin alderatuta). Saldo hori, gainera, positiboa da etenik gabe 1997. urtetik.


Goi mailako pertsonen arteko saldo positibo horren arrazoia izan daiteke unibertsitateko tituludunak EAEtik irtetea trebakuntza maila handia daukaten immigranteak heltzearekin konparatzen ari garela. Izan ere, immigrante horien titulazioak homologatuta ez daudenez, ezin dituzte erabili lan-merkatuan sartzeko (gogoratu behar da Inkesta horren informazioa Udal Erroldatik ateratzen dela, eta errolda horretan erregistratzen den ikasketa-maila inskribatutako pertsonak deklaratzen duena dela, egiaztagiririk aurkeztu behar izan gabe).

Gainera, EUSTATen datuek erakusten duten fenomeno bat da goi mailako hezkuntza daukaten gazteek gaur egungo krisiaren ondorioz eta gure Erkidegotik kanpo –gehienetan beste herri batzuetan– lan-aukeren bila emigratzea. Azken lau urteetan, hau da, 2008-2011 aldian, erdi-goi mailako eta goi mailako titulazioak zeuzkaten 12.144 pertsonek emigratu zuten EAEtik kanpo (haien artean 1.969k azken urtean), aldi horretan gure erkidegotik joan ziren 5 urtetik gorako pertsonen %15ek.

Hala ere, grafikoan ikusten denez, EUSTATen inkestak era berean erakusten du gure erkidegotik joaten diren goi mailako tituludunen kopururik handiena 2006an izan zela (3.373). Gerora, aldi labur batean gora egin zuen 2008an, baina orduz geroztik eta 2011ra arte (eskuragarri dagoen azken datua) jaitsi da. Horrek zera erakusten du: krisi garaian (2008tik aurrera), kanpoaldera joan diren goi mailako tituludunen fluxua (behintzat errolda-lekua aldatu dutenenena) beherakorra da.

Azkenik, Migrazio-mugimenduen Inkestak agerian jarri duenez, immigranteen eta emigranteen batez besteko adina diferentea da (32,1 eta 35,7 urte, hurrenez hurren).

I.1.9. GRAFIKOA. EAE-KO MIGRAZIO-SALDAREN BILAKAERA, IKASKETA-MAILAREN ARABERA. BOST URTETIK GORAKO PERTSONAK



Iturria.- EUSTAT-en datuekin landutakoa. Migrazio mugimenduen estatistika. Datu Bankua.

c) Ezkontza-tasa.


Ezkontzen Estatistikak, Jaiotzenak eta Heriotzenak bezala, Biztanleriaren Mugimendu Naturala osatzen du. Estatistika aspaldikoa izanik, garai horretan eman diren aldaketa demografikoak hobeto ezagutzea ahalbidetzen du. Elizako agiritegiei esker Estatuak 1861etik aurrerako informazioa lortu du.

EUSTATen datuek diotenez, 2011n EAEn 8.743 ezkontza izan ziren, 2010ean baino %3,7 gutxiago. Haien artetik 8.593 sexu diferenteko pertsonen artean izan ziren eta 150 sexu bereko pertsonen artean.

Ezkontzeko eskubideari dagokionez Kode Zibila aldatzen duen uztailaren 1eko 13/2005 estatu Legearen onarpenaren hurrengo urteetan sexu bereko ezkontzek izan duten bilakaeraren eskema honela laburbil daiteke: abiatze txikia 2005ean (legea urte horren erdialdean onartu zen), eklosioa 2006an, jaitsiera 2007an eta egonkortzea 2008tik gaur arte.

Beste alde batetik azpimarratzekoa da nabarmen egin duela gora ezkontza zibilen kopurua. 1990ean %23 zen, eta 2011n, aldiz, %66,8. Estatuko gainerako Erkidegoei dagokienez, EAE bosgarren lekuan dago, Melillaren, Kataluniaren eta artxipelago bien atzetik.

I.1.10. GRAFIKOA EZKONTZA ZIBILEN EHUNEKOAREN BILAKAERA EAE-N




Iturria. EUSTAT. Exkontzen estatistika.

Guztira, EAEn 2011n 5.739 elkartze zibil egon dira, 2.837 ezkontza katolikoen eta beste erlijio batzuetako 17en aurrean. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoan izan zuten pisurik handiena ezkontza zibilek (%70,4), eta haren atzean Bizkaian (%67,9) eta Araban (%66,3). Gainera, nabarmentzekoa da ezkontzeko adina atzeratzeko joerak dirauela. Izan ere, erreferentziazko urtean, ezkondu ziren gizonezko ezkongabeen batez besteko adina 34,5 urte zen, eta emakumezkoena, berriz, 32,6. Azken 25 urteetan, 1987tik, senarren batez besteko adinak gora egin du 7 urte, eta emazteenak 7,4.

EAEko ezkontza-tasa 2011n 1.000 biztanleko 3,7 ezkontza izan zen. Estatu osoan, aldiz, 1.000ko 3,4. Dena dela, Europar Batasunekoa –1.000ko 4,4 2010ean– baino txikiagoa da. Ezkontza-tasarik handienak dauzkaten Europako herriak, 2011rako behin-behineko datuekin, Zipre (7,3) eta Lituania (6,3) dira. Ratiorik txikienak dauzkatenak, aldiz, Bulgaria (1.000 biztanleko 2,9 ezkontza) eta Eslovenia (1.000ko 3,2) dira.

Beste alde batetik, EUSTATen Inkesta Demografikoari esker, ezkontza-tasak ondoz ondoko belaunaldietan izan duen bilakaera ikus dezakezu. Hala, 2011ko emaitzek agerian jarri dutenez, gizonen artean, behin betiko ezkongabeen ehunekorik txikiena (50 urte betetzean ezkongabe direnen %5) 1926 eta 1930 bitartean jaioen artean ikusi zen; emakumeen artean, berriz, Gerra Zibilaren urteetan jaiotako belaunaldien artean ikusi zen.

I.1.11. GRAFIKOA. 50 URTEKO ADINEAN EZKONGABE DAUDENEN PROPORTZIOA, JAIOTZA-URTEAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EAE, 2011.



Iturria.- EUSTAT. Inkesta demografikoa 2011.

I.1.7. KOADROA. 100 EZKONTZAKO DIBORTZIO KOPURUAREN BILAKAERA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA.

	2007	2008	2009	2010
ANDALUZIA	57,20	57,74	65,41	72,58
ARAGOI	54,47	55,39	58,01	60,63
ASTURIAS	72,05	63,32	65,13	67,69
BALEAR UHARTEAK	77,22	74,66	71,67	76,31
KANARIAK	116,91	109,93	108,56	116,30
KANTABRIA	54,80	54,00	53,41	59,64
GAZTELA ETA LEON	49,22	48,54	54,12	56,65
GAZTELA-MANTXA	46,97	44,43	49,07	54,99
KATALUNIA	77,80	70,99	74,67	78,14
VALENTZIAKO E.	72,19	71,38	74,59	82,98
EXTREMADURA	47,88	43,70	45,46	53,98
GALIZIA	66,13	64,38	65,40	69,43
MADRIL	62,74	60,58	63,38	65,32
MURTZIA	52,02	58,57	66,30	70,97
NAFARROA	48,17	48,71	49,27	55,19
EAE	55,07	50,56	51,52	52,41
ERRIOXA	58,22	49,47	49,22	56,39
GUZTIRA	63,92	61,77	65,46	70,14

Iturria: INE. Gizarte adierazleak 2011.
** Urtean banantzen ezkontzen eta egiten diren ezkontzen arteko erlazioa.*

I.1.8. KOADROA. EZKONTZA ZIBILEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA GUZTIEN GAINEAN, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA

	1991	2001	2009	2010
ANDALUZIA	14,47	19,27	41,39	44,62
ARAGOI	18,99	22,92	48,61	51,45
ASTURIAS	21,26	31,73	55,76	57,15
BALEAR UHARTEAK	29,10	36,92	68,18	72,51
KANARIAK	28,50	35,66	66,82	67,40
KANTABRIA	17,94	27,02	51,22	53,56
GAZTELA ETA LEON	13,89	22,43	45,14	47,56
GAZTELA-MANTXA	8,47	15,84	39,04	43,14
KATALUNIA	28,77	36,24	73,10	76,18
VALENTZIAKO E.	24,62	27,21	59,19	63,69
EXTREMADURA	11,44	15,67	34,25	39,28
GALIZIA	14,41	24,86	51,45	54,52
MADRIL	25,65	27,89	55,40	59,13
MURTZIA	16,34	19,56	41,09	45,60
NAFARROA	19,05	25,43	53,57	56,02
EAE	25,19	33,09	59,76	64,70
ARABA	23,78	32,66	58,01	59,86
GIPUZKOA	24,87	34,72	57,79	64,49
BIZKAIA	25,71	32,16	63,30	67,19
ERRIOXA	18,64	23,85	51,20	52,58
CEUTA	32,33	47,85	64,23	60,20
MELILLA	61,27	73,79	75,55	73,20
GUZTIRA	20,89	26,64	54,06	57,62

Iturria: INE. Gizarte adierazleak 2011.

I.1.9. KOADROA. EUROPAR BATASUNEKO EZKONTZAK. ADIERAZLEAK 1.000 BIZTANLEKO.

	EZKONTZAK		DIBORTZIOAK	
	2010	2011	2010	2011
27-EB	4,4	-	1,9*	-
ALEMANIA	4,7	4,6	2,3	2,3
AUSTRIA	4,5	4,3	2,1	2,1
BELGIKA	3,9	4,1	2,7	2,9
BULGARIA	3,2	2,9	1,5	1,4
ZIPRE	7,3	7,3	2,3	2,3
DANIMARKA	5,6	4,9	2,6	2,6
ESLOVAKIA	4,7	4,7	2,2	2,1
ESLOVENIA	3,2	3,2	1,2	1,1
ESPAINIA	3,6	3,4	2,2	2,2
ESTONIA	3,8	4,1	2,2	2,3
FINLANDIA	5,6	5,3	2,5	2,5
FRANTZIA	3,9	3,6	2,1	2,0
GREZIA	5,0	4,9	1,2*	-
HOLANDA	4,5	4,3	2,0	2,0
HUNGARIA	3,6	3,6	2,4	2,3
IRLANDA	4,6	4,3	0,7	0,7
ITALIA	3,6	3,4	0,9	-
LETONIA	4,1	5,2	2,2	4,0
LITUANIA	5,7	6,3	3,0	3,4
LUXENBURGO	3,5	3,3	2,1	-
MALTA	6,2	6,1	-	0,1
POLONIA	6,0	5,4	1,6	1,7
PORTUGAL	3,8	3,4	2,6	2,5
ERRESUMA BATUA	4,5	-	2,1	-
TXEKIAR ERREP.	4,4	4,3	2,9	2,7
ERRUMANIA	5,4	4,9	1,5	1,7
SUEDIA	5,3	5,0	2,5	2,5
EAE	3,9	3,7	1,9	1,9

Iturriak: EUROSTAT, EUSTAT eta INE
** 2009ko datua.*

Orduz geroztik gora egin du ehuneko horrek. 50 urte betetzean ezkongabe direnak %25 dira gizonen artean, eta emakumeak %17, euren ezkontza-historia osatu dutela jo daitekeen azken belaunaldien artean, 1966 eta 1970 artean jaiotakoen artean, alegia.

Horrek ez du esan nahi bikoteen eraketak ere neurri berean behera egin duenik. Hain zuzen ere, 1966 eta 1970 bitartean jaio ziren eta bikotekidearekin bizi diren belaunaldietan, %12 izatezko bikoteak dira. 20 urte lehenago jaiotakoetan, ordea, ez ziren %1,5era iristen. Nabarmentzekoa da, halaber, estatistika eragiketa horren arabera, izatezko bikoteen ugalkortasuna nahiko txikia dela. Izan ere, 2011n bikote horien %48k soilik izan zituen haurrak.

Gizonak aldiz ezkontzen diren batez besteko adinak gora egin du Gerra Zibilean jaiotako belaunaldietatik, 29,2 urterekin, 30,5 urtera arte 1966 eta 1970 bitartean jaiotakoentzat; dena dela, batez besteko adin

horiek 1936 baino lehen jaiotako belaunaldienak ere ziren. Emakumeak ezkontzen diren batez besteko adinak, aldiz, mailarik handiena 1966 eta 1970 bitartean jaio direnentzat dauka, 28,1 urterekin, hau da, bost urte lehenago jaiotakoak baino urtebete gehiago; aurreko belaunaldien artean, emakumeak ezkontzen diren batez besteko adina 26,6 urte zen.

Azkenik, INEren "*Baliogabetzeen, banantzeen eta dibortzioen estatistika*" delakoak dibortzio eta banantzeen jaitsiera erakusten du, bai gure erkidegoan bai Estatu [3] osoan. Zehazki, 2011n EAEn 4.127 dibortzio eta 233 banantze gertatu ziren. Baliogabetzeak batez beste 6 inguru ziren informazioa dagoenetik eta 2011n 2 izan dira.

Guztira, erreferentziazko urtean 4.362 ezkontza desegin ziren, 2010ean baino %2,9 gutxiago; datu horren arabera ratioa 2koa mila biztanleko, Estatuan, aldiz, batez bestekoaren milako 2,34 da. Banantze-tasa handienak erregistratuta dituzten autonomia erkidegoak Kanariak (milako 2,86) eta Melilla (milako 2,71) dira; haustura gutxien dituztenak, aldiz, Gaztela eta Leon eta Gaztela-Mantxa dira (mila biztanleko 1,76 eta 1,78 banantze, hurrenez hurren).

Nazioarteko erkaketei dagokienez, dibortzio tasa gordina, azken urteetan, milako bi ingurukoa izan da Europar Batasun osoan, Maltako 0,1 (bertan duela gutxi da legezkoa) eta Irlandako 0,7tik, Lituaniako milako 3,4ra eta Letoniako milako 4ra arte.

2006az geroztik Estatuan orokorrean eta gure erkidegoan bereziki desegite horien osaketan aldaketa bat ikusten da, dibortzio kopurua hazi eta banantze kopurua jaitsi baita, banantzeari eta dibortzioari dagokienez Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzen dituen uztailaren 8ko 15/2005 estatu Legea onartzearen ondorioz. Arau horren bidez aurrez banatu gabe dibortzioa onartzen da. Autonomia erkidegoak erkatuta, ikusten da legea aldatu aurretik zein ondoren EAE toki neurritsuan dagoela, 2011n erregistro gutxien izandako seigarren erkidegoa izan baitzen.

EAEn banandu edo dibortziatutako pertsonen ezaugarriei dagokienez INEren datuen arabera gehienak 40 eta 49 urte bitartekoak dira, baina emakumeak (batez beste 42,3 urtekoak) gizonak (ezkontza desegiterakoan batez beste 44,9 urtekoak) baino gazteagoak izan ohi dira. Gainera, desegindako ezkontzen batez besteko iraupena 15,7 urtekoa da, eta kasuen %57an ezkontideek haurrak izan dituzte. Kasuen %48an, adingabeak dira.

Azkenik, 2011n senar-emazteen %67 bi alderdiak ados egonda banandu ziren eta prozeduren batez besteko iraupena 5 hilekoa izan zen.

1.1.2. Immigrazioa EAEn

Nazioarteko migrazioak nazioarteko agenda politikoen gai erabakigarrienetakoa izatera pasatu dira epe laburrean. Gizartearen eta ekonomia orokorraren gaur egungo garaiaren ezaugarrietako bat dira. 1850-1910 aldian mundu osoan lehenengo migrazio-garaia bizi bazen ere, XX. mendeko 90eko hamarkadatik Bigarren Mundu Gerraren ondoren hasi zen migrazio-aldi handiaren bigarren fasean gaude.

Europar Batasuneko biztanleria asko hazi da azken urteetan, batez ere immigrazioagatik, 2011n haren ratio gordina berezko hazkunde tasarena (jaiotzak ken heriotzak) halako bi izan baitzen: Milako 1,8 migrazioa saldorako eta milako 0,8 naturalerako. Hortaz, migrazio-mugimenduek Europar Batasuneko herrialdeetako biztanleen dinamikan oinarrizko zeregina dute.

2011ko urtarrilean, guztira 33,3 milioi atzerritar bizi ziren 27-EBn, populazioaren %6,6. Horietako gehienak, 20,5 milioi, erkidegokoak ez diren herrialdekoak ziren, gainontzeko 12,8 milioiak EBko beste herrialde batekoak ziren bitartean. Baina, gainera, herrialde atzerritarretan jaiotako pertsonen zifra aintzat hartzen badugu (herritartasun atzerritarrekoak eta egoitza-herrialdean nazionalizatutako atzerritarrak), zifra 48,9 milioi pertsonetara heltzen da, Europar Batasuneko biztanleria guztiaren %9,7.

EUROSTATeko datuen arabera, EBn bizi diren atzerritarren %75 baino gehiago Alemanian, Espainian, Erresuma Batuan, Frantzian eta Italian bizi dira.

Immigrazioaren tipologia asko aldatzen da herrien arabera. Familiarekin berriz elkartzea Austrian, Frantzian edo Suedian immigraziorako arrazoi nabaria da. Aldiz, Irlanda, Espainia, Portugal eta Erresuma


3 "Baliogabetzeen, banantzeen eta dibortzioen estatistika" lehen auzialdiko, instrukzioko eta Emakumeen aurkako Indarkeriaren epaitegiek emandako informazioaren bidez egiten da; informazio hori ezkontza bidezko loturaren baliogabetze-prozesuari buruzkoa da.

Batua bezalako herrialdeetan laneko immigrazioaren ehuneko handia dute. Espainian erregularizazio handiak egin ziren, eta Frantzian, Alemanian eta Holandan, aldiz, erregularizazio mugatuak egin ziren etorkin talde zehatzentzat.

EBn hirugarren herrietako nazionalitate talderik ugarienak, 2011n, Turkiatik (2,3 milioi), Marokotik (1,9 milioi), Albaniatik (milioi 1) eta Txinatik (0,7 milioi) zetozen. Dena den, atzerrian jaiotako estatu kideetako -adibidez, Frantzia, Suedia, Holanda eta Erresuma Batua- herritar kopurua hirugarren herrialdeetako nazionalena baino handiagoa da, etorkin askok harrera-herrialdeko herritartasuna eskuratu baitute.

EAEn ere fenomeno hori gertatu da, eta kultura-aniztasunaren aldetik hazten ari da, biztanle-talde berriak geroz eta gehiago gehitzen ari baitira aspaldian. Hurbileko gizarteetako mailak oraindik gainditu ez badira ere, EAEko atzerritarren immigrazioa nabarmen hazi da azken urteetan. Horrek lurraldeetan erabat banatutako aniztasun-egoera eratu du. Berez, epe laburrean gertatutako immigrazio jendetsuak ekonomiarena eta gizartearen epe luzerako joerak aldatu ditu, biztanleen zahartzeko joera geldituz eta belaunaldien berriztatzea erraztuz, baita gizartearen jokaera berriak gehituz.

I.1.12. GRAFIKOA EBREN HAZKUNDE DEMOGRAFIKOAREN BILAKAERA OSOGAIEN ARABERA. RATIOAK 1.000 BIZTANLEKO.



Iturria.- EUROSTAT.


INEk, 2007ko datuekin, 2008an lehen aldiz argitaratu zuen "*Encuesta Nacional de Inmigración*" delakoak agertu zuenez, EAEn bizi diren etorkinak gure erkidegora, batez ere, lan hobearen bila (%42,9), familia arrazoiengatik (elkarretaratzea) (%32,1), bizi kalitatea hobetzeko (%23,9) eta lan faltagatik (%21,8) etorri zirela, erantzun bat baino gehiago eman dezaketela. Hortaz, migrazio-fenomeno bat da, batez ere, ekonomikoa.

a) Bilakaera demografikoa.

Udal Erroldaren datuen arabera, azken urtean EAEn bizilekua duten biztanle atzerritarrek gora egin dute. 2005. eta 2012. urteen artean EAEn erroldatutako atzerritarren kopurua bikoiztu egin da. 2005ean gure erkidegoan 72.894 etorkin bizi ziren; 2012ko urtarrilaren 1ean udal erroldak 151.162 zenbatu zituen, aurreko urtean baino %4,1 gehiago (2012rako behin-behineko datuak; 2011rako, aldiz, behin betikoak). Herritar etorkinen hazkunde hori biztanleria osoan duten pisu gero eta handiagoan islatzen da: 2012an EAEn atzerritarren pisua %6,9koa da, eta estatuan %12,1koa. Estatu osokoaren aldakuntza, aldiz, negatiboa izan da: -%0,7.

Hazkunde hori hiru lurralde historikoetan jazo da. Bizkaian bizi dira atzerritar gehienak (75.113), 2011n baino %4 gehiago, eta ondoren Gipuzkoan (45.913 erroldatuta, +%3,9) eta, azkenik, Araban (30.136, +%4,6). Beraz, ikus daiteke atzerritarren hazkunde erritmoa apur bat biziagoa izan dela Araban, eta atzetik, Bizkaian eta Gipuzkoan.

I.1.13. GRAFIKOA. BIZTANLERIA ATZERRITARREN URTE ARTEKO HAZKUNDEA ETA BIZTANLERIA OSOAREN GAINEKO EHUNEKOA. 2012




Iturria. IKUSPEGI INEren datuekin.

Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) Erroldako datuen aurrerapena aztertu du 2012ko ekaineko 46. buletinean. Agerian geratu denez, gure erkidegoa izan da 2012an atzerritarren hazkunde erlatiborik handiena izan duena (+%4,1), eta ondoren Andaluzia (+%1,8). Horrez gain, INEren datuen bidez aditzera ematen da immigrazioa gehien handitu dela atzerritarren ehuneko oso txikia duten komunitate horietan. Ikusi dugunez, EAEko immigrazioaren pisua (%6,9) estatu osokoaren erdia da (%12,1); Extremaduran %3,8koa eta Andaluzian %8,8koa den bitartean. Aitzitik, etorkin-tasa handienak dituzten komunitateetan (Valentziako Erkidegoa, Madril, Aragoi, etab.) erroldatutako atzerritar kopurua gutxitu egin da. Ikuspegiren ustez, joera hori hainbat arrazoiri dago lotuta, besteak beste, atzerritarren nazionalizazioei eta lan-aukeretan jazotako aldaketen ondoriozko immigrazioaren lurralde birbanaketari.

EAEko atzerritarrak ia erdi bana daude banatuta sexuaren arabera: %51,5 gizonezkoak dira eta %48,5 emakumezkoak. Gainera, Ikuspegik EAEko etorkinei 2007an egindako inkesta batek zera zioen: edozein adin-taldetan, etorkin latinoamerikarren taldea batez ere emakumezkoek osatzen dute. Etorkin afrikarren taldea, aldiz, portugaldarrekin batera, gizonezkoek osatzen dute gehienbat. Jatorriz europarrak direnen artean, zein Errumaniakoen eta Frantziakoen artean, emakumeen indizeak laginaren batez besteko osoa dira gutxi gorabehera, %45. Azkenik, Txinatik etorritako pertsonen artean sexuen arteko banaketa antzekoa da joerei erreparatuz.

I.1.14. GRAFIKOA. UDAL ERROLDAN ESTATUAN ETA EAEn INSKRIBATUTA DAUDEN ATZERRITARREN EHUNEKOAREN BILAKAERA




Iturria.- INEren datuekin egindakoa.

Era berean, jatorrizko herriek ama hizkuntzak baldintzatzen dituzte, eta horiek, gutxienez, kasu garrantzitsu bi erakusten dituzte, hiztun kopuruari dagokionez: bata, gaztelania, emakumezko aurpegia duena, eta bestea, arabiera, gizonezko fisonomiakoa.

EAEn erroldatuta dauden nazionalitate-taldeak aintzat hartzen baditugu, antzematen da 2012an jatorrizko herrialdearen arabera hiru talde nagusi daudela: %40,1 Latinoamerikatik dator, %24,7 batasuneko da eta %16,3 magrebtarra. Hala ere, aztertzen baduzu immigrazio berriaren jatorria, hau da, azken lau urteotan EAEra heldu denaren jatorria, ikusten da Latinoamerikako nazionalitateak nagusi direla Afrikakoen gainetik. Izan ere, ondoz ondoko hiru etapa bereizten dira azken hamarkadan: hasieran, 2003-2004 biurtekoan, latinoamerikarren migrazioaren gorakada oso garrantzitsua izan zen, eta atzerritar guztien ia erdia (%48,4) izan ziren; kopuru horrek 2007ra arte iraun du. Hala ere, 2006az geroztik Europako gainerako aldeetako biztanleria kopurua igotzen hasi zen, eta hazkunde horren eragile nagusia errumaniar nazionalitatea izan da. Errumania 2007an sartu zen EBn, eta horren ondorioz, talde horren garrantzia %27,3ra arte igo da erroldatutako atzerritar guztien artean. 2009tik aurrera, azkenik, Magrebeko taldea (bereziki Marokokoak) hazkundearen protagonista nagusia da. 2008an %11,8 zioren, eta 2012an, aldiz, %16,3.

I.1.15. GRAFIKOA. BIZTANLERIA ATZERRITARRA, NAZIONALITATE-EREMUEN ARABERA. ATZERRITAR GUZTIEN GAINEKO EHUNEKOA. 2012



Fuente: IKUSPEGI INEren datuekin

Herrialdeka, 2012an, lehenengo hamar garrantzitsuenen artean bost Latinoamerikakoak dira (Kolonbia, Ekuador, Bolivia, Brasil eta Paraguai), bi komunitarioak (Portugal eta Errumania), bi Magrebekoak (Maroko eta Aljeria) eta bat Asiakoa (Txina). Lehenengo aldiz, Marokoko biztanleak dira EAEko atzerritar gehienak, 17.722 erroldaturekin. EAEko atzerritar guztien %11,7 dira. Bigarren nazionalitatea Errumaniakoa da, guztien %11,6rekin.


Halaber, Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuek agerian jartzen dute 2011ko abenduaren 31n 128.276 atzerritarrek EAEn bizitzeko baimena zutela, 2009an baino %10,7 gehiagok. Datu horiek 2012ko urtarrilaren 1ean erroldatutakoekin alderatzen baditugu, erregularizazio tasa edo indizea lortzen dugu eta horrek erakusten du erroldatutako atzerritarren %84,6k data horretan bizileku-baimena zutela. Erregularizazio tasa hori 4,9 puntu handitu da aurreko urteari dagokionez. Gauza bera gertatzen da estatu mailan (%91,9ko tasa erregistratzen da, 2011n baino ehuneko 6,2 puntu gehiago).

Hala, antzematen da biztanleria atzerritarraren erdia administrazio egoera irregularrean egotetik (2002-2005. urteak) erregularizazio tasa geroz eta handiagoa den beste egoera batera igaro dela, erkidego batzuetan -adibidez, Errioxa eta Aragoi- %100 inguruan dabil. Igoera horretan modu erabakigarrian bi faktorek eragin dute: 2005ean jazotako aparteko erregularizazioa eta gizarte errotzerako bidea bizileku-baimena lortzeko; horren bidez atzerritar-biztanleriaren zati handi batek bizileku-baimena modu patxadatsuagoan lortu du.

Halaber, Eusko Jaurlaritzaren 2010eko *EAEn bizi diren atzerriko etorkinen inkesta*ren (AEI) arabera, 16 urte baino gehiagoko biztanleen artean, gure erkidegora atzerritar-multzoa 2005. eta 2006. urteen artean iritsi zen eta, hortaz, EAEn 4 eta 5 urte daramatza. Aldi hori baino lehen eta ondoren etorritakoak kontuan hartuta, kopurua murriztu dela antzematen da, denboran urrundu ahala. Oro har, atzerritarren nukleo zentralak (%42,4) EAEn 6 urte baino gutxiago daramatza, beste %33,3k 6 eta 9 eta %24,3k 10 urte edo gehiago. %4,6 bakarrik, inkesta hau egin zenean, alegia, EAEn bizi da duela bi urte baino gutxiago, eta horrek azken urteotan biztanleria berria erakartzeko erritmoaren erorketa handia berresten du.

Immigrazio talde zaharrena EBko mendebaldeko herrialdeetatik etorritakoa da, duela 10 urte edo gehiago %64,7rekin. Era berean, proportzio hori garrantzitsua da Txinako jatorria duten horien kasuan (%34,5).

I.1.16. GRAFIKOA. BIZTANLERIA ATZERRITARRAK EAEn ETA ESTATUAN DUEN GARRANTZIAREN BILAKAERA



Iturria: INEren eta EGSMren datuekin egina.
harra: Erregularizazio indizea bizileku-baimena daukaten atzerritarren kopuruaren eta erroldatuta daudenen kopuruaren arteko zatidura da.

I.1.10. KOADROA. 16 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLEAK EAEra LEHENENGO ALDIZ ETORRI ZIRENETIK, URTE KOPURUEN ARABERA, JATORRIZKO HERRIALDEA KONTUAN HARTUTA. EHUNEKO HORIZONTALAK ETA BATEZ BESTEKO URTE KOPURUA EAEn. 2010.

	URTEAK LEHENENGO ALDIZ ETORRI ZIRENETIK						BATEZ BESTE-KOA
	< 2 URTE	2-3 URTE	4-5 URTE	< 6 URTE	6-9 URTE	10 URTE EDO GEHIAGO	
MENDEBALDEKO EB	1,4	8,7	8,3	18,3	17,0	64,7	18,7
ERRUMANIA ETA EKIALDEKO BESTE EB BATZUK	4,2	22,7	31,3	58,1	29,9	11,9	6,4
MAGREB	8,5	19,1	17,9	45,5	29,9	24,6	7,7
ARGENTINA, TXILE, URUGUAI	5,6	8,6	25,9	40,1	41,9	18,1	8,0
KOLONBIA, EKUADOR, PERU	2,8	14,6	15,6	33,0	47,8	19,3	7,1
BOLIVIA	1,0	8,3	42,5	51,7	45,7	2,6	5,8
PARAGUAI	8,1	27,7	39,5	75,3	23,7	1,0	4,3
BRASIL, VENEZUELA, DOMINIKAR ERREPUBLIKA	5,4	12,2	22,5	40,1	34,6	25,3	8,1
GAINONTZEKO LATINOAMERIKA	8,2	14,2	27,2	49,6	32,9	17,5	6,5
TXINA	4,2	13,1	21,0	38,3	27,2	34,5	8,4
SENEGAL	4,4	21,0	28,6	53,9	32,2	13,9	5,9
GAINONTZEKO AFRIKA	9,3	16,5	26,4	52,2	31,1	16,8	6,6
GAINONTZEKO MUNDUA	2,8	25,7	19,6	48,1	22,3	29,6	8,1
GUZTIRA	4,6	15,6	22,2	42,4	33,3	24,3	8,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. AEI 2010.

Halaber, AEI 2010k agerian jarri duenez, erreferentziazko datan, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko 16 urtetik gorako pertsonen %50,1en diru-sarrera nagusia lanaren edo errenten etekin ekonomikoak ziren. Bigarren, diru-sarrerak bermatzeko errenta kontuan izandako biztanleriaren %9,6aren sarrera iturri nagusia da, eta gero langabezi prestazioa, %7,2ak jasotzen baitu.

Diru-sarrera nagusi gisa pentsio edo prestazio orokorren bat –ordaindutakoaren araberakoak zein ez– jasotzen duten biztanlea oso gutxi dira: Aztertutako biztanleen %2,1 baino ez dago egoera horretan, EBko mendebaldeko herrialdeetako jatorria duten biztanleen kasuan %5eko mailak bakarrik gaindituz (%6,4).

. Bestalde, 16 urtetik gorako etorkinen %29,9ak adierazi du ez daukala diru-sarrera iturririk.


b) Elkarbizitza eta ongizatea.

Ikuspegiren 2011ko urriko Barometroaren arabera, euskaldunentzat immigrazioa ez da arazo. %2,4k soilik dio aurretiaz galdetu gabe EAEko arazo nagusia dela (%2,8 2010ean), eta aipamenak guztira %10,7 dira (%15,4 2010ean).

Berez emandako hiru erantzunak osotasun gisa hartuz, immigrazioa seigarren lekuan ageri da, eta horren atzetik langabezia (%86), arazo ekonomikoak (%29), ETA (17%), klase politikoa (%14) eta pentsioak (%11,7).


Immigrazioak EAEko ekonomikoan daukan eraginari dagokionez, aurreko urteetan bezala, EAEko gizarteak ez du joera argirik erakusten immigrazioak gizartean dituen ondorio positiboei edo negatiboei buruz: Ekonomia sektore batzuetarako etorkinak behar direla onartzen da (%44,9), baina aldi berean uste da haiek egoteak langabezia handitzen duela Euskadin (%55,1). Era berean, aurreko urteetan baino indar eta ongura txikiagoz bada ere, uste da atzerritarrei esker, orokorrean, ekonomia hobeto dabilela, baina horren ordaina soldata mailetan ondorio kaltegarriak izatea dela (%47,1) eta gure gizarteko sektore ahulenei kalteak dakarzkietela (%70,5).

I.1.17. GRAFIKOA. ZEIN DIRA EAEko HIRU ARAZORIK GARRANTZITSUENAK? (GEHIENEZ HIRU ERANTZUN). 2011.



Iturria: Ikuspegi Barometroa 2011.

I.1.18. GRAFIKOA. ZURE USTEZ ZEIN IZANGO LITZATEKE POLITIKARIK EGOKIENA LANGILE IMMIGRANTEEI DAGOKIENEZ? DATUAK EHUNEKOTAN.




Iturria: Ikuspegi Barometroa 2011.

Bestalde, atzerritar guztiek osasun laguntza eskuratzearen alde dago euskal populazioa, 2010ean baino gehiago (+2,8 puntu aurreko urtearekin alderatuta), baita haien seme-alabak hezkuntza izatearen alde ere (+7,7 puntu), baina behera egin du atzerritarrei laguntza juridikoa ematearen alde daudenen kopuruak (-0,8 puntu 2010. urtearekin alderatuta), eta gizarte laguntzak (+3,3), familia batzearen (+6,4), botoa ematearen (+2,8) eta BOE lortzearen (+3,9) aldeko joera handiagoa dago.

Gainera, Barometroak erakutsi duenez, immigrazio politikari dagokionez, euskaldunen %11,1, aurreko urtean baino gehiago (%8,6) daude etorkinak sartzeari batere oztoporik ez jartzearen alde, eta aldi berean %6,4 edonola ekiditearen alde daude. %76,4 sartzea lan kontratua izatearen truke baimentzearen alde daude, aurreko urtean (%82,6) baino ratio txikiagoa.

I.1.19. GRAFIKOA. IMMIGRANTEEK HONAKO ESKUBIDE HAUEK ESKURATU BEHARKO AL LITUZKETE? EAE, 2011.



Iturria.- Ikuspegi Barometroa 2011.

Azkenik, eta ikerketaren balantze gisa, Ikuspegiren 2011ko Barometroak "*Atzerritar biztanleriarekiko tolerantzia indizea*", aurkeztu du. Indize horrek kuantifikatu egiten du bertako euskal herritarrek atzerritar immigrazioaren aurrean dauzkaten jarrera eta jokabideak. Indize horretan, euskaldunek immigrazioaren fenomenoari buruz dauzkaten iritziak, jokabideak, balioak, sinesmenak, estereotipoak, etab. laburbiltzen dira, 0tik 100era bitarteko zifra bakar batekin.

2011n lortutako puntuazioa 57,1 puntu izan zen, 2008ko 58,7 puntuetatik oso urrun (landa-lana urte hartako udaberrian egin zen, EAEn krisia gizartean aintzat hartzeari buruz hitz egiten hasi baino lehen), baina 2010eko puntuaziotik apur bat gora. Orduan 56,6 puntura arte heldu zen.

Bestalde, Ikuspegiren 2010eko abenduko Aldizkariak Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera egindako ikerketaren emaitzak aurkeztu zituen. Bertan, immigrazioari dagokionez, osasunari, bizitzarekiko asetasunari, gizarte harremanei, bereizkeriari eta euskal gizartearen beste alderdi batzuei lotutako alderdiak aztertu dira.

Lehenbizi, azpimarratzekoa da bizitzarekiko asetasun maila orokorra nahiko handia dela, bai bertako herritarrei (7,18 10etik) bai atzerritarrei (6,40) dagokienez, eta azkenen artean, nabarmentzen dira, batez bestekoaren gainetik egoteagatik, kolonbiar (7,30) eta boliviar (6,86) nazionalitatea duten pertsonak. Batez bestekoaren azpitik leudeke Sahara azpikoak (6,04), errumaniarrak (5,98) eta marokoarrak (5,82). Dena dela, atzerritarren herenak baino ez dio bizitzako gertaerak nahi zuten moduan jazo zaizkiela, bertako biztanleen %53ren aurrean.

Gainera, gizartea hobetzeko itxaropen maila biziagoa da etorkinen artean bertakoen artean baino, eta azkenak, halaber, gehiago onartzen dute gizartea haiek bezalakoentzat hobetzen ari dela (etorkinen %52,2 eta bertakoen %35,8).


Bestalde, atzerritarrek, orokorrean, ez dute adierazten EAEn bizi izandako bizipenetan zailtasun handirik topatu izana. Esperientzia horien guztien artean, lana lortzea (%65,2) eta etxebizitza erosi eta alokatzea (%56,2) bakarrik nabarmentzen dituzte, nahiko zailtzat jotzen baitituzte. Lana lortzeari dagokionez, kolonbiar biztanleak dira zailtasunik txikiena adierazten dutenak (%45,6), Sahara azpiko Afrikatik datozenen %81,9ren aurrean. Era berean, kolonbiarrek ez dute arazo handirik izan etxebizitza lortzeko (horrela adierazi dute elkarrizketatuen %56,5ek), Sahara azpikoen %19,9ren aurrean.

Azkenik, bertako biztanleek etorkinekin duten enpatia eta konpromiso mailari dagokionez, orokorrean, ondorioztatzen denez, bertako biztanleek ahalegina egiten dute etorkinen egoera hobeto ulertzeko (horrela adierazi dute %64,9k), baina onartzen dute ez diela gehiegi eragiten (%58,3), ez dela beti erraza haien lekuan jartzea eta, azken batean, haien arazoek ez dutela euren eguneroko bizimodua aldatzen.

Halaber, bertako herritarrak izateko prest dauden konpromiso maila, ikerketatik ondorioztatzen denez, tokitan dago etorkin bati laguntzeaz hitz egiten dugunean -bakarka, eremurik pribatuenean- (%90,6 horren alde ageri dira), edo taldeei laguntzez hitz egiten dugunean –esparru publikoan edo GKE baten testuinguru formal eta iraunkorragoan- (%35,4)-.


Amaitzeko, eta EAEn bizi diren biztanle immigranteen bizi-baldintzei buruz, 2012ko EAEren "Pobreziari eta Gizarte Arloko Desberdintasunen Inkesta" (PADI) izeneko inkestako zifra batzuk aurkeztuko dira. Inkesta horrek nabarmentzen duenez, pobrezia moduen eragina oso handia da atzerritarra familia burua deneko etxeetan, eta gainera gora egin

I.1.20. GRAFIKOA. IMMIGRAZIO BURUZKOK TOLERANTZIA INDIZEA EAEn:2008-2011 BILAKAERA



Iturria.- Ikuspegi Barometroa 2011..

I.1.21. GRAFIKOA. FAMILIEN POBREZIA ETA PREKARIOTASUN EGOEREN BILAKAERA, PERTSONA NAGUSIAREN NAZIONALITATEAREN ARABERA. DATUAK EHUNEKOTAN.



	Estatua		Munduko gainerako errialdeak		Guztira	
	2008	2012	2008	2012	2008	2012
Mantentze pobrezia	4,4	5,3	28,5	34,3	5,7	7,3
Metatze pobrezia	1,4	1,2	3,4	4,5	1,5	1,4
Pobrezia erreala	2,9	3,3	27,7	32,0	4,2	5,3

Iturria.- Eusko Jaurlaritzako datuekin egina. PADI 2012

du azken lau urtean, populazio autoktonoaren artean baino proportzio handiagoan. Pobrezia erreala[4] %2,9tik %3,3ra igaro da 2008-2012ko aldian gure Erkidegoan bizi den Estatuko nazionalitatea duten herritarren artean.


Atzerritarrak bizi diren etxeetan, berriz, hazkunde handiagoa izan da: %27,7tik %32ra. Gainera, azken horiek pobrezia errealeko egoeretan duen pisua handitu egin da azken lau urtean: %34,1etik %41,2ra.

Hori azaltzen duen elementu nagusia mantentze-pobreziaren (oinarrizko beharrak, elikadura, etxebizitza, jantziak eta oinetakoak asetzeko ezintasuna neurtzen duena) eragin diferentziala da: %34,3, Espainiako nazionalitatedunak buru dituzten familien %5,3ren aurrean. 2008ko kopuruekin alderatuta, nabarmen egin du gora atzerriko pertsonen familien artean (orduan tasa %28,5 zen, biztanle

4 2012ko PADIren emaitzei buruzko informazio gehiago izateko, irakurleak Memoria Sozioekonomiko honetako kapitulu honetara jo dezake: "III.2. Bizi-baldintzak EAEn".

nazionalak dituzten familien %4,4ren aldean). Gora egin du, bestalde, familien ondarearen eta ondasun materialen inguruko alderdiak kontuan hartzen dituen metatze-pobreziaren eragina (2008ko %3,4tik 2012ko %5era igo da); aitzitik, beheranzko joera dauka biztanle nazionalen artean (%1,4tik %1,2ra jaitsi da) nahiz biztanleria osoarentzat (2008ko %1,5etik 2012ko %1,4ra).

I.1.22. GRAFIKOA. GIZARTEAREN HOBEKUNTZARI BURUZKO PERTZEPZIOA. BERTAKO BIZTANLEAK ETA IMMIGRANTEAK. EAE 2010.



Iturria.- IKUSPEGI, 37. Buletina. 2010eko. abendua.

1.2. HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA SUSTAPENA

1.2.1. Unibertsitatekoa ez den hezkuntza

1.2.1.1. Ikasleen bilakaera hezkuntza mailaren arabera

EUSTATen Irakaskuntzaren Estatistikaren datuen aurrerapenaren arabera, 2012-2013 ikasturtea EAEn unibertsitateaz kanpoko erregimen orokorreko irakaskuntzan matrikulatutako 355.737 ikaslerekin hasi da guztira (helduentzako hezkuntza kontuan izan gabe). Beraz, % 0,7ko hazkuntza berria dago (aurreko ikasturtean baino 2.580 ikasle gehiago), Hezkuntza Berezia kontuan izanez gero, eta % 2koa, kontuan izaten ez badugu (+6.925 ikasle).

Bigarren kasua kontuan izanik (hau da, Hezkuntza Berezia kanpoan utzita), gehikuntzaren azalpena da beheko mailak (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa (DBHO) eta irakaskuntza ertainak gehitu direla. Beheko mailen kasuan, 2012-2013 ikasturtean, EUSTATen behin-behineko datuen arabera, 292.110 ikasle zeuden matrikulatuta (% +1,1), Haur Hezkuntzan 95.880 (% -0,7), Lehen Hezkuntzan 122.184 (% +1,6) eta DBHn 74.046 (% +2,6). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan (DBHO) edo irakaskuntza ertainetan matrikulatutako ikasle kopurua % 6,5 handitu da. Gehikuntza handienak erdi mailako LHn (% 9,5) eta goi mailako LHn (% 10,5) gertatu dira. Batxilergoa ere gehitu da, baina neurri txikiagoan (% 2,8).

2012-2013 ikasturtean erdi mailako ikasketak egiten ari diren 62.471 ikasleetatik, 29.787 ikaslek, hau da, % 47,7k, Batxilergoa aukeratu dute derrigorrezko hezkuntza amaitu eta gero; % 52,3k, aldiz, LH aukeratu dute.

I.1.11. KADROA. EAE-KO IKASLEAK TITULU ETA MAILAREN ARABERA (1)

	2007-08	2008-09	2009-10	2010-2011	2011-2012	2012-13 beh.-beh.	2011-12/2012-13 ald.
Ikastetxe guztiak (Hez. Berezia barne)	319.842	328.183	337.903	345.734	353.157	355.737	0,7
Ikastetxe guztiak (Hez. Berezia kanpo)	318.844	324.509	332.219	340.165	347.656	354.581	2,0
Beheko mailak (Hez. Berezia kanpo)	264.518	270.347	275.599	282.527	289.009	292.110	1,1
Haur Hezkuntza	88.308	91.206	92.800	94.818	96.577	95.880	-0,7
Lehen Hezkuntza	107.329	110.095	113.335	117.193	120.288	122.184	1,6
Hezkuntza Berezia (Haur eta Lehen Hezkuntzak)	412	423	428	444	449	454	1,1
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	68.881	69.046	69.464	70.516	72.144	74.046	2,6
Hastapeneko lanbide-prestakuntzako programak (HLPP)		2.641	4.615	4.519	4.404		
Hezkuntza Berezia (DBH)	199	195	208	208	221	241	9,0
Erdi mailako irakaskuntzak edo derrigorrezkoaren ondokoa (DBHO) (Hez. Berezia kanpo)	54.326	54.162	56.620	57.638	58.647	62.471	6,5
Batxilergoa	29.112	28.832	28.973	28.769	28.968	29.787	2,8
Erdi mailako LH	10.266	10.232	11.068	11.468	11.990	13.131	9,5
Goi mailako LH	14.948	15.098	16.579	17.401	17.689	19.553	10,5
Zereginen ikaskuntza (Hezkuntza Bereziko LH)	387	415	433	398	427	461	8,0
Batxilergoak DBHOren gainean duen %	53,6	53,2	51,2	49,9	49,4	47,7	
LHk DBHOren gainean duen %	46,4	46,8	48,8	50,1	50,6	52,3	

(1) ***Erregimen orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak.*** *Ez dira barruan sartzen ez helduentzako hezkuntza iraunkorra ez erregimen bereziko irakaskuntzak (arteak eta lanbideak, hizkuntzak eta musika).*

Iturria: EUSTAT. Irakaskuntzaren Estatistika.

I.1.12. KOADROA LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK MAILA, ADAR ETA SEXUAREN ARABERA. EAE, 2011-2012 IKASTURTEA.

ADARRA		Erdi maila	Goi maila
Gorputz eta kirol jarduerak	Guztira	199	751
	Emakumeen %	16,1	20,5
Administrazioa eta Kudeaketa	Guztira	1.001	2.207
	Emakumeen %	72,6	70,7
Nekazaritza	Guztira	218	181
	Emakumeen %	22,0	14,9
Arte grafikoak	Guztira	201	290
	Emakumeen %	46,8	53,1
Merkataritza eta Marketina	Guztira	277	891
	Emakumeen %	59,9	52,3
Eraikuntza eta Herri lanak	Guztira	91	636
	Emakumeen %	1,1	28,5
Elektrizitatea eta Elektronika	Guztira	1.337	2.093
	Emakumeen %	4,7	5,8
	Guztira	0	178
	Emakumeen %	-	4,5
Fabrikazio mekanikoa	Guztira	1.664	1.720
	Emakumeen %	5,0	11,3
Ostalaritza eta Turismoa	Guztira	657	711
	Emakumeen %	29,1	51,6
Irudi pertsonala	Guztira	793	256
	Emakumeen %	96,7	98,8
Irudia eta Soinua	Guztira	103	392
	Emakumeen %	48,5	32,4
Elikagaien industriak	Guztira	111	20
	Emakumeen %	37,8	70,0
Informatika eta Komunikazioak	Guztira	690	1.398
	Emakumeen %	11,4	19,3
Instalazioa eta Mantentzea	Guztira	832	1.157
	Emakumeen %	2,3	6,4
Zura, altzarigintza eta kortxoa	Guztira	222	50
	Emakumeen %	4,5	14,0
Itsas arrantza	Guztira	99	199
	Emakumeen %	6,1	7,0
Kimika	Guztira	60	463
	Emakumeen %	58,3	55,1
Osasuna	Guztira	1.808	1.279
	Emakumeen %	84,3	79,7
Gizarte- eta kultura-zerbitzuak	Guztira	547	2.272
	Emakumeen %	83,4	83,5
Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza	Guztira	34	75
	Emakumeen %	82,4	93,3
Garraio eta Ibilgailuen mantentze-lanak	Guztira	1.046	470
	Emakumeen %	2,3	3,0
GUZTIRA	Guztira	11.990	17.689
	Emakumeen %	37,1	41,0

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.

Lanbide Heziketa

EUSTATen datuen arabera, 2011-2012 ikasturtean honako hauek izan ziren eskari gehien izan zituzten erdi mailako lanbide titulazioak: Osasuna (% 15,1), Fabrikazio mekanikoa (% 13,9), Elektrizitatea eta Elektronika (% 11,2), Garraio eta Ibilgailuen mantentze-lanak (% 8,7) eta Administrazioa eta Kudeaketa (% 8,3). Hain nabarmena ez den bigarren taldea honako hauek osatzen dute: Instalazioa eta Mantentzea (% 6,9), Irudi pertsonala (% 6,6), Informatika eta Komunikazioak (% 5,8), Ostalaritza eta Turismoa (% 5,5) eta Gizarte- eta kultura-zerbitzuak (% 4,6).

Goi mailako titulazioen artean, nabarmenak dira Gizarte- eta kultura-zerbitzuak (% 12,8), Administrazioa eta Kudeaketa (% 12,5), Elektrizitatea eta Elektronika (% 11,8) eta Fabrikazio mekanikoa (% 9,7). Bigarren taldea honako hauek osatzen dute: Informatika eta Komunikazioak (% 7,9), Osasuna (% 7,2) eta Instalazioa eta Mantentzea (% 6,5).

Emakumeek gizonek baino partaidetza txikiagoa dute oraindik ere lanbide ikasketetan, batez ere laneratze hobea izan ohi duten profil teknikoko lanbide adarretan.

Hala ere, kontrako joera ere ikusten da (hots, emakumearen partaidetza handia) zenbait adarretan. Zehazki: Arte grafikoak, Merkataritza eta Marketina, Ostalaritza eta Turismoa, Kimika eta Osasuna. Emakumeen partaidetzarik handiena emakumeek tradizioz aukeratzen dituztenetan dago: Irudi pertsonala eta Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza.

1.2.1.2. Bilakaera ikastetxeen titulartasunaren eta eredu soziolinguistikoen arabera

EUSTATek argitaratutako datuen arabera, sare publikoan matrikulatutako ikasleen portzentajeak handitzen jarraitu du azken urteotan, eta % 53,2n egon da 2011-12 ikasturtean: % 50 behe mailetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH) eta % 54,7 DBHO mailetan.

Nabarmena da sare publikoak erdi mailako LHn duen garrantzi handia: % 61,6. Sare publikoko matrikulazio ratio txikiena DBHn dago (% 46), hau da, DBHko matrikulazioaren erdia baino gehiago sare pribatuko zentro batean egiten da.

I.1.13. KOADROA EAE-KO IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA IKASTETXEEN TITULARTASUNAREN ARABERA

	2009-2010			2010-11			2011-12		
	Guztira	Publikoa (%)	Pribatua (%)	Guztira	Publikoa (%)	Pribatua (%)	Guztira	Publikoa (%)	Pribatua (%)
Guztira*	332.219	54,0	46,0	340.165	54,2	45,8	347.656	53,2	46,8
Behe mailak	275.599	49,2	50,8	282.527	49,6	50,4	289.009	50,0	50,0
Haur Hezkuntza	92.800	51,6	48,4	94.818	52,1	47,9	96.577	52,7	47,3
Lehen Hezkuntza	113.335	49,9	50,1	117.193	50,1	49,9	120.288	50,2	49,8
DBH	69.464	45,1	54,9	70.516	45,5	54,5	72.144	46,0	54,0
DBHO mailak	56.620	53,8	46,2	57.638	54,2	45,8	58.647	54,7	45,3
Batxilergoa	28.973	52,4	47,6	28.769	52,4	47,6	28.968	52,2	47,8
Erdi mailako LH	11.068	59,6	40,4	11.468	60,8	39,2	11.990	61,6	38,4
Goi mailako LH	16.579	52,3	47,7	17.401	52,9	47,1	17.689	54,1	45,9

** HHIrik eta Hezkuntza Berezirik gabe.*
Iturria: EUSTAT

I.1.14. KOADROA. EAE-KO HIZKUNTZA-EREDUEN BILAKAERA (% horizontal*)

	2009-10			2010-11			2011-12		
	A	B	D	A	B	D	A	B	D
Guztira**	25,5	20,6	53,4	24,6	20,1	54,8	21,8	20,1	57,6
Haur Hezkuntza	4,4	23,7	71,4	4,1	22,7	72,7	3,8	21,7	74,0
Lehen Hezkuntza	8,1	29,3	61,9	7,4	28,1	63,8	6,7	27,1	65,5
DBH	17,0	28,0	54,2	15,4	28,0	55,9	13,9	27,6	57,7
Batxilergoa	44,9	1,6	52,7	43,8	1,7	53,8	43,3	2,0	54,0
Erdi mailako LH	77,0	0,8	22,2	76,7	0,8	22,4	76,8	0,8	22,4
Goi mailako LH	72,6	2,7	24,6	72,1	2,5	25,5	73,0	2,5	24,4

** Portzentaje horizontalek ez dute 100 batzen, X eredua kontuan hartu ez delako ** HHIrik eta Hezkuntza Berezirik gabe. Iturria: EUSTAT*

Bestalde, hizkuntza ereduen sistema abiarazi zenetik, euskalduntze prozesuak goranzko joera izan du. Horrela, 2010-11 eta 2011-12 ikasturteen artean D ereduko matrikulazio osoa (HHIrik eta Hezkuntza Berezirik gabe) % 54,8tik % 57,6ra igaro da; A eredukoa, aldiz, % 24,6tik % 21,8ra jaitsi da. Horrez gain, B ereduak % 20 inguruan egoten jarraitzen du.

Horrela, Haur Hezkuntzan 2011-12 ikasturtean D ereduaren hautua matrikulazio guztien % 74 izan da, eta A ereduarena, aldiz, % 3,8. Lehen Hezkuntzan matrikulazioen % 65,5 D ereduari dagokio eta A ereduari % 6,7. DBHn D eredua % 57,7 da eta A % 13,9. Eta Batxilergoan, hurrenez hurren, % 54 eta % 43,3 dira.

Kontrakoa gertatzen da Lanbide Heziketan. Bertan erdi mailako LHko matrikulazioen % 22,4 eta goi mailako LHkoen % 24,4 baino ez dira D ereduan egiten; A ereduan, aldiz, % 76,8 eta % 73, hurrenez hurren.

1.2.2. Unibertsitateko irakaskuntzak

1.2.2.1. Unibertsitateko lehenengo eta bigarren zikloak eta gradua EAEn

Unibertsitate matrikulazioa

2010-2011 ikasturtean, orotara 59.132 ikasle zeuden matrikulatuta unibertsitateko graduko eta lehen eta bigarren zikloetako ikasketetan EAEko unibertsitateetan, hots, aurreko urtean baino % 1 gutxiago.

Ikasle horietatik guztietatik % 68,2 lehen eta bigarren zikloetako ikasketetan daude matrikulatuta (lizentziaturak, arkitekturak eta ingeniaritzak, diplomaturak eta arkitektura eta ingeniaritza teknikoak) eta % 31,8 Goi mailako Hezkuntzako Europako Eremuaren (GMHEE) ondoriozko graduetako ikasketetan.

Graduko ikasketetan arreta jarrita, ikasleen % 43,9 Zientzia Sozial eta Juridikoetan matrikulatuta daude, % 26,1 Ingeniaritzan eta Arkitekturan, % 13,7 Arteetan eta Giza Zientzietan, % 12,9 Osasun Zientzietan, eta % 3,4 Zientzietan.

Matrikulatu direnen % 53,9 emakumeak dira, eta gizonak, aldiz, % 46,1. Emakumeen agerpena ohikoagoa da bi ikasketa motetan: lehen eta bigarren zikloetan (% 54) eta gradukoetan (% 53,4).

Zentroen titulartasunaren arabera, ikasleen % 81 unibertsitate publikora doaz eta % 19 pribatuan matrikulatu dira.

Unibertsitate graduazioa

Graduazioei dagokienez, memoria hau bukatzean eskuragarri ditugun azken datuak 2009-10 ikasturteari buruzkoak dira, eta aurreko ikasturtearekiko % 3,2ko gehikuntza erakusten dute (% 4,5 gizonentzat eta % 2,4 emakumeentzat). Orotara, 10.498 pertsona graduatu dira: 6.249 emakume eta 4.249 gizon; aurreko ikasturtean, berriz, 10.170 ziren. Hots, emakumeen graduazioaren proportzioak guztizkoaren % 50etik gorakoa izaten jarraitzen du. 2009-10 ikasturtean, emakumeei dagokie graduazioen % 59,5, aurreko epealdiko ratioa baino pixka bat txikiagoa (% 60) izanda.

Titulazioen araberako graduazioaren (unibertsitate gradudunak) bilakaeraren azterlana, momentuz, lehen eta bigarren zikloetako ikasketei dagokie, eta hauxe erakusten du:

- 2009-2010 ikasturtean, ikasleen % 51,1 Zientzia Sozialetan eta Juridikoetan graduatu ziren, % 30,5 Irakaskuntza Teknikoetan, % 7,2 Giza Zientzietan, % 7,1 Osasun Zientzietan eta % 4,1 Zientzia Esperimentaletan.

- 2008-09 eta 2009-2010 ikasturteen artean, gehikuntza gertatu da Osasun Zientzien (% 10), Giza Zientzien (% 3,2) eta Zientzia Sozial eta Juridikoen (% 2,9) graduazioetan eta jaitsiera, berriz, Zientzia Esperimentaletan (% -8,6) eta Irakaskuntza Teknikoetan (% -0,7).

I.1.15. KOADROA. UNIBERTSITATEKO GRADUKO ETA LEHEN ETA BIGARREN ZIKLOETAKO IKASKETETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEEN KOPURUAREN BILAKAERA EAE-N

	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07	2007-08	2008-09	2009-10	2010-11	10-11ko ald. %
1. eta 2. zikloetan matrikulatutakoak									
Guztira	71.960	69.696	66.322	63.691	61.649	59.118	55.088	40.335	-26,8
Gizonak	32.346	31.746	30.219	29.048	27.831	26.691	24.888	18.534	-25,5
Emakumeak	39.614	37.950	36.103	34.643	33.818	32.427	30.200	21.801	-27,8
Titulartasun publikoa	54.943	54.180	51.758	49.953	48.580	47.490	46.347	34.446	-25,7
Titulartasun pribatua	17.017	15.516	14.564	13.738	13.069	11.628	8.741	5.889	-32,6
Gradua									
Guztira						381	4.646	18.797	304,6
Arteak eta Giza Zientziak							718	2.577	
Zientziak							1	651	
Osasun Zientziak							512	2.420	
Zientzia Sozial eta Juridikoak						84	2.187	8.244	
Ingeniaritza eta Arkitektura						297	1.228	4.905	
Gizonak						249	2.163	8.752	
Emakumeak						132	2.483	10.046	
Titulartasun publikoa						-	1.487	13.677	
Titulartasun pribatua						381	3.159	5.120	
GUZTIRA	**71.960**	**69.696**	**66.322**	**63.691**	**61.649**	**59.499**	**59.734**	**59.132**	**-1,0**
Gizonak	32.346	31.746	30.219	29.048	27.831	26.940	27.051	27.286	0,9
Emakumeak	39.614	37.950	36.103	34.643	33.818	32.559	32.683	31.847	-2,6
Titulartasun publikoa	54.943	54.180	51.758	49.953	48.580	47.490	47.834	48.123	0,6
Titulartasun pribatua	17.017	15.516	14.564	13.738	13.069	12.009	11.900	11.009	-7,5

Iturria: EUSTAT

I.1.16.KOADROA. UNIBERTSITATEKO GRADUKO ETA LEHEN ETA BIGARREN ZIKLOETAKO IKASKETETAN GRADUATUTAKO IKASLEEN KOPURUAREN BILAKAERA EAE-N

	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07	2007-08	2008-09	2009-10	10-11ko ald. %
1. eta 2. zikloetako gradudunak								
Guztira	11.704	11.382	11.400	10.625	10.726	10.170	10.348	1,8
Osasun Zientziak	673	638	652	686	687	672	739	10,0
Zientzia Esperimentalak	617	677	643	583	505	463	423	-8,6
Zientzia Sozial eta Juridikoak	6.112	5.752	5.571	5.155	5.040	5.138	5.289	2,9
Irakaskuntza teknikoak	3.308	3.398	3.630	3.384	3.698	3.178	3.155	-0,7
Giza Zientziak	994	917	904	817	796	719	742	3,2
Gizonak	4.607	4.556	4.581	4.334	4.472	4.065	4.233	4,1
Emakumeak	7.097	6.826	6.819	6.291	6.254	6.105	6.115	0,2
Titulartasun publikoa	11.704	11.382	11.400	10.625	10.726	10.170	10.348	1,8
Titulartasun pribatua	7.641	7.714	7.939	7.506	7.334	7.181	7.397	3,0
Gradua							150	
Guztira							150	
Osasun Zientziak								
Zientzia Esperimentalak								
Zientzia Sozial eta Juridikoak							150	
Irakaskuntza teknikoak								
Giza Zientziak								
Gizonak							16	
Emakumeak							134	
Titulartasun publikoa								
Titulartasun pribatua							150	
GUZTIRA	**11.704**	**11.382**	**11.400**	**10.625**	**10.726**	**10.170**	**10.498**	**3,2**
Gizonak	4.607	4.556	4.581	4.334	4.472	4.065	4.249	4,5
Emakumeak	7.097	6.826	6.819	6.291	6.254	6.105	6.249	2,4
Titulartasun publikoa	11.704	11.382	11.400	10.625	10.726	10.170	10.348	1,8
Titulartasun pribatua	7.641	7.714	7.939	7.506	7.334	7.181	7.547	5,1

Iturria: EUSTAT

EUSTATen datuen arabera, 2009-2010 ikasturteko titulazioen araberako lehen eta bigarren zikloetako graduazioaren azterketa sakonak erakusten du lehenengo 25 titulazioak honako hauek izan zirela:

- 300 pertsona baino gehiago graduatuta: enpresa-zuzendaritzako lizentziatura (748 ikasle graduatuta), enpresa zientzietako diplomatura (682), irakasle ikasketak: Haur Hezkuntza (593), irakasle ikasketak: Lehen Hezkuntza (401), industria-ingeniaritza (399), ingeniaritza teknikoa – espezialitatea: mekanika (388), erizaintzako diplomatura (380), psikologiako lizentziatura (314), industria-antolaketako ingeniaritza (309), gizarte-hezkuntzako diplomatura (308), industria-ingeniaritza teknikoa – espezialitatea: elektronika (306).
- 300 pertsona baino gutxiago graduatuta: zuzenbideko lizentziatura (292), informatika ingeniaritza (265), irakasle ikasketak: gorputz hezkuntza (239), arte ederretako lizentziatura (210), gizarte-laneko diplomatura (195), kudeaketa-informatikako ingeniaritza teknikoa (187), medikuntzako lizentziatura (184), irakasle ikasketak: atzerriko hizkuntza (181), kazetaritzako lizentziatura (169), psikopedagogiako lizentziatura (167), arkitektura (163), turismoko diplomatura (163), telekomunikazio ingeniaritza (149), irakasle ikasketak: hezkuntza berezia (113).

Alde horri buruzko azterketa zehatzagoa egiteko, irakurleari gomendatu nahi diogu 2011ko memoria sozioekonomikora jotzea, memoria hau amaitzean ez baitzegoen ondoko daturik.

I.1.17 KOADROA. LANERATZEAREN ADIERAZLE NAGUSIAK EAE-N

Elkarrizketaren data	2009ko IV. hiruhilekoa			2010eko IV. hiruhilekoa			2011ko IV. hiruhilekoa		
Promozioa	2006			2007			2008		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emaku-meak
Jarduera-tasa	92,6	91,9	93,1	92,4	93,1	91,9	91,3	90,5	91,9
Enplegu-tasa	80,2	78,0	81,6	79,5	80,4	78,9	77,0	77,5	76,6
Langabezia-tasa	13,4	15,0	12,3	14,0	13,7	14,2	15,7	14,4	16,6
Ikasketen amaieraren eta 1. enpleguaren bitarteko denbora (hilabeteen batezbestekoa)	7,1	6,4	7,5	5,9	5,3	6,2	7,5	7,4	7,7
Laneratzeko kanalak (%)									
Gizarte ingurunea (familia, lagunak, kontaktuak)	20			19			21		
Autokandidatura	24			21			19		
Internet	16			16			15		
Oposizioak eta lan-poltsa publikoak	14			14			15		
Unibertsitatea, enpresetako praktikak	16			17			16		
Autoenplegua	3			3			3		

Iturria: Bizitza aktibora sartzeari buruzko azterlana, 2008ko promozioa. LANBIDE

I.1.18. KOADROA. ENPLEGU- ETA LANGABEZIA-TASAK JAKINTZA ARLOAREN ARABERA *EAE, 2008ko promozioa (2011ko IV. hiruhilekoko elkarrizketa)*

	Enplegu-tasa	Langabezia-tasa
Esperimentalak	76	16
Teknikoak	80	12
Osasuna	87	10
Sozialak	75	19
Ekonomikoak eta Juridikoak	76	17
Giza Zientziak	70	21

Iturria: Bizitza aktiboan sartzeari buruzko azterlana, 2008ko promozioa. LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua.

1.2.2.2. Unibertsitate gradudunak laneratzea

LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuaren *Bizitza aktiboan sartzeari buruzko azterlana*ren azken datuen arabera, beherantz egin dute azterturiko azken unibertsitate promozioen (2006ko, 2007ko eta 2008ko promozioak) jarduera- eta enplegu-tasek; langabezia-tasek, berriz, gora egin dute.

2008ko[1] gradudunen promozioaren kasu zehatzean, telefono bidezko elkarrizketa pertsonala egin denean (2011ko urritik abendura bitartean), enplegu-tasa % 77koa (% 77,5 gizonentzat eta % 76,6 emakumeentzat) zen; langabezia-tasa, berriz, % 15,7koa (% 14,4 gizonentzat eta % 16,6 emakumeentzat). 2007ko gradudunen promoziorako tasak % 79,5 eta % 14 ziren, hurrenez hurren.

Horrez gain, ikasketen amaieraren eta lehenengo enpleguaren arteko batez besteko denbora 7,5 hilabete ingurukoa zen (7,4 gizonentzat eta 7,7 emakumeentzat), aurreko promozioak baino 1,6 hil gehiago behar izan zituela.

Laneratzeko kanalari dagokionez, nagusia "gizarte ingurunea" (% 21) eta bigarrena "autokandidatura" (% 19) dira, nahiz eta denboran zehar gutxitzen joan den.

Jakintza arloaren arabera, erabilgarri dauden azken datuek erakusten dute osasunari eta espezialitate teknikoei lotutako arloak direla errazago laneratzen direnak, haien langabezia-tasak % 10 eta % 12 direla, hurrenez hurren, % 15,7eko batezbestekoaren azpitik egonda.

1.2.3. Hezkuntzaren adierazleak

2009ko maiatzaren 12an Europar Batasuneko Kontseiluak izandako batzarrean *Europako hezkuntza eta prestakuntza kooperaziorako markoa* erabaki zen. Honen helburuak honakoak dira: herritar guztien lanbide errealizazioa, gizarte errealizazioa eta norberaren errealizazioa bermatzea; enplegagarritasun

1 *EAEko hiru unibertsitateetan (UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragoi Unibertsitatea).*

I.1.19. KOADROA. HELBURUAK	EUROPAKO ERREFERENTZIAZKO PUNTUA 2020RAKO
1. EH. Bizitza osoko ikaskuntza eta mugikortasuna errealitate bihurtzea	25-64 urteko **helduen % 15ek**, gutxienez, parte hartzea etengabeko ikaskuntzan. Herrialdeen arteko **mugikortasun** fisikoa goi mailako hezkuntzaren esparruan, eta lanbide heziketa zein irakasleen mugikortasuna gehitzeko aukera izanda.
2. EH. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea	Irakurketa, Matematika eta Zientzien oinarrizko gaitasunetan etekin txikia duten 15 urteko ikasleen portzentajea **% 15etik beherakoa** izatea. Atzerriko hizkuntzei buruzko erreferentziazko puntua. Enplegagarritasunari buruzko erreferentziazko puntua.
3. EH. Ekitatea, gizarte-kohesioa eta herritar aktiboak sustatzea	Lau urteren eta Lehen Hezkuntza hasteko adinaren bitarteko umeen **% 95ek, gutxienez**, Lehen Hezkuntzan parte hartzea. Haren xedea Haur Hezkuntzako partaidetza handitzea da, ondoko hezkuntza arrakastarako oinarri gisa, batez ere ingurune txarretatik datozenentzat. Hezkuntza eta prestakuntza behar baino goizago uzten dituztenen portzentajea **% 10etik beherakoa** izatea, 18-24 urte bitarteko gazteentzat. **DBH arrakastaz amaitzen duten ikasleen kopurua gehitzea**.
4. EH. Sormena eta berrikuntza finkatzea, hezkuntzaren eta prestakuntzaren maila guztietan izaera ekintzailea gehituta	Hirugarren mailako hezkuntza maila arrakastaz amaitzen duten 30-34 urte bitarteko pertsonen portzentajea **% 40koa, gutxienez,** izatea.

I.1.20 KOADROA. ADIERAZLEEN SAILKAPENA (HEZKUNTZA ADIERAZLEEN ESTATUKO SISTEMA)	
Eskolatzea eta hezkuntza ingurunea	1. Eskolatzea eta biztanleria 2. Eskolaratze-tasak derrigorrezkoak ez diren mailetako adin teorikoetan (INSN 0, 3, 4 eta 5) 3. Atzerritar ikasleak 4. Ikasleak taldearen eta irakaslearen arabera • Ikasleak hezkuntza taldearen arabera • Ikasleak irakaslearen arabera 5. Etengabeko prestakuntzako partaidetza
Hezkuntza finantzaketa	6. Hezkuntzako gastu osoa • Hezkuntzaren BPGd-arekiko gastu osoa • Hezkuntzaren gastu publikoa • Itunetarako gastu publikoa 7. Hezkuntzaren ikasleko gastua
Hezkuntza emaitzen adierazleak	8. Lehen Hezkuntzako laugarren mailako oinarrizko gaitasunak 9. DBHko bigarren mailako oinarrizko gaitasunak 10. 15 urteko ikasleen funtsezko gaitasunak (Irakurketa, Matematika eta Zientziak) 11. Egokitasuna ikaslearen adinean 12. Eskola behar baino goizago uztea 13. Graduazio-tasak (INSN 2, 3, 5 eta 6) • DBHko graduazio-tasa gordina • Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko ikasketetako graduazio-tasa gordinak • Goi mailako ikasketetako graduazio-tasa gordinak • Zientzia, Matematika eta Teknologiako goi mailako gradudunen tasa 14. Helduen ikasketa maila 15. Jarduera- eta langabezia-tasak hezkuntza mailaren arabera 16. Laneko diru-sarreren arteko aldea ikasketa mailaren arabera

eta oparotasun ekonomiko iraunkorra; eta balio demokratikoak, gizarte-kohesioa, herritar aktiboak eta kulturen arteko elkarrizketa sustatzea.

Hezkuntza eta Prestakuntza Estrategia 2020 berrian ezarritako helburuek lehengo Estrategia 2010ean zehaztutako batzuk eguneratu, eta berri batzuk gehitu dituzte. Aldi berean, estatu kideek beren helburu nazional propioak ezartzeko konpromisoa hartu dute, haien abiapuntu erlatiboak eta inguruabar nazionalak kontuan hartuta. Adierazle nagusiak erantsitako laukian aipatu dira.

Epigrafe honetan EUROSTATek, EUSTATek eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioko Hezkuntza Ebaluazioko Institutu Nazionalak (HEIN) eskainitako informaziotik aurrera hezkuntza adierazle batzuen bilakaera aztertu da, Adierazleen Sailkapena (Hezkuntza Adierazleen Estatu Sistema) kontuan hartuta. Haietako bakoitza urtero aztertzen ez dugunez gero, edizio honetan aztertu ez direnen ikuspegia izan nahi bada, aurre-aurreko urteetako memoriak irakurtzea gomendatzen dugu.

1.2.3.1. Eskolaratzea eta hezkuntza ingurunea

Eskolatze-tasa garbiak

ELGAren *Education at a Glance 2012* izeneko txostenean adierazi bezala, herrialde gehienetan Haur Hezkuntza gehitzen ari da, hezkuntza etapa horrek "bizitza osoan ikasteko oinarri tinkoa eraikitzen laguntzen duela eta ondoko hezkuntzan berdintasuna bermatzen duela" onartu baita.

I.1.21. KOADROA. ADIN-TALDEEN ESKOLATZE-TASA GARBIAK (1), MAILA, SEXU ETA IKASTURTEAREN ARABERA (%). EAE.

	0-2 urte	3-5 urte	6-11 urte	12-15 urte	16-17 urte	18-21 urte	22-25 urte	26-29 urte
Guztira	**51,9**	**99,8**	**100,1**	**99,7**	**96,5**	**67,4**	**29,4**	**9,8**
Gizonak	**52,7**	**100,4**	**100,3**	**99,7**	**96,5**	**65,9**	**29,5**	**9,8**
Emakumeak	**50,9**	**99,1**	**99,8**	**99,7**	**96,4**	**69,1**	**29,3**	**9,8**
Haur eta Lehen Hezkuntzak	51,9	99,8	100,1	3,3	0	0	0	0
Gizonak	52,7	100,4	100,3	3,9	0	0	0	0
Emakumeak	50,9	99,1	99,8	2,7	0	0	0	0
Bigarren Hezkuntza, guztira	0	0	0	96,3	96,5	18,2	2,5	0,9
Gizonak	0	0	0	95,8	96,5	21,2	2,8	0,9
Emakumeak	0	0	0	96,9	96,4	14,9	2,1	0,9
DBH	0	0	0	96,1	14,6	0,1	0	0
Gizonak	0	0	0	95,4	16,5	0,1	0	0
Emakumeak	0	0	0	96,8	12,6	0,1	0	0
Batxilergoa	0	0	0	0	67,7	7,2	0,6	0,1
Gizonak	0	0	0	0	61,3	6,9	0,6	0,2
Emakumeak	0	0	0	0	74,6	7,5	0,6	0,1
LH	0	0	0	0	5,2	9,1	1,9	0,8
Gizonak	0	0	0	0	6,7	11,5	2,2	0,7
Emakumeak	0	0	0	0	3,6	6,5	1,5	0,8
Goi mailako ikasketak, guztira	0	0	0	0	0	49,3	26,9	8,9
Gizonak	0	0	0	0	0	44,7	26,7	8,9
Emakumeak	0	0	0	0	0	54,1	27,2	8,9
Unibertsitatekoak ez diren goi mailako ikasketak	0	0	0	0	0	11,8	5,3	1,6
Gizonak	0	0	0	0	0	13,8	6,7	1,8
Emakumeak	0	0	0	0	0	9,8	3,9	1,5
Unibertsitateko goi mailako ikasketak	0	0	0	0	0	37,4	21,6	7,3
Gizonak	0	0	0	0	0	30,9	19,9	7,1
Emakumeak	0	0	0	0	0	44,4	23,3	7,4

(1) Maila eta adin-talde bakoitzeko eskola umeen eta adin-tarte horretako biztanleen arteko erlazioa.
Mailak egiteko adin teorikoak honako hauek dira: Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa (0-2 urte), Haur Hezkuntzako bigarren zikloa (3-5 urte), Lehen Hezkuntza (6-11 urte), Bigarren Hezkuntza (12-17 urte), DBH (11-15 urte), Batxilergoa (16-17 urte), erdi mailako Lanbide Heziketa (16-17 urte), goi mailako ikasketak (18-29 urte).
Adinaren araberako eskolatze-tasak kalkulatzeko Eustatek egindako biztanleria-piramide gaurkotua erabili da, azken maila akademikoan izan ezik; izan ere, horretan proiekzioen datua aplikatu da.
Iturria: EUSTAT

HEINek 2012an argitaratutako *Panorama de la Educación. Indicadores OCDE 2012, informe español* izeneko txostenaren datuen arabera, Espainiar Estatua Haur Hezkuntzan eskolatze-tasa handienak dituzten herrialdeen artean dago. Bi urtera arte, 2010ean, haurren % 26,5 zeuden eskolatuta. ELGAko eta EBko herrialdeen batezbestekoa, berriz, txikiagoa da: % 3,3 eta % 3,8, hurrenez hurren. 3 eta 4 urte bitartean, eskolatzea ia unibertsala da Estatuan; izan ere,

% 99koa da; ELGAn eta EBn, berriz, % 71,9koa eta % 78,1ekoa da, hurrenez hurren.

HEINen *Sistema estatal de indicadores de la educación* izeneko txostenaren (2012ko edizioa) datuek joera berdinak erakutsi dituzte: Estatuko eskolatze-tasa garbiak munduko handienetako batzuk dira, 3 eta 15 urte bitartean % 100era helduta (edo ia ratio hori). Beste autonomia erkidego batzuen aldean, EAEk eskolatze-tasa handiagoak ditu 17 eta 18 urterekin, Gaztela eta Leonek 19 eta 21 urterekin, eta Madrilek 22 eta 24 urte bitartean.

I.1.22. KOADROA. HEZKUNTZA ETAPA BAKOITZAREN ESTATUKO ATZERRITAR IKASLEEN PORTZENTAJEA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA.

	2009-2010, GUZTIRA		Haur Hezkuntza		Lehen Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia		DBH	
	GUZTIRA	%	2004-05	2009-10	2004-05	2009-10	2004-05	2009-10
ESTATUA	762.420	10,0	6,1	7,0	8,0	11,0	6,7	12,1
Andaluzia	89.180	5,8	3,3	4,3	4,4	6,4	3,7	7,0
Aragoi	26.694	13,2	7,5	10,5	9,0	15,0	7,4	14,0
Asturias	6.838	5,3	2,5	2,6	3,7	5,9	3,1	7,2
Balear Uharteak	27.655	16,6	10,0	11,4	13,2	16,7	11,3	19,7
Kanariar Uharteak	33.250	9,8	6,0	4,9	8,4	8,7	7,9	11,4
Kantabria	6.362	7,5	3,3	3,8	4,9	7,9	4,2	10,4
Gaztela eta Leon	29.472	8,3	4,0	6,5	5,3	9,2	4,3	8,7
Gaztela-Mantxa	33.799	9,3	5,5	7,1	6,1	11,1	5,1	10,5
Katalunia	160.468	13,0	7,6	8,9	10,9	14,3	9,1	17,9
Valentzia	97.272	12,2	7,5	7,1	10,6	12,8	9,5	15,9
Extremadura	6.221	3,5	2,1	3,1	2,3	4,0	1,6	3,5
Galizia	15.303	4,1	1,7	2,0	2,4	4,6	2,1	4,7
Madril	150.081	14,1	8,8	9,9	13,3	15,7	11,7	16,7
Murtzia	35.326	13,0	9,1	9,1	11,1	14,7	8,3	15,2
Nafarroa	11.127	11,3	8,6	5,8	11,0	13,1	8,3	13,2
EAE	**23.612**	**7,0**	**2,7**	**4,4**	**4,1**	**7,1**	**3,7**	**8,0**
Errioxa	7.785	16,2	10,6	14,8	12,2	18,1	9,0	17,7
Ceuta	444	2,6	1,6	1,5	1,4	2,3	0,9	2,8
Melilla	1.531	8,8	3,5	13,0	5,8	8,8	5,2	5,9

Iturria: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren HEINen* Sistema estatal de indicadores de la educación *izeneko txostena (2012ko edizioa)

Halaber, txosten horrek adierazi du Gaztela eta Leon eta EAE derrigorrezkoak ez diren hezkuntza-mailetan estatuko eskolatze-tasak maizago gainditzen dituzten autonomia erkidegoak direla.

EUSTATen Irakaskuntzaren Estatistikaren datuek erakusten dutenez, murritzak dira Haur Hezkuntzako lehen zikloari (0-2 urte) dagozkion adinetako eskolatze-tasa[2] garbiak: % 51,9 (% 52,7 mutikoak eta % 50,9 neskatilak). Horrez gain, eskolatze-tasak 16 eta 17 urtetan (Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako adin teorikoak), % 96,5 dira (% 96,5 mutilak eta % 96,4 neskak). Goi mailako hezkuntzari dagozkion adinetan, tasa garbiek behera egiten dute adinak gora egin ahala. Hala, tasak % 67,4 dira 18-21 urterekin, % 29,4 22-25 urterekin eta % 9,8 besterik ez 26-29 urterekin.

Atzerritar ikasleak

Azken urteotako migrazio fenomenoaren ondorioz gero eta atzerritar ikasle gehiago sartzen dira gure hezkuntza sisteman; hori dela-eta, gelak eta ikastetxeak heterogeneoagoak dira. Adierazle horren helburua ikasle horiek hezkuntza etapetan duten banaketa eta haien azken ikasturteetako bilakaera jakitea da.

HEINen *Sistema estatal de indicadores de la educación* izeneko txostenaren (2012ko edizioa) datuen arabera, 1999-2000 eta 2009-2010 ikasturteen

[2] Adin tarte jakin batean tasa % 100 baino altuagoa edo baxuagoa bada, baliteke populazioaren zifra errealen eta lanerako erabilitako zifren arteko desberdintasunengatik izatea.

artean gehikuntza etengabea eta mailakakoa egon da atzerritar ikasleen artean: 1999-2000 ikasturtean 100.000 baino pixka bat gehiago ziren, eta hamar urte beranduago, berriz, 700.000 baino gehiago . Portzentajeari dagokionez, aztertutako aldi horretan ikasle guztien % 1,4 izatetik % 10,0era izatera pasatu dira.

Autonomia erkidegoen banaketan eta 2009-2010 ikasturtean ikusten denez, atzerritar ikasle gehiago daude Balear Uharteetan (% 16,6), Errioxan (% 16,2) eta Madrilen (% 14,1); horien atzean ekialdeko eta ipar-ekialdeko erkidegoak daude: Aragoi (% 13,2), Katalunia eta Murtzia (% 13,0), Valentzia (% 12,2) eta Nafarroa (% 11,3). Atzerritar ikasleen % 8 eta % 11 arteko kopurua duten erkidegoen artean, Kanariar Uharteak (% 9,8), Gaztela-Mantxa (% 9,3), Melilla (% 8,8) eta Gaztela eta Leon (% 8,3) daude. Atzerritar ikasleen % 5 eta % 8 arteko kopurua dutenak Kantabria (% 7,5), EAE (% 7,0), Andaluzia (% 5,8) eta Asturias (% 5,3) dira. Azkenik, atzerritar ikasle gutxien dituztenak Galizia (% 4,1), Extremadura (% 3,5) eta Ceuta (% 2,6) dira.

Estatu osoan 2004-2005 eta 2009-2010 ikasturteak erkatzen badira, hezkuntza-etapa bakoitzean ehun ikasleko atzerritar ikasleak gehitu direla antzematen da. Haur Hezkuntzan % 6,1etik % 7,0ra, eta Lehen Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian % 8,0tik % 11,0ra pasatu dira. Amaitzeko, urte horien bitartean atzerritar ikasleen kopuru erlatiboa neurri handienean handitu duen hezkuntza-etapa DBH izan da, % 6,7tik % 12,1era pasatuta. Horrez gain, EAEko portzentajeak honako hauek izan dira: Haur Hezkuntzan % 2,7tik % 4,4ra, Lehen Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian % 4,1etik % 7,1era eta DBHn % 3,7tik % 8ra.

Ikasleak hezkuntza-taldearen eta irakaslearen arabera

HEINen *Sistema estatal de indicadores de la educación* izeneko txostenaren (2012ko edizioa) datuen arabera, 2009-10 ikasturtean DBHk eta Batxilergoak ikasleen batez besteko kopuru handiagoa duten hezkuntza-taldeak izan dituzte: 24 eta 26 ikasle, hurrenez hurren. Hona hemen batezbestekoak: Haur Hezkuntzan 19,1 ikasle, Lehen Hezkuntzan 21,2, erdi mailako LHn 20,5, goi mailako LHn 20,2 eta HLPPn 13,7.

EUSTATen arabera, EAEn 2010-2011 ikasturtean ikasleen taldeko ratioaren balio handiena Bigarren Irakaskuntzan (DBH, Batxilergoa eta LH barne hartuta) dago, taldeko 20 ikasle daudela; horren atzean Oinarrizko Irakaskuntza dago, taldeko 18,7 ikasle daudela.

Ikasleen irakasleko batez besteko kopuruak ikasleen hezkuntza taldeko batez besteko kopuruari buruzko datuak osatzen ditu. Lehenengo kopuru hori bigarrena baino txikiagoa izan ohi da, bi adierazleen azterketa konparatutik ondorioztatzen denez.

HEINen *Sistema estatal de indicadores de la educación* izeneko txostenaren (2012ko edizioa) datuen arabera, EBko herrialdeen artean Espainiak ikasleen ratio neurrizkoa-txikia dauka unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzetan, irakasle bakoitzeko 11 ikasle baititu. Ratiorik handienak Erresuma Batuan, Herbehereetan, Alemanian eta Estonian daude: 16 ikasle baino gehiago irakasleko.

EUSTATen arabera, EAEn 2010-2011 ikasturtean ratioaren balio handiena oinarrizko irakaskuntzetan (13,2) eta unibertsitate irakaskuntzan (13,5) dago. DBHn ratioa 9,8 da.

Halaber, nabarmena da adierazitako adierazle guztietan irakaskuntza publikoaren eta pribatuaren artean dagoen alde handia, alde hori hezkuntza-maila guztietan agertzen dela. Adierazle negatiboenak (ikasleak hezkuntza-taldearen eta irakaslearen arabera) titulartasun pribatuko zentroei lotuta daude beti, sare publikoko baldintza hobeen aurrean.

I.1.23. KOADROA. IKASLE/IRAKASLEKO ETA IKASLE/TALDEKO RATIOAK. EAE.

	2005-06	2006-07	2007-08	2008-09	2009-2010	2010-2011		
						Guztira	Pub.	Prib.
Oinarrizko irakaskuntza (1)								
Irakasleak (AOB)/taldea	1,3	1,3	1,3	1,3	1,4	1,4	1,7	1,1
Ikasleak/irakasleak (AOB)	13,9	14,0	13,9	13,9	13,7	13,2	10,2	19,3
Ikasleak/taldea	18,1	18,3	18,5	18,6	18,6	18,7	17,1	20,8
Bigarren Irakaskuntza (3)								
Irakasleak (AOB)/taldea	1,9	1,9	2	2	2	2	2,6	1,5
Ikasleak/irakasleak (AOB)	10,4	9,9	9,7	9,7	9,6	9,8	7,3	14,7
Ikasleak/taldea	19,4	19,1	19,1	19,3	19,5	20,0	18,7	21,4
Unibertsitateko ikasketak								
Ikasleak/irakasleak (AOB)	15,6	14,6	13,5	12,9	13	13,5	13	16,5

(1) Oinarrizko irakaskuntza: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza barne hartzen ditu. (2) AOB: arduraldi osoko baliokidetasuna. Arduraldi osoa duten irakasle guztien eta arduraldi partziala duten irakasleen erdien batura. (3) Bigarren Irakaskuntza: DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa barne hartzen ditu.
Iturria: EUSTAT

I.1.24.KOADROA. ETENGABEKO IKASKUNTZAKO PARTE-HARTZEA EB-N. EAE-REKIKO ERKAKETA.
(Etengabeko hezkuntzako edo prestakuntzako ekintza batean parte hartzen duten 25-64 urte bitarteko biztanleen %)

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2012-2006ko aldea (p.p.)
27ko EB	9,5	9,3	9,4	9,3	9,1	8,9	9	-0,5
Belgika	7,5	7,2	6,8	6,8	7,2	7,1	6,6	-0,9
Bulgaria	1,3	1,3	1,4	1,4	1,2	1,3	1,5	0,2
Txekiar Errep.	5,6	5,7	7,8	6,8	7,5	11,4	10,8	5,2
Danimarka	29,2	29	29,9	31,2	32,5	32,3	31,6	2,4
Alemania	7,5	7,8	7,9	7,8	7,7	7,8	7,9	0,4
Estonia	6,5	7	9,8	10,5	10,9	12	12,9	6,4
Irlanda	7,3	7,6	7,1	6,3	6,8	6,8	7,1	-0,2
Grezia	1,9	2,1	2,9	3,3	3	2,4	2,9	1
Espainia	10,4	10,4	10,4	10,4	10,8	10,8	10,7	0,3
Frantzia	6,4	6,1	6	5,7	5	5,5	5,7	-0,7
Italia	6,1	6,2	6,3	6	6,2	5,7	6,6	0,5
Zipre	7,1	8,4	8,5	7,8	7,7	7,5	7,4	0,3
Letonia	6,9	7,1	6,8	5,3	5	5,1	7	0,1
Lituania	4,9	5,3	4,9	4,5	4	5,7	5,2	0,3
Luxemburg	8,2	7	8,5	13,4	13,4	13,6	13,9	5,7
Hungaria	3,8	3,6	3,1	2,7	2,8	2,7	2,8	-1
Malta	5,4	6	6,3	6,1	6,2	6,5	7	1,6
Holanda	15,6	16,6	17	17	16,6	16,7	16,5	0,9
Austria	13,1	12,8	13,2	13,8	13,7	13,4	14,1	1
Polonia	4,7	5,1	4,7	4,7	5,3	4,5	4,5	-0,2
Portugal	4,2	4,4	5,3	6,5	5,8	11,6	10,6	6,4
Errumania	1,3	1,3	1,5	1,5	1,3	1,6	1,4	0,1
Eslovenia	15	14,8	13,9	14,6	16,2	15,9	13,8	-1,2
Eslovakia	4,1	3,9	3,3	2,8	2,8	3,9	3,1	-1
Finlandia	23,1	23,4	23,1	22,1	23	23,8	24,5	1,4
Suedia	18,4	18,6	22,2	22,2	24,4	24,9	26,7	8,3
Erresuma Batua	26,7	20	19,9	20,1	19,4	15,8	15,8	-10,9
EAE	-	-	-	-	**13**	-	-	-

Iturria: EUROSTAT eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren HEINen* Sistema estatal de indicadores de la educación *izeneko txostena (2012ko edizioa)

Etengabeko ikaskuntzako parte-hartzea

Etengabeko ikaskuntza bizitza osoan bai hezkuntza sistema formaletan bai beste jarduera ez formal batzuetan jasotako prestakuntza da.

Estatistikoki inkestaren aurreko lau asteetan adin bereko biztanle guztien gainean etengabeko hezkuntza edo prestakuntzako ekintza batean parte hartzen duten 25 eta 64 urte bitarteko biztanleen portzentajea da (galderari erantzuten ez diotenak kontuan hartu gabe).

Etengabeko ikaskuntzan parte-hartzearen arloan EBk 2020rako ezarritako helburuaren arabera, 25-64 urteko helduen % 15ek, gutxienez, hartuko du parte etengabeko ikaskuntzako jardueraren batean.

Helburu hori oraindik urrun dago, zeren eta, EUROSTATen arabera, etengabeko prestakuntzako ikastaroak egiten dituztenen batezbestekoa % 9koa baita 27ko EBn eta % 10,7 Estatuan. Hala eta guztiz ere, herrialdeen artean alde handiak daude. Batzuek prestakuntza jasotzen duten helduen portzentaje handiak (% 20tik gorakoak) dituzte, adibidez, Danimarka, Suedia eta Finlandia; beste muturrean, aldiz, % 3tik beherako portzentajea dutenak daude: Bulgaria, Grezia, Errumania eta Hungaria. 2006 eta 2012 bitartean nabarmenak dira Suedia, Portugal, Estonia, Luxemburg eta Txekiar Errepublikako gehikuntzak, 5 puntu portzentualetik gorakoak izan baitira, baita Erresuma Batua ere, 10,9 puntu portzentualeko jaitsiera izan baitu. Espainian igoera 0,3 puntukoa izan da; EBko batezbestekoa, aldiz, 0,5 puntu jaitsi da.

HEINen *Sistema estatal de indicadores de la educación* izeneko txostenaren (2012ko edizioa) datuen arabera, 2010. urtean, Espainiako helduen % 10,8k hartu dute parte etengabeko prestakuntzako jardueraren batean, eta ratiorik handienak Nafarroan (% 13,2), EAEn (% 13), Aragoin (% 11,7) eta Kanariar Uharteetan (% 11,6) lortzen dira. Estatu mailan partaidetza handiagoa izan da emakumeen artean (% 12) gizonen artean (% 10) baino, eta gauza bera gertatzen da autonomia erkidego guztietan. Emakumeen partaidetza gizonena baino handiagoa duten erkidegoen artean, nabarmenak dira Nafarroa eta EAE, emakumeen aldeko 4 puntu portzentualeko aldea baitaukate.

Ikasleen nazioarteko mugikortasuna

I.1.25. KOADROA. HIRUGARREN MAILAKO HEZKUNTZAKO NAZIOARTEKO IKASLEAK, HEZKUNTZA KOMUNITATEKO MATRIKULA OSOAREN PORTZENTAJE GISA, 2010EAN
(A mota eta Ikerketa Aurreratuko Programak)

	A motako hirugarren mailako hezkuntza	Ikerketa Aurreratuko Programak
Espainia	2,0	12,2
ELGA	7,8	21,1
Portugal	2,6	7,8
Alemania	8,7	-
Herbehereak	4,4	-
Finlandia	3,8	8,0
Norvegia	1,4	4,7
Suedia	6,5	24,2
Txile	0,7	13,3
AEB	3,3	27,8
Irlanda	6,9	27,1
Erresuma Batua	17,6	41,7
Japonia	2,9	17,3

Iturria: HEINen 2012ko **Panorama de la Educación. Indicadores OCDE 2012, informe español** ***izeneko txostena.***

Hirugarren mailako hezkuntzako (A mota deritzen ikasketetan, hots, helburu hau dutenetan: ikerketa aurreratuko prometan sartzeko edo gaikuntza handiko lanbideak egiteko prometan sartzeko beharrezko prestakuntza ematea, ikerkuntza aurreratuko programekin batera, ELGAren beraren metodologiaren arabera) nazioarteko ikasleen portzentajea aztertuta, ikasleen mugikortasunari buruzko hurbilketa lor dezakegu.

ELGAk bi mota bereizten ditu: alde batetik, ikasteko asmoz, haien jaioterritik joan diren ikasleak (nazioarteko ikasleak); eta, beste aldetik, matrikulatuta dauden herrialdean bizi direnak, baina herrialde horretako herritarrak ez direnak (atzerritar ikasleak). Beraz, nazioarteko ikasleak atzerritar ikasleen azpitalde bat dira.

HEINek 2012an argitaratutako *Panorama de la Educación. Indicadores OCDE 2012, informe español* izeneko txostenaren arabera, 2010eko datuak erabilita, A motako ikasketetan ELGAren batezbestekoa % 7,8koa da; herrialdeka nabarmena da Erresuma Batua, nazioarteko ikasleen portzentaje handiena (% 17,6) baitu; horren atzean Alemania dago (% 8,7). Estatuan unibertsitate ikasleen % 2 baino ez dira nazioarteko ikasleak. Ikerketa aurreratuko prometan berriro nabarmendu behar da Erresuma Batua, programa horietan matrikulatutako ikasleen % 41,7 nazioarteko ikasleak baitira. Portzentaje hori

handia da AEBn (% 27,8), Irlandan (% 27,1) eta Suedian (% 24,2) ere. ELGAren batezbestekoa % 21,1ekoa da. Estatuan kopurua hori neurrizkoagoa da, programa horiek ikasten dituztenen artean % 12,2 baino ez baitira nazioarteko ikasleak.

1.2.3.2. Gastua hezkuntzan

2011n Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren gastua 2.715,6 milioi eurokoa izan zen —bigarren kontusailik handiena—, Osasunarenaren ondoren (3.434 milioi euro). Horrek % 2,4ko jaitsiera dakar aurreko ekitaldiaren aldean. Zenbateko horrek % 26,7ko partaidetza dauka Eusko Jaurlaritzaren guztizko gastuaren barruan, aurreko urtean baino 0,3 hamarren gutxiago, hain zuzen. Gastu hori EAEko BPGd-aren % 4,1 da. 2010. urtean % 4,27 izan zen eta, beraz, haren aldean 0,17 puntu murriztu da.

Hezkuntza Departamentuaren gastuaren ikasleko ratioa (ikasle guztiak, hau da, araubide orokorrekoak zein berezikoak: Arte Plastikoak eta Diseinua, Hizkuntzak, Musika, Dantza, Kirola eta Goi mailako Diseinu ikasketak) jaitsiera izan du 2010 eta 2011 bitartean, 5.323 eurokoa izatetik 5.067 eurokoa izatera pasatu baita. 2012rako datua ez dago erabilgarri, ez baitago araubide bereziko ikasleei buruzko informaziorik.

Bestalde, 2012ko aurrekontuetan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailerako kontusaila 2.648 milioi eurokoa da. Horrek % 2,5eko murrizketa dakar aurreko urtean likidatutako gastuaren aldean. Eusko Jaurlaritzaren gastuen aurrekontuan duen partaidetza portzentajea % 25,3 da. Gastu hori EAEko BPGd-aren % 4 da, 2011n izandako portzentajea baino 0,1 puntu gutxiago, beraz.

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren *Las cifras de la educación en España. Curso 2010-2011 (Edición 2013)* izeneko txostenaren (2013ko edizioa) datuen arabera, EAEn hezkuntzaren gastu publikoa 2.782 milioi eurokoa izan zen 2010ean (urtebete aurrerago 2.817,3 milioi eurokoa izan zen); Estatu osoan Hezkuntza Administrazioei dagokien gastua 45.670 milioi eurokoa izan zen (2009an 46.311,5 milioi eurokoa izan zen).

Hezkuntza Administrazioek BPGd-ren gainean izandako gastua % 4,32koa da EAEn (% 3,42 unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan eta % 0,78 unibertsitatekoan) eta % 4,35ekoa Estatuan (% 3,18 unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan eta % 1,01 unibertsitatekoan).

Txosten beraren arabera, 27ko EBn 2009an Hezkuntzaren BPGd-arekiko gastu publiko osoaren zenbatespena, EUROSTATek egindakoa, % 5,41 zen; eta Estatuarena, aldiz, % 5,01

Horrez gain, unibertsitatekoa ez den irakaskuntzan ikasle bakoitzeko egindako gastu publikoa (ikastetxe publikoan edo itunduan) 2010. urtean, Lanerako Prestakuntza kanpoan utzita, 7.388 eurokoa da EAEn. Horrela, gure Erkidegoa da ikasle bakoitzeko gastu handiena ageri duena. Estatuko batezbesteko 5.484 euro dira. EAEtik gertu daude Nafarroa (6.803 euro), Asturias (6.623 euro), Galizia (6.450) eta Kantabria (6.272). Bestalde, Lanerako Prestakuntza berriro kanpoan utzita, unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako ikasle bakoitzeko gastu publikoa, 2010ean, 10.695 eurokoa izan da EAEn. Horren arabera, gure Erkidegoak ikasle bakoitzeko gasturik handiena dauka berriro. Estatuko batezbesteko 6.433 euro dira.

27ko EBn 2009an hezkuntza erakundeen ikasleko gastuaren zenbatespena (EAP erabilita bihurtutako euroak —EUROSTATen zenbatespena—) honako hau izan zen: 5.383 Lehen Hezkuntzan eta 6.643 Bigarren Hezkuntzan; Espainiar estatuan, aldiz: 5.627 Lehen Hezkuntzan eta 7.621 Bigarren Hezkuntzan.

I.1.26. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAREN LIKIDATUTAKO GASTUAREN ETA AURREKONTUAN ADIERAZITAKOAREN BILAKAERA

Urteak	Milaka eurotan	Jaurlaritzaren guztia (milaka eurotan)	EJk likidatutako gastu osoaren gaineko %	BPGd-a milaka €-tan (2005eko oinarria)	BPGd-aren gaineko %	2006ko oinarria =100	Ikasle guztiak (1)	Ikaslearen gastua eurotan
2006	2.140.099	7.770.938	27,5	61.353.909	3,49	100	506.824	4.223
2007	2.403.160	8.584.886	28,0	65.962.032	3,64	112	504.822	4.760
2008	2.589.172	9.317.300	27,8	67.478.054	3,84	121	503.772	5.140
2009	2.824.094	10.304.507	27,4	63.988.786	4,41	132	508.318	5.556
2010	2.783.639	10.327.556	27,0	65.120.174	4,27	130	522.981	5.323
2011	2.715.639	10.173.197	26,7	66.264.502	4,10	127	535.962	5.067
2012ko aurrekontuak	2.648.261	10.449.167	25,3	66.223.349	4,00	124	-	-

(1) Ikasle guztien artean erregimen orokorreko ikasleak eta erregimen bereziko ikasleak sartzen dira. Erregimen orokorreko ikasleen artean unibertsitateaz kanpoko ikasleak –zeinen artean hezkuntza bereziko ikasleak eta helduen hezkuntza iraunkorrekoak sartzen baitira- eta unibertsitateko ikasleak daude. Erregimen bereziko ikasleen artean arte plastiko eta diseinuko, hizkuntzetako, musikako, dantzako, kiroleko eta diseinuko goi mailako ikasketetako ikasleak sartzen dira.
Iturria: EUSTATen datuetatik, EAEko Kontu Orokorretatik eta azken urterako aurrekontuetatik aurrera egindakoa.

I.1.27. KOADROA. HEZKUNTZAREN GASTUA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA 2010EAN

	BPGd-a (milaka €-tan)	Hezkuntzaren gastua, guztira				Unibertsitatekoa ez den hezkuntzaren gastua				Unibertsitateko hezkuntzaren gastua			
		Guztira (milaka €-tan)	% (3)		Gastua/BPGd-a	Guztira (milaka €-tan)	% (3)		Gastua/BPGd-a	Guztira(milaka €-tan)	% (3)		Gastua/BPGd-a
			Gastu arrunta	Kapital-gastua			Gastu arrunta	Kapit. gast.			Gastu arrunta	Kapital-gastua	
GUZTIRA (1)	**1.048.883.000**	**50.571.655**	**88,5**	**10,4**	**4,82**	**36.587.172**	**93,1**	**6,8**	**3,49**	**10.628.201**	**74,5**	**20,5**	**1,01**
Hezkuntza Administrazioak, guztira		45.670.106	90,1	8,8	4,35	33.322.616	94,6	5,5	3,18	10.608.280	74,5	20,5	1,01
Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa		3.034.446	86,8	6,6		1.342.337	88,5	11,5		510.500	51,9	9,1	
Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa, autonomia erkidegoetarako transferentzien ondoren		2.264.579	88,0	3,1		585.891	95,7	4,3		497.079	50,6	9,3	
Andaluzia	142.521.770	8.035.472	88,8	10,5	5,64	5.964.324	92,9	7,1	4,18	1.879.726	75,0	22,2	1,32
Aragoi	33.262.734	1.193.824	90,5	9,1	3,59	885.598	95,5	4,5	2,66	300.298	75,7	22,7	0,90
Asturias	22.420.401	888.772	91,4	8,0	3,96	658.599	97,6	2,3	2,94	225.881	73,2	24,9	1,01
Balear Uharteak	25.963.703	899.224	89,3	10,5	3,46	801.010	91,2	8,6	3,09	97.307	73,6	26,3	0,37
Kanariar Uharteak	40.790.040	1.710.056	93,0	6,9	4,19	1.365.597	95,7	4,3	3,35	328.463	81,5	18,0	0,81
Kantabria	12.831.984	580.079	88,3	11,7	4,52	448.361	93,8	6,2	3,49	126.323	68,1	31,7	0,98
Gaztela eta Leon	54.891.141	2.287.558	90,9	8,8	4,17	1.700.738	93,8	6,2	3,10	562.430	81,5	16,9	1,02
Gaztela-Mantxa	37.003.762	2.043.539	92,6	6,9	5,52	1.756.576	94,7	5,2	4,75	278.255	78,9	18,0	0,75
Katalunia	194.996.064	6.870.970	92,0	7,7	3,52	5.203.967	95,5	4,4	2,67	1.588.706	79,7	19,1	0,81
Valentzia	100.563.432	4.845.690	85,1	12,8	4,82	3.578.652	91,8	8,2	3,56	1.255.708	65,8	26,1	1,25
Extremadura	17.163.949	1.027.403	93,0	7,0	5,99	855.689	95,9	4,1	4,99	161.722	77,2	22,6	0,94
Galizia	56.440.891	2.549.153	90,6	8,5	4,52	1.932.375	96,1	3,8	3,42	602.389	72,6	23,7	1,07
Madril	188.076.436	5.258.557	89,6	8,5	2,80	3.389.285	96,8	3,1	1,80	1.785.167	75,6	19,1	0,95
Murtzia	27.854.629	1.482.150	91,9	7,7	5,32	1.178.796	96,2	3,7	4,23	285.137	73,5	24,7	1,02
Nafarroa	17.916.127	680.812	89,7	10,3	3,80	589.152	91,2	8,8	3,29	86.506	79,6	20,4	0,48
EAE	**64.472.884**	**2.782.021**	**93,0**	**6,8**	**4,32**	**2.205.241**	**94,7**	**5,3**	**3,42**	**501.180**	**84,3**	**14,7**	**0,78**
Errioxa	7.955.407	270.248	92,3	7,5	3,40	222.766	93,8	6,3	2,80	46.005	85,3	13,8	0,58
Hezkuntzakoak ez diren Adm., guztira (2)		4.901.549	74,4	25,6		3.264.556	78,9	21,1		19.922	93,0	6,9	

(1) Banaketa kalkulatzeko, guztizkoari Administrazioak banatu ez duena eta doikuntza partidak kendu zaizkio. (2) Beste Ministerio eta Sail batzuk eta tokiko korporazioak biltzen ditu. (3) 100 batzen ez badute, beste partida batzuk (finantza-aktiboak eta -pasiboak) egon daitezkeelako da.
*Iturria: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa (*Las cifras de la educación en España *izeneko txostena, 2013ko edizioa) eta EIN*

I.1.28. KOADROA. UNIBERTSITATEKOA EZ DEN IRAKASKUNTZAREN GASTU PUBLIKOA (1), AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA

	Gastu publikoa ikasle publikoko eta itunpeko ikasleko (eurotan)		Gastu publikoa ikasle publikoko (eurotan)	
	2009	2010	2009	2010
GUZTIRA	**5.692**	**5.484**	**6.703**	**6.433**
Andaluzia	4.838	4.732	5.427	5.311
Aragoi	5.695	5.475	6.826	6.496
Asturias	6.747	6.623	8.208	7.971
Balear Uharteak	6.051	5.972	7.359	7.223
Kanariar Uharteak	5.461	5.166	6.201	5.822
Kantabria	6.463	6.272	7.943	7.549
Gaztela eta Leon	6.169	5.976	7.562	7.406
Gaztela-Mantxa	6.053	5.827	6.640	6.337
Katalunia	5.600	5.377	6.741	6.444
Valentzia	5.828	5.600	6.765	6.441
Extremadura	6.110	5.726	6.965	6.490
Galizia	6.787	6.450	8.041	7.615
Madril	4.931	4.603	5.990	5.536
Murtzia	5.430	5.385	6.262	6.147
Nafarroa	6.900	6.803	8.590	8.461
EAE	**7.595**	**7.388**	**10.964**	**10.695**
Errioxa	5.914	5.739	7.298	7.027

(1) Lanerako Prestakuntza alde batera utzita. Ikasleak arduraldi osoko baliokide bihurtu dira.
Iturria:* Las cifras de la educación en España *izeneko txostena (2013ko edizioa)

I.1.29. KOADROA. EGOKITASUNA EAE-KO IKASLEEN ADINEAN

	2010-2011			2011-2012		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guzti-ra	Gizonak	Ema-kum.
7 urte (1)	99,9	99,6	100,3	100,1	100,2	99,9
9 urte (2)	95,6	94,6	96,6	94,8	95,1	94,5
11 urte (3)	91	90,1	92	91,1	90,6	91,7
12 urte (4)	90,3	89,2	91,5	86	84,6	87,4
13 urte (5)	85,2	81,8	88,8	83,9	81,4	86,5
14 urte (6)	84,2	81,3	87,3	79,9	75,4	84,8
15 urte (7)	72,4	68,3	76,9	76,9	72,9	81,1
16 urte (8)	67,3	61,7	73,3	67,8	63,7	72,2
17 urte (9)	60,9	54,7	67,6	61,8	55,6	68,4

(1) Maila teoriko egokiak: Lehen Hezkuntzako 2.a. (2) Maila teoriko egokiak: Lehen Hezkuntzako 4.a. (3) Maila teoriko egokiak: Lehen Hezkuntzako 6.a. (4) Maila teoriko egokiak: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1.a. (5) Maila teoriko egokiak: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2.a. (6) Maila teoriko egokiak: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3.a. (7) Maila teoriko egokiak: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4.a. (8)Maila teoriko egokiak: Batxilergoko 1.a eta Erdi mailako LHko 1.a. (9) Maila teoriko egokiak: Batxilergoko 2.a eta Erdi mailako LHko 2.a.
Iturria: EUSTAT.

1.2.3.3. Hezkuntza emaitzak

Egokitasuna ikaslearen adinean[3]

Egokitasun-tasa hezkuntza sistemaren emaitzen neurri garrantzitsu bat da. Derrigorrezko eskolatzean aurrera egiten duten, hau da, haien adinari dagokion maila egiten duten ikasleak bistaratzen ditu.

Datuek egiaztatzen dute arreta berezia jarri behar dela lehenengo urteetan, eskola atzerapenak eta, horren ondorioz, desegokitasuna urteek aurrera egin ahala gehitu eta metatzen baitira.

EUSTATen arabera, 2011-2012 ikasturtean EAEko 7 urteko biztanle guztiak teorian dagokien mailan matrikulatuta daude. Baina erreferentziazko biztanle-taldearen adinak gora egiten duen heinean, egokitasunaren portzentajeak behera egiten du. Horrela, 13 urteko biztanle guztietatik, teorian dagokien mailan matrikulatuta daudenen portzentajea % 83,9ra jaisten da; eta 17 urteko biztanle guztietatik, teorian dagokien mailan matrikulatuta daudenen portzentajea % 61,8raino jaisten da.

HEINen datuen arabera, Estatuko 8 urteko ikasleen % 93 adin horretako maila teorikoan (Lehen Hezkuntzako hirugarrena) zeuden matrikulatuta 2009-2010 ikasturtean; 10 urterekin, etapa horretako bosgarren mailako tasak 5 puntu portzentual gutxiago ditu (% 88). DBHko adinetan, egokitasun-tasek behera egiten dute, adinak gora egin ahala; hala, 12 urteko ikasleen % 83 hezkuntza etapa horretako lehen mailan ari dira, 14 urteko ikasleen % 68 hirugarrenean eta 15 urteko ikasleen % 60 laugarrenean.

3 Haien adinei teorian dagokien/dagozkien maila/mailetan matrikulatuta dauden ikasleen portzentajea.

I.1.30. KOADROA. EGOKITASUNA IKASLEEN ADINEAN, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA ETA 2009-10 IKASTURTEAN (adinari dagokion maila teorikoan matrikulatuta dauden ikasleen portzentajea)

	8 urte-rekin	10 urte-rekin	12 urterekin	14 urterekin	15 urterekin
Estatua	93	88	83	68	60
EAE	**95**	**90**	**87**	**78**	**72**
Katalunia	96	93	90	77	70
Nafarroa	93	87	84	74	68
Asturias	89	84	80	72	64
Galizia	94	89	84	69	61
Madril	94	88	82	69	61
Kantabria	93	89	84	69	60
Gaztela eta Leon	93	87	82	67	58
Valentzia	92	88	83	68	58
Aragoi	92	86	82	66	58
Errioxa	95	91	85	65	57
Andaluzia	94	88	82	63	55
Extremadura	94	89	84	63	55
Murtzia	92	85	78	62	54
Gaztela-Mantxa	92	85	79	63	54
Balear Uharteak	91	83	74	62	54
Kanariar Uharteak	93	85	77	61	53
Melilla	94	89	83	58	47
Ceuta	93	86	73	49	42

Iturria: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren HEINen* Sistema estatal de indicadores de la educación *izeneko txostena (2012ko edizioa)

Azterturiko adin guztietan, Katalunia, Galizia eta EAE dira Estatuko batezbestekotik gorako egokitasun maila dutenak.

Txosten beraren datuen arabera, emakumeek gizonek baino egokitasun-tasa handiagoak dituzte aztertutako adin guztietan, eta adina zenbat eta handiagoa izan, gero eta handiagoa da alde hori.

1999-2000 eta 2009-2010 ikasturteen bitartean, egokitasun-tasak jaitsi ziren neskentzat zein mutilentzat adin guztietan. Jaitsiera handiena 14 urterekin agertu zen: 10 puntu neskentzat eta 7 puntu mutilentzat .

Eskola behar baino goizago uztea (EBBGU)

Eskola garaia baino lehenago uztea murrizteko politikei buruz 2011ko ekainaren 28an Europar Batasuneko Kontseiluak egindako gomendioan aipatzen den bezala, *eskola behar baino goizago edo lehenago uztea* esamoldea erabiltzen da Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa edo hortik beherako ikasketak bakarrik egin dituzten eta jada ikasten ez duten zein prestakuntzarik jasotzen ez duten pertsonen kasuan.

Urteek aurrera egin ahala, adierazle horrek aldaketak izan ditu haren definizioan eta metodologian. Gaur egun erabilitako metodologia EUROSTATek erabiltzen duena da, eta Estatuan datuak biltzen dira Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) bidez. Inkesta horrek kontuan hartzen ditu 4 hiruhilekoen batezbestekoa eta inkestaren aurreko 4 asteetan ikasketa arautuak eta ez-arautuak egiten ez dituzten biztanleak.

Zehazki, EUROSTATek hori definitzen du gehien jota oinarrizko Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloa (INSN 2 - INSN 0, 1, 2 edo 3c) amaitu duten eta inkesta egin aurreko lau asteetan ikasten ez zuten zein prestakuntzarik egiten ez zuten 18 eta 24 urte bitarteko biztanleak erreferentziatzat hartuta.

Europako hezkuntza politiketan funtsezko kezketako bat izan da, eta oraindik bada, deskapitalizazio handia dakarrelako.

Izan ere, EBBGU murriztea oinarrizkoa da Europa 2020 Estrategian zehaztutako zenbait helburu nagusi lortzeko. Zehazki, EBBGU murrizteak "hazkunde zentzuduna" lortzeko helburuei (hezkuntza eta prestakuntza mailak hobetzeko) zein "hazkunde integratzailea" lortzeko helburuei (langabezia, pobrezia eta gizarte bazterkeriarako arrisku-faktore nagusienetako bati aurre egiteko) heltzen die. Hori dela eta, Europa 2020 Estrategiaren helburu nagusia EBBGU % 10en azpitik murriztea da 2020rako, beranduenez, 2009ko % 14,3tik abiatuta. Estatu kideek helburu nazionalak zehazteko konpromisoa hartu dute, haien hasierako jarrera erlatiboak eta inguruabar nazionalak kontuan hartuta.

EUROSTATek argitaratutako azken datuen arabera, 2012an Espainian ikasketak uzteko tasa % 24,9koa da. 27ko EBko herrialdeen batezbestekoa % 12,8koa da. 13 dira Europako helburua betetzen duten estatuak: Txekiar Errepublika, Danimarka, Lituania, Luxemburg, Irlanda, Holanda, Austria, Polonia, Eslovenia, Eslovakia, Finlandia eta Suedia.

I.1.31. KOADROA. ESKOLA BEHAR BAINO GOIZAGO UZTEA. EAE-REKIKO ERKAKETA.
(DBHko 2. etapa amaitu ez duten eta hezkuntza-prestakuntzarik egiten ez duten 18-24 urteko biztanleak) 2020ko helburua: % 10

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
27ko EB	15,5	15	14,8	14,3	14	13,5	12,8
Belgika	12,6	12,1	12	11,1	11,9	12,3	12
Bulgaria	17,3	14,9	14,8	14,7	13,9	11,8	12,5
Txekiar Errep.	5,1	5,2	5,6	5,4	4,9	4,9	5,5
Danimarka	9,1	12,9	12,5	11,3	11	9,6	9,1
Alemania	13,7	12,5	11,8	11,1	11,9	11,7	10,5
Estonia	13,5	14,4	14	13,9	11,6	10,9	10,5
Irlanda	12,1	11,6	11,3	11,6	11,5	10,8	9,7
Grezia	15,5	14,6	14,8	14,5	13,7	13,1	11,4
Espainia	30,5	31	31,9	31,2	28,4	26,5	24,9
Frantzia	12,4	12,6	11,5	12,2	12,6	12	11,6
Italia	20,6	19,7	19,7	19,2	18,8	18,2	17,6
Zipre	14,9	12,5	13,7	11,7	12,7	11,3	11,4
Letonia	14,8	15,1	15,5	13,9	13,3	11,6	10,5
Lituania	8,2	7,4	7,4	8,7	8,1	7,2	6,5
Luxemburg	14	12,5	13,4	7,7	7,1	6,2	8,1
Hungaria	12,6	11,4	11,7	11,2	10,5	11,2	11,5
Malta	39,9	38,3	38,1	36,8	24,8	23,6	22,6
Holanda	12,6	11,7	11,4	10,9	10	9,1	8,8
Austria	9,8	10,7	10,1	8,7	8,3	8,3	7,6
Polonia	5,4	5	5	5,3	5,4	5,6	5,7
Portugal	39,1	36,9	35,4	31,2	28,7	23,2	20,8
Errumania	17,9	17,3	15,9	16,6	18,4	17,5	17,4
Eslovenia	5,6	4,1	5,1	5,3	5	4,2	4,4
Eslovakia	6,6	6,5	6	4,9	4,7	5	5,3
Finlandia	9,7	9,1	9,8	9,9	10,3	9,8	8,9
Suedia	8,6	8	7,9	7	6,5	6,6	7,5
Erresuma Batua	11,3	16,6	17	15,7	14,9	15	13,5
EAE-EUSTAT	12,0	12,4	14,1	12,6	10,8	9,0	7,7

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT (BJA)

I.1.32. KOADROA. ESKOLA BEHAR BAINO GOIZAGO UZTEA ESTATUAN, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ETA SEXUAREN ARABERA.

	GUZTIRA			GIZONAK			EMAKUMEAK		
	2001	2006	2011	2001	2006	2011	2001	2006	2011
GUZTIRA	**29,7**	**30,5**	**26,5**	**36,0**	**36,7**	**31,0**	**23,1**	**24,0**	**21,9**
Andaluzia	35,3	38,1	32,5	41,5	44,5	37,2	28,9	31,5	27,5
Aragoi	20,8	26,0	22,7	25,7	32,6	27,6	15,7	19,1	17,9
Asturias	19,8	23,2	21,9	26,5	32,3	26,8	13,0	14,0	16,9
Balear Uharteak	40,7	36,5	30,7	51,3	44,0	34,1	29,8	28,3	27,1
Kanariar Uharteak	36,9	34,5	31,5	44,4	39,5	34,7	29,5	29,4	28,2
Kantabria	24,2	23,6	21,2	30,6	29,8	26,9	17,9	16,6	15,0
Gaztela eta Leon	22,9	23,8	27,3	30,1	30,1	32,9	15,3	17,1	21,3
Gaztela-Mantxa	36,4	38,6	31,6	44,0	47,8	40,2	28,4	28,7	22,5
Katalunia	30,1	28,6	26,0	34,7	34,3	30,7	25,4	22,7	21,2
Valentziako Erkidegoa	35,8	31,5	27,4	42,4	39,0	32,5	29,1	23,8	22,2
Extremadura	37,9	35,9	29,6	44,8	45,4	36,8	30,7	25,8	21,9
Galizia	27,5	24,9	20,8	36,0	34,3	25,5	18,8	15,0	15,8
Madril	20,8	26,0	19,8	26,3	29,8	22,3	15,1	22,0	17,3
Murtzia	37,7	38,7	30,7	46,0	42,0	33,3	28,6	35,0	27,8
Nafarroa	17,9	13,5	12,0	23,5	14,6	15,4	11,9	12,3	8,7
EAE	14,7	14,5	13,0	20,1	19,5	13,5	9,0	9,4	12,5
Errioxa	27,0	27,1	30,2	33,1	31,2	35,3	20,4	22,7	25,4
Ceuta eta Melilla	32,2	47,0	32,2	36,4	46,3	34,4	27,5	47,7	30,1

Iturria: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa (*Las cifras de la Educación en España *izeneko txostena. 2013ko edizioa)

EUSTATen datuen arabera, beherantz egin du EAEko eskola uztearen tasak, eta 2012an % 7,7koa da. Kontuan hartu behar da kalkulua BJA (Estatistika Erakundearen biztanleria jardueraren arabera) adierazletik aurrera egiten dela.

Bestalde, HEINen (horren metodologia EINrena da eta, beraz, BAI erabiltzen da BJAren ordez EAEn) *Sistema estatal de indicadores de la educación* izeneko txostenaren (2012ko edizioa) datuen arabera, Estatuko hezkuntza sistemaren eskola uztearen tasa % 26,5ekoa zen 2011. urtean. Ratioa handitu egin zen Espainian 2006 eta 2008 bitartean, eta 2009tik aurrera jaisten hasi zen. Hori ez da gertatu Europako beste herrialdeetako gehienetan, eta bilakaera berezi hori ziklo ekonomikoaren bilakaerari lotuta egon liteke. Hori dela eta, interesgarria da aldagai hori autonomia erkidegoka aztertzea.

Uzte tasarik txikienak Nafarroan (% 12), EAEn (% 13) eta Madrilen (% 19,8) zeuden. Mutilek neskek baino neurri handiagoan uzten dute eskola autonomia erkidego guztietan. EAE alde txikiena duen erkidegoa da: gizonen tasa % 13,5ekoa zen, eta emakumeena, berriz, % 12,5.

Txosten horrek agerian uzten du ezen, amaren ikasketa maila eta eskola uztea erlazionatuta, hauxe ikus daitekeela: 2010ean nahiz 2011n, eskola utzi duten gazteen portzentajea txikiagoa da goi mailako ikasketak dituzten amak dituztenengan. Gauzak horrela, erdi edo behe mailako ikasketak dituzten amen seme-alabek osatzen dute portzentaje hori, gehienbat.

Graduazio-tasak

Graduazio-tasa gordinak DBHn, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketetan eta goi mailako ikasketetan

Etapa bakoitzeko azken maila hasteko adin teorikoa duten biztanle guztien gainean DBH, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketak eta goi mailako ikasketak arrakastaz bukatzen dituztenen portzentajea informazio garrantzitsua da hezkuntza sistemaren emaitzak ezagutzeko.

Izan ere, ELGAren arabera, Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa gutxieneko kualifikazioa bihurtu da, lan-merkatuan arrakastaz sartzeko eta langabeziarako arriskua gutxitzeko.

HEINek 2012an argitaratu duen *Panorama de la Educación. Indicadores OCDE 2012, informe español* izeneko txostenaren datuen arabera, Estatuan nabarmen gehitu dira Bigarren Hezkuntzaren bigarren etapan titulu bat eskuratu duten ikasleak, eta Espainiako tasa ELGAkoa eta EBkoa baino erritmo biziagoan gehitu da. Horri esker, Espainiaren eta bi erakundeen batezbestekoaren artean zegoen aldea neurri handian txikitu da. Hala eta guztiz ere, oraindik neurri handiagoan hobetu behar da, ez baita nahikoa tituludunen Espainiako defizita amaitzeko.

2009-10 ikasturteko datuek (Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren *Las cifras de la Educación en España* izeneko txostena. 2013ko edizioa) erakutsi dute DBHko graduazio-tasa gordin handienak dituzten autonomia erkidegoak honako hauek direla: Kantabria (% 87,7), Asturias (% 86,5) eta EAE (% 85,4). Eta Batxilergoan: EAE (% 67,7), Asturias (% 61,5), Madril (% 55,2) eta Nafarroa (% 54). Bestalde, Lanbide Heziketako erdi mailako prestakuntza zikloetan, Kantabria (% 24), Aragoi (% 22,2), Errioxa (% 22,1), Katalunia (% 22), Asturias (% 21,9) eta EAE (% 21,8) nabarmentzen dira.

Goi mailako ikasketetako (unibertsitateaz kanpoko zein unibertsitateko ikasketak barne) graduazio-tasei dagokienez, Estatuko 18-19 urteko biztanleriaren % 18,9 goi mailako heziketa zikloetan graduatu dira.

Unibertsitateko irakaskuntzetan, diplomatura/ arkitektura zein ingeniaritza teknikoa bukatutakoak 20 urteko biztanleen % 19,6 dira, eta lizentziatura/ arkitektura zein ingeniaritza titulua lortu dutenak 22 urteko biztanleen % 18,5.

I.1.33. KOADROA. IRAKASKUNTZA/TITULAZIO BAKOITZEAN GRADUATZEN DIREN BIZTANLEEN TASA GORDINA 2009-10 IKASTURTEAN, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA

	DBHko graduduna	DBHko graduduna (helduak) (1)	Batxilergoa/UBI	Teknikaria / Teknikari lag. (2)	Goi teknikaria / Teknikari espezialista (3)	Unibertsitate diplomadunak, eta arkitekto eta ingeniari teknikoak (4)	Unibertsitate lizentziadunak, eta arkitektoak eta ingeniariak (4)	Gradua (4)	Master ofiziala (4)
Azken maila hasteko adin teorikoa	15 urte	-	17 urte	15 urte	18-19 urte	20 urte	22 urte	-	23 urte
GUZTIRA	**74,1**	**11,2**	**48,6**	**18,9**	**18,9**	**19,6**	**18,5**	**1,3**	**7,4**
Andaluzia	73,0	22,6	43,9	18,6	16,0	16,7	14,5	0,2	7,2
Aragoi	74,9	7,7	48,8	22,2	18,2	22,9	16,8	0,0	6,2
Asturias	86,5	11,6	61,5	21,9	25,0	26,3	17,0	0,0	5,4
Balear Uharteak	65,0	7,0	36,2	13,4	9,7	11,1	4,9	0,6	2,9
Kanariar Uharteak	71,6	12,5	43,9	19,3	17,1	10,9	8,4	..	1,8
Kantabria	87,7	5,8	52,4	24,0	22,0	19,6	12,5	0,8	5,0
Gaztela eta Leon	79,7	4,0	52,8	20,3	19,5	33,1	24,3	1,1	2,6
Gaztela-Mantxa	69,7	14,5	44,1	17,1	13,5	16,1	6,5	2,0	6,2
Katalunia	77,0	5,2	50,0	22,0	23,4	19,7	21,8	1,1	8,3
Valentzia	64,0	7,4	43,1	20,7	19,2	18,8	18,1	0,5	8,7
Extremadura	76,6	14,1	46,4	18,0	13,6	19,9	9,1	0,0	5,5
Galizia	76,6	9,8	53,4	20,5	22,3	18,5	18,4	1,5	7,7
Madril	76,0	7,9	55,2	13,8	18,3	22,2	31,4	4,1	11,6
Murtzia	69,5	9,8	45,2	14,2	13,6	19,8	14,9	4,3	8,0
Nafarroa	83,1	2,5	54,0	19,2	19,1	20,3	26,1	4,1	8,6
EAE	85,4	9,7	67,7	21,8	35,1	26,1	25,9	0,9	7,9
Errioxa	74,2	4,4	46,9	22,1	18,1	19,4	13,2	0,0	6,7
Ceuta	61,2	16,4	36,4	10,8	16,5	x	x	x	x
Melilla	64,2	3,4	45,5	14,3	15,2	x	x	x	x

(1) Titulua aurrez aurreko, urruneko eta proba libreetako modalitateetan eskuratzen duten ikasleak hartzen dira kontuan. (2) Erdi mailako LHko prestakuntza zikloetan eta erdi mailako Arte Plastiko eta diseinuaren eta Kirol ikasketetan graduatzen diren ikasleak hartzen dira kontuan. (3) Goi mailako LHko prestakuntza zikloetan eta goi mailako Arte Plastiko eta diseinuaren eta Kirol ikasketetan graduatzen diren ikasleak hartzen dira kontuan. (4) Unibertsitate tituludunak unibertsitateko errektoretzaren kokapenaren arabera sailkatu dira. Horregatik, Andaluziako tasak Ceuta eta Melilla eta Madrilgo Erkidegoak Guadalajara probintzia barne hartzen dituzte.
Iturria: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren Las cifras de la Educación en España ***izeneko txostena. 2013ko edizioa***

Goi mailako teknikarien tasarik handienak EAEk (% 35,1), Asturiasek (% 25), Kataluniak (% 23,4) Galiziak (% 22,3) eta Kantabriak (% 22) dauzkate. Diplomatuen tasarik handienak Gaztela eta Leoni (% 33,1), Asturiasi (% 26,3) eta EAEri (% 26,1) dagozkie. Lizentziatuen tasagatik Madril (% 31,4), Nafarroa (% 26,11) eta EAE (% 25,9) nabarmendu dira.

Goi mailako Zientzia eta Teknologian graduatutako pertsonak, 20-29 urte bitarteko 1.000 biztanleko

Berrikuntza eta ikerketa zientifikoa bultzatu beharrak EB eraman du Matematika, Zientzia eta Teknologiako gradudunen tasaren gehikuntzak berebiziko garrantzia duela hausnartzera. Aldi berean, sexu desoreka ikusita, zientzia eta teknologia ikasketetako titulazioak gizon eta emakumeen artean orekatzea ezarri da helburu gisa.

EBk ez du erreferentziazko punturik zehaztu 2020rako adierazle horren inguruan. Hala ere, Estatuko sisteman horri eusten zaio, herrialdeko zientzia eta ekoizpen garapenaren adierazle argienetako bat baita.


Estatistikoki Matematika, Zientzia eta Teknologiako gradudunen tasa gordina honela definitzen da: Goi mailako Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateko Irakaskuntzaren mailan (INSN 5A, 5B eta 6) ikasketa horiek amaitzen dituzten ikasleen eta 20 eta 29 urte bitarteko biztanleen arteko erlazioa, milaka biderkatuta.

I.1.34. KOADROA. ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO GOI MAILAKO HEZKUNTZAN GRADUATUTAKO PERTSONAK *(ISCED 5-6) 20-29 URTE BITARTEKO 1.000 BIZTANLEKO. AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERAKO DATUAK*

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
27ko EB	13,2	13,4	13,8	14,4	14,4	15,2	-
Belgika	10,9	10,6	14	11,6	12	12,2	12,7
Bulgaria	8,6	8,5	8,4	9,1	10,1	11,4	11,8
Txekiar Errep.	8,2	10	12	15	15,3	16,5	-
Danimarka	14,7	13,8	16,4	15,5	15,2	16,5	17,9
Alemania	9,7	10,7	11,4	12,5	13,5	14,8	-
Estonia	12,1	11,2	13,3	11,4	10,8	11,3	-
Irlanda	24,8	21,6	18,7	19,5	17,2	20,1	-
Grezia	10,1	-	8,5	11,2	-	12,8	-
Espainia	11,8	11,5	11,2	11,6	12,5	13,9	16,8
Frantzia	22,8	20,9	20,8	20,3	20,4	21,5	-
Italia	11,6	12,1	11,4	11,3	-	-	12,8
Zipre	3,6	4,3	4,2	4	4,6	4,9	:
Letonia	9,8	8,9	9,2	8,8	9,8	10,7	11
Lituania	18,9	19,5	18,1	17,8	18,5	18,7	19,2
Luxemburg	-	-	-	-	-	3,1	-
Hungaria	5,1	5,8	6,4	6,1	7,5	8,3	8,5
Malta	3,4	5	7,1	6	7	8	-
Holanda	8,6	9	8,9	8,8	8,9	9,2	9,4
Austria	9,8	10,8	11,1	11,8	14	15,5	16,1
Polonia	11,1	13,3	13,9	14,1	14,3	15,8	17,4
Portugal	9,5	9,6	14,2	16,3	14,6	14,4	-
Errumania	10,3	10,5	11,9	15,2	20	15,6	16
Eslovenia	9,8	9,5	9,8	10,7	11,3	14,8	17,4
Eslovakia	10,2	10,3	11,9	15	17,5	18,3	17,6
Finlandia	18,1	17,9	18,8	24,3	19	24,2	21,2
Suedia	14,4	15,1	13,6	13,2	13	14	15,6
Erresuma Batua	19,2	18,9	18,5	19,2	17,5	18,7	19,5
EAE-EUSTAT	**26,6**	**27,5**	**27,3**	**27,8**	**26,6**	**-**	**-**

Iturria: EUROSTAT eta ISEI-IVEI (EUSTAT)

I.1.23. GRAFIKOA BIZTANLE HELDUEN IKASKETA MAILA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2010EKO PORTZENTAJEAK 25-64 URTE BITARTEKOAK



Iturria: Sistema estatal de indicadores de educación. 2012ko edizioa

EUROSTATen datuen arabera, 27ko EBrako batezbestekoa ‰ 15,2koa da 2010ean. Ratiorik handienak Finlandian (milako 21,2, 2012an), Frantzian (milako 21,5 2010ean), Irlandan (milako 20,1 2010ean) eta Erresuma Batuan (milako 19,5 2011n) egon dira.

EAEko Ebaluazio Institutua den ISEI-IVEIren datuen arabera, 2008-2009 ikasturtean Zientzia eta Teknologiako Goi mailako Hezkuntzako graduazio-tasa ‰ 26,6 izan da EAEn.

Adierazle horren EAEko maila handiak, hainbat urtetan egonkorra izan denak, Estatuko zein Europako lehenengo postuetan jartzen du. Horren arrazoia da, neurri handi batean, EAEn goi mailako Lanbide Heziketa duten pertsona asko dagoela (INSN 5B), Estatuko batezbestekoa baino ia hiru aldiz handiagoa den tasa duela.

Izan ere, HEINen *Sistema estatal de indicadores de la educación* izeneko txostenaren[4] (2012ko edizioa) datuen arabera, unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzak eta unibertsitateko irakaskuntzak bereizi ondoren, unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzetan (goi mailako lanbide zikloak) graduatu diren pertsonak ‰ 10,8 eta unibertsitateko irakaskuntzetan graduatu direnak ‰ 13,5 direla egiaztatu da. Estatuko batezbestekoak, berriz, honako hauek dira: ‰ 3,8 eta ‰ 8,7, hurrenez hurren.

Helduen ikasketa maila

Helduen ikasketa maila neurri handi batean biztanleek hezkuntza sistemari buruz dauzkaten itxaropenak baldintzatzen dituen eragilea da, eta ondorioz hezkuntzaren plangintzan eta lan jardueran eragingo du. Irakaskuntza maila jakin bat osatu duten helduen portzentajea erabiltzen da neurtzeko.

HEINen *Sistema estatal de indicadores de educación. Edición 2012* izeneko txostenean adierazitako datuen arabera, 2010ean Estatuko 25-64 urte bitarteko biztanleen % 19,5ek lehen mailako ikasketak edo beherakoak dituzte, % 27,7k DBHren mailako ikasketak dituzte, % 22,2k Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa bete dute, eta % 30,7k goi mailako ikasketak dituzte. Madril, EAE, Nafarroa, Kantabria eta Aragoi dira nahitaezkoak baino ikasketa maila handiagoak dituzten pertsonen portzentaje handienak dituzten autonomia erkidegoak.

2004 eta 2010 bitartean, nahitaezkoak baino ikasketa maila handiagoak dituzten biztanleen portzentajea 7,5 puntu portzentual handitu da estatu mailan. Hazkunde hori baino handiagoa izan dute Madrilek, Nafarroak, EAEk, Errioxak, Asturiasek, Gaztela-Mantxak, Kantabriak, Aragoik, Galiziak eta Balear Uharteek.

ELGAren herrialdeetan, 2010ean 25-64 urte bitarteko biztanleen % 74k Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako edo hortik gorako ikasketa maila du. Estatuak (% 53) batezbesteko horrek baino 21 puntu gutxiago ditu. EAE ere ratio horren azpitik dago, % 63,4n, hain zuzen, 10,6 puntu gutxiago izanda.

Biztanleriaren hezkuntza mailaren bilakaera neurtzeko beste modu bat hezkuntza mugikortasunaren bidezkoa da; hori gurasoen eta seme-alaben ikasketa mailen arteko erlazioa da. HEINek 2012an argitaratu duen *Panorama de la Educación. Indicadores OCDE 2012, informe español* izeneko txostenak adierazi bezala, hiru kategoria daude erlazio horretan: beheranzko mugikortasuna (seme-alaben ikasketa maila gurasoena baino txikiagoa izatea), orekatua (seme-alaben ikasketa maila eta gurasoena berdina izatea), eta goranzko mugikortasuna (seme-alaben ikasketa maila gurasoena baino handiagoa izatea).

Txosten horren arabera, Espainiar Estatuan helduen hezkuntza maila nahiko txikia da ELGAko beste herrialde batzuen aldean, eta, goranzko mugikortasunari dagokionez, posizio onetan dauden herrialdeetako bat da. Izan ere, 2010ean 25-34 urte bitarteko biztanleen % 45ek gurasoen hezkuntza maila baino handiagoa lortu zuten, eta zenbaki horiek ELGA edo EBkoak (% 37 eta % 39, hurrenez hurren) eta Finlandia (% 27), Norvegia (% 25) edo Alemaniakoak (% 20) baino handiagoak dira.

4 Datuak ez datoz bat EUSTATen datuekin, EINren metodologiak BAI eta EUSTATenak BJA erabiltzen baitituzte. Hala ere, Estatuaren eta EAEren aGrteko erkaketak egiteko aukera ematen dute.

I.1.35. KOADROA. 25-64 URTE BITARTEKO BIZTANLEEN LANGABEZIA-TASAK HEZKUNTZA MAILAREN ARABERA. 27KO EB-REN, EUROAREN EREMUAREN ETA ESPAINIAREN ARTEKO ERKAKETA

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Lehen Hezkuntzaren Aurrekoa, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako lehen maila (ISCED 0, 1 eta 2)												
27ko EB	9.6	10.1	10.2	10.6	10.4	10.0	9.2	9.8	12,9	14,2	14,8	16,8
17ko Euroaren Eremua	9,5	9,9	10,3	10,6	10,5	10,1	9,4	10,2	13,4	14,8	15,4	17,9
Espainia	10,3	11,1	11,2	11,3	9,3	9,0	9,0	13,2	21,9	24,7	26,4	31,2
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa eta hirugarren mailakoa ez den Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa (ISCED 3 eta 4)												
27ko EB	7.8	8.2	8.2	8.4	8.1	7.2	6.0	5.6	7,2	7,8	7,6	8,2
17ko Euroaren Eremua	7,1	7,4	7,9	8,3	8,0	7,3	6,4	6,1	7,5	7,8	7,7	8,6
Espainia	8,1	9,4	9,7	9,2	7,3	6,8	6,8	9,3	15,3	17,4	19,3	21,9
Hirugarren mailakoa (ISCED 5 eta 6)												
27ko EB	4.0	4.3	4.6	4.7	4.5	4.1	3.6	3.5	4,5	4,9	5,1	5,6
17ko Euroaren Eremua	4,5	4,8	5,2	5,4	5,2	4,7	4,1	4,0	5,0	5,5	5,6	6,4
Espainia	6,6	7,5	7,4	7,3	6,1	5,5	4,8	5,8	9,0	10,5	11,7	14,0

Iturria: EUROSTAT. Labour Force Survey

I.1.36. KAODROA. LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA HEZKUNTZA MAILAREN ARABERA. EAE-REN ETA ESTATUAREN ARTEKO ERKAKETA

	2008		2009		2010		2011		2012	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
GUZTIRA	**8,3**	**6,1**	**18,0**	**11,0**	**20,1**	**10,5**	**21,6**	**12,0**	**25,0**	**14,9**
Analfabetoak	25,3	25,0	43,8	18,2	44,4	-	52,4	50,0	54,1	66,7
Lehen Hezkuntza	10,6	6,8	26,0	20,8	29,8	15,0	31,9	16,4	37,5	19,1
Bigarren Hezkuntzako lehen etapa eta dagozkion prestakuntza eta laneratzea	10,2	8,1	23,5	16,1	25,7	15,9	27,3	18,4	31,9	22,0
Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa eta dagozkion prestakuntza eta laneratzea	8,1	7,3	17,2	11,2	19,3	11,3	21,5	12,4	24,6	17,0
Prestakuntza eta laneratzea bigarren hezkuntzako titulua izanda (2. etapa)	13,8	-	18,0	-	24,4	-	18,8	-	26,7	-
Goi mailako hezkuntza, doktoretza izan ezik	5,4	4,5	9,9	7,5	11,4	7,4	12,8	8,6	15,2	10,7
Doktoretza	3,0	-	2,4	-	2,7	1,8	3,9	2,7	4,7	2,1

Iturria: BAI, EIN

Jarduera- eta langabezia-tasak hezkuntza mailaren arabera

Hezkuntza maila ezberdinetako pertsonen enplegu itxaropenak lan-merkatuaren premien eta prestakuntza maila bakoitzeko eskulan eskaintzaren araberakoak dira, baina oro har, erantsitako taulako EUROSTATeko datuen azterketatik ondorioztatzen denez, langabezia-tasa hezkuntza mailarekin batera jaisten da.EINen 2011ko Biztanleria Aktiboaren Inkestan (BAI) jasotako datuen azterketak erakusten du langabezia-tasak behera egiten duela prestakuntza mailak gora egiten duen heinean, bai Espainiar Estatuan bai EAEn.

2. EGITURA PRODUKTIBOA ETA BERRIKUNTZA EAE-N

2.1. EGITURA PRODUKTIBOA

2.1.1. Enpresa egitura eta demografia

Enpresa egitura

EUSTATen Ekonomia Jardueren Direktorioaren gaineko 2012ko azken datuen arabera, guztira 184.471 establezimendu zenbatu dira, EAEko 165.517 enpresari dagozkienak (lehen sektorekoak alde batera utzita). Horren ondorioz, 2008 eta 2012 bitartean, enpresen kopuruak (lantegiak, dendak, bulegoak…) behera egin du EAEn % 10,2 (18.773 enpresa gutxiago), eta, enpleguaren jaitsiera % 7,4koa denez (-69.358), enpresa bakoitzeko batez besteko tamaina 5,1etik 5,3ra igaro da.

Egoitza soziala oraindik EAEn duten enpresa horien portzentajea % 97,7 da, kopuru absolutuetan gutxiago izanda. Egoitza Estatuan duten enpresei dagokienez, joera berdina da.

2011 eta 2012 bitartean, enpresa kopurua % 0,3 eta enplegua % 1,9 murriztu dira.

I.2.1. KOADROA. BPGd-AREN AGREGAKINEN BILAKAERA: ESKAINTZA (milaka eurotan eta ratioak) ETA ENPLEGUA (lanaldi osoaren parekoak eta ratioak)

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011(a)	2012 (a)
BPGd-A. ESKAINTZA (milaka eurotan eta ratioak)								
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA ETA ARRANTZA	**476.221**	**467.575**	**476.452**	**423.707**	**372.907**	**428.785**	**424.272**	**478.463**
BPGd-aren gaineko portz.	0,8	0,8	0,7	0,6	0,6	0,7	0,6	0,7
INDUSTRIA ETA ENERGIA	**14.649.180**	**15.497.280**	**16.379.641**	**16.532.201**	**13.385.549**	**13.984.450**	**14.666.985**	**14.565.951**
BPGd-aren gaineko portz.	25,8	25,3	24,8	24,5	20,9	21,5	22,1	22,0
ERAIKUNTZA	**4.960.260**	**5.405.070**	**6.343.925**	**6.207.279**	**5.573.141**	**5.225.567**	**4.943.192**	**4.697.075**
BPGd-aren gaineko portz.	8,7	8,8	9,6	9,2	8,7	8,0	7,5	7,1
ZERBITZUAK	**30.620.462**	**33.126.445**	**35.684.180**	**38.096.896**	**38.961.160**	**39.411.902**	**40.377.914**	**40.767.089**
BPGd-aren gaineko portz.	53,8	54,0	54,1	56,5	60,9	60,5	60,9	61,6
BALIO ERANTSI GORDINA (BEGd-A)	**50.706.123**	**54.496.370**	**58.884.198**	**61.260.083**	**58.292.757**	**59.050.704**	**60.412.363**	**60.508.578**
PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA GARBIAK	**6.178.825**	**6.857.539**	**7.077.834**	**6.217.971**	**5.696.029**	**6.069.470**	**5.852.139**	**5.714.772**
BARNE PRODUKTU GORDINA bb	**56.884.948**	**61.353.909**	**65.962.032**	**67.478.054**	**63.988.786**	**65.120.174**	**66.264.502**	**66.223.349**
ENPLEGUA (lanaldi osoaren parekoak eta ratioak)								
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA ETA ARRANTZA	16.014	15.443	14.784	14.773	14.276	14.160	13.659	13.643
Enplegu osoaren gaineko portzentajea	1,7	1,6	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5
INDUSTRIA ETA ENERGIA	240.299	241.690	245.793	240.778	215.791	208.400	203.839	194.987
Enplegu osoaren gaineko portzentajea	25,8	25,4	25,1	24,5	22,9	22,4	22,1	21,7
ERAIKUNTZA	93.366	96.781	101.860	96.964	89.283	83.073	76.010	67.038
Enplegu osoaren gaineko portzentajea	10,0	10,2	10,4	9,9	9,5	8,9	8,2	7,5
ZERBITZUAK	581.482	598.840	617.736	629.926	623.635	624.660	628.602	623.542
Enplegu osoaren gaineko portzentajea	62,4	62,9	63,0	64,1	66,1	67,1	68,2	69,3
GUZTIRA	**931.161**	**952.754**	**980.173**	**982.441**	**942.985**	**930.293**	**922.110**	**899.209**

Iturria: EUSTATen Kontu Ekonomikoak eta HKE

I.2.2. KOADROA. EAE-KO ENPRESAK* EGOITZA SOZIALAREN ETA ENPLEGUAREN ARABERA							
	2008	2009	2010	2011	2012	2008-12 (%)	11-12 (%)
Enpresak, guztira (EAE eta ESTATUA)	**184.290**	**182.284**	**171.345**	**165.995**	**165.517**	**-10,2**	**-0,3**
EAE	179.953	178.062	167.270	161.658	161.626	-10,2	0,0
ESTATUko gainerakoak	4.337	4.222	4.075	4.337	3.891	-10,3	-10,3
EAE (%)	97,6	97,7	97,6	97,4	97,7	0,1	0,3
ESTATUko gainerakoak (%)	2,4	2,3	2,4	2,6	2,3	-4,2	-11,5
Enpresa horietako enplegua, guztira	**942.479**	**952.510**	**906.044**	**890.093**	**873.121**	**-7,4**	**-1,9**
Batez besteko tamaina	**5,1**	**5,2**	**5,3**	**5,4**	**5,3**	-	-
Establezimenduak, guztira	**203.911**	**202.093**	**191.057**	**185.454**	**184.471**	**-9,5**	**-0,5**

** Lehen sektorekoak izan ezik*
Iturria: EUSTAT. JEGID

Sektoreka 2008 eta 2012 bitartean, enpresen kopuruari eta enpleguari dagokienez, murrizketa handienak honako sektore hauetan egon dira: Eraikuntza (% -27,2 enpresetan eta % -29,8 enpleguan), Higiezinen jarduerak (% -28,5 enpresetan eta % -14,7 enpleguan), Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura (% -18,2 enpresetan eta % -15,4 enpleguan). 2008an hiru adarrek enplegu osoaren % 11,6 osatzen zuten; 2012an, aldiz, % 8,9.

Horrez gain, aldi horretan manufaktura-industrian enpresen % 10,2 eta enpleguaren % 15,7 desagertu dira. Gauzak horrela, enpleguaren % 23 izateari utzi, eta % 21 baino ez da gaur egun.

Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motorren konponketa adarrean enpresen % 12 eta enpleguaren % 7,2 desagertu dira. Hala ere, adar horretako enpleguak enplegu osoaren gainean duen proportzioak % 15,2koa izaten jarraitzen du.

Enpresaren batez besteko tamaina, lehen ere aipatu dugun moduan, 5,3 enplegukoa da 2012an. Administrazio publikoa eta defentsa, eta gizarte segurantza alde batera utzita, enpresako batez besteko tamaina handiena ageri duten sektoreak hauek dira: Ur hornidura; saneamenduko, hondakin kudeaketako eta kutsadura kentzeko jarduerak (27,9), Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura (17,4), Manufaktura industria (14,6) eta Erauzketa industriak (12,6).

Nortasun juridikoa aintzat hartuta eta tamaina txikieneko enpresak —titulartzat pertsona fisiko bat dutenak eta enpresa bakoitzeko 1,4 pertsonako batezbestekoa dutenak, hain zuzen ere) kanpoan utzita, batez besteko tamaina 10,9 pertsonakoa da (10,3 pertsonakoa aurreko urtean). Bertan Sozietate Anonimoetako batez besteko lantaldea 32,1 langilekoa da (30,6 aurreko urtean) eta Kooperatibena, aldiz, 34,6 pertsonakoa (35,3 aurreko ekitaldian).

EAEko enpresa jardueraren erdia baino gehiago (% 59,2) "pertsona fisiko" motako estaldura juridikopean egiten da, baina formula horrek enpleguaren % 15,9 baino ez du biltzen. Horrenbestez, "pertsona juridikoen" estaldura juridikopean egiten den enpresa jarduera % 40,8koa da eta enpresa horiek enpleguaren % 84,1 biltzen dute.

Pertsona fisikoak kontuan hartu gabe, enpresa jardueren ia bi heren (% 65,49) erantzukizun mugatuko sozietate moduan egiten dira; enpleguaren bi heren baino zertxobait gehiago (% 67,2) Sozietate Anonimoen eta Erantzukizun Mugatuko Sozietateen artean banatzen da; Sozietate Kooperatiboak enpresen % 2 dira eta enpleguaren % 6,3 biltzen dute.

Merkatuko edo enpresako ekonomia sozialaren egituraren (batez ere Sozietate Kooperatiboak eta Lan Sozietateak) analisiak erakusten du Sozietate Kooperatiboko izaera juridikoa daukaten enpresen kopurua 1.346 dela 2012an, EUSTATen arabera. Gainera, 46.585 langile dauzkate. Beraz, batez besteko plantilla 34,6 langilekoa da, lehenago ere esan dugunez.

I.2.3. KOADROA. ESTABLEZIMENDUEN EGITURA ENPLEGUAREN ARABERA						
	2009		2011		2012	
	Kop.	Enplegua	Kop.	Enplegua	Kop.	Enplegua
Guztira	**202.093**	**952.510**	**185.454**	**890.093**	**184.471**	**873.121**
=< 2	150.438	184.515	137.537	168.525	137.997	171.849
3-5	27.576	101.164	25.266	92.582	24.790	90.907
6-9	9.631	69.047	9.061	65.033	8.390	60.174
10-14	4.618	53.884	4.258	49.766	4.245	49.580
15-19	2.510	41.823	2.437	40.836	2.326	38.849
20-49	4.883	146.791	4.567	138.771	4.409	132.893
50-99	1.455	100.396	1.410	98.099	1.397	96.738
100-249	719	108.057	676	102.102	686	102.361
250-499	178	60.562	161	55.448	156	53.656
>= 500	85	86.271	81	78.931	75	76.114

Iturria: EUSTAT, JEGID

I.2.4. KOADROA. EAE-KO KOOPERATIBA KOPURUAREN BILAKAERA, MOTAREN ARABERA SAILKATUTA (ABENDUAREN 31N)						
	2010	2011	2012	%	2011-2012ko gehikuntza	2007-2012ko gehikuntza
Guztira	**1.747**	**1.770**	**1.814**	**100,0**	**44**	**173**
Nekazaritza	101	105	109	6,0	4	10
Kontsumoa	33	34	34	1,9	0	2
Zerbitzuak eta bestelakoak	89	88	88	4,9	0	12
Elkarlana	1.075	1.074	1.078	59,4	4	21
Irakaskuntza	94	93	95	5,2	2	3
Etxebizitza	271	288	316	17,4	28	92
Kreditua	1	1	1	0,1	0	0
Mistoak	33	36	43	2,4	7	26
2. maila edo handiagoa	50	51	50	2,8	-1	7

Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Kooperatiben Erregistroa.

2012ko abenduaren 31n Gizarte Segurantzak altan dauden 1.533 kooperatiba enpresa (aurreko urtean baino 11 gehiago) erregistratu ditu, guztira; horiek 55.125 langile zituzten. Horrek 36 langileko batezbestekoa dakar kooperatibako (EUSTATeko ratioa baino handiagoa), eta Estatuko batezbesteko handiena da, haren batezbestekoa (13,3) ia hirukoiztuta.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sozialaren Zuzendaritzako Kooperatiben Erregistroaren arabera, kooperatiben kopurua 1.814[1] izan da 2012an. Haien artean, erdia baino gehiago (1.078) elkarlaneko kooperatibak dira; haietatik 434 (% 40) kooperatiba txikiak dira (figura horrek bere erregimena eta araudia dauzka, ekainaren 25eko 6/2008 Legea dela bide). Elkarlaneko kooperatiba horiek 4 gehiago dira aurten, eta aurreko urtean 1ean murriztu ziren. 2010ean bezala, hazkunderik handiena etxebizitzako kooperatibetan (+28) izan da; izan ere, azken bost urteotan kategoria horrek 92 kooperatiba gehiago hartu ditu, hau da, gorakadaren % 50 baino gehiago eragin du.

Lan Sozietateei dagokienez[2], Gizarte Segurantzaren arabera, kotizatutako kopuru osoa 709 da, hau da, 2011n baino 53 gutxiago. 7.233 langile dauzkate (2011n baino % 8,7 gutxiago). Batez besteko tamaina 10,2 langilekoa da sozietate bakoitzeko, estatuko batezbestekoa (5,5 langile) baino askozaz ere handiagoa.

Enpresei dagokienez eta establezimendua analisi-unitatetzat hartuta, aurreko urteetan bezala, ikus daiteke enpleguaren tamainaren araberako egitura ez dela aldatu. 2.314 establezimendu eskasek, kopuru osoaren % 1,3k, hain zuzen, 50 enplegu edo gehiago dituzte, guztira 328.869 enplegu izanda (guztien

1 Ikusi Gizarte Segurantzaren eta EUSTATen datuekiko aldea.

2 Haietan, sozietatearen kapitalaren gehiena langile bazkideena da. Bazkide bakoitzak gehienez eduki dezakeen kapital soziala ezin daiteke izan guztiaren herena baino handiagoa (partaidetza publikoarekin salbuespen batzuk gertatu ohi dira). Horregatik, gutxieneko bazkide kopurua 3 da.

Kapital soziala akzio izendunetan banatzen denean, lan sozietate anonimoa da (SAL). Partaidetza sozialetan banatzen denean, izaera juridikoa lan-erantzukizun mugatuko sozietateena da (SLL). Nolanahi ere, bai akzioak bai partaidetzak bi taldetan banatzen dira: bazkide langileenak eta beste pertsona batzuenak.

% 37,7). 137.997 establezimenduk (kopuru osoaren % 74,8), aldiz, ez dute ezta 3 lanpostu ere, eta enplegu osoaren % 19,7 bakarrik hartzen dute.

I.2.5. KOADROA. EAE-KO ENPRESA ETA ENPLEGU KOPURUAREN BILAKAERA, JARDUERA ADARRAREN (CNAE 09) ETA NORTASUN JURIDIKOAREN ARABERA

	Enpresen kop.					Enplegua					Batez besteko enplegua		
	2008	2011	2012	08-12 (%)	11-12 (%)	2008	2011	2012	08-12 (%)	11-12 (%)	2008	2011	2012
GUZTIRA	**184.290**	**165.995**	**165.517**	**-10,2**	**-0,3**	**942.479**	**890.093**	**873.121**	**-7,4**	**-1,9**	**5,1**	**5,4**	**5,3**
Zehaztugabea	3.494	-	-	-	-	14.366	-	.	-	-	4,1	-	-
A. Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza		-	6.134	-	-	-	-	11.910	-	-	-	-	1,9
B. Erauzketa industriak	41	37	39	-4,9	5,4	604	549	493	-18,4	-10,2	14,7	14,8	12,6
C. Manufaktura industria	13.870	13.127	12.455	-10,2	-5,1	216.441	188.920	182.421	-15,7	-3,4	15,6	14,4	14,6
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	165	143	135	-18,2	-5,6	2.776	2.331	2.349	-15,4	0,8	16,8	16,3	17,4
E. Ur hornidura; saneamenduko, hondakin kudeaketako eta kutsadura kentzeko jarduerak	207	239	240	15,9	0,4	7.865	6.126	6.694	-14,9	9,3	38,0	25,6	27,9
F. Eraikuntza	33.089	26.319	24.095	-27,2	-8,5	98.874	80.504	69.392	-29,8	-13,8	3,0	3,1	2,9
G. Handizkako merkataritza, txikizkakoa, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa	41.865	37.959	36.843	-12,0	-2,9	143.594	136.222	133.323	-7,2	-2,1	3,4	3,6	3,6
H. Garraioa eta biltegiratzea	13.872	11.747	11.520	-17,0	-1,9	47.047	43.095	42.482	-9,7	-1,4	3,4	3,7	3,7
I. Ostalaritza	14.236	13.614	13.436	-5,6	-1,3	47.859	50.858	49.202	2,8	-3,3	3,4	3,7	3,7
J. Informazioa eta komunikazioak	3.119	2.979	2.936	-5,9	-1,4	24.118	23.099	22.055	-8,6	-4,5	7,7	7,8	7,5
K. Finantza eta aseguru jarduerak	2.843	2.899	2.976	4,7	2,7	22.055	21.987	21.758	-1,3	-1,0	7,8	7,6	7,3
L. Higiezinen jarduerak	5.655	5.354	4.043	-28,5	-24,5	7.317	7.198	6.240	-14,7	-13,3	1,3	1,3	1,5
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	20.856	20.609	20.734	-0,6	0,6	55.809	58.505	58.293	4,5	-0,4	2,7	2,8	2,8
N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	7.012	6.554	6.282	-10,4	-4,2	57.644	59.044	56.810	-1,4	-3,8	8,2	9,0	9,0
O. Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantza	428	464	444	3,7	-4,3	72.242	74.054	73.036	1,1	-1,4	168,8	159,6	164,5
P. Hezkuntza	3.578	3.747	3.871	8,2	3,3	35.591	35.888	36.086	1,4	0,6	9,9	9,6	9,3
Q. Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	7.066	7.841	7.926	12,2	1,1	54.090	67.038	67.064	24,0	0,0	7,7	8,5	8,5
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	2.879	3.118	2.985	3,7	-4,3	11.305	11.722	11.234	-0,6	-4,2	3,9	3,8	3,8
S. Bestelako zerbitzuak	10.015	9.245	8.423	-15,9	-8,9	22.882	22.953	22.279	-2,6	-2,9	2,3	2,5	2,6
Pertsona fisikoa	107.911	92.520	97.941	-9,2	5,9	153.840	131.529	138.737	-9,8	5,5	1,4	1,4	1,4
Sozietate anonimoa	8.964	7.883	7.215	-19,5	-8,5	271.213	241.214	231.907	-14,5	-3,9	30,3	30,6	32,1
Erantzukizun mugatuko sozietatea	46.534	46.974	44.189	-5,0	-5,9	279.755	272.251	262.059	-6,3	-3,7	6,0	5,8	5,9
Beste sozietate eta elkarte batzuk	19.545	17.549	15.147	-22,5	-13,7	117.175	121.528	118.735	1,3	-2,3	6,0	6,9	7,8
Beste sozietate bat*	9.193	8.041	6.645	-27,7	-17,4	47.723	53.257	51.653	8,2	-3,0	5,2	6,6	7,8
Ondasun erkidegoa	9.101	8.168	7.156	-21,4	-12,4	22.887	20.990	20.497	-10,4	-2,3	2,5	2,6	2,9
Sozietate kooperatiboa	1.251	1.340	1.346	7,6	0,4	46.565	47.281	46.585	0,0	-1,5	37,2	35,3	34,6
Beste forma juridiko batzuk	1.336	1.069	1.025	-23,3	-4,1	120.496	123.571	121.683	1,0	-1,5	90,2	115,6	118,7
Tokiko korporazioa	390	391	384	-1,5	-1,8	25.383	26.901	26.678	5,1	-0,8	65,1	68,8	69,5
Erakunde autonomoa edo haren parekoa. Erlijio erakundea	885	616	591	-33,2	-4,1	26.039	27.416	26.370	1,3	-3,8	29,4	44,5	44,6
Estatuko eta AAEEetako administrazioen organoak.	61	62	50	-18,0	-19,4	69.074	69.254	68.635	-0,6	-0,9	1.132,4	1.117,0	1.372,7

** (Erregular kolektiboa, komandita, elkartea, sozietate zibila eta definitu gabeko beste mota batzuk)*
Iturria: EUSTAT, JEGID

Enpresa-txandakatzea

Establezimenduen kopurua murriztu egin da 14.884 establezimendu berrik jarduera hasi dutelako baina 22.548 establezimenduk utzi dutelako euren jarduera. Horrenbestez, jarduera hasi eta uzten duten establezimenduen zein jarduera gauzatzen jarraitzen dutenen arteko enplegu-saldo garbia -7.664koa da.

Enpresa-txandakatze handiena honako adar hauetan egon da: Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motorren konponketa; Eraikuntza; Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak; Ostalaritza; Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak; eta Manufaktura industria. Txandakatze handieneko estratuak, establezimenduei dagokienez, tamaina txikienekoei dagozkie, hau da, 2 enplegu edo gutxiagoko establezimenduei.

I.2.6. KOADROA. ENPRESA-TXANDAKATZEA JARDUERA-SEKTOREAREN, ENPLEGU-MAILAREN ETA NORTASUN JURIDIKOAREN ARABERA, 2012 (establezimendu kopurua)

	Saldo orokorra: (altak - bajak) + jarraitzen dutenak	Altak	Bajak	Jarraitzen dutenen saldoa
2012an, guztira	**-7.664**	**14.884**	**22.548**	**0**
A. Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza	-441	311	679	-73
B. Erauzketa industriak	0	3	1	-2
C. Manufaktura industria	-697	649	1.342	-4
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	-11	10	25	4
E. Ur hornidura; saneamenduko, hondakin kudeaketako eta kutsadura kentzeko jarduerak	7	28	23	2
F. Eraikuntza	-2.404	2.670	5.058	-16
G. Handizkako merkataritza, txikizkakoa; ibilgailu motordunen eta motorren konponketa	-1.260	3.461	4.776	55
H. Garraioa eta biltegiratzea	-211	712	958	35
I. Ostalaritza	-135	1.099	1.274	40
J. Informazioa eta komunikazioak	-76	416	437	-55
K. Finantza eta aseguru jarduerak	-11	382	386	-7
L. Higiezinen jarduerak	-1.362	235	1.560	-37
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	95	1.950	1.901	46
N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	-300	634	921	-13
O. Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantza	-2	53	54	-1
P. Hezkuntza	87	508	430	9
Q. Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	63	649	593	7
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	-119	393	526	14
S. Bestelako zerbitzuak	-887	721	1.604	-4
Enplegu-maila				
0 - 2	-5.332	13.660	19.570	578
3 - 5	-1.134	790	1.871	-53
6 - 9	-763	213	588	-388
10 - 19	-59	93	227	75
20 - 49	-165	43	103	-105
>= 50	-184	61	142	-103
Nortasun juridikoa				
Pertsona fisikoa	-521	10.078	10.594	-5
Sozietate anonimoa	-789	255	1.068	24
Sozietate mugatua	-3.125	3.214	6.511	172
Beste sozietate bat	-1.998	620	2.465	-153
Ondasun erkidegoa	-1.152	484	1.578	-58
Sozietate kooperatiboa	-40	124	175	11
Tokiko korporazioa	-24	14	41	3
Erakunde autonomoa edo haren parekoa. Erlijio erakundea	39	91	58	6
Estatuko eta AAEEetako administrazioen organoak.	-54	4	58	0

Iturria: EUSTAT, JEGID

Nortasun juridikoa kontuan hartuz gero, EUSTATen arabera, txandakatze handiagoa egon da Pertsona fisikoaren formula juridikopean sortutako establezimenduetan: alten % 67,7 (10.078) eta bajen % 47 (10.594). Bigarren posizioan sozietate mugatuak egon dira.

I.2.7. KOADROA. NEKAZARITZAKO MAKROMAGNITUDEEN BILAKAERA
(milaka eurotan)

	2009ko behin betikoa	2010eko behin betikoa	2011ko aurrerapena	2012ko aurrerapena
NEKAZARITZAKO AZKEN PRODUKZIOA	399.057,2	405.440,4	441.479,9	480.543,3
Nekazaritzako azken produkzioa	225.302,8	221.593,4	247.920,4	266.226,6
Zerealak	19.830,3	36.773,3	49.619,3	56.660,1
Lekadunak	3.291,5	3.315,2	3.720,4	2.382,9
Patata	10.617,4	10.001,7	11.953,2	9.609,3
Erremolatxa	6.833,0	6.894,3	8.940,8	8.228,4
Industriako beste batzuk	1.005,7	855,3	1.226,8	1.278,6
Barazkiak	72.576,7	68.470,1	66.377,5	68.264,7
Frutak	12.473,6	12.099,7	13.862,5	15.064,3
Mahastia	71.621,2	55.696,6	64.825,8	76.105,9
Bestelakoak	27.053,5	27.489,3	27.394,2	28.632,4
Abeltzaintzako azken produkzioa	148.806,3	141.992,5	146.243,2	157.283,9
Behi animaliak/haragia	32.354,5	37.261,6	38.190,3	38.776,2
Ardi-ahuntz anim./haragia	7.615,3	6.492,2	7.196,8	7.076,1
Txerri animaliak/haragia	3.989,8	2.665,0	8.419,5	9.576,5
Behi-esnea	62.347,4	60.290,9	59.369,0	59.124,4
Arrautzak	26.916,3	23.549,2	21.439,3	32.462,2
Bestelakoak	15.583,0	11.733,5	10.628,3	10.268,6
Basogintzako azken produkzioa	10.824,5	33.686,6	39.865,4	48.263,1
Intsinis pinuaren egurra	5.821,8	27.548,1	31.978,5	37.892,8
Bestelakoak	5.002,7	6.138,5	7.886,9	10.390,3
Bestelako produkzioak	14.123,6	8.168,0	8.450,9	8.749,8
BITARTEKO KONTSUMOAK	169.849,1	168.656,7	185.148,3	190.655,1
DIRU-LAGUNTZAK	73.281,3	71.549,7	65.409,2	65.077,7
AMORTIZAZIOAK	50.702,9	51.043,9	51.390,6	51.542,4
BEGd-A bb	229.208,1	236.783,7	256.331,6	289.888,3
NEKAZARITZAKO ERRENTA (BEG)	251.786,5	257.289,5	270.350,2	303.423,6

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila

2.1.2. Nekazaritzaren eta Arrantzaren sektorea

Kontu Ekonomikoen eta HKE-Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen datuen arabera (datuak 2013ko otsailean argitaratu dira), lehen sektorea prezio arruntetan 2005ean BPGd-aren % 0,2 izatetik 2012an % 0,7 (478.463 mila euro) izatera igaro da; lanaldi osoaren pareko lanpostuak (LOPL) 13.643 izanda, LOPLn enplegu osoaren % 1,5 da; 2005ean, aldiz, % 1,7 zen.

HKEen arabera, 2011 eta 2012 bitartean lehen sektoreko BEGd-a % 5,9 gehitu da EAEn, nahiz eta aurreko aldian % 1,9 murriztu zen. LOPLn enplegua % 0,1 murriztu da, eta aurreko urtean, berriz, % 3,5.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren datuen aurrerapenaren arabera, honakoa izan da nekazaritza sektoreak izan duen bilakaera xehea.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Baso ustiapena

Nekazaritzako Azken Produkzioa (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta beste produkzio batzuk). Nekazaritzako azken produkzioaren balioa prezio arruntetan 2011koa baino % 8,8 handiagoa izan da, prezioak % 7,4 handitzeari eta produkzioa % 1,4 gehitzeari esker.

Neurri handian garestitu dira abeltzaintza eta nekazaritza produktuen batez besteko prezioak, eta zurari lotutakoak neurri txikian murriztu dira.

Bolumeneko bilakaerak (prezio iraunkorretan) agertu du azken urtean nekazaritza produkzioa egonkortu dela, abeltzaintza produkzioa murriztu dela, eta basogintza produkzioa gehitu dela. Oro har nekazaritzako azken produkzioa % 1,4 handitu da prezio iraunkorretan.

Nekazaritzako Azken Produkzioa. Nekazaritzako azken produkzioaren balioa 2011koa baino % 7,4 handiagoa izan da, nekazaritzaren azpisektoreak 2009ko eta 2010eko murrizketaren aurreko balioak berreskuratu dituela. Gehikuntza hori prezioak % 7,1 eta bolumena % 0,3 handitzearen ondorioz sortu da.

Produkzioari dagokionez, prezio iraunkorretako bilakaerak 2011ko uztatik datorren ardogintzaren gehikuntza eta barazkien eta gainerako nekazaritza produkzioen murrizketa txikia agertu ditu.

Prezioei dagokienez, horiek % 7,1 gehitu dira batez beste nekazaritza produktuetan. Ardoaren, barazkien eta patataren prezioen igoerak Nekazaritzako Azken Produkzioaren balioari eutsi dio. Horri laboreetako prezioen gorakada gehitu behar zaio. Gorakada hori gertatu da, besteak beste, eskaria areagotzen duten goranzko ekonomien (adibidez, Txina, India eta Brasil) hedapenagatik eta inbertsiogileek lehengai horietan oinarritutako finantza produktuen aldeko apustua egiteagatik.

Abeltzaintzako Azken Produkzioa. Prezioen gehikuntzak (% 12,1eko batezbestekoa) produkzioen jaitsiera (% 3,4ko batezbestekoa prezio iraunkorretan) konpentsatu du, eta Abeltzaintzako Azken Produkzioaren barneko kapitulu bakoitzaren bilakaerak arrautzen produkzioaren balioan egondako gehikuntza handia agerrarazi du, haien prezioaren gorakada dela-eta. Gainerako taldeak nahiko egonkor daude.

Basogintzako Azken Produkzioa. 2011n mozketen kopurua murriztu ondoren, 2012ko ekitaldian horiek gora egin dute pinuetan, eukaliptoetan eta beste espezie batzuetan. Jabeek egurra moztea erabaki dute, ez dutelako espero prezioek gora egitea. Izan ere, 2012an historiako prezio txikienak izan dituzte: % 4 murriztu dira berriro. Barne-eskaerarik ez dagoenez, sektoreko eragileak egurra esportatzen ari dira, baita barne-merkatuko eremu berriak bilatzen ere.

Ekoizpenaren eta prezioen bi bilakaera horien ondorioz, Basogintzako Azken Produkzioaren balioa % 21 handitu da.

Azken urtean intsinis pinuaren (EAEn garrantzi ekonomiko handiena duen baso espeziea) mozketen baimenak % 25 gehitu dira batez beste, eta haren prezioa % 5 murriztu da.

Bitarteko kontsumoak. Gastuen balioa % 3 handitu da 2012an. Historiako balio handiena da, 2009an erregistratutakoaren atzetik. Gehikuntza hori prezioen igoeraren (% 5,3) zuzeneko ondorioa da, kontsumitutako kopuruak murriztu baitira (% 2,2).

Kontsumitutako kopuruen jaitsiera abeltzaintza erroldaren murrizketan sortzen da. Horrela, abeltzaintzan behar diren kontsumitutako kopuruak murrizten dira, adibidez, produktu zoosanitarioak (% -5,7) eta pentsua (% -3,6). Produktu fitosanitarioen kopuruak ere % 10 murriztu dira, klimatologiako egoera ona dela eta. Gainerako ataletako bitarteko kontsumoen bolumena ia-ia egonkor mantendu da bere horretan, aldaketarik gabe.

Prezioei dagokienez, horiek % 5,3 gehitu dira batez beste. Gasolioa (% 9,9), pentsuak (% 7,2) eta ongarriak (% 5,9) inflazio handiena agertzen duten kapituluak dira.

Diru-laguntzak ustiapenerako. 2012. urtean zehar, ustiapenerako diru-laguntza guztiak % 0,5 murriztu dira; nekazaritzako errenta osoaren % 21 dira (2011n % 24 ziren).

Amortizazioak. % 0,3 handitu dira.

Nekazaritza errenta nominala edo balio arruntetakoa (BEG). Nekazaritza errenta kalkulatzeko Gastuak eta Amortizazioak kendu behar zaizkio Nekazaritzako Azken Produkzioaren (nekazaritza + abeltzaintza + basogintza + bestelakoak) eta Diru-laguntzen baturari. 2012an nekazaritza errenta % 12,2 handitu da. Gehikuntza hori Nekazaritzako Azken Produkzioaren balioaren gehikuntzak (% 8,8) eragin du.

I.2.8. KOADROA. NEKAZARITZA ERRENTA ERREALAREN BILAKAERA (basogintza sektorea kontuan hartu gabe)*(aldakuntza-tasak) 2011-2012*

	EAE	ESTATUA	27KO EB
Nekazaritza errenta (termino errealetan)	9,5	0,9	0,5
Nekazaritzako eta abeltzaintzako azken produkzioa	6,5	2,7	1,8
Nekazaritzako azken produkzioa	6,2	-1,4	0,5
Abeltzaintzako azken produkzioa	7,1	9,4	3,8
Bitarteko kontsumoak	1,9	4,8	1,6
Diru-laguntzak	-1,6	3,1	-
Nekazaritzako lan-eskuaren aldakuntza	2,7	-1,4	-0,5
Nekazaritza errenta erreala / okupatua	6,7	2,4	1,0

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila

Nekazaritza errenta erreala. Nekazaritza errenta errealak, hau da, inflazioaren efektua kendu ondoren geratzen denak, beheranzko joera izan du. Izan ere, % 46 murriztu da 1985etik.

EAEko balio errealetako Nekazaritza errenta (deflaktatua) EBko eta Estatuko errentekin konparatzea

EUROSTATek inflazioa kenduta konparatzen ditu Estatuen arteko Kontuen Aurrerapenak, herrialde bakoitzak berea baitu. Horrez gain, basogintza sektorea kanpoan uzten du.

Metodologia horren arabera, nekazaritza errenta erreala % 9,5 EAEn, % 0,9 Estatuan eta % 0,5 27ko EBn handitu da.

Nekazaritza arloko biztanleria okupatuari buruzko balioespenek adierazi dute biztanleria hori EAEn % 2,7 handitu eta Estatuan eta 27ko EBn % 1,4 eta % 0,5, hurrenez hurren, murriztu dela. Gauzak horrela, Okupatu bakoitzeko Nekazaritza errenta erreala % 6,7 EAEn, % 2,4 Estatuan eta % 1 EBn handitu da.

2.1.3. Industria

Kontu Ekonomikoen eta HKEn datuen arabera (datuak 2013ko otsailean argitaratu dira), industria sektorea prezio arruntetan 2005ean BPGd-aren % 25,8 izatetik 2012an % 22 (14.566 mila euro) izatera igaro da; lanaldi osoaren pareko lanpostuak (LOPL) 194.987 izanda, LOPLn enplegu osoaren % 21,7 da; 2005ean, aldiz, % 25,8 zen.

HKEen datuek erakusten dutenez, 2007ko bigarren hiruhilekotik aurrera industria produkzioaren hazkunde-tasa errealak apurka-apurka ahultzen joan ziren, eta 2009ko hirugarren hiruhilekoa % 15,1eko urte arteko aldakuntza-tasa negatiboarekin amaitu zen; une horretatik aurrera egoerak hobera egin zuen. Hala ere, 2011ko bigarren hiruhilekotik aurrera, industriako BEGd-a bere hazkundea moteltzen joan da pixkanaka-pixkanaka. Horrela, aldakuntza-tasak negatiboak izan dira laugarren hiruhilekotik aurrera, eta haien jaitsiera areagotu dute 2012 osoan: lehenengo hiruhilekoko aldakuntza-tasa % -1,4 zen; bigarrenean % -2,4; hirugarrenean % -2,8; eta, amaitzeko, laugarrenean % -3,1.

Horrela, industriako BEGd-aren urte arteko gehikuntza erreala, 2012. urtean, % -2,4koa izan zen (aurreko urtean % +2 izan zen). Horrela, industriako BEGd-a, 2012. urtean, 14.566 milioi eurokoa izan zen, guztira.

Enpleguari dagokionez, kopuruek erakusten dute (lanaldi osoaren pareko 194.987 lanpostu, EUSTATen hiru hilez behingo kontu ekonomikoen arabera) urteko batezbestekoa % 4,3 jaitsi dela. Ondorioz, sektoreko produktibitateak % 2ko urteko batez besteko gehikuntza erakusten du.


Bestalde, industriako BEGd-ak, Estatuaren multzo osoan eta EINren datuen arabera, % -2,9ko urte arteko aldakuntza tasa erreala erregistratu du.

EUSTATen 2013ko martxoko datuen arabera, Industri Ekoizpenaren Indizearen (IEI, datu gordinak izanda) urteko batez besteko aldakuntzak jardueraren % 7,4ko jaitsiera agertu du (% +1,4 aurreko urtean) EAE osorako. Lurralde Historikoen araberako analisiari esker ondorioztatu da jaitsiera handiena Bizkaian (% -8,5) egon dela, horren atzetik Gipuzkoa (% -7) eta Araba (% -6,3) daudela.

EUSTATen arabera, ondasunen helmuga ekonomikoa aztertuta, EAEn batez besteko jaitsiera hori ondasun guztien ekoizpenaren jaitsieran oinarritu da: bitarteko ondasunak (% -8,4, aurreko urtean indizea % 2,6 handitu bazen ere), ekipo-ondasunak (% -

7,7, aurreko urtean ekoizpena % 5,2 handitu zela), energia (% 5,2ko jaitsiera) eta kontsumoko ondasunak —iraunkorrak zein ez-iraunkorrak— (% -7,6 lehenengoak eta % -4,5 bigarrenak).

I.2.1. GRAFIKOA. INDUSTRIAKO ADIERAZLE NAGUSIEN EBOLUZIOA DATO ZUZENDUAK



Iturria.- EUSTAT. Hiru Hilez Behingo kontu Ekonomikoak.

I.2.9. KOADROA. ADIERAZLEAK INDUSTRIA SEKTOREAN

		2008	2009	2010	2011	2012
BEGd-a	Kateatutako bolumena	112,6	98	100	102	99,6
	Prezio arruntak (milaka adierazita)	16.532	13.386	13.984	14.667	14.566
LOPLko enplegua*		240.778	215.791	208.400	203.839	194.987
BEGd-aren aldakuntza (erreala)		-0,7	-12,9	2,0	2,0	-2,4
Enpleguaren aldakuntza		-2	-10,4	-3,4	-2,2	-4,3
Produktibitatea (LOPLko enpleguaren neurria)		1,4	-2,9	5,6	4,3	2,0
Deflatorea		1,7	-7,0	2,4	2,8	1,8

Lanaldi osoaren parekotasuna
Iturria: EUSTATen Kontu Ekonomikoak eta HKE

I.2.10. KOADROA. IEIren BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ETA ONDASUNEN HELMUGA EKONOMIKOAREN ARABERA. Datu gordinak. Urteko batez besteko hazkundea

	EAE, guztira	Lurralde Historikoak			Ondasunen helmuga ekonomikoa					
					Kontsumoko ondasunak			Ekipo-ondasunak	Bitarteko ondasunak	Energia
		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira	Iraunkorrak	Ez-iraunkorrak			
2008	**-2,9**	-3,9	-2,7	-2,5	-7	-16,7	-3,1	-1	-4,1	3,6
2009	**-21,8**	-24,2	-20,3	-22	-14,6	-29	-9,7	-23,2	-26	-7
2010	**2,1**	8,1	0,8	0,7	1	0,7	0,9	-2,6	7	-5,2
2011	**1,4**	5,5	2,2	-1,4	-2,2	-8,2	-0,5	5,2	2,6	-7,6
2012 b-b	**-7,4**	-6,3	-7	-8,5	-5,1	-7,6	-4,5	-7,7	-8,4	-5,2

b-b: behin-behinekoak. Iturria: EUSTATen IEI (2013ko martxoko datuak)

I.2.11. KOADROA. IEI, JARDUERA SEKTOREEN ARABERA. Datu gordinak. Urteko batez besteko hazkundea

	2008	2009	2010	2011	2012
02. Erauzketa industriak	-14,4	-26,6	-20	-19,6	-23,9
03. Elikagaien, edarien, tabakoaren ind.	-1,2	-4,7	4	-2,9	0,3
04. Oihal prod., jantzigintza, larru prod. eta oinetakoak	-6,6	-29,2	6,8	5,5	-18,5
05. Zura, papera eta arte grafikoak	-7,2	-18,7	-4,2	1,5	-7,7
06. Kokea lortzeko eta petrolioa fintzeko fabrikak	5,9	-11,2	-7,7	-4,7	-9,6
07. Industria kimikoa	-8,5	-23,5	2,2	4,4	-9,3
08. Produktu farmazeutikoak	5,4	-3	4,3	5	-12,5
09. Kautxua eta plastikoa	-7,9	-20,5	9,9	1,8	-13,9
10. Metalurgia	-4,4	-29,4	6,1	1	-7,1
11. Informatika eta elektronika prod.	-13,5	-24,7	4,6	-1,1	-12
12. Material eta ekipo elektrikoak	-1,8	-22,7	-0,1	-0,7	-4,1
13. Makineria eta ekipoa	-2,1	-30,2	-5	12,8	-3,5
14. Garraio materiala	6	-15,1	7	9,8	-8,7
15. Altzariak eta bestelako manufakturak	-3,4	-22,5	-12,9	-10,5	-15,3
16. Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	2,5	-6,4	-3,7	-7,2	-4,4

b-b: behin-behinekoak.
Iturria: EUSTATen IEI (2013ko martxoko datuak)

EINk 2013ko otsailean emandako datuen arabera, aurreko urtearekin alderatuta 2012. urtean IEIren (indize orokorra datu gordinetan) batezbestekoak % -5,9ko aldakuntza izan zuen estatuan. EINren EAErako batezbestekoa % -7,8koa izan da.

EUROSTATen datuen arabera, 2012ko abenduko datuak 2011ko abendukoekin alderatuz gero (egutegi-efektua zuzenduta), industria-ekoizpena % 2,4 jaitsi da Euroaren Eremuan eta % 2,3 27ko EBn. Jaitsiera handienak honako herrialde hauetan egon dira: Espainia (% –6,9), Italia (% -6,6), Txekiar Errepublika (% -5,8) eta Polonia (% -5,4).

IEIren sektore analisitik (datu gordinak) ondorioztatu da EAErako hiru industria sektore garrantzitsuenetatik (Metalurgia, Makineria eta ekipoa, eta Garraio materiala), Makineria eta ekipoa sektoreak batezbestekoak baino jaitsiera txikiagoa izan duela (% -3,5, % -7,4ren aurrean); Metalurgiak eta Garraio materialak, aldiz, batezbestekoaren inguruko jaitsierak (% -7,1, batezbestekoa % -7,4koa dela) eta batezbestekotik gorakoa (% -8,7) izan dituzte, hurrenez hurren .

Industriako ondasunen prezioei dagokienez, EUSTATen arabera, Industriako Prezioen Indizeak (IPRI) gure Erkidegoan urteko % 1,8ko gehikuntza izan zuen batez beste 2012an, aurreko urteko % 7,6ko hazkuntzaren aldean.

Urteko batez besteko gehikuntzan Energia elektriko, gas eta lurrinaren (% 9), Kokea lortzeko eta petrolioa fintzeko fabriken (% 8,7), Informatika eta elektronika produktuen (% 4,7) eta Industria kimikoaren (% 3,7) IPRIren gehikuntza izan da nagusi.

EAEko funtsezko hiru industria sektoreetako bakoitzaren IPRIri dagokionez, Metalurgia eta produktu metalikoek eta Garraio materialak beheranzko tasak izan dituzte (% -1,3 eta % -1,1, hurrenez hurren); Makineria eta ekipoak, berriz, goranzko tasa izan du (% 1,9).

I.1.12. KOADROA. IPI, ONDASUNEN HELMUGA EKONOMIKOAREN ETA JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA, CNAE-2009 (urteko batez besteko hazkundea)

	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Indize orokorra	5	5,4	-6	3,4	7,6	1,8
Ondasunen helmuga ekonomikoa						
Kontsumoko ondasunak	3,5	4,2	0,5	0,2	2,4	-0,3
--- Kontsumo iraunkorreko ondasunak	1,5	3	0,2	-0,5	0,5	0,6
--- Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunak	4,4	4,7	0,7	0,5	3,1	-0,6
Ekipo-ondasunak	3,8	2,6	1,4	0,1	2	0,9
Bitarteko ondasunak	7,1	3,8	-7,9	3,2	6,1	-0,3
Energia	1,1	15,7	-14,6	11,7	21,9	8,9
Jarduera sektoreak						
- Erauzketa industriak	2,6	15,3	5,5	-1,2	-4,8	-0,3
- Manufaktura industria	5,4	4,9	-6,5	3,8	6,4	1
--- Elikagaien, edarien, tabakoaren ind.	7	8,4	-1,2	1,5	6,4	-0,5
--- Oihal prod., jantzigintza, larru prod. eta oinetakoak	-0,8	3,1	1,1	0,8	1,8	1,2
--- Zura, papera eta arte grafikoak	1,8	1,2	-3,2	1,1	3,5	0,5
--- Kokea lortzeko eta petrolioa fintzeko fabrikak	1,8	19,4	-24,1	24	21,7	8,7
--- Industria kimikoa	7	4,9	-2	1,9	7,1	3,7
--- Produktu farmazeutikoak	0	1,7	1	0,5	0,7	0
--- Kautxua eta plastikoa	4,2	3,5	-0,3	0,9	3,4	1,2
--- Metalurgia eta produktu metalikoak	**8,1**	**3,4**	**-10,7**	**3,5**	**6,4**	**-1,3**
--- Informatika eta elektronika prod.	9,7	4,2	0,9	0,5	2,6	4,7
--- Material eta ekipo elektrikoak	2,2	3,1	-1,7	2,2	2,7	1,7
--- Makineria eta ekipoa	**3,1**	**2**	**1,7**	**-0,5**	**2**	**1,9**
--- Garraio materiala	**3,9**	**1,9**	**2,7**	**0,7**	**2,4**	**-1,1**
--- Altzariak eta bestelako manufakturak	5,1	3,8	2,4	-0,2	1,1	1
- Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	0,3	10,9	-1,5	-1,4	22,1	9

2005eko oinarria. Iturria: EUSTATen IPI

I.2.13. KOADROA. INDUSTRIA SEKTOREKO MAGNITUDEAK SEKTOREKA

	Banaketaren % (Industria = 100) 2011					Inbertsioa (milaka euro / enplegua)2011 -	Emaitza (milaka euro / enplegua) 2011 -	BEGd-a	Enplegua	Inbertsioa	Emaitzak eragiketa jarraituetan *, zergen ondoren
	BEGd-a	Enple-gua	Inbertsioa	Salmenta garbiak	Emaitzak, zergen ondoren			10-11ko ald. nominalaren %	10-11ko ald. %	10-11ko ald. %	10-11ko ald. %
INDUSTRIA, GUZTIRA	100	100	100	100	100						
	14.789.069	213.405	2.200.351	58.733.508	2.006.847	-	-	1,55	-2,47	6,89	-8,22
Erauzketa industria	0,48	0,27	1,14	0,33	1,02	43,2	35,2	-28,26	-17,29	76,22	-42,07
Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria	6,34	7,29	5,96	6,54	10,24	8,4	13,2	-4,20	-2,21	13,85	-13,28
Oihal prod., jantzigintza, larru prod. eta oinetakoak	0,79	1,33	0,16	0,68	1,11	1,3	7,9	10,66	-6,22	161,31	99,47
Zura, papera eta arte grafikoak	5,60	6,54	4,49	4,29	5,78	7,1	8,3	6,62	-4,59	8,90	230,88
Kokea lortzeko eta petrolioa fintzeko fabrikak	1,28	0,55	10,76	11,89	5,19	200,0	87,9	-41,00	-0,17	-21,26	-71,37
Industria kimikoa eta produktu farmazeutikoen fabrikazioa	3,01	2,30	2,55	2,88	5,56	11,4	22,7	7,15	-5,60	-15,47	43,27
Kautxua eta plastikoa	7,12	7,20	3,57	6,09	10,61	5,1	13,9	6,36	2,23	24,58	23,77
Metalezkoak ez diren bestelako produktu mineralak	2,97	3,03	3,78	2,20	3,23	12,9	10,0	-3,03	-5,37	-18,41	-6,02
Metalurgia eta produktu metalikoak	27,54	33,92	21,98	26,00	6,07	6,7	1,7	3,14	-3,16	9,22	21,41
Prod. informatikoak, elektronikoak eta optikoak	2,03	2,72	1,35	1,33	2,02	5,1	7,0	0,46	0,91	-41,31	-17,09
Material eta ekipo elektrikoa, etxeko tresnak (elektrikoak) barne	5,31	5,89	3,98	4,94	5,37	7,0	8,6	0,49	-1,54	5,19	-37,37
Makineria eta ekipoa	9,72	10,01	6,11	7,31	11,56	6,3	10,9	8,56	-1,89	25,10	34,57
Garraio materiala	9,07	8,15	7,22	10,16	16,25	9,1	18,7	4,06	-2,96	63,76	33,94
Altzariak eta bestelako manufakturak	4,14	6,69	2,00	2,50	1,90	3,1	2,7	-10,32	-5,90	4,02	-25,27
Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	11,77	1,15	17,26	11,14	10,60	154,7	86,7	3,35	0,20	-2,44	-34,16
Ur eta saneamendu hornidura	2,83	2,97	7,70	1,74	3,50	26,7	11,1	0,89	10,15	83,29	-5,57

Operazio horien ustiapen eta finantza emaitza barne Iturria: EUSTATen Industria Estatistika

Ondasunen helmuga ekonomikoaren arabera, energiaren prezioa % 8,9 handitu da, geldotu den arren goranzko joerarekin jarraituta; ekipo-ondasunena % 0,9 handitu da; kontsumoko ondasun iraunkorrena % 0,6 handitu da; bitarteko ondasunen prezioa, aldiz, % 0,3 murriztu da, eta kontsumoko ondasun ez-iraunkorrena % -0,6.

EINk 2013ko urtarrilean argitaratutako behin-behineko datuen arabera, aurreko urtearekin

alderatuta EAEko IPRIk % 2,4ko urteko aldakuntza-tasa izan du 2011n. Estatuan indize hori % 2,7 izan da.

EUROSTATen datuen arabera, 2012ko abenduan, 2011ko abenduaren aldean, IPRI % 2,1 eta % 1,9 handitu da Euroaren Eremuan eta 27ko EBn, hurrenez hurren. Espainiar Estatuan ratioa % 3,3koa da.

EUSTATen Industriako Estatistikak sektorearen analisi zehatzagoa eskaini du, baina 2011ko datuak ditu, erabilgarri dauden azkenak horiexek baitira. Datu horiek adierazi dute 2010 eta 2011 bitartean, industria sektorearen balio erantsiak % 1,6ko gehikuntza nominaleko tasa izan duela eta enplegua % 2,5 jaitsi dela. Bestalde, inbertsioa % 6,9 handitu da, eta zergen ondorengo eragiketa jarraituen emaitzak % 8,2 murriztu dira.

Ekoizpena eta enplegua kontuan hartuz gero, Metalurgia eta produktu metalikoak, Makineria eta ekipoa eta Garraio materiala dira, oraindik ere, gure ekonomiako oinarrizko arloak, baina guztiek ere beherakada izan dute enpleguari eta inbertsioari dagokienez; ez da gauza bera gertatu faktoreen kostuarekin, inbertsioarekin eta zergen ondorengo emaitzekin, BEGd-ari dagokionez.

Sektoreok jarduera adarren arabera bananduz gero, Metalurgia eta produktu metalikoen arloa honakoetan banatzen da: Siderurgia, Burdinazkoak ez diren metalen ekoizpena, Metalen galdaketa, Metalezko eraikuntza, Forjaketa eta estanpazioa, Ingeniaritza mekanikoa eta Metalezko artikuluak sektoreek industriako BEGd-aren % 27,5 hartzen dute prezio arruntetan, enpleguaren % 33,9, inbertsioaren % 22 eta negozio-zifra garbiaren % 26, eta enpleguaren aldetik % 3,2ko jaitsiera izan dute.

Makineria eta ekipoa, honako hauek biltzen dituena: Erabilera orokorreko makinak eta makina-erreminta industriako BEGd-aren % 9,7 da, enpleguaren % 10, inbertsioaren % 6,1 eta negozio-zifra garbiaren % 7,3, eta enpleguaren aldetik % 1,9ko jaitsiera izan du.

Garraio materiala. Bertan honako hauek egongo lirateke: Motordun ibilgailuen fabrikazioa, Ontzigintza eta Bestelako garraio materialak. Industriako BEGd-aren % 9,1, enpleguaren % 8,2, inbertsioaren % 7,2 eta negozio-zifra garbiaren % 10,2 hartzen ditu, eta enpleguaren aldetik % 3ko jaitsiera izan du.

I.2.14. KOADROA. EAE-KO SEKTORE NAGUSIETAKO MAGNITUDEAK

	Enplegua		BEGd ald.		Inbertsioa		Negozioen kopuru garbia		Emaitzak, zergen ondoren	
	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011
METALURGIA ETA PRODUKTU METALIKOAK										
25/26 Siderurgia/Burdinazkoak ez diren metalen produkzioa	12.636	12.283	900.575	924.135	170.824	184.045	5.910.043	6.563.409	-5.917	-86.539
27 - Metalen galdaketa	7.983	7.999	406.268	431.353	40.209	71.262	1.223.605	1.527.376	-6.072	6.824
28 - Metalezko eraikuntza	12.729	11.498	548.318	487.130	30.952	24.462	1.382.394	1.296.609	-40.395	-25.450
29 - Forjaketa eta estanpazioa	6.350	6.104	375.163	386.416	30.215	34.444	1.231.754	1.422.823	64.782	59.186
30 - Ingeniaritza mekanikoa	18.284	18.340	863.851	960.212	93.539	80.737	1.781.969	1.931.468	22.912	115.547
31 - Metalezko artikuluak	16.762	16.155	854.315	883.032	77.031	88.646	2.311.739	2.527.637	64.948	52.155
MAKINERIA ETA EKIPOA										
35 - Erabilera orokorreko makinak	17.242	16.905	1.084.767	1.169.330	87.905	118.249	2.997.742	3.398.337	163.590	211.745
36 - Makina-erreminta	4.536	4.461	239.315	268.114	19.513	16.132	727.928	892.787	8.762	20.195
GARRAIO MATERIALA										
37 - Motordun ibilgailuen fabrikazioa	10.582	10.377	664.401	732.974	54.550	69.558	3.050.804	3.696.947	78.736	200.534
38 - Ontzigintza	1.186	1.142	100.797	72.484	7.283	5.096	561.251	426.779	20.850	10.211
39 - Bestelako garraio materiala	6.154	5.873	523.678	535.740	35.191	84.232	1.933.492	1.843.580	143.821	115.284

Iturria: EUSTATen Industria Estatistika

I.2.15. KOADROA. INDUSTRIAK EAE-N DUEN EDUKI TEKNOLOGIKOA, ELGA-REN SEKTOREEN ARABERA					
	2010	2011	Garrantzia 2010ean	Garrantzia 2011n	2010-11ko aldakuntza
ENPLEGUA (kopurua)					
Guztira	218.819	213.405			-2,5
Maila teknologiko handia eta ertain-handia	64.775	63.293	29,6	29,6	-2,3
Maila teknologiko handia	8.545	8.577	3,9	4,0	0,4
Maila teknologiko ertain-handia	56.230	54.716	25,7	25,6	-2,7
Maila teknologiko ertain-txikia eta txikia	145.141	140.741	66,3	66,0	-3,0
Maila teknologiko ertain-txikia	104.607	102.042	47,8	47,8	-2,5
Maila teknologiko txikia	40.534	38.699	18,5	18,1	-4,5
Sailkatu gabe	8.903	9.371	4,1	4,4	5,3
BEGd ald (milaka eurotan)					
Guztira	14.563.855	14.789.069			1,5
Maila teknologiko handia eta ertain-handia	4.137.647	4.352.453	28,4	29,4	5,2
Maila teknologiko handia	506.551	523.344	3,5	3,5	3,3
Maila teknologiko ertain-handia	3.631.096	3.829.109	24,9	25,9	5,5
Maila teknologiko ertain-txikia eta txikia	8.228.056	8.206.541	56,5	55	-0,3
Maila teknologiko ertain-txikia	6.052.704	6.069.732	41,6	41,0	0,3
Maila teknologiko txikia	2.175.352	2.136.809	14,9	14,4	-1,8
Sailkatu gabe	2.198.152	2.230.075	15,1	15,1	1,5
SALMENTAK (milaka eurotan)					
Guztira	53.469.783	58.733.508			9,8
Maila teknologiko handia eta ertain-handia	14.258.432	15.484.783	26,7	26,4	8,6
Maila teknologiko handia	1.505.320	1.694.034	2,8	2,9	12,5
Maila teknologiko ertain-handia	12.753.112	13.790.749	23,9	23,5	8,1
Maila teknologiko ertain-txikia eta txikia	32.145.779	35.489.861	60,1	60,4	10,4
Maila teknologiko ertain-txikia	24.631.556	27.958.294	46,1	47,6	13,5
Maila teknologiko txikia	7.514.223	7.531.567	14,1	12,8	0,2
Sailkatu gabe	7.065.572	7.758.864	13,2	13,2	9,8
PRODUKTIBITATEA					
Guztira	6,6	4,1			
Maila teknologiko handia eta ertain-handia	5,7	7,7			
Maila teknologiko handia	10,2	2,9			
Maila teknologiko ertain-handia	5,2	8,4			
Maila teknologiko ertain-txikia eta txikia	9,1	2,9			
Maila teknologiko ertain-txikia	10,7	2,8			
Maila teknologiko txikia	5,0	2,9			

Iturria: EUSTATen Industria Estatistika

Idazpuru honetan biltzen diren taulek erakusten duten BEGd, enplegu, inbertsio, negozio-kopuru eta zerga ondorengo emaitzen inguruan egindako sektorekako azterketatik ondoriozta daitekeenez, jarduera-azpisektore ezberdinek ez dute eboluzio homogeneorik izan.

Eduki teknologikoari dagokionez eta EUSTATek erabiltzen duen ELGAren sailkapenaren arabera, maila teknologiko handiak honako hauek barne hartzen ditu: 1. Produktu farmazeutikoen fabrikazioa, 2. Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak, eta 3. Aeronautika eta espazio eraikuntza. Maila teknologiko ertain-handian honako hauek daude: 4. Industria kimikoa, 5. Arma eta munizioen fabrikazioa, 6. Material eta ekipo elektronikoen fabrikazioa, Makineria eta ekipoen fabrikazioa, Ibilgailuen fabrikazioa, 7. Bestelako garraio materialen fabrikazioa, Ontzigintza eta Aeronautika eraikuntza izan ezik, eta 8. Tresna eta hornigai medikoen eta odontologikoen fabrikazioa. Maila teknologiko ertain-handiak honako hauek barne hartzen ditu: 9. Euskarri grabatuen erreprodukzioa, 10. Kokea lortzeko eta petrolioa fintzeko fabrikak, 11. Kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa, Metalezkoak ez diren bestelako produktu mineralen fabrikazioa. Metalurgia, 12. Metalezko produktuen fabrikazioa, Makineria eta Armak eta munizioak izan ezik, 13. Ontzigintza, eta 14. Makineriaren eta ekipoen

konponketa eta instalazioa. Maila txikiak honako hauek biltzen ditu: 15. Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria, Ehungintza eta jantzigintza. Larrugintza eta zapatagintza. Zuraren, paperaren eta kortxoaren industria, 16. Arte grafikoak, 17. Altzarigintza, 18. Bestelako manufaktura industriak; eta 19. Sailkatu gabeak.

EUSTATen datuen arabera, 2010eko eta 2011ko datuak erkatuta, faktoreen kostuaren BEGd-an eduki ertain-handia duten sektoreen garrantzia handitu, eta eduki txikia eta ertain-txikia dituztenena txikitu da. Enpleguaren aldetik, talde bakoitzaren garrantziaren egonkortasuna antzeman da, aurreko urteko datuen aldean; eta salmentei dagokienez, berriro ere handitu da eduki ertain-txikia duten sektoreen garrantzia, eduki handia eta ertain-handia dituzten sektoreen garrantzia antzekoa izan dela.

Berriro nabarmendu da maila teknologikorik handiena duten sektoreek izan dutela BEGd-aren hazkunderik handiena eta enplegu murrizketarik txikiena, eta maila teknologiko txikiko sektoreek, aldiz, kontrako bilakaera izan dutela.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da hainbat egile ELGAk erabilitako intentsitate teknologikoaren araberako sektorekako sailkapena bera zehazten hasi direla. Izan ere, produkzio jarduerek aurrerantz egiten dute, eta ez dira zenbait teknologiatan harrapatuta geratzen. Zientziak eta teknologiak produkzio sare osoan eta industria tradizionaleko sektoreetan zehar hedatzen dira. Adibidez, ibilgailuek eta makineriak gero eta neurri handiagoan patentatzen dute elektronikaren sektorean; eta, oro har, teknologia txikikotzat sailkatutako sektoreak haien erabiltzaile nagusi bihurtzen dira, zientzian oinarritutako sektore bihurtuta.

2.1.4. Eraikuntza


Kontu Ekonomikoen eta HKEen datuen arabera (datuak 2013ko otsailean argitaratu dira), eraikuntza sektorea prezio arruntetan 2005ean BPGd-aren % 8,7 izatetik 2012an % 7,1 (4.697 mila euro) izatera igaro da; lanaldi osoaren pareko lanpostuak (LOPL) 67.038 izanda, LOPLn enplegu osoaren % 7,5 da; 2005ean, aldiz, % 10 zen.

I.2.16. KOADROA. ERAIKUNTZA SEKTOREAREN BILAKAERA

	Eraikuntzaren koiuntura indizea Urteko batez besteko hazkundea				Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak.(Datu zuzenduak) Urte arteko aldakuntza-tasak			
	Guztira	Eraikuntza	Obra zibila	Enplegua	Kateatutako bolumenaren BPGd-a	Lanpostuak	Produktibitatea	Deflatorea
	Produkzio indizea. Datu zuzenduak							
2009	-12,5	-15,7	-6,4	-7,9	-7,4	-7,9	0,5	-3,0
2010	-16,9	-13,6	-22,4	-8,4	-7,9	-7	-1,0	1,8
2011	-10,1	-10,8	-8,7	-8,1	-5,9	-8,5	2,8	0,5
2012	-20,2	-18,5	-23,3	-14,7	-6,3	-11,8	6,3	1,4

Iturria: EUSTAT

I.2.2. GRAFIKOA. ADIERAZLE NAGUSIEN ERAIKUNTZAKO BILAKAERA. DATU ZUZENDUAK



Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak.

HKEen arabera, 2012an eraikuntza sektorea % 6,3 jaitsi da BEGd-aren datu errealetan (% -5,9 aurreko aldian). Eraikuntzaren urte arteko hiruhilekoko bilakaerak lau hiruhilekotan % 6 inguruan egon den jaitsiera agertu du.

Eraikuntzaren BEGd-aren urteko batez besteko beherakada EAEn Estatuan egondakoa baino txikiagoa da: Estatuan % 8,1 murriztu da, EINren arabera.

Enpleguari dagokionez, EUSTATen Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoek urteko batez besteko % -11,8ko aldakuntza agertu dute; aurreko urtekoa, aldiz, % -8,5ekoa izan zen. Sektorearen produktibitatea % 6,3 handitu da.

*Eraikuntzaren Koiuntura Indizea*ri dagokionez, urteko batez besteko aldakuntza 2012. urtean % -20,2n kokatzen da. Obra zibilean izandako beherakada (% -23,3) eraikuntzan izandakoa (% -18,5) baino handiagoa izan da. Enpleguak erregistratu duen urteko batez besteko aldakuntza % -14,7koa izan da.

EUROSTATen datuen arabera, 2012ko abenduko datuak 2011ko abendukoekin alderatuz gero (egutegi-efektua zuzenduta), eraikuntza ekoizpenaren indizea % 4,8 jaitsi da Euroaren Eremuan eta % 8,5 27ko EBn. Eraikuntzaren jaitsiera % 6,2koa eta % 8,3koa izan da Euroaren Eremuan eta 27ko EBn, hurrenez hurren; obra zibilaren beherakada, berriz, % 2,9koa eta % 11,2koa izan da Euroaren Eremuan eta 27ko EBn, hurrenez hurren.

Bestalde, EUSTATen datuen arabera, EAEn antzeman da BPGd-aren deflatorea urte osoan jaitsi dela lehenengo hiruhilekoko % 1,9tik laugarren hiruhilekoko % 1era. Urteko batezbestekoa % 1,4 da.

I.2.17. KOADROA. ZERBITZUEN SEKTOREAREN BILAKAERA (urte arteko aldakuntza-tasak)

		Zerbitzuen BEGd-a. Bolumen indizea				Lanean ari diren langileak	Deflatorea
		Guztira	Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa	Ad. publikoa, Hezk., Osasuna eta Giz. Zerbitzuak	Gainerako zerbitzuak		
2008	1. hir.	2,8	2,8	5,9	3,6	2,8	3,7
	2. hir.	3,0	1,7	6,3	3,2	3,0	3,3
	3. hir.	1,2	1,3	6,6	3,5	1,2	3,3
	4. hir.	1,0	-1,1	5,9	3,2	1,0	2,9
2009	1. hir.	-0,8	-3,1	5,5	0,9	-0,8	2,7
	2. hir.	-1,7	-3,4	4,5	-0,5	-1,7	2,8
	3. hir.	-0,7	-3,1	2,7	-0,2	-0,7	2,2
	4. hir.	-0,8	-1,7	1,1	-0,2	-0,8	1,5
2010	1. hir.	-0,5	0,6	2,8	-0,3	-0,5	0,2
	2. hir.	0,0	0,9	3,3	0,1	0,0	0,4
	3. hir.	0,6	0,2	4,3	-1,2	0,6	0,7
	4. hir.	0,5	0,0	4,8	-1,8	0,5	0,6
2011	1. hir.	1,2	-0,4	3,7	-0,8	1,2	0,9
	2. hir.	0,9	0,2	3,8	-0,3	0,9	1,4
	3. hir.	0,5	-0,1	5,6	-0,6	0,5	1,6
	4. hir.	-0,1	0,4	2,5	0,1	-0,1	2,8
2012	1. hir.	-0,2	0,0	2,5	-0,4	-0,2	1,8
	2. hir.	-0,6	-1,0	1,1	0,0	-0,6	1,4
	3. hir.	-1,0	-1,3	-1,5	0,4	-1,0	1,5
	4. hir.	-1,4	-2,0	-1,9	0,3	-1,4	0,3

Datu zuzenduak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Iturria: EUSTAT

2.1.5. Zerbitzuak[3]

Kontu Ekonomikoen eta HKEn datuen arabera (datuak 2013ko otsailean argitaratu dira), zerbitzuen sektorea prezio arruntetan 2005ean BPGd-aren % 53,8 izatetik 2012an % 61,6 (40.767 mila euro) izatera igaro da; lanpostuak 623.542 izanda, LOPLn enplegu osoaren % 69,3 da; 2005ean, aldiz, % 62,4 zen.

EAEko zerbitzuen sektoreko balio erantsi erreala % 0,3 jaitsi da 2012. urtean (aurreko urtean % +0,8ko hazkundea egon zen). *Merkataritza, Ostalaritza* eta

3 Halaber, "IV. Gizarte babesa EAEn" izeneko kapituluak gure Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko atala du.

I.2.18. KOADROA. ZERBITZUEN SEKTOREAREN EGITURA ETA BILAKAERA EAE-N

	ZERBITZUEN SEKTOREAREN EGITURA										Urteko aldakuntzaren %		
	BPGd arrunta					Enplegua					BPG d-a*	Prezioak	Enplegua
	2007	2008	2009	2010	2011	2006	2007	2008	2009	2010	2008-2011		2008-10
19. Merkataritza; Ibilgailuen konponketa	15,9	15,6	15,0	15,0	14,9	22,6	22,1	21,7	20,9	20,7	-1,5	2,0	-2,8
20. Garraioa eta biltegiratzea	8,0	7,8	7,7	7,4	7,3	7,1	7,3	7,3	6,9	6,6	-2,6	2,3	-4,9
21. Ostalaritza	6,0	5,8	5,9	6,3	6,6	7,8	7,7	7,7	7,8	7,6	3,1	3,0	-0,9
22. Edizioa, irudia, irratia eta telebista	1,1	1,0	0,9	1,0	0,9	1,2	1,1	1,1	1,1	1,0	-4,3	1,7	-3,6
23. Telekomunikazioak	2,9	2,8	2,8	2,8	2,8	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,9	0,7	-0,7
24. Informatika	1,6	1,6	1,6	1,6	1,6	2,1	2,2	2,2	2,2	2,1	1,0	1,3	-2,6
25. Finantza eta aseguru jarduerak	10,7	10,6	10,2	9,5	9,0	3,5	3,4	3,3	3,4	3,3	-6,0	2,6	-0,5
26. Higiezinen jarduerak	14,1	14,3	15,0	15,0	15,6	1,2	1,3	1,2	1,1	1,1	2,4	2,3	-6,5
27. Aholkularitzak eta jarduera teknikoak	6,0	6,2	6,0	6,1	6,3	6,3	6,3	6,3	6,3	6,5	0,0	2,5	1,4
28. Ikerketa eta garapena	1,0	1,0	1,0	1,1	1,1	0,8	0,8	0,9	0,9	1,0	2,5	2,4	6,7
29. Bestelako jarduera profesionalak	1,2	1,2	1,2	1,1	1,1	1,8	1,8	1,7	1,8	1,7	-3,8	2,0	-0,9
30. Zerbitzu lagungarriak	4,1	4,2	4,0	4,1	4,1	8,5	8,6	8,5	8,5	8,5	-0,7	2,0	-0,1
31. Administrazio publikoa eta defentsa	7,6	7,8	7,6	7,6	7,5	8,8	8,7	8,7	8,9	8,9	2,0	-1,3	1,0
32. Hezkuntza	6,8	6,8	7,2	7,4	7,3	8,8	9,0	9,2	9,7	9,9	4,5	-0,1	3,1
33. Osasun jarduerak	7,4	7,6	8,0	8,1	8,0	6,1	6,4	6,6	7,0	7,0	4,6	-0,9	2,3
34. Gizarte zerbitzuetako jarduerak	1,4	1,4	1,5	1,5	1,5	3,6	3,7	3,7	3,7	3,8	4,0	-0,4	0,4
35. Jolas eta kultur jarduerak	1,6	1,6	1,7	1,8	1,8	1,9	1,9	1,9	1,9	2,0	3,7	2,7	1,6
36. Bestelako zerbitzuak	1,4	1,3	1,4	1,4	1,4	3,5	3,4	3,4	3,4	3,4	1,6	1,5	-0,8
37. Etxeetako jarduerak	1,3	1,2	1,3	1,3	1,3	4,0	3,9	4,0	4,1	4,2	1,9	1,2	2,9
38. Lurraldetik kanpoko erakundeak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	-	-	-
Zerbitzuak, guztira (BPGd milaka eurotan eta lanaldi osoko enplegua)	**35.684.180**	**38.096.896**	**38.961.160**	**39.411.902**	**40.377.914**	**598.840**	**617.736**	**629.926**	**623.635**	**624.660**	**0,5**	**1,5**	**-0,4**

** BPGd erreala (kateatutako bolumenean). Iturria: EUSTATen Kontu Ekonomikoak*

Garraioa % 1,1 murriztu dira, *Administrazio Publikoak, Hezkuntzak, Osasunak* eta *Gizarte Zerbitzuek* hazkunde nulua izan dute, eta *Gainerako Zerbitzuak* % 0,1 handitu dira.

EAEn sektore osoaren BEGd-aren beherakada erreala (EUSTATen arabera, % -0,3) txikiagoa da estatukoa baino (EINren behin-behineko datuen arabera, % 0,4 murriztu da estatuan).

EUSTATen datuen arabera, gure Erkidegoan zerbitzuen sektoreko enplegua % 0,8 murriztu da; aurreko urtean, berriz, % 0,6 handitu zen. Produktibitatea % 0,5 handitu da. Deflatoreak, aldiz, beheranzko joera izan du: lehenengo hiruhilekoan % 1,8koa zen, eta laugarrenean, aldiz, % 0,3koa. Urteko batezbestekoa % 1,2koa izan da.

Zerbitzuen sektorearen barnean, Merkataritza eta konponketa adarrak nabarmentzen jarraitu du, bai BPGd-aren aldetik bai enpleguaren aldetik: 2011n zerbitzuen sektorearen BPGd-aren (erabilgarri dagoen azken datua) % 14,9 eta enpleguaren % 20,7 (2010eko datua). Halaber, BPGd-aren aldetik honako hauek ere nabarmenak izan dira: Higiezinen jarduerak (zerbitzuen sektorearen BPGd-aren % 15,6), Finantza eta aseguru jarduerak (% 9), Osasun jarduerak (% 8), Administrazio publikoa eta defentsa (% 7,5), Hezkuntza (% 7,3) eta Garraioa eta biltegiratzea (% 7,3 ere bai). Enpleguaren aldetik honakoak izan dira nabarmenenak: Hezkuntza (zerbitzuen sektore osoaren enpleguaren % 9,9), Administrazio publikoa eta defentsa (% 8,9), Zerbitzu lagungarriak (% 8,5), Ostalaritza (% 7,6) eta Osasun jarduerak (% 7).

2008 eta 2011 bitartean, BPGd-aren urteko batez besteko aldakuntza-tasa % +0,5ekoa izan da. BPGd-aren hazkunde handienak honako adar hauetan egon dira: Osasun jarduerak (urteko batez besteko tasa: % 4,6), Hezkuntza (urteko batez besteko tasa: % 4,5) Gizarte zerbitzuetako jarduerak (urteko batez besteko tasa: % 4) eta Jolas eta kultur jarduerak (urteko batez besteko tasa: % 3,7).

Enpleguari dagokionez, 2008 eta 2010 bitartean urteko batez besteko % 0,4ko tasan murriztu da. Hala ere, gehikuntza handiak egon dira honako adar hauetan: Ikerketa eta garapena (% 6,7), Hezkuntza (% 3,1), Etxeetako jarduerak (% 2,9), Osasun jarduerak (% 2,3) eta Jolas eta kultur jarduerak (% 1,6).

Zerbitzuen sektorean prezioek izandako urteko batez besteko hazkundea 2008 eta 2011 bitartean % 1,5ekoa da.

I.2.19. KOADROA. HANDIZKAKO ETA TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN SALMENTA INDIZEAREN BILAKAERA SEKTOREKA*

	Handizkako merkataritza				Txikizkako merkataritza							
	Nekazaritzako eta elikadurako prod.	Elikadurako ez den kontsumoko beste artikulu batzuk	Prod. erdilanduak; txatarra	Makineria eta ekipoa	Espezializatua	Elikadura	Pertsonaren ekipamendua	Etxeko ekipamendua	Kontsumoko beste ondasun batzuk	Espezializatu gabea	Elikadurarен nagusitasuna	Gainerako produktuen nagusitasuna
2007	2	5,9	0,5	13,2	1,8	-3,7	5,1	-0,4	2,6	1,7	1,4	3,3
2008	-0,9	-0,9	-9,6	-4,3	-3,1	-4,7	3,7	-6,9	-5,9	-2,1	-1,2	-7
2009	-3,2	-3	-18,3	-18,7	-3,5	-8,6	-1,6	-2,2	-4,1	-4,2	-4,3	-3,4
2010	-1,9	1,6	14,6	-1,8	-0,2	0,8	0,5	1,1	-2	-1,2	-1	-2,3
2011	0,8	-2,8	-4,4	0,8	-4,4	-4,7	-2,9	-5,5	-5,1	-2,9	-1,9	-9,0

(*) Urteko batez besteko hazkundea prezio iraunkorretan
Iturria: EUSTATen Barne Merkataritzaren Indizea

I.2.20. BARNE MERKATARITZAREN SALMENTA INDIZEAREN ETA MERKATARITZAN LANEAN ARI DIREN PERTSONEN INDIZEAREN BILAKAERA*

	SALMENTA INDIZEA						LANEAN ARI DIREN PERTSONEN INDIZEA		
	Indize orokorra	Handizkakoa	Txikizkakoa	Txikizkakoa, gasolina zerbitzugunerik gabe	Prezioak	Etxeen azken kontsumoa	Guztira	Handizkakoa	Txikizkakoa
2007	3,1	3,8	1,8	1,8	3,5	3,6	2,5	2,3	2,5
2008	-4,3	-5,2	-2,8	-2,2	4,1	0,6	0,9	0,5	1,1
2009	-9,1	-12,1	-3,7	-3,4	-5,6	-3,9	-3,5	-4	-3,2
2010	2,8	5	-0,5	-0,2	2,8	0,9	-0,5	-1,5	0,2
2011	-2,7	-2,0	-4,0	-3,5	4,5	0,6	-1,5	-1,1	-1,7

(*) Urteko batez besteko hazkundeak prezio iraunkorretan
Iturria: EUSTATen Barne Merkataritzaren Indizea *eta* Kontu Ekonomikoak

Merkataritza

Ibilgailuen merkataritza eta konponketen sektoreak, EUSTATen Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, EAEko BPGd-aren balioaren % 9,1 inguru hartzen du (6.036 milioi euro; 2011ko datua) eta enpleguaren % 13,9 inguru (129.368 lanpostu, guztira; 2010eko datua).

Barne merkataritzaren salmenten indizearen arabera, merkataritzaren salmentak gutxitu dira. Izan ere, 2011n (erabilgarri dauden azken datuak) % 2,7 murriztu da prezio iraunkorretan. Handizkako merkataritzako salmentak % 2 jaitsi dira termino errealetan (prezio iraunkorretan), eta txikizkako merkataritzakoak, aldiz, % 4 murriztu dira (% -3,5 zerbitzuguneak kontuan hartu gabe[4]).

Indize horren okupazio datuek erakusten dute sektorean enplegua % 1,5 murriztu dela 2011n; aurreko denboraldian, berriz, beherakada % -0,5ekoa izan zen. Handizkako eta txikizkako merkataritza bereiziz gero, lehenengoaren enplegua % 1,1 murriztu da eta bigarrenarena % 1,7.

Txikizkako merkataritza espezializatuaren eta espezializatu gabearen artean bereizketa eginez gero, ikusten dugu lehenengo kasuan gehiago murriztu direla salmentak bigarrenean baino. Merkataritza espezializatuaren salmentak % 4,4 beheratu dira eta espezializatu gabeko merkataritzaren salmentak, aldiz, % 2,9.

Handizkako merkataritzari dagokionez, 2010 eta 2011 bitartean Makineria eta ekipoaren hobekuntzak nabarmendu behar dira; izan ere, sektorea % -1,8ko aldakuntza tasatik % +0,8ra igaro da. Nekazaritzako produktuetan eta elikagaietan ere hobekuntza egon da % -1,9tik % +0,8ra igarotzean.

Ostalaritza

EUSTATen Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, Ostalaritza sektoreak EAEko BPGd-aren balioaren % 4 inguru hartzen du (2.666,2 milioi euro; 2011ko datua) eta enpleguaren % 5,1 inguru (lanaldi osoaren pareko 47.656 lanpostu; 2010eko datua).

EUSTATen Kontu Satelitearen 2010eko azken datuen arabera, turismoak 3.663 milioi euro hartu zituen. Horrek 5,6ko ekarpena dakar EAEko BPGd-rako.

Estatuan turismoa urte bereko BPGd-aren % 10,2koa izan da, EINren datuen arabera. EAEko gastu turistikoaren % 47,1 EAEren kanpotik (Estatuko gainerako autonomia erkidegoak eta atzerria) datozen bisitariek sortzen dute; gainerako % 52,9 Erkidegoan bizi diren turistek eta txangozaleek egindakoaren eta turismo igorlearen jatorriko gastuaren (hau da, turismoa dela-eta egoiliarrek EAEtik kanpo doazenean EAEn bertan sortzen dituzten gastuak: bidaia-agentziak eta garraioa) artean banatzen da.

4 Europako sailkapen berrira (NACE 2. ber) eta nazioan dagoen horren bertsiora egokitzean (EJSN 09) Barne Merkataritzaren Indizean aldaketak egin dira. Aldaketarik garrantzitsuena da ibilgailuen establezimendu espezializatuetan egindako industriarako erregaien txikizkako merkataritzaren jarduera (gasolina zerbitzuguneak) Txikizkako Merkataritzaren azpisektorean sartu izana.

I.2.21. KOADROA. TURISMOAK EUSKAL EKONOMIARI EGINDAKO EKARPENA(Balio absolutua eta BPGd-aren gaineko portzentajea. Prezio arruntak)

	2005	2006	2007	2008	2009	2010 (a)
Gastu turistikoa, guztira (milioika €-tan)	3.133	3.408	3.604	3.705	3.591	3.663
Turismo hartzailea	1.484	1.622	1.688	1.679	1.662	1.726
Turismoaren bestelako osagaiak	1.649	1.786	1.916	2.026	1.929	1.937
Gastu turistikoa, guztira (%)	100	100	100	100	100	100
Turismo hartzailea	47,4	47,6	46,8	45,3	46,3	47,1
Turismoaren bestelako osagaiak	53,6	52,4	53,2	54,7	53,7	52,9
BPGd-aren gaineko %						
Gastu turistikoa, guztira	5,5	5,5	5,4	5,5	5,6	5,6
Turismo hartzailea	2,6	2,6	2,5	2,5	2,6	2,6
Turismoaren bestelako osagaiak	2,9	2,9	2,9	3,0	3,0	3,0

(a): aurrerapena
Iturria: EUSTATen Turismoaren Kontu Satelitea. 2005eko oinarria.

I.2.22. KOADROA. BIDAIARI KOPURUAREN, BERTAN IGAROTAKO GAUEN ETA EGUNETAKO BATEZ BESTEKO EGONALDIAREN BILAKAERA EAE-N

	2009			2010			2011			2012		
	Bidaiariak	Gauak	Batez besteko egonaldia	B	G	BBE	B	G	BBE	B	G	BBE
Guztira, EAE gabe	1.638.466	3.170.583	1,94	1.866.571	3.608.925	1,93	1.955.327	3.793.633	1,94	1.965.912	3.834.248	1,95
Estatua, EAE gabe	1.035.125	1.995.124	1,93	1.150.543	2.262.749	1,97	1.192.275	2.332.858	1,96	1.156.890	2.280.397	1,97
Atzerritarrak	603.341	1.175.459	1,95	716.028	1.346.176	1,88	763.052	1.460.775	1,91	809.022	1.553.851	1,92
EAEko berezkoak	353.324	572.626	1,62	372.128	605.135	1,63	386.393	641.771	1,66	359.249	599.545	1,67

Iturria: EUSTATen **Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta**

I.2.23. KOADROA. BERTAN IGAROTAKO GAUAK, BATEZ BESTEKO EGONALDIA ETA OKUPAZIO MAILA

	Guztira okupatutako plazak (igarotako gauak)	Egunetako batez besteko egonaldia (Estatua)	Egunetako batez besteko egonaldia (atzerria)	Egunetako batez besteko egonaldia (orokorra)	Okupazio maila plaza bakoitzeko	Okupazio maila gela bakoitzeko
2008	3.792.091	1,85	1,93	1,88	44,57	54,31
2009	3.743.209	1,85	1,95	1,88	41,66	50,44
2010	4.214.060	1,88	1,88	1,88	43,97	52,19
2011	4.435.404	1,88	1,91	1,89	46,40	54,49
2012	4.433.793	1,90	1,92	1,91	46,35	54,57

Iturria: EUSTAT

I.2.24. KOADROA. ESTABLEZIMENDUEN, PLAZEN ETA ESKAINITAKO GELEN KOPURUA

	2008	2009	2010	2011	2012	Aldakuntza (%)
Direktorioan dauden establezimenduen kop.	425	437	452	446	455	2,0
Establ. irekietako plazen kop., inkestaren arabera	8.509.857	8.985.474	9.584.009	9.559.303	9.565.972	0,1
Establezimenduetako gelen kop., inkestaren arabera	4.556.863	4.745.669	5.075.650	5.062.860	5.025.259	-0,7

Iturria: EUSTAT

Hala eta guztiz ere, turismo hartzailearen aldean turismo igorleak EAEn duen garrantziak 3.012 milioi euroko defizita eragin du 2010ean (BPGd-aren % 4,6). Hala ere, 2008tik eta batez ere 2010ean, gastu turistiko hartzailearen gehikuntza (% 3,9) turismo igorlearena (% 1,9) baino handiagoa izan da.

EUSTATen Establezimendu turistiko hartzaileen inkestako datuek EAEn kokatzen diren hotel erako establezimenduetan (hotelak, aparthotelak, landa eremuko hotelak eta pentsioak) eta nekazaritza turismoko establezimenduetan (nekazaritza turismoko ostatuak eta landetxeak) ostatu hartu duten bidaiariak biltzen dituzte, eta EAEko hotel erako establezimenduetan bidaiari kopurua handitu egin dela erakusten dute (2011 eta 2012 bitartean % 0,5, aurreko aldiko % 4,8ren azpitik egonda). Gauzak horrela, EAEko hotel erako establezimenduetan ostatu hartu duten bidaiariak 1.966 mila izan dira (EAEko berezko bidaiariak kontuan hartu gabe). Gehikuntza atzerritarren turismoaren gehikuntzak (% +6) eragin du, Estatukoa zein EAEren barnekoa murriztu baitira (lehenengoa % -3 eta bigarrena % -7).

Bertan igarotako gauen multzoa (EAEko berezkoak kanpo utzita) % 1,1 gehitu zen (aurreko aldian % 5,1eko gehikuntza egon zen). Beraz, batez besteko egonaldia 1,95 egunean kokatzen da. Estatuko bisitarien kasuan 1,97 da kopuru hori eta Estatutik kanpokoen kasuan 1,92.

EAEko berezko bidaiariak eta gauak zenbatuta, 2012an batez besteko egonaldia 1,9 egunekoa izan da. Okupazio maila honela definitzen da hilabete baterako: hil zehatz batean igarotako gauak / (hoteleko plazak/logelak —bidezkoa denaren arabera— x hilak dituen egunak). Okupazio maila horren urteko batezbestekoa 46,4koa da plazako (2011ko ratioa bezalakoa); logelako, berriz, neurri txikian gehitu da 54,5etik 54,6ra. Establezimenduen kopurua gehitu egin da 446tik 455era. Irekitako establezimenduetako plaza kopurua, inkestaren arabera, 9.559.303tik 9.565.972ra igaro da (% +0,1). Logela kopurua, berriz, 5.062.860tik 5.025.259ra jaitsi da (% -0,7).


Garraioa eta biltegiratzea

Egoera estrategikoagatik nahiz industria jarduera handiagatik, EAE mota guztietako trafikoen maila handienetakoa ageri duen Europako zona bat da. Errepide sare trinkoa, trenbideak, bi itsas portu handi eta hiru aireportu dira barruko trafikoan nahiz kanpokoan ageri diren beharrak estaltzen saiatzen direnak, egunetik egunera osatuagoak eta kalitate handiagokoak diren zerbitzu batzuk eskainita.

Garraio eta biltegiratzearen sektoreak, EUSTATen Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, EAEko BPGd-aren balioaren % 4,4 inguru hartzen du (2.942,2 milioi euro, 2011ko datua) eta enpleguaren % 4,5 inguru (lanaldi osoaren pareko 41.456 lanpostu, guztira; 2010eko datua).

Gure Erkidegoko ***errepide sarea*** Europako sare trinkoenetako bat da, azalerako dentsitate handienetakoa baitu (0,58 km errepide km^2 azalerako, Estatuak duenaren —0,33— bikoitza, nahiz eta biztanleko dentsitate txikiagoarekin). Sarearen % 14,7 baino gehiago edukiera handiko bideek osatzen dute eta Estatuan mota horretako bideak % 9,8 dira (2011ko datuak); edukiera handiko bide horietatik % 43,5 bidesaria duten autobideak dira, eta Estatuan, aldiz, % 18,8 dira bidesaridunak.

1.2.3. GRAFIKOA. BIDAIARIEN EAE-RAKO BIDAIEN BILAKAERA. HOTEL ERAKO ESTABLEZIMENDUAK.



Iturria: EUSTAT

Salgaien garraioari dagokionez, eskualde arteko trafikoa kontuan hartuta, trukeen bolumen handiena alboko autonomia erkidegoekin egiten da: Nafarroako Foru Komunitatea, Gaztela eta Leon, Kantabria eta Katalunia.

I.2.25. KOADROA. ERREPIDE SAREA (Km), MOTA ETA LURRALDEAREN ARABERA

	EAE					ESTATUA	
	2007	2008	2009	2010	2011	2010	2011
Km errepide*	4.229	4.203	4.209	4.198	4.212	165.787	165.907
Biztanleak (udal errolda, EIN)	2.157.112	2.172.175	2.178.339	2.184.606	2.193.093	47.190.493	47.265.321
Ibilgailu parkea	1.252.519	1.275.782	1.286.541	1.299.807	1.309.534	31.086.035	31.269.081
Sare osoa (km) / azalera	0,59	0,58	0,58	0,58	0,58	0,33	0,33
Sare osoa (km) / 1.000 biztanle	1,96	1,93	1,93	1,92	1,92	3,51	3,51
Ibilgailu parkea / sare osoa	296,2	303,5	305,7	309,6	310,9	187,5	188,5
Ibilgailu parkea / biztanle	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	0,7	0,7

Iturria: 2012an argitaratutako Sustapen Ministerioaren 2011ko urtekaria eta EIN

I.2.26. KOADROA. ERREPIDE SAREA BIDE-MOTAREN ETA ALDIAREN ARABERA. (Km)

	2007	2008	2009	2010	2011
ESTATUA					
Errepideen km, guztira	166.011	165.011	165.463	165.787	165.907
Edukiera handiko bideak, guztira	14.689	15.105	15.621	15.965	16.204
Bidesaria duten autobideak	2.972	2.997	3.016	2.991	3.045
Autobiak	10.041	10.521	11.005	11.275	11.509
Galtzada bikoitzeko errepideak	1.676	1.587	1.599	1.703	1.651
EAE					
Errepideen km, guztira	4.229	4.203	4.209	4.198	4.212
Edukiera handiko bideak, guztira	573	588	607	598	621
Bidesaria duten autobideak	228	240	256	254	270
Autobiak	261	270	273	281	282
Galtzada bikoitzeko errepideak	84	78	78	63	69

Iturria: 2012an argitaratutako Sustapen Ministerioaren 2011ko urtekaria

I.2.27. KOADROA. TRENBIDEKO KM, EAE-N

	ELEKTRIFIKATU GABE						ELEKTRIFIKATUTA					
	2009		2010		2011		2009		2010		2011	
	Guztira	Bide bakarra	Guztira	Bide bakarra	Guztira	Bide bakarra	Guztira	Bide bakarra	Guztira	Bide bakarra	Guztira	Bide bakarra
GUZTIRA	47,44	47,44	47,98	47,98	47,98	47,98	592,71	251,99	592,89	252,00	597,54	248,07
ADIF (trenbide zabala)	0	0	0	0	0	0	304,5	86,80	304,5	86,80	305,0	87,0
FEVE	41,75	41,75	42,30	42,30	42,30	42,30	45,91	20,71	45,91	20,71	46,12	20,71
EUSKOTREN	5,68	5,68	5,68	5,68	5,68	5,68	242,29	144,49	242,29	144,49	246,42	140,36

Iturria: 2012an argitaratutako Sustapen Ministerioaren 2011ko urtekaria eta EIN

I.2.28. KOADROA. ERREPIDE BIDEZKO SALGAIEN HELMUGA ETA JATORRIA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA (milaka tonatan)				
	2010		2011	
	Helmuga: EAE	Jatorria: EAE	Helmuga: EAE	Jatorria: EAE
GUZTIRA	**82.692**	**79.944**	**73.966**	**74.992**
Andaluzia	488	777	512	594
Aragoi	1.868	2.019	1.809	1.674
Asturias	1.088	820	1.071	720
Balear Uharteak	-	-	-	-
Kanariar Uharteak	-	-	-	-
Kantabria	2.906	2.529	3.214	2.307
Gaztela eta Leon	4.846	4.139	4.534	5.844
Gaztela-Mantxa	718	625	602	539
Katalunia	2.519	2.221	2.016	1.639
Valentziako Erkidegoa	1.083	947	851	761
Extremadura	157	185	180	91
Galizia	1.584	1.291	980	808
Madril	1.751	1.576	1.750	1.948
Murtzia	271	250	255	386
Nafarroa	4.187	3.326	3.062	3.784
Errioxa	1.926	1.924	1.188	1.956
Ceuta-Melilla	-	-	-	-
EAE	**57.302**	**57.302**	**51.928**	**51.928**

Iturria: EUSTAT

Trenbideko garraioari dagokionez, trenbide-sareak jatorritik eduki dituen sorrera-arazo ugariak (bide-zabalera ezberdinak, estatu mailan trenaren bitarteko garraioa modu erradialean egitea, lotura falta eta abar) larritu egiten dira gure Erkidegoan orografia zaila delako eta egituratze horretan nagusi ez zelako lurralde barruko antolamendua, eta, ondorioz, salgaien zirkulazioa eta Europarekin lotzea nabarmenki zailak dira. Arrazoi horiek direla eta, EAEn trena ez da lehiakorra beste garraiobide batzuen aldean, batez ere hiriburuen arteko loturetan. Aitzitik, trenbidea XXI. mendeko garraio publikoaren sistematzat hartzen da, ustiapen kostu txikiak dituelako eta ingurumenari beste garraiobide batzuek baino kalte txikiagoa ekartzen diolako.

Sustapen Ministerioaren datuen arabera, 2011. urtean EAEko trenbide-sarea elektrifikatutako 597,54 kilometrok osatzen zuten. Horietatik % 51 ADIFena da; enpresa horrek kudeatzen ditu Bizkaiko eta Gipuzkoako aldirietako zerbitzuak, baita penintsulara doazen ibilbide ertain eta luzeko zerbitzuei loturiko azpiegitura ere. Beste % 41,2 Eusko Trenena da (Bilbo-Donostia-Hendaia linea, adibidez), eta gainerako % 7,8 FEVEren bide estuko trenbideei dagokie; enpresa horrek kudeatzen ditu Bilbo-Santander, Bilbo-Leon eta Bilbo Handiko eremuko eskualde arteko loturak.

Ibilbide luzeko lineei eta haiek nazioartearekin dituzten loturei dagokienez, azpimarratzekoak dira Irunen eta Frantziako TGVren arteko lotunea eta euskal Y-aren proiektua. Azken hori abiadura handiko tren bati lotutako trenbide trazatu berria da EAErentzat; Erkidegoko hiru hiriburuak 30 minutu inguruan lotzea agintzen du, eta Madril eta Bordelerekin 2 ordu baino pixka bat gehiagoan.

Adierazgarria da EAEn geltoki intermodal bakarra edukitzea: Jundizekoa (Araba), RENFEren mende dagoena. Hura lehiatu egiten da trafiko europarrarengatik Baiona-Mugerreko pleiteko Zentro europarrarekin, Baionatik gertu dagoen zonan. Azken horrek 20 Ha-ko gehi erreserbako 50 Ha-ko lurraldea du, baita trenbideekiko lotuneak eta autobiderako sarrerak ere.

Bidaiarien trenbideko garraioari dagokionez, Metro Bilbaori eta Euskotreni buruzko datuak besterik ez dugu. Horietan antzeman da Metro Bilbaok garraiatutako bidaiarien kopurua berriro ere gehitu dela % 1,7 2009 eta 2010 bitartean, eta 88,6 milioikoa dela.

I.2.29. KOADROA. EUSKOTRENEN ETA METRO BILBAOREN BIDAIARIAK					
	2008	2009	2010	2011	2010-11
EuskoTren, guztira	**20.898.398**	**24.638.334**	**26.518.183**	**26.494.162**	**-0,1**
Bizkaia	9.698.594	9.263.776	9.047.821	8.766.677	-3,1
-- Deustu - Lezama	2.205.520	2.072.941	1.915.064	1.811.246	-5,4
-- Bilbo - Bermeo	2.099.169	2.003.722	1.949.492	1.775.738	-8,9
-- Bilbo - Ermua	2.365.443	2.209.681	2.158.413	2.019.590	-6,4
-- Larreinetako funikularra	181.749	177.980	175.244	161.260	-8,0
-- Bilboko tranbia	2.846.713	2.799.452	2.849.608	2.998.843	5,2
Gipuzkoa	11.088.624	10.685.276	10.492.521	10.301.839	-1,8
--Ermua - Amara	4059363	3.872.618	3.863.239	3.758.281	-2,7
--Lasarte Oria - Hendaia	6994603	6.775.308	6.592.487	6.511.908	-1,2
-- Azpeitia – Lasao lurrun trena	34.658	37.350	36.795	31.650	-14,0
Araba		4.689.282	6.977.841	7.425.646	6,4
-- Vitoria-Gasteizko tranbia*		4.689.282	6.977.841	7.425.646	6,4
Metro Bilbao	**86.333.743**	**87.043.712**	**88.566.281**	-	

** 2008ko abenduaren 23tik aurrera.*
Iturria: EUSTAT

I.2.30. KOADROA. AIRETIKO TRAFIKOAREN BILAKAERA KONTZEPTU, EREMU ETA AIREPORTUKA												
	EAE		Foronda		Loiu		Donostia		2009-2010eko aldakuntzak			
	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	EAE	Foronda	Loiu	Hondarr.
Aireontziak, guztira	58.796	58.454	6.210	5.058	46.102	46.825	6.484	6.571	-0,6	-18,6	1,6	1,3
Bidaiariak, guztira (milaka)	3.965	4.194	39	40	3.638	3.876	288	278	5,8	2,6	6,5	-3,5
Naziokoa	3.021	3.171	37	37	2.697	2.857	287	277	5,0	0,0	5,9	-3,5
Nazioartekoa	944	1.023	2	3	941	1.019	0,6	1	8,4	50,0	8,3	66,7
Salgaiak, guztira (Tm)	14.721	15.479	11.736	12.912	2.685	2.548	30	19	5,1	10,0	-5,1	-36,7
Naziokoa	4.132	3.889	2.005	1.761	2.100	2.110	27	18	-5,9	-12,2	0,5	-33,3
Nazioartekoa	10.318	11.589	9.730	11.151	585	437	3	1	12,3	14,6	-25,3	-66,7

Iturria: Sustapen Ministerioa

Euskotrenek garraiatutako bidaiari kopurua, aldiz, % 0,1 jaitsi zen 2010 eta 2011 artean, linea guztiek garraiatutako bidaiarien kopuruak behera egin baitu, Bilboko tranbiak eta Gasteizko tranbiak garraiatutako bidaiarien kasuan izan ezik (horietan bidaiari kopurua % 5,2 eta % 6,4 handitu da, hurrenez hurren).

Aireko garraioari dagokionez, EAEko hiru aireportuetatik 4.194 mila bidaiari igaro ziren 2010. urtean, eta hori % 5,8ko gorakada da aurreko urtearen aldean. Salgaien garraioari dagokionez, epealdi berean bolumena % 5,1 jaitsi da.

Loiuko aireportutik 3,9 milioi bidaiari igaro zen guztira 2010. urtean, eta hori % 6,5eko gorakada da aurreko urtearen aldean. Salgaien garraioari dagokionez, bolumena % 5,1 jaitsi da epealdi berean.

Forondako aireportuak % 10eko gorakada izan zuen 2009 eta 2010 bitartean, salgaien garraioari dagokionez. Bidaiari kopuruaren aldetik, trafikoaren bolumena handitu egin zen 39 mila bidaiaritik 40 mila bidaiarira. Horrek esan nahi du % 2,6ko hazkundea egon zela.

Donostiako aireportuan, 2009 eta 2010 bitartean, bidaiarien trafikoa % 3,5 jaitsi zen eta salgaiena, aldiz, % 36,7.

I.2.31. KOADROA. ONTZIAK, BIDAIARIAK ETA ITSASOKO GARRAIOAK MUGITUTAKO SALGAIAK, MOTAREN ARABERA SAILKATUTA

		2006	2007	2008	2009	2010	2011	%	2010-11ko aldakuntzaren %
Bilbo	**Salgaiak, guztira (milaka Tm-tan)**	**38.591**	**40.023**	**39.398**	**32.180**	**34.666**	**31.998**	**100,0**	**-7,7**
	Likido solteak	22.290	22.682	23.057	20.498	19.763	17.855	55,8	-9,7
	Solido solteak	4.989	5.832	5.267	3.828	4.452	4.006	12,5	-10,0
	Edukiontziak	5.629	5.920	6.139	4.757	5.696	6.081	19,0	6,7
	Ohiko salgaiak	4.300	3.997	3.518	2.522	3.750	3.789	11,8	0,9
	Bestelako trafikoa*	1.383	1.592	1.418	576	1.005	274	0,9	-72,7
	Ontziak, guztira (kopurua)	3.693	3.595	3.585	3.042	3.240	2.992		-7,7
	Bidaiariak, guztira (kopurua)	185.388	172.626	179.572	166.104	165.024	151.421		-8,2
Pasaia	**Salgaiak, guztira (milaka Tm-tan)**	**5.511**	**5.078**	**4.778**	**3.519**	**3.896**	**3.252**	**100**	**-16,5**
	Likido solteak	0	0	0	0	0	0	0	-
	Solido solteak	3.253	2.784	2.353	1.658	1.657	1.247	38,3	-24,7
	Edukiontziak	0,2	0,0	0,4	0,0	295	0,1	0,0	-100,0
	Ohiko salgaiak	2.202	2.240	2.372	1.810	2.181	1.949	59,9	-10,6
	Bestelako trafikoa*	57	54	53	51	58	56	1,7	-3,4
	Ontziak, guztira (kopurua)	1.547	1.453	1.320	943	1.086	963		-11,3
	Bidaiariak, guztira (kopurua)	0	0	0	0	0	0		-

** Hornidura eta arrantza*
Iturria: Sustapen Ministerioaren datu-basea

Itsasoko garraioan, Sustapen Ministerioaren datuen arabera, 2010 eta 2011 bitartean portuko trafikoa (salgaiak, hornidura eta arrantza) % 7,7 murriztu zen Bilboko Portuan, aurreko urteko % 7,7ko gorakadaren aurrean, eta 31.998 mila Tm-ra iritsi zen. Horietatik 21.861 mila soltean edo ontziratu gabeak ziren, eta horietatik % 81,7 (17.855 mila Tm) likidoak ziren. Bestela esateko, garraiatutako salgaien % 55,8 ontziratu gabeko likidoak ziren, batez ere petrolio-produktuak, baina azken urteetan beheranzko joera izan dute, bai balio absolutuetan bai osotasunaren gainean.

Ontzien kopurua jaitsi egin da 2011. urtean, eta 2.992ra murriztu dira. Bidaiarien kopurua ere jaitsi egin da, % 8,2 jaitsi ere: 151.421 izan dira urte osoan.

Pasaiako Portuko kopuruak askoz ere murritzagoak dira. Salgaien portuko trafikoa % 16,5 murriztu da aurreko urtean izandako % 10,7ko gorakadaren ondoren, eta 3.252 mila Tm-koa izan da; salgai arrunten trafikoa, solido solteen trafikoa eta horniketa zein arrantza trafikoa murriztu egin dira.

Nabarmena da salgai solido solteen trafikoak izan duen joera aldaketa, osotasunaren barruan pisua galdu baitu, salgai arrunten mesedetan.

Ontzien kopurua txikitu egin da 2010 eta 2011 bitartean, eta 963 daude.

Finantza sektorea

Euroaren Eremuko egun baterako eskuhartze-tasa % 1ekoa izan zen 2011ren amaieran, eta tasa horri eutsi zion 2012ko uztailera arte; izan ere, une horretan Europako Banku Zentralak % 0,75era jaitsi zuen, eta urtearen amaieran ratio berean zegoen.

Estatu Batuetako Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak, aldiz, beren esku-hartze tasak mantendu dituzte aurreko urtean itxi zuten modu berdinean: lehenengoak % 0,25ekin eta bigarrenak % 0,1ekin.

Moneta merkatuko interes-tasei dagokienez, horiek epe guztietan murriztu ziren. Horrela, hilabeterako Euribor indizea % 0,64n egon zen urteko lehenengo hiruhilekoan, eta laugarrenaren amaieran % 0,11n egon zen; hiru hilabeterako Euribor indizea, aldiz, % 1,04n egon zen lehenengo hiruhilekoan, eta laugarrenaren amaieran % 0,2n; eta urtebeterako Euribor indizea % 1,67n zegoen urtearen hasieran, eta amaieran % 0,6n zegoen.

I.2.32. KOADROA. GORDAILU ENTITATEEK SEKTORE PUBLIKOARI ETA PRIBATUARI EMANDAKO KREDITUA (abenduaren 31ko saldoak)

	Milioika eurotan					EAEko banaketa 2012	Estatua 2012	Estatuaren gaineko %	2011-12ko aldakuntzaren %
	2008	2009	2010	2011	2012				
Guztira	**87.420**	**83.863**	**86.884**	**85.956**	**79.338**	**100**	**1.798.156**	**4,4**	**-7,7**
Adm. publikoa	2.028	2.757	3.562	3.859	4.277	5,4	82.996	5,2	10,8
Sektore pribatua (BSE)	85.391	81.106	83.322	82.097	75.062	94,6	1.715.160	4,8	-8,6

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria

I.2.33. KOADROA. KREDITU ENTITATEEK ETXEBIZITZEI ETA EZIAGE-ei EMANDAKO INTERES-TASA*

	DMTE** (Definizio murriztuko tasa efektiboa) Haztatutako batez besteko tasa			UTB (urteko tasa baliokidea)		
	Etxebizitza kreditua	Kontsumo kreditua ***	Beste xede batzuk	Etxebizitza	Kontsumoa	Beste xede batzuk
2008	5,65	10,48	6,51	5,83	10,99	7,03
2009	2,53	9,28	4,48	2,62	9,72	4,95
2010	2,60	6,92	5,16	2,66	7,47	5,64
2011	3,58	8,57	5,94	3,66	9,11	6,29
2012	2,81	7,76	5,81	2,93	8,31	6,23

** Etxebizitzen zerbitzuan dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak ** DMTEk ez du komisiorik barne hartzen; UTBk, aldiz, bai. *** 2010eko maiatzera arte, hura barne; zutabe honetan sartzen da kreditu-txartelen bidez emandako kreditua*
Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria

I.2.34. KOADRAO. ETXEBIZITZA EROSTEKO HIPOTEKA-BERMEA DUTEN KREDITUAK ESTATUAN

	Milioika €-tan	Aldakuntza-tasak
2007	580.722	14,1
2008	611.483	5,3
2009	611.813	0,1
2010	620.433	1,4
2011	612.829	-1,2
2012	594.623	-2,9

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria

Kreditu-entitateek etxebizitzei emandako tasari (UTB) dagokionez, murriztu egin da bai kontsumoaren kasuan (% 9,11tik % 8,31ra 2011 eta 2012 bitartean) bai etxebizitzaren kasuan (% 3,66tik % 2,93ra).

Gordailu-entitateek[5] EAEn emandako kreditu osoa berriro ere txikitu egin da 2012. urtean, 85.956 milioi eurotik 79.338 milioi eurora, hain zuzen (% -7,7).

Beherakada hori sektore pribatuari emandako kredituak izandako beherakadaren (% -8,6) ondorioa da, Administrazio Publikoei emandako kreditua handitu egin baita (% +10,8).

Beste sektore egoiliar batzuetan kreditu-saldoak jaitsi izanak ziurrenik eragina eduki du etxebizitza erosteko hipoteka-bermea duen kredituaren beherakadan ere. Gauzak horrela, Espainiako Bankuak estatu osoarentzat dituen datuen arabera (ez dago Autonomia Erkidegoetako daturik), magnitude hori % 2,9 murriztu da 2011 eta 2012 bitartean (612.829 milioi eurotik 594.623 milioi eurora).

Alde horretatik, EINren *Hipoteken Estatistikan* argitaratutako Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoaren datuek adierazten dute EAEn esleitutako hipoteken kopurua % 24 murriztu dela. Hipotekatutako finka gainean emandako batez besteko zenbatekoa % 11,6 murriztu da, 135,8 mila eurokoa izanda aurreko ekitaldiko 151,7 mila euroren aurrean. Etxebizitzaren gaineko hipoteken kopurua ere % 26,2 murriztu da, eta hipotekatutako etxebizitza kontuan hartuta maileguan emandako batez besteko zenbatekoa % 10,3 jaitsi da (143,2 milioi eurotik 130,5 milioi eurora).

Finantza entitateetan jarritako gordailuei dagokienez, Espainiako Bankuaren *Estatistika Aldizkaria*ren datuen arabera, EAEn Administrazio Publikoak titular dituzten gordailuetako saldoa 2.533 milioi eurokoa izan zen 2012. urtearen amaieran. Kopuru hori bat dator urteko % 8,1ko beherakada-tasarekin. Beste sektore egoiliar batzuetako gordailuak (BSE) 69.414 milioi eurokoak izan ziren, eta hori % 3,7ko beherakada izan zen aurreko aldiarekiko.

5 2011. urteaz geroztik, Espainiako Bankuak informazioa Bankuen, Aurrezki Kutxen eta Kreditu-Kooperatiben artean banakatuta argitaratzeari utzi dio.

I.2.35. KOADROA. LANDA FINKEN ETA HIRI FINKEN HIPOTEKAK EAE-N

	2010			2011			2012 (behin-behineko datuak)			2011-12ko aldakuntza		
	Kopurua	Zenbatekoa (milioika €-tan)	Batez besteko zenbatekoa (€)	Kopurua	Zenbatekoa (milioika €-tan)	Batez besteko zenbatekoa (€)	Kopurua	Zenbatekoa (milioika €-tan)	Batez besteko zenbatekoa (€)	Kopurua	Zenbatekoa (milioika €-tan)	Batez besteko zenbatekoa (€)
HIPOTEKAK, GUZTIRA	**43.384**	**7.186**	**165.637**	**33.979**	**5.155**	**151.711**	**25.801**	**3.505**	**135.847**	**-24,0**	**-32,8**	**-11,6**
Landa finkak	872	156	178.899	781	156	199.744	546	97	177.106	-26,5	-35,5	-12,3
Hiri finkak	42.512	7.029	165.342	33.198	4.999	150.581	25.255	3.409	134.971	-24,0	-32,7	-11,5
Etxebizitzak	30.230	4421	146.245	23.082	3.306	143.228	17.033	2.222	130.453	-26,2	-33,8	-10,3
Orubeak	884	913	1.032.805	628	676	1.076.433	559	343	613.596	-10,6	-50,9	-45,1
Beste hiri finka batzuk	11.398	1.695	148.710	9.488	1.017	107.188	7.663	844	110.140	-19,5	-16,7	3,5

Iturria: EINren* Hipoteken Estatistika *(Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa)

I.2.36. KOADROA. SEKTORE PRIBATUAREN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN GORDAILU ENTITATEETAKO GORDAILUAK (ABENDUAREN 31KO SALDOAK)

	Milioika eurotan				Ban.	Estatua	Estatuaren gaineko %	Aldakuntzaren %	
	2009	2010	2011	2012				2010-11	2011-12
PRIBATUA ETA PUBLIKOA, GUZTIRA	78.640	78.799	74.850	71.947	-	1.167.493	6	-5,0	-3,9
SEKTORE PUBLIKOA, GUZTIRA	4.452	4.937	2.757	2.533	-	67.341	3,8	-44,2	-8,1
SEKTORE PRIBATUA (BSE), GUZTIRA	74.188	73.862	72.093	69.414	100	1.100.152	6,3	-2,4	-3,7
Ageriko gordailuak	14.605	13.866	15.795	18.805	27,1	264.841	7,1	13,9	19,1
Aurrezki gordailuak	17.544	18.624	15.919	12.749	18,4	199.112	6,4	-14,5	-19,9
Eperako gordailuak	42.037	41.374	40.379	37.860	54,5	636.199	6,0	-2,4	-6,2

***Iturria: Espainiako Bankuaren* Estatistika Aldizkaria**

Beste sektore egoiliar batzuen gordailuek izan ditzaketen modalitate ezberdinak (agerikoa, aurrezkia eta eperakoa) kontuan hartuta aztertuz gero, ikusiko dugu ageriko gordailuek berriro ere gora egin dutela eta 18.805 milioi eurora iritsi direla (% 19,1), aurrezki gordailuen saldoak % 19,9 egin duela behera (12.749 milioi euro) eta eperako gordailuen saldoa % 6,2 murriztu dela, 37.860 milioi eurora jaitsi arte[5].

Espainiako Bankuaren *Estatistika Aldizkaria*ren datuen arabera, burtsari dagokionez, Madrilgo Burtsaren urteko batez besteko kapitalizazioa (459.336 milioi euro 2012an) % 3,9 gehitu da aurreko urtearekin alderatuz gero, nahiz eta % 43,3 jaitsi den 2007ko datuekin alderatuz gero; batez besteko kontratazio-bolumena (696.262 milioi euro) % 24,8 txikitu da 2012an aurreko urtearekin alderatuz gero, eta % 58,3 2007ko datuekin alderatuz gero; IBEX-35 indizea (urteko batez bestekoa: 7.538,2 puntu) % 22,1 jaitsi da 2012an aurreko urtearekin alderatuta, eta % 49,1 2007ko datuekin alderatuta.

Horrez gain, Bilboko Burtsaren 2000 Indizea 1.331 puntuan egon da 2012ko abenduan, eta horrek esan nahi du % 2,6ko beherakada izan duela aurreko urteko abenduko datuekin alderatuta, eta % 49,3koa 2007ko datuekin alderatuta.

Bilboko Burtsaren kontratazio-bolumena (erosketak eta salmentak) % 22,1 murriztu da 2012an, 42.855,3 milioi euro, alegia. Beherakada horren jatorria errenta aldagarriak eta errenta finkoak izan duten galera da (% -21,9 eta % -28,4, hurrenez hurren). Kontratazio osotik % 49,3 erosketei dagokie; esan beharra dago % 22,7ko beherakada izan dutela aurreko ekitaldiaren aldean.

I.2.37. KOADROA. BILBOKO BURTSAREN 2000 INDIZEA

	AZKENA	GEHIENEKOA	GUTXIENEKOA	ALDAKUNTZAREN % (azkena/azken aurrekoa)
2006	2.577,5	2.635,8	1.611,6	34,14
2007	2.626,6	2.798,3	2.406,3	1,9
2008	1.589,9	2.625,7	1.338,6	-39,47
2009,	1.921,6	1.936,2	1.149,3	20,9
2010	1.615,18	1.975,39	1.398,65	-15,9
2011	1.366,61	1.808,89	1.210,76	-15,4
2012	1.331,00	1.443,33	974,81	-2,6

Iturria: Bilboko Burtsa

I.2.38. KOADROA. BILBOKO BURTSAREN KONTRATAZIO-BOLUMENA (*)

	2008		2010		2011		2012		2011-2012ko aldakuntza	
	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak
BURTSA, GUZTIRA	**222.575,2**	**113.432,0**	**246.734,0**	**127.989,9**	**194.227,5**	**96.577,1**	**151.372,3**	**74.690,3**	**-22,1**	**-22,7**
ERRENTA ALDAKORRA	219.635,9	111.962,4	238.568,6	123.907,6	189.937,1	94.431,9	148.300,5	73.156,8	-21,9	-22,5
Etengabeko merkatua: BUIS	219.635,7	111.962,3	238.568,6	123.907,6	189.937,1	94.431,9	148.300,5	73.156,8	-21,9	-22,5
Merkatu tradizionala: Parketa (hitzez)	0,2	0,1	0	0	0	0	0	0	-	-
ERRENTA FINKOA	2.939,3	1.469,6	8.165,4	4.082,3	4.290,4	2.145,2	3.071,8	1.533,5	-28,4	-28,5
Etengabeko merkatua: Elektronikoa	9,6	4,7	6,4	2,8	3,6	1,8	9,2	2,2	153,5	22,5
Merkatu tradizionala: Parketa (hitzez)	12,4	6,2	4,6	2,3	0,9	0,5	0,3	0,6	-67,4	-67,4
Konturako Anotazio Zerbitzuak (KAZ)	2.917,4	1.458,7	8.154,4	4.077,2	4.285,9	2.142,9	3.062,2	1.531,1	-28,6	-28,6

(*)Milioika eurotan.
Iturria: Bilboko Burtsa

2.2. I+G+B JARDUERAK ETA IKT-AK

2.2.1. I+G+B-ko Euskal Sistemaren Adierazle Nagusiak

I+G gastua 2011. urtean, Eustaten datuen arabera, 1.366,2 milioi euro inbertitu ziren, aurreko urtean baino % 0,4 gehiago.

EAEko enpresek (zentro teknologiko pribatuak barne direla) I+Gan egikaritutako gastua % 76koa izan da, aurreko aldian baino gehiago (% 76,5). Enpresek egikaritutako gastu hori sektoreak Estatuan egindakoa baino handiagoa izan da. Izan ere, INEren arabera, estatuko enpresek (IAGEP alde batera utzita) I+G gastuaren % 52,1 egikaritu dute.

EB-27an, honekin batera doan taulako datuen arabera, gastuaren %60,8 egikaritu dituzte enpresek.

Bestalde, Zientzia eta Teknologiak Euskal Sareko teknologi elkartegiek gastuaren %16,9 egikaritu dute (%15,9 aurreko epealdian), sektore pribatuak %59,1 elkartegi horiek kenduta, administrazioak %6,1 eta unibertsitateak %17,9.


Herri Administrazioak EAEn egikarituriko gastuak behera egin du 2010 eta 2011 artean, hain zuzen guztizkoaren %6,3tik %6,1era, eta EB-27an bildutakoa (%13,7) eta Estatuan eginikoa (%19,5) baino txikiagoa da.

I.2.39. KOADROA. ZIENTZIARI ETA TEKNOLOGIARI BURUZKO ADIERAZLEAK 2011(*)

	Alemania	Espainia		Frantzia	Italia	Portu-gal	Erres. Batua	AEB	Japonia	EB27 2010		EAE	
Gastuak I+G-n		2010	2011							2010	2011	2010	2011
BPGaren gainean (%)	2,84	1,39	1,33	2,25	1,25	1,59	1,84	2,87	3,36	2,01	2,03	2,08	2,04
Pertsonala (DOB)													
Orotara	550.300	222.022	215.079	390.374	218.837	52.378	319.487	:	882.739	2.486.743		17.531,9	17.879,2
Pop. Okupatuaren gainean (‰)	13,6	11,8	11,9	15,0	8,9	10,6	11,0	:	14,0	11,2		18,0	18,5
Ikerlariak (DOB)													
Orotara	327.500	134.653	130.235	234.201	105.846	45.916	235.373	:	656.676	1.564.770		11.070,8	11.283,1
Populazio okupatuaren gainean (‰)	8,1	7,2	7,2	9,0	4,3	9,3	8,1	:	11,0	7,0		11,4	11,7
Gastuaren finantzaketa (%)													
Enpresa	66,1	43,4	44,3	52,4	44,2	44,0	44,5	67,3	78,2	53,9		53,3	54,3
Administrazioa	29,7	47,1	44,5	38,6	42,1	45,3	32,6	27,1	15,6	34,6		39,8	38,6
Unibertsitatea	0,0	3,5	4,0	1,2	1,3	2,9	1,3	2,7	5,1	0,9		2,2	2,3
Beste iturri batzuk	0,3	0,6	0,6	0,9	3,0	3,7	5,0	3,0	0,7	1,6		0,9	0,4
Atzerria	3,8	5,5	6,7	6,9	9,4	4,1	16,6	0,0	0,4	8,9		3,7	4,4
Gastuaren egikaritzea (%)													
Enpresak	67,3	51,5	52,1	61,2	53,6	45,5	60,9	72,6	78,5	60,8		76,5	76,0
- T.Z. ZTES												15,9	16,9
- Gainerako enpresak												60,6	59,1
Administrazioa	14,7	20,1	19,5	16,4	14,3	7,2	9,4	10,6	8,3	13,7		6,3	6,1
Unibertsitatea	18,0	28,3	28,2	21,3	29,0	37,0	27,2	12,8	11,6	24,4		17,2	17,9
IAGEP	0,0	0,2	0,2	1,2	3,2	10,4	2,4	3,9	1,6	1,0		0,0	0,0

(*) 2011ko edo eskuragarri dugun azken urteko herrialdeetako datuak. DOB = Dedikazio osoaren baliokidetza
Iturria: EUSTAT. Ikerketa zientifikoaren jardueren eta garapen teknologikoaren gaineko estatistika, INE eta EUROSTAT

I.2.4. GRAFIKOA. I+G-N EGINIK AHALEGINAREN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA EAEN



Iturria: Eustat.

Hala ere, kontuan izan behar dira EAEko zientzia eta teknologiaren berezitasunak, non Administrazioaren I+G-ko gastuaren zati handi bat teknologi zentroen sarearekin bideratzen den, haien izaera juridikoa dela-eta. Izan ere, estatistika honetan sartu dira enpresa sektorearen parte diren aldetik zentro horiek.

I+Gn eginiko ahalegina. I+Gn eginiko gastua %2,04koa da BPGaren gainean 2011n, EUSTATen arabera (2010ean baino lau ehunen gutxiago, %2,08), EB-27n izandako ratioaren ildotik, %2,03 (2011ko datua), baina arlo honetan erreferentzia diren herrialdeen azpitik: Finlandia (%3,78), Suedia (%3,37), Japonia (%3,36), Danimarka (%3,09), AEB (%2,87), Alemania (%2,84), eta Frantzia (%2,25) (EUROSTATen datuen arabera).

INEk EAErako bildutako ahaleginak, 2011n, BPGaren %2,1 bildu du. Estatuko batez bestekoa %1,33 da (%1,39 2010ean), eta autonomia erkidego hauek dituzte ratiorik handienak: EAEk, Nafarroak (%2,05), Madrilek (%1,99) eta Kataluniak (%1,55). Hauexek, berriz, hazkunde-tasarik handienak dituzten erkidegoak: EAE, Nafarroa eta Gaztela-Mantxa.

I+G-ko gastuaren finantzaketa (Gastua funtsen jatorriaren arabera). Nahiz eta sektore pribatua I+G-ko gastuaren finantzaketa-iturri nagusiena izan den, azken urteotan ikusi izan denez, galdu egin du pisua gastu horren finantzaketan. Alabaina, joera hori hautsi egin da krisialdian, halako moldez non gora egin baitu sektore pribatuak gastuaren finantzaketan izan duen partaidetzak: 2010 eta 2011 bitartean %53,3tik %54,3ra. Bestalde, administrazioak %38,6 finantzatzen du (%39,8 aurreko urtean).

Ondorioz, 11,7 puntura dago Lisboako helburuetatik: I+G-ko gastu guztiaren %66 funts pribatuekin finantzatua izatea.

Estatuan, INEren datuen arabera, herri administrazioak %44,5 finantzatzen du eta sektore pribatuak %44,3 (21,7 puntura Lisboako helburutik).

EB27n, EUROSTATen datuen arabera, %34,6 eta %53,9 dira hurrenez hurren 2010. urtean. I+G gastuaren finantzaketa pribatuko ratiorik handienak izateagatik nabarmentzen dira: Japonia (%78,2), AEB (%67,3), Finlandia (%66,1), Alemania (%66,1), Danimarka (%60,7) eta Suedia (%58,2).

Kontuan hartzen badugu Eustaten[1] arabera 2010. urtean 66.264,5 milioi eurokoa zela EAEko BPGa, orduan sektore pribatuak finantzatutako I+Ga (741,9 milioi euro) BPGaren % 1,12 da. Europako helburuan, %2koa ezarri da 2020. urterako. Bestalde, EAEn Administrazio Publikoak finantzatutako I+Ga (527,4 milioi euro) BPGaren % 0,8 da. Bartzelonako helburuak balioa % 1ean zenbatzen du.

I+G gastua diziplina zientifikoaren arabera. Berriro ere ingeniaritza eta teknologia nabarmentzen dira (gastu osoaren % 71,7); ondoren, oso atzetik, zientzia zehatzak/natura-zientziak daude, % 10,4arekin; eta zientzia medikoak, ostera, % 9,3 dira. Bestalde, gizarte-zientziak eta nekazaritza-zientziak, hurrenez hurren, % 6,1 eta % 2,6 dira.

Funtsen jatorriaren arabera, ingeniaritza eta teknologiaren arloko ikerketa oraindik ere sektore pribatuak finantzatzen du gehienik. Hala, % 68,6 sektore pribatuak finantzatzen du, eta % 25,2 sektore publikoak. Zientzia medikoetan, zientzia zehatzetan/natura-zientzietan, nekazaritza-zientzietan eta gizarte-zientzietan, justu kontrakoa gertatzen da; izan ere, Administrazioak finantzatzen du, hurrenez hurren, gastuaren % 67,4, % 79,1, % 71,8 eta % 68,7.

1 2012ko abenduaren 17ko datua.

I.2.40. KOADROA. BARNE GASTUAK ARLO ZIENTIFIKOAGATIK ETA BURUTZAPEN SEKTOREA FUNTSEN JATORRIEN ARABERA (MILAKA EUROTAN)

	2011						Aldakuntzaren % 2010-11					
	Orotara	Funtsen jatorria					Orotara	Funtsen jatorria				
		Adm.	Goi m. irakaskuntza	Enpr.	IGAEP	Atzer.		Adm.	Goi m. irakaskuntza	Enpr.	IGAEP	Atzer.
Arlo zientifikoa												
Orotara	1.366.234	526.801	31.600	741.434	5.959	60.440	0,4	-2,9	5,4	2,2	-53,2	21,4
Ingeniaritza eta teknologia	979.193	246.828	13.315	671.994	2.545	44.510	3,8	-4,9	16,3	7,0	-75,0	30,8
Z. medikoa	126.829	85.442	1.931	32.687	2.243	4.525	-8,1	-6,7	-6,3	-14,7	11,0	13,4
Z. zehatzak/natur.	141.642	112.003	6.161	16.591	368	6.518	-12,9	-2,8	16,2	-52,4	55,9	-5,5
Nekazaritz Z.	34.866	25.031	147	7.800	4	1.885	11,2	18,2	24,6	-6,8	-20,0	11,1
Gizarte Z.	83.705	57.496	10.046	12.362	798	3.003	-1,9	4,9	-9,1	-22,6	159,9	-4,5
Burutzapen sektorea												
Administrazioa	83.246	73.972	232	6.196	477	2.370	-2,9	7,9	34,9	-6,9	-94,5	50,1
Goi mailako irakask.	244.262	186.527	31.306	17.660	597	8.172	4,2	4,3	5,9	-9,9	-7,4	41,7
ZTESen TZ ez duten enpresak	807.566	188.562	63	597.973	4.636	16.332	-2,0	-9,3	-71,9	0,3	91,1	-6,4
ZTESen teknologia zentroak	231.160	77.740	0	119.605	248	33.567	7,0	-10,6	-100,0	16,0	-73,2	34,4

Iturria: EUSTAT. "I+G-ko jarduerei buruzko estatistika"

I.2.41. KOADROA. D.O.B. PERTSONALA OKUPAZIO ETA SEXUAREN ARABERA.

		2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Orotara	Orotara	12.505,5	13.065,3	14.434,9	15.373,2	16.690,4	17.531,9	17.879,2
	Gizonak	8.538,9	8.886,4	9.665,4	10.237,9	11.012,8	11.669,3	11.675,6
	Emakumeak	3.966,6	4.178,9	4.769,4	5.135,3	5.677,6	5.862,6	6.203,6
Ikerlariak	Orotara	7.819,7	8.145,0	9.220,4	9.640,1	10.386,2	11.070,8	11.283,1
	Gizonak	5.146,7	5.378,7	6.086,8	6.333,4	6.734,7	7.310,4	7.286,5
	Emakumeak	2.673,0	2.766,3	3.133,5	3.306,7	3.651,5	3.760,4	3.996,5
Teknikariak	Orotara	3.412,7	3.587,5	3.908,3	4.190,4	4.804,7	5.006,2	5.101,2
	Gizonak	2.623,4	2.695,7	2.837,1	3.002,0	3.410,2	3.512,9	3.511,5
	Emakumeak	789,3	891,8	1.071,2	1.188,4	1.394,5	1.493,3	1.589,7
Laguntzaileak	Orotara	1.273,1	1.332,8	1.306,2	1.542,7	1.499,5	1.454,9	1.494,9
	Gizonak	768,9	812,1	741,5	902,5	867,9	845,9	877,6
	Emakumeak	504,2	520,8	564,7	640,2	631,6	609,0	617,3

D.O.B.= Dedikazio osoko baliokidetza
Iturria: EUSTAT. Ikerketa zientifikoko jarduerei eta garapen teknologikoari buruzko estatistika.

I+G-ko D.O.B. Gorako joerari eusten dio. Hala, 17.879 pertsona ziren 2011n, hots, lanean ari den populazioaren milako 18,5 (milako 18 aurreko urtean); Estatuan (milako 11,9), EB-27n (milako 11,2) eta herrialderik dinamikoetan daudenak baino ratio handiagokoak: Frantzia (milako 15), Alemania (milako 13,6), Japonia (milako 14).

Bestalde, ikerlariak milako 11,7 dira; Estatuan, berriz, 7,2.

Gora egin du emakumezkoek I+G-ko jardueretan duten eginkizuna, hain zuzen %34,7; 2010ean, berriz, %33,4 izan zen, baina gizonezkoena baino txikiagoa da oraindik ere (%34,7, %65,3koaren aldean). Estatuan, INEren arabera, jarduera horietan lanean ari diren langile guztien %40,1 dira emakumeak.

I.2.42. KOADROA. DOB PERTSONALA BURUTZAPEN SEKTOREKA, OKUPAZIOAREN ARABERA

	OROTARA		ENAKUMEAK		Ikerlariak		Teknikariak		Laguntzaileak	
					2011					
	2010	2011	2010	2011	n	Guztizko horizontala /%	n	Guzt. hor./%	n	Guzt. hor./ %
Orotara	17.531,9	17.879,2	5.862,6	6.203,6	11.283,1	63,1	5.101,2	28,5	1.494,9	8,4
Enpresak:	13.141,5	13.149,5	3.758,6	3.908,0	7.576,2	57,6	4.342,7	33,0	1.230,6	9,4
- Tek. elkartegiak	2.640,8	2.801,7	1.038,6	1.127,9	2.135,2	76,2	404,1	14,4	262,4	9,4
- Enpresa sektorearen gainerakoak	10.500,7	10.347,8	2.720,0	2.780,1	5.441,0	52,6	3.938,6	38,1	968,2	9,4
Herri administrazioa	933,4	1.068,8	463,9	547,8	619,6	58,0	389,7	36,5	59,5	5,6
Goi mailako irakaskuntza	3.457,0	3.660,9	1.640,1	1.747,8	3.087,3	84,3	368,8	10,1	204,8	5,6

Iturria: EUSTAT, I+G-ko jarduerei buruzko estatistikak

I.2.43. KOADROA. PATENTEAK ETA EREDU BALIAGARRIAK EAE-N

	Eskabide kop.				Emakida kop.			
	2008	2009	2010	2011	2008	2009	2010	2011
Patente kop.	171	206	185	173	169	190	184	196
Eredu baliagarrien kop.	132	104	122	146	120	107	119	141

Iturria: EUSTAT, I+G-ko jarduerei buruzko estatistikak

Lanbidea kontuan hartuta (ikertzaileak, langile teknikoak edo laguntzaileak), berriro ere ikusten da emakume ikertzaileek halako jardueretan lanean dabiltzan emakumeen guztizkoarekiko duten proportzioa handiagoa dela gizonezko ikertzaileek beren genero-taldearekiko dutena baino. Gizonen artean, I+G jarduerak egiten dituztenen % 62,4 ikertzaileak dira, eta emakumeen artean portzentaje hori % 64,4 da.

Azterketarekin jarraituta, lanbidearen aldetik ikusten dugu %34,7 magnitude hori aldatu egiten dela lanbide kategorien arabera. Hala, ikerlarien %35,4 emakumezkoak dira, eta teknikarien %31,2. Laguntzaileen aldetik, berriz, handiagoa da emakumezkoen proportzioa, %41,3 hain zuzen ere.

I+G langileria egikaritze-sektorearen arabera. Enpresa-sektorean (teknologi elkartegiak kenduta) daude langile gehienak (% 57,9); ondotik, goi-mailako hezkuntza-erakundeak (% 20,5), Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko teknologia zentroak (% 15,7) eta Administrazio Publikoa (% 5,9) daude.

Ikertzaile-laguntzaile (teknikariak eta laguntzaileak) bikoteari dagokionez, erlazioa honakoa da: Administrazioan 57, 6-42,4; goi-mailako hezkuntzan 84,3-15,7; enpresa-sektorean 52,6-47,4 eta Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko teknologia zentroetan 76,2-23,8. Zenbaki orokorretan: 63,1-36,9.

2010. urtearekiko ikus daitekeenez, behera egin du pixka bat D.O.B.k enpresan duen ratioa; izan ere, guztizkoaren %75etik %73,5era jaitsi da. Goi-mailako irakaskuntzako langileek, berriz, gora egin du, %17,9tik %20,5era, eta herri administrazioarena, berriz, %5,3tik %6ra.

Patenteak eta eredu baliagarriak. Azkenik esan behar da patenteen eskabide kopuruak behera egin duela berriz ere 2010 eta 2011 bitartean, 185etik 173ra. Indarrean daudenetan, berriz, ere: 196 izan dira. Bestalde, gora egin dute eredu baliagarriek, eskaturikoek nahiz emandakoek.

Berrikuntza Adierazleen Panela (IUS 2011) kontuan hartuta beste lurralde-eremu batzuekin alderatuz gero, ondoriozta liteke EAE, EAP patenteen eskabideen adierazlea BPGko bilioiko (EAP eurotan) 1,71koa baitu,

2 Patenteen Lankidetza Ituna.

Estatuko batez bestekotik gora dagoela (1,34) baina EB-27ko batez bestekotik behera dagoela (3,78) eta oso urrun dagoela ereduzko herrialdeetatik, hala nola Suediatik (10,53), Finlandiatik (9,57), Alemaniatik (7,04) eta Herbehereetatik (6,39).

2.2.2.I+G+b jarduerak EAEko enpresa sektorean

a) EAEko enpresa-sektorearen I+G+b jarduerak, ZTESko teknologi elkartegiak kenduta

Eustaten datuen arabera, 2011. urtean 1.488 enpresak egin zituzten I+G jarduerak (Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko zentro teknologikoak alde batera utzita); horietatik 691 industria-sektorekoak dira eta 737 zerbitzuen sektorekoak. Halako jardueretan dedikazio osoz jarduten duten langile enplegatuei dagokienez, industrian eta zerbitzuetan antzeko proportzioa dago:< % 50 industrian (5.177 DOBen) eta % 46,3 zerbitzuetan (4.791 DOBen).

I.2.44. KOADROA. ENPRESA KOPURUAREN ETA PERTSONALAREN BILAKAERA I+G-N

	Enpresa kop.					DOB langileria				
	2008	2009	2010	2011	Aldak. 2010-11	2008	2009	2010	2011	Aldak. 2010-11
	TZrik gabeko enpresa sektorea		ZTESko TZrik gabeko enpresa sektorea			TZrik gabeko enpresa sektorea		ZTESko TZrik gabeko enpresa sektorea		
Orotara	1.412	1.469	1.515	1.488	-1,8	8.684,9	9.097,9	10.500,7	10.347,8	-1,5
Nekazaritza, erauzketakoak eta energiakoak	15	15	11	14	27,3	99,4	130,1	154,1	217,5	41,1
Industria	751	760	750	691	-7,9	4.880,1	5.157,9	5.390,9	5.177,0	-4,0
Eraikuntza	41	41	41	46	12,2	77	96,2	131,3	162,3	23,6
Zerbitzuak	605	653	713	737	3,4	3.638,4	3.713,7	4824,5	4.791,0	-0,7


Iturria: EUSTAT, I+G-ko jarduerei buruzko estatistikak

I.2.45. KOADROA. ENPRESA SEKTOREAREN ADIERAZLEAK (ZTESko TZrik gabe) JARDUERA-ADARRAREN ARABERA. I+G 2011

		Enpresa kop.	D.O.B. langil.	Barne gastuaren banaketa		Funts propioen %	Inoren funt. %	Enpl., orot. EAEn	% I+G-ko lang. EAEn
				2010	2011				
Orotara		1.488	10.347,8	824.115	808.245	67,1	32,9	906.950	1,1
Nekazaritza-abeltzaintza eta arrantza, erauzketakoak eta energiakoak		14	217,5	13.192	20.463	76,1	23,9	18.039	1,2
Industria		691	5.177,0	457.927	417.078	78,1	21,9	270.820	1,9
M-A	Kimika eta petrolioa fintzea	39	271,1	27.924	18.670	77,4	22,6	5.804	4,7
M-B	Kautxua eta plastikoa	51	229,1	15.802	16.445	71,0	29,0	14.188	1,6
M-B	Metalezkoa ez den industria	17	78,6	5.397	7.291	89,4	10,6	5.720	1,4
M-B	Metalurgia	42	267,1	23.924	23.587	71,1	28,9	19.979	1,3
M-B	Metalezko produktuak	147	624,3	45.127	45.618	82,1	17,9	45.216	1,4
M-A	Makina-erreminta	38	354,5	19.913	34.121	72,5	27,5	3.754	9,4
M-A	Etxeko aparatuak	7	398,0	33.439	34.366	87,4	12,6	3.688	10,8
M-A	Beste makineria	101	852,4	69.593	60.483	75,8	24,2	22.253	3,8
M-A	Material elektrikoa	54	518,7	39.196	37.497	68,5	31,5	8.154	6,4
A	Material elektronikoa	21	282,8	20.482	20.496	73,1	26,9	3.533	8,0
A	Zehaztapen materiala	30	302,2	24.860	19.448	68,5	31,5	2.958	10,2
M-A	Garraio materiala	43	709,2	111.845	80.771	87,4	12,6	17.465	4,1
	Beste manufaktura batzuk	101	289,0	20.426	18.285	75,5	24,5	37.608	0,8
Eraikuntza		46	162,3	8.702	10.184	71,0	29,0	80.500	0,2
Zerbitzuak		737	4.791,0	344.293	360.520	53,7	46,3	618.091	0,8
A	Informatika jarduerak	137	900,9	51.523	45.799	66,3	33,7	14.819	6,1
A	I+G jarduerak	134	1.842,0	141.384	158.593	41,9	58,1	6.328	29,1
	Beste enpresa jarduera batzuk	267	1.273,6	86.696	99.693	58,9	41,1	61.027	2,1
	Beste zerbitzu batzuk	199	774,5	64.690	56.434	67,6	32,4	535.917	0,1

Iturria: EUSTAT, I+G jarduerei buruzko estatistika.

I.2.5. GRAFIKOA.EUROPAKO BERRIKUNTZA PANELA IUS 2010. EAE ETA EB-27



Iturria.- EUSTAT eta PRO INNO Euroepe: INNO-Metrics. Europar Batzordea

I+G arloko jarduera-arloa alde batera utzita —horren barruan sartzen dira jarduera nagusitzat I+G jarduerak dituzten enpresak (hau da, ingeniaritza eta aholkularitza teknologikoak) eta, beraz, gainerakoek ez bezalako profila, helburuak eta finantzaketa dutenak—, ikusten dugu sektore hauek bideratzen dutela langile gehien I+G jardueretara: tresna elektrikoak, I+G-ko langileen %10,8 EAEn; zehaztapen materiala, %10,2; makina-erreminta, %9,4; material elektrikoa, %8; material elektrikoa, %6,4 eta jarduera informatikoak, %7,2.

Paraleloki, ikusten da euskal enpresek oraindik ere halako gastuak, portzentaje handi batean, enpresaren beraren funtsekin finantzatzen dituztela.

b) b) Europako Berrikuntza Adierazleen Panela, IUS 2010

Europako Berrikuntza Adierazleen Panel berria (IUS 2010) herrialdeen ekonomiek berrikuntza-jarduerak egiteko zenbaterainoko gaitasuna duten eta zenbateraino garatzen dituzten neurtzen saiatzen da. Hori kalkulatzeko, EBko 27 estatu kideak eta Turkia, Mazedoniako Jugoslaviar Errepublika ohia, Serbia, Kroazia, Norvegia, Islandia eta Suitza hartzen dira kontuan.

Eustaten datuen arabera, 2011. urtean, Europako Berrikuntza Adierazleen Panel berrian, EAEk 0,46ko balioa lortu zuen. Hala, EB-27ko 15. lekuan dago, batez bestekotik behera (0,54).

EB-27ko herrialdeak lau kategoriatan taldeka daitezke, lortutako puntuazioa kontuan hartuta. Lehenengoan, berrikuntzan aitzindari diren herrialdeen taldean, honako hauek daude: Suedia (0,75), Danimarka (0,72), Finlandia (0,70) eta Alemania (0,69). Europar Batasuneko kide ez direnak ere kontuan hartuz gero, talde horretan sartzen da Suitza ere, 0,83rekin; beraz, berrikuntzaren abangoardian dago.

Bigarren taldean, "berrikuntza maila handiko herrialdeak": Belgika, Erresuma Batua, Herbehereak, Austria, Luxenburgo, Irlanda, Frantzia, Eslovenia, Zipre eta Estonia, 0,62 eta 0,50 bitarteko puntuazioarekin.

Hirugarren taldean, berrikuntza-maila ertaina duten herrialdeen taldean, honako hauek daude: Portugal, Italia, Txekiar Errepublika, Espainia, Grezia, Malta, Hungaria, Polonia eta Eslovakia.

Eta laugarrengoan, berrikuntza-maila txikia duten herrialdeen taldean, Errumania, Lituania, Bulgaria eta Letonia daude: 0,26 -0,23 puntu.

Hortaz, gure Erkidegoak 0,46 puntu ditu, eta hirugarren taldean kokatuko litzateke, berrikuntza maila ertainekoan.

Panela hiru multzo nagusitan egituratuta dago, eta multzo horien barruan 8 alderdi biltzen dira, guztira 25 adierazle dituztela. Horietatik 6 adierazle berrikuntzaren inkestatik lortzen dira; Europan bi urterik behin egiten da inkesta. 2011ko panela egitean

I.2.46. KOADROA. EUROPAKO BERRIKUNTZA ADIERAZLEEN PANELA, IUS 2011, BLOKEAK ETA DIMENTSIOAK. INDIZE KONPOSATUAK

	EB27	EAE	Espainia
	0,54	0,46	0,41
BIDERATZAILEAK	0,56	0,53	0,48
Giza baliabideak	0,56	0,61	0,44
Ikerketa sistema	0,53	0,54	0,54
Finantzaketa eta laguntza	0,58	0,38	0,47
ENPRESA JARDUERAK	0,50	0,44	0,32
Enpresa inbertsioa	0,44	0,50	0,25
Enpresa loturak eta ekimena	0,49	0,44	0,25
Aktibo intelektualak	0,55	0,41	0,41
OUTPUT-AK	0,56	0,42	0,43
Berritzaileak	0,51	0,40	0,33
Ondorio ekonomikoak	0,59	0,42	0,47

Iturria: EUSTAT

Europan eskuragarri dagoen azken inkesta CIS 2008 denez gero,6 aldagai horiei dagozkien balioek bere horretan jarraitu dute IUS 2011n IUS 2010arekiko. Horrek mugatu egiten du adierazle konposatuaren edozein denbora alderaketa, ez baitu benetako bilakaera osoa islatzen.

Hona egitura:

- ✓ Berrikuntza «bideratzaileen» multzoan, «Giza baliabideak», «Ikerketa-sistemak»; eta «Finantzaketa eta Laguntza»; alderdiak sartzen dira. 8 adierazle ditu.
- ✓ «Enpresa-jarduerak» multzoak 3 alderdi ditu, «Enpresa-inbertsioak», «Loturak eta Enpresa-ekimena» eta «Aktibo intelektualak». 9 adierazle ditu.
- ✓ «Output» multzoak «Berritzaileak» eta «Ondorio ekonomikoak» alderdiak biltzen ditu. 8 adierazle ditu.

Europako batez bestekoari dagokionez, hiru dimentsio hauetan nabarmentzen da EAE: Giza baliabideak, Ikerkuntza-sistema eta Enpresa-inbertsioa. Gainerako dimentsioetan, EBn lorturikoaren azpitik dago lorturiko puntuazioa.

Hala, prestakuntza handiko pertsonen baliagarritasuna neurtzen duen ***Giza baliabideak*** dimentsioan, hauxe dugu:

- Hirugarren mailako irakaskuntza (unibertsitatekoa edo goi-mailako lanbide heziketa) egin duten 30-34 urteko biztanleen portzentajea % 43,7 da, eta Europar Batasuneko batez bestekoa % 33,6 da.
- Gutxienez bigarren mailako irakaskuntza amaitu duten 20-24 urteko biztanleen ehunekoa Europako batez bestekoaren (% 79,1) antzeko maileta ra iristen da (%79).
- 25 eta 34 urte bitarteko doktore graduatu berriak milako 1,14 dira EAEn. EB-27n, berriz, milako 1,50 dira.

Irekiera-mailaren dimentsioak, **Ikerkuntza-sistemaren** bikaintasuna eta erakarpenak, zientzia arloaren nazioarteko lehiakortasuna neurtzen du.

- Nazioarteko baterako argitalpen zientifikoen milioi biztanleko kopurua nabarmentzen da: 498 EAEn eta 301 Europan.
- Aldiz, antzeko kopuruetan dago EBtik kanpoko doktoreen ehunekoa herrialdeko doktore guztien artean: %18,8 da eta, EB-27n, berriz, %19,2.

Enpresa-inbertsioari dagokionez, enpresek I+Gn eta berrikuntzan dituzten gastuak neurtzen dituela esan behar da.

- I+G-ko gastu pribatua gailentzen da BPGaren gaineko ehuneko gisa: %1,60. Europako batez bestekoa, berriz, %1,23koa da.
- I+G-koa ez den berrikuntzan, aldiz, negozio zifraren ehuneko gisa, %0,64 dugu EAEn. EB-27n, aldiz, %0,71ekoa da.

Nahiz eta gainerako alderdietan lortutako puntuazioa Europako batez bestekoa bainoa txikiagoa den, EAEk beste hainbat adierazletan ere lortu ditu Europar Batasunaren antzeko emaitzak, hala nola honako hauetan:

- Barne berrikuntza duten enpresa ertain eta txikiak
- Berrikuntzan kolaboratzen duten enpresa ertain eta txikiak
- Produktuan edo prozesuan berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak
- EBren marka komertzialak
- Jakintza intentsiboko jardueretako lanpostuak
- Teknologia ertain eta altuko esportazioak
- Jakintza maila handiko zerbitzuko esportazioak

Ez alderdi positiboan, oraindik Europako batez bestekoaren azpitik dauden zenbait adierazle daude. Hauexek dira:

- ***Finantzaketan eta laguntzan***, sektore publikoak I+Gn egikarituriko gastua nahiz arrisku-kapitalaren eskuragarritasuna.
- ***Aktibo intelektualen*** dimentsioan, EAP patenteen eskabideak eta EBren diseinuak.
- ***Berritzaileetan,*** marketineko edo antolaketako ETE berritzaileen portzentajea.
- Eta ***Efektu ekonomikoetan***, merkaturako edo enpresarako produktu berrien salmengatik lorturiko negozioen zifra eta lizentzia eta patenteengatik atzerritik lorturiko sarrerak.

c) Berrikuntza enpresa sarean

Has gaitezen berrikuntzari buruzko inkestak eta definizioak ikusiz:

- Enpresa berritzailea izango da inkestan kontuan hartutako tartean berrikuntzaren bat sartu duen enpresa.

  Berrikuntzatzat hartuko da produktu (edo zerbitzu) berria nahiz zeharo hobetua, prozesu berria, komertzializazio-metodo berria edo antolakuntza-metodo berria sartzea enpresaren barne-praktiketan, lantokiaren antolakuntzan edo kanpoko harremanetan. Berrikuntza guztien ezaugarri komuna zera izango da, aldaketa horiek dagoeneko sartuta egon beharko direla enpresaren lanean, hau da, merkatura atereak. Prozesu, komertzializazio-metodo edo antolakuntza-metodo bat sartuta dagoela esan daiteke modu eraginkorrean sartzen denean enpresaren eginkizunetan.

  Definizio hori kontuan hartuta, bi berrikuntza mota bereiz daitezke: berrikuntza teknologikoak eta berrikuntza ez teknologikoak. Berrikuntza teknologikoa produktu bat (ondasun bat edo zerbitzu bat, berria edo nabarmenki hobetua denean eta merkatuan sartuta dagoenean) edo prozesu bat (establezimenduan bertan prozesu berria edo nabarmenki hobetua ezartzea) izan daiteke, eta berrikuntza ez teknologikoak antolakuntzaren edo komertzializatzeko moduaren berrikuntzek osatzen dituzte.

- Jarduera berritzaileak dituen enpresa inkestan aztertutako urteetan berrikuntza-jarduerak garatu dituen enpresa da, abian diren berrikuntzak eta bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten enpresak barne.

  Enpresa berritzaileak

  Eustaten Berrikuntzaren Inkestako datuen arabera, EAEn, 2009-2011 aldian, enpresen % 17,8 izan ziren berritzaile (aurreko aldian izandakoa baino bi puntu txikiagoa). Portzentaje hori lortzeko, kontuan hartu behar dira bai berrikuntza teknologikodun (produktua edo/eta prozesua) enpresak (enpresen % 12,3, %13,8 aurreko aldian) eta bai berrikuntza EZ teknologikoa (antolakuntza edo/eta komertzializazioa) egiten duten enpresak (enpresen % 10,7).

  Soilik hamar langile edo gehiagoko enpresak kontuan hartzen baditugu (horrek modua ematen baitigu INE, Eurostat eta 10 langile baino gutxiagoko enpresei buruzko informaziorik ematen ez duten beste estatistika-erakundeekin konparatzeko), enpresa berritzaileen portzentajea (teknologikoak eta ez teknologikoak) % 37,8 da. Estatuan, INEren Berrikuntzaren Inkestaren arabera, aldi horretako portzentajea % 31,1ekoa da (%32,9koa aurreko aldian).

  Bilakaeraren ikuspegitik, EAEn, 2008-10etik 2009-2011ra bitartean, 10 langile edo gehiagoko enpresa berritzaileen portzentajeak egonkor eutsi dio % 38,9an, eta berrikuntza teknologikoak sartu dituztenen portzentajea handitu egin da, % 30,1tik % 30,7ra.

  Bestalde, enpresa berritzaileen edo hasitako zein arrakastarik gabeko berrikuntzak (teknologikoak edo ez) dituzten enpresen portzentajea % 41,4tik %39,8ra jaitsi da. CIS 2010aren arabera (CIS6), EB27an, industriako eta zerbitzuetako enpresen %53ak jarduera

3 Tamaina guztietako eta lehen sektorea, administrazio publikoa eta etxe zerbitzua ez beste jarduera-sektore guztietako euskal enpresei zuzendua (ikus, INEk ez bezala, hezkuntza osoa hartzen duela). Hots, hauxe da populazioaren tamaina: edozein tamainatako establezimenduak eta jarduera sektore hauetakoa, CNAE-93aren arabera (1. Berrik.: C, D, E, F, G, H, I, J, K, M, N eta O. Beraz, alde batera uzten dira: nekazaritza (A eta B), herri administrazioa (L) eta etxeko zerbitzua (P).
4 Industrian NACE 05-39 adarrak sartzen dira, eta zerbitzuetan, berriz, NACE 46, 49-53, 58. 61-66 eta 71 adarrak, 10 langile edo gehiagokoak.

berritzaileak izan dituzte (egiten ari diren berrikuntzak eta bertan behera utzitako berrikuntzak dauzkaten enpresak barne) 2008 eta 2010. urteen artean.

I.2.47. KOADROA. JARDUERA BERRITZAILEAK DITUZTEN ENPRESEN EHUNEKOAREN BILAKAERA EAE-KO ENPRESA GUZTIEN GAINETAN

		2006-08	2007-09	2008-2010	2009-2011
Enpresak, orotara	Enpresa berritzaileak (berrikuntza teknologikoa eta ez teknologikoa) (1)	20,8	19,8	19,8	17,8
	Berrikuntza teknologikoa duten enpresak (1)	15	14,5	13,8	12,3
	Berrikuntza ez teknologikoa duten enpresak	12,9	11,7	11,8	10,7
	Berrikuntza teknologikoko edo ez teknologiko jarduerak dituzten EINak	15,7	17,4	20,3	18,3
9 enplegutik gorako enpresak (EIN, EUROSTAT eta abarrekin alderatzeko)	Enpresa berritzaileak (berrikuntza teknologikoak eta ez teknologikoak) (1)	41,2	38,9	38,9	37,8
	Berrikuntza teknologikoa duten enpresak (1)	31,5	29,8	30,1	30,7
	Berrikuntza ez teknologikoa duten enpresak	27,4	26,3	26,2	23,7
	Berrikuntza teknologikoko edo ez teknologiko jarduerak dituzten EINak	-	40,2	41,4	39,8

(1) Ez daude sartuta soilik hasitako edo bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten establezimenduak, zeren eta produktua (ondasuna edo zerbitzua) enpresaren, lantokiaren antolaketan edo kanpo harremanetan sartu behar izan baita.
EIN: enpresa berritzaileak edo aribideko edo arrakastarik gabeko berrikuntzak dituzten enpresak.
Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoari buruzko Estatistika

I.2.48. KOADROA.10 ENPLEGATU EDO GEHIAGO DITUZTEN ESTABLEZIMENDUEN EHUNEKOA, BERRIKUNTZA MOTAREN ETA JARDUERA-ADARRAREN ARABERA

	2009-2011					
	Berrikuntza ez teknologiko mota		Establezimendu berritzaile ez tekn.	Establez. berritzaile teknologikoa (1)	Establez. berritzaileak (1) (teknologikoak edo ez tekn.)	Establez. berritzaileak EIN (2) (teknologikoak edo ez tekn.)
	antolaketakoa	komertzial izaziokoa				
Orotara	21,1	10,7	23,7	30,7	37,8	39,8
Industria	23,2	14,2	28,2	42,6	48,7	51,7
Erauzketa industriak, petrolio findegiak eta koketegiak	-	-	-	10,0	10,0	10,0
Elikagai, edari eta tabako ind.	22,2	24,0	32,4	43,1	53,1	55,4
Ehungintza, joskig., larrug. eta oinetakoak	17,1	.	17,1	27,8	31,2	31,2
Zura, papera eta arte grafikoak	10,1	3,5	11,4	27,3	30,6	30,6
Industria kimikoa eta produktu farmazeutikoak	30,6	22,4	39,7	62,2	65,7	67,1
Kautxua eta plastikoak	25,2	10,8	25,2	34,5	44,5	55,1
Metalurgia eta metalezko produktuak	22,2	16,0	27,3	47,0	51,6	52,6
Prod. informatikoak eta elektronikoak. Material eta ekipo elektrikoa	38,7	13,6	43,8	61,8	68,6	71,1
Makineria eta ekipoa	27,5	18,7	37,2	41,6	47,2	53,4
Garraio materiala	32,3	4,1	32,3	49,6	59,8	64,5
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	17,9	12,5	22,5	27,5	35,4	37,8
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	25,7	5,6	25,7	56,7	65,0	72,4
Ur hornidura eta saneamendua	18,8	2,7	21,5	26,6	31,4	40,4
Eraikuntza	7,3	3,1	7,4	11,1	11,6	13,7
Zerbitzuak	22,4	10,5	24,4	29,1	37,6	39,2
Merkataritza eta ibilgailuen konponketa	14,6	8,5	15,9	20,7	29,1	30,0
Garraio eta biltegiratzea	22,3	2,5	22,8	23,1	32,3	34,4
Ostalaritza	10,4	13,0	14,6	11,6	21,1	21,1
Telekomunikazioak, informatika eta hedabideak	38,0	21,4	42,2	47,9	57,2	58,9
Finantza eta aseguru jarduerak	58,5	55,5	61,1	54,4	66,2	66,7
Higiezinen jarduerak	36,1	8,9	36,1	18,9	36,1	36,1
I+G, aholkularitza eta beste jarduera profesional eta tekniko batzuk	32,4	13,5	33,3	36,8	48,0	53,8
Zerbitzu osagarriak	10,4	5,6	11,6	9,6	16,4	16,4
Bidaia agentziak eta operadore turistikoak	8,3	8,3	12,5	12,5	12,5	16,7
Hezkuntza	18,6	8,0	22,8	46,8	52,7	55,4
Osasun jarduerak	69,5	5,8	69,5	76,9	81,0	81,3
Gizarte, aisialdi, kultur eta beste arloko jarduerak	17,4	6,2	19,1	15,1	25,4	25,4

(1) Ez daude sartuta soilik hasitako edo bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten establezimenduak.
(2) Barruan sartuta daude soilik hasitako edo bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten establezimenduak.
Iturria: EUSTAT. Berrikuntza teknologikoari buruzko estatistika

Estatu kideen artean, herrialde hauetan daude portzentajerik handienak: Alemania (enpresen %79), Luxenburgo (%68), Belgika (%61), Portugal, Suedia eta Irlanda (guztietan % 60). Espainiak %41,4 du, eta hona hemen batez bestekotik urrutien daudenak: Errumania eta Hungaria (%31), Lituania (%30), Polonia (%28) eta Bulgaria (%27).

Sektoreen aldetik, berritzaileak dira industri establezimenduen %48,7, zerbitzuetako %37,6 eta eraikuntzetako %11,6.

Jardueraren azpisektoreetan, hauexek nabarmentzen dira, industrian: produktu informatikoak eta elektronikoak; material eta ekipo elektrikoa (%68,6), industria kimikoa eta produktu farmazeutikoak (sektoreko enpresen %65,7 berritzaileak dira), energia elektrikoa, gasa eta lurruna (%65) eta garraio materiala (%59,8). Zerbitzuetan: osasun jarduerak (%81) eta finantza jarduerak eta aseguruetakoak (%66,2).

Eta berritzaile teknologikoak dira: industri establezimenduen %42,6, zerbitzuetako %29,1 eta eraikuntzetako %11,1. Jardueraren azpisektoreetan, hauexek nabarmentzen dira, industrian: industria kimikoa eta produktu farmazeutikoak (%65,7) eta produktu informatikoak eta elektronikoak; material eta ekipo elektrikoa (%68,6). Zerbitzuetan: osasun jarduerak (%76,9) eta finantza jarduerak eta aseguruetakoak (%54,4).

Hala, 2008-2010eko aldian nabarmendutako berak dira oraindik ere azpisektorerik berritzaileenak.

Berrikuntza teknologikorako jardueretan egindako gastua

Eustaten Berrikuntza Teknologikoaren Inkestako datuen arabera, berrikuntza teknologikorako jardueretan guztira egindako gastua % 3,6 handitu da 2009-2011n 2008-2010eko aldiarekiko; hain zuzen, 2.675,7 milioi eurokoa izan da gastua, BPGaren % 4,04. 9 langile baino gehiagoko enpresak kontuan hartuta, gastua % 2,5 handitu da eta BPGaren % 3,34 da.

Beste urte batez, gastu horren zatitik handiena barruko I+Gari (BPGaren % 2,06 enpresa guztiak kontuan hartuta eta % 1,93 bederatzi langile baino gehiagoko enpresak kontuan hartuta) eta makineriaren erosketari dagokie (BPGaren % 0,82, enpresa guztiak kontuan hartuta eta % 0,61 bederatzi langile baino gehiagoko enpresak kontuan hartuta).

Jarduera-sektorearen arabera, 9 lanpostu baino gehiagoko enpresen artean, industriaren esparruan, gastua arlo hauetan egiten da: garraio-materiala (gastuaren % 11,5), metalurgia eta gai metalikoak (% 8,3), produktu informatikoak eta elektronikoak, material eta ekipamendu elektrikoa (% 7,9) eta makinak eta ekipamendua (% 4,7).

Bestalde, zerbitzuen sektorean, nabarmentzekoa da I+Garen, aholkularitzen eta bestelako jarduera profesional eta teknikoen arloa, gastuaren % 24,5 hartzen baitu.

I.2.49. KOADROA. BERRIKUNTZA JARDUERETAN EGINIKO GASTUA JARDUERA SEKTOREEN ARABERA, 9 LANGILETIK GORAKO ENPRESAK, 2011

	Milakoak	Bertikala (%)
Orotara	2.214.016	
Industria	942.40	42,6
Erauzketa, koketegi eta petrolio findegietako jarduerak	3.870	0,2
Elikagai, edari eta tabako ind.	51.145	2,3
Ehungintza, joskig., larrug. eta oinetakoak	3.608	0,2
Zura, papera eta arte grafikoak	15.345	0,7
Industria kimikoa eta produktu farmazeutikoak	32.960	1,5
Kautxua eta plastikoak	34.350	1,6
Metalurgia eta metalezko produktuak	184.521	8,3
Prod. informatikoak eta elektronikoak. Material eta ekipo elektrikoa	173.911	7,9
Makineria eta ekipoa	104.481	4,7
Garraio materiala	255.042	11,5
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	37.387	1,7
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	34.431	1,6
Ur hornidura eta saneamendua	11.351	0,5
Eraikuntza	33.302	1,5
Zerbitzuak	1.238.313	55,9
Merkataritza eta ibilgailuen konponketa	43.685	2,0
Garraio eta biltegiratzea	23.858	1,1
Ostalaritza	1.583	0,1
Telekomunikazioak, informatika eta hedabideak	155.461	7,0
Finantza eta aseguru jarduerak	21.135	1,0
Higiezinen jarduerak	3	0,0
I+G, aholkularitza eta beste jarduera profesional eta tekniko batzuk	543.111	24,5
Zerbitzu osagarriak	836	0,0
Bidaia agentziak eta operadore turistikoak	226	0,0
Hezkuntza	242.565	11,0
Osasun jarduerak	177.976	8,0
Gizarte, aisialdi, kultur eta beste arloko jarduerak	27.875	1,3

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza teknologikoari buruzko inkesta

I.2.50. KOADROA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO JARDUERETAN EGINIKO GASTUA BPG-AREN GAINEAN

	OROTARA, ENPRESAK					>= 10 LANGILE				
	2007	2008	2009	2010	2011	2007	2008	2009	2010	2011
Orotara (milioi eurotan)	2.609,9	2.782,0	2.753,4	2.581,9	2.675,7	2.030,0	2.193,9	2.219,9	2.159,5	2.214
BPGaren gaineko %	4,0	4,1	4,1	3,95	4,04	3,1	3,2	3,3	3,3	3,34
Barneko I+G	1,7	1,8	1,9	2,08	2,06	1,5	1,7	1,7	1,94	1,93
Kanpoko I+G	0,5	0,6	0,5	0,52	0,54	0,4	0,5	0,4	0,38	0,45
Makineria	1,3	1,2	1,2	0,82	0,82	0,9	0,8	0,7	0,60	0,61
Beste ezagutza batzuk	0,1	0,1	0,1	0,10	0,08	0,1	0,1	0,1	0,06	0,05
Prestakuntza	0,0	0,1	0,1	0,06	0,09	0,0	0,0	0,0	0,04	0,04
Merkaturatzea	0,2	0,2	0,2	0,10	0,07	0,1	0,1	0,1	0,07	0,04
Diseinua eta prestakuntza-lanak	0,1	0,1	0,1	0,27	0,37	0,1	0,1	0,1	0,22	0,22

Iturria: EUSTAT, Berrikuntza teknologikoari buruzko inkesta

Ondorioz, berrikuntzarako jardueren gastuak gora egin du. Enpresa berritzaileen portzentajea, berriz, jaisten ari da, baina joera hori ez da sektore guztietan gertatzen.

2.2.3. Unibertsitateetako ikerkuntza. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskal Herriko Unibertsitatean egiten diren I+G+b jarduerei eta horien neurketari dagokienez, komenigarria da bereiztea funts espezifikoak (kanpoko finantzaketa duten proiektuak, kontratuak eta hitzarmenak, ikerkuntza bekak eta ikerkuntza-azpiegiturako inbertsioak) eta funts orokorrak, irakasleek ikerkuntzara ematen duten denboraren eta horrek dakarren kostu globalaren zenbatespenean oinarrituta: irakasleen gastuak, ondasun eta zerbitzuetako gastuak, inbertsioak eta beste gastu batzuk.

Lehenbizikoetatik ondoriozta daitekeenez, EHUk egindako ikerkuntza jarduerak beherakada nabarmena izan du 2011n (eskuragarri ditugun azken datuak); izan ere, 72,9 mila eurotik 49,6 mila eurora igaro da (-%32) 2010 eta 2011 artean. Hala ere, komeni da kontuan hartzea 2007ko eta 2010eko zifrek Eusko Jaurlaritzaren Ikerkuntza-taldeentzako diru-laguntzak biltzen dituztela, horien zenbateko osoarekin, berdin delarik hainbat urtetarako erabiltzen diren ala ez, gainerako ekintzen finantzaketa islatzeko erabilitako irizpideekin bat etorriz.

1.2.51. KOADROA. I+G+B JARDUERA ONARTU / KONTRATATU MOTEN BILAKAERA (eurotan)

	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Ikerkuntza proiektuak	22.439.020	22.078.138	25.395.032	30.871.317	26.745.792	26.539.707
LOUko 83. artikuluaren araberako I+G kontratuak	13.235.928	12.879.145	11.971.837	12.349.125	11.492.239	10.013.434
Ikerkuntza taldeak*	6.447.949	8.289.127	1.004.766	1.202.900	23.741.678	3.782.468
Ikertzaile/teknikariak kontratatzea	569.210	1.111.497	4.380.476	1.771.170	3.935.608	1.500.947
Prestakuntzako langileak	2.051.638	9.935.973	6.617.646	4.601.721	3.687.198	2.386.392
Azpiegitura zientifikoa	981.772	3.542.695	2.190.378	1.412.019	1.646.001	3.329.225
Ikerlarien mugikortasuna	623.372	801.934	472.872	576.779	487.055	631.348
Ekintza bereziak	2.222.177	868.958	737.984	253.649	96.818	159.765
Ikerkuntza Zerbitzu Orokorrek (SGIKER) emandako zerbitzuak				1.186.629	1.086.098	1.212.746
Beste batzuk**	236.467	1.254.158	2.008.888	0	0	0
OROTARA	**48.807.533**	**60.761.625**	**54.779.880**	**54.225.309**	**72.918.487**	**49.556.033**

** * 2007. eta 2010. urteetako kopuruetan Eusko Jaurlaritzak ikerkuntza-taldeei emandako diru-laguntzen zenbateko osoa sartu da, nahiz eta hainbat urtean erabili, gainerako ekintzen finantzabidea islatzeko erabilitako irizpideekin bat etorriz.*
*** Ikerkuntzaren Hedapena, Komunikazio Sareak eta halako memorietan adieraziak.*
Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea zifratan

I.2.52. KOADROA. I+G+B JARDUEREN BILAKAERA, ARLO ZIENTIFIKOAREN ARABERA

	2007	2008	2009	2010	2011
Zientzia esperimentalak	22.108.443	23.288.301	21.521.867	42.292.722	24.445.991
Ingeniaritza eta arkitektura	18.319.582	9.814.894	15.117.305	12.396.143	9.078.666
Osasun zientziak	5.801.784	3.706.658	4.671.922	5.833.479	4.559.155
Gizarte zientziak eta z. juridikoak	6.983.260	9.050.252	8.044.579	5.104.294	6.060.703
Arteak eta giza zientziak	5.861.931	4.724.586	4.869.636	7.291.849	5.411.518
Hainbat arlo	1.686.625	4.195.191	0	0	0
OROTARA	60.761.625	54.779.880	54.225.309	72.918.487	49.556.033

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea zifratan

I.2.53. KOADROA. I+G+B FUNTSEN (eurotan) JATORRIAREN BILAKAERA

	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Autonomia erkidegoka	11.999.900	15.434.027	15.125.591	17.548.293	17.434.873	15.592.912	36.498.155	11.039.548
Estatukoa	10.592.559	10.195.368	14.037.027	13.964.226	11.265.410	14.580.074	14.461.611	9.839.843
Zuzeneko kontratazioa	9.966.061	9.993.403	13.235.928	12.879.145	11.971.837	12.931.034	11.972.137	10.533.971
Funts propioak (Programa kontratua)	4.482.238	5.483.460	5.665.904	12.670.458	8.347.637	8.036.840	5.558.073	9.273.184
Nazioartekoa	1.965.885	5.456.680	743.083	3.699.503	5.760.123	3.184.448	4.428.511	8.869.487
OROTARA	39.006.788	46.562.937	48.807.533	60.761.625	54.779.880	54.225.309	72.918.487	49.556.033

2002. eta 2003. urteetarako datuak urteko memorietan eskuragarri dagoen informazioa programa-motaren eta finantzabide-iturriaren arabera batuz lortu dira.
Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea zifratan

I.2.54. KOADROA. BESTE EMAITZA BATZUK. PATENTE ERREGISTRATUAK ETA ARGITALPENAK

	Ekoizpen zientifikoa*			Patenteak						
	Zientzia esperiment., teknikoak eta osasunekoak	Gizarte, zuzenbide eta giza zientziak	Orotara	Espainiakoak	Europakoak	EAP** (Luzapen berriak)	Amerik.	Japoniar.	Beste batz.	Eskabideak orotara
2006	1.076	78	1.153	12	2	9	4	-	-	27
2007	1.240	116	1.341	16	8	5	6	-	1	36
2008	1.440	237	1.655	7	8	12	5	2	13	47
2009	1.550	210	1.739	17	13	6	5	0	11	52
2010	1.617	267	1.852	19	8	16	4	0	16	63
2011	1.532	246	1.755	24	8	13	4	1	40	90

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea zifratan

Gehiena, %53,5 (26,5 milioi euro) ikerkuntza-proiektuei dagokie, eta ondoren datoz Unibertsitateen Ordenamenduari buruzko Legearen (UOL) 83. artikuluaren itzalpean izenpeturiko kontratuak, hots, funts guztien %20,2 (10 milioi euro). Urrutiago gelditzen dira ikerkuntza-taldeentzako diru-laguntzak eta ikerlariak eta teknikariak kontratatzeko funtsak, guztizkoaren %7,6 eta %6,7 hurrenez hurren, baita prestakuntzako langileentzakoak ere, guztizkoaren %4,8 hain zuzen ere.

Arlo zientifikoen arabera, I+G+b jardueretako gastua batez ere zientzia esperimentalei eta irakaskuntza teknikoei dagokie. Zehazki, 2011. urtean, zientzia esperimentalak, 42,5 milioi eurorekin, guztiaren %49,4 dira, eta teknikoak (Ingeniaritza eta Arkitektura) 9,1 milioi eurorekin, %18,4.

Nabarmentzekoa da Gizarte Zientzietan eta Zientzia Juridikoetan izandako igoera: 6,1 milioi eurorekin guztizkoaren %12,3 dira.

Funtsen jatorriari dagokionez, lehenik eta behin Eusko Jaurlaritzakoak daude (%22,2), eta ondoren zuzeneko kontratazioa (%21,3) eta Estatuaren ekarpenekoak (%19,85). Nabarmentzekoa da nazioarteko finantzaketa-lerroaren aurrerapena (%17,9); bikoiztu egin da.

Bukatzeko, patenteei dagokienez, emaitzak urriak dira oraindik ere, baina ugaritzen ari dira. Hala, 90 patente erregistratu ziren 2011n. Bestalde, argitalpen kopurua pixkanaka hazi zen 2010era arte, 1.852 hain zuzen, baina 2011n behera egin du, 1.755 izateraino. Gehienak zientzia esperimentaletan, zientzia teknikoetan eta osasun zientzietan izandako argitalpenei dagozkie (1.532).

2.2.4. IKTen ekipamenduak eta erabilerak EAEn

Etxeetan

Eustaten Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestak agertzen duenez (urteko lehenengo hiruhilekoko datuak) IKTen ekipamendu zabalduenak honako hauek dira 2012an: sakelako telefonoa (familia inkestatuen % 91,4ak diote ekipamendu hori badutela), telebista teletestuduna (familien % 90,9), DVDa (% 66,1) eta ordenagailua (% 63,2).

Nolanahi ere, ekipamenduaren araberako analisia eginez gero, agerian geratzen dira horien artean dauden aldaketak, ordezko ondasunak egonkortzearen ondorioz. Hori da bideoaren kasua, pisua galtzen ari baita, DVDa zabaltzearen ondorioz.

Familia motaren arabera, aurreko urteetan ikusitako joerari eusten zaio, halako moldez non seme-alabak dituzten familiak baitira orain ere ekipamendu mailarik handiena dutenak (seme-alabak dituzten familien %81,6k ditu ekipamenduak 2012ko lehen hiruhilekoan). Bigarrenik, seme-alabarik gabeko familiak daude, eta ondoren pertsona bakarreko etxeak.

Eurostatekin konparatzeko, beharrezkoa da analisia gutxienez 16-74 urteko kide bat duten etxeen portzentajearekin egitea. Hala, EAEk %67,5eko ratioa du, eta Europako batez bestekoaren azpitik dago (%76); eta oso urrutik dago erreferentziako herrialdeetatik: Islandia (%95), Holanda (%94), Norvegia eta Luxenburgo (%93), Suedia (%92), Danimarka (%92), Finlandia (%87), Alemania (%85) eta Erresuma batua (%83, 2011ko datua).

I.2.55. KOADROA. FAMILIAK ETXEAN IKT-EN EKIPAMENDUA ERABILTZEAREN ARABERA (%) I. hiruhilekoa

		2009	2010	2011	2012
Orotara (milatan)		825,2	834,7	846,3	856,3
IKTen ekipamenduak	Ordenagailua	60,0	61,4	62,4	63,2
	Internet	51,9	54,9	57,0	58,4
	Telefono mug.	89,0	90,1	90,1	91,4
	Emaila	-	-	55,1	56,9
Telebista ekipamenduak	Bideoa	56,7	48,7	43,3	36,0
	DVDa	-	-	70,1	66,1
	Teletestua	83,0	90,0	89,2	90,9
	Kable bidezko TB	-	-	28,4	26,0
	Ordaintzeko TB	12,0	10,3	13,3	13,4
	Internet bidezko TB	0,0	3,8	3,3	3,2

Iturria: EUSTAT, ESIF. Prentsa-oharra eta taulak

15 urte edo gehiagoko biztanleak. Ordenagailuaren sarrera eta Internet konexioa eta erabilera

Etxeetan/familietan izandako IKT ekipamenduen sarrerarekin gertatu bezala, IKTak zabaltzen ari dira oraindik 14 urtetik gorako biztanleen artean, bideoaren, kable bidezko telebistaren eta internet bidezko telebistaren kasuan izan ezik.

PCaren eremura eta Internet konexiora mugatuta, ikusten da 2011ko lehenengo hiruhilekoaren eta 2012ko lehenengoaren artean ordenagailuaren sarrera sei hamarren igo dela eta biztanle horien artean % 71,8ra iritsi dela. Bestalde, etxean internet duten 15 urteko edo gehiagoko biztanleen portzentajea hazi egin da, %65,7tik %66,9ra, eta posta elektronikoa duten 14 urtetik gorako biztanleenak %64tik %65,6ra egin du gora.

Aurreko urteetan bezala, generoaren, adinaren, ikasketa-mailaren eta lan-egoeraren araberako azterlanetik ondorioztatzen da oraindik ere badirela desberdintasunak hala sarreran nola erabileran. Beraz, oraindik ere bada taldeen arteko arrakala digitala, eta horrek gizarte-taldeen ongizatea bera ere baldintza dezake.

Sarrera, generoaren arabera: Gora egin du sarrera tasa gizonezkoetan (0,9 puntu) eta pixka bat emakumezkoenetan ere (0,2) 2012an. Bestalde, bi

sexuetan egin du gora interneteko konexioko sarrera tasak. Konparazioz, sarrera-tasak handiagoak dira gizonezkoetan emakumezkoetan baino, eta arrakala handiagoa da 2011n erregistratutakoa baino. Hain zuzen, 2011. urtean, aldea, ordenagailuaren sarrerari dagokionez, 6,4 puntukoa zen, eta 2012an 7,1ekoa. Internet konexioari dagokionez, 2011. urtean 6,4 puntukoa zen aldea, eta 2012. urtean ere 6,6 puntuetara iritsi da.

Interneten erabilera, generoaren arabera: Tasa handitu egin da bi sexuetan, eta bien artean dagoen aldeari eusten zaio 2011koarekiko. Hala, erabilera tasa %61,7koa da gizonezkoetan eta %53,8koa emakumezkoetan. 2011n 8 puntuko aldea zegoen bi sexuen artean; 2012an, berriz, 7,9koa da.

Sarrera, lan egoeraren arabera: Ikasten eta/edo lanean ari diren biztanle-taldeen artean daude, berriro ere, ordenagailu-zuzkiduraren eta Internet konexioaren tasarik handienak, eta tasa horiek nabarmen gutxitzen dira pertsona ez-aktiboak eta/edo langabeak direnean. Hala, ikasleen artean ordenagailuaren sarrera-ratioa % 96,5etik gorakoa da eta Internet konexioarena % 94,6koa; ez-aktiboen/langabeen artean ez dira iristen, hurrenez hurren, % 50era eta % 45era.

Interneten erabilera, adinaren arabera: Erabilera-ratioak ere gutxitu egiten dira adinarekin, baina kasu honetan nabarmenagoak dira adin txiki eta handienekoen taldeen arteko aldeak. Hala, 15 eta 24 urte bitarteko EAEko biztanleen % 96, erabiltzaileak dira, eta 45 urtetik gorakoen artean % 35,6.

I.2.56. KOADROA. ETXETIK INTERNETEKO ATZIPENA DUTEN FAMILIAK. URTEKO BATEZ BESTEKOA (%)

	2008	2009	2010	2011	2012
EB27	60	66	70	73	76
Belgika	64	67	73	77	78
Bulgaria	25	30	33	45	51
Txekiar Errep.	46	54	61	67	71
Danimarka	82	83	86	90	92
Alemania	75	79	82	83	85
Estonia	58	63	68	71	75
Irlanda	63	67	72	78	81
Grezia	31	38	46	50	54
Espainia	51	54	59	64	68
Frantzia	62	69	74	76	80
Italia	47	53	59	62	63
Zipre	43	53	54	57	62
Letonia	53	58	60	64	69
Lituania	51	60	61	62	62
Luxenburgo	80	87	90	91	93
Hungaria	48	55	60	65	69
Malta	59	64	70	75	77
Holanda	86	90	91	94	94
Austria	69	70	73	75	79
Polonia	48	59	63	67	70
Portugal	46	48	54	58	61
Errumania	30	38	42	47	54
Eslovenia	59	64	68	73	74
Eslovakia	58	62	67	71	75
Finlandia	72	78	81	84	87
Suedia	84	86	88	91	92
Erresuma Batua	71	77	80	83	-
Islandia	88	90	92	93	95
Norvegia	84	86	90	92	93
EAE	55,9	59,6	62,9	65,8	67,5

*** 16-74 urteko biztanleak**
Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT, Informazioaren Gizarteari buruzko inkesta (IGI-Familiak).

I.2.57. KOADROA. 15 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLEAK ETXEAN IKT EKIPAMENDUAK ERABILTZEAREN ARABERA (%) I. Hiruhilekoa

		2009	2010	2011	2012
Orotara (milatan)		1.838,7	1.883,5	1.885,4	1.889,9
IKT ekipamenduak	Ordenagailua	68,2	70,2	71,2	71,8
	Internet	59,4	63,9	65,7	66,9
	Telefono mugikorra	93,1	94,0	94,3	94,9
	Emaila	-	-	64,0	65,6
Telebista ekipamenduak	Bideoa	60,6	52,5	47,0	39,2
	Teletestua	87,0	91,8	90,9	92,5
	Ordaintzeko TB	13,6	11,3	14,6	15,7
	Kablez bidezko TB	-	-	31,2	28,1
	Internet bidezko TB	0,0	4,1	3,6	3,3

Iturria: EUSTAT, ESIF

Sarrera, ikasketa mailaren arabera: Zenbat eta ikasketa maila handiagoa izan, orduan eta handiagoak dira ordenagailuen sarrera eta interneteko konexioa, eta tasek gora egin dute aurreko urteekin alderatuta, salbu eta oinarrizko hezkuntza dutenekin. Hala, goi-mailako ikasketak dituzten 15 urtetik gorakoen %92,7k ordenagailua du, baina %82,1era murrizten da bigarren mailako ikasketak dituztenekin eta %36,8ra oinarrizko ikasketen jabeekin (nabarmentzekoa da behera egin duela ratioak 2011rekiko, %37). Interneteko konexioei dagokienez, jokaera bera ikus daiteke: zenbat eta ikasketa mailago handiagoa izan, orduan eta ratio handiagoa, baina portzentaje txikiagoak dira: %87,5 goi-mailako ikasketak dituztenentzat, %77 bigarren mailako ikasketak dituztenentzat eta %32,7 oinarrizko ikasketetakoentzat.

Interneten erabilera ikasketa mailaren arabera: Aurreko kasuan bezala, zenbat eta ikasketa maila handiagoa izan, orduan eta interneteko konexio gehiago.

Sarrera, lan-egoeraren arabera: Ikasten eta/edo lanean ari diren biztanle-taldeen artean daude, berriro ere, ordenagailu-zuzkiduraren eta Internet konexioaren tasarik handienak, eta tasa horiek nabarmen gutxitzen dira pertsona ez-aktiboak eta/edo langabeak direnean. Hala, ikasleen artean ordenagailuaren sarrera-ratioa % 96,5ekoa da eta Internet konexioarena % 94,6koa; ez-aktiboen/langabeen artean ez dira iristen, hurrenez hurren, % 50era eta % 45era.

Interneten erabilera lan egoeraren arabera: Aurrez azaldutakoaren antzeko egoera ikusten da Interneten erabileran ere; ikasten ari diren pertsonen % 97,9k erabiltzen duten Internet, eta soilik lanik gabe edo aktibo ez daudenen % 28,7k. Bereziki nabarmentzekoa da ikasleen erabilera-ratioa konexioarena baino handiagoa dela oraindik ere (% 97,9 vs % 94,6); horren arrazoia da etxetik kanpo sartzen direla.

I.2.58. KOADROA. ORDENAGAILUAREN SARRERA ETA INTERNET KONEXIOA ETA ERABILERA EAE-KO 14 URTETIK GORAKO BIZTANLEEN ARTEAN, EZAUGARRIEN ARABERA (%)

		Ordenagailua etxean					Internet									
							Interneteko konexioa etxean					Erabilera				
		I 2011	I 2012	Dif. 2011-12	Dif. 2011ko b.b.	Dif. 2012ko b.b.	I 2011	I 2012	Dif. 2011-12	Dif. b.b. 2011	Dif. 2012ko b.b.	I 2011	I 2012	Dif. 2011-12	Dif. 2011ko b.b.	Dif. 2012ko b.b.
15 urte edo gehiagoko biztanleak		71,2	71,8	0,6	0	0	65,7	66,9	1,2	0	0	56,8	57,6	0,8	0	0
Sexua	Gizonak	74,5	75,4	0,9	3,3	3,6	69	70,3	1,3	3,3	3,4	60,9	61,7	0,8	4,1	4,1
	Emakumeak	68,1	68,3	0,2	-3,1	-3,5	62,6	63,7	1,1	-3,1	-3,2	52,9	53,8	0,9	-3,9	-3,8
Adina	15-24	97	95	-2	25,8	23,2	93,8	93,1	-0,7	28,1	26,2	96,3	96	-0,3	39,5	38,4
	25-34	86	87	1	14,8	15,2	80,8	78,8	-2	15,1	11,9	85,4	85,1	-0,3	28,6	27,5
	35-44	86,2	84,9	-1,3	15	13,1	78,1	78,8	0,7	12,4	11,9	79	78,6	-0,4	22,2	21
	45 eta gehiago	57,1	58,6	1,5	-14,1	-13,2	52	54,6	2,6	-13,7	-12,3	33,6	35,6	2	-23,2	-22
Ikasketa maila	Oinarrizkoa	37	36,8	-0,2	-34,2	-35	32,5	32,7	0,2	-33,2	-34,2	9,5	9,3	-0,2	-47,3	-48,3
	B. mailakoa	81,9	82,1	0,2	10,7	10,3	75,9	77	1,1	10,2	10,1	69,5	69,4	-0,1	12,7	11,8
	Goi mail.	92,6	92,7	0,1	21,4	20,9	86,9	87,5	0,6	21,2	20,6	90,3	91,9	1,6	33,5	34,3
Jarduerarekiko harremanak	Ikaslea	97,4	96,5	-0,9	26,2	24,7	94,1	94,6	0,5	28,4	27,7	97	97,9	0,9	40,2	40,3
	Okupatua	87,6	88,1	0,5	16,4	16,3	81,3	82,8	1,5	15,6	15,9	76,3	78	1,7	19,5	20,4
	Ezaktiboa/aktiboa	47,4	49,9	2,5	-23,8	-21,9	42,4	45	2,6	-23,3	-21,9	26,6	28,7	2,1	-30,2	-28,9

Iturria: Eustat "ESIF".

Oinarrizko IKTen hornidura (PCa, posta elektronikoa, Internet eta sakelako telefonoa) enpresetan

Enpresetan eginiko Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestaren azken edizioak (IGI-enpresak) erakusten du oraindik ere hazten ari dela euskal enpresetan IKT ekipamenduak txertatzeko prozesua.

Ekipamendurik zabalduena sakelako telefonoa da oraindik ere, eta horren ondotik daude ordenagailu pertsonala, Interneterako sarbidea eta posta elektronikoa. Hala, establezimenduei dagokienez, langileen eskura sakelako telefonoa ipintzen dutenen portzentajea % 82,1era iritsi da (jaitsiera txikia dago aurreko urtearekiko: %82,8); ordenagailu pertsonala dutenak %77,5 dira; internet dutenena, berriz, %73,8; posta elektronikoa dutenak %73,2 dira eta web orria dutenak %40,2. Jarduera sektoreen arabera, berriz ere nabarmentzen da argi eta garbi industria gainerako sektoreen aldean.

Bestalde, enpleguari dagokionez: langileen % 65,2k du ordenagailu pertsonala, % 57,3k helbide elektronikoa eta % 55,9k Internet. Jarduera sektorearen arabera, beste urte batez, aurreko kasuan ez bezala (establezimenduen %), zerbitzuen sektorea nabarmentzen da. Horren arrazoia hauxe da, funtsean: zerbitzuen sektorean halako ekipamenduak sartzeko eta erabiltzeko joera handiagoa duten jarduerak daudela. Horien artean aipatzekoak dira teknologia berriei, finantza-bitartekaritzari eta enpresentzako zerbitzuei loturikoak.

Enplegu-mailaren araberako analisiak lehenik eta behin erakusten du IKT ekipamenduak zabalduago daudela establezimenduaren tamaina handitu ahala. Bigarrenik, enplegu gehiago izan ahala, hobetzeko marjina txikiagoa dagoenez gero, ekipamenduen gehikuntzak murritzagoak dira; hain zuzen ere, enpleguaren estratu batzuetan erorketa txikiak gertatzen dira berriro ere. Eta, hirugarrenik, bi alderdi horiek gehiago ikusten direla establezimenduetan enpleguan baino. Arrazoia, besteak beste, establezimendu txikiek edukitako garapen handiagoa da, eta, halaber, establezimendu handietan langile guztiek ez dutela ekipamendu horietara iristeko aukerarik.

Joera horiek ikusten dira Europa mailan ere, non, EUROSTATen datuen arabera, asebetetze-mailara iristen ari da interneten sarrera. Hala, 2012an, enpresen %95ek zuen interneterako atzipena EB-27n. Ratiorik handienak dituztenak: Lituania, Holanda eta Finlandia (hiru estatuetan %100eko ratioak), Danimarka, Frantzia eta Islandia (%99) eta Luxenburgo, Austria, Eslovenia, Eslovakia eta Suedia (horietan guztietan %98).

Bestalde, gorako joera ageri da ere banda zabaleko sare finkoen atzipena duten enpresen ehunekoan, eta %90ekoa da EB-27n 2012an. Ratiorik altuenak Finlandian eta Islandian (%98), Eslovenian eta Frantzian (%97), Holandan (%96), Espainian, Lituanian eta Luxenburgon (%95) daude.

I.2.59. KOADROA. IKT EKIPAMENDUEN EAE-KO ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA (Establezimenduen %)

	Industria					Eraikuntza					Zerbitzuak					OROTARA				
	PCa	e-maila	Internet	Mugik.	Weba	PCa	e-maila	Internet	Mug.	Weba	PCa	e-maila	Internet	Mugik.	Weba	PCa	e-maila	Internet	Mugik.	Weba
2008	80,8	73,1	74,5	84,8	36,1	73,9	58,1	65,1	92,2	18,3	74,4	63,5	65,8	76,3	31,9	74,8	63,5	66,4	79,2	30,3
2009	82,9	76,0	77,0	85,5	42,9	74,1	62,8	66,8	91,1	17,1	75,7	66,8	69,5	77,1	34,3	76,0	66,9	69,6	79,8	32,4
2010	83,0	77,6	78,7	89,1	44,6	76,3	64,8	67,9	91,0	21,8	75,9	68,2	69,5	79,1	35,3	76,5	68,3	69,9	81,7	33,9
2011	83,8	78,6	79,1	88,9	49,3	74,4	67,5	71,0	94,4	26,6	77,1	70,5	72,0	80,0	38,1	77,2	70,7	72,4	82,8	37,3
2012	86,6	82,7	82,6	90,2	51,7	70,4	67,3	67,8	90,0	27,6	77,9	73,4	74,0	79,9	41,3	77,5	73,2	73,8	82,1	40,2

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak

I.2.60. KOADROA. ENPRESEN IKT-EN EKIPAMENDUA TAMAINAREN ARABERA (IKTak dituzten establezimenduen edo langileen %)

	Ordenagailu pertsonala				Posta elektronikoa				Internet				Web or.	
	Estab. gaineko %		Enpleg. gaineko %		Establ. gaineko %		Enpleguaren gaineko %		Establ. gaineko %		Enpleg. gaineko %		Establ. gaineko %	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012
Orotara	77,2	77,5	63,8	65,2	70,7	73,2	55,3	57,3	72,4	73,8	54,3	55,9	37,3	40,2
0 - 2	66,0	66,3	59,4	62,0	58,8	62,4	51,2	56,8	61,2	63,5	54,5	58,6	21,9	25,6
3 - 9	89,2	89,2	62,9	65,0	82,4	84,0	53,3	55,7	83,4	83,9	54,6	56,4	50,8	52,8
10 -19	97,1	97,6	63,9	62,9	95,1	95,2	56,7	55,5	95,1	94,4	57,3	54,8	71,1	72,4
20 - 49	98,9	98,6	60,9	62,2	98,1	97,4	53,5	55,1	97,1	96,8	52,7	54,4	81,5	84,0
50 - 99	100,0	100,0	66,8	66,6	100, 0	99,6	59,1	59,7	100, 0	99,6	57,3	57,3	92,6	90,7
>= 100	99,7	99,9	65,6	67,5	99,7	99,8	56,6	58,6	99,7	99,8	51,9	54,3	93,2	94,3

Iturria: EUSTAT IGI enpresak

I.2.61. KOADROA. IKT-EN ENPRESA EKIPAMENDUAREN BILAKAERA (IKTak dituzten langileen ehunekoa)

	Industria			Eraikuntza			Zerbitzuak			OROTARA		
	PCa	e-maila	Internet	PCa	e-maila	Internet	PCa	e-maila	Internet	PCa	e-maila	Internet
2008	46,5	36,4	32,1	41,8	35,8	38,5	68,5	56,3	57,5	60,5	49,5	49,5
2009	49,8	39,0	35,1	42,1	38,0	37,6	70,0	60,0	61,2	62,5	52,8	52,7
2010	51,3	40,6	36,6	46,2	41,0	42,2	71,2	62,1	61,6	64,1	55,0	53,8
2011	50,4	40,1	36,5	48,4	45,7	46,5	70,2	61,4	61,1	63,8	55,3	54,3
2012	51,4	42,0	38,1	42,7	41,2	40,3	72,4	64,1	63,4	65,2	57,3	55,9

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak

I.2.62. KOADROA. INTERNETEKO ATZIPENA DUTEN ESTABLEZIMENDUEN % EAE-N, ERABILERA MOTAREN ARABERA

	Establezimenduen gaineko %			Industria			Eraikuntza			Zerbitzuak			9 langile baino gehiago		
	2010	2011	2012	2010	2011	2012	2010	2011	2012	2010	2011	2012	2010	2011	2012
Dokumentuen bilaketa	97,1	97,6	97,3	97,2	98,7	99,2	95,0	97,9	98,3	97,6	97,5	96,9	97,8	97,1	97,8
Hornitzaile-bezeroen datu-baseetarako sarbidea	40,7	42,7	44,8	45,4	46,4	48,8	37,6	42,5	40,2	40,8	42,4	45,1	53,5	55,6	55,9
Prestakuntza: prestakuntza-materialerako sarbidea	45,0	50,7	51,5	40,3	45,1	45,6	32,8	41,8	34,4	47,9	53,0	54,9	60,8	67,2	70,7
Ondasunen eta zerbitzuen erosketa	19,6	19,5	21,8	22,2	19,8	21,0	7,1	10,6	13,9	21,9	21,2	23,1	20,9	20,7	22,1
Ondasunen eta zerbitzuen salmenta	4,9	5,3	5,4	6,9	7,8	10,0	0,4	1,8	2,5	5,6	5,7	5,4	8,3	8,7	10,0
Administrazio publikoko izapideak egitea	61,4	61,8	64,0	62,9	61,9	63,8	60,6	63,6	68,0	61,5	61,4	63,3	84,9	85,2	87,8
Bankuko edo finantza arloko informazioa lortzea	76,2	75,8	75,9	84,1	85,5	83,1	78,1	78,4	78,8	74,9	74,3	74,7	84,2	84,7	83,7
Lehiatzaileen analisia	28,3	30,7	33,3	33,8	36,8	40,6	17,5	24,2	20,9	29,9	31,3	34,6	47,3	48,8	49,4
Langileak biltzea	17,4	18,7	17,3	17,3	20,3	19,4	10,5	13,9	12,8	18,9	19,4	17,8	38,0	39,6	39,0
Saldu ondoko zerbitzuak lortzea	22,0	25,1	25,5	21,3	22,3	25,9	16,0	19,3	19,0	23,3	26,5	26,5	34,5	36,3	37,9
Produktu digitalak jasotzea edo jaistea	35,9	41,0	42,9	40,9	40,2	45,3	26,5	34,6	29,4	37,3	42,3	44,9	52,9	57,7	59,6
Banku/finantza transakzioak egitea	65,6	65,8	64,4	70,5	76,3	73,4	67,0	69,6	58,2	64,8	64,0	64,4	75,0	76,6	74,6
Enpresaren sistema informatikoetan urrutitik sartzea	-	-	32,7	-	-	33,0	-	-	26,3	-	-	33,7	-	-	57,3

Iturria: EUSTAT, IGI-enpresak

I.2.63. KOADROA. INTERNETEKO ATZIPENA DUTEN ENPRESAK (%)			
	2010	2011	2012
EB27	94	95	95
Belgika	97	96	97
Bulgaria	85	87	87
Txekiar Errepublika	95	96	97
Danimarka	97	98	99
Alemania	97	97	97
Estonia	96	96	96
Irlanda	92	93	94
Grezia	90	93	91
Espainia	97	97	96
Frantzia	97	96	99
Italia	94	94	96
Zipre	88	91	95
Letonia	91	92	91
Lituania	96	98	100
Luxenburgo	96	97	98
Hungaria	90	89	89
Malta	94	95	95
Holanda	98	100	100
Austria	97	98	98
Polonia	96	94	93
Portugal	94	95	95
Errumania	79	79	79
Eslovenia	97	97	98
Eslovakia	98	97	98
Finlandia	100	100	100
Suedia	96	96	98
Erresuma Batua	91	95	94
Islandia	98	-	99
Norvegia	97	97	97
Kroazia	95	96	96
Iturria: EUROSTAT			

IKTen erabilera enpresan: Interneten erabilera

Euskal enpresek Interneti emandako erabilera motari dagokionez, lehenik eta behin dokumentazio bilaketa dago (%97,3); bigarrenik, bankuetako informazioa edo informazio finantzarioa eskuratzea (%75,9); hirugarrenik, bankuko transakzioak edo transakzio finantzarioak egitea (%64,4); eta laugarrenik, Administrazio Publikoko izapideak egitea (% 64). Bigarren taldea honako hauek osatzen dute: prestakuntza: prestakuntza-materialetarako sarbidea (% 51,5); hornitzaile-bezeroen datu-baseetarako sarbidea (% 44,8) eta produktu digitalak jasotzea edo jaistea (% 42,9).

Ondasun eta zerbitzuen erosketari dagokionez izan ezik, dinamismo handiagoa ageri da enpresa handienen taldean, hots, 9 langiletik gorako enpresetan.

Administrazio elektronikoa

Justizia eta Herri Administrazio Sailaren datuen arabera, EAEn bizi diren 16-74 urteko milioi erdi biztanlek baino gehiagok erabili zuten 2012an administrazioek herritarrekin batera jarduteko eskaintzen dituzten posibilitateetako bat, hots, populazio guzti horren %31,4k. Era askotako erabilerak daude: informazioa lortzea, formularioak jaistea edo izapide edo prozedura bat telematika bidez izapidetzea.

Seriea dugunetik lehen aldiz erregistratu da erabileraren jaitsiera: %1,5 gutxiago. Administrazio elektronikoaren erabileran aldea dago emakume eta gizonen artean, eta betidanik negatiboa izan da emakumeentzat. Hala ere, joera aldatu egin da pixka bat, eta ia ehuneko bateko diferentzia dago emakumeen alde (%31 eta %31,9).

Enpresa sareari dagokionez, orotara EAEko 84.515 establezimenduk (lehen sektorekoak kenduta) erabili zuten administrazio elektronikoa 2011n, guztizkoaren %47,2k, eta bostetik lautik gorakoa da 10 langileko edo gehiagoko establezimenduetan (%84,9).

2000 eta 2011 urte bitartean, ia bederatzi aldiz handitu da administrazio elektronikoa erabiltzen duten enpresen kopurua. 2010ean jaitsiera izan zen establezimendu kopuruak behera egin zuelako (-%5,8 establezimendu), baina 2011n gainditu egin ziren pixka bat 2009ko kopuruak: erabiltzaileen %2,5eko igoera 2010eko datuekiko.

2.2.5. Merkataritza elektronikoa EAEn. Familiak eta erabiltzaileak

Familiak eta erabiltzaileak

INEren datuen arabera, interneteko erabiltzaile guztien (16-74 urte) kopuruan, inkestaren erreferentziako aldian, igoera ageri da azken hilean internet bidez erosi dutenen kopuruan; izan ere, %19,3ko ratiotik %24,6ra igaro da 2011 eta 2012 urte artean. Estatuan ere ikusten da jokaera hori: %16,6tik %18,5era igo da.

I.2.64. KOADROA. ADMINISTRAZIO ADIERAZLEAK

	2000	2003	2008	2009	2010	2011	2012
Administrazio elektronikoa erabili duten 16-74 urteko biztanleak (%)	-	15,4	26,3	30,7	32,2	32,9	31,4
Administrazio elektronikoa erabili duten establezimenduak*. (Establezimendu guztien gaineko %)	5,9	16,1	41,6	43,0	44,7	47,2	-
Administrazio elektronikoa erabili duten 9 langiletik gorako establezimenduetan* (Establezimendu guztien gaineko %)	33,6	53,9	78,9	81,6	82,8	84,9	-

Iturria: Justizia eta Herri Administrazio Saila. Administrazio Elektronikoaren Barometroa
(*) Ez dira sartzen nekazaritzako establezimenduak. 'Administrazio elektronikoa erabili dutela' esaldiak esan nahi du herri administrazioen atarietan prestatu direla, formularioak elektronikoki jaitsi edo bidali dituztela edo izapide edo prozedura bat osorik telematika bidez izapidetu dutela.

I.2.65. KOADROA. AZKEN 3 HILEAN INTERNET ERABILI ETA ELEKTRONIKAREN BIDEZ EROSI DUTEN PERTSONAK

	2010		2011		2012	
	Estatua, orotara	EAE	Estatua, orotara	EAE	Estatua, orotara	EAE
Azken 3 hileetako interneteko erabiltzaileak	22.207.773	1.078.127	23.196.058	1.144.754	24.075.125	1.200.375
Azken hilean erosi duten pertsonen %	15,5	17,1	16,6	19,3	18,5	24,6
Orain 1 hilabete baino gehiago eta 3 hilabete baino gutxiago erosi duten pertsonen %	11,5	14,1	11,5	12,7	13,4	14,8
Orain 3 hilabete baino gehiago eta urtebete baino gutxiago erosi duten pertsonen %	10,8	14,4	12,3	13,8	12,4	16,2
Orain urtebete baino gehiago erosi duten pertsonen %	7,3	9,5	6,7	7,3	6,6	7,1
Internet bidez erosi ez duten pertsonen %	54,8	44,9	52,9	46,8	49,1	37,4

Iturria: INE

I.2.66. KOADROA. AZKEN 3 HILEAN INTERNET ERABILI DUTEN ETA INTERNET BIDEZ EROSI DUTEN PERTSONAK; ETA EROSI EZ DUTEN PERTSONAK, 2012

	Azken hilean erosi dutenak	Internet bidez erosi ez dutenak
Estatua guztira	18,5	49,1
Andaluzia	14,6	55,6
Aragoi	21,8	46,4
Asturias	23,7	41,8
Balearrak	16,3	46,2
Uharte Kanariarrak	13,3	57,1
Kantabria	21,1	44,8
Gaztela eta Leon	15,7	53,8
Gaztela-Mantxa	16,1	52,7
Katalunia	19,5	46,6
Valentzia	15,9	54,6
Extremadura	13,8	55,3
Galizia	18,2	48,5
Madril	25,6	41,2
Murtzia	12,3	54
Nafarroa	21,1	40,9
EAE	24,6	37,4
Errioxa	15,5	49,7

Iturria: INE

Internet bidez erosi ez duten pertsonen portzentajea kontuan izanda ondoriozta daitekeenez, EAEk tokirik onena betetzen du autonomia erkidegoen rankinean, %37,4arekin, zeren autonomia erkidego batek ere ez baitu ehuneko txikiagorik.

Bestalde, azken hilean erosi duten pertsonen portzentajea aztertuta (%24,6), autonomia erkidego bakarra da aktiboagoa: Madril (%25,6).

Alabaina, merkataritza elektronikoak EAEn duen hedadura oso urruti dago EBtik. Izan ere, EUROSTATen arabera, EB-27n azken hiru hilean internetez erosi duten pertsonen portzentajea %34 da eta eurogunean %33. EUROSTATek %17ko datua ematen du 2010erako eta %19koa 2011n. Merkataritza horretarako joera handiena duten herrialdeen artean, hauexek daude: Erresuma Batua (%64), Danimarka (%57), Norvegia (%57), Alemania (%54), Holanda (%53), Suedia (%53) eta Luxenburgo (%52).

2012an, helburu pribatuarekin edo etxean erabiltzeko internetez EAEn azken 12 hilean gehien erositako lau produktuak, INEren arabera, 2011n erregistraturiko berberak izan dira, baina gora egin du produktuok erosten dituztenen kopuruak, kirol materialean eta arropan izan ezik: oporretarako ostatua (hotela, apartamentua, etab.) Internetez azken 12 hilean erosi dutenen %73,4k erosia; bidaietarako bestelako zerbitzuak (garraio publikoko txartelak,

autoen alokairua), %57,9; ikuskizunetarako sarrerak (zinema, antzerkia, kontzertuak, etab.), %51,6, eta kirol material eta arropa, %41,1 (aurreko aldian %44,4 izan zen)

Estatuan, lau eremu hauetan erosi da gehien: oporretako ostatua (hotela, apartamentua, etab., interneten azken 12 hilean erosi dutenen %54,6k erosiak; bidaietarako bestelako zerbitzuak (garraio publikoko txartelak, autoen alokairua), %49,7; ikuskizunetarako sarrerak, %40,3 eta kirol materiala eta arropa, %32,8.

Enpresak

Eustaten datuen arabera, EAEko enpresa-ehunean merkataritza elektronikoa sortzen dituzten zenbaki ekonomikoetan handitu da, eta bertan parte hartzen duten enpresen kopurua ere areagotu da.

2011. urtean sarearen bidez edo bestelako sistema elektronikoen bidez (EDI, datu elektronikoen trukea eta abar) sortutako negozio-bolumena 10.530,4 milioi eurokoa izan zen, salmenta elektronikoei dagokienez, eta 6.649,3 milioikoa, erosketei dagokienez. Hau da, aurreko urtearekin alderatuz, % 20 igo da salmenten arloa eta % 25,8 erosketen arloa.

Jarduera-sektorearen arabera, industriak sortzen du negozio-bolumenik handiena (8.810,4 milioi euro erosketen eta salmenten artean), eta ondoren zerbitzuek (8.094,4 milioi euro). Eraikuntzak elektronikoki sortutako negozio-kopurua oso txikia da (274,9 milioi).

Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen portzentajea (zentzu zabalean) %2 igo da: 2010eko %15,1etik 2011ko %17,3ra.

Nahiz eta zifra ekonomikoetan salmentak erosketak baino gehiago izan, partaidetzan, produktuak bide elektronikoetatik erosten dituzten establezimenduen kopurua askoz ere handiagoa da saltzen dutenena baino. Are gehiago esatearren, erosketak egiten dituzten establezimenduek ematen dute gehienbat %17,3ko proportzioa, saltzen dutenak %4,1 besterik ez baitira.

Zenbatesten da halako establezimenduek prozedura elektronikoen bidez egiten dituzten erosketak beren erosketa guztien % 30,8 direla, eta salmentak, berriz, salmenta guztien % 39,3.

I.2.67. KOADROA. MERKATARITZA ELEKTRONIKOA HELBURU PRIBATUETARAKO EDO ETXERAKO ERABILTZEA (ehuneko bertikaletan)

	2011		2012	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE
Internet bidez azken 12 hilean erosi dutenen guztizkoa	9.420.707	526.567	10.704.452	666.862
Elikagaiak	11,7	15,7	13,5	18,2
Etxerako ondasunak (altzariak, jostailuak, etab.)	17,8	27,3	21,8	31,9
Medikamentuak	0,9	1	1,1	0,7
Filmak, musika	10,9	10,1	11,8	16,2
Liburuak, aldizkariak, egunkariak (liburu elektronikoak barne)	17,7	24,2	19,2	25
Prestakuntza materiala on line	8,2	10,4	9,5	13,6
Kirol materiala eta arropa	30,5	44,4	32,8	41,1
Ordenagailu eta bideo-kontsolen softwarea eta horien eguneratzeak	10,5	9,3	12,6	13,3
Ordenagailuaren beste software bat eta horren eguneratzeak	11,5	12,3	11,8	18,8
Ekipo informatikoa (ordenagailuak eta osagarriak)	14,2	11,6	16,7	16
Ekipamendu elektronikoa (kamerak, adibidez)	16,9	18,5	17	21,7
Telekomunikazio zerbitzuak (banda zabaleko izen-emateak, telefono lineako kontratuak, telefono txartelak kargatzea, etab.)	9,4	11,6	11,4	12,6
Akzioak erostea, aseguru-polizak edo beste finantza zerbitzu batzuk	5,6	11,1	7,1	11,1
Oporraldietako ostatua (hotela, apartamentua, etab.)	52,9	55,9	54,6	73,4
Bidaietarako beste zerbitzu batzuk (garraio publikoko txartelak, autoen alokairua, etab.)	49	44,4	49,7	57,9
Ikuskizunetako sarrerak (zinema, antzerkiak, kontzertuak...)	41,6	39,9	40,3	51,6
Beste produktu edo zerbitzu batzuk	17	11,1	17,9	17,4

Iturria: INE

Establezimenduak tamainaren arabera bereizita, ikusten da 9 langile baino gehiagoko enpresen artean merkataritza elektronikoa egiten dutenen portzentajea handiagoa dela, eta % 24,9ra ere iristen dela (% 17,3,

zenbaki orokorretan, lehen aipatu dugun bezala), eta, bestalde, segmentu horretan handiagoak dira erosketa elektronikoak egiten dituztenak (% 21,4) saltzen dutenak baino (% 9,8).

Eurostaten datuen arabera (databasea, 2012ko datuak, NACE 2. aldizk.), online (Internet bidez, EDI bidez edo beste sare batzuen bidez) saldu zuten 9 langile baino gehiagoko enpresen portzentajea % 16koa da EB-27n eta EB-25en. Eta online erosi zuten enpresen portzentajea: UE27n % 34 eta EB-15en %37.

I.2-68. KOADROA. EROSKETAK ETA SALMENTAK JARDUERA ETA ENPLEGU-ESTRATUAREN ARABERA (MILIOI €-TAN)

	Erosketak					Salmentak				
	2007	2008	2009	2010	2011	2007	2008	2009	2010	2011
Orotara	3.102,4	3.452,4	4.626,4	5.284,8	6.649,3	6.395,4	7.157,0	7.401,8	8.773,6	10.530,4
Jarduera-adarra										
Industria	1.527	1.682,6	1.766,9	1.989,1	2.485,2	4.366,4	4.962,9	4.012,2	5.150,9	6.325,2
Eraikuntza	25,3	28,2	61,1	87,3	89,1	44,8	68,1	70,4	107,2	185,8
Zerbitzuak	1.550,1	1.741,6	2.798,4	3.208,3	4.075,0	1.984,2	2.126,0	3.319,2	3.515,4	4.019,4
Enplegu estratuak										
0 - 9	882,3	1.010,5	1.752,2	1.764,5	2.012,7	641,6	652.1	1.096,7	1.528,5	1.943,7
10 edo gehiago	2.220,1	2.441,9	2.901,2	3.520,3	4.636,6	5.753,8	6.504,9	6.305,1	7.245,0	8.586,7

Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko inkesta -IGI Enpresak.

I.2.69. KOADROA. MERKATARITZA ELEKTRONIKOA EGITEN DUTEN ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA (%)

	Establezimenduak, orotara					10 langile edo gehiagokoak				
	2007	2008	2009	2010	2011	2007	2008	2009	2010	2011
Merkataritza elektronikoa	15,3	15,0	14,9	15,1	17,3	24,0	22,2	23,7	23,1	24,9
Erosketak	14,1	13,9	13,8	14,2	16,1	21,4	19,1	20,2	20,3	21,4
Salmentak	3,6	3,4	3,4	3,9	4,1	7,8	8,0	8,0	8,5	9,8
Erosketen gaineko % (*)	20,7	22,6	24,9	28,1	30,8	15,8	15,3	20,3	24,6	30,5
Salmenten gaineko % (*)	20,7	26,9	32,5	38,6	39,3	31,5	28,6	34,2	38,4	40,9

(*) Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, erosketa/salmenta elektronikoen gaineko batez besteko %, guztizko erosketa/salmenten gainean. Iturria: EUSTAT. IGI-enpresak

3. NATURA-INGURUNEAREN EGOERA EAE-N

3.1. EAE-KO 2002-2020KO INGURUMEN ESTRATEGIAREN JARRAIPENA. INGURUMEN ADIERAZLEAK

a) Airearen kalitatea eta atmosfera kutsatzaileen isuriak

Airearen kalitate indizea ateratzeko, kontrol eta zaintza sare bat dago, puntako teknologiako analizagailuak eta sentsoreak dauzkana, europar zuzentarauak gaiaz markatzen dituen kutsatzaileak denbora errealean neurtzen dituena, batez ere sufre dioxidoa (SO_2), nitrogeno oxidoak, ozono troposferikoa (O_3), karbono monoxidoa (CO) eta esekitako partikulak.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak hamaika gune eta indizearen 6 maila (airearen kalitate ona, onargarria, neurritsua, txarra, oso txarra eta arriskutsua) bereizten ditu[1]. Horrela, zonetako bakoitzak kontrol estazio zenbait dauzka, sentsore edo analizagailu automatikoekin, indizea kalkulatzeko neurtzen diren kutsatzaileak denbora errealean neurtzen dituztenak.

Airearen kalitate indizeak esleitutako balio bat izango du, eta balio hori zenbat eta handiagoa izan, gune horretako airearen kalitatea txarragoa izango da. Gainera, eguneroko indizea da.

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak emandako informazioaren arabera, azken urteetan EAEko airearen kalitatea nabarmen hobetu da eta dauden azken datuen arabera kalitatea ona edo gutxienez onargarria da. Datu erantsietan, 2005ean urtean kalitate ona edo onargarria zuten egunak %94,6 ziren, eta 2011n, ordea, %97,9 izan dira.

Gune gehienetan airearen kalitate txarreko egunak oso murriztu dira. Salbuespena Urola Goienan daukagu.

Hala ere, datuek agerian utzi dutenez, 2010 eta 2011 artean, 11 laginketa-estazioetan airearen kalitate oso txarra edo txarra erregistratzen den egun kopurua 4tik 6ra igo da. Bestalde, airearen kalitate neurrizkoko egunak ere gehitu egin dira, 31tik 71ra.

Zehazki, 2011. urtean hauek nabarmendu dira: Urola Goiena (36 egunez aire kalitate neurrizkoa, 13 egunez txarra eta egun 1ez oso txarra); Oria Goiena (10 egunez kalitate neurrizkoa eta 1ez txarra); eta Nerbioi Behera (6 egunez kalitate neurrizkoa eta 1ez txarra).

I.3.1. KOADRAO. EAEko AIRE KALITATEAREN INDIZEA MAILEN ETA URTEEN ARABERA (urteko egunen %)

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Ona	49,4	47,8	46,3	53,0	57,4	61,7	57,2
Onarga-rria	45,2	54,2	47,5	43,8	40,0	37,5	40,7
Neurriz-koa	3,9	5,6	5,1	2,4	2,2	0,8	1,8
Txarra	1,5	1,4	1,0	0,8	0,4	0,1	0,4
Oso txarra	0,0	0,1	0,1	0,1	0,0	0,0	0,0
Arrisku-tsua	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0

Iturria: Ingurumen eta Lurralde Plangintza Saila

LURRALDEAREN ZONAKATZEA

1. Hegoaldeko Araba	*7. Urola Goiena*
2. Arabako lautada	*8. Ibaizabal – Debagoeina*
3. Arabako Errioxa	*9. Nerbioi Garaia*
4. Kostaldea	*10. Enkarterri*
5. Donostialdea	*11. Nerbioi Behera*
6. Oria Garaia	

1 2005. urtea arte, airearen kalitate indizea kalkulatzean EAEko lurraldeko zortzi gune hartzen ziren aintzat. Urte horretan egindako azterketen ondoren, EAE hamaika gunetan banatzea hobetsi zen. Era berean, airearen kalitate indizearen maila kopurua aldatu zen, 4 mailatik (ona, onargarria, txarra eta oso txarra) 6ra (ona, onargarria, neurrizkoa, txarra, oso txarra eta arriskutsua).

I.3.2. KOADROA. AIRE KALITATE TXARREKO EDO OSO TXARREKO EGUN KOPURUA GUNEEN ETA URTEEN ARABERA

	2006		2009		2010		2011	
	Neurrizkoa	Txarra edo oso txarra	Neurrizkoa	Txarra edo oso txarra	Neurrizkoa	Txarra edo oso txarra	Neurrizkoa	Txarra edo oso txarra
Hegoaldeko Araba	12	0	6	0	2	0	3	0
Arabako lautada	15	3	1	0	0	0	2	0
Arabako Errioxa	4	0	0	0	0	0	1	0
Kostaldea	4	0	4	0	0	0	3	0
Donostialdea	6	0	1	0	0	0	1	0
Oria Garaia	38	12	12	0	3	0	10	1
Urola Goiena	15	14	45	4	24	4	36	14
Ibaizabal – Debagoeina	69	17	13	0	1	0	7	0
Nerbioi Garaia	17	1	0	0	0	0	0	0
Enkarterri	4	1	0	0	0	0	0	0
Nerbioi Behera	40	10	7	0	1	0	8	1
EAE GUZTIRA (Egunak)	224	58	89	4	31	4	71	16

Iturria: Ingurumen eta Lurralde Plangintza Saila

b) *Klima aldaketa: berotegi-efektuko gas isuriak (BEG)*

1992an, herrialderik gehienek bat egin zuten nazioarteko itun batekin (Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Hitzarmen Esparrua (KANBHE)), atmosferaren berokuntza murrizteko zer egin daitekeen pentsatzen hasteko. 1997an, Alderdien Hirugarren Biltzarrean (Kyotoko CP3, 1997ko abenduaren 11), gobernuek erabaki zuten itunari eranskin bat gehitzea, Kyotoko Protokoloa izena jaso zuena.

EBk bere egin zuen Kyotoko Protokoloa (Kontseiluaren 2002ko apirilaren 25eko 2002/358/CE Erabakia), eta 2008-2012 aldian BEG isuriak batez beste 1990eko isuri mailaren %8ra murriztu arte mugatzeko konpromisoa finkatu zen. Konpromiso hori zenbait modutan banatu zen estatu kideen artean, eta Espainiari abiapuntuko urtearen aldean gehienez ere %15 hazteko muga dagokio.

Autonomia erkidegoek ez daukate juridikoki loteslea den BEGak murrizteko helbururik. Baina Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko 2008-2012ko Euskal Planean -gai horretako erreferentea da gure erkidegoan- ezarri zen helburu boluntarioa EAEko emisioak denboraldi horretan mugatzea da, oinarrizko urtekoak %14 baino gehiagotan ez gainditzeko moduan.

Ikuspuntu teknikotik, Nazio Batuen isuriak kuantifikatzeko estandarrek ezarri dute isurien inbentarioetan erakunde aitorlearen lurralde eremuan sortutako isuriak sartu behar direla. Horrek, ordea, isurien inbentarioko kontabilitatetik at utziko luke erakunde aitorleak kontsumitu baina bere lurraldean ekoizten ez duen energiari lotutakoak.

Azaldutakoa bezalako egoeretan, jardunbide egokitzat jotzen da erreferentziako urteko eta ondorengo aldietako argindarraren azken kontsumoari lotutako isuri guztiak kontabilizatzea. Horixe da EAEn berotegi-efektuko gasen inbentarioak egiteko jarraitutako jardunbidea.

Berotegi-efektuko gasen isurien (BEG isuriak) inbentarioak emandako azken datuek agerian utzi dutenez, BEG isuriak, CO2-baliokidean neurtuta, aurreko urtearen aldean %3,3 murriztu dira EAEn 2010. urtean, balio absolutuetan 21,5 milioi tona, 2009an 22,2 milioi inbentariatu ziren bitartean.

I.3.3. KOADROA. BEG ISURIEN BARIAZIOA OINARRIZKO URTEAREN ALDEAN ETA HITZARTUTAKO MURRIZKETA HELBURUAK (OINARRIZKO URTEA 1990=100)

	2000	2007	-{}-2008	2009	2010	Helburua 2008-12
27EB	91,0	91,0	89,1	82,6	84,6	-
15EB	97	95,7	93,8	87,2	89,0	92,0
Espainia	131,4	150,6	139,4	126,4	122,8	115
EAE	-	122	117,5	105,1	101,8	114

Iturria: EUROSTAT eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. BEGen Urteko Inbentarioa

I.3.4. KOADROA. EAEko GUZTIZKO BEG ISURIAK SEKTOREKA (CO_2 TONA BATERAGARRIETAN).

	Oinarrizko urtea= Kyoto	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2009-2010	2010eko oinarria
Energiaren sektorea	2.996.037	8.696.209	8.679.265	8.100.900	7.939.747	7.962.767	6.348.818	-20,3	111,9
Industria	7.530.020	5.442.330	5.567.698	5.234.769	5.559.114	4.798.646	5.345.090	11,4	-29,0
Garraioa	2.716.738	5.480.526	5.685.796	6.074.051	5.706.336	5.280.826	5.096.307	-3,5	87,6
Bizitegia	627.585	938.513	773.290	775.031	875.146	865.542	881.840	1,9	40,5
Zerbitzuak	244.123	480.296	451.736	449.560	511.036	491.676	515.418	4,8	111,1
Nekazaritza	1.135.779	1.133.783	1.104.565	847.664	815.520	819.834	778.920	-5,0	-31,4
Hondakinak	932.063	1.033.793	1.016.859	963.448	1.035.471	1.008.167	902.916	-10,4	-3,1
Zuzeneko isuriak guztira	16.182.346	23.205.450	23.279.209	22.445.421	22.442.369	21.227.458	19.869.308	-6,4	22,8
Argindar inportatua (AI)	4.899.130	2.144.818	2.564.989	3.334.543	2.320.057	976.066	1.601.147	64,0	-67,3
Energiaren sektorea + AI	7.895.167	10.841.027	11.244.255	11.435.443	10.259.803	8.938.833	7.949.965	-11,1	0,7
Isuriak guztira (zuzenekoak+AI)(1)	21.081.476	25.350.268	25.844.199	25.779.965	24.762.425	22.203.524	21.470.455	-3,3	1,8

Kyotoko Protokoloaren konpromisorako esleitutako kopuruak kalkulatzeko hartutako oinarrizko urtea: 1990 CO2, CH4 eta N2Orako; 1995 gas fluordunetarako (HFC´s+PFC´s+SF6)
(1) - Elektrizitatearen inportazioei lotutako isuriak barne
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Berotegi-efektuko gasen urteko inbentarioa.

Kyotoko Protokolorako erreferentziazko indizea oinarrizko urtearen (1990) aldeko %+1,8 da; 2008-2012 aldian Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Planeko helburua, aldiz, %+14 da.

Azken urteetan BEG isuria murriztu egin dela ere ondorioztatzen da hortik. Hala, 2007an %22ko igoera ratioa izan zen oinarriko urtearekiko; 2010ean, berriz, 1990ean erregistraturikoak baino %1,8 handiagoak dira.

2010ean isuriak aurreko urtearen aldean murrizteko arrazoi nagusietako bat argindarraren ekoizpenaren murrizketa da, baita erregaiak eraldatzeko sektorean eta garraioaren sektorean jarduera murriztu izana ere. Geroago itzuliko gara horretara.

Isuriak murriztu eta BPGd handitzeak (%-3 eta %+1,9 hurrenez hurren) adierazten digu EAEko isurien intentsitatea murrizteko joerari -2002an hasitako joera da- eutsi zaiola, hots, ekoitzitako ondasun eta zerbitzu unitate bakoitzeko gutxiago isurtzen dugu.

Zentzu horretan, agerian utzi nahi dugu hazkunde ekonomikoa baliabideen erabileratik eta kutsaduratik askatzea funtsezkoa dela garapen iraunkorra lortzeko.

Sektoreen ikuspegitik, 2010ean *guztizko* BEG isurietan zatirik handiena energiaren sektoreak izan zuen, %40; bigarren tokian industria dago, %25; hirugarrenean garraioa, %24 eta, laugarrenean, bizitegi eta zerbitzuen sektoreak, %7.

Hala ere, industriaren sektoreari kontsumitzen duen energiaren ekoizpenak eragindako isuriak egotziko bagenizkio, haren ekarpena *guztizko* isurien %39 litzateke, eta bizitegi eta zerbitzuen sektoreei dagokienez, haien ekarpena %15 litzateke.

Energiaren sektorean isuriak murriztu egin dira aurreko urtearen aldean, batez ere elektrizitatea sortzeko eta erregaiak eraldatzeko sektoreetako isuriak murriztu direlako. 1990aren aldean, isuriak handitu egin dira. Bilakaera bi eragilek azal dezakete: elektrizitatearen ekoizpenaren berariazko isuriak etengabe murriztu dira baina gure kontsumoa ere etengabe handitu da (eta neurri handiagoan). Alegia, 1990az geroztik ekoizteko teknologia hobetu egin da (eta gero eta gutxiago isurtzen du), baina per capita kontsumoa, aldiz, proportzio handiagoan handitu da. Kontsumoa handitzearen eragile nagusiak zerbitzuen, bizitegi eta industriaren sektoreak dira.

Garraioaren sektoreari dagokionez, gutxi gorabehera sektore horren isurien %96 errepide bidezko garraioari daude lotuta. %60 inguru turismoek sortzen dute eta gainerako %40 salgaien garraioak. Isuriak jarraian hirugarren urtez murriztu dira aurreko urtearen aldean. 1990aren aldean, salgaien garraioari lotutako isuriak eta bidaiarien garraioari lotutakoak bikoiztu egin dira ia, eta isurien handitzerik handienak turismoen erabileran eta salgaien ibilgailu arinen bidezko garraioan gertatu dira. Garraioaren kasuan ere, aurrerapen teknologikoek gero eta erregai gutxiago erre eta isuri gutxiago sortzen duten ibilgailuak ekarri dituzte, baina errepidezko garraioa urtetik urtera handitu da (batez ere ibilgailu pribatuaren erabilerari lotutakoa).

Aipatu den bezala, industriaren sektoreak EAEko isurien %25 eragin du (zuzeneko isuriak), baina kontsumitzen duen elektrizitateari lotutako isuriak aintzat hartuz gero (zeharkako isuriak), %39raino igotzen da ehunekoa. Zuzeneko isuriak handitu egin dira aurreko urtearen aldean, eta 1990aren aldean %29 murriztu dira; sektorean gertatu diren eraldaketa teknologia eta aldaketa erakusten ditu horrek. Isuririk handieneko azpisektoreak siderurgia, porlana eta paper-orea eta papera dira, isuri-eskubideen salerosketei buruzko datuen arabera.

Bizitegi eta zerbitzuen sektorean zuzeneko isuriak handitu egin dira 2009aren aldean, gas natural eta petrolioaren eratorri gehiago kontsumitzearen ondorioz. 1990etik, bizitegi sektoreak %41 handitu ditu bere zuzeneko isuriak, eta zerbitzuen sektoreak %111.

c) Ur-masen kalitatea

Lurrazaleko ur-masak

Uraren Esparru Zuzentarauak[2] azaltzen du lurrazaleko ur-masak ibai, laku, trantsizio-ur eta kostaldeko ur kategorietan sailkatzen direla. Haien izaeraren arabera ur natural, artifizial edo oso aldatu gisa sailkatu ahal dira.

Legegintzazko ikuspegi berria ere ezarri zuen, “egoera” terminoa zentzu ekologikoan sartzen duena. Horrela, *egoera ekologiko onaren ingurumen helburua planteatzen da, egoera kimiko onaren helburuaz gain*.

Plangintza Hidrologikoaren Araudiaren 26. artikuluaren arabera[3], lurrazaleko ur-masen egoera, egoera ekologikoaren eta egoera kimikoaren balio txarrenak zehaztuko du.

- Lurrazaleko uren *egoera ekologikoa* oso ona, ona, neurrizkoa, eskasa edo txarra izan daiteke. Ur artifizialen eta oso aldatuen kasuan, potentzial ekologikoa bikaina, ona, neurrizkoa, eskasa edo txarra izango da.

  Lurrazaleko ur-masen egoera ekologikoa sailkatzeko, kalitate elementu biologikoak, hidromorfologikoak eta fisiokimikoak izango dira kontuan, parametro jakin batzuekin bat etorriz.

- Lurrazaleko uren egoera kimikoa ona edo egoera onera iristen ez dena izango da.

Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen-Estrategiak (2002-2020) proposatutako konpromisoa honakoa da: 2012rako lurrazaleko ur-masen %80k egoera ekologiko eta kimiko ona edo oso ona izatea; eta ur artifizial eta oso aldatuen masen %80k ahalmen ekologiko ona eta egoera kimiko ona izatea.

EAEko uren egoeraren jarraipen sareari esker dauden ur-masen (ibaiak, lakuak eta hezeguneak, tarteko urak, kostaldekoak eta lurrazpikoak) kalitate eta kantitate helburuak eta programak azter, kontrola eta jarrai daitezke.

Orokorrean, EAEko lurrazaleko ur-masen kalitateak pixkanaka hobetzen jarraitu du 2011n, baina ingurumen-helburuak gutxi bete dira.

2 *Uren Politikaren esparruan jarduteko esparru komunitarioa xedatzen duen 2000/60/CE zuzentaraua.*

3 *Ekainaren 6ko 907/2007 Foru Dekretua, Plangintza Hidrologikoaren Arautegia onartzen duena.*

IBAIEN EGOERA

Ibaien kategoriako (ez urtegiak) 114 ur-masetatik guztira 95 masen (80 natural sailkatuta eta 15 "oso aldatu" sailkatuta) zuzeneko balorazioak daude 2007-2011 aldirako. 95 masa horiek erreferentzia hartuta, ***helburuak maila txikian bete dira***. 2007-2009 aldian emaitza orokorren nolabaiteko egonkortasuna diagnostikatu zen eta 2010ean hoberako joera ekarri zuen; joera hori 2011n berretsi edo hobetu da.

Egoera orokorrari dagokionez, 2007an helburuak %21,1ek betetzetik 2011n %32,6k betetzera igaro da. Hala, ur-masa oso aldatuei dagokienez, 2007an egoera orokorrari dagokionez helburuak batere ez betetzetik 2011n %13,3k betetzera igaro da. Ur-masa naturalei dagokienez, 2007an egoera orokorrari dagokionez helburuak %25ek betetzetik 2001n %36,3k betetzera igaro da.

Egoera ekologikoari dagokionez, 2011n ur-masa naturalen %38,8k (%25,1ek 2007an) bete dituzte egoera ekologikoko ingurumen-helburuak. Ur-masa oso aldatuei dagokienez, 2009an eta 2010ean ahalmen ekologiko onera iristen diren ur-masa oso aldatuak identifikatzen hasi zen, eta 2011n %13,3 ziren (%0 2007an). Egoera txarrak eta eskasak beheranzko bilakaera izan dute, 2007an talde horietan masen %49 diagnostikatu ziren (%41 naturalak eta %93 oso aldatuak) eta 2011n %36 (%33 naturalak eta %53 oso aldatuak).

I.3.5. KOADROA. EAEko IBAI KATEGORIAKO UR-MASAK (URTEGIAK IZAN EZIK). EGOERA EKOLOGIKOAREN ETA EGOERA KIMIKOAREN BILAKAERA, 2007-2011. %

		Egoera		Egoera ekologikoa					Egoera kimikoa	
		Ona edo hobea	Ona baino txarragoa	Oso ona	Ona	Neurrizkoa	Eskasa	Txarra	Egoera kimiko ona	Ez da iristen
Naturala	2007	25	75	1,3	23,8	33,8	20	21,3	97,5	2,5
	2008	25	75	2,5	27,5	32,5	28,8	8,8	86,3	13,8
	2009	30	70	5,1	27,8	27,8	20,3	19,0	85,0	15,0
	2010	36,3	63,8	5,0	38,8	27,5	20	8,8	77,5	22,5
	2011	36,3	63,8	5,0	33,8	28,8	16,3	16,3	85,0	15,0
UMOA*	2007	0	100	0,0	0,0	6,7	13,3	80,0	80,0	20,0
	2008	0	100	0,0	0,0	26,7	26,7	46,7	80,0	20,0
	2009	6,7	93,3	0,0	6,7	6,7	33,3	53,3	73,3	26,7
	2010	6,7	93,3	0,0	6,7	40,0	33,3	20,0	80,0	20,0
	2011	13,3	86,7	0,0	13,3	33,3	33,3	20,0	66,7	33,3


Iturria: URA. Uraren Euskal Agentzia
**UMOA: Ur-masa oso aldatuak.*

I.3.6. KOADROA. EAEko HEZEGUNEAK.EGOERA EKOLOGIKOAREN BILAKAERA, 2001/02-2010/11. %

	ZIKLO HIDROLOGIKOA									
	01/02	02/03	03/04	04/05	05/06	06/07	07/08	08/09	09/10	10/11
Neurrizkoa, Eskasa eta Txarra	93	79	79	79	79	71	71	71	79	71
Oso ona eta Ona	7	21	21	21	21	29	29	29	21	29

Iturria: URA. Uraren Euskal Agentzia

I.3.1. GRAFIKOA EGOERA. TRANTSIZIO UREN KATEGORIAKO UR-MASEI LOTUTAKO KONTROL-ESTAZIOAK



Iturria.- Ura agentzia.

Egoera kimikoari dagokionez, 2007an helburuak %94,7k betetzetik 2011n %82,1ek betetzera igaro da. Ur-masa naturalen %15 eta oso aldatuen %33 ez dira egoera kimiko onera iritsi 2011ko kanpainan, eta aztertutako urteetan egoera egonkortzat jo daiteke.

LAKUEN ETA BARNEALDEKO HEZEGUNEEN EGOERA

Oro har, ematen du *bilakaera positiboa izan dela, baina oraindik ere ez da nahikoa*. 2001/2002 ziklo hidrologikotik aztertu diren 14 hezeguneetatik, lehenengo zikloan %7k bakarrik betetzen zituzten ingurumen helburuak. Halere, azken zikloetan, hezeguneen %21 eta %29aren artean bete dituzte ingurumen helburuak. Aztertu diren azken ziklo hidrologikoetan emaitzek nolabaiteko egonkortasuna daukate.

Laku eta hezegune kategorietako lau ur-masetako batek baino ditu ingurumen helburuak bete 2010/2011 ziklo hidrologikoan, Monrealgo urmaelak..

TRANTSIZIO UREN (ESTUARIOAK) ETA KOSTALDEKOEN EGOERA

Trantsizio ur guztientzako helburuen balorazioaren azterketaren arabera, ***oraindik gutxi dira betetzen dituztenak*** (%57k 2011n). 2011n egoera globalaren helburuak 4 masetako 1ek bete ditu (%0k 2007an), eta 10 masa naturaletako 7k (%20k 2008an).

- *Egoera/ahalmen ekologikoari* dagokionez, 2011n, trantsizio uren kategoriako ur-masa naturalen %70ek bete dituzte egoera ekologiko oneko edo oso oneko ingurumen helburuak; 2008-2010ean, ordea, %20-40 ziren. Ur-masa oso aldatuen kasuan, 2011n, haien %50ek potentzial ekologiko bikaineko edo oneko ingurumen helburuak bete dituzte, eta 2007an ez ziren helburuak batere betetzen.

- *Egoera kimikoari* dagokionez, trantsizio uren kategoriako ur-masa naturalen %20 inguru ez dira egoera kimiko onera iritsi. Trantsizio uren kategoriako lau ur-masa oso aldatuetako bi ez dira egoera kimiko onera iritsi 2011n.

KOSTALDEKO URAK

Kostaldeko uren kategoriako 4 ur-masetan (naturaltzat hartuak denak) 2007-2011 aldiko zuzeneko balorazioak daude haientzat guztientzat, guztira 16 kontrol-estazio erabilita.

Azken urteetan zuzeneko balorazioak dauzkagun kostaldeko uren kategoriako 4 ur-masak kontuan izanik, EAE osorako adierazi behar dugu 2007-2011 denboraldian emaitzak nahiko egonkorrak direla; horrek esan nahi du oro har *ingurumeneko helburuak ondo betetzen direla egoera ekologikoari dagokionez*. 2011an, kostaldeko uren kategoriako lau ur-masek ingurumen helburuak bete dituzte egoera ekologikoari dagokionez.

Egoera kimikoari dagokionez, *kontrol-estazio bakan batzuek* baino ez dute *agertu kalitate arauak betetzen ez direna*, eta, beraz, egoera kimiko onera iritsi ez direna; aztertutako lau urteetan egoera egonkortzat jo daiteke.

BAINURAKO UREN KALITATEA

Trantsizioko aldia gaindituta[4], 2011n, bainurako uren kalitatearen ebaluazioa Europako Parlamentuaren eta 2006ko otsailaren 15eko Kontseiluaren 2006/7/CE Zuzentarauan eta bainurako uren kalitatearen kudeaketari buruzko urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera egiten da. Horren ondorioz, bainurako uren sailkapena *gutxiegi, nahikoa, ona eta bikaina* izango da parametro mikrobiologikoentzat lortutako datuen ebaluazioaren arabera.

Araudi berriak honako helburua xedatu zuen: agintari eskudunek behar diren neurri guztiak ezartzea, 2015eko bainu sasoiaren bukaeran, bainurako ur guztiek kalitate nahikoa izan ditzaten.

2011n egindako azterketan, 65 bainuguneetatik, 5en kalitatea gutxiegi izan da, 2rena nahikoa, 9rena ona eta gainerakoena bikaina. Lurraldez lurralde, Bizkaian, Laidatxu, San Antonio, Toña eta Karraspioko Itsasadarreko bainuguneetan, uren maila “gutxiegi” izan da, eta Areetakoan “nahikoa”; gainerako guztietan, egoera “ona” edo "bikaina" izan da. Gipuzkoan bainugune guztiei eman zaie maila “ona” edo “bikaina”, Santiagori -"nahikoa" eman zaio- eta Saturrarani -"gutxiegi" eman zaio- izan ezik. Bestalde, Araban guztiei eman zaie maila “bikaina”.

Hondartza inguruari dagokionez, Bizkaian eremu guztiak sailkatu dira “on” bezala, Areeta, Plentzia, Gorliz, eta Toña izan ezik, haiek “hobegarriak” baitira. Gipuzkoan, denak dira “onak”, Ondarbeltz, Mutriku eta Saturraran izan ezik, zein “hobegarriak” baitira. Azkenik, Araban, hondartza inguruko 5 eremuak “on” gisa katalogatu dira.

d) *Baliabide naturalen kontsumoa: Ur gezatako baliabideak: ur bilketa eta kontsumoa*

EINek egindako ur hornidura eta tratamenduari buruzko inkestaren arabera, 2010ean EAEn horniketa publikorako ur-bilketa[5] 187,2 Hm^3koa izan zen. Horrek, 2009aren aldean, jaitsiera dakar berriz ere, %4koa.

4 Gogoratu behar dugu 2010 arte sailkapena 734/1988 EDko irizpideak 1341/2007 EDko parametroen balioei aplikatuz egin zela eta, beraz, hondartzetarako hiru maila ezartzen zirela:
2 mailako hondartzak: derrigorrezko balioak eta gida balioak betetzen dituzte.
1 mailako hondartzak: derrigorrezko balioak bai, baina gida balioak ez dituzte betetzen.
0 mailako hondartzak: ez dituzte derrigorrezko balioak betetzen.

5 Ur bilketa naturako ura atera edota biltzean eta erabiltzeko biltegiratzean datza. Hemen, urtegi eta lehen mailako ateria eta hodietatik gidatze zerbitzuak sartzen dira. Besteak beste, lurrazaleko eta lur azpiko ur-bilketak bereizten dira. Azkena, zundaketa edo zulatzeen bidez egiten da.
Kontinenteko lurrazaleko urak lurrazaleko korrontea duten urak edo lehorreko sakonune baten gainean atxikitakoak, hots, ur pilatuak, dira. Lurrazaleko korrontea duten uren artean ubide naturaletako urak (ibaiak eta errekak) eta ubide artifizialekoak (ureztatzeko bideratze sistemak, industria eta nabigazioa, drainatze sistemak eta erreserba artifizialak) sartzen dira.
Inkesta honen xedeetarako, ibaiertzetan gertatutako iragazteak lurrazaleko uren artean hartzen dira, eta trantsizioko urak, zingira gazikarak eta estuarioak, lurrazaleko urtzat jo beharrean, bestelako baliabide hidrikoen artean sartzen dira.
Lur azpiko urak orokorrean lur azpiko egitura, hots, akuifero batetik edo baten bidez ateratakoak dira. Akuiferoak lur azpian dauden ur biltegi iraunkor edo behin behineko guztiak dira, bai artifizialki zein berez birbetetzen direnak, erabilera jakin baterako behar beste kalitate badaukate. Atal horretan, iturburuetatik bildutako ura ere sartzen da. Kanpoan geratzen da iragazteetatik datorren lur azpiko ura, lurrazaleko uretan sartuko baita

I.3.7. KOADROA. BAINATZEKO UREN KALITATEA EAEn, ITSASOKO URAK. 2011

UDALERRIA	BAINU GUNEA	LAGINKETA GUNEA	BAINURAKO UREN SAILKAPENA	HONDARTZA INGURUAREN SAILKAPENA*
Bizkaia				
ZIERBENA	La Arena	Eskuina 1LG-Z	Bikaina	Ona
MUSKIZ		Erdia 2LG-M	Bikaina	Ona
		M Ezkerra 1LG-M	Bikaina	Ona
GETXO	Ereaga	Erdia 1LG	Bikaina	Ona
		Ezkerra 2LG	Bikaina	Ona
	Azkorri	Erdia 1LG	Bikaina	Ona
	Arrigunaga	Erdia 1LG	Bikaina	Ona
	Areeta	Erdia 1LG	Nahikoa	Hobegarria
SOPELANA	Barinatxe (Solandotes)	Eskuina 1LG	Bikaina	Ona
		Erdia 2LG	Bikaina	Ona
	Atxabiribil - Arietarra	Eskuina 1LG	Bikaina	Ona
		Erdia 2LG	Bikaina	Ona
		Ezkerra 3LG	Bikaina	Ona
PLENTZIA	Plentzia	Erdia 1LG	Ona	Hobegarria
GORLIZ	Gorliz	Eskuina 1LG	Bikaina	Hobegarria
		Erdia 2LG	Ona	Hobegarria
		Ezkerra 3LG	Bikaina	Hobegarria
BAKIO	Bakio	Erdia 1LG	Bikaina	Ona
		Ezkerra 2 LG	Bikaina	Ona
BERMEO	Aritzatxu	Erdia 1LG	Bikaina	Ona
MUNDAKA	Laidatxu	Erdia 1LG	Gutxiegi	Ona
SUKARRIETA	San Antonio	Erdia 1LG	Gutxiegi	Ona
	Toña	Erdia 1LG	Gutxiegi	Hobegarria
IBARRANGELU	Laida	Itsasoa 1LG	Bikaina	Ona
		Itsasadarra 2LG	Ona	Ona
	Laga	Erdia 2LG	Bikaina	Ona
		Eskuina 1LG	Bikaina	Ona
EA	Ea	Itsasoa 1LG	Bikaina	Ona
LEKEITIO	Isuntza	Itsasadarra 2LG	Ona	Ona
MENDEXA	Karraspio	Itsasoa 1LG	Bikaina	Ona
		Itsasadarra 2LG	Gutxiegi	Ona
ONDARROA	Arrigorri	Erdia 1LG	Ona	Ona
ISPASTER	Ogella	Ezkerra 1LG	Bikaina	Ona
Gipuzkoa				
MUTRIKU	Ondarbeltz	Erdia 1LG	Ona	Hobegarria
	Mutriku	Zaharra 1LG	Ona	Hobegarria
	Saturraran	Erdia 1LG	Gutxiegi	Hobegarria
DEBA	Deba	Erdia 1LG	Bikaina	Ona
ZUMAIA	Itzurun	Erdia 1LG	Bikaina	Ona
	Santiago	Erdia 1LG	Nahikoa	Ona
GETARIA	Malkorbe	Erdia 1LG	Bikaina	Ona
	Gaztetape	Erdia 1LG	Bikaina	Ona
ZARAUTZ	Zarautz	250m. 1LG	Ona	Ona
		500m. 2LG	Bikaina	Ona
		Erdia 3LG	Bikaina	Ona
ORIO	Antilla	Erdia 1LG	Ona	Ona
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN	Zurriola	Ulia 1LG	Bikaina	Ona
		Erdia 2LG	Bikaina	Ona
		Urumea 3LG	Bikaina	Ona
	Kontxa	Ezkerra 2 LG	Bikaina	Ona
		Erdia 1LG	Bikaina	Ona
		Eskuma 3LG	Bikaina	Ona
	Ondarreta	Ezkerra LG2	Bikaina	Ona
		Erdia 1LG	Bikaina	Ona
HONDARRIBIA	Hondarribia	Erdia 2LG	Bikaina	Ona
		Eskuina 1LG	Bikaina	Ona
Araba				
ARRAZUA UBARRUNDIA	Uribarri Ganboa (Landa 1)	LANDA 1	Bikaina	Ona
	Uribarri Ganboa (Landa 2)	LANDA2	Bikaina	Ona
	Uribarri Ganboa (Zuhatza uhartea)	ZUHATZA *UHARTEA*	Bikaina	Ona
BARRUNDIA	Uribarri Ganboa (Garaio 1)	GARAIO 1	Bikaina	Ona
	Uribarri Ganboa (Garaio 2)	GARAIO 2	Bikaina	Ona

(*) Hondartza inguruko eremuaren sailkapena hondartza osoari buruz egiten da, guneen arabera bereizi gabe, uraren kasuan bezala. Horregatik, hondartza bateko gune guztiek izango dute maila bera, haien artean aldeak egon arren.
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

I.3.8. KOADROA. EAEn HORNIDURA PUBLIKORAKO KONTROLATUTAKO ETA BANATUTAKO UR BOLUMENA					
	2007	2008	2009	2010	ald. %a 09/10
ENPRESAREN BERAREN UR-BILKETAK (mila m3)					
GUZTIRA	206.858	223.644	194.880	187.157	-4,0
Lurrazaleko urak	200.943	217.568	188.281	179.838	-4,5
Lur azpiko urak	5.915	6.076	6.599	7.319	10,9
Gatzgabetzea	0	0	0	0	
Bestelako baliabide hidrikoak	0		0	0	
EDATEKOA BIHURTU GABEKO GUZTIZKO UR ESKURAGARRIA (mila m3)					
GUZTIRA	204.669	223.644	193.376	186.001	-3,8
Enpresak berak egindako guztizko ur-bilketa	206.858	223.644	194.880	187.157	-4,0
Beste unitate batzuei erositako ur bolumena	0				
Beste enpresa batzuek hornitutako ur bolumena	2.189				
UR BANAKETA ERABILTZAILE TALDE HANDIEN ARABERA (mila m3)					
Horniketa publikorako zaindu eta banatutako guztizko ur bolumena	195.794	203.974	187.875	183.420	-2,4
Sektore ekonomikoak	55.497	61.016	60.347	56.643	-6,1
Etxebizitzak	96.623	108.694	97.852	95.564	-2,3
Udal kontsumoak eta BESTELAKOAK	43.674	34.264	29.676	31.213	5,2
Banaketa sarean galdutako ura (a)	36.037	36.007	34.380	36.965	7,5
Edateko bihurtu gabeko guztizko ur eskuragarria (b)	204.669	223.644	193.376	186.001	-3,8
Banaketa sare publikoan galdutako uraren % (a/b)	17,6	16,1	17,8	19,9	
Banatutako uraren zenbatekoa guztira (mila euro)	97.223	113.344	107.541	105.398	
Horniketa zerbitzuetako inbertsioaren zenbatekoa guzira (mila €)	4.636	6.570	7.048	9.629	

Iturria: EIN. Ur horniketari eta tratamenduari buruzko inkesta.

I.3.9. KOADROA. HONDAKIN UREN BILKETA ETA TRATAMENDUA EAEn (m3 egunean)					
	2007	2008	2009	2010	ald. %a 09/10
Tratatutako hondakin-uren bolumena	575.885	616.474	851.532	830.902	-2,4
Ur berrerabiliaren bolumena guztira	27.548	47.493	13.405	16.907	26,1
Hondakin-urak bildu eta tratatzeko inbertsioko gastuen zenbatekoa guztira (mila €)	625	13.179	13.179	9.854	-25,2
Saneamendu eta arazketa kuoten zenbatekoa guztira (mila €)	72.323	77.837	77.837	104.810	34,7

Iturria: EIN. Ur horniketari eta tratamenduari buruzko inkesta

Bilketa horiei dagokienez, eta lurrazaleko eta lurpeko urak bereiziz gero, lurrazaleko urak %4,5 gutxitu dira, eta osotasunean duten pisua jaitsi da: %96,6tik %96,1era. Bestalde, lur azpiko ur-bilketak %10,9 hazi dira.

Ur erabilgarri guztia 186 Hm^3 da. %100a jatorri propiokoa da, hau da, ez da inori erosia.

Bestalde, 2010ean EAEn horniketa publikorako zaindu eta banatutako ur bolumena guztira 183,4 Hm^3koa da, hots, %2,4 gutxiago. Horietatik, 95,6 Hm^3 (guztiaren %52,1) etxeak hornitzeko erabiltzen dira; 56,6 Hm^3 (%30,9) sektore ekonomikoetarako; eta 31,2 Hm^3 (%17) udal kontsumoetarako eta bestelako erabileretarako.

Banaketa sarean 37 Hm^3 ur galdu da (galera errealak), hots, 2009 eta 2010 artean %7,5 hazi da eta eskuragarri dagoen guztiaren %19,9 da. Estatuan, erabilgarri zegoen ur guztiaren %17,5 banaketa sare publikoetan, ihesetan, apurketetan eta abar galdu zen.

I.3.10. KOADROA. URAREN BATEZ BESTEKO KONTSUMOA ETA ALEKO BALIOA ETXEETAN

	BATEZ BEST. KONTSUMOA (litro/biztanle/egun)					BATEZ BESTEKO PREZIOA (€/m3)				
	2007	2008	2009	2010	ald. %a 09/10	2007	2008	2009	2010	ald. %a 09/10
Andaluzia	158	157	156	143	-8,3	1,11	1,12	1,25	1,36	8,8
Aragoi	143	150	148	144	-2,7	1,46	1,18	1,27	1,34	5,5
Asturias	185	177	165	159	-3,6	0,92	0,94	1,10	1,07	-2,7
Balear U.	136	139	127	121	-4,7	1,85	1,89	2,00	2,69	34,5
Kanariar U.	154	157	141	149	5,7	1,69	1,70	1,90	1,9	0,0
Kantabria	189	188	180	173	-3,9	0,93	0,89	1,18	1,14	-3,4
Gaztela eta Leon	154	153	162	167	3,1	1,11	1,94	1,07	0,98	-8,4
Gaztela-Mantxa	163	155	146	152	4,1	0,89	0,99	1,15	1,31	13,9
Katalunia	151	139	132	133	0,8	1,56	1,59	1,76	1,83	4,0
Valentziako Er.	186	189	174	157	-9,8	1,62	1,52	1,54	1,69	9,7
Extremadura	187	158	163	160	-1,8	1,09	1,11	1,21	1,23	1,7
Galizia	143	146	139	132	-5,0	0,72	0,75	0,93	1,01	8,6
Madril	150	144	145	140	-3,4	1,28	1,57	1,67	1,64	-1,8
Murtzia	166	159	166	158	-4,8	1,95	1,87	1,84	2,17	17,9
Nafarroa	126	131	135	128	-5,2	1,41	1,23	1,23	1,36	10,6
EAE	125	139	126	122	-3,2	0,87	0,94	1,08	1,14	5,6
Errioxa	152	151	131	122	-6,9	1,06	0,97	0,93	0,91	-2,2
Ceuta eta Melilla	135	133	126	-	-	0,94	1,38	1,40	-	-
Egoera	157	154	149	144	-3,4	1,29	1,31	1,42	1,51	6,3

Iturria: EIN. Ur horniketari eta tratamenduari buruzko inkesta

Bestalde, 2009 eta 2010. urteen artean, tratatzen den hornidura-ura %2,4 murriztu da, 830,9 Hm^3raino. Hondakin-urak bildu eta tratatzeko jarduerek 9.854 mila euroko inbertsioa dakarte.

Bestalde, berrerabilitako uraren bolumena (16.907 m3/egun), 2009aren aldean %26,1 hazi arren, 2007 eta 2008koak baino txikiagoa da. Halaber, 2010ean saneamendu eta arazketa kuotak nabarmen hazi dira aurreko urteen aldean. Zehazki, %34,7 hazi da 2009ko datuaren aldean.

Per capita ur kontsumoa txikiagoa da EAEn estatuko batez bestekoa baino: 122 eta 144 litro pertsona eta egun bakoitzeko, hurrenez hurren. Gainera, 2009 eta 2010 artean, Estatuan dagoena baino beherakada handiagoa ikusi da (%3,4, eta Estatuan %3,2).

Bestalde, uraren aleko balioa (koziente hau honela kalkulatzen da: ura hornitzeko tasen zenbatekoa gehi hondakin uren saneamenduko tasak edo kanonak, zati kontsumorako banatutako ur bolumena) EAEn, 2010ean, 1,14 euro/m^3 izan zen, hau da, beste gehikuntza bat, %5,6koa kasu honetan, aurreko urteko balioaren aldean. Estatuan, batez besteko prezioa handiagoa da, 1,51 euro/m^3. Horrek esan nahi du %6,3 garestitu dela aurreko denboraldiaren aldean.

EAEko uraren egoerari buruz kontuan hartu beharreko azken alderdia herritarrek kontsumoko urari buruz egiten duten balorazioa da.

Aztertutako urte guztietan (2007tik 2011ra) herritarren %90en ustez kalitatea ona da, baina alde batzuk daude lurraldeen arabera.

I.3.11. KOADROA. EAEko KONTSUMOKO URAREN KALITATEA. BIZTANLERIAREN BANAKETA BALORAZIOAREN ARABERA.

	Ona	Onargarria	Eskasa
2007	95,8	2,3	1,9
2008	93,9	2,9	3,2
2009	94,9	2,9	2,1
2010	96,2	2,8	1,0
2011	96,0	2,4	1,4

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Osasun eta Kontsumo Saila.

e) *Hondakinen sorkuntza eta kudeaketa. Hiri hondakinak eta industriako hondakinak*

EINren Sektore industrialeko hondakinen sorkuntzari buruzko inkestako azken datuen arabera, 2010ean, euskal industriak sortutako hondakin guztietatik (1.841,2 mila Tm), erkidegoko araudiaren arabera 201,7 mila Tm sailkatu dira hondakin arriskutsu gisa eta 1.639,5 mila Tm ez arriskutsu gisa.

Bilakaerari dagokionez, EAEn hondakin ez arriskutsuen sorkuntza 2009 eta 2010. urteen artean %10,6 handitu da, eta industriako hondakin arriskutsuena, %19,8.

Hala, EAE industria sektorean hondakin arriskutsu gehien sortzen duen hirugarren erkidegoa da (201,7 mila tona). Lehenengoa Katalunia da, 333 tonarekin eta bigarrena Valentzia, 212,7rekin. Estatu osoan, aipatu hondakin arriskutsuak %0,8 gehitu dira, EAEn baino gutxiago.

Hiri-hondakinei dagokienez, EINren Hiri-hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko inkestak erakutsi du 2010ean hiri-hondakinak kudeatzen dituzten enpresek EAEn 1.076,1 mila Tm hiri-hondakin bildu zituztela, aurreko urtean baino %13,1 gutxiago. Nahastuen eta selektiboki batuen artean bereizita, gehienak (%66,8) hondakin nahastuak dira. Bilakaeraren ikuspuntutik, lehenak %28,6 gutxitu dira eta selektiboki batutakoak %53,8 gehitu. Estatuan bilakaerak joera bera du, hurrenez hurren, %-4,7 eta %+12,9.

Selektiboki batutako hiri-hondakinen artean, bolumenagatik honakoak nagusitu dira: papera eta kartoia (169.542 Tm), beira (54.075 Tm), eraikuntza era eraispeneko hondakinak (42.783 Tm), ontzi mistoak eta bilgarri nahastuak (31.046 Tm) eta zura (22.625 Tm).

I.3.12. KOADROA. HONDAKIN MOTAREN ARABERA SAILKATUTAKO HIRI-HONDAKIN BILDUAK (tonak)

	2009		2010		Aldakuntza	
	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua
HONDAKINAK GUZTIRA	1.238.766	24.758.113	1.076.053	24.380.023	-13,1	-1,5
10.1.1 Etxeko hondakinak eta antzekoak (etxekoak eta bide publikoak)	991.421	19.860.620	694.220	18.808.667	-30,0	-5,3
10.1.2 Bolumen handiko etxeko hondakin nahastuak (etxeko tresnak)	14.769	481.080	24.083	586.598	63,1	21,9
HONDAKIN NAHASTUAK GUZTIRA	1.006.190	20.341.700	718.303	19.395.265	-28,6	-4,7
02.12 Medikamentu erabili gabeak	-	186	-	372	-	100,0
05 Osasun eta biologia hondakinak	88	30.523	11	24.616	-87,5	-19,4
06 Metalezko hondakinak	3.618	54.016	2.402	56.416	-33,6	4,4
07.1 Beira	54.824	685.677	54.075	804.000	-1,4	17,3
07.2 Papera eta kartoia	74.757	1.076.204	169.542	1.467.365	126,8	36,3
07.3 Kautxua (pneumatikoak)	11	5.025	32	8.964	190,9	78,4
07.4 Plastikoak (bilgarriak izan ezik)	3.256	224.270	7.922	185.501	143,3	-17,3
07.5 Zura	11.667	147.448	22.625	192.052	93,9	30,3
07.6 Arropa eta ehun-hondakinak	884	4.035	1.097	4.683	24,1	16,1
08.41 Pila eta metagailuen hondakinak	267	4.348	157	3.083	-41,2	-29,1
08.2 eta 08.43 Baztertutako ekipamendu elektrikoak eta Baztertutako ekipamendu elektronikoen osagaiak	1.698	46.936	2.092	61.216	23,2	30,4
09 Animalia eta landareen hondakinak	9.607	724.268	16.071	954.377	67,3	31,8
10.2 Ontzi mistoak eta bilgarri nahastuak	53.055	877.000	31.046	640.286	-41,5	-27,0
11 Lohi arruntak (lehorrak)	633	39.942	668	44.694	5,5	11,9
12 Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak	8.036	422.802	42.783	437.595	432,4	3,5
18 Beste batzuk	10.175	73.733	7.227	99.538	-29,0	35,0
SELEKTIBOKI BILDUTAKO HONDAKINAK GUZTIRA	232.576	4.416.413	357.750	4.984.758	53,8	12,9

Iturria: EIN. Hiri-hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko inkesta

I.3.13. KOADROA. HIRI- ETA INDUSTRIA-HONDAKINEN SORKUNTZA (*) (milaka tonatan)

	ESTATUA					EAE				
	2007	2008	2009	2010	2009-10 aldakun.	2007	2008	2009	2010	2009-10 aldakun.
Hiri-hondakinak (HH)	28.240,5	26.322,4	24.758,1	24.380,0	-1,5	1.333,8	1.345,9	1.239,0	1.076,1	-13,1
HH nahastuak	21.925,9	21.045,6	20.341,7	19.395,30	-4,7	1.036,4	1.055,1	1.006,2	718,30	-28,6
Selektiboki bildutako HH	6.314,6	5.276,7	4.416,4	4.984,80	12,9	297,4	290,7	232,6	357,80	53,8
Industria hondakinak	60.692,7	49.957,1	40.156,9	50.551,2	25,9	2.839,3	2.129,1	1.651,4	1.841,2	11,5
Ez arriskutsuak	58.530,1	48.280,4	38.773,8	49.157,4	26,8	2.536,9	1.923,7	1.483,0	1.639,5	10,6
Arriskutsuak	2.162,6	1.676,7	1.383,1	1.393,9	0,8	302,4	205,4	168,4	201,7	19,8


Iturria: EIN: Hiri-hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko inkesta eta Industria sektoreko hondakinen sorkuntzari buruzko inkesta. (*) Zerbitzu sektorean hondakinak sortzeari buruzko inkestak ez du autonomi erkidegoen araberako sailkapenik egiten.

I.3.14. KOADROA. BILDUTAKO HIRI-HONDAKINAK, MOTAREN ETA URTEAREN ARABERA (biztanleko eta urteko kiloak)

	2008		2009		2010	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
Hondakin nahastuak (1)	464,8	493,4	443,9	471	412,5	329,7
Bilketa selektiboa (*)						
Papera eta kartoia	24	39	23,5	35	31,2	77,8
Beira	14,9	24,4	15	25,7	17,1	24,8
Ontzi mistoak	28,4	52,7	19,1	24,8	13,6	14,3

** Selektiboki bildutako hondakinak: baliogarri bihur daitezkeen hondakinetako materialak bereiztea ahalbidetzen duen bilketa bereiziaren emaitza dira.*
Iturria: EIN. Prentsa oharrak

I.3.2. GRAFIKOA. HONDAR INDUSTRIALEKO SORKUNTZAREN BILAKAERA (TM)



Iturria. INE

Per capita kopuruari dagokionez, EINren Inkesta bereko datuen arabera, EAEn 2010ean 329,7 kg hiri-hondakin nahastu bildu ziren biztanleko eta urteko, Estatuko batez besteko 412,5 kiloak eta aurreko urteko 471 kiloak baino gutxiago. Autonomia erkidegoen arabera, per capita baliorik handienak Balear Uharteetan (630,1), Kanariar Uharteetan (590,5), Andaluzian (521,9), Murtzian (497,6) eta Gaztela Mantxan (475,7) eman ziren.

Bilketa selektiboari dagokionez, EAEk kasu guztietan (papera eta kartoia, beira eta ontzi mistoak) erregistratu ditu Estatuko batez bestekoen gaineko bilketa balioak. Hondakinak bereizita, paper eta kartoiaren bilketa handitu egin da (biztanle eta urte

bakoitzeko 35 kilo izatetik 77,8 kilo izatera) eta beirarena (biztanle eta urte bakoitzeko 25,7 kilo izatetik 24,8 kilo izatera) eta ontzi mistoena (urte eta biztanle bakoitzeko 24,8 kilotik 14,3 kilora) murriztu egin dira.

Azkenik, hiri-hondakinen arazoaren ifrentzua daukagu, haien sorkuntza.

Taulan ikusten denez, 2011n EAE guztira 480 kg hiri-hondakin solido (HHS) sortu zen biztanle eta urteko, Estatuan eta Europako Erkidegoan baino gutxiago. Azken urteetako bilakaera ziklo ekonomikoaren parean joan da; hala, 2008az geroztik HHSen sorkuntza murriztu da bai EAEn, bai Estatu osoan, bai EBn.


Hala ere, EAEren barruan hiru lurraldeen arteko alde handiak daude. Hala, Araban sortu da HHS gutxien, bai azken urtean bai aurrekoetan. 2011n per capita 443 kg sortu ziren bitartean, Bizkaian ia 494 eta Gipuzkoan 474 sortu ziren.

f) Energiaren produkzioa eta kontsumoa

Energia balantzeetan ezberdindu egiten da barne kontsumo osoaren edo energia eskariaren eta amaierako kontsumoaren artean. Energia eskaria edo barne kontsumo osoa, funtsean, lurraldean bertan sortutako lehen mailako energia gehi inportazioen, esportazioen eta galeren (garraioagatik, biltegiratzeagatik, banaketagatik…) arteko orekaren berdina da. Amaierako kontsumoa amaierako kontsumitzaileen sektoreetako kontsumoen batura da, hau da, industriaren, garraioaren, lehen sektorearen, zerbitzuen eta egoitzen kontsumoaren batura.

Komeni da gogoan hartzea 2011n metodologia aldaketa bat egon dela. Aldaketa horrek kogenerazioko instalazioetan sortutako beroaren kontabilitateari eta horretarako erabilitako erregai kontsumoari eragin die[6]. 2011ko balantzeak metodologia aldaketa hori dauka eta 2010eko datuak berdin zuzendu dira bilakaerako sailetan, kontsumoaren aurreko urtearekiko portaera hobeto erkatu ahal izateko.

I.3.3. GRAFIKOA. LEHEN MAILAKO ENERGIAREN EKOIZPENA (KTEP)



Iturria: EVE

I.3.15. KOADROA. SORTUTAKO HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK (PERTSONAKO)


	2006	2007	2008	2009	2010	2011
EB27	521	522	519	509	507	503
ESPAINIA	594	583	556	547	535	531
EAE	563	574	546	513	493	480
Araba	548	555	505	492	466	443
Bizkaia	566	582	555	517	504	494
Gipuzkoa	563	570	550	512	485	474

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. HHSen estatistika eta EUROSTAT.

Energiaren Euskal Erakundeak 2012an argitaratu "Euskadi Energia 2011. Datu energetikoak" txostenak erakutsi zuenez, energiaren barne-kontsumo gordinak edo eskariak (alegia, ekoitzitako energia gehi energia inportatua ken esportatua), 90etako amaieratik 2008 arte goranzko joera izan du, euskal ekonomiak izandako bizkortzearen ondorioz. Ondoren kontsumo hori moteldu egin zen, krisi ekonomikoko prozesuaren ondorioz eta, 2010 eta 2011 artean zehazki, %8,3 jaitsi da eta 6.550 Ktep-ekoa izan da.

6 EUROSTAT metodologiaren arabera, eraldaketa sarreretako erregai kontsumo gisa zenbatu behar da kogenerazioko instalazioetan elektrizitatea sortzeko erabilitako energia zatia, eta beroa sortzeko erabilitako erregai zatia hura baliatzen duen amaierako kontsumitzailearen sektorean zenbatzen da zuzenean. Energia eraldaketako kontsumoak amaierako kontsumora igaro ez ezik, beroa eraldaketaren irteeratik eratorritako energia eta amaierako sektoreetako kontsumoko energia gisa kontabilizatzea ezabatu da.

I.3.4. GRAFIKOA. BARNE KONTSUMO GORDINA ETA AMAIERAKO ENERGIA KONTSUMOA



Iturria: EVE

I.3.16. KOADROA. EAEren ENERGIA BALANTZEA, 2011

	Erregai solidoak	Petrolioa eta erator.	Gas naturala	Energia erator.	Energia berriztagarriak	Argindarra	GUZTIRA	2010-11 aldakun.
Lehen mailako energia produkzioa	0,0	0,0	0,0	11,3	369,0	0,0	380,2	-8,2
Barne kontsumo osoa eskuragarri (eskaria)	149,8	2.549,9	2.529,4	11,3	461,8	857,7	6.549,9	-8,3
Transformazio sarrerak	180,4	9.392,7	996,9	11,3	85,0	0,0	10.666,3	-
Transformazio irteerak	103,3	9.163,0	0,0	0,5	0,0	639,9	9.906,6	-
Amaierako energia kontsumoa	59,2	1.935,6	1.444,8	0,5	318,4	1.419,3	5.177,9	-4,2
Industria	59,2	145,7	1.086,4	0,0	183,8	849,5	2.324,7	-5,9
Garraioa	0,0	1.622,0	0,0	0,0	101,1	15,6	1.738,7	-1,4
Nekazaritza eta arrantza	0,0	73,9	2,5	0,5	0,0	4,5	81,4	-0,3
Zerbitzuak	0,0	22,3	122,3	0,0	3,0	303,6	451,2	-2,1
Bizitegia	0,0	71,7	233,5	0,0	30,6	246,1	581,9	-7,1

Iturria: EEE. ENERGIA 2011

Bestalde, goranzko joera izan du energiaren amaierako kontsumoak 2008ko krisira arte. Ondoren kontsumoak gora egin zuen, eta berriz jaitsi da 2010 eta 2011 artean, zehazki %4,2, 5.178 Ktep-eraino. Amaierako kontsumorik handiena izan duten sektoreak industria (guztiaren %44,9) eta garraioa (%33,6) izan dira; eta sektore guztiek eragin dute jaitsiera horretan, bizitegi sektoreak (%-7), industriak (%-5,9), zerbitzuek (%-2,1), garraioak (%-1,4) eta lehen sektoreak (%-0,3).

Halaber, 2010 eta 2011 artean lehen mailako energiaren ekoizpena %8,2 murriztu da, 414 Ktep-etik 380ra; eta ekoizpen hori, batez ere, energia berriztagarrietan oinarritu da (norberaren iturri nagusia). Energia horiek, bestalde, %6,1 murriztu dira (393 Ktep-etik 369ra).

Lehen mailako energiako norberaren produkzio eskas horrek EAEko energia eskariaren (barne kontsumo gordina) %5,8 asetzea bakarrik ahalbidetzen du (6.550 Ktep). Ondorioz, EAEk kanpoko energiarekiko duen menpekotasuna % 94,2koa da, hau da, Estatukoa baino altuagoa (% 76,7), 2010ean, EUROSTATek argitaratu zuen "Energy, transport and environment indicators, 2012" txostenaren arabera, baita EB27ren batez bestekoa (% 52,7) baino altuagoa ere. Aldi berean, iturri berriztagarriak oinarri dituen ekoizpen txikiak (369 Ktep) azken kontsumoaren %7 betetzeko

baizik ez du ematen. Bestela esanda, energia berriztagarriek amaierako kontsumoan duten parte-hartze ratioa 2006koa (% 6,2) baino handiagoa da, baina EB27n EUROSTATen arabera izandakoa (% 12,5 2010ean) baino askoz baxuagoa eta gure erkidegorako Euskadiko Energia Estrategia 2020n (3E2020) ezarritako helburutik (% 14) urrun[7].

I.3.17. KOADROA. ENERGIA MENDEKOTASUNA (%)

	2000	2006	2008	2009	2010
EB27	46,7	53,7	54,6	53,7	52,7
Belgika	78,1	79,7	79,9	74,3	76,8
Bulgaria	46,5	46,2	52,1	45,3	40,3
Txekiar E.	23,0	27,8	27,9	27,0	25,6
Danimarka	-35,3	-35,9	-22,9	-20,6	-18,2
Alemania	59,5	60,7	60,5	61,5	59,8
Estonia	32,0	28,5	24,0	21,2	12,9
Irlanda	84,4	90,5	89,5	87,6	85,6
Grezia	69,5	71,8	73,3	67,8	69,1
Espainia	76,6	81,2	81,3	79,3	76,7
Frantzia	51,5	51,5	50,8	51,0	49,3
Italia	86,5	87,0	85,3	82,7	83,8
Zipre	98,6	102,5	97,6	96,4	100,9
Letonia	59,7	65,7	57,9	58,8	41,6
Lituania	59,8	62,4	58,2	50,2	81,9
Luxemburg	99,6	98,2	97,5	97,6	96,8
Hungaria	55,2	62,7	63,4	58,7	58,3
Malta	100,3	100	100	98,3	100,8
Holanda	38,7	37,4	34,4	36,5	30,7
Austria	65,6	72,4	68,9	65,4	61,8
Polonia	10,6	20,0	30,6	31,7	31,5
Portugal	84,9	83,0	82,8	81,0	75,4
Errumania	22,0	29,2	27,7	20,2	21,7
Eslovenia	52,6	52,1	55,1	48,2	49,3
Eslovakia	65,0	63,9	64,6	66,4	63,1
Finlandia	55,3	53,8	54,2	54,0	48,1
Suedia	39,2	37,8	37,9	37,1	36,5
Erresuma Batua	-17	21,2	26,2	26,2	28,3
Norvegia	-731,0	-664,8	-612,3	-639,1	-517,4
EAE	94,9	95,1	94,7	94,5	94,2

Iturria: EUROSTAT eta EEE.

Izan ere, energia motaren araberako amaierako kontsumoari dagokionez –oso interesgarria bera ingurumenaren ikuspegitik, energia mota bakoitzak inpaktu ezberdina daukalako– ikus daiteke petrolioa eta hartatik eratorritakoak direla oraindik ere kontsumo horren zati handiena, %37,4. Edonola ere, Ktep murriztapena eduki dute aurreko urtearen aldean, %6, hain zuzen ere. Garrantziaren aldetik atzetik ditu gas naturala (kontsumoaren %28, aurreko urtean baino %3 gutxiago) eta argindarra (eskariaren % 27,4 da eta %2,3 jaitsi da aurreko urtearen aldean). Oso atzetik ditu energia berriztagarriak, erregai solidoak (ikatza eta hartatik eratorritakoak) eta energia eratorriak (funtsean industria prozesuetan berreskuratutako beroa edo energia transformazioa –kogenerazioa adibidez– biltzen ditu).

Azkenik, BPGren unitate bakoitzeko amaierako kontsumo gisa neurtutako intentsitate energetikoaren analisiak adierazten duenez, 2011n intentsitatea 2000koaren %85 da eta, aurreko urtearekin alderatuta, 5 portzentaje-puntuz hobetu da.

EB27an, EUROSTATen aipatu txostenaren arabera, 2000koaren %89,7 da ekonomiaren energia intentsitatea.

Sektoreka banatuta, industriako energi intentsitatea ehuneko 7 puntu okertu da 2011n, energiaren kontsumoan gorakada izan arren industriako BPGan puntu 1 hobetu baita. Garraio sektorearena, berriz, 1,9 puntu hobetu da; eta zerbitzuena puntu 1 hobetu da.

3.2. ENPRESA INDUSTRIALA ETA INGURUMENA

3.2.1. Enpresa industrialen gastua ingurumena babesteko

EINk egindako Enpresa industrialek ingurumen babesean izandako gastuari buruzko inkestako azken datuen arabera, 2010ean EAEn aipatu enpresek ingurumen babesean izandako gastua (inbertsioa barne) guztira 210 milioi eurokoa izan zen. Hori 2009an baino %1,7 gehiago da.


210 milioi euro horietatik, 60.619.606 euro, hots, %28,9, inbertsioetako gastuari (%32,4 2009an) dagozkio eta %71,1 gastu korronteei.

7 Gogoratu behar dugu Europako Estrategia 2020an EBrako helburua %20 dela.

I.3.18. KOADRAO. INGURUMENA BABESTEKO INDUSTRI ENPRESEN GASTUA ETA INBERTSIOA								
	Gastua, guztira (€)				BPGren gaineko ehunekoak			
	2007	2008	2009	2010	2007	2008	2009	2010
Andaluzia	313.010.499	333.706.017	319.597.574	292.198.091	0,23	0,22	0,22	0,20
Aragoi	143.620.364	152.715.582	126.819.753	96.013.484	0,47	0,44	0,38	0,29
Asturias	215.247.165	203.592.138	119.890.531	93.752.135	1,01	0,86	0,54	0,41
Balear Uharteak	34.066.011	15.926.230	11.967.058	10.599.922	0,14	0,06	0,05	0,04
Kanariar U.	35.108.376	37.648.101	43.506.247	45.868.295	0,09	0,09	0,11	0,11
Kantabria	64.195.561	60.171.683	68.062.157	67.769.326	0,52	0,45	0,53	0,52
Gaztela eta Leon	264.475.089	299.968.059	185.273.761	137.330.218	0,50	0,53	0,34	0,25
Gaztela-Mantxa	113.100.200	138.824.580	127.241.776	106.371.486	0,34	0,36	0,34	0,28
Katalunia	659.082.537	679.930.605	604.809.446	610.820.604	0,36	0,34	0,31	0,31
Valentzia	263.224.457	281.986.018	224.121.489	201.638.909	0,27	0,26	0,22	0,20
Extremadura	20.852.402	33.739.426	26.372.435	35.042.315	0,13	0,19	0,15	0,20
Galizia	310.964.170	339.158.902	177.151.529	173.971.852	0,62	0,59	0,32	0,31
Madril	170.127.122	153.948.869	201.936.810	150.839.913	0,10	0,08	0,11	0,08
Murtzia	72.009.557	66.781.317	58.194.751	66.621.034	0,29	0,23	0,21	0,24
Nafarroa	70.688.291	75.287.814	65.811.746	63.514.761	0,43	0,41	0,37	0,35
EAE	230.180.351	232.735.174	206.511.412	209.956.055	0,38	0,35	0,33	0,33
Errioxa	32.032.363	22.734.686	18.786.049	21.802.971	0,44	0,27	0,24	0,27

Iturria: INE

I.3.5. ENERGIAREN INTENTSITATEAREN BILAKAERA



Iturria: EVE

Gastua BPGaren ehuneko bezala neurtuta, 2010ean egonkortu egin da, 2009aren aldean, %0,33 izanda, eta 2007aren aldean murriztu egin da. Hala, 2010ean EAE laugarren tokian dago, Kataluniaren (%0,52), Asturiasen (%0,41) eta Nafarroaren (%0,35) atzean.

II. KAPITULUA

Ekonomia EAE-n

1. KANPOKO INGURUNE EKONOMIKOA

1.1. FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK

2012ko lehenengo seihilekoan jarduera ekonomikoaren abiadura moteldu zen, industria-ekoizpena eta nazioarteko merkataritza murrizteagatik, funtsean. Bigarren seihilekoan jarduera egonkortzen joan zen ekonomia aurreratuetan, eta gora egin zuen goranzko merkatuen eta garatzeko bidean dauden merkatuen ekonomietan, politikek konfiantza suspertzen lagundu baitute.

Horrela, Europako agintariek hartutako neurri zorrotzek konfiantza eta finantza-baldintzak hobetzen lagundu zuten. Estatubatuarrek "amildegi fiskala" ekidin zuten, eta, aurreikusitako dezelerazioa baino handiagoa izan zenari erantzunez, Japoniak politika makroekonomiko hedagarriagoak hartu zituen. Denborak aurrera egin ahala, funtsezko garrantzia daukaten goranzko merkatuetako politikak baretu izanak barneko eskaria suspertu zuen.

Gauzak horrela, 2012ari dagokionez, erosteko ahalmenaren parekotasunaren arabera haztatutako munduko BPGd-a % 3,2 handitu zen, aurreko aldiko % 4ren aurrean, NDFren balioespenen arabera.

Ekonomia aurreratuek % 1,2ko gorakada izan zuten: AEBko BPGd-a % 2,2 eta Japoniakoa % 2 handitu ziren, eta Euroaren Eremua, aldiz, % 0,6 jaitsi zen.

Horrez gain, goranzko ekonomiak eta garatzeko bidean daudenak % 5,1 inguru handitu ziren, aurreko urteko hazkundea % 6,4koa izan zela. Brasilek % 0,9ko hazkunde txikia izan zuen, aurreko aldikoa % 2,7koa izan zela. Txina eta India % 7,8 eta % 4 handitu ziren, hurrenez hurren, 2011n % 9,3 eta % 7,7 hazi arren.

Jarduera ekonomikoaren bilakaerarekin bat etorriz, munduko merkataritzaren hazkundea aurreko urtekoa baino ahulagoa izan zen, % 2,5eko aldakuntza-tasa izanda, aurrekoa % 6koa izan zela.

Prezioen bilakaerari dagokionez, 2011 eta 2012 bitartean, Brent upelaren batez besteko prezioa % 0,8 handitu zen: lehen 111,7 $-ekoa zen, eta orain, aldiz, 112,6 $-ekoa. Lehengai ez-energetikoen prezioek aurkako aldakuntzak izan zituzten: elikagaien prezioak 2011koak baino handiagoak izan ziren; industria-gai

II.1.1. KOADROA. ALDAGAI EKONOMIKO NAGUSIEN AURKIBIDEA

	2011	2012
BPGd-a (urteko portzentajezko aldakuntza)		
Mundua	4,0	3,2
Ekonomia aurreratuak (1)	1,6	1,2
AEB	1,8	2,2
Japonia	-0,6	2,0
Euroaren Eremua	1,4	-0,6
• Bestelako ekonomia aurreratuak (AEB, Euroaren Eremua eta Japonia alde batera utzita)	2,6	1,4
Goranzko ekonomiak eta garatzeko bidean daudenak	6,4	5,1
Latinoamerika eta Karibe	4,6	3,0
Brasil	2,7	0,9
Mexiko	3,9	3,9
Estatu Independenteen Komunitatea	4,8	3,4
Errusia	4,3	3,4
Errusia alde batera utzita	6,1	3,3
Asian garatzeko bidean dauden herrialdeak	8,1	6,6
Txina	9,3	7,8
India	7,7	4,0
Erdialdeko eta Ekialdeko Europa	5,2	1,6
Ekialde Ertaina eta Ipar Afrika	3,9	4,7
Afrika azpisahararra	5,3	4,8
Hegoafrika	3,5	2,5
Ondasunen eta zerbitzuen munduko merkataritza *(ondasunen eta zerbitzuen munduko esportazioen eta inportazioen urteko aldakuntzaren %ren batezbestekoa)*	6,0	2,5
Kontsumoko prezioak *(urteko portzentajezko aldakuntza)*		
Ekonomia aurreratuak	2,7	2,0
Goranzko ekonomiak eta garatzeko bidean daudenak	7,2	5,9
North Sea Brent petrolioaren prezioa *($/upel, urteko batezbestekoa)*	**111,7**	**112,6**
Lehengaien prezioak *(€) (2005eko indizea = 100)*		
Elikagaiak	196,9	209,9
Industria-gaiak (ez metalak)	214,4	166,0
Industria-gaiak (metalak)	161,4	150,8
Eskuhartzearen interes-tasa *(aldiaren amaieran)*		
EDB	1,00	0,75
AEB – funts federalen tasa objektiboa	0,25	0,25
Japonia – Call Money (2)	0,10	0,10
Euroaren truke-tasa *(moneta unitateak €-ren arabera)*		
Dolarra euroaren arabera	1,392	1,286
Libera esterlina euroaren arabera	0,868	0,811
Yen japoniarra euroaren arabera	111,02	102,62
Burtsa: kotizazio-indizea *(abendutik abendurako portzentajezko aldakuntza)*		
Dow Jones (New York)	5,5	7,2
Nikkei	-17,3	22,9
Euro Stoxx zabala	-18,0	15,5
Ibex 35	-13,1	-4,6

(1) Ekonomia aurreratuak: AEB, Kanada, Japonia, Euroaren Eremua, Erresuma Batua, Danimarka, Suedia, Norvegia, Zipre, orain dela gutxi industrializatu diren Asiako ekonomiak, Israel, Islandia, Australia eta Zeelanda Berria. Orain dela gutxi industrializatu diren Asiako ekonomiak: Hego Korea, Taiwan, Hong-Kong, Singapur. (2) Bermerik gabeko maileguen egun baterako interes-tasa.
Iturria: NDFren "Munduko ekonomiaren aukerak" (2013ko apirila) eta Ekonomia Ministerioaren "Adierazle ekonomikoen laburpena"

metalikoenak zein ez-metalikoenak, berriz, txikiagoak izan ziren.

Aldi berean, finantza eta moneta baldintzak gero eta onuragarriago bilakatzen joan ziren, urteak aurrera egin ahala, errentagarritasunaren bilaketa eta ekonomia garatu nagusietako batzuetako banku zentralen moneta politika hedagarrietan sakontzeko aukerak nagusi izan dituen ingurunean.

Testuinguru horretan, Euroaren Eremuko egun baterako eskuhartze-tasa % 1en egon zen 2012ko uztailera arte, 2011ren amaieran bezala. Hil horretan, Europako Banku Zentralak % 0,75eraino jaitsi zuen, eta urtearen amaieran ratio berean zegoen.

Moneta merkatuko interes-tasei dagokienez, horiek epe guztietan murriztu ziren. Horrela, hilabeterako Euribor indizea % 0,64n egon zen urteko lehenengo hiruhilekoan, eta laugarrenaren amaieran % 0,11n egon zen; hiru hilabeterako Euribor indizea, aldiz, % 1,04n egon zen lehenengo hiruhilekoan, eta laugarrenaren amaieran % 0,2n; eta urtebeterako Euribor indizea % 1,67n zegoen urtearen hasieran, eta amaieran % 0,6n zegoen.

Horrez gain, AEBko Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak 2012an beren eskuhartze-tasei eusten jarraitu zuten, 2011ren amaieran bezala: lehenengoak % 0,25eko tasa zuen, eta bigarrenak, berriz, % 0,1ekoa.

Amaitzeko, kanbio eta burtsa merkatuei dagokienez, dibisa merkatuan AEBko dolarraren truke-tasa erreal eta eraginkorra zabaldu egin zen, eta, horren ondorioz, euroak balio-galera txikia izan zuen. Halaber, Europako dibisak balioa galdu zuen, libera esterlinaren eta yenaren aldean.

Munduko burtsa merkatuei dagokienez, Espainian IBEX 35ek urte arteko % 4,6ko jaitsiera izan zuen (2012ko abenduan neurtutakoa, 2011ko abendukoaren aldean), aurreko urteko % -13,1en aldean; Nikkeik % 22,9 egin zuen gora, 2011ko % -17,3ren aldean; Dow Jones indizeak % 7,2 egin zuen aurrera, 2011ko % 5,5en aldean; eta Euro Stoxx zabala % 15,5 handitu zen, aurreko urteko % 18ko jaitsieraren aldean.

1.2. BILAKAERA EKONOMIKOA GUNEEN ARABERA[1]

Ameriketako Estatu Batuak.

2012an Ameriketako Estatu Batuek hazkunde txikia izan zuten (nahiz eta aurreko urtekoa baino pixka bat handiagoa izan: % 2,2 % 1,8ren aurrean), finantza-krisitik ondorioztatutako ondorio nabarmenen, etengabeko zerga-finkapenaren, kanpoko baldintzen ahultasunaren eta aldi baterako shocken (nekazaritza jarduera eta inbentarioak ukitu zituen lehorte larria eta Sandy ekaitzak herrialdearen ipar-ekialdean eragindako arazoak, besteak beste) isla gisa.

Hala eta guztiz ere, badirudi susperraldiranzko bidea konpontzen ari dela. Kredituaren hazkundea gorantz joan da, eta banku-kredituaren baldintzak, oso murriztaileak zirenak, pixkanaka-pixkanaka malgutzen joan dira. Urtean zehar eraikuntzaren jarduerak ere gora egin du, nahiz eta maila txiki-txikietatik abiatu; higiezinen prezioak gora egiten hasi ziren, eta lanpostuak sortu ziren urteko bigarren seihilekoan. Gauzak horrela, langabezia-tasa % 8 ingurukoa izan zen. Soldata-igoerak neurrizkoak izan dira, eta horri esker inflazio-prezioari eusten lagundu da. KPIren urteko portzentajezko aldakuntza % 3,1etik % 2,1era jaitsi da 2011 eta 2012 bitartean.

Dena den, susperraldi txiki hori gorabehera, hazkunde ekonomikoa langabezia-tasa neurri handian murrizteko behar denetik urrun dago oraindik.

Japonia.

2012aren amaieran Japoniak urteko lehenengo erdiko balantzea baino okerragoa agertu zuen kontu ekonomikoetan. Horrela, kontsumo pribatuaren eta higiezinen inbertsioaren bilakaera ona gorabehera, enpresa-inbertsioak nabarmen egin zuen behera, eta ekonomia oro har moteltzea eragin zuen. Horrez gain, esportazioak ere mundu mailako ekonomiaren dezelerazioak eragindako jaitsieran murgilduta egon ziren. Horrela, BPGd-a % 2 handitu zen, ratio hori 2011ko % 0,6ko murrizketa baino handiagoa dela.

1 Epigrafe honetan agertzen den informazioa hainbat iturritatik dator: Nazioarteko Diru Funtsa, Europako Banku Zentrala eta Eusko Jaurlaritza.

Lan-merkatuari dagokionez, langabezia-tasa % 4,4koa izan da 2012an.

Europako goranzko ekonomiak.

Euroaren Eremuko krisia areagotzeak Europako goranzko ekonomien jarduera kaltetu zuen 2012an. Esportazioak gelditzen joan ziren, konfiantza hondatu zen, eta Mendebaldeko Europako bankuek beren ordezkatzaileetarako finantzaketa murriztu zuten.

Efektu horiekin batera barneko politika murriztaileak ere egon ziren: Turkian ekonomiaren gainberotzeari eusteko eta Polonian helburuak gainditzen zituen inflazioari eta zerga-defizit handiari aurre egiteko.

Horren ondorioz, eskualdeko hazkundea suntsitu zen 2011ko % 5,2tik 2012ko % 1,6ra; eta Hego-ekialdeko Europako zenbait ekonomia, 2008 eta 2009ko krisiaren ondoren erabat suspertu ez zirenak, atzeraldian egon ziren berriro ere.

Asiako goranzko ekonomiak.

Hazkundea moteldu zen eskualde osoan 2012aren erdialdean, Txinan esportazioak oro har ahuldu (ekonomia aurreratu gehienetan inportazioen eskaeraren hazkundea moteldu da, eta hori bat dator Asiako esportazioen hazkunde txikiagoarekin) eta 2010ean eta 2011n hazkundea moteltzeko eta hobeto orekatzeko politika murriztaileagoak aplikatu ondoren. Horrela, gune osoan BPGd-aren hazkundea 2011ko % 8,1etik 2012ko % 6,6ra jaitsi da.

Hala eta guztiz ere, 2012ko laugarren hiruhilekoan Txinak BPGd-aren dezelerazioaren zazpigarren hiruhilekoarekin amaitu zuen, eta % 7,9ko hedapena izan zuen. Gorakada (urritik abendura bitartean gertatutakoa) urteko lehenengo erdian hartutako zerga- eta moneta-politika hedagarriak aplikatzeari esker gertatu zen. Urteko batez besteko hazkundea % 7,8koa izan zen, hazkunde-tasa hori txikiena dela 1999tik. Inflazioari dagokionez, 2011ko % 5,4tik 2012ko % 2,6ra murriztu zen.

Horrez gain, Indiako hazkundea % 4koa izan zen, 2011n erregistratutako % 7,7ren aurrean. Nolabaiteko ahultasuna antzeman zen nekazaritza eta industria ekoizpenean, eta barneko kontsumoa eta atzerriko inbertsioa murriztu ziren. Ekoizpenaren beheranzko joera horrekin batera inflazio-presio bizia egon zen, kontsumoko prezioen indizea % 8,9 eta % 9,3 handitu zela 2011n eta 2012an, hurrenez hurren.

Estatu Independenteen Erkidegoa (EIE)[2].

Nahiko indartsua izan zen hasieraren ondoren, jarduera eskualdean moteldu zen 2012 osoan. Gauzak horrela, urteko batez besteko hazkundea % 3,4koa izan zen, 2011ko % 4,8ren aurrean.

Mundu mailako dezelerazioak eskualde osoko esportazioak ukitu zituen, nahiz eta eragina handiagoa izan zen EIEko Europako herrialdeetan Kaukason eta Erdialdeko Asian baino. Barneko eskaria ere ahuldu zen.

Latinoamerika eta Karibe (LK).

Eskualdean BPGd errealaren hazkundea 2011ko % 4,6tik 2012ko % 3ra murriztu zen, kanpoko eskariaren dezelerazioa eta batzuetan barneko faktoreen eragina zirela-eta.

Dezelerazioa oso nabarmena izan zen eskualdeko ekonomia handiena den Brasilen, eta hor diru-politikaren pizgarri handiak ez zuen lortu inbertsio pribatua sustatzea. Haren dezelerazioa eskualdeko haren merkataritza bazkideetara hedatu zen, eta bereziki Argentinara, Paraguaira eta Uruguaira.

Horrez gain, finantza-merkatuetako gainerako ekonomia gehienetan (Txile, Mexiko, Peru), hazkundea indartsua izan zen. Erdialdeko Amerikako jarduera ekonomikoak gogorra dela erakutsi zuen, 2012ko batez besteko hazkundea % 4,8koa izan zela.

Hala ere, Karibe eskualdeko zati handian zorraren maila handiek eta turismoak eragindako diru-sarrera urriek susperraldia zapaldu zuten.

2 Nazioz gaindiko erakundea, 15 sobietar errepublika ohietatik 10ek osatzen dutena, Baltikoko 3 estatuak (Estonia, Letonia eta Lituania), Turkmenistan eta Georgia izan ezik..

II.1.2. KOADROA. BPGd ERREALA, KONTSUMITZAILEARENTZAKO PREZIOAK ETA KONTU KORRONTEKO SALDOAK (NDF)

	BPGd errealaren urteko portzentajezko aldakuntza		KPIren urteko portzentajezko aldakuntza		Kontu korronteko saldoa BPGd-aren % gisa		Langabezi a-tasa
	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2012
Ekonomia aurreratuak	**1,6**	**1,2**	**2,7**	**2,0**	**-0,2**	**-0,1**	
AEB	1,8	2,2	3,1	2,1	-3,1	-3,0	8,0
Japonia	-0,6	2,0	-0,3	0,0	2,0	1,0	4,4
Euroaren Eremua	1,4	-0,6	2,7	2,5	0,6	1,8	11,4
Goranzko ekonomiak eta garatzeko bidean daudenak					**1,9**	**1,4**	
Asian garatzeko bidean dauden ekonomiak	**8,1**	**6,6**	**6,5**	**4,5**	**1,6**	**1,1**	**-**
Txina	9,3	7,8	5,4	2,6	2,8	2,6	4,1
India	7,7	4,0	8,9	9,3	-3,4	-5,1	-
Latinoamerika eta Karibe	4,5	3,0	6,6	6,0	-1,3	-1,7	-
Argentina	-	1,9	9,8	10,0	-0,4	0,1	7,2
Brasil	2,7	0,9	6,6	5,4	-2,1	-2,3	5,5
Mexiko	3,9	3,9	3,4	4,1	-0,8	-0,8	4,8
Hego Amerika	-	2,6	-	6,8	-	-1,7	-
Erdialdeko Amerika	-	4,8	-	4,5	-	-6,6	-
Karibe	-	2,4	-	5,1	-	-4,5	-
Europako goranzko ekonomiak (Erdialdeko eta Ekialdeko Europa)	5,2	1,6	5,3	5,8	-6,3	-4,3	-
Turkia	8,5	2,6	6,5	8,9	-9,7	-5,9	9,2
Polonia	4,3	2,0	4,3	3,7	-4,9	-3,6	10,3
Errumania	2,2	0,3	5,8	3,3	-4,5	-3,8	7,0
Estatu Independenteen Erkidegoa (12 herrialde + 1)	4,8	3,4	10,1	6,5	4,5	3,2	-
Errusia	4,3	3,4	8,4	5,1	5,2	4,0	6,0
Errusia alde batera utzita	6,1	3,3	14,1	9,9	2,3	0,6	-
Energia esportatzaile garbiak	-	3,8	-	5,2	-	4,5	-
Energia inportatzaile garbiak	-	1,2	-	13,5	-	-7,3	-
Afrika azpisahararra	5,3	4,8	9,3	9,1	-1,4	-2,8	-
Petrolio esportatzaileak	-	6,5	-	10,9	-	6,5	-
Sarrera ertaineko ekonomiak	-	3,6	-	5,6	-	-6,1	-
Sarrera txikiko ekonomiak	-	4,6	-	12,7	-	-11,5	-
Ekialde Ertaina eta Ipar Afrika	-	4,8	-	10,7	-	12,5	-
Petrolio esportatzaileak	-	5,7	-	11,3	-	16,6	-
Petrolio inportatzaileak	-	1,9	-	8,7	-	-7,7	-

Ekonomia aurreratuak ***(34 herrialde)****:* ***AEB, Kanada, Japonia, Euroaren Eremua, Erresuma Batua, Australia, Danimarka, Israel, Islandia, Suedia, Norvegia, Zeelanda B., Suitza eta Asiako ekonomia industrializatu berriak.*** *Estatu Independenteen Erkidegoa* ***(12 herrialde + 1)****:* ***Sobietar errepublika ohiak, 13 Mongolia sartuz gero***
Iturria: NDFren "Munduko ekonomiaren aurreikuspenak" (2013ko apirila)

Afrika azpisahararra.

Kontsumoaren barneko sustapenak eta sektore pribatuko inbertsioak zein esportazioek neurri handian indartuta, Afrika azpisahararrak % 4,8ko hazkundea izan zuen 2012an, 2009an denbora labur-laburrean bakarrik eten zen hedatzeko joera luzeari eutsita.

Dena den, 2011ren aldean, Hego Sudango petrolio esportazioen etenak eta Mali eta Ginea Bissauko gatazka zibilek hazkunde-tasa orokorra ukitu zuten.

Ekialde Ertaina eta Afrikako iparraldea (EEAI)

Ekialde Ertaineko eta Afrikako iparraldeko jarduera ekonomikoak emaitza mistoak izan zituen 2012an berriro ere. Petrolio esportatzaileak diren eskualdeko herrialde gehienak erritmo handietan hazi baziren ere, hazkunde ekonomikoak geldoa izaten jarraitu zuen petrolio inportatzaileak diren herrialdeetan, askotan trantsizio politikoetan murgilduta baitzeuden.

Horrela, petrolio esportatzaileak diren herrialdeek 2012an % 5,7ko hazkunde handia izan zuten, batez ere Libiako petrolio ekoizpenaren ia berrezarpen osoagatik eta Persiako Golkoko Lankidetza Kontseiluko herrialdeetako hedapen handiengatik.

Horrez gain, petrolio inportatzaileak diren herrialdeetan 2012an hazkundea % 2 ingurukoa izan zen, hainbat faktorek geldiarazten jarraitzen zutela, adibidez: etengabeko ziurgabetasun politikoa eta tirabira sozialeko gertaerak, trantsizioan murgilduta zeuden Arabiako hainbat herrialdetan; eskualde mailako kutsadura efektu garrantzitsuak, Siriako gatazka larriagotzearen ondorioz; Europako merkataritza-bazkideen kanpoko eskari ahula; eta lehengaien garestitasun iraunkorra (bereziki elikagaiak eta erregaiak). Horren ondorioz, ondasunen esportazioak eta atzerriko zuzeneko inbertsioko fluxuak (AZI) murriztu dira, turismoko fluxuak 2010eko mailaren azpitik daude (baita Egipton eta Libanon ere), eta langabezia herrialde askotan handitu da. Aldi berean, inflazioa neurrizkoa izan da oro har, eskari ahula dela-eta.

1.3. EUROPAR BATASUNA. EUROAREN EREMUA

Balioespen ofizialen arabera, Euroaren Eremuko BPGd-a berriro jaitsi zen 2012ko laugarren hiruhilekoan, 2011ko udan eremua atzeraldian berriro sartu zenetik uzkurdura ekonomikoaren ondoz ondoko sei hiruhileko egon direla. Urte artean BPGd-aren aldakuntza errealeko tasa 2012an % -0,5ekoa izan zen, aurreko urteko % 1,5eko hazkundearen aurrean.

Eskariaren ikuspuntutik, uzkurdura handiagoa egon da 2012an, 2011ren aldean. Izan ere, bai inbertsioak bai kontsumo pribatuak aldakuntza-tasa negatiboak izan dituzte: KFEGd-ak % -3,9 izan du, aurreko aldiko % 1,6ko hazkundearen aurrean; kontsumo pribatuak, aldiz, % 1,2 egin du atzera, urtebete lehenago izandako % 0,1eko gehikuntzaren aldean. Horrez gain, kontsumo publikoak bere aldakuntza-tasa negatiboari eutsi dio % -0,1en. Nabarmena da inbertsioa urtean zehar pixkanaka-pixkanaka murriztu izana lehenengo hiruhilekoko % -2,5etik laugarreneko % -4,9ra.

Kanpoko sektoreari dagokionez, esportazioak % 2,9 handitu dira, aurreko urteko % 6,5eko hazkundearen aurrean, eta nabarmena da inportazioen jaitsiera (% -0,9%), aurreko aldiko % 4,4ko hazkundearen aurrean.

II.1.3. KOADROA. EUROAREN EREMUKO ADIERAZLE EKONOMIKO NAGUSIAK

	2011	2012	2011		2012			
			III	IV	I	II	III	IV
Urte arteko aldakuntza-tasak (q/q-4) Serie desestazionalizatuak								
Merkatuko prezioetako BPGd-a	**1,5**	**-0,5**	**1,3**	**0,6**	**-0,1**	**-0,5**	**-0,7**	**-0,9**
BARNEKO ESKARIA	**0,6**	**-2,2**	**0,4**	**-0,7**	**-1,7**	**-2,3**	**-2,5**	**-2,2**
Gastua azken kontsumo pribatuan	0,1	-1,2	0,3	-0,9	-1,1	-1,1	-1,5	-1,2
Gastua azken kontsumo publikoan	-0,1	-0,1	-0,4	-0,3	0,1	-0,1	-0,1	-0,2
KFEGd-a	1,6	-3,9	0,8	0,8	-2,5	-3,9	-4,4	-4,9
KANPOKO ESKARIA								
Esportazioak	6,5	2,9	5,7	3,6	2,5	3,6	3,2	2,2
Inportazioak	4,4	-0,9	3,6	0,6	-1,1	-0,7	-1,0	-0,6
BEGd erreala								
Nekazaritza	2,0	-1,1	-	2,6	0,4	-0,7	-2,2	-2,0
Industria	3,4	-1,3	-	0,1	-1,1	-1,2	-1,2	-1,6
Eraikuntza	-0,8	-3,9	-	0,5	-3,5	-3,8	-3,8	-4,7
Merkatuko zerbitzuak	1,3	0,1	-	1,1	0,6	0,2	-0,1	-0,2
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA								
Enplegua (urte arteko aldakuntza-tasa)	0,3	-0,6	-	-0,1	-0,4	-0,7	-0,6	-0,7
Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren gaineko %)	10,2	11,4	-	10,6	10,9	11,3	11,5	11,8
PREZIOAK, LAN-KOSTUAK ETA PRODUKTIBITATEA. *Urte arteko aldakuntza-tasak*								
KPIH	2,7	2,5	-	2,9	2,7	2,5	2,5	2,3
Soldatapeko bakoitzeko lansaria	2,2	1,8	-	2,3	2,0	1,8	1,9	1,4
Lan-produktibitatea	1,2	0,0	-	0,7	0,3	0,3	-0,1	-0,2

Iturria: Espainiako Bankua (Estatistikak, Adierazleen laburpena. Euroaren Eremua. Adierazle ekonomiko orokorrak)

Sektoreen ikuspuntutik, osagai guztiek atzerapena izan dute; gainera, industrian eta nekazaritzan hain atzerapen handiak izan dira, non haien aldakuntza-tasak negatibo bihurtu diren (eraikuntzak aldakuntza-tasa negatiboa izan zuen 2011n, eta haren jaitsiera larriagotu egin da 2012an). Oso nabarmena da industriaren joeran antzemandako aldaketa: 2011ko % 3,4ko aldakuntza-tasa positibotik 2012ko % -1,3ko aldakuntza-tasa negatibora igaro da. Zerbitzuen sektoreari dagokionez, merkatuko zerbitzuen arlo zehatzean haren urteko batez besteko aldakuntza-tasa positiboa (% 0,1) bada ere, hiruhilekoko profilak dezelerazio argia agertu du, azken bi hiruhilekoetan aldakuntza-tasa negatiboak egotea ekarri duena: % -0,1 eta % -0,2, hurrenez hurren.

Enplegua suspertzen hasi zen 2010aren amaieran, baina bere hazkundea moteldu zuen 2011n; gauzak horrela, urtearen amaieran aldakuntza-tasa negatiboak izan zituen, 2012 osoan ere agertu direnak. Horrela, enplegua % 0,6 txikiagotu da 2012an. Horrez gain, 2012 osorako langabezia-tasa % 11,4koa izan da, hau da, aurreko aldiko tasa baino %, 1,2 puntu portzentual handiagoa.

II.1.4. KOADROA. EUROPAR BATASUNAREN BILAKAERA EKONOMIKOA

	Biztanle bakoitzeko BPGd-a (1)		BPGd errealaren hazkundea			Langabezia-tasa (2)		Enpleguaren hazkundea (%) (3)		Inflazioa (KPIB) (urteko batezbestekoak)		Produktibitatea langileko (aurreko urtearen aldeko aldaketaren %)		Aldakuntzaren %. Lan-kostuaren indizea (balio izendatua (4)	
	2010	2011	2011	2012	2013 (aurk.)	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012
27ko EB	100	100	1,6	-0,3	0,1	9,7	10,5	0,3	-0,4	3,1	2,6	1,3	0,1	2,6	2,1
Euroaren Eremua (17)	108	108	1,4	-0,6	-0,3	-	-	0,3	-0,6	2,7	2,5	1,2	0,0	2,7	2,0
Belgika	119	119	1,8	-0,2	0,2	7,2	7,6	1,4	0,2	3,4	2,6	0,4	-0,4	2,8	2,9
Bulgaria	44	46	1,8	0,8	1,4	11,3	12,3	-3,4	-4,3	3,4	2,4	5,4	5,4	10,7	6,4
Txekiar Errepublika	80	80	1,9	-1,3	0	6,7	7,0	0,3	0,4	2,1	3,5	1,6	-1,7	3,8	2,8
Danimarka	128	125	1,1	-0,6	1,1	7,6	7,5	-0,4	-0,5	2,7	2,4	1,5	-0,1	2,8	1,5
Alemania	119	121	3,0	0,7	0,5	5,9	5,5	1,4	1,1	2,5	2,1	1,6	-0,4	3,0	2,8
Estonia	63	67	8,3	3,2	3	12,5	10,2	7	2,1	5,1	4,2	1,2	1,0	4,9	6,4
Irlanda	129	129	1,4	0,9	1,1	14,7	14,7	-1,8	-0,6	1,2	1,9	3,3	1,5	-1,1	1,9
Grezia	87	79	-7,1	-6,4	-4,4	17,7	24,3	-5,6	-8,3	3,1	1,0	-1,6	2,1	-5,7	:
Espainia	99	98	0,4	-1,4	-1,4	21,7	25,0	-1,5	-4,2	3,1	2,4	2,0	2,9	2,7	1,1
Frantzia	108	108	1,7	0	0,1	9,6	10,2	0,6	0	2,3	2,2	1,2	0,1	3,4	1,9
Italia	101	100	0,4	-2,4	-1	8,4	10,7	0,3	-0,3	2,9	3,3	0,1	-2,1	2,2	1,7
Zipre	97	94	0,5	-2,4	-3,5	7,9	11,9	0,4	-4,1	3,5	3,1	0,1	1,7	1,7	1,2
Letonia	54	58	5,5	5,6	3,8	16,2	14,9	-8,1	2,6	4,2	2,3	14,8	2,9	3,4	4,0
Lituania	57	66	5,9	3,6	3,1	15,3	13,3	2	-6,7	4,1	3,2	3,8	11,1	2,7	4,9
Luxemburg	267	271	1,7	0,3	0,5	4,8	5,1	-	-	3,7	2,9	-1,2	-1,9	3,2	2,2
Hungaria	65	66	1,6	-1,7	-0,1	10,9	10,9	0,4	0,1	3,9	5,7	1,2	-1,8	5,6	5,9
Malta	85	85	1,7	0,8	1,5	6,5	6,4	2,7	2,1	2,5	3,2	-1,0	-1,2	0,1	1,0
Holanda	131	131	1	-1	-0,6	4,4	5,3	0,7	-0,1	2,5	2,8	0,3	-0,8	2,3	0,7
Austria	127	129	2,7	0,8	0,7	4,2	4,3	1,7	1,1	3,6	2,6	1,0	-0,3	3,6	4,4
Polonia	63	64	4,5	1,9	1,2	9,7	10,1	1	-1,6	3,9	3,7	3,5	3,5	4,4	3,1
Portugal	80	77	-1,6	-3,2	-1,9	12,9	15,9	-1,5	-4,2	3,6	2,8	0,0	1,1	-0,3	-
Errumania	47	49	2,2	0,7	1,6	7,4	7	-1,1	1,9	5,8	3,4	3,3	-1,2	6,6	6,2
Eslovenia	84	84	0,6	-2,3	-2	8,2	8,9	-1,6	-1,3	2,1	2,8	2,2	-1,1	2,1	0,6
Eslovakia	73	73	3,2	2	1,1	13,6	14	1,8	0,1	4,1	3,7	1,4	2,0	5,5	2,1
Finlandia	113	114	2,8	-0,2	0,3	7,8	7,7	1,1	0,3	3,3	3,2	1,7	-0,5	2,5	4,1
Suedia	124	127	3,7	0,8	1,3	7,8	8	2,3	0,7	1,4	0,9	1,4	0,1	2,7	3,5
Erresuma Batua	111	109	1	0,3	0,9	8	7,9	0,5	-	4,5	2,8	0,6	-0,5	1,9	1,8

(1) EAPn. 27ko EB=100 (2) 15 eta 74 urte artean. (3) Urteko aldakuntza-tasa biztanleria landun osoan (4) Industria eta Zerbitzuak (Administrazio Publikoa eta Komunitaterako Zerbitzuak izan ezik). Iturria: Eurostat

II.1.5. KOADROA. FINANTZA PUBLIKOAK EB-N

	Gobernuak BPGd-aren gainean duen zor publikoaren %		BPGd-aren gaineko defizit/superabit publikoaren % (moneta nazionaletan)	
	2011	2012	2011	2012
27ko EB	82,5	85,3	-4,4	-4,0
Euroaren Eremua (17)	87,3	90,6	-4,2	-3,7
Belgika	97,8	99,6	-3,7	-3,9
Bulgaria	16,3	18,5	-2,1	-0,8
Txekiar Errepublika	40,8	45,8	-3,3	-4,4
Danimarka	46,4	45,8	-1,8	-4,0
Alemania	80,4	81,9	-0,8	0,2
Estonia	6,2	10,1	1,2	-0,3
Irlanda	106,4	117,6	-13,4	-7,6
Grezia	170,3	156,9	-9,5	-10,0
Espainia	69,3	84,2	-9,4	-10,6
Frantzia	85,8	90,2	-5,3	-4,8
Italia	120,8	127,0	-3,8	-3,0
Zipre	71,1	85,8	-6,3	-6,3
Letonia	41,9	40,7	-3,6	-1,2
Lituania	38,5	40,7	-5,5	-3,2
Luxemburg	18,3	20,8	-0,2	-0,8
Hungaria	81,4	79,2	4,3	-1,9
Malta	70,3	72,1	-2,8	-3,3
Holanda	65,5	71,2	-4,5	-4,1
Austria	72,5	73,4	-2,5	-2,5
Polonia	56,2	55,6	-5,0	-3,9
Portugal	108,3	123,6	-4,4	-6,4
Errumania	34,7	37,8	-5,6	-2,9
Eslovenia	46,9	54,1	-6,4	-4,0
Eslovakia	43,3	52,1	-5,1	-4,3
Finlandia	49,0	53,0	-0,8	-1,9
Suedia	38,4	38,2	0,2	-0,5
Erresuma Batua	85,5	90,0	-7,8	-6,3

Iturria: Eurostat

KPIBk neurtutako inflazio orokorra % 2,5 hazi zen 2012an batez beste, 2011ko hazkundea % 2,7koa izan zela.

Jarduera ekonomikoak behera egitearen ondorio gisa, eta enplegua suntsitu izana gorabehera, lanaren ekoizkortasunaren abiadura moteldu egin zen aurreko urtekoarekin erkatuta, % 1,2ko tasatik hutsera igaro baitzen.

Jarduera ekonomikoaren jaitsieraren ondorioz eta lana suntsitu bazen ere, lanaren produktibitatea aurreko urtearen aldean moteldu zen: % 1,3tik tasa nulura pasatu zen. EUROSTATen arabera, estatu kide guztien egoera honako hau da: 15eko EBren baitan ikus daitekeenez, 2010ean honakoak izan dira, EAPen[3] arabera neurtuta, Euroaren Eremuko batez bestekoa (108) baino askoz per capita BPGd handiagoa izan duten herrialdeak (MSEko kapitulu hau amaitzerakoan ez zegoen datu berriagorik): Luxemburg (271), Holanda (131), Austria eta Irlanda (biak 129), Suedia (127), Danimarka (125), Alemania (121), Belgika (119), Finlandia (114) eta Erresuma Batua (109). Batezbestekoaren parean Frantzia (108) dago, eta horren azpitik Italia (100), Espainia (98), Grezia (79) eta Portugal (77).

27ko EBren BPGd-aren aldakuntza-tasa erreala % -0,3koa izan zen 2012an. Hazkunde-tasa handienak Letonian (% 5,6), Lituanian (% 3,6), Estonian (% 3,2), Eslovakian (% 2) eta Polonian (% 1,9) egon dira.

Honako hauek tasa neurritsuagoak izan dituzte: Irlanda (% 0,9), Suedia, Austria, Malta eta Bulgaria (laurak % 0,8), Errumania eta Alemania (biak % 0,7), eta Erresuma Batua eta Luxemburg (biak % 0,3). Frantziak aldakuntza-tasa nulua izan du, eta Europako gainerako estatuek tasa negatiboak izan dituzte, jaitsiera handiena Grezian egon dela (% -6,4).

Lan-merkatuan langabezia-tasak bi digitutik gorako zifrak ditu hainbat estatutan. Izan ere, honako hauek % 10 eta % 12 arteko tasak dituzte: Polonia, Estonia, Frantzia, Italia, Hungaria eta Zipre. % 12 eta % 15 artekoak: Bulgaria, Lituania, Eslovakia, Irlanda eta Letonia. Eta % 15etik gorakoak, 27ko EBko langabezia-tasa handienak izanda: Portugal (% 15,9), Grezia (% 24,3) eta Espainia (% 25). Tasa txikienak, aldiz, honako estatu hauetan daude: Austria (% 4,3), Luxemburg (% 5,1), Holanda (% 5,3) eta Alemania (% 5,5).

Estatu zehatz batzuetan egondako lan suntsidura handienak produktibitatearen gehikuntzak Lituanian (% 11,1), Bulgarian (% 5,4), Polonian (% 3,5), Letonian eta Espainian (biak % 2,9), Grezian (% 2,1) eta Eslovakian (% 2) handiak izatea ekarri du, Europako batezbestekoaren aldean. 27ko EBko batez bestekoa % 0,1ekoa izan da, eta 17ko Euroaren Eremukoa, aldiz, % 0koa.

Horrez gain, aurretik aipatu denez, Kontsumoko Prezioen Indize Bateratuaren arabera, urteko batez besteko inflazioa % 2,5ekoa izan da Euroaren Eremuan, aurreko urteko ratioak baino 2 hamarren portzentual gutxiago izanda.

3 Eroste ahalmenaren parekotasuna

Finantza publikoei dagokienez, Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren xedapenen arabera, estatu kideek bi irizpide errespetatzeko konpromisoa hartu dute: % 3ko defizita/BPGd-a ratioa eta % 60ko zorra/BPGd-a ratioa.

Estatu kide batek defiziterako gehieneko muga gainditzen badu, gehiegizko defizita dagoenean aplikatu beharreko prozedura (GDP[4]) abiarazten da; hori kalkulatzeko ez dira kontuan hartzen finantza sektorerako laguntzak[5].

EUROSTATen datuen arabera, 2012an BPGd-aren gaineko zor publikoa estatu guztietan handitu da, Danimarkan, Grezian, Letonian, Hungarian, Polonia eta Suedian izan ezik. Egonkortasun Itunean ezarritako % 60ko muga honako estatu hauetan gainditu da: Belgika (% 99,6), Alemania (% 81,9), Irlanda (% 117,6), Grezia (% 156,9), Espainia (% 84,2), Frantzia (% 90,2), Italia (% 127), Zipre (% 85,8), Hungaria (% 79,2), Malta (% 72,1), Holanda (% 71,2), Austria (% 73,4), Portugal (% 123,6) eta Erresuma Batua (% 90). Euroaren Eremu osoan, BPGd-aren gaineko zor publikoa % 90,6koa izan zen.

Defizitari dagokionez, Egonkortasun eta Hazkunde Itunean BPGd-rako ezarritako % 3ko muga gainditu ez duten estatu bakarrak honako hauek izan dira: Alemania (% 0,2, superabita izan duen estatu bakarra dela), Estonia (% -0,3), Suedia (% -0,5), Bulgaria eta Luxemburg (biak % -0,8), Letonia (% -1,2), Finlandia eta Hungaria (biak % -1,9), Luxemburg (% -0,6), Austria (% -2,5), Errumania (% -2,9) eta Italia (% -3). Euroaren Eremu osoan, defizit publikoa BPGd-aren % 3,7ko maila baliokidean kokatu zen.

Defizit handienak honako estatu hauetan egon dira: Espainia (% 10,6), Grezia (% 10), Irlanda (% 7,6), Portugal (% 6,4), eta Erresuma Batua eta Zipre (biak % 6,3).

Espainiari dagokionez, Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioaren datuen arabera, finantza sistemarako laguntzak (38.343 milioi euro) kontuan hartzen ez dituen defizita BPGd-aren % 6,98koa izan da.

1.4. ESPAINIAKO EKONOMIA

Espainiako ekonomiak bere uzkurdura joera areagotu zuen 2012ko laugarren hiruhilekoan. 2013ko otsailean argitaratu diren EINen Hiruhilekoko Kontabilitate Nazionalaren (HKN) datuen arabera, Espainiako ekonomiaren BPGd erreala, egutegia eta urtarokotasuna zuzendu dituena, % 0,8 jaitsi zen 2012ko laugarren hiruhilekoan hiruhileko artean eta % 1,9, aldiz, urte artean; jaitsiera horiek aurreko hiruhilekokoak baino puntu erdi eta hiru hamarren handiagoak izan dira, hurrenez hurren. Horrela, 2012aren amaieran BPGd-aren urteko beherakada % 1,4koa izan zen, aurreko urtean % 0,4ko hazkundea izan bazuen ere.

Bilakaera hori eskari nazionala BPGd-aren urte arteko hazkundetik neurri handiagoan aldendu izanaren emaitza da (laugarren hiruhilekoko 4,7 pp, hirugarren hiruhilekoko 4 pp-ren aurrean); kanpoko eskari garbia, berriz, lau hamarren handitu da (hirugarren hiruhilekoko 2,4 pp-tik laugarren hiruhilekoko 2,8 pp-ra), inportazioen atzerakada erritmo biziagoaren ondorioz; horrek esportazioak moteldu izana konpentsatu du.

Horrela, eskari nazionalak 3,9 puntu portzentual kendu dizkio BPGd-aren 2012ko urte arteko hazkundeari, baina kanpoko eskariak 2,5 puntu portzentual eman dizkio.

Eskariaren ikuspuntutik, barneko eskariaren ahultasun handiagoa haren osagaien guztien uzkurdura joerak azaltzen du urte artean. Kontsumo publikoak

4 Prozedura horrek hainbat aldi (zehapenen ezarpena barne) barne hartzen ditu, ukitutako estatu kidea egoera zuzentzeko neurriak hartzera bultzatzeko.

GDPk irizpideak, egutegiak eta epeak ezartzen ditu, ECOFIN Kontseiluak gehiegizko defizita egoteari buruzko erabakia har dezan. Ez da abiarazten gehiegizko defizitaren prozedura, defizit publikoak BPGd-aren % 3ren gainean duen soberakina aldi baterakotzat eta ohiz kanpokotzat jotzen denean eta defizita muga horretatik hurbil dagoenean.

Kontseiluak adierazten badu defizita gehiegizkoa dela, gomendioa egiten dio ukitutako estatu kideari, eta neurri zuzentzaile eraginkorrak hartzeko epea ezartzen du.

5 Euroaren Eremuko herrialdeen zor publikoari buruzko ziurgabetasuna 2010aren hasieran sortu zen, Greziako bonuak gehienbat eraginda. Hala ere, egoera berehala kutsatu zitzaien zerga egoera zailagoa eta hazkunde txikiagoa zituzten herrialdeei (Portugal, Italia, Irlanda, Grezia eta Espainia). Horrela, zor subiranoaren interes-tasak izugarri igo ziren, diferentzialak eta arrisku-prima errekor mailetara helduta, Alemaniako zorraren interes-tasekin batera.

Arrisku subiranoaren eta banku arriskuaren atzeraelikadura kentzeko eta finantza merkatuak Euroaren Eremu osoan egonkortzeko onetsitako finantza neurriak 2010eko maiatzean abiarazi ziren, Greziarako lehenengo finantza erreskatearen bidez, eta 2011 eta 2012 bitartean ere erabili dira (2010eko azaroa: Irlanda; 2011ko maiatza: Portugal; 2011ko urria: Grezia berriro; eta 2012ko ekaina: Espainia).

bere uzkurdura joera luzatu du: % -0,5etik % -3,7ra 2001 eta 2012 bitartean. Etxeen azken kontsumoaren gastuak % 2,5eko beherakada izan du 2011ko % -0,8ren aurrean. Kontsumo pribatuaren portaera azaltzen duten faktore nagusien artean lanaren suntsidura handiagoa, familien errenta erabilgarriaren murrizketa eta erosketen aurrerapenaren itzulketa (irailaren 1ean indarrean sartu ziren BEZ tasen gehikuntzaren ondorioz) daude. Kapital finkoaren eraketa gordinak (KFEGd) bere uzkurdura areagotu zuen (% -5,3tik % -9,1era), haren osagai nagusia den eraikuntzaren atzerakada handiaren eta ekipamendu-ondasunen eta aktibo landuen zein aktibo finko immaterialen beheranzko flexioaren ondorioz.

Bestalde, aurretik aipatu bezala, kanpoko eskariak BPGd-aren hazkundeari egindako ekarpena positiboa izan zen (2,5 puntu). Dena den, nabarmena da 2011 eta 2012 bitartean esportazioek % 3,1eko batez besteko urte arteko hazkundea (aurreko urteko % 7,6ren azpitik, beraz) izatea eta inportazioak aurreko urtean baino neurri handiagoan txikiagotzea (% -5, % -0,9ren aurrean).

Eskaintzaren ikuspuntutik, BPGd-aren 2012ko urte arteko beherakada ekoizpen-adar guztien jardueran islatu zen, lehen sektorean izan ezik. Izan ere, haren balio erantsi gordina (BEGd) % 2,2 handitu zen, hau da, aurreko urtean baino sei puntu portzentual gutxiago. Industriaren BEGd-ak % 2,9 egin zuen atzera, aurreko urtean % 2,7 handitu arren; eraikuntzak % 8,1eko beherakada izan zuen (% -5,9 aurreko aldian); eta zerbitzuen sektoreak % -0,4ko tasa izan zuen, aurreko urtean % 1,4 handitu ondoren.

II.1.6. KOADROA ESTATUKO EGOERA MAKROEKONOMIKOA. 2008KO OINARRIA[6] ***Urte arteko aldakuntza-tasak. Kateatutako bolumena. Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak***

	2011	2012	2011				2012			
			I	II	III	IV	I	II	III	IV
Barneko eskaria (*)	**-1,9**	**-3,9**	**-0,9**	**-1,8**	**-1,8**	**-3,1**	**-3,1**	**-3,8**	**-4,0**	**-4,7**
Gastua azken kontsumoan	**-0,8**	**-2,5**	**0,6**	**-0,8**	**-1,0**	**-2,1**	**-2,0**	**-2,3**	**-2,6**	**-3,3**
Etxeen kontsumo pribatua	-0,8	-2,2	0,2	-0,9	-0,2	-2,4	-1,3	-2,2	-2,1	-3,0
Kontsumo publikoa	-0,5	-3,7	2,2	-0,5	-2,7	-1,1	-3,8	-2,8	-4,0	-4,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	**-5,3**	**-9,1**	**-6,0**	**-4,9**	**-4,2**	**-6,0**	**-7,4**	**-9,2**	**-9,7**	**-10,3**
- Aktibo finko materialak	-5,8	-10,0	-6,7	-5,4	-4,7	-6,6	-8,1	-10,0	-10,7	-11,0
• Eraikuntza	-9,0	-11,5	-10,8	-8,5	-8,0	-8,6	-9,5	-11,6	-12,4	-12,3
• Ekipamendu-ondasunak eta aktibo landuak	2,3	-6,6	4,9	2,9	3,5	-1,7	-5,1	-6,4	-7,0	-7,9
- Aktibo finko immaterialak	3,1	2,6	4,1	1,4	4,9	2,0	3,4	2,7	4,8	-0,5
Kanpoko eskaera										
Ondasunak eta zerbitzuak esportatzea	7,6	3,1	10,2	7,1	7,6	5,8	2,1	2,7	4,2	3,2
Ondasunak eta zerbitzuak inportatzea	-0,9	-5,0	4,5	-1,6	-1,2	-4,9	-5,9	-5,2	-3,4	-5,4
Merkatuko prezioetako BPGd-a	**0,4**	**-1,4**	**0,5**	**0,5**	**0,6**	**0,0**	**-0,7**	**-1,4**	**-1,6**	**-1,9**
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	8,2	2,2	8,1	8,2	8,7	7,8	2,5	2,2	2,4	1,9
Industria	2,7	-2,9	5,8	2,4	2,5	0,2	-3,2	-3,1	-2,9	-2,4
Eraikuntza	-5,9	-8,1	-8,6	-6,1	-4,3	-4,5	-7,5	-7,7	-8,9	-8,5
Zerbitzuak	1,4	-0,4	1,3	1,6	1,6	1,1	0,7	-0,3	-0,6	-1,2
Produktuen gaineko zerga garbiak	-5,5	-0,3	-4,7	-5,3	-6,0	-5,9	-0,4	-0,2	-0,2	-0,5
Lan-merkatua										
Lanaldi osoaren pareko lanpostuak										
Landunak	-1,7	-4,4	-1,4	-0,9	-1,6	-2,9	-3,7	-4,7	-4,6	-4,7
Soldatapekoak	-1,5	-5,1	-1,2	-0,7	-1,4	-2,6	-4,2	-5,2	-5,6	-5,6
16 urtekoen edo zaharragoen langabezia-tasa (BAI)	21,6	25,0	21,3	20,9	21,5	22,8	24,4	24,6	25,0	26,0
Langile bakoitzeko produktibitatea	2,2	3,2	1,9	1,5	2,3	2,9	3,1	3,5	3,1	2,9

(*) Merkatuko prezioetako BPGd-ari egindako ekarpena.
Iturria: EIN (Hiruhilekoko Kontabilitatea eta BAI) eta Espainiako Bankua. Adierazle ekonomiko orokorrak

[6] *Espainako Kontabilitate Nazionalaren (EKN) 2008ko oinarri berriak dakarren berrikuntza teknologikoa jardueren eta produktuen sailkapenen aldaketa da; hórrela, oinarrizko eragiketa estatistikoek erabiltzen dituztenekin, bai estrukturalak bai koiunturalak, bateragarri egin dira. Gainera, sisteman aktibo finkoen sailkapen bat sartu da (produktuka sailkatu beharrean), kapital finkoaen formakuntza gordinaren datuen hedapenean eragina izango dutenak.*

Arauen aldaketa hori zeharlerroa da Europar Batasuneko estatu kide guztietan, Batzordearen 2010eko abuztuaren 10eko 715/2010 Araudia aplikatzearen ondorioz. Araudi horrek Kontseiluaren 2223/96 Araudia (CE) aldatu zuen, kontu nazionalen egokitzapenei dagokienez, jarduera ekonomikoen nomenklatura estatistikoa berrikusi eta gero (NACE, rev. 2) eta produktuen jardueraren araberako sailkapen estatistikoa (PJS) berrikusi eta gero+.

II.1.7. KOADROA ESPAINIAKO EKONOMIAREN ORDAINKETA-BALANTZA *(milioi euro)*

	2010	2011bb	2012bb
BPGd bb	1.048.883	1.063.355	1.049.525
Finantziazio gaitasuna/premia	-39.642	-33.943	-2.365
BPGd-aren gainean (%)	-3,8	-3,2	-0,2
Kontu korrontearen eta kapitalaren saldoa	-40.674	-34.316	-4.679
Kontu korrontea	-46.963	-39.787	-11.268
Ondasunak (merkataritza-balantza)	-48.173	-42.331	-25.800
Zerbitzuak (zerbitzuen balantza)	28.040	34.630	37.112
Errentak	-19.933	-25.712	-18.589
Transferentzia arruntak	-6.897	-6.374	-3.991
Kapital kontua	6.289	5.471	6.589
Finantza-saldoa	43.329	28.681	434
Guztira, Espainiako Bankua salbu	27.633	-80.459	-173.081
Inbertsio zuzena	1.532	-7.022	25.387
Zorroko inbertsioa	28.727	-27.547	-53.631
Bestelako inbertsioak	-11.232	-43.923	-153.277
Finantza-deribatuak	8.605	-1.967	8.439
Espainiako Bankua	15.696	109.141	173.515
Erreserbak	-814	-10.022	-2.211
Eurosistemari aurre egiteko aktibo garbiak	9.788	124.056	162.366
Bestelako aktibo garbiak	6.722	-4.893	13.361
Akatsak eta jaulkipenak	-2.655	5.635	4.245

bb: behin-behinekoa. Iturria: Espainiako Bankua. Adierazle ekonomikoak.

II.1.8. KOADROA. ORDAINKETA-BALANTZA

Kontu korrontearen balantza (KKB)
- Merkataritzaren balantza (ondasunena)
- Zerbitzuen balantza (turismoa eta beste batzuk)
- Errenten balantza
- Transferentzia arrunten balantza

Kapitalaren balantza (Kapital b.)
- Kapital-transferentziak (EGEF, Kohesio Funtsa...)
- Finantzaz kanpoko aktibo ez produktiboak eskuratzea eta besterentzea (lurra, lur baliabideak, aktibo ukiezinak, egile eskubideak...)
- Errenten balantza

Kanpoko aurrezki eskaera = Finantziazio ahalmena (premia)

KKB + Kapitalaren balantza + Kanpoko egoiliarren inbertsioak.

Jardueraren jaitsieraren azelerazio hori enpleguan ere gertatu da. Gauzak horrela, 2011. urtean lanaldi osoan betetako lanpostu kopuru osoa % 1,7 murriztu bazen ere, 2012. urtean % 4,4ko murriztapena zenbatu zen. Soldatapekoen beherakada % 5,1ekoa izan zen, aurreko urteko % 1,5en aurrean. Bestalde, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) agerian uzten du (16 urtetik gorakoen) langabezia-tasa % 21,6tik % 25era handitu dela.

BPGd-aren urte arteko beherakada handiagoaren ondorioz eta lanaren suntsidura handiagoa gorabehera, landun bakoitzeko itxurazko produktibitatea moteldu zen bigarren hiruhilekotik aurrera, baina, hala ere, areagotu egin zen 2011 eta 2012 bitartean.

Ordainketa-balantzari dagokionez, eta kanpoko sektoreak egindako ekarpen positiboarekin batera, Espainiako ekonomiak finantza egoera hobetu zuen munduko gainerako herrialdeen aldean. Ekonomiaren finantziazio beharra (defizita) sortzen da, ekonomiaren sektoreek sortu duten aurrezkia nahikoa ez denean egindako inbertsioari aurre egiteko, eta kontu korrontearen balantzaren, kapitalaren balantzaren eta kanpoko egoiliarren inbertsioen balantzaren saldoak batuz kalkulatzen da. 2011n BPGd-aren % 3,2koa zen, eta 2012an, berriz, % 0,2koa; horrek 2.365 milioi euro dakar, hau da, aurreko urtean baino 31.578 milioi gutxiago.

Espainiako Administrazio Publikoek 111.616 milioi euroko defizitarekin (behin-behineko datuak) amaitu dute 2012. urtea, Kontabilitate Nazionalaren arabera neurtuta. Horrek esan nahi du 2011 eta 2012 bitartean BPGd-a % 9,4tik % 10,6era igaro dela (finantza sektorerako laguntzak barne).

Bananduta, Administrazio Zentralek, Autonomia Erkidegoek, Tokiko Korporazioek eta Gizarte Segurantzak, hurrenez hurren, % 7,8, % 1,8, % 0,1 eta % 1eko defizitarekin itxi zituzten beren kontuak.

Aurretik aipatu bezala, Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioaren datuen arabera, estatuaren defizita BPGd-aren % 6,98koa izan da, finantza sektorerako laguntzak kontuan hartu gabe. Defizit horrek BPGd-aren 0,68 puntu portzentual (pp) desbideratzea dakar berrikusitako helburuaren aldean (% 6,3koa zen).

Diru-sarrerei dagokienez, zerga nagusien bilketa % 4,3 handitu zen 2012an (Autonomia Erkidegoen eta Tokiko Korporazioen ekarpenak ere kontuan hartuta). Gehikuntza hori bai zuzeneko zergen (% +7,3, bertan PFEZ % 1,2, Sozietateena % 29 eta "Bestelakoak" partida % 26,6 handitu direla) bai zeharkako zergen (% +0,5) gehikuntzatik sortzen da. Hala ere, kasu horretan BEZa % 2,4 handitu da, baina bereziak % 4 txikitu dira, eta "Bestelakoak" partida % 1,5 jaitsi da.

II.1.9. KOADROA. SALDO PUBLIKOA AGENTEEN ARABERA* (milioi euro)

	Milioi €				BPGd-aren %				
	2009	**2010**	**2011bb**	**2012a**	**2009**	**2010**	**2011 bb**	**2012a**	**2012ko helburua**
Herri Administrazioak Finantziazio gaitasuna (+) / premia (-), EKNren arabera*	**-117.098**	**-101.469**	**-100.440**	**-111.616**	**-11,2**	**-9,7**	**-9,4**	**-10,6**	**-6,3**
Administrazio Zentralak									
Administrazio Zentrala (Estatua eta erakunde autonomoak)	-97.991	-52.896	-36.619	-81.511	-9,3	-5,0	-3,4	-7,8	-3,5***
Gizarte Segurantza	8.096	-1.934	-773	-10.131	0,8	-0,2	-0,1	-1,0	-1,0
Lurraldeko erakundeak									
AAEE	-21.343	-39.603	-54.057	-18.411	-2,0	-3,8	-5,1	-1,8	-1,5
Tokiko Korporazioak (TTKK)	-5.860	-7.036	-8.991	-1.563	-0,6	-0,7	-0,8	-0,1	-0,3

bb: behin-behinekoa; a: aurrerapena (*) Finantziazio gaitasuna/premia Espainiako Kontabilitate Nazionalaren arabera. ** Ez ditu barne hartzen finantza sistemarako finantza baliabideak. *** Ez ditu barne hartzen 2009ko finantza sistemaren likidazioak.
Iturria: Espainiako Bankua eta "Adierazle ekonomikoen laburpena" (2013ko otsaila). Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa.

II.1.10. KOADROA. ESTATUKO ZERGA-BILKETA
(Autonomia Erkidegoek eta Tokiko Korporazioek PFEZ, BEZ eta zerga bereziei egindako ekarpena barne) (milioi euro)

	Zuzeneko zergak				Zeharkako zergak				Guztira		
	Guztira	PFEZ	Sozietateak	Bestelakoak	Guztira	BEZ	Bereziak	Bestelakoak	Estatua	AAEE eta TTKK	Guztira
2008	102.024	71.341	27.301	3.382	70.671	48.015	19.570	3.086	113.325	59.370	172.695
2009	87.521	63.857	20.188	3.476	55.662	33.573	19.349	2.739	82.761	60.422	143.183
2010	86.913	66.977	16.198	3.738	71.886	49.079	19.806	3.001	111.087	47.712	158.799
2011	89.641	69.803	16.611	3.227	71.241	49.302	18.974	2.965	88.026	72.855	160.881
2012	96.152	70.631	21.435	4.086	71.594	50.464	18.209	2.921	75.643	92.102	167.746
2010-11 bariazioa	3,1	4,2	2,5	-13,7	-0,9	0,5	-4,2	-1,2	-20,8	52,7	1,3
2011-12 bariazioa	7,3	1,2	29,0	26,6	0,5	2,4	-4,0	-1,5	-14,1	26,4	4,3

Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa. Adierazle ekonomikoen laburpena. Taulak eta Grafikoak. 2013ko apirila

II.1.11. KOADROA. AURREKONTUAREN BETEARAZPENA: ESTATUAK ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK (milioi euro)

	Langileria	Ondasunen eta zerbitzuen erosketak	Interesak	Transferentzia arruntak	Kapital-transferentziak	Inbertsioak	Guztira
2008	25.384,7	4.553,9	15.929,0	84.217,7	18.164,2	10.675,7	158.925,1
2009	26.666,9	4.965,0	17.651,7	107.511,9	11.840,0	10.624,8	179.260,3
2010	26.991,4	4.451,9	19.641,1	102.697,4	13.662,7	8.069,7	175.514,2
2011	27.409,6	4.041,3	22.195,4	86.707,7	7.877,8	6.162,7	154.394,5
2012	26.743,6	3.528,9	26.059,0	85.405,4	4.657,8	7.194,6	153.589,3
2010-11 bariazioa	1,5	-9,2	13,0	-15,6	-42,3	-23,6	-12,0
2011-12 bariazioa	-2,4	-12,7	17,4	-1,5	-40,9	16,7	-0,5

Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa. Adierazle ekonomikoen laburpena. Taulak eta Grafikoak. 2013ko apirila

Bestalde, Estatuak onartutako obligazioak % 0,5 txikitu dira. Murrizketa nabarmenena kapital-transferentzien kapituluari lotutakoa da (% -40,9); horren atzean, ondasunen eta zerbitzuen erosketa (% -12,7%), eta langileriaren murrizketa (% -2,4) eta transferentzia arruntak (% -1,5) daude. Halaber, nabarmena da interesak (% +17,4) eta inbertsioak (% +16,7, aurreko urtean % 23,6 jaitsi ondoren) handitzea.

1.5. AUTONOMIA ERKIDEGOAK

EINen Eskualdeko Kontabilitateari buruzko datu ofizialen arabera, 2012an BPGd-aren aldakuntza errealaren estatuko batezbestekoa % -1,4koa izan zen. Sei autonomia erkidegok murrizketa txikiagoa izan zuten, baina 27ko EBren gainetik (% -0,3): Balearrak (% -0,3, 27ko EBren batezbestekoan), Galizia (% -0,9), Katalunia eta Kanariak (biak % -1), Madril eta Kantabria (biak % -1,3), eta Ceuta hiri autonomoa (% -1,1). Hona hemen erregistro txarrenak izan zituztenak: Gaztela-Mantxa (% -3), Asturias (% -2,5), Extremadura (% -2,2) eta Errioxa (% -2,1).

Per capita BPGd nominalari dagokionez, lehenengo tokian EAE dago, biztanleko 30.829 euroko BPGd-arekin, estatuko batezbestekoa (22.772 euro) baino % 34,5 gehiago. Haren atzetik datoz Madril (29.385 euro per capita), Nafarroa, 29.071 euroko per capita BPGd-arekin, Katalunia (27.248 euro biztanleko), Aragoi (25.540), Errioxa (25.508), eta Balear Uharteak (24.393). Beraz, horiek guztiak estatuko batezbestekoaren gainetik daude.

Kontrako egoeran daude Extremadura (15.394 euro), Andaluzia (16.960) eta Melilla (16.981). Lan-merkatuari dagokionez, estatu osorako langabezia-tasa % 25,2koa izan da 2012an. Tasa txikienak dituzten autonomia erkidegoak honako hauek dira: EAE (% 15), Nafarroa (% 16,4), Kantabria (% 17,9), Aragoi (% 18,7) eta Madril (% 19,2). Estatuko batezbestekoaren gainetik daude Ceuta (% 38,8), Andaluzia (% 34,7), Kanariar Uharteak (% 33,3), Extremadura (% 33,1), Melilla (% 28,9), Gaztela-Mantxa (% 28,6), Murtzia (% 28) eta Valentziako Erkidegoa (% 27,8).

2012an lan galera handienak honako hauetan gertatu dira: Ceuta (% -10,9), Extremadura (% -9,2), Gaztela-Mantxa (% -7,7), Errioxa (% -6,5), Katalunia (% -6,2), EAE (% -6), Andaluzia (% -5,3) eta Asturias (% -4,6).

II.1.12. KOADROA. AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO BPGd-aren HAZKUNDEA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA-TASAK

	Landun pertsonen kopuruaren aldakuntza		Langabeen kopuruaren aldakuntza		Langabezia-tasa (16-64 urte)		BPGd bolumenaren aldakuntza		Per capita BPGd-a		
									2011 a	2012 z	
	2010-11	2011-12	2010-11	2011-12	2010-11	2011-12	2010-11	2011-12	Estatua = 100	Estatua = 100	€ per capita
Guztira	**-1,9**	**-4,5**	**7,9**	**15,4**	**21,8**	**25,2**	**0,4**	**-1,4**	**100**	**100**	**22.772**
Andaluzia	-2,9	-5,3	9,1	14,7	30,5	34,7	0,0	-1,7	75,2	74,5	16.960
Aragoi	-2,3	-0,8	16,2	9,8	17,2	18,7	0,3	-1,5	111,8	112,2	25.540
Asturias	-2,4	-4,6	11,6	22,1	18,0	21,9	-0,1	-2,5	93,0	92,4	21.035
Balear U.	-2,1	0,9	7,1	8,8	22,0	23,3	1,6	-0,3	105,7	107,1	24.393
Kanariar U.	0,8	-3,5	5,8	12,5	29,9	33,3	1,7	-1,0	86,2	85,9	19.568
Kantabria	-1,2	-2,6	10,7	16,2	15,4	17,9	0,5	-1,3	98,4	98,1	22.341
Gaztela eta Leon	-1,3	-4,2	5,8	17,3	16,9	19,9	1,1	-1,8	97,5	97,9	22.289
Gaztela-Mantxa	-0,8	-7,7	11,0	23,5	23,0	28,6	-0,4	-3,0	78,7	77,7	17.698
Katalunia	-1,8	-6,2	8,4	15,3	19,4	22,8	0,6	-1,0	118,1	119,7	27.248
Valentziako Erkidegoa	-2,3	-4,5	4,3	12,6	24,6	27,8	-0,2	-1,5	88,0	87,7	19.964
Extremadura	-2,9	-9,2	8,7	33,8	25,2	33,1	-0,9	-2,2	68,4	67,6	15.394
Galizia	-1,6	-4,0	14,0	18,6	17,5	20,8	-0,1	-0,9	90,2	91,0	20.723
Madril	-2,0	-2,7	2,7	13,5	16,8	19,2	0,6	-1,3	129,5	129,0	29.385
Murtzia	-2,9	-2,7	8,6	10,4	25,5	28,0	0,0	-1,7	82,1	81,3	18.520
Nafarroa	-0,8	-4,2	9,9	24,7	13,0	16,4	1,4	-1,8	128,6	127,7	29.071
EAE	-0,8	-6,0	14,8	20,3	12,1	15,0	0,8	-1,4	134,7	135,4	30.829
Errioxa	-3,4	-6,5	18,8	17,7	17,1	20,6	0,9	-2,1	111,7	112,0	25.508
Ceuta	-3,6	-10,9	26,9	34,3	29,6	38,8	0,1	-1,1	86,5	84,9	19.335
Melilla	6,3	-2,1	10,1	21,1	24,5	28,9	-0,6	-1,5	78,4	74,6	16.981

a: aurrerapena. z: zenbatespena
Iturria: EIN Eskualdeko kontabilitatea eta BAI

2. EAE-REN ABAGUNE EKONOMIKOA

2.1. EBOLUZIO OROKORRA

Euskal ekonomiak aurreko urteetakoa baino nabarmen hazkunde erreal txikiagoko tasarekin itxi zuen 2008. urtea (%1,3, eta aurreko urtekoa %4,2 izan zen EUSTATen datuen arabera). 2009. urtean, areagotu egin ziren ekoizpenaren jaitsierak, eta BPGaren aldakuntza tasa erreal negatiboa gertatu zen (%-3,9, 2008. urtekoarekin alderatuta). Harrezkero, jaitsierak ez dira hain handiak izan, eta 2010 eta 2011. urteetan, BPGaren urte arteko aldakuntza positiboak ageri dira, %0,4 eta %0,5 hurrenez hurren.

Alabaina, Hiruhileko Kontu Ekonomikoen –HKE- arabera (2013ko otsailean argitaratuak), hazkunde txikiagoa izan dute (%0,6tik %0,2ra lehen eta laugarren hiruhilekoaren artean) hiruhileko aldakuntza-tasek 2011. urtean, eta negatibo bihurtu dira 2012an. Hala, 2012ko lehen hiruhilekoan %-0,4ko aldakuntza tasa hasi zen lehen hiruhilekoan eta %-1,7ko tasa bukatu zen laugarrena.


Hala, EAEko ekonomiak 2012an %1,2ko jaitsiera izan du, kopuru errealetan, EUSTATen arabera; eta haren prezio arrunteko BPG 66.223 milioi eurokoa da (EINen Eskualde Kontabilitateak %-1,4ko aldakuntza-tasa erreala (urte artekoa) erregistratu du euskal ekonomiarako. Zenbatespen hori urruti dago EUSTATek eskainitako balioetatik).

Espainiako ekonomiako BPGak, bestalde, % -1,4ko batez besteko urteko aldakuntza-tasa eduki du kopuru errealetan, eta aurreko urtean % 0,4ko hazkundea erregistratu zen.

EB-27an %0,3ko jaitsiera izan da EUROSTATen arabera; 17ko euro gunean, berriz, %-0,6koa izan zen. Ondorioz, ekoizpenaren jaitsiera handiagoa da EAE euro gunean eta EB-27an baino; eta EINen arabera, estatuko batez bestekoaren berdina.


2012. urtean izandako hiruhileko arteko tasak aztertuz gero, ikus liteke BPGak behera egin duela: lehen hiruhilekoan %-0,7ko aldakuntza-tasa izan badu ere, laugarrenean %-1,8koa izan du.

II.2.1. GRAFIKOA. EAE-REN BPG. ALDAKUNTZA TASAK BOLUMEN KATEATUAN



Iturria: EUSTAT. HKE

II.2.2. GRAFIKOA. BARNE ETA KANPO ESKARIAK BPG-AREN HAZKUNDEAN EGINIKO EKARPENA



Iturria: EUSTAT. HKE (a: aurrerapena)

Eskariaren gaineko azterketak erakusten duenez, barne eskariaren %2,2ko jaitsiera erreala dago. BPGaren urte arteko beherakada, berriz, %1,2koa da. Horrek agerian uzten du kanpoko saldoaren ekarpen positiboa, hain zuzen ere %1ekoa, esportazioen (-%5,2) nahiz inportazioen (-%6,4) mailetan jaitsierak gertatu badira ere.

Estatuan, EINen datuen arabera, eskari nazionalaren ekarpena BPGaren hazkundeari -3,9 puntukoa izan zen, eta kanpo eskariarena +%2,5ekoa.

Barne eskariaren jaitsiera aurreko urtekoa baino askoz handiagoa izan da 2012an gure Erkidegoan (%-2,2, aurreko urteko %-0,3aren aldean), eta kontsumoak nahiz inbertsioak izan duten beherakadagatik gertatu da. Hala, kontsumo pribatuaren (-%1) eta publikoan (-%2,1) izandako gastuaren jaitsiera dela-eta, kontsumoak %1,2 egin du behera. Bestalde, kapitalaren eraketa gordinak eskariaren profilik negatiboena erakusten du; izan ere, %5,4ko jaitsiera izan da, %-4koa ekipo ondasunen inbertsioetan.

Prezio korronteetako BPGaren bilakaera aztertuta ondoriozta daitekeenez, jaitsi egin da ekipo ondasunen inbertsioa: 2005ean BPGaren %8,4tik %7ra 2012an. Bestalde, eraikuntza ondasunen inbertsioan, 2005eko %21,1etik %16,3ra 2011n.

II.2.1. KOADROA. EAE-REN EGOERA MAKROEKONOMIKOAREN EBOLUZIOA (Urte arteko aldakuntza-tasa)

	2007	2008	2009	2010	2011 (a)	2012 (a)	I	II	III	IV
BPG erreala, merkatuko prezioetan	**4,2**	**1,3**	**-3,9**	**0,4**	**0,5**	**-1,2**	**-0,4**	**-1,0**	**-1,5**	**-1,7**
Eskaria										
Barne eskaria (hazkundea)	4,3	0,8	-5,4	-0,2	-0,3	-2,2	-1,4	-2,7	-2,3	-2,5
Barne eskariaren ekarpena (1)	4,6	0,9	-5,7	-0,2	-0,3	-2,3	-	-	-	-
Azken kontsumoko gastua	4,1	1,9	-1,7	1,1	0,2	-1,2	0,0	-1,7	-1,5	-1,6
Kontsumo pribatua	3,6	0,6	-3,6	0,8	0,3	-1,0	0,0	-1,4	-0,9	-1,6
Kontsumo publikoa	6,4	7,0	5,0	2,2	-0,1	-2,1	-0,2	-2,9	-3,4	-1,6
Kapitalaren Eratze Gordina (KEG)	4,1	1,9	-1,7	1,1	-1,8	-5,4	-5,5	-5,8	-4,9	-5,5
Ekipo-ondasunetako kapital finkoaren eratze gordina	9,3	-1,0	-23,2	-2,6	7,1	-4,0	-1,3	-4,0	-4,8	-5,8
Gainerako KEG	-	-	-	-	-5,1	-6,0	-7,1	-6,5	-5,0	-5,4
Kanpoko saldoaren ekarpena (1)	-0,3	0,5	0,3	0,9	0,9	1,0	-	-	-	-
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa	5,4	-0,2	-13,4	7,7	5,5	-5,2	-2,6	-0,1	-8,1	-9,6
Estatuko gainerako autonomiak	0,1	-3,4	-9,9	2,4	-	-	-	-	-	-
Atzerria	12,0	3,4	-16,9	13,8	-	-	-	-	-	-
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa	5,4	-0,8	-12,6	5,9	4,0	-6,4	-3,8	-2,7	-8,8	-10,2
Estatuko gainerako autonomiak	5,2	-0,6	-4,0	3,2	-	-	-	-	-	-
Atzerria	5,6	-1,2	-25,0	11,3	-	-	-	-	-	-
Eskaintza										
Lehen mailakoa	0,0	-6,1	-4,8	20,8	-1,9	5,9	12,8	3,9	-2,1	8,4
Industria eta energia	3,1	-0,7	-12,9	2,0	2,0	-2,4	-1,4	-2,4	-2,8	-3,1
Manufaktura industria	-	-	-	-	3,6	-2,1	-0,2	-2,3	-2,6	-3,2
Eraikuntza	11,1	-5,8	-7,4	-7,9	-5,9	-6,3	-6,3	-6,4	-6,1	-6,3
Zerbitzuak	4,0	3,4	0,0	0,7	0,8	-0,3	0,4	0,0	-0,6	-0,9
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	3,6	1,2	-2,8	0,4	0,0	-1,1	0,0	-1,0	-1,3	-2,0
Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak	5,3	6,2	3,4	3,8	3,9	0,0	2,5	1,1	-1,5	-1,9
...Gainerako zerbitzuak	3,7	3,4	0,0	-0,8	-0,4	0,1	-0,4	0,0	0,4	0,3
Balio erantsi gordina oinarrizko prezioetan	4,4	1,2	-4,3	0,3	0,5	-1,2	-0,5	-1,1	-1,6	-1,8
Produktuen gaineko zerga garbiak	2,8	2,4	-0,1	1,9	0,2	-0,3	0,7	-0,2	-0,5	-1,3
BPG nominala, merkatuko prezioetan	**7,5**	**2,3**	**-5,2**	**1,8**	**1,8**	**-0,1**	**0,6**	**0,3**	**-0,7**	**-0,5**

Aurrerapena
(1) BPGaren hazkunderako ekarpenen ehunekoak.
(2) Ez dago lanaldi osoko enpleguari buruzko informaziorik.
Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak eta Hiruhileko Kontu Ekonomikoak (2013ko otsaila)

II.2.2. KOADROA. BPG-AREN AGREGATUEN EBOLUZIOA. ESKARIA (mila eurotan eta ratioak)								
	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011(a)	2012 (a)
BPG: ESKARIA (mila eurotan eta ratioak)								
BARNE PRODUKTU GORDINA	**56.884.948**	**61.353.909**	**65.962.032**	**67.478.054**	**63.988.786**	**65.120.174**	**66.264.502**	**66.223.349**
BARNE ESKARIA								
AZKEN KONTSUMOKO GASTUA	**42.796.181**	**46.173.237**	**49.376.152**	**51.322.850**	**50.639.505**	**51.780.691**	**52.826.737**	**52.864.878**
-Etxeen azken kontsumoa eta ISFLSH	34.347.047	37.070.235	39.412.698	40.379.234	39.022.740	40.054.266	41.153.253	41.554.249
BPGaren gaineko portzent.	60,4	60,4	59,8	59,8	61,0	61,5	62,1	62,7
- AAPPen azken kontsumoko gastua	8.449.134	9.103.002	9.963.454	10.943.616	11.616.765	11.726.425	11.673.484	11.310.629
BPGaren gaineko portzent.	14,9	14,8	15,1	16,2	18,2	18,0	17,6	17,1
KAPITALAREN ERATZE GORDINA	**17.390.045**	**19.114.369**	**20.706.415**	**20.838.703**	**17.485.687**	**16.695.047**	**16.544.784**	**15.725.172**
- Kapital finkoko eratze gordina eta objektu baliotsuak	16.802.220	18.380.919	20.119.645	19.952.438	16.711.257	15.755.681	15.624.206	-
-- ekipo ondasunetan	4.781.067	5.241.527	5.458.795	5.431.571	4.220.971	4.386.290	4.790.530	4.646.814
BPGaren gaineko portz.	8,4	8,5	8,3	8,0	6,6	6,7	7,2	7,0
-- eraikuntza ondasunetan eta beste batzuk	12.021.153	13.139.392	14.660.850	14.520.867	12.490.286	11.369.391	10.833.676	-
BPGaren gaineko portz.	21,1	21,4	22,2	21,5	19,5	17,5	16,3	-
- Izakinen aldakuntza	587.825	733.450	586.770	886.265	774.430	939.366	920.578	-
BARNE ESKARIA								
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	**37.527.308**	**41.302.813**	**44.981.017**	**46.938.753**	**37.442.323**	**41.905.246**	**46.334.638**	**44.259.708**
- Estatuko gainerakoak	21.325.833	22.931.404	23.806.292	23.911.992	20.073.022	21.894.303	22.528.321	-
BPGaren gainek portz.	37,5	37,4	36,1	35,4	31,4	33,6	34,0	-
- Atzerria	16.201.475	18.371.409	21.174.725	23.026.761	17.369.301	20.010.943	23.806.317	-
BPGaren gaineko portz.	28,5	29,9	32,1	34,1	27,1	30,7	35,9	-
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	**40.828.586**	**45.236.510**	**49.101.552**	**51.622.252**	**41.578.729**	**45.260.810**	**49.441.657**	**46.626.408**
- Estatuko gainerakoak	25.620.056	27.134.703	29.504.248	30.456.531	27.547.800	28.007.018	30.323.704	-
BPGaren gaineko portz.	45,0	44,2	44,7	45,1	43,1	43,0	45,8	-
- Atzerria	15.208.530	18.101.807	19.597.304	21.165.721	14.030.929	17.253.792	19.117.953	-
BPGaren gaineko portz.	26,7	29,5	29,7	31,4	21,9	26,5	28,9	-

Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak eta Hiruhileko Kontu Ekonomikoak

Eskaintzaren aldetik, prezio korronteetako BPGaren bilakaerak erakusten duenez, industria eta energiaren sektorea 2005ean BPGaren %25,8 izatetik %22ra igaro da 2012an. Eraikuntza, berriz, %8,7tik %7,1era; eta zerbitzuak %53,8tik %61,6ra.

Kopuru errealetan, 2011 eta 2012 urte artean, eraikuntzaren jaitsiera nabarmentzen da, %6,3ko murrizpena izanik, eta beheranzko joerari eusten dio. Industriak eta energiak aurreko urtean aldakuntza-tasa positiboa izan ondoren (+%2), %2,4 egin du behera, gehienbat manufaktura industriaren atzeraldiagatik (-%2,1). Zerbitzuen sektorean ere behera egin du jarduera mailak: %0,3. Oro har, EAEren ekonomiaren balio erantsia %1,2 jaitsi da 2012an.

Enpleguaren bilakaerari dagokionez, lanaldi osoan neurtuta eta EUSTATen HKEen arabera, negatiboa izan du, zenbatetsitako 2012ko urte batez bestekoa, %2,5ekoa izan baita. Sektore guztietan egin du behera, neurri txikiagoan nekazaritzan (-%0,1) eta zerbitzuetan (-%0,8), eta handiagoa eraikuntzan (-%11,8) eta industrian (-%4,3), neurri txikiagoan bada ere.

Prezioei eta produktibitateen gaineko azterketa egiteko, prezio, kostu eta errentei buruzko atala irakurtzea gomendatzen dugu.

2.2. BARNE ESKARIA


Arestian esan dugunez, barne eskariaren jaitsiera aurreko epealdikoa baino handiagoa izan da (%-2,2, aurreko %-0,3aren aldean.

Hala, barne eskariaren hazkundea geldotuz joan da 2011n, zeren %0,2ko aldakuntza-tasa errealarekin (urte artekoa) hasi baitzen lehen hiruhilekoan eta laugarrenean %-1,4arekin bukatu. Joera hori areagotu egin da 2012an; izan ere, %,1,4ko aldakuntza negatiboa erregistratu da lehen hiruhilekoan eta %2,5ekoarekin amaitu da laugarrena.

Eskariaren osagaien araberako bereizketa eginez gero, etxebizitzetako kontsumoaren gastuak gorabeherak izan zituen hiruhilekoen artean eta urtea % 1,6ko jaitsierarekin amaitu zuen. Bestalde, AAPPen gatuan pixkanaka goraka ari dira aldakuntza-tasa negatiboak, %-0,2tik lehen hiruhilekoan %-3,4ra hirugarrenean, baina laugarrenean jaitsiera txikiagoarekin bukatu du (%-1,6).

Aldakuntza-tasa horiek azken kontsumoa jaitsarazi dute: lehen hiruhilekoan aldakuntza nulua izatetik %-1,6ko negatiboa izatera laugarrenean. Hala, urteko batez besteko tasa %-1,2koa da.

II.2.3. GRAFIKOA. BARNE ESKARIA. ALDAKUNTZA ERREALEKO URTE ARTEKO TASAK



Iturria: EUSTAT. HKE

Inbertsioari dagokionez, eta zehazki ekipo ondasunen inbertsioari dagokionez, datuek egoera zaila erakusten dute, zeren eta jaitsiera tasek gora egiten baitute urtea aurrera doan heinean: lehen hiruhilekoan %1,3ko aldakuntza tasa negatibotik -%5,8kora laugarrenean.

Eustatek emandako informazioaren arabera, kontsumo pribatuaren egoeraren araberako adierazle nagusiek ahultze ekonomikoa berresten dute.

Hala, Industri Ekoizpenaren Indizearen urte arteko aldakuntza tasak, kontsumo ondasunei dagokienak, -%5,1 aldatu ditu 2012an denda handietako salmentak, baita prezio iraunkorrak (-%3,2) eta turismoen matrikulazioak ere (-%16,7).

Era berean, hoteletan igarotako gauen kopurua (EAEkoak bertakoak kontuan hartu gabe) hazi egin zen, baina aurreko urtean baino gutxiago: % 1,1 2012an eta % 5,1 2011n.

Inbertsioaren adierazleei dagokienean, inbertsio-ondasunen Industria Produkzioaren Indizea % 7,7 jaitsi zen (aurreko urtean % 5,2ko gehikuntza). Zamalanetarako ibilgailu industrialen matrikulazioak % 42,9ko beherakada izan zuen aurreko urteko % 19,3ko beherakadaren aldean.

2.3. KANPOKO ESKARIA

II.2.3. KOADROA. KANPOKO ESKARIAREN ZENBAIT ADIERAZLEREN EBOLUZIOA *(Urte arteko aldakuntza tasa)*

	2010	2011	2012
Kontsumo publikoaren adierazleak			
AAPPen kontsumoaren gastua (HKEen arabera)	2,2	-0,1	-2,1
Kontsumo pribatuaren adierazleak			
IPI kontsumoko ondasunak	1,0	-2,2	-5,1
Turismoen matrikulazioa (ziklo-joeraren datuak)	-9,6	-26,4	-16,7
Barne Merkataritzaren Salmenta Tasa (p. kor.)	2,7	-2,5	-
Denda handietako salmentak (p. kor.)	-	-5,7	-3,2
Beste batzuk			
Hoteletan igarotako gauak (EAEkoak kenduta)	13,8	5,1	1,1
Inbertsioaren adierazleak			
IPI ekipoko ondasunak	-2,6	5,2	-7,7
Kargako ibilgailuen matrikulazioa	0,0	-19,3	-42,9


Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

EUSTATen Kontu Ekonomikoak eta Hiruhileko Kontu Ekonomikoak

2013ko otsailean argitaratutako Eustaten Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoek, Estatuari eta munduko gainerako tokiei egindako ondasun eta zerbitzu salmentei dagokienez, adierazten dute esportazioa urtean batez beste %5,2 jaitsi zela kopuru errealetan 2011 eta 2012 urte artean (aurreko aldian % 5,5 hazi zen). Halaber, inportazioa % 6,4 jaitsi zen (aurreko aldian % +4,4). Bi aldagaiek hiruhilekoko bilakaeraren antzeko profila ageri dute. Bestalde, inportazioak lehenengo hiruhilekoa % 2,6ko jaitsierarekin hasi dute; jaitsiera gutxitu egin da bigarrengoan, -% 0,1 aldatuta; ondoren, hazkundea gertatu da. Hala, urte arteko %9,6ko jaitsiera izan da laugarren hiruhilekoaren amaieran. Bestalde, lehen hiruhilekoaren hasieran %3,8ko jaitsiera izan zen inportazioetan, eta jaitsiera moteldu da -%2,7ko aldaketa izan baita. Ondoren, hirugarren hiruhilekoan, %8,8 beherakada izan da, eta laugarrenean %10,2koa.

Euskal ekonomiaren irekiera-maila(Estatuarekiko eta atzerriarekiko harremanak) murriztu egin da 2011 eta 2012 urte artean, % 144,5etik 137,2ra igaro baita. Ondasunen eta zerbitzuen inportazioak esportazioarekin duen estaldura-maila%1,2 igo da, % 93,7tik % 94,9ra igaro baita.

II.2.4. GRAFIKOA. KANPOKO SEKTOREAREN BILAKAERA EAE-N (BOLUMEN-INDIZEAREN URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA. DATU ZUZENDUAK)



Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak eta HKE

*1Irekiera-maila: (Esportazioak+prezio korronteko inportazioak)/BPG ohiko prezioak*100*


*2 Estaldura-maila: prezio korronteko esportazioak / prezio korronteko inportazioak*100*

Prezio arrunteko BPGaren bilakaera aztertuta ikus daitekeenez, Estaturako esportazioek behera egin dute: 2005ean BPGaren %37,5 izatetik 2011n %34 izatera, eta atzerrirakoetan, berriz, %28,5etik %35,9ra. Bestalde, Estatuaren inportazioetan, %45etik %45,8ra, eta atzerritik %26,7tik %28,9ra.

EUSTATen Kanpo Merkataritzaren Estatistika

Atzerriarekiko ondasunen kanpoko merkataritzaren datuek, Aduanetako Erregistroetan oinarrituta, Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak eskainitakoak, adierazi egiten dute esportazioen balio korrontea txikitu egin zela % 0,9an 2012. urtean. Energiakoek izandako beherakada % 10,8koa izan zen, eta energiakoak ez direnena (guztien % 90) % 2,1ekoa. Bestalde, inportazio osoek % 10,4 egin zuten gora. Bertan, energia inportazioen balioak (guztiaren % 35) % 10,2 jaitsi ziren, eta energiakoak ez direnen kasuan % 10,5ekoa izan zen hazkundea.

II.2.5. GRAFIKOA. ESPORTAZIOEK (X) ETA INPORTAZIOEK (M) BPG-EAN DUTEN PISUA (PREZIO KORRONTEAK)



Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak

II.2.4. KOADROA. KANPO MERKATARITZAREN BILAKAERA *(urteko aldakuntza-tasak, nominalak)*

	Esportazioak			Inportazioak		
	Orotara	Energiak.	Ez energi.	Orotara	Energiakoak	Ez energiak.
2005	5,8	12,2	5,4	15,6	52,1	4,4
2006	16,4	51,4	14,1	20,2	32,9	14,6
2007	14,6	12,5	14,7	8,2	-3,2	14,1
2008	6,3	22,6	4,9	6,4	22,9	-0,8
2009	-26,3	-30,5	-25,9	-38,9	-40,1	-38,2
2010	19,6	22,7	19,3	25,5	24,6	26,0
2011	14,6	17,3	14,4	12,2	13,8	11,3
2012	-0,9	10,8	-2,1	-10,4	-10,2	-10,5

Iturria: EUSTAT. Kanpo Merkataritzaren Estatistika, Muga-zergen Erregistroan oinarrituta

Datu horiek oinarri hartuta, euskal ekonomiaren irekiera-maila (atzerriarekiko harremanak) % 57tik 54,1era igaro zen, eta ondasunen eta zerbitzuen esportazioak inportazioarekin duen estaldura-maila % 118tik % 130,9ra igaro zen.

EAEko energiakoak ez diren esportazioak muga-zergen taldeak gorabehera aztertuz gero, ikus daiteke berriro ere nabarmen ageri direla, lehenik eta behin, ekipamendu-ondasunak, esportatu den guztiaren % 42,3 (makinen eta gailuen artean banatuta 4.241,4 milioi euro, eta garraio-materiala 4.337,6 milioi euro). Esportazioa %2 jaitsi da, garraio-materialaren esportazioen beherakadagatik (-% 7,7), zeren makina eta gailuenarenak gora egin baitu (+% 4,6). Bigarrenik, metal komunen eta haien manufakturen esportazioa da nabarmena, kopuru osoaren % 25arekin. Horien esportazioak % 7,4 egin du behera. Hirugarrenik, plastikoen eta kautxuaren esportazioa da azpimarragarria, hain zuzen ere kopuru osoaren % 8,4. Haren aldakuntza-tasa positiboa da (% 1,9).

Energetikoak ez diren inportazioen aldetik, azpimarratzekoak dira metalak eta haien manufakturak. Horiek inportazio guztien % 21,2 hartzen dute, eta % 16,6 jaitsi ziren. Bigarrenik, ekipamendu-ondasunak inportazio guztien % 19,2 izan ziren, baina % 2,7 egin zuten behera makina eta gailuen inportazioan (-%2,9) eta garraioko materialen inportazioan (-%2) izandako beherakadaren ondorioz.

Kanpoko saldoa 4.794,3 milioi eurokoa da, BPGaren % 7,2.

Energiakoak badiren eta energiakoak ez diren ondasun eta produktuak bereiziz, ondorioztatu egiten da energiaren saldoak defizita duela (-3.384,7 milioi euro). Aldiz, energetikoak ez diren produktuenak superabita erregistratu zuen, 8.179,0 milioi euro, BPGaren % 12,4, hau da, aurreko urteko ratioa (% 11,1) baino ehuneko 1,3 puntu gehiago.

EAEko esportazio ez energetikoen helmuga zein den kontuan hartuta, ELGAri zuzendutakoak eta eremu horren barruan 15EBri zuzendutakoak dira, berriz ere, garrantzitsuenak: kopuru osoaren % 77,2 dira, eta % 2,4ko jaitsiera-tasa ageri dute. Bereziki azpimarragarriak dira Frantziarantz, Alemaniarantz, Italiarantz eta Erresuma Baturantz egindako esportazioak, EAEk EB15erantz egindako esportazioen % 77 izanez.

Estatu kide berriei zuzendutako esportazioari dagokionez, oraindik ere pisu nabarmena dute Poloniari eta Txekiar Errepublikari zuzendurikoak. Azken horiek %12,3 egin dute gora; lehen bi herrialdeetarakoek, berriz, behera egin dute.

ELGAren eremuan, baina EBtik kanpo, azpimarragarriak dira AEBra, Mexikora eta Turkiara eginiko esportazioak. gainera, aldakuntza tasa positiboak dituzte azterturiko azken epealdian, eta bereziki aipagarria da Mexikorako esportazioen hazkundea (%68,7).

ELGAtik kanpora, berriz ere nabarmentzen dira, haien pisuagatik, Brasil eta Txinarako esportazioak.

Aldi berean, nabarmenak dira Asiako ekonomia dinamikoetarako esportazioak, eta Singapur gailentzen da %140ko hazkundearekin.

Inportazioei dagokienez, gehienak ELGAtik datoz eta, zehazki, EB15eko herrialdeetatik, gehienbat Alemania, Frantzia eta Italiatik, hots, ELGAren inportazio guztien %54,3. Neurri txikiagoan, Erresuma Batukoak, Belgikakoak eta Portugalgoak.

ELGAren eremuan, baina EBtik kanpo, aipagarriak dira AEB eta Japoniatik datozenak.

II.2.5. KOADROA. EAE-REN ONDASUN ETA ZERBITZUEN KANPOKO MERKATARITZA ATZERRIAREKIKO *(milioi eurotan) (muga-zerga taldeen araberako sailkapena)*

MUGA-ZERGA TALDEAK	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK					SALDOA		
	2008	2011	2012 p		Aldakuntza 11-12	2008	2011	2012 p		Aldakuntza 11-12	2008	2011	2012 p
	milioiak	milioiak	milioiak	% bertikala		milioiak	milioiak	milioiak	% bertikala		milioiak	milioiak	milioiak
Orotara	**20.279,4**	**20.488,2**	**20.302,6**	**100,0**	**-0,9**	**20.118,0**	**17.309,7**	**15.508,3**	**100,0**	**-10,4**	**161,4**	**3.178,5**	**4.794,3**
Energiakoak (Energi produktuak eta mineralak)	1.840,4	1.839,8	2.039,3	10,0	10,8	7108,1	6038,1	5.424,0	35,0	-10,2	-5.267,7	-4.198,4	-3.384,7
Energiakoak ez direnak	**18.439,0**	**18.648,4**	**18.263,3**	**90,0**	**-2,1**	**13009,9**	**11271,6**	**10.084,3**	**65,0**	**-10,5**	**5.429,1**	**7.376,8**	**8.179,0**
Nekazaritza produktuak	652,1	706,3	994,5	4,9	40,8	912,7	912,1	914,4	5,9	0,2	-260,6	-205,9	80,1
Produktu kimikoak	409,4	449,1	385,5	1,9	-14,2	617,2	769,5	688,2	4,4	-10,6	-207,8	-320,4	-302,7
Plastikoak eta kautxua	1.376,0	1.668,5	1.700,3	8,4	1,9	850,8	1.136,5	922,6	5,9	-18,8	525,2	532,0	777,7
Papera	486,9	506,8	501,1	2,5	-1,1	386,4	397,3	328,7	2,1	-17,3	100,5	109,5	172,4
Metal komunak eta haien manufak.	5.972,0	5.472,6	5.069,5	25,0	-7,4	5.101,7	3.942,9	3.289,3	21,2	-16,6	870,3	1.529,7	1.780,2
Ekipo ondasunak	8.472,0	8.754,3	8.579,0	42,3	-2,0	4.076,4	3.052,9	2.970,4	19,2	-2,7	4.395,6	5.701,4	5.608,6
Makinak eta gailuak	4.224,6	4.055,7	4.241,4		4,6	2.693,8	2.410,5	2.340,7		-2,9	1.530,8	1.645,2	1.900,7
Garraio materiala	4.247,4	4.698,6	4.337,6		-7,7	1.382,6	642,4	629,7		-2,0	2.864,8	4.056,2	3.707,9
Beste manuf. batzuk	922,2	922,6	867,4	4,3	-6,0	1.043,5	1.032,6	910,7	5,9	-11,8	-121,2	-110,0	-43,3
Sailkatu gabeak	148,4	168,3	166,1	0,8	-1,3	21,4	27,7	60,0	0,4	116,4	127,1	140,6	106,1

P behin-behinekoak Iturria: EUSTAT.Kanpo Merkataritzaren Estatistika

ELGAtik kanpo, Txinatik eta Errusiatik datozen inportazioak nabarmentzen dira.

Azkenik, EAEko energiakoa ez den kanpoko saldoa hobetu egin da, 7.376,8 milioi euroko superabit batetik 8.179,0ra igaro baita 2011. eta 2012. urteen artean.

Bestalde, energiakoak ez diren ondasunen estaldura-tasa areagotu egin da, 2011. eta 2012. urteen artean % 165,4tik % 181,1era igaro baita.

II.2.6. KOADROA. EAE-KO ENERGIAKOAK EZ DIREN ONDASUNEN KANPOKO MERKATARITZA EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA *(muga-zerga taldeen araberako sailkapena) (mila eurotan)*

	ESPORTAZIOAK				INPORTAZIOAK				SALDOA		
	2010	2011	2012 p	Aldak. 2011-12	2010	2011	2012 p	Aldak. 2011-12	2010	2011	2012 p
OROTARA	16.306.453	18.648.441	18.263.307	-2,1	10.126.380	11.271.596	10.084.272	-10,5	6.180.073	7.376.845	8.179.035
EB27	10.504.626	12.412.611	11.573.607	-6,8	6.877.235	7.511.652	6.929.133	-7,8	3.627.391	4.900.959	4.644.474
EB25	10.423.165	12.305.211	11.453.688	-6,9	6.811.178	7.447.465	6.883.424	-7,6	3.611.987	4.857.746	4.570.264
EB15	9.631.914	11.416.574	10.597.660	-7,2	6.470.537	7.098.341	6.556.176	-7,6	3.161.377	4.318.233	4.041.484
EBKB (EBko Kide Berriak)	872.711	996.037	975.949	-2,0	406.699	413.310	372.958	-9,8	466.012	582.727	602.991
Eurogunea	8.534.236	10.032.203	9.181.364	-8,5	5.664.905	6.281.155	5.861.577	-6,7	2.869.331	3.751.048	3.319.787
ELGA	12.277.910	14.451.076	14.104.346	-2,4	7.794.662	8.531.852	7.813.740	-8,4	4.483.248	5.919.224	6.290.606
ELGA, EBtik kanpo	1.878.468	2.181.106	2.692.232	23,4	1.017.358	1.102.269	940.286	-14,7	861.110	1.078.837	1.751.946
EEEH – Erdiko eta Ekialdeko Europako Herrialdeak	142.097	195.841	174.451	-10,9	90.786	97.287	72.609	-25,4	51.311	98.554	101.842
EIE – Estatu Independente en Erkidegoa	192.950	270.671	294.373	8,8	348.717	455.840	363.450	-20,3	-155.767	-185.169	-69.077
MEH – Mediterraneo ko Arroko Herrialdeak	1.180.928	1.012.880	1.009.207	-0,4	240.642	250.833	184.449	-26,5	940.286	762.047	824.758
MAGREB – Magrebeko herrialdeak	585.004	429.084	450.086	4,9	78.375	80.239	71.069	-11,4	506.629	348.845	379.017
Ipar Amerikako Merkataritza Askerako Ituna	881.779	1.053.018	1.414.228	34,3	354.976	377.072	344.082	-8,7	526.803	675.946	1.070.146
MERCOSUR – Hego Amerikako Merkatu Komuna	495.283	735.587	473.383	-35,6	106.715	144.219	84.956	-41,1	388.568	591.368	388.427
AED – Asiako Ekonomia Dinamikoak	481.791	274.536	316.848	15,4	268.370	358.492	254.942	-28,9	213.421	-83.956	61.906
HIB – Asiako Herrialde Industrializatu Berriak	389.939	168.724	247.954	47,0	160.488	231.272	184.753	-20,1	229.451	-62.548	63.201


p. Behin-behineko datuak
EBKB: EBko Kide Berriak. MERCOSUR: Hego Amerikako Merkatu Komuna. EEEH: Erdiko eta Ekialdeko Europako Herrialdeak. AED: Asiako Ekonomia Dinamikoak (Hego Korea, Taiwan, Hong Kong, Singapur, Indonesia, Malasia eta Tailandia).
Iturria: EUSTAT. Kanpo Merkataritzaren Estatistika

II.2.7. KOADROA. EAE-KO ENERGIAKOAK EZ DIREN ONDASUNEN KANPOKO MERKATARITZA, EREMU GEOGRAFIKO ETA HERRIALDEEN ARABERA *(muga-zerga taldeen araberako sailk.) (mila eurotan)*

	ESPORTAZIOAK				INPORTAZIOAK				SALDOA		
	2010	2011	2012 p	Aldak. 2011-12	2010	2011	2012 p	Aldak. 2011-12	2010	2011	2012p
Orotara	**16.306.453**	**18.648.441**	**18.263.307**	**-2,1**	**10.126.380**	**11.271.596**	**10.084.272**	**-10,5**	**6.180.073**	**7.376.845**	**8.179.035**
ELGA	12.277.910	14.451.076	14.104.346	-2,4	7.794.662	8.531.852	7.813.740	-8,4	4.483.248	5.919.224	6.290.606
EB-15	9.631.914	11.416.574	10.597.660	-7,2	6.470.537	7.098.341	6.556.176	-7,6	3.161.377	4.318.233	4.041.484
Alemania	2.446.133	3.029.630	2.883.775	-4,8	1.641.938	1.960.335	1.887.125	-3,7	804.195	1.069.295	996.650
Austria	172.281	-	-	-	129.968	138.585	180.010	29,9	42.313	-	-
Belgika	595.706	721.449	620.846	-13,9	344.941	421.699	335.845	-20,4	250.765	299.750	285.001
Frantzia	2.769.683	3.213.400	3.054.180	-5,0	1.586.532	1.695.851	1.513.098	-10,8	1.183.151	1.517.549	1.541.082
Italia	1.097.071	1.189.499	942.569	-20,8	853.657	894.299	848.525	-5,1	243.414	295.200	94.044
Herbehereak	306.430	394.531	310.333	-21,3	401.416	424.734	443.087	4,3	-94.986	-30.203	-132.754
Portugal	799.958	863.056	779.155	-9,7	264.915	302.894	320.376	5,8	535.043	560.162	458.779
Erresuma Batua	979.410	1.187.715	1.276.923	7,5	589.929	630.172	507.039	-19,5	389.481	557.543	769.884
Suedia	145.601	239.739	205.853	-14,1	192.539	191.068	184.037	-3,7	-46.938	48.671	21.816
EBKB	872.711	996.037	975.949	-2,0	406.699	413.310	372.958	-9,8	466.012	582.727	602.991
EB-25	10.423.165	12.305.211	11.453.688	-6,9	6.811.178	7.447.465	6.883.424	-7,6	3.611.987	4.857.746	4.570.264
Polonia	299.455	354.021	321.310	-9,2	108.911	99.652	102.772	3,1	190.544	254.369	218.538
Txekiar Errepublika	308.119	261.155	260.743	-0,2	63.177	97.157	100.146	3,1	244.942	163.998	160.597
EB-27	10.504.626	12.412.611	11.573.607	-6,8	6.877.235	7.511.652	6.929.133	-7,8	3.627.391	4.900.959	4.644.474
Errumania	63.688	88.810	99.700	12,3	55.591	42.249	30.825	-27,0	8.097	46.561	68.875
ELGA, ez EBtik kanpo	1.878.468	2.181.106	2.692.232	23,4	1.017.358	1.102.269	940.286	-14,7	861.110	1.078.837	1.751.946
AEB	580.811	639.889	774.443	21,0	286.970	306.312	263.161	-14,1	293.841	333.577	511.282
Japonia	37.423	48.194	69.877	45,0	122.029	139.875	140.192	0,2	-84.606	-91.681	-70.315
Mexiko	237.111	326.111	550.228	68,7	31.119	27.180	35.568	30,9	205.992	298.931	514.660
Turkia	356.480	387.232	407.021	5,1	78.139	81.427	64.661	-20,6	278.341	305.805	342.360
MERCOSUR	495.283	735.587	473.383	-35,6	106.715	144.219	84.956	-41,1	388.568	591.368	388.427
Argentina	-	115.280	97.095	-15,8	-	51.806	44.415	-14,3	-	63.474	52.680
Brasil	384.683	606.201	360.310	-40,6	85.705	88.808	40.112	-54,8	298.978	517.393	320.198
AED	481.791	274.536	316.848	15,4	268.370	358.492	254.942	-28,9	213.421	-83.956	61.906
Singapur	303.617	52.139	125.159	140,0	-	17.661	-	-	-	34.478	-
Txina	406.159	471.407	417.911	-11,3	878.635	896.315	830.918	-7,3	-472.476	-424.908	-413.007
India	213.928	179.611	179.719	0,1	67.226	118.141	153.571	30,0	146.702	61.470	26.148
Maroko	205.963	172.422	168.324	-2,4	40.624	36.451	39.798	9,2	165.339	135.971	128.526
Errusia	165.325	209.470	191.025	-8,8	285.958	365.244	268.870	-26,4	-120.633	-155.774	-77.845

p. Behin-behineko datuak EBKB: EBko Kide Berriak. MERCOSUR: Hego Ameriketako Merkatu Komuna. AED: Asiako Ekonomia Dinamikoak (Hego Korea, Taiwan, Hong Kong, Singapur, Indonesia, Malasia eta Tailandia).
Iturria: EUSTAT. Kanpo Merkataritzaren Estatistika

II.2.6. GRAFIKOA. KANPOKO MERKATARITZAREN BILAKAERA EAE-N EDUKI TEKNOLOGIKOAREN ARABERA



p: behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT

II.2.8. KOADROA. KANPOKO MERKATARITZAREN BILAKAERA EAE-N, MAILA TEKNOLOGIKOAREN ARABERA								
	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012 p
X guztira (milioi €-tan)	13.935	16.201	18.508	19.691	14.513	17.413	19.890	19.656
Altuen X %a kopuru osoaren gainean	2,7	2,4	2,7	2,6	2,6	2,8	2,5	2,4
Ertain eta altuen X %a osoaren gainean	48,6	45,6	44,1	43,2	43,8	40,5	42,9	44,2
Ertain eta baxuen X %a osoaren gainean	40,5	44,4	45,8	46,8	45,2	49,1	47,1	44,6
Baxuen X %a osoaren gainean	8,3	7,6	7,4	7,3	8,4	7,6	7,6	8,9
M guztira (milioi €-tan)	9.859	11.744	13.701	13.320	8.474	10.405	11.600	9.940
Altuen M %a kopuru osoaren gainean	4,7	4,6	4,1	5,0	5,9	6,0	5,1	5,0
Ertain eta altuen M %a osoaren gainean	38,2	34,7	32,8	33,1	33,6	32,4	33,0	36,9
Ertain eta baxuen M %a osoaren gainean	42,8	48,0	51,0	49,6	44,7	46,9	48,2	43,4
Baxuen M %a osoaren gainean	14,4	12,8	12,1	12,3	15,8	14,7	13,6	14,7

p. Behin-behineko datuak. X: esportazioa. M: inportazioak. Iturria: EUSTAT

Beste sailkapen mota bati erreparatuz gero, hots, maila teknologikoaren arabera (handia, ertain eta altuak eta baxua) ikus daitekeenez, eduki teknologiko altuko esportazioak guztizkoaren %2,4 dira 2012an, ertain eta altukoak %44,2, ertain eta baxukoak %44,6 eta maila baxukoak %8,9. 2011 eta 2012. urteen artean, pisua hartu dute maila ertain eta altuko esportazioek, zeren %42,9 izatetik %44,2 izatera igaro baitira. Bestalde, ertain eta baxukoek proportzioa galdu dute guztizkoarekiko, %47,1etik %44,6ra igaro baitira.

Inportazioei dagokienez, eduki teknologikokoak guztizkoaren %5 dira, ertain eta altukoak %33,6, ertain eta baxukoak %43,4 eta baxukoak %14,7. 2011 eta 2012. urte artean, handitu egin da maila teknologiko ertain eta altuen pisua (%33tik %36,9ra), eta behera egin du ertain eta txikikoei dagokienak (%48,2tik %43,4ra).

2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA

Atzerriko inbertsioa EAEn

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera, atzerriko inbertsioa EAEn jaitsi egin zen 2011 eta 2012 artean, hain zuzen ere % 13 atzerriko balioak edukitzeko enpresak deskontatuz gero. EAEk, orotara, 433.802 milioi euro jaso ditu. Alabaina, EAEk estatuko guztizko kopuruaren gainean duen proportzioak gora egin du: 2011ko %2,2tik 2012ko %3,2ra. Madrilgo Erkidegoak jasotzen duen inbertsioa deskontatuz gero, %9,2raino igotzen da, eta %7,5etik aipaturiko %9,2ra igotzen da 2011 eta 2012 urte artean.

Hala, 2012. urtean, EAEk hirugarren lekua hartu du inbertsio-bolumenean, Madrilen atzetik (8.727,8 milioi euro jasotzen baititu, ABDEak kenduta) eta Kataluniaren atzetik (2.603 milioi euro jasotzen baititu). 2011. urtean, EAEk laugarren postua bete zuen inbertsio bolumenean, Madrilen, Kataluniaren eta Andaluziaren atzetik.


Sektoreen aldetik, bereziki azpimarragarriak dira hauexetan eginikoak, guztizkoan duten pisuagatik:

- Informazioa eta komunikazioak, EAEn eginiko inbertsioaren %45,8 eta Estatuan sektore horretan eginikoaren %33,9.
- Industria kimikoa eta kautxuaren eta plastikoen eraldaketa, EAEn eginiko inbertsioaren %13 eta Estatuan sektore horretan eginikoaren %12,3.
- Administrazio eta zerbitzu osagarrietako jarduerak, EAEn eginiko inbertsioaren %10,5 eta Estatuan sektore horretan eginikoaren %8,9.
- Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak, EAEn eginiko inbertsio guztien %7,9 eta Estatuan sektore horretan eginikoaren %10.

II.2.9. KOADROA. ATZERRIKO INBERTSIO GORDINA*, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA (mila eurotan)					
	2008	2009	2010	2011	2012
OROTARA	**29.522.834,24**	**12.364.252,43**	**12.216.199,31**	**23.615.365,72**	**13.460.450,56**
EAE	326.311,42	90.976,21	152.131,70	524.662,76	433.801,87
Andaluzia	225.746,02	315.315,70	1.225.522,80	619.374,98	231.247,13
Aragoi	99.623,41	133.637,80	47.478,87	38.339,98	150.184,18
Kantabria	72.852,51	12.104,43	3.666,98	16.790,50	22.029,61
Gaztela eta Leon	46.197,48	67.797,11	56.256,14	182.727,34	14.941,72
Gaztela-Mantxa	110.402,49	178.345,72	55.667,19	462.593,97	50.648,07
Katalunia	2.344.297,34	1.561.600,39	4.824.785,68	3.018.253,26	2.602.936,58
Ceuta eta Melilla	629,90	727,05	2,65	35,66	1.387,92
Madril	23.905.874,09	8.040.148,98	4.445.785,01	16.616.453,78	8.727.783,94
Valentzia	279.448,75	443.590,21	134.382,64	382.353,03	91.316,16
Extremadura	4.944,48	28.635,00	30.404,96	36.004,54	31.552,15
Galizia	27.190,47	167.465,30	49.034,48	524.518,22	173.979,42
Balearrak	545.696,64	419.931,37	169.982,87	408.249,42	246.887,11
Uharte Kanariarrak	20.843,78	77.398,81	113.980,82	83.411,16	68.350,55
Errioxa	7.663,69	3.595,54	36.414,21	2.718,46	10.264,53
Nafarroa	23.114,88	30.754,76	111.510,30	49.302,33	161.335,73
Asturias	6.974,29	6.344,83	29.323,33	18.363,55	62.737,35
Murtzia	189.679,74	11.680,67	28.594,97	72.065,13	18.090,92
ESLEITU BARIK	1.285.342,86	774.202,55	701.273,71	559.147,65	360.975,62

ABDE deskontatuta. Iturria Atzerriko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

II.2.7. GRAFIKOA. ATZERRIKO INBERTSIO GORDINA* EAE-N



*** ABDE barik. Iturria: Atzerriko Inbertsioen Erregistroa**

Lurraldeen aldetik, ELGAko herrialderen batean kokatzen da kasuen %86,2tan inbertsioaren azken titularraren egoitza, eta %63,9tan EB15eko herrialderen batean (guztira, 277,3 milioi euro)

EB-15eko herrialde inbestitzaile nagusiak Luxenburgo (227,6 milioi euro, eta horietatik 194 telekomunikazioetako inbertsio bati dagozkio) eta Frantzia (10,4 milioi euro) dira, eta Espainiako gainerako erkidegoek gurean egiten duten inbertsioa (estatistika honetan barne den atzerritako inbertsioa da eta, beraz, EBren eta ELGAren zifren barnean) 26,9 milioi eurokoa da.

Bereziki azpimarragarria da Brasil, India eta Zeelanda Berritik datozen inbertsioen hazkundea; izan ere, EAEn eginiko inbertsioen %1,9, %10,4 eta %13 dira, hurrenez hurren.

II.2.10. KOADROA. EAE-K DUEN INBERTSIO GORDINA*, SEKTORE ETA HERRIALDEEN ARABERA (mila €-tan) (CNAE-09)


	2010	2011	2012	Estatua 2012 p	Banaketa EAE	Estatua (%)	%10-11	%11-12
A. Nekaz., abeltz., basog. eta arrantza	3,4	0,0	0,0	64.316,3	0,0	0,0	-100,0	-
B. Erauzketa industriak	0,0	0,0	0,8	125.520,3	0,0	0,0	-	-
C. Elikadura, edariak eta tabakoa	76.000,0	2.138,9	23,0	363.612,8	0,0	0,0	-97,2	-98,9
C. Ehungintza eta jantzien joskintza	0,2	0,0	0,9	26.295,1	0,0	0,0	-100,0	-
C. Larru eta oinetakoen industria	0,0	0,0	0,0	1.030,6	0,0	0,0	-	-
C. Zuraren eta kortxoaren industria, altzariak izan ezik; otzarak eta espartzua	0,0	50,0	0,0	1.455,5	0,0	0,0	-	-100,0
C. Paperaren industria eta arte grafikoak	0,0	15,9	0,0	313.995,2	0,0	0,0	-	-100,0
C. Petrolio findegiak	0,0	0,0	0,0	29.480,7	0,0	0,0	-	-
C. Ind. Kimikoa eta kautxuaren eta plastikoen eraldaketa	0,0	0,0	56.379,8	457.223,8	13,0	12,3	-	-
C. Bot. Produktuen fabrik.	11.000,0	0,0	0,0	313.211,3	0,0	0,0	-100,0	-
C. Metalurgia eta metalezko produktu fabrik.	18.649,6	3.822,7	2.850,0	1.075.928,9	0,7	0,3	-79,5	-25,4
C. Produk. Inform., elektroniko eta optikoen fabrik.	178,7	30,0	2,3	3.318,8	0,0	0,1	-83,2	-92,2
C. Material eta ekipo elektrikoen fabrik.	1.200,0	240,0	340,0	108.704,0	0,1	0,3	-80,0	41,7
C. BESG ekipo eta makineriaren fabrik.	269,9	36.031,0	9.341,1	107.111,9	2,2	8,7	13.251,2	-74,1
C. Motordun ibilgailu eta beste garraiobideen fabrik.	0,0	46.711,7	45,0	733.795,9	0,0	0,0	-	-99,9
C. Altzarien fabrik.	100,0	100,0	204,7	429,4	0,0	47,7	0,0	104,7
C. Beste manufaktura batzuk	0,0	8.600,0	168,2	608.181,5	0,0	0,0	-	-98,0
C. Makineriaren konponketa eta instal.	0,0	0,0	0,0	602,8	0,0	0,0	-	-
D. Argindar, gas, lurrun eta aire egokituaren hornidura.	6.285,0	377.651,7	13.391,0	1.136.554,4	3,1	1,2	5.908,8	-96,5
E. Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura desagerraraztea	99,3	585,0	0,0	66.054,4	0,0	0,0	489,2	-100,0
F. Eraikuntza	69,7	1.188,5	13.313,7	871.174,0	3,1	1,5	1.604,9	1.020,2
G. Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa.	433,1	12.516,6	28.929,2	1.028.825,1	6,7	2,8	2.790,3	131,1
H. Garraio eta biltegiratzea	2.307,8	18.002,3	9.016,0	111.716,7	2,1	8,1	680,1	-49,9
I. Ostalaritza	0,0	0,0	3,0	87.447,7	0,0	0,0	-	-
J. Informazioa eta komunikazioak	1.175,6	2.009,8	198.544,9	585.316,7	45,8	33,9	71,0	9.778,8
K. Finantza jarduerak eta asegurukoak	4.589,5	3.479,6	16.584,4	1.916.176,8	3,8	0,9	-24,2	376,6
L. Higiezinen jarduerak	15.391,1	140,0	1.500,4	1.011.752,7	0,3	0,1	-99,1	971,7
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	9.215,8	5.797,2	2.103,0	1.172.931,4	0,5	0,2	-37,1	-63,7
N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak	2.539,0	5.551,5	45.478,4	513.061,8	10,5	8,9	118,6	719,2
O. Herri administrazioa eta defentsa	0,0	0,0	0,0	3,2	0,0	0,0	-	-
P. Hezkuntza	2.621,3	0,0	0,0	85.066,5	0,0	0,0	-100,0	-
Q. Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	0,0	0,0	34.216,6	341.581,5	7,9	10,0	-	-
R. Arte, jolas eta aisialdi jarduerak	3,0	0,0	202,9	167.749,4	0,0	0,1	-100,0	-
S. Beste zerbitzu batzuk	0,0	0,5	1.162,7	30.823,6	0,3	3,8	-	258.273,3
T. Etxeetako jarduerak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	-	-	-
U. Lurraldetik kanpoko erakundeen jarduerak.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	-	-	-
Inbertsioa, guztira	**152.131,7**	**524.662,8**	**433.801,9**	**13.460.450,6**	**100,0**	**3,2**	**244,9**	**-17,3**
E.L.G.A.	136.993,0	340.042,6	373.757,7	12.138.037,7	86,2	3,1	148,2	9,9
EB-15	121.738,0	166.320,9	277.336,8	8.987.001,4	63,9	3,1	36,6	66,7
EB-27	122.087,5	166.331,9	277.816,0	9.106.432,8	64,0	3,1	36,2	67,0

II.2.10. KOADROA. EAE-K DUEN INBERTSIO GORDINA*, SEKTORE ETA HERRIALDEEN ARABERA (mila €-tan) (CNAE-09)

		2010	2011	2012	Estatua 2012 p	Banaketa EAE	Estatua (%)	%10-11	%11-12
Inbertsioaren azken titularraren egoitzako herrialdea	Ipar Amerika	46,3	171.784,6	15.092,5	2.223.351,7	3,5	0,7	371.005,1	-91,2
	Kanada	3,0	0,0	0,0	12.205,7	0,0	0,0	-100,0	-
	AEB	43,3	171.784,6	15.092,5	2.211.146,0	3,5	0,7	396.264,9	-91,2
	Amerika Latinoa	26.571,3	2.883,8	11.547,3	690.056,1	2,7	1,7	-89,1	300,4
	Argentina	0,0	818,1	0,0	5.353,4	0,0	0,0	-	-100,0
	Brasil	12.535,0	3,0	8.215,6	244.083,4	1,9	3,4	-100,0	273.753,0
	Txile	0,0	0,0	227,3	11.289,9	0,1	2,0	-	-
	Mexiko	13.911,8	107,4	253,0	89.708,6	0,1	0,3	-99,2	135,5
	Asia eta Ozeania	1.204,9	182.070,2	103.343,4	792.114,1	23,8	13,0	15.010,7	-43,2
	Txina	0,0	18,0	0,0	127.426,7	0,0	0,0	-	-100,0
	Arabiar Emirrerriak	1,5	181.808,0	1.657,3	8.447,3	0,4	19,6	12.040.164,9	-99,1
	India	0,0	0,0	45.306,3	103.479,0	10,4	43,8	-	-
	Japonia	1.200,0	240,0	0,0	55.286,0	0,0	0,0	-80,0	-100,0
	Zeelanda Berria	0,0	0,0	56.379,8	113.682,0	13,0	49,6	-	-
	Afrika	0,0	3,0	48,1	26.585,2	0,0	0,2	-	1.499,3
	Paradisu fiskalak	2.137,9	183.708,0	3.222,4	399.028,0	0,7	0,8	8.492,8	-98,2

(*)Inbertsio gordina, ABDE barik. Behin-behineko datuak Iturria:Kanpoko inbertsioen erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

II.2.8. GRAFIKOA. EAE-K ATZERRIAN EGINDAKO INBERTSIO GORDINA*



*** ABDE gabe.**
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa

Euskal inbertsioa atzerrian

EAEk atzerrian egin duen inbertsioak, ABDEak kanpoan utzita, %94,5 egin du behera 2011 eta 2012 urte artean: 5.321 milioi eurotik 291 milioi eurora. Estatu osoan, berriz, 29.315 milioi eurotik 10.997 milioi eurora jaitsi da.

EAEk laugarren postua betetzen du autonomia erkidegoen rankingean atzerrian eginiko inbertsioan, Madrilen (6.916 milioi euro), Kantabriaren (1.593) eta Kataluniaren (1.240) atzetik.

Gauzak horrela, EAEk atzerrian egindako inbertsioa igaro egiten da Estatukoaren kopuru osoaren % 18,2 izatetik (Madril kenduz gero % 34,8) % 2,6 izatera (Madril kenduz gero % 7,1) 2011 eta 2012 artean.

Sektoreen aldetik eta finantza eta aseguru jarduerak eta energia, gas, aire egokitua hornitzeko jarduerak alde batera utzita (EAEren atzerriko inbertsioaren %59,2 eta % 20,7 dira hurrenez hurren, eta Estatuak sektore horretan eginikoaren % 11,3 eta %7,9), hauexek nabarmentzen dira:

- Eraikuntza, hain zuzen EAEren inbertsioaren %9,7 eta Estatuak sektore horretan eginikoaren %4,2; %132,7 hazi da kontsideraturiko aldian.
- Beste manufaktura batzuk, hain zuzen EAEren inbertsioaren %3,2 eta Estatuak sektore horretan eginikoaren %2,9.
- Handizkako eta txikizkako merkataritza eta motorren eta motozikleten konponketa, hain zuzen EAEren inbertsioaren %2,3 eta Estatuak sektore horretan eginikoaren %0,3.

Herrialdeen arabera, hauexek dira EAEren inbertsioaren helmuga nagusiak 2012, urtean EBE15: Portugal (50 milioi euro), Alemania (39,7 milioi euro) eta Frantzia (30 milioi). Eta eurogunetik kanpo: Mexiko (42,6 milioi euro), Hego Korea (10,1 milioi euro), Txina (9,4 milioi) eta Brasil (7,1).

II.2.11. KOADROA. EAE-K ATZERRIAN EGINIKO INBERTSIO GORDINA* (mila eurotan)

	2008	2009	2010	2011	2012
Orotara	**36.932.525,97**	**19.769.831,90**	**29.125.635,70**	**29.315.224,13**	**10.997.264,23**
EAE	4.845.801,37	1.422.995,40	1.992.517,84	5.321.044,63	291.247,54
Andaluzia	908.543,08	383.359,29	705.899,05	873.962,06	65.900,56
Aragoi	249.256,64	48.574,94	153.465,27	145.308,75	184.842,19
Kantabria	5.210.299,74	4.572.933,35	1.462.240,52	4.979.210,06	1.593.355,42
Gaztela eta Leon	134.525,46	205.404,61	87.940,64	28.528,50	25.735,08
Gaztela-Mantxa	101.669,84	22.344,01	1.462,00	91.720,48	21.538,47
Katalunia	6.345.447,34	2.299.292,18	2.067.697,25	2.695.990,18	1.239.719,18
Ceuta eta Melilla	-	-	-	-	0,11
Madril	13.592.660,31	7.858.617,25	19.445.342,33	14.010.548,08	6.915.905,72
Valentzia	1.494.814,08	1.605.877,32	1.755.891,91	351.107,46	203.113,78
Extremadura	4.925,50	870,95	2.202,43	1.213,33	584,15
Galizia	1.495.176,76	668.537,94	786.735,06	533.961,00	112.483,86
Balearrak	1.471.628,94	38.171,71	425.661,17	43.588,64	141.474,75
U. Kanariarrak	65.905,91	48.247,21	6.557,11	3.159,99	13.510,68
Errioxa	1.105,52	154,75	4,81	2.135,30	10.855,89
Asturias	71.958,36	34.244,56	5.546,73	23.904,97	25.669,65
Murtzia	73.354,66	19.213,64	2.886,87	1.716,50	4.320,92

** ABDE gabe. Iturria Atzerriko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa*

II.2.12. KOADROA. EAE-K ATZERRIAN IZANDAKO INBERTSIO GORDINA*, SEKTORE ETA HERRIALDEEN ARABERA (mila €-tan) (CNAE-09)

	2010	2011	2012 p	Estatua 2012 p	Banaketa EAE	Estatua-ren %	%10-11	%11-12
A. Nekaz., abeltz., basog. eta arrantza	2.036,0	0,0	256,9	30.318,5	0,1	0,8	-100,0	-
B. Erauzketa industriak	0,0	0,0	0,0	984.730,0	0,0	0,0	-	-
C. Elikadura, edariak eta tabakoa	546,2	0,0	0,0	150.024,3	0,0	0,0	-100,0	-
C. Ehungintza eta jantzien joskintza	0,0	0,0	0,0	424,7	0,0	0,0	-	-
C. Larru eta oinetakoen industria	0,0	0,0	0,0	2.884,6	0,0	0,0	-	-
C. Zuraren eta kortxoaren industria, altzariak izan ezik; otzarak eta espartzua	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	-	-	-
C. Paperaren industria eta arte grafikoak	0,0	0,0	0,0	210.355,6	0,0	0,0	-	-
C. Petrolio findegiak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	-	-	-
C. Ind. Kimikoa eta kautxuaren eta plastikoen eraldaketa	779,0	3.455,9	494,5	125.574,0	0,2	0,4	343,6	-85,7
C. Bot. Produktuen fabrik.	0,0	0,0	0,0	14.048,7	0,0	0,0	-	-
C. Metalurgia eta metalezko produktu fabrik.	5.814,2	19.063,1	5.566,0	966.657,9	1,9	0,6	227,9	-70,8
C. Produk. Inform., elektroniko eta	77,0	0,0	0,0	5.019,8	0,0	0,0	-100,0	-

optikoen fabrik.									
C. Material eta ekipo elektrikoen fabrik.		5.020,8	18.794,6	2.616,6	33.928,0	0,9	7,7	274,3	-86,1
C. BESG ekipo eta makineriaren fabrik.		4,7	27.187,9	2.284,3	2.736,4	0,8	83,5	577.138,6	-91,6
C. Motordun ibilgailu eta beste garraiobideen fabrik.		18.962,6	53.887,7	1.834,3	94.019,8	0,6	2,0	184,2	-96,6
C. Altzarien fabrik.		0,0	0,0	0,0	17.248,0	0,0	0,0	-	-
C. Beste manufaktura batzuk		2.670,7	2.000,0	9.437,3	320.684,2	3,2	2,9	-25,1	371,9
C. Makineriaren konponketa eta instal.		0,0	0,0	0,0	2.775,0	0,0	0,0	-	-
D. Argindar, gas, lurrun eta aire egokituaren hornidura.		73.269,4	56.992,1	60.342,3	765.465,4	20,7	7,9	-22,2	5,9
E. Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura desagerraraztea		1,5	1,2	8,3	60.105,1	0,0	0,0	-17,2	589,2
F. Eraikuntza		74.913,2	12.100,2	28.162,6	666.899,7	9,7	4,2	-83,8	132,7
G. Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa.		12.101,6	4.163,2	6.714,3	2.303.168,0	2,3	0,3	-65,6	61,3
H. Garraio eta biltegiratzea		0,0	0,0	0,0	73.854,1	0,0	0,0	-	-
I. Ostalaritza		0,0	8.984,5	0,0	78.516,5	0,0	0,0	-	-100,0
J. Informazioa eta komunikazioak		2.009,5	30.365,6	0,0	1.896.461,6	0,0	0,0	1.411,1	-100,0
K. Finantza jarduerak eta asegurukoak		1.775.900,1	4.999.094,9	172.418,8	1.525.318,6	59,2	11,3	181,5	-96,6
L. Higiezinen jarduerak		2.116,5	49.482,6	0,0	162.766,7	0,0	0,0	2.237,9	-100,0
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak		15.412,9	35.411,3	1.111,5	115.156,7	0,4	1,0	129,8	-96,9
N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak		882,0	17,6	0,0	144.159,3	0,0	0,0	-98,0	-100,0
O. Herri administrazioa eta defentsa		0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	#¡DIV/0!	-	-
P. Hezkuntza		0,0	0,0	0,0	36.174,0	0,0	0,0		-
Q. Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak		0,0	0,0	0,0	180.504,9	0,0	0,0	-	-
R. Arte, jolas eta aisialdi jarduerak		0,0	42,3	0,0	25.521,1	0,0	0,0	-	-100,0
S. Beste zerbitzu batzuk		0,0	0,0	0,0	1.763,0	0,0	0,0	-	-
T. Etxeetako jarduerak		0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	-		-
U. Lurraldetik kanpoko erakundeen jarduerak.		0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	-	-	-
Inbertsioa, orotara		**1.992.517,8**	**5.321.044,6**	**291.247,5**	**10.997.264,2**	**100,0**	**2,6**	**167,1**	**-94,5**
Inbertsioaren berehalako herrialdea	E.L.G.A.	751.054,2	4.554.768,5	216.221,1	5.365.721,5	74,2	4,0	506,5	-95,3
	EB-15	161.363,5	263.239,6	147.575,3	4.018.318,2	50,7	3,7	63,1	-43,9
	EB-27	166.351,7	312.446,9	147.741,5	4.129.569,7	50,7	3,6	87,8	-52,7
	Ipar Amerika	572.076,1	3.057,0	3.315,0	683.651,6	1,1	0,5	-99,5	8,4
	Kanada	566,7	0,0	2,3	303.961,5	0,0	0,0	-100,0	-
	AEB	571.509,5	3.057,0	3.312,8	379.690,2	1,1	0,9	-99,5	8,4
	Amerika Latinoa	40.249,5	337.917,4	102.319,6	5.082.264,2	35,1	2,0	739,6	-69,7
	Argentina	1.901,2	11.657,7	97,3	338.413,8	0,0	0,0	513,2	-99,2
	Brasil	15.013,2	18.967,5	7.153,2	1.121.943,6	2,5	0,6	26,3	-62,3
	Txile	0,0	48,0	11,7	2.261.893,3	0,0	0,0	-	-75,5
	Mexiko	4.862,1	33.118,1	42.556,7	276.447,2	14,6	15,4	581,2	28,5
	Asia eta Ozeania	1.203.330,4	479.774,2	26.265,2	327.683,5	9,0	8,0	-60,1	-94,5
	Txina	1.193.562,8	435.211,5	9.375,7	134.256,0	3,2	7,0	-63,5	-97,8
	Hego Korea	0,0	23.635,9	10.086,6	13.910,9	3,5	72,5	-	-57,3
	Arabiar Emirerriak	82,5	0,0	0,0	847,3	0,0	0,0	-100,0	-
	India	3.556,9	3.907,1	5.586,6	23.131,0	1,9	24,2	9,8	43,0
	Japonia	0,0	0,0	0,0	1.460,3	0,0	0,0	-	-
	Taiwan	0,0	15.836,6	127,5	197,7	0,0	64,5	-	-99,2
	Afrika	2.069,0	5.820,1	8,8	72.651,4	0,0	0,0	181,3	-99,8
	Paradisu fiskalak	3.163,1	151,3	88,6	586.661,7	0,0	0,0	-95,2	-41,5

(*)Inbertsio gordina, ABDE barik. Behin-behineko datuak
Iturria:Kanpoko inbertsioen erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

3. PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK

3.1. ONDASUNEN ETA KONTSUMOKO ZERBITZUEN PREZIOAK

2012an, hiru aldi izan dituzte prezioek: urteko lehen zatia nahikoa laua izan da, gorako bidea hartu du uda ostean, eta igoera txikia izan da hirugarrenik 2012ko azken hileetan. Horri esker, urteko batez besteko tasa %2,3koa izan da, 8 hamarren gutxiago 2011ko datuarekiko. Batez besteko mailaren jaitsiera hori gorabehera, abenduko urte arteko inflazioa %2,7koa da, aurreko urtean baino 3 hamarren gehiago. Arrazoien artean, petrolioak abuztuan izan duen igoera dago, baita BEZaren iraileko igoera eta tarifa elektrikoaren prezio arautuen gorakada ere.


Estatuko batez bestekoarekin alderatuta, bi hamarren gutxiagoko igoera du KPIak Euskadin. Alde hori hezkuntzaren prezioen bilakaeran datza, beste autonomia erkidegoetako tasen igoera handiagoagatik, baita botiketako baterako ordainketa sistemako botikengatik ere. Euroguneari dagokionez, diferentziala EAEren aldekoa da, bi hamarrenekoa (urteko batez bestekoekin alderatuta, %2,3 EAEn eta %2,5 eurogunean).

II.3.1. KOADROA. KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKAPENA: Aldakuntza tasa URTEKO BATEZ BESTEKOA.

	2008	2009	2010	2011	2012
INFLAZIO OSOA (%100)	4,1	0,3	1,7	3,1	2,3
AZPIKO INFLAZIOA (%82)	3,2	1,1	0,7	1,8	1,5
- Landutako elikagaien KPIa (%13,7)	6,6	1,2	0,7	3,8	3,3
- Industriako ondasunen KPIa (%26,9)	0,6	-1,9	-0,2	0,7	0,3
- Zerbitzuen KPI (%41,4)	3,9	2,5	1,4	2,0	1,7
HONDAR INFLAZIOA (%18)	8,5	-3,6	6,6	9,5	6,1
- Landu gabeko elikagaien KPIa (%6,8)	5,0	0,2	0,2	1,5	2,7
- Energiaren KPIa (%11,2)	11,6	-7,3	11,5	15,3	8,3

Iturriak: INE eta Eusko Jaurlaritzaren KOIUNTURAZ buletina.

II.3.1. GRAFIKOA. KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA: URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA. EAE ETA ESTATUA



Iturria: EIN.

II.3.2. KOADROA. KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA. EAE ETA ESTATUA.

	EAE						Estatua	
	Urteko batez bestekoa			Abendua (urte artekoa)			Abe. 2011	Abe. 2012
	2010	2011	2012	2010	2011	2012		
Indize orokorra	1,7	3,1	2,3	2,8	2,4	2,7	2,4	2,9
Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	-0,7	2,2	2,7	0,4	2,5	3,4	2,1	3,0
Alkoholdun edariak eta tabakoa	10,6	9,7	5,8	14,6	3,9	5,8	4,2	5,4
Jantziak eta oinetakoak	-0,1	0,3	0,3	0,6	0,3	0,4	0,3	0,3
Etxebizitza	3,1	7,8	5,7	5,1	7,0	6,1	5,8	5,6
Etxeko tresneria eta zerbitzuak	0,9	1,5	1,1	1,3	1,3	2,6	1,1	1,2
Zerbitzu medikoak eta osasuna	-0,1	-0,6	-0,7	-0,4	-2,2	3,9	-2,8	13,3
Garraioa	6,5	7,7	4,3	8,9	4,7	2,4	4,9	3,1
Komunikazioak	-0,7	-0,8	-3,4	-0,7	-1,6	-2,8	-1,6	-2,7
Aisialdia eta kultura	-0,9	0,3	1,0	0,3	0,6	1,9	1,3	0,8
Irakaskuntza	2,2	1,3	2,8	2,3	1,3	3,4	2,8	10,5
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,7	1,7	1,0	2,1	1,1	1,1	1,2	0,8
Beste ondasun eta zerbitzu batzuk	2,1	2,7	2,4	2,6	2,4	3,6	2,7	3,3

Iturria: INE.

II.3.3. KOADROA. KPIH: URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA. 2005eko OINARRIA

	ABE. 2010	ABE. 2011	ABE. 2012
UE27	2,7	3,0	2,3
EUROGUNEA	2,2	2,7	2,2
BELGIKA	3,4	3,2	2,1
BULGARIA	4,4	2,0	2,8
TXEKIAR E.	2,3	2,8	2,4
DANIMARKA	2,8	2,4	1,9
ALEMANIA	1,9	2,3	2,0
ESTONIA	5,4	4,1	3,6
IRLANDA	-0,2	1,4	1,6*
GREZIA	5,2	2,2	0,3
ESPAINIA	2,9	2,4	3,0
FRANTZIA	2,0	2,7	1,5
ITALIA	2,1	3,7	2,6
ZIPRE	1,9	4,2	1,5
LETONIA	2,4	3,9	1,6
LITUANIA	3,6	3,5	2,9
LUXENBURGO	3,1	3,4	2,5
HUNGARIA	4,6	4,1	5,1
MALTA	4,0	1,3	2,8
HOLANDA	1,8	2,5	3,4
AUSTRIA	2,2	3,4	2,9
POLONIA	2,9	4,5	2,2
PORTUGAL	2,4	3,5	2,1
ERRUMANIA	7,9	3,2	4,6
ESLOVENIA	2,2	2,1	3,1
ESLOVAKIA	1,3	4,6	3,4
FINLANDIA	2,8	2,6	3,5
SUEDIA	2,1	0,4	1,1
ERRESUMA BATUA	3,7	4,2	2,7

Iturria: EUROSTAT.
** Azaroko urte arteko datua.*

Azpiko inflazioa (energiako produktuei eta elikagai freskoei dagokien zatia kenduta, hots, hondar inflazioa), bestalde, globalarekin gertatzen den bezala, igoz joan da udako hileetatik hasita, baina era berean, urteko batez besteko erregistroa 2011koa baino txikiagoa izan da: %1,5 (aurrekoan %1,8). Urteko azken hileetako igoera horiek gertatu dira BEZaren igoerak produktu guztietan izan dutelako eragina, hegazkorrenak (hondar inflazioan sartuak) nahiz gainerakoak.

Hala, inflazioaren osagai guztietan goranzko joera ikusten da azken hiruhilekoan, energian izan ezik. Hala ere, urte arteko tasarik handiena du. Badira gehikuntza nabarmenak dituzten beste talde batzuk ere: elikagai freskoak (%3,1) nahiz landutako elikagaiak (%4,1). Beste aldean, industri ondasunak eta zerbitzuak daude, batez bestekoa baino gutxiago garestitu direnak. Bereziki azpimarragarria da industri ondasunen igoera txikia (%0,5).

Abenduko urte arteko datuan eragin handiena dutenak (%2,7) etxebizitzarekin lotutako zerbitzuak dira (%6,1), bereziki berokuntza, argiztapen eta uraren banaketaren gastua, edo alkoholdun edarien eta tabakoaren taldea (%5,8), azken horren prezioaren igoera handiagatik. Hirugarrenik, medikuntza taldea (%3,9), botiken garestitzearen ondorioak jasaten ari dena. Hala ere, talde horren prezioen igoera Espainiako baino nahikoa txikiagoa da (%13,3), Euskadin farmazietako botiken zati bat ordaintzeko sistema ezarri ez izanagatik.

Beste muturrean, komunikazioetan jaitsiz joan dira prezioak aurreko urtearekiko (%-2,8), eta jantzietan eta oinetakoetan ez da apenas prezio aldaketarik izan (%+0,4).

Azkenik, Europar Batasunak Estatu osorako ezarritako Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) 2012ko abenduko datuek %3ko igoera erakusten dute 2011ko abenduarekin alderatuta, aurreko urtean baino 6 hamarren gehiago eta eurogunerako tasa baino 8 hamarren gehiago (indize horretan puntu erdiko jaitsiera izan da aurreko urteko abenduarekiko.

Bestalde, EB-27an, %2,3ko igoera izan da prezioetan, 2011ko abenduan baino 7 hamarren gutxiago.

2012an, Batasuneko herrialdeen artean, inflazio handiko tasa talde bat nabarmentzen da, %3tik gorakoa (Estonia, Holanda, Eslovakia, Finlandia, eta Errumania buru direla %4,6 abenduko urte artekoan). Igoera txikiagoa izan oro har, %2-%3koa, eta beste muturrean, berriz, oso igoera txikia izan da Grezian.

1 Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) Europar Batasuneko inflazioaren batez besteko komuna ematen du. Alderaketa homogeneo hauek lortzeko, KPIan biltzen diren eta haren %5 inguru hartzen duten kontsumoko partida jakin batzuk kanpoan utzi behar izan dira (horrela, adibidez, KPIHtik kanpo geratzen dira Osasun zerbitzuak, Irakaskuntza arautua, Sendagaiak eta diruz lagundutako farmaziako produktuak, eta abar). 2006an oinarriko urtea aldatu zen, 1996. urtetik 2005. urtera igaroz.

3.2. KOSTUAK

a) Lan-kostuak

EAEko lan-kostuen adierazle batzuek zein besteek adierazten dutenez, azken urtean motelaldia egon da, Estatuan eta EB osoan bezala:

- Adierazleetatik lehenengoa indarrean dauden hitzarmenetan adostutako soldata hazkundeei buruzkoa da, eta berrikusitako soldata hazkundea erakusten dute, %2,43koa 2012. urtean gure erkidegoan, 2012ko datua baino 1,36 puntu gehiago eta Estatuaren multzoan itundutakoak eta Estatuak osoan itundutakoak baino 1,12 puntu baino puntu bat gehiago, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuak gorabehera.

- Beste adierazle bat Soldatapekoek lanpostuko eskuratzen duten ordainsaria da. EUSTATen Kontu Ekonomikoetan eta INEren estatistikan oinarrituta kalkulatzen den adierazle horrek erakusten duenez, ordainsari hori gure Erkidegoan %3,3 igo zen 2010ean, eta %0,9, berriz, 2011n (behin-behineko datuak). Estatu osoan 2011n, berriz, %0,3 igo zen (Hiruhilekoko Kontabilitate Nazionalaren behin-behineko datuen arabera).

  Bestalde, EUROSTATek EBrako emandako 2011ko datuetan, lanpostuen ordainsarien %2,2ko igoera ageri da, bai EB-27an (%+3,3 2010ean), bai eurogunean (%+1,7 2010ean).


- Lan-kostuen hirugarren adierazlea unekoa da; halaxe gertatzen da INEren *"Lan-kostuaren Hiruhilekoko Inkesta"* delakoarekin.

  Inkestako datuek erakusten dutenez, %0,7 egin zuten gora langileko lan-kostuek EAEn 2012. urtean (2011n baino hamarren 1 gehiago). Estatuko batez bestekoa, berriz, %0,6 jaitsi da. Eurogunean, bestalde, %2 egin dute gora lan-kostuek 2012an (behin-behineko datuak). Aurreko urtean %2,6koa izan zen. EB-27an, berriz, %2,1 (%+2,6 2011n), EUROSTATen *"Lan-eskuaren Kostuaren Indizea"*ren arabera.

- Jarduera sektoreen arabera, %2,9 egin dute behera kostuek EAEn eraikuntzan. Zerbitzuetan eta industrian, berriz, gora egin dute (%1 eta %1,1 hurrenez hurren). Kopuru absolutuetan, 35.655€-koa izan da langileko kostu osoa batez beste 2012an, Estatuko batez bestekoa baino %17 gehiago.

Bestalde, lan egindako orduko guztizko kostuek %2,4 egin dute gora EAEn 2012an, 2011n baino %1,7 gehiago. Estatuko batez bestekoa, berriz, %0,1 jaitsi da. Sektoreen arabera, %2,1 jaitsi da eraikuntzan. Zerbitzuetan eta industrietan, berriz, igo (%3,2 eta %1,2).

II.3.2. GRAFIKOA. LAN-KOSTUEN IGOERA JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA EAE-N. €/ORDUA.



Iturria: INE. ETCL.

2 "Babes klausulagatik" soldata berrikuspenak jatorrian itundutako soldata hazkundeari eranstearen emaitza. Aintzat hartu behar da adierazle partziala dela, izan ere, batetik, azken urteotan batez besteko hazkunde horiek adostu dituzten hitzarmenek soldatapekoen % 50 inguru estaltzen dute eta, bestetik, ordainsari hazkundeei heltzen diete, hau da, ez dute aintzat hartzen ezohiko orduen ordainketaren eragina, ezta lan egindako ordu kopurua ere, eta soldatakoak ez diren beste kostu batzuk ere ez ditu hartzen.

3 Urtean berrituriko hitzarmenetan izandako soldata aldaketak biltzen dituzten soilik kopuru horiek. Informazio gehiagorako, jo beza irakurleak lan-merkatuari buruzko II. Kapituluko lan-harremanei buruzko atalera.

4 EUSTATen Hiruhilekoko Kontabilitateak, aurten eginiko aldaketaz gain, lanaldi osoen baliokideak diren lanpostuen datua sartu du bere adierazleetan eta, beraz, adierazle hori berrikusi da orrialde hauetako serie osoan. INEren informazioan oinarrituta Estaturako kalkulatutako datua da zuzena.

5 Langileek euren zerbitzuak emateagatik jasotzen duten ordainketa osoa. Barnean hartzen ditu ekoizleek beren behargin eta enplegatuei egiten dizkieten soldata eta ordainsarien ordainketa guztiak, eta Gizarte Segurantzarako ekarpenak ere bai. Beste hainbat kontzepturen artean barnean hartzen ditu hobariak eta aparteko orduen, primen, gabonsarien, haborokinen eta kalte-ordainen ordainketak.

6 Inkesta hau oinarri hartuta, Lan Kostuaren Indize Harmonizatua lantzen da, hain zuzen ere EB osorako laneko kostuen neurri alderagarria.

II.3.4.KOADROA. LAN-KOSTUEN ADIERAZLE MAKROEKONOMIKOAK

	EAE1			ORDAINSARIAK LANPOSTUKO (ALD.%.)				ORDAINSARI IGOERA HITZARMENETAN[4]	
	Langileen ordainsaria (milioi €)	Lanpos-tuak	Lanpostuko ordainsaria (€)	EAE[1]	Estatua[2]	EB27[3]	UEM[3]	EAE (ald. %)	Estatua (ald.%)
2007	31.333	980.173	31.967	4,1	4,8	3,5	2,4	4,22	4,21
2008	33.140	982.441	33.732	5,5	5,3	0,7	3,3	5,01	3,60
2009	32.686	942.985	34.662	2,8	4,2	-1,0	1,6	2,67	2,24
2010	33.307	930.293	35.802	3,3	0,3	3,3	1,7	1,67	2,16
2011	33.305	922.110	36.119	0,9	0,7	2,2	2,2	3,79	2,44
2012*	:	:	:	:	-0,3	:	:	2,43	1,31

Iturria: (1) EUSTATen Hiruhilekoko Kontua, 2010eko oinarri berria. (2) INEren Kontabilitate Nazionala.
(3) Eurostat. (4) Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioa.
(*) Behin-behineko datuak.

II.3.5. KOADROA. LAN-KOSTUEN BILAKAERA JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA. LANGILEKO KOSTUA €/URTE.

	ESTATUA				EAE			
	Orotara	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Orotara	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2008	29.183	32.428	29.318	28.384	33.774	37.916	36.059	31.806
2009	30.202	33.432	30.911	29.384	34.721	38.202	36.045	33.253
2010	30.324	34.187	30.945	29.435	35.215	39.086	35.932	33.725
2011	30.681	34.775	31.799	29.731	35.420	39.727	36.756	33.809
2012	30.483	35.438	32.266	29.353	35.655	40.173	35.698	34.131
Aldak. % 10/11	1,2	1,7	2,8	1,0	0,6	1,6	2,3	0,3
Aldak. % 11/12	-0,6	1,9	1,5	-1,3	0,7	1,1	-2,9	1,0

Iturria: INEren datuekin landutakoa. ETCL.

II.3.6.KOADROA. LAN-KOSTUEN BILAKAERA JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA. LANGILEKO KOSTUA €/ORDUA

	ESTATUA				EAE			
	Orotara	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Orotara	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2008	18,0	19,3	16,8	17,9	22,1	24,2	21,5	21,3
2009	19,0	20,5	17,8	18,9	23,3	25,6	22,0	22,6
2010	19,1	20,7	17,8	19,0	23,4	25,7	22,1	22,7
2011	19,6	21,0	18,5	19,4	23,6	25,5	22,5	23,0
2012	19,5	21,5	18,9	19,2	24,1	25,8	22,0	23,7
Aldak. % 10/11	2,2	1,6	3,7	2,1	0,7	-0,5	1,7	1,2
Aldak.% 11/12	-0,1	2,6	2,4	-1,0	2,4	1,2	-2,1	3,2

Iturria: INEren datuekin landutakoa. ETCL.

b) Produktibitatea

Produktibitatea produkzioaren eta hura lortzeko erabilitako baliabideen arteko harremanean datzan kontzeptua da, eta garrantzitsua da ekonomia baten lehiakortasuna neurtzeko. Kontzeptu erraza da; aitzitik, kalkulua konplexua da, faktore erabakigarriak ugariak direlako (lan egiten duen biztanleriaren kualifikazioa, kapital ondasunen zuzkidura, baliabide hauen erabilera eraginkorra eta hura erakundekoak, legezkoak, eta abarrekoak diren beste faktore batzuekin konbinatuta erabiltzea). Hori dela eta, lanaren itxurazko produktibitatearen kontzeptuaren bitartez hurbilketa egiten da, hura ikuspegi ezberdinen bitartez neurtua.

Lehenik eta behin, laneko itxurazko ekoizpena, BPGaren bilakaeraren (2012. urtean % 1,2 erori zen) eta enpleguarenaren –lanpostuetan neurtuta– arteko bilakaera gisa kalkulatuta (EUSTATen Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen arabera % 2,5 murriztu zena azken

urtean), % 1,4 hazi zen kopuru errealetan 2012. urtean, hau da, aurreko urtean baino sei hamarren gutxiago.

EAEn 2010-2012 aldian 2009ko jaitsieraren ostean laneko itxurazko produktibitatea egonkortzeko arrazoia honako honetan datza: eraikuntzaren produktibitatea suspertu egin zen, %6,3 igo baitzen aurreko ekitaldian izandako jaitsieraren (%2,8) ostean. Zerbitzuen produktibitatea, aldiz, ia ez zen aldatu (+%0,5) eta industriarena ere igo zen (+%2), aurreko urtean baino gutxiago izan bazen ere.

EAEko produktibitate errealaren hazkunde hori Europar Batasunekoa baino handiagoa izan zen (bai 27EBkoa, bai eurogunekoa kontuan hartuz gero, 2011n % 1etik gorako emaitzak lortu ondoren eskualde horietako produktibitatea % 0,1 hazi baitzen), eta behin-behineko datuen arabera, Espainiako estatuko tasa erreala +%3 baino askoz handiagoa izan zen urtean zehar galdutako enplegu kopuru handiaren ondorioz.


EAEk testuinguru europarrean duen kokaleku lehiakorra alderatzeko aintzat hartu dezakegun beste produktibitate adierazle bat laneko produktibitatea da, BPGdaren (erosketa ahalmenaren parekotasuna gorabehera) eta enpleguaren arteko erlazio gisa kalkulatuta. Informazio erabilgarritasuna aintzat hartuta, alderaketak egiteko erraztasuna ageri du abantaila gisa, nahiz eta kasu honetan azterketa maila gorabehera egiten den eta ez bilakaera gorabehera.

Ratio hori aintzat hartuta, ikus daiteke EAE EBk 2011. urtean zuen batez bestekoaren gainetik dagoela %28an (2010arekin alderatuta %3), Irlandaren mailaren parean, eta Luxenburgok eta Irlandak (%142,7) bakarrik gainditzen dute Batasunean (%169ko balioa dauka). Postu hori estatu espainiarrekoa baino askoz ere altuagoa da. Azken hori EBko batez bestekoaren %8,5 gainetik dago, Italia eta Erresuma Batua bezalako herrien antzeko mailetan.

Era berean, adierazle horrek erakusten du EAEren posizio erlatiboak EBren barruan hobera egin duela aurreko urteen aldean (1995-2003 denboraldiko batez bestekoari erreparatuz gero, produktibitate erlatiboa EBren batez bestekoaren %125,7 zen), azken urtean puntu erdi jaitsi den arren.


7 Benetako produktibitatea bolumen kateatuko indizeetan, EUSTATen datuetatik abiatuz kalkulatuta.

II.3.3. GRAFIKOA. LAN EGINDAKO ORDUKO LAN-KOSTUEN BILAKAERA, EB, ESTATUA ETA EAE. URTEKO ALDAKUNTZA (%)



Iturria: INE eta EUROSTATen datuekin landutakoa. Labour cost Index.

II.3.4. GRAFIKOA. LANAREN BENETAKO PRODUKTIBITATEAREN ALDAKUNTZA EAE-N



Iturria: EUSTAT. HKE.

II.3.7. KOADROA. LANEKO ITXURAZKO PRODUKTIBITATEAREN BILAKAERA EAEn

	BENETAKO PRODUKTIBITATEA (BOLUMEN KATEATUA)					PRODUKTIBITATE NOMINALA (PREZIO KORRONTEAK)				
	Orot.	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitz.	Orot.	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2007	1,3	4,4	1,3	5,6	0,9	4,5	6,4	3,9	11,2	4,4
2008	1,1	-6,1	1,4	-1,1	1,4	2,1	-11,3	3,0	2,8	4,7
2009	0,1	-1,4	-2,9	0,5	1,0	-1,2	-9,0	-9,9	-2,5	3,3
2010	1,8	21,8	5,6	-1,0	0,5	3,1	1,7	8,0	0,8	1,0
2011*	1,3	1,7	4,3	2,8	0,2	2,6	2,6	7,1	3,4	1,8
2012*	1,4	6,0	2,0	6,3	0,5	2,5	12,5	3,8	7,7	1,8

Iturria: Eustaten Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak oinarri hartuta landutakoa.
(*)Behin-behineko datuak.

II.3.8. KOADROA. LANEKO PRODUKTIBITATEA LANGILE, HERRIALDE ETA URTE BAKOITZEKO (27-EB = 100). (EROSTEKO AHALMENAREN PAREAN)

	2009	2010	2011
EB 27	100,0	100,0	100,0
ALEMANIA	104,3	106,1	106,6
AUSTRIA	116,2	116,5	116,7
BELGIKA	127,9	128,6	127,6
BULGARIA	40,0	41,2	44,3
ZIPRE	92,5	91,0	90,9
DANIMARKA	105,8	111,8	110,4
ESLOVAKIA	80,0	81,2	80,1
ESLOVENIA	80,5	79,3	80,6
ESPAINIA	109,6	107,9	108,5
ESTONIA	65,1	68,4	68,0
FINLANDIA	110,2	108,9	109,3
FRANTZIA	117,3	116,5	116,6
GREZIA	98,2	93,3	90,1
HOLANDA	112,7	112,1	111,6
HUNGARIA	72,4	70,9	71,1
IRLANDA	134,4	138,9	142,7
ITALIA	112,6	110,1	109,0
LETONIA	52,8	53,7	62,4
LITUANIA	58,0	62,5	64,8
LUXENBURGO	161,2	167,1	169,0
MALTA	97,4	97,2	94,8
POLONIA	65,5	67,4	68,8
PORTUGAL	76,1	77,0	75,5
ERRESUMA BATUA	105,9	105,9	104,1
TXEKIAR E.	75,9	73,8	74,1
ERRUMANIA	49,4	48,5	49,2
SUEDIA	112,2	114,2	115,5
EAE	131,6	127,7	128,0
AEB	140,9	142,9	143,6
JAPONIA	92,9	96,5	95,6

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.

c) Unitateko lan-kostuak

Behin produktibitatearen eta lan-kostuen bilakaera ikusita, EAEko ekonomiaren Unitateko[8] Lan-kostuak aztertuko ditugu.

2012rako behin-behineko datuen arabera, ULK korronteen jaitsiera dago gure ekonomian (%-0,7, 2011ko ratio bera), eta behera egin du industrian (%-0,9) eta neurri handiagoan eraikuntzan (%-9,2). Zerbitzuetan, berriz, %0,5eko igoera izan da ULK korronteetan. Aurreko urtean, berriz, %0,1 egin zuten gora.


II.3.9. KOADROA. UNITATEKO LAN-KOSTUAK EAE-N: URTEKO ALDAKUNTZA

	LAN-KOSTUEN ALDAK.		PRODUKTIBITATEAREN ALD.		ULK KORRONTEEN ALDAK.		BENETAKO ULK-EN ALDAK.	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012
OROTARA	0,6	0,7	1,3	1,4	-0,7	-0,7	-2,0	-1,8
INDUSTRIA	1,6	1,1	4,3	2,0	-2,7	-0,9	-5,5	-2,7
ERAIKUNTZA	2,3	-2,9	2,8	6,3	-0,5	-9,2	-1,0	-10,6
ZERBITZUAK	0,3	1,0	0,2	0,5	0,1	0,5	-1,5	-0,7

Iturria: EUSTATen eta INEren datuekin eginikoa.


8 Unitateko Laneko Kostu (ULK) korrontea zera da: soldatapeko bakoitzaren laneko kostuaren eta okupatu bakoitzeko produktibitatearen arteko ratioa. ULK erreala zatidura berdin hori da, nahiz eta deflatorea aplikatzearen bitartez "prezioen eragina" ezabatuta. Epigrafe honetan aztertzen dena adierazle hauen urteko aldakuntza da, Estatuko eta Europako batez bestekoen aldean.

II.3.5. GRAFIKOA- LANAREN BENETAKO PRODUKTIBITATEAREN ALDAKINTZA EAE-N, ESTATUAN ETA EUROPAR BATASUNEAN



Iturria: EUSTATen datuekin eginikoa. Kontu Ekonomikoak.

II.3.6. GRAFIKOA. UNITATEKO LAN-KOSTU ERREALAK. LANGILEEN ORDAINSARIAK OINARRI HARTUTA KALKULATURIKO URTEKO ALDAKUNTZA.



Fuente: EUSTATen eta EUROSTATen datuekin egindakoak.

Europar Batasunean, ULK nominalak, soldatapekoek lanpostuko eskuratzen duten ordainsaritik abiatuta kalkulatzen direnak, areagotu egin ziren 2012. urtean % 2,9 (EB-27) eta % 1,6raino eurogunean (% +0,9 aurreko urtean). ULK errealak aintzat hartuz gero, 2012ko datuak negatiboak dira Batasunaren multzoarentzat (+%0,5) nahiz eurogunearentzat (+%0,3).

Bitartean, Estatuan, 2011n %1,5eko aldakuntza negatiboa egon da, eta -%3,1ekoa 2012n, behin-behineko datuekin. Datu errealak aintzat hartuz gero, ratioak -%2,4 eta -%3,1 dira hurrenez hurren, 2011. eta 2012. urteetarako.


Emaitza hauek alderatzen baditugu ULK errealekin gure Erkidegoko soldatapekoen Ordainsaritik abiatuz, eta 2012rako daturik ez dagoen arren, 2008an ikus zitekeen jada balio positiboko joera aldaketa (+%3,5), eta %3,8 2009an, grafikoan ikusten den bezala. Hala ere, 2010ean, behin-behineko datuekin, adierazle horrek nabarmen egin du behera, %0,7ra arte, eta negatiboa da 2011n, %-1,6, behin-behineko datuekin.

3.3. ERRENTAK

a) Errenten banaketa faktoriala

Gure ekonomian sortutako balio erantsia, oinarrian, soldatapeko lanaren ordainsari gisa sortzeko lagungarriak izan diren faktore produktiboen artean banatzen da, baita soldatapekoa ez den lanaren eta kapitalaren ustiapenaren soberakin garbi gisa edo kapital finkoaren kontsumo gisa ere, ekoizpen-taldeak urtean zehar izan duen balio galeragatik. Azkenik, administrazio publikoari dagozkion ekoizpenarekin eta inportazioarekin (diru-laguntzen garbiak) lotutako zergak.

II.3.7. GRAFIKOA. FAKTOREEN ERRENTEN EHUNEKKOEN BANAKETAREN BILAKAERA EAE-N



	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Soldatako Ordaintzea	49,2	49,1	48,9	48,7	48,2	48,0	49,7	51,8	51,8
Ustiapeneko soberakin garbia	31,8	31,4	31,3	31,2	31,4	32,1	32,3	30,4	29,1
Kapital finkoko kontsumoa	9,0	9,1	9,1	9,0	9,1	8,9	9,0	9,1	9,5
Zerga garbiak	10,0	10,4	10,7	11,0	11,2	10,9	9,0	8,6	9,6

Iturria.- EUSTATen datuekin eginikoa. Kontu Ekonomikoak.

II.3.10. KOADROA. ERRENTAREN BANAKETA EAE-N, ESTATUAN ETA EUROGUNEAN

	Milioi eurotan				% bertikala			% urteko aldakuntza		
	2008	2009	2010	2011p	2009	2010	2011	08/09	09/10	10/11
EAE										
1. Soldatapekoen ordainsaria	33.140	32.686	33.307	33.305	51,1	51,1	50,3	-1,4	1,9	0,0
2. Ustiapenaren soberakin garbia	22.719	20.481	20.310	21.707	32,0	31,2	32,8	-9,9	-0,8	6,9
3. Kapital finkoaren kontsumoa	5.484	5.268	5.584	5.555	8,2	8,6	8,4	-3,9	6,0	-0,5
4. Diru-laguntzen zerga garbiak	6.135	5.554	5.920	5.697	8,7	9,1	8,6	-9,5	6,6	-3,8
BPGa merkatuko prezioak	67.478	63.989	65.120	66.265	100,0	100,0	100,0	-5,2	1,8	1,8
ESTATUA										
1. Soldatapekoen ordainsaria	537.643	524.581	512.775	508.620	50,1	48,9	47,8	-2,4	-2,3	-0,8
2. + 3. Ustiapenaren soberakin garbia / Errenta misto gordina*	458.132	446.391	441.912	464.198	42,6	42,1	43,7	-2,6	-1,0	5,0
4. Diru-laguntzen zerga garbiak	92.013	77.088	94.196	90.537	7,4	9,0	8,5	-16,2	22,2	-3,9
BPGa merkatuko prezioak	1.087.788	1.048.060	1.048.883	1.063.355	100,0	100,0	100,0	-3,7	0,1	1,4
EUROGUNEA										
1. Soldatapekoen ordainsaria	4.431.668	4.440.110	4.500.896	4.624.273	49,9	49,1	49,1	0,2	1,4	2,7
2. + 3. Ustiapenaren soberakin garbia / Errenta misto gordina*	3.695.976	3.487.627	3.636.642	3.726.583	39,2	39,7	39,6	-5,6	4,3	2,5
4. Diru-laguntzen zerga garbiak	1.033.353	978.339	1.024.196	1.070.296	11,0	11,2	11,4	-5,3	4,7	4,5
BPG merkatuko prezioak	9.160.997	8.906.472	9.161.734	9.421.151	100,0	100,0	100,0	-2,8	2,9	2,8

Iturria: EUSTAT "Kontu Ekonomikoak (2000ko oinarria)", INE "Espainiako Kontabilitate Nazionala. 2000ko oinarria" eta EUROSTAT.
** Ustiapenaren soberakin gordina edo errenta misto gordina hauexen batura da: soberakin garbia eta kapital finkoaren kontsumoa. EAEn, bi aldagaiok ematen ditu EUSTATek, baina ez EUROSTATek ez INEk ez dute horrelakorik ematen eurogunerako eta Estaturako*

Bigarren maila batean, errenta hori banatu egiten da pertsona eta familia ezberdinen artean, faktore produktibo hauetako partaidetza eta eskuratutako errenta ezberdinak gorabehera.

Produktuaren banaketa funtzionalari dagokionez, 2011ko %1,8ko prezio korronteetako BPGdaren igoera erreferentzia hartuta (behin-behineko datuak), ikusten da zerga garbiak %3,8 igo zirela, eta soldatapekoen errenta, ordea, berdin mantentzen da. Kapital finkoko kontsumoa, aldiz, %0,5 jaitsi zen, eta ustiapeneko soberakin garbia %6,9 igo zen bi urtez jaitsi ondoren.

Bilakaera hori kusita, soldatapeko laneko errentak 2011n BPGdaren %50,3 dira, aurreko urtearen proportzio berdina. Ustiapeneko soberakin garbia, berriz, %32,8 da (BPGdaren gaineko pisua 1,6 puntu galdu du) eta kapital finkoaren kontsumoa %8,4, aurreko urtean baino 2 hamarren gutxiago. Horrela, Ustiapeneko soberakin gordina, magnitude bi horien batura, BPGdaren %41,1 da. Ekoizpenari eta inportazioari jarritako zergen kasuan, ken produkzio sektoreei emandako diru-laguntzak, murriztu egiten da BPGaren bere proportzioa eta % 8,6ra iristen da, aurreko urtean baino 0,5 puntu gutxiago.

Errenten bilakaera hau Estatukoek edukitakoarekin alderatuz gero, ikus dezakegu 2010. urtean soldaten errentak %0,8 murriztu direla gure Erkidegoan. Aldiz, ustiapenaren soberakinaren eta errenta mistoaren arteko batura EAEn %5,3 gehitu da, eta %5 Estatuan. Diru-laguntzen zerga garbiei dagokienez, BPGdaren gaineko proportzioak ezberdinak dira (%8,6 EAEn eta %8,5 Estatuan). Hala ere, 2010eko kopuruekiko bilakaera norabide berdinean doa:

EAEn % 3,8 erori zen eta Estatuaren multzoan % 3,9.

Eurogunean, azterketaren xede diren faktoreek bilakaera diferentea jasan dute EAEren eta Estatuaren aldean eta, gainera, BPGdaren aldakuntza nominala handiagoa da, %2,8 (aurreko urtean +%2,9). Soldatapekoen ordainsaria %2,7 hazi da. Ustiapeneko soberakin gordina edo gehieneko errenta gordina, berriz, %2,5, eta zerga garbiek %4,5 egin dute gora.

b) Per capita errenta

Lehenik eta behin, INEk urtero egiten duen “Espainiako Lurralde Kontabilitateak” erakusten du autonomi erkidegoan eta probintzietan familien errentaren kontuak zeintzuk diren, bai termino erantsietan bai per capita. Horrela, dauzkagun azken datuen arabera (2010ekoak) EAEko familien errenta gordin erabilgarria, 42.831 milioi eurokoa dena, estatuko errenta erantsiaren %6,2 da. Gainera, aurreko urtekoa baino %1,79 txikiagoa da (-%3 Estatuan).

Halaber, EAEko familiak izan ziren biztanleko errenta gordin erabilgarri handiena eduki zutenak, 20.034 eurokoa, aurreko urtean baino %1,9 gutxiago, eta Estatuko batez bestekoa –14.959 eurokoa– baino %33,9 gehiago. Dena dela, Estatuko batez bestekoak gora egin du %3,3 azken urtean. Gure erkidegoaren atzetik, Nafarroa, Madril eta Katalunia daude rankingean.

Lurraldeka, errenta gordin erabilgarririk handiena per capita Araba eta Bizkaiko familiei dagokie (Estatuko batez bestekoa baino %39m3 eta %37,9 gehiago, hurrenez hurren). Gipuzkoan, berriz, estatukoa baino %30,1 gehiagoko balioa dago, hirugarren postuan, Nafarroako Komunitatea baino apur bat gorago.

Beste alde batetik, EUROSTATek, per capita BPGdari buruz (PCB) eta erosketa ahalmenari buruz dauzkan estatistiken bidez, EAEk Europar Batasunaren batez bestekoaren barruan eta EBko herrialde eta eskualdeen artean daukan posizio erlatiboa ezagutzeko bidea ematen du.


Gauzak horrela, 2011n, eta EBko batez bestekoa erreferentzia gisa hartuta, EAEk %128ko per capita BPGda du. Horrek esan nahi du jarraikako 13 urtez hazkundea izan eta gero bigarren erorikoa gertatu dela (bi puntu 2009arekin alderatuta), 1995. urtean izandako %109,6ko baliotik EBren batez bestekoaren aldean. 2011n lortutako balioarekin, EAE laugarren postuan egongo litzateke Batasunean, Luxenburgo, Austria eta Irlandaren atzetik, eta Suediarekin berdinduta.

II.3.11. KOADROA. ETXEEN ERRENTA ESKURAGARRI GORDINA, PER CAPITA. EUROAK. 2008KO OINARRI BERRIA.

	2008	2009	2010 (p)		
			(€)	Espainiako indizea = 100	Aldakuntza tasa 2009-10
ANDALUZIA	12.566	12.644	12.047	83,2	-4,7
ARAGOI	17.295	17.269	16.661	111,4	-3,5
ASTURIAS	16.164	15.827	15.429	103,1	-2,5
BALEARS (ILLES)	16.018	15.835	15.108	101,0	-4,6
U. KANARIARRAK	12.974	12.783	12.448	83,2	-2,6
KANTABRIA	16.027	15.896	15.100	100,9	-5,0
GAZTELA ETA LEON	15.705	15.601	15.176	101,5	-2,7
GAZTELA - MANTXA	12.943	12.942	12.521	83,7	-3,3
KATALUNIA	17.411	17.661	17.093	114,3	-3,2
VALENTZIAKO E.	14.094	13.795	13.371	89,4	-3,1
EXTREMADURA	11.888	11.841	11.541	77,2	-2,5
GALIZIA	14.581	14.554	14.131	94,5	-2,9
MADRIL	18.206	18.643	17.870	119,5	-4,1
MURTZIA	13.027	12.882	12.446	83,2	-3,4
NAFARROA	19.570	19.503	19.089	127,6	-2,1
EAE	**20.569**	**20.416**	**20.034**	**133,9**	**-1,9**
Araba	21.805	21.567	20.840	139,3	3,4
Gipuzkoa	19.958	19.896	19.455	130,1	-2,2
Bizkaia	21.026	20.756	20.623	137,9	-0,7
ERRIOXA	16.699	16.532	15.977	106,8	-3,4
CEUTA	14.982	15.053	14.163	94,7	-5,9
MELILLA	13.936	13.770	12.812	85,6	-7,0
OROTARA	15.458	15.488	14.959	100,0	-3,3

Iturria: INE. Espainiako Eskualde Kontabilitatea. 2008ko oinarria.

II.3.8. GRAFIKOA. PER CAPITA BPG-AREN BILAKAERA (PCB) . EB-27=100.



Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT.


II.3.12. KOADROA. PER CAPITA BPG (PCB) HERRIALDE ETA URTEAREN ARABERA (EB27=100).

	2009	2010	2011
EB 27	100	100	100
ALEMANIA	115	118	121
AUSTRIA	125	126	129
BELGIKA	117	119	119
BULGARIA	44	44	46
ZIPRE	98	97	94
DANIMARKA	121	125	125
ESLOVAKIA	73	74	73
ESLOVENIA	88	86	84
ESPAINIA	103	101	98
ESTONIA	64	64	67
FINLANDIA	114	116	114
FRANTZIA	107	107	108
GREZIA	94	89	79
HOLANDA	131	133	131
HUNGARIA	64	63	66
IRLANDA	128	127	129
ITALIA	104	100	100
LETONIA	52	52	58
LITUANIA	55	58	66
LUXENBURGO	267	274	271
MALTA	81	83	85
POLONIA	61	62	64
PORTUGAL	80	81	77
ERRESUMA BATUA	113	114	109
TXEKIAR ER.	84	82	80
ERRUMANIA	46	45	49
SUEDIA	119	123	127
EAE	**135**	**133**	**128**

Iturriak: EUROSTAT eta EUSTAT.

4. SEKTORE PUBLIKOA

II.4.1. GRAFIKOA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA BPGD-ARI DAGOKIONEZ



Iturria: E usko Jaurlaritzaren datuetatik aurrera egindakoa.

Nabarmendu behar da, 2011n diru-sarrera publikoetan egondako jaitsieraren ondoren, 2012an neurri txiki batean (% 0,1 inguru) leheneratu direla, funtsean zuzeneko zergen bilakaera positiboagatik. Izan ere, % 1 handitu dira, eta horrela zeharkako zergen jaitsiera konpentsatu da, haien bilketa % 2 murriztu baita. Bi partidek Euskal Sektore Publikoaren sarreren % 77 biltzen dute. Halaber, % 7,6ko gehikuntza gertatu da finantza-pasiboen aldakuntzan, Eusko Jaurlaritzaren zorpetze handiagoarekin lotuta (zeren ratio hori negatiboa baita Foru Aldundientzat).

Ondorioz, Euskal Sektore Publikoaren BPGd-aren gaineko diru-sarrerak 4 ehunen gehitu dira: 2011ko % 22,78tik % 22,82ra (behin-behineko datuak).

Euskal Sektore Publikoaren guztizko gastua, bere aldetik, % 2,6 jaitsi da, aurreko urteko % -1,1en aurrean. Hortaz, magnitude horrek EAEko BPGd-aren gain duen portzentajeak 57 ehuneneko beherakada izan du, % 22,74tik % 22,17ra igarota. Gastuak bilakaera positiboa izan du bai Eusko Jaurlaritzan (% +0,7) eta negatiboa Foru Aldundietan (% -2,4). Ondorioz, agregatuaren aldakuntza negatiboa izan da (% -2,6); izan ere, diru-partidetako batzuk erakundeen artean orekatzen dira (transferentzien zati bat, esaterako).

Diru-sarreren eta gastuen bilakaeraren ondorioz, aurrezki publikoa % 70,9 gehitu da (BPGd-aren % 1,58 izan arte), eta aldi berean defizit publikoa (finantziazio premia) % 42,8 murriztu da, 473,5 milioi eurokoa izan arte; gauzak horrela, BPGd-aren % 0,71 da. Ratio hori BPGd-aren % 1,39raino gehitu da, halere (2011n % 2,56), 2012-2014ko EAEko berrorekatzeko Ekonomia eta Finantza Planean dagoen defizitaren datua kontuan izanez gero. Hor, EAEko Administrazio Orokorraz gain, LANBIDE eta OSAKIDETZA erakunde autonomoen kopuruak sartzen dira. Horixe da Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioak duen erreferentzia eta erkidego erakundeei bidali diena.

Bestalde, EAEko sektore publiko osoaren (toki entitateak kontuan izan gabe) zorpetze garbia % 10,2 gehitu da. Urtearen amaieran, zor bizia 8.444 milioi eurokoa zen (% +13,8).

4.1. DIRU-SARRERAK

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren *Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Estatistika* izeneko txostenaren datuen arabera, Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek likidatutako diru-sarrera osoek (15.112 milioi euro) % 0,1eko igoera txikia izan dute 2012an aurreko urtearen aldean (2010etik 2011ra % 2,5eko jaitsiera izan da), gehienbat zeharkako zergen bilakaera positiboagatik; izan ere, % 1 handitu dira, eta konpentsatu egiten da zeharkako zergen jaitsiera, haien bilketak % 2 egin baitu behera. Bi partidek Euskal Sektore Publikoaren diru-sarreren % 77 biltzen dute.

Halaber, % 7,6ko gehikuntza gertatu da finantza-pasiboen aldakuntzan, Eusko Jaurlaritzaren zorpetze handiagoarekin lotuta (zeren ratio hori negatiboa baita Foru Aldundientzat).

Diru-sarreren % 0,1eko gehikuntza horrek bilakaera ezberdina du administrazioen artean, zeren eta, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, % 6,5eko igoera izan baitu (gehienbat transferentzia arrunten eta finantza-sarreren gehikuntzagatik). Foru Aldundiei dagokienez, berriz, % 3,5eko jaitsiera egon da (zeharkako zergapetzearen ondoriozko diru-sarreren eta transferentzia arrunten galeragatik, baita finantza-sarreren galeragatik ere).

Ondorioz, baieztatu daiteke Euskal Sektore Publikoaren Erkidegoko BPGd-aren gaineko diru-sarrerak 4 ehunen gehitu direla: 2011ko % 22,78tik % 22,82ra (behin-behineko datuak).

Zerga itunduak zuzeneko eta zeharkako diru-sarreren gehiengoa dira, eta zenbateko osoaren % 90 baino gehiago. Zerga itunduen bilketaren xehetasunari dagokionez, 2012rako behin-behineko datuek % 0,6ko jaitsiera erakusten dute, aurreko urtean % 1,9 murriztu ondoren. Gainera, oro har zuzeneko ezarpenak zeharkakoak baino portaera hobea duela antzeman da.

Zuzeneko zergetan, guztira, aurreko urtean baino % 1 gehiago bildu zen 2012an, PFEZren bilketan izandako gehikuntza txiki bati (% 0,2) eta ondarearen gaineko zergaren ezarpenari esker (115 milioitik gora bildu ziren zerga horretan).

II.4.1. KOADROA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA. MILAKA EUROTAN.

	2011			2012			2011-12ko ald. %		
	EJ	FFAA	ESP	EJ	FFAA	ESP	EJ	FFAA	ESP
Zuzeneko zergak	-	5.783.520	5.783.520	-	5.843.583	5.843.583	-	1,0	1,0
Zeharkako zergak	3.010	5.931.999	5.935.009	2.476	5.813.085	5.815.562	-17,7	-2,0	-2,0
Tasak eta bestelako diru-sarr.	210.864	348.449	559.314	180.245	567.347	747.591	-14,5	62,8	33,7
Transferentzia arruntak	8.024.908	788.024	816.810	8.423.796	361.559	570.791	5,0	-54,1	-30,1
Ondare-sarrerak	197.261	19.422	216.683	165.032	13.399	178.430	-16,3	-31,0	-17,7
Inbertsio errealen bester.	1.064	2.736	3.800	71.952	1.476	73.428	6.662,4	-46,1	1.832,3
Kapital-transferentziak	272.617	150.023	336.700	371.590	26.452	388.136	36,3	-82,4	15,3
GASTU EZ FIN., GUZTIRA	8.709.724	13.024.173	13.651.836	9.215.091	12.626.899	13.617.522	5,8	-3,1	-0,3
Finantza-aktiboen aldakuntza	49.078	60.844	109.923	48.738	12.500	61.237	-0,7	-79,5	-44,3
Finantza-pas. ald. (zorra)	960.077	371.600	1.331.677	1.084.420	348.570	1.432.990	13,0	-6,2	7,6
FINANTZA-SARRERAK, GUZTIRA	1.009.155	432.444	1.441.600	1.133.158	361.070	1.494.228	12,3	-16,5	3,7
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	9.718.881	13.456.618	15.093.435	10.348249	12.987.969	15.111.750	6,5	-3,5	0,1
SARREREN % / BPGd-a	14,67	20,31	22,78	15,63	19,61	22,82			


Iturria: EUSKO JAURLARITZAren Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Estatistika.

II.4.2. KOADROA. FORU ALDUNDIAK: ITUNDUTAKO ZUZENEKO ETA ZEHARKAKO ZERGENGATIKO DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA MILAKA EUROTAN

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		FFAA, GUZTIRA	
	ZUZENEKOAK	ZEHARKAKOAK	ZUZENEKOAK	ZEHARKAKOAK	ZUZENEKOAK	ZEHARKAKOAK	ZUZENEKOAK	ZEHARKAKOAK
2008	1.003.539	1.019.438	3.523.884	3.077.113	2.073.757	2.022.779	6.601.180	6.119.330
2009	859.496	878.854	2.891.913	2.665.840	1.641.350	1.753.711	5.392.759	5.298.405
2010	855.962	1.048.586	2.823.317	3.213.485	1.579.155	2.069.443	5.258.435	6.331.514
2011	867.029	952.926	3.103.477	2.882.984	1.673.654	1.890.671	5.644.160	5.726.581
2012	843.440	927.322	3.121.454	2.825.398	1.7333.893	1.847.009	5.698.787	5.599.729
10-11ko %	1,3	-9,1	9,9	-10,3	6,0	-8,6	7,3	-9,6
11-12ko %	-2,7	-2,7	0,6	-2,0	3,6	-2,3	1,0	-2,2

Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Ogasun eta Finantza Sailaren datuak erabilita egindakoa.

II.4.2. GRAFIKOAEUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN SARRERAK: INPOSATUTAKO NAGUSIENGATIKO BILKETAREN BILAKAERA (MILAK €)



Iturria.- Eusko Jaurlaritzaren datuekin egindakoa.

Zenbait arauk eta kontroleko jarduketen eta gerorapenen sarrerek bultzatu dute PFEZ, baina urteko azken hileetan hazkundea motelduz joan da, enpleguaren beherakadaren eta herri administrazioan Gabonetako ordainsaria kendu izanaren ondorioz. Hala, zerga horren zutabe nagusia den laneko atxikipenetan (% -1) lan-merkatuaren zailtasunak gertatu dira, baina konpentsatu egiten dira kuota diferentzial garbiari esker.

Zuzeneko ezarpenaren beste osagai nagusiari dagokionez, Sozietateen Zergak saldo negatiboa izan du 2012aren amaieran: % -2,5. Enpresa etekinak jardueraren narriaduragatik eta konturako ordainketak aldatzen dituzten hainbat dekretu arau-emaileren eraginagatik jaitsi izanak ondorio negatiboa izan du bilketan.

Zeharkako zergapetzeari dagokionez, egoera ekonomikoaren isla izan da, eta % 3,6ko jaitsierarekin bukatu da 2012. urtea. Enplegua murriztu izanaren eraginez, behera egin du familien errenta eskuragarriak eta, ondorioz, behera egin du kontsumoak. Horregatik, zerga tasak igo badira ere, norberaren kudeaketaren BEZak ez ditu balio negatiboak alde batera utzi (% -4,4). Alabaina, administrazio zentralak egin duen BEZaren doikuntzak (gehienbat erregaien komertzializazioagatik eta kanpoko merkataritzaren eragiketengatik) moteldu egin du zerga horren bilketaren jaitsiera globala % -1,4ra.

Azkenean, BEZa ez bezala, zerga bereziek % 0,9 handitu dute beren bilketa, tabakoaren eta elektrizitatearen gaineko zergen diru-bilketaren hazkundea dela-eta funtsean; izan ere, horrek goranzko bilakaera agertu du, tarifak handitu izanaren ondorioz, kontsumoaren bilakaera tasa negatiboetan baitago.

Labur adieraztearren, bildutako bolumen osoa 11.408 milioi eurokoa da. Zenbateko hori, behin-behineko datuen arabera, EAEko BPGd arruntaren % 17,2 izan da 2012. urtean (2011n % 17,3). Bildutako diruaren % 37,9 PFEZri dagokio, % 35,4 BEZari (kudeaketa propioa eta barne eragiketengatiko eta aduanengatiko doikuntza), % 9,9 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerakoa, % 16,8, hain zuzen, zenbait zerga bereziri.

II.4.3. KOADROA. GASTU FISKALAK ZERGA ITUNDUENGATIK. MILAKA EUROTAN.

	2008	2009	2010				2009-10EKO ALD. %
			ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE	
PFEZ	2.129.354	2.491.186	361.579	1.229.059	774.366	2.365.004	-5,1
Ondare zerga	156.524	-	-	-	50.620	50.620	-
Sozietateen zerga	632.112	569.416	94.021	281.564	149.347	524.932	-7,8
ZUZENEKO ZERGAK, GUZTIRA	*2.917.990*	3.060.602	*455.600*	*1.510.623*	*974.333*	2.940.556	*-3,9*
BEZa	3.067.810	*3.282.144*	422.585	1.253.011	823.429	*2.499.025*	-23,9
OEEJDZ	170.524	119.851	44.095	20.062	24.211	88.368	-26,3
Garraioaren Z.B.	9.951	7.809	898	3.247	1.796	5.941	-23,9
Fabrikazioko Z.B.	172.635	194.550	42.428	125.804	82.673	250.905	29,0
Hidrokarburoen Salm. Z.	4.305	3.468	180	2.920	351	3.451	-0,5
Aseguruen Primen Z.	17.725	20.900	3.249	9.633	6.330	19.212	-8,1
ZEHARKAKO ZERGAK, GUZTIRA	*3.442.951*	*3.628.722*	*513.435*	*1.414.677*	*938.790*	*2.866.902*	*-21,0*
GUZTIRA	6.360.940	6.689.324	969.035	2.925.300	1.913.123	5.807.458	-13,2

Iturria: ZERGA KOORDINAZIOKO ORGANOAren datuak erabilita egindakoa.

II.4.4. KOADROA. EAE-KO FORU ALDUNDIETAKO ZERGA ITUNDUETATIK BILDUTAKOA. (MILAKA EUROTAN)

	EAE 2011	2012				2012ko aurrekontuaren gaineko %	2011-12ko aldakuntzaren %
		AFA	BFA	GFA	EAE		
ZUZENEKO ZERGAK	5.644.160	*843.440*	*3.121.454*	*1.733.893*	5.698.787	*99,2*	1,0
PFEZ	4.321.226	669.784	2.256.147	1.403.236	4.329.195	*97,3*	0,2
- Laneko atxik. eta jard. prof	1.448.414	689.349	2.295.078	1.420.054	4.404.481	*95,6*	-1,0
- Kapital higigarrien etekinen atxikip.	217.844	32.425	130.949	78.395	241.769	*115,6*	11,0
- Kapital higiezinaren atxikip.	85.191	10.931	50.331	26.486	87.749	*98,8*	3,0
- Ondare-irabazien atxikipenak	14.780	1.089	11.499	7.523	20.110	*147,8*	36,1
- Profes. eta enpr. ordainketa zatituak	154.521	26.798	66.207	58.853	151.589	*94,3*	-1,9
- Kuota diferentzial garbia	-599.524	-90.807	-297.917	-187.779	-576.503	*91,0*	3,8
SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA	1.160.259	141.089	739.683	251.012	1.131.784	*99,3*	-2,5
EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA	82.099	6.406	20.899	5.482	32.787	*42,8*	-60,1
OINORDETZAK ETA DOHAINTZAK	77.145	11.362	42.869	35.300	89.532	*110,1*	16,1
ONDAREAREN GAINEKO ZERGA	-	14.800	61.856	38.834	115.490	-	-
Amaitutako zergak	3.432	-	-	-	-	-	-
ZEHARKAKO ZERGAK	5.726.581	*927.322*	*2.825.398*	*1.847.009*	4.617.351	*89,5*	-3,6
BEZa	4.097.367	67.755	2.038.513	1.328.991	4.038.258	..	-1,4
- Kudeaketa propioa	3.099.727	492.070	1.495.465	947.955	2.962.490	*87,5*	-4,4
- Doikuntza	997.640	178.685	543.048	354.035	1.075.769	*89,2*	7,8
OEZ	98.531	11.460	38.735	29.705	79.899	*72,8*	-18,9
EJDZ	58.475	8.017	18.990	14.301	41.308	*69,5*	-29,4
GARRAIOAREN Z.B.	24.753	2.776	8.727	5.846	17.350	*70,7*	-29,9
FABRIKAZIOKO ZZBB	1.321.712	216.018	656.507	428.004	1.393.919	*96,1*	0,9
HIDROKARBUROEN T.S.Z.	48.350	8.067	24.517	15.983	49.567	*98,0*	0,4
ASEGURUEN PRIMEN Z.	77.383	10.229	39.410	24.179	73.818	*92,6*	-4,6
Amaitutako zergak	9	-	-	-	-	-	-
TASAK ETA BESTELAKO DIRU-SARR.	110.172	*10.430*	*64.516*	*34.762*	109.708	*95,9*	-0,4
JOKO-TASAK	54.100	6.470	29.015	13.617	49.102	..	-9,2
ERREKARGUAK, BERANDUTZAK ETA ZEHAP.	56.072	3.960	35.501	21.145	60.606	..	8,1
ZERGA ITUNDUAK, GUZTIRA	11.480.913	1.781.192	6.011.369	3.615.663	11.408.224	94,2	-0,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Ogasun eta Finantza Saila.

Diru-sarreraren murriztapena dakarten partidei dagokienez, aurrekontuaren arabera 2010erako gastu fiskala[1] —urte hori baita informazio zehatza ematen duen azkena— (hau da, beren zergetan eta foru aldundien ekarpenetan kontabilizatutako zergetan eragina duten onura fiskalen zenbatekoak: salbuespenak, gastu kengarriak, murriztapenak, kenkariak, hobariak, diferimenduak eta abar izan daitezkeenak) 5.807 milioi eurokoa izan da, aurreko urtean baino % 13,2 gutxiago, hau da, diru-sarrera teorikoen % 34,4 (aurrekontuan sartutako diru-sarrerak eta gastu fiskalak). Gastu fiskalen % 52,2 (3.301 milioi) araudi autonomoko zerga itunduei dagokie.

4.2. GASTUAK

Euskal Sektore Publikoaren guztizko gastua, 14.685 milioi euroko gastua, alegia (tokiko erakundeak kontuan hartu gabe), % 2,6 murriztu da 2012an, aurreko urteko % -1,1en aurrean. Hortaz, magnitude horrek EAEko BPGd-aren gainean duen portzentajeak 57 ehuneneko beherakada izan du, % 22,74tik % 22,17ra igarota.

Ekitaldi horretan berebiziko garrantzia izan dute Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondarearen gaineko Zergaren zerga sartzeak, Sozietateen gaineko Zergaren enplegua sortzeagatiko kenketek, BEZko karga tasa orokorraren (% 16tik % 18ra) eta murriztuaren (% 7tik % 8ra) igoerak eta Hidrokarburoen gaineko Zergako

1 Gastu fiskalaren kontzeptuak ez du ondo argitutako eta denek onartutako definiziorik ogasunaren doktrinaren barruan. Halere, gastu fiskalen aurrekontua honela defini dezakegu: zerga sarreren murriztapenaren aurreikuspenaren zenbatekoa, politika ekonomiko eta sozialeko zenbait helburu lortzeko asmoz onura fiskalak aplikatzearen ondorioz. ELGAren definizioaren arabera, zergaren egitura "arruntaren" edozein desbideratze da. Arruntenak eta erabilienak zerga oinarriko murriztapenak eta kuotako kenkariak dira.

gasolinetarako eta erabilera orokorreko gasoliorako zerga tasen igoerak.

Gastuak bilakaera positiboa izan du bai Eusko Jaurlaritzan (% +0,7) eta negatiboa Foru Aldundietan (% -2,4). Ondorioz, agregatuaren aldakuntza negatiboa izan da (% -2,6); izan ere, diru-partidetako batzuk erakundeen artean orekatzen dira (transferentzien zati bat, esaterako). Ondorioz, gastu publikoaren gure Erkidegoaren BPGd-aren gaineko ratioa % 19,59tik % 19,12ra igaro da Foru Aldundientzat eta % 15,35etik % 15,47ra Eusko Jaurlaritzarentzat, BPGd-ak EAEn 2012an izan duen bilakaeraren behin-behineko datuak kontuan izanik.

II.4.5. KOADRAO. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GASTUEN LIKIDAZIOA. MILAKA EUROTAN.

	2011			2012			2011-12ko ald. %		
	EJ	FFAA	ESP	EJ	FFAA	ESP	EJ	FFAA	ESP
Pertsonal-gastuak	1.905.887	351.604	2.257.491	1.781.937	332.141	2.114.078	-6,5	-5,5	-6,4
Funtzionamenduko gastuak	3.349.018	495.652	3.844.670	3.257.516	503.363	3.760.879	-2,7	1,6	-2,2
Finantza-gastuak (interesak)	151.705	68.332	220.037	196.679	72.438	269.117	29,6	6,0	22,3
Transferentzia arruntak	3.316.873	11.055.116	6.375.868	3.458.135	10.720.393	5.963.964	4,3	-3,0	-6,5
Inbertsio errealak	444.612	414.453	859.065	519.081	236.433	755.514	16,7	-43,0	-12,1
Kapital-transferentziak	730.069	278.918	923.046	783.580	453.784	1.227.458	7,3	62,7	33,0
GASTU EZ FIN., GUZTIRA	9.898.164	12.664.075	14.480.177	9.996.928	12.318.552	14.091.010	1,0	-2,7	-2,7
Finantza-aktiboen aldakuntza	105.551	82.520	188.071	73.511	110.116	183.627	-30,4	33,4	-2,4
Finantza-pasib. ald. (zorraren amort.)	169.483	233.800	403.283	174.483	235.462	409.945	3,0	0,7	1,7
FINANTZA-GASTUAK, GUZTIRA	275.034	316.320	591.354	247.994	345.578	593.572	-9,8	9,2	0,4
GASTUA, GUZTIRA	10.173.197	12.980.396	15.071.530	10.244.922	12.664.130	14.684.582	0,7	-2,4	-2,6
% LIKIDATUTAKO GASTUA / BPGd-a	15,35	19,59	22,74	15,47	19,12	22,17			

Iturria: EUSKO JAURLARITZAren **Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Estatistika.**

II.4.6. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN GASTUA, SAILKA. MILAKA EUROTAN.

	Milaka eurotan				2012ko banak. %	Aldakuntzaren %		
	2009	2010	2011	2012		09-10	10-11	11-12
Legebiltzarra	31.745	30.789	30.430	26.612	0,3	-3,0	-1,2	-12,5
Jaurlaritzako Lehendakaritza	29.757	41.409	82.299	99.312	1,0	39,2	98,7	20,7
Lehendakariordetza	7.022							
Ogasuna eta Herri Administrazioa	135.283							
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	223.749							
Herrizaingoa	710.297	689.285	658.496	606.672	5,9	-3,0	-4,5	-7,9
Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo	406.699	436.154	306.425	327.579	3,2	7,2	-29,7	6,9
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	38.625					-	-	-
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	2.824.094	2.783.639	2.715.639	2.625.112	25,6	-1,4	-2,4	-3,3
Osasuna eta Kontsumoa	3.508.917	3.542.339	3.415.770	3.365.367	32,8	1,0	-3,6	-1,5
Kultura	299.607	297.384	280.470	262.493	2,6	-0,7	-5,7	-6,4
Ingurumena eta Lurralde Antolamendua	34.301					-67,5		
Garraioak eta Herri Lanak	137.483					-56,0		
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	54.264					-69,5		
Ekonomia eta Ogasuna*	31.268	58.769	78.027	66.851	0,7	88,0	32,8	-14,3
Justizia eta Herri Administrazioa*	230.271	292.767	288.000	264.316	2,6	27,1	-1,6	-8,2
Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioak*	390.923	718.013	599.329	805.134	7,9	83,7	-16,5	34,3
Lana eta Gizarte Gaiak*	438.962	669.832	965.996	1.088.826	10,6	52,6	44,2	12,7
Ingurumena, Lurralde Antolamendua, Nekazaritza eta Arrantza*	246.419	291.892	279.479	251.555	2,5	18,5	-4,3	-10,0
Plan Bereziak	273.060	103.579	-	-	-	-62,1	-	-
Lan Harremanen Kontseilua	2.622	2.510	2.459	2.318	0,0	-4,3	-2,0	-5,7
Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea	1.846	1.766	1.729	1.637	0,0	-4,3	-2,1	-5,3
Kooperatiben Goren Kontseilua	1.001	968	937	889	0,0	-3,3	-3,2	-5,1
Kontuen Euskal Epaitegia	7.461	7.695	7.490	7.243	0,1	3,1	-2,7	-3,3
Datuak Babesteko Euskal Agentzia	1.929	1.837	1.579	1.497	0,0	-4,8	-14,0	-5,2
Zor publikoa	83.647	197.987	312.935	364.806	3,6	136,7	58,1	16,6
Erakundeen baliabideak eta konpromisoak	153.255	158.952	145.706	75.217	0,7	3,7	-8,3	-48,4
GUZTIRA	10.304.507	10.327.556	10.173.197	10.246.438	100,0	0,2	-1,5	0,7
% BPGdmp	16,0	15,8	15,4	15,5				

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko aurrekontu orokorren betearazpena. 2012ko datuak: 2012ko abenduko behin-behineko likidazioa.
(*) 2009aren erdialdetik, legegintzaldiaren aldaketatik ondorioztatutako sailen berrantolamenduaren ondorioz

Euskal Sektore Publiko osoko (tokiko erakundeak kanpoan utzita) gastu kapituluetako aldakuntzarik garrantzitsuenek zenbait alde erakusten dute aurreko urteetakoekin alderatuz gero. Lehenengo eta behin, pertsonal-gastuak % 6,4 murriztu dira elkarren segidako bigarren urtean ere (% -0,5 2011n). Funtzionamenduko gastuak, berriz, neurri txikiagoan murriztu dira (% -2,2). Bestalde, transferentzia arruntak jaitsi dira (% -6,5) Eusko Jaurlaritzan handitu direlako (% +4,3) eta Foru Aldundietan murriztu direlako (% -3). Orobat, 2011n bezala, nabarmena da zorpetzearen ondoriozko gastuek hazkunde nabarmena izatea, finantza-gastuak (interesak) % 22,3 handitu direlako, nahiz eta finantza-pasiboen aldakuntza (zorraren amortizazioa) % 1,7 bakarrik handitu den.

Eusko Jaurlaritzaren gastuan arreta jarrita, 2012ko behin-behineko likidazioak % 0,7eko gehikuntza agertu du 2011ko ekitaldiaren aldean. Hala eta guztiz ere, legegintzaldiaren 2009aren erdialdeko aldaketatik ondorioztatutako sailen berrantolamenduak gastuaren zenbaki handien zenbait ataletako bilakaeraren jarraipena zailtzen du aurreko urtetik harantzago.

Gastu bolumenagatik bi sail nagusiek Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak (gastu osoaren % 25,6) eta Osasun Sailak (% 32,8) izaten jarraitzen dute. Lehenengoa % 3,3 jaitsi da eta bigarrena, aldiz, % 1,5, 2011ren aldean. 2012rako likidatutako gastu osoa 10.246 milioi eurokoa da, kopuru hori gure Erkidegoaren urte horretako BPGd-aren % 15,5 dela, behin-behineko datuen arabera.

4.3. AURREKONTUKO SALDOA


2012an Euskal Sektore Publikoaren (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak) diru-sarrera arruntak % 1,2 murriztu dira; izaera bereko gastuak, aldiz, % 4,6; horrek aurrezki gordina % 70,9 edo 1.048 milioi euro handitzea eragin du. Zenbateko horrek gure Erkidegoko BPGd-aren % 1,58 hartzen du (behin-behineko datuak).

Gainera, 473,5 milioi euroko defizit publikoa (finantziazio premia) erregistratu da (BPGd-aren % 0,71); izan ere, gastu ez-finantzarioek (arruntak gehi kapitalekoak) izaera bereko diru-sarrerak gainditzen dituzte. Aurreko ekitaldian, defizita 828 milioi eurokoa izan zen; beraz, % 42,8ko murriztapena egon da.

Ratio hori BPGd-aren % 1,39raino gehitu da halere (2011n % 2,56), 2012-2014ko EAEko berrorekatzeko Ekonomia eta Finantza Planean dagoen defizitaren datua kontuan izanez gero. Hor, EAEko Administrazio Orokorraz gain, LANBIDE eta OSAKIDETZA erakunde autonomoen kopuruak sartzen dira. Horixe da Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioak duen erreferentzia eta erkidego erakundeei bidali diena.


Finantza-aldagaia kontuan hartuta, eta batez ere zorpetzeari esker, 2012ko defizita aurrekontu superabit bilakatzen da (427,2 milioi euro, BPGd-aren % 0,65), aurreko ekitaldiko 21,9 milioi euroak baino askoz gehiago (% +1.850).

II.4.3. GRAFIKOA EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GASTUAREN BILAKAERA KAPITULUKA. MILAKA EUROTAN ADIERAZITAKO DATUAK.



Iturria: EUSKO JAURLARITZAren datuak erabilita egindakoa.

II.4.4. GRAFIKOA. AURREZKI ETA SUPERABIT/DEFIZIT PUBLIKOEN (FINANTZIAZIO GAITASUNA/PREMIA) BILAKAERA EAEN, BPGD-AREN GAINEAN.



	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
AURREZKIA	4,5	3,4	2,3	2,7	2,7	3,8	4,6	4,7	2,1	-0,5	0,5	0,9	1,6
SUPERABITA/DEFIZITA	1,7	0,4	0,3	-0,3	0,2	1,4	2,0	2,1	-0,8	-4,0	-2,7	-1,3	-0,7

Iturria: EUSKO JAURLARITZAren datuak erabilita egindakoa.

II.4.7. KOADROA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOA: AURREKONTU MAGNITUDE FINKATUAK. MILAKA EUROTAN.

	2010	2011	2012	2010-11ko %	2011-12ko %
1.- Diru-sarrera arruntak	12.810.266	13.311.335	13.155.957	3,9	-1,2
2.- Gastu arruntak	12.472.36	12.698.066	12.108.038	1,8	-4,6
2.1.- Pertsonal-gastuak	2.283.487	2.257.491	2.114.078	-0,5	-6,4
2.2.- Funtzionamenduko gastuak	3.850.148	3.844.670	3.760.879	0,1	-2,2
2.3.- Finantza-gastuak	71.722	220.037	269.117	70,9	22,3
2.4.- Transferentzia arruntak	6.630.222	6.375.868	5.963.964	2,3	-6,5
3.- Aurrezki gordina (1-2)	338.130	613.270	1.047.919	81,4	70,9
4.- Kapital-sarrerak	219.770	340.500	461.565	54,9	35,6
5.- Kapital-gastuak	2.308.927	1.782.110	1.982.972	-22,8	11,3
5.1.- Inbertsio errealak	1.000.546	859.056	755.514	-13,2	-12,1
5.2.- Kapital-transferentziak	1.334.134	923.046	1.227.458	-30,0	33,0
6.- Finantziazio gaitasuna (+) / premia (-) (3+4-5)	-1.751.027	-828.340	-473.488	-52,7	-42,8
7.- Finantza-aktiboen aldakuntza garbia	-173.567	-78.148	-122.390	-55,0	56,6
7.1.- Finantza-aktiboen aldakuntza. Diru-sarrerak	51.695	109.923	61.237	92,9	-44,3
7.2.- Finantza-aktiboen aldakuntza. Gastuak	434.275	188.071	183.627	-18,4	-2,4
8.- Finantza-pasiboen aldakuntza garbia	2.153.847	928.394	1.023.045	-56,9	10,2
8.1.- Finantza-pasiboen aldakuntza. Diru-sarrerak	1.765.000	1.331.677	1.432.990	-44,2	7,6
8.2.- Finantza-pasiboen aldakuntza. Gastuak	156.297	403.283	409.945	72,9	1,7
9.- Aurrekontuaren superabita/defizita (6+7+8)	229.254	21.906	427.168	-90,4	1.850,0
9.1.- Ordaindu gabeko betebeharrak	2.294.543	1.698.259	1.745.651	-20,4	2,8
9.2.- Kobratu gabeko eskubideak	2.022.907	1.683.914	1.943.147	87,8	15,4
10.- Aurrekontuaren superabita/defizita, kutxaren aldetik	1.466.410	36.251	229.672	-97,5	533,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZAren **Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Estatistika.**

4.4. SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA

2012ko *Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Estatistika* izeneko txostenak agerian utzi duenez, EAEren sektore publiko osoaren zorpetze garbiak (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak) % 10,2 egin du gora aurten, aurreko ekitaldian % 56,9 murriztu ondoren. Zorra (zorpetze gordina ken amortizazioa) 1.023 milioi euro handitu da aurten. Horietatik 910 Eusko Jaurlaritzari dagozkio eta gainerako 113 milioiak Foru Aldundiei.

Ondorioz, ekitaldiaren amaieran Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek 8.444 milioi euroko bolumena duen zorra agertu dute, 2011n baino % 13,88 gehiago. Kopuru hori BPGd-aren % 12,7 da, behin-behineko datuen arabera (% 11,2 2011n). Horrela, beste urtebetez, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (osoaren % 76,7; % 75 aurreko urtean).

Zorpetze gordinak % 7,6ko gehikuntza izan du 2012an, 1.433 milioi eurokoa izanda. Horietatik 1.084 milioi Eusko Jaurlaritzari dagozkio (% +13, 2011rekin alderatuz gero) eta gainerako 349 milioiak Foru Aldundiei (% -6,2).

Beste alde batetik, EUSTATen *Sektore Publikoaren Aurrekontuko Estatistika* (eskuragarri dagoen azken informazioa 2010ekoa da) izeneko txostenari esker foru aldundi bakoitzaren eta udal bakoitzaren zorpetzearen zenbatekoak ezagut ditzakegu, baita EAEko Administrazio osoarena (Jaurlaritza + aldundiak + udalak) ere.

Foru Aldundiei dagokienez, 2010ean 494 milioi euroko zorra jaulki zuten (aurreko ekitaldiko 374 milioien aurrean). Horietatik 95 milioi Arabako Foru Aldundiari dagozkio, 150 Gipuzkoakoari eta gainerako 249ak Bizkaikoari. Horrez gain, 110 milioi euroko balioarekin amortizatzen dute, aurreko ekitaldian baino % 15,1 gehiago. Amortizatutako kopurutik % 71,7 Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, % 23,3 Gipuzkoakoari eta gainerako % 5 Arabako Foru Aldundiari. Aldundien zorraren saldo bizia % 28,9 handitu da aurreko urtekoaren aldean. BPGd-arekiko harremanean ere hala egin du: 2009an % 2,1 izan zen eta 2010ean % 2,6.


EAEko udalei dagokienez, estatistika honek erakusten du 2010ean 121,6 milioi euroko zorra jaulki, eta 64,7 amortizatu zutela; horrela, ekitaldiaren amaieran, ordaintzeke zegoen zorra 56,9 milioi handitu zen, 682,4 milioi eurokoa izan arte.

II.4.8. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN ZORPETZEAREN BILAKAERA (MILAKA EUROTAN)

	Zorpetze gordina		Amortizazioa	Zorpetze garbia		Urtearen amaierako zor bizia	
	(1)	Aldakuntzaren %	(2)	(1)-(2)=(3)	Aldakuntzaren %	Guztira	Aldakuntzaren %
EUSKO JAURLARITZA							
2009	1.411.000	605,5	61.150	1.349.850	-110,7	3.006.750	1,4
2010	1.893.000	34,2	123.650	1.769.350	31,1	4.776.100	58,8
2011	960.077	-49,3	169.483	790.594	-55,3	5.556.694	16,6
2012	1.084.420	13,0	174.483	909.937	15,1	6.476.631	16,3
FORU ALDUNDIAK							
2009	354.000	261,9	95.147	258.853	-1.226,0	1.332.052	12,7
2010	494.048	39,6	109.551	384.497	48,5	1.716.549	28,9
2011	371.600	-24,8	233.800	137.800	-64,2	1.854.349	8,0
2012	348.570	-6,2	235.462	113.108	-17,9	1.967.457	6,1
ESP, GUZTIRA							
2009	1.765.000	..	156.267	1.608.703	..	4.338.802	-
2010	2.387.048	35,2	233.021	2.153.847	33,9	6.492.649	49,6
2011	1.331.677	-44,2	403.238	928.394	-56,9	7.421.043	14,3
2012	1.432.990	7,6	409.945	1.023.045	10,2	8.444.088	13,8

Iturria: Zergak Koordinatzeko Organoaren eta EUSTATen datuetatik aurrera egindakoa.

II.4.5. GRAFIKOA. EAE-KO ADMINISTRAZIOEN FINANTZA-ZORRA (MILAKA EUROTAN)



Iturria: EUSTATen Sektore Publikoaren Aurrekontuari buruzko Estatistika

Beste alde batetik, guztira, EAEko administrazio publikoek (Eusko Jaurlaritzak gehi aldundiek gehi udalek) 2010ean (memoria ixterakoan datu eskuragarriak dituen azken urtea) 6.801 milioi euroko zorra zeukaten. Zenbateko hori urte horretako BPGd arruntaren % 10,4 da (2009an % 7,2).

Guztizko zorraren % 64,4 Eusko Jaurlaritzari dagokio, % 16,2 Bizkaiko Foru Aldundiari, % 4,6 Arabakoari eta % 4,3 Gipuzkoako Foru Aldundiari. Gainerakoa, 682,4 milioi euro, hain zuzen, EAEko udaletako finantza-zorrari dagokio, eta EAEko administrazioen zor osoaren % 10 da (2009an % 13,6).

4.5. ERAKUNDEETAKO TRANSFERENTZIAK


EAEk bere jarduera finantzatzeko sistema berezia dauka. Zergarik gehienak biltzeko gaitasuna du. Kupoa deritzonaren bidez EAEk jaso ez dituen eskumenetan, estatuaren gastuak ordaintzen laguntzen du. EAEren eskumenen banaketaren barruan, zerga-bilketa lurralde historiko bakoitzeko Foru Aldundiek egiten dute batez ere. Eusko Jaurlaritzaren finantzazioan laguntzen dute, ekarpenen bidez. Udalek ere zerga-bilketa egiten dute. EAEko administrazio publikoek jasotzen dituzten baliabide propioez gain, Europar Batasunak eta estatuak zenbait fondo ematen diete, arrazoi desberdinengatik: BEZaren bidez eta zerga berezien bidez bildutako dirua egokitzeko, Foru Aldundiek eta Udalek zerga ez itunduetan duten partaidetzagatik, elkarrekiko, kiroleko eta ongintzako apustuetatik eta Estatuko Loteria eta Apustuen Erakunde Nazionaletik bildutako diruaren partaidetzagatik, eta estatu administrazioek eta erakunde autonomoek egiten dituzten finantzazio hitzarmen eta akordioen ondorioz.

II.4.9. KOADROA. FORU ALDUNDIEK EAE-KO ERAKUNDE KOMUNEI EGITEN DIZKIETEN EKARPENEN BILAKAERA (MILAKA EUROTAN)

KONTZEPTUA	2008	2009	2010	2011	2012	10-11ko ald. %	11-12ko ald. %
EK. OROKORRA	7.754.813	6.847.227	7.774.246	7.314.810	7.447.837	-5,9	1,8
BERARIAZKO EK.	141.316	230.403	203.882	600.619	864.106	194,6	43,9
GUZTIRA	7.896.129	7.077.630	7.978.128	7.915.428	8.311.943	-0,8	5,0
ARABAKO EK.	1.338.394	1.196.827	1.349.101	1.328.209	1.380.614	-1,5	3,9
BIZKAIKO EK.	3.955.961	3.534.569	4.000.233	3.975.128	4.195.869	-0,6	5,6
GIPUZKOAKO EK.	2.601.775	2.346.234	2.628.793	2.612.091	2.735.460	-0,6	4,7
ARABAKO %	16,95	16,91	16,91	16,78	16,61		
BIZKAIKO %	50,10	49,94	50,14	50,22	50,48		
GIPUZKOAKO %	32,95	33,15	32,95	33,00	32,91		

Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Ogasun eta Finantza Saileko Kupo eta Finantza Ekarpenen Zuzendaritzaren datuetatik aurrera egindakoa.

II.4.6. GRAFIKOA. FORU ALDUNDIEK EUSKO JAURLARITZARI EGINDAKO EKARPENAREN BILAKAERA. MILAKA EUROTAN




Iturria: EUSKO JAURLARITZAko KUPO ETA FINANTZA EKARPENEN ZUZENDARITZA.

Lehenik eta behin, Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari egiten dizkioten ekarpenak aipatu behar ditugu, bolumen handia baitute. Baliabideak banatzeko metodologia Ekarpenen Legean jasota dago. Hamabost egunean behin Foru Aldundiek biltzen dituzten zerga itunduetatik zein zati transferitu behar dioten Aldundiek Eusko Jaurlaritzari erabakitzen du legeak, gastu komunak ordaintzeko ekarpen gisa (horrela, Eusko Jaurlaritzak jasotzen dituen diru-sarreren %90 baino gehiago ekarpen horietatik datoz). 2012an egindako ekarpenak 8.312 milioi eurokoak dira, 2011n baino % 5 gehiago eta 2010ean baino % -0,8 gutxiago.

2007-2011 denboraldiko [2] berrikuntzen artean, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak zenbait aldaketa ezarri zituen Aldundien ekarpenak zehazteko eta baliabideak banatzeko metodologian. Besteak beste, ondoko hauek nabarmendu behar ditugu: koefiziente bertikala % 70,44tik % 70,04ra jaitsi zen, toki erakundeen partaidetza areagotzeko; Foru Aldundien artean BEZagatik biltzen duten diruan doikuntza berria egin zen; eta Doikuntzako Fondo Orokorra sortu zen (lehen Elkartasun Fondoa zena), lurralde historikoentzako berme mekanismo gisa; EAEko erakundeen artean banatu beharreko baliabideetan lurralde historikoen zenbatekoa % 0,75 izatetik % 1 izatera igaro zen.

Bestalde, Europar Batasunaren fondoetatik datozen diru-laguntzak Europar Batasunak hartutako aurrekontu konpromisoen arabera gauzatzen dira. Diru-laguntza horien forma aurrerakinena edo behin betiko ordainketena izan daiteke, kasu bakoitzean araututa dagoenaren arabera. 2010ean (informazioa duen azken urtea) % 16,6 handitu dira, aurreko ekitaldian % 37,2ko jaitsiera izan ondoren, Horrenbestez, 82,9 milioi eurokoak izan ziren.

II.4.7. GRAFIKOA. BEZ-AREN DOIKUNTZAREN BILAKAERA LURRALDEKA. MILAKA EUROTAN.



Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Zergak Koordinatzeko Organoa.

II.4.10. KOADROA. EAE-K ESTATUARI ORDAINDUTAKO KUPOAREN BILAKAERA. MILAKA EUROTAN

	2009	2010	2011	2012	11-12ko ald. %
Sartutako kupoa	852.597	492.567	513.742	367.089	-28,5
Konpentsazioak*	-108.302	-118.768	-99.460	-78.482	-21,1
ORDAINDUTAKO KUPOA	744.295	373.799	414.282	297.607	-28,2

Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Ogasun eta Finantza Saila.
(*) Fabrikazioko Zerga Bereziengatiko finantza konpentsazioak.

2 2/2007 Legea, martxoaren 23koa, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzekoak egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa. Oraindik ere indarrean dago, ez baitu beste batek ordeztu 2012-2016ko bosturtekotako.

II.4.11. KOADRAO. EUSKO JAURLARITZAK LIKIDATUTAKO DIRU-SARRERAK, JATORRIAREN ARABERA (MILAKA EUROTAN)

	2008	2009	2010	2010ko dist. %	08-09ko ald. %	09-10ko ald. %
1. FORU ALDUNDIEN EKARPENAK	7.896.129	7.077.630	7.978.128	76,2	-10,4	12,7
. Ekarpen orokorra	7.754.813	6.847.227	7.774.246	74,2	-11,7	13,5
. Berariazko ekarpenak	141.316	230.403	203.882	1,9	63,0	-11,5
2. ERAKUNDEEN BESTELAKO DIRU-SARRERAK	171.008	132.176	299.399	2,9	-22,7	126,5
. EAEko erakundeen transferentziak	22.890	15.466	7.134	0,1	-32,4	-53,9
. Estatuko transferentziak	34.981	45.605	208.596	2,0	30,4	357,4
. Europar Batasuneko fondoak	113.137	71.105	82.935	0,8	-37,2	16,6
- EGIF	13.320	7.041	1.709	0,0	-47,1	-75,7
- EGEF	21.644	3.323	13.904	0,1	-84,6	318,4
- NBBEF- Orientazioa	985	900	-	-	-8,6	
- LGENF	10.572	2.881	11.514	0,0	-72,7	299,7
- BENF	48.547	50.739	52.137	0,5	4,5	2,8
- ABFT	17.327	3.051	-		-82,4	
- Kohesio fondoa	-	2.560	1.833	0,0	-	-28,4
- Beste fondo batzuk	742	610	1.838	0,0	-17,8	201,3
. EBtik kanpoko fondoak	-	-	734	0,0		
3. BESTELAKO BALIABIDEAK	612.849	1.720.574	2.198.307	21,0	180,8	27,8
- Zor publikoa	200.000	1.411.000	1.893.000	18,1	605,5	34,2
- Zeharkako zergak	5.555	4.641	4.274	0,0	-16,5	-7,9
- Ondare-sarrerak	180.036	48.974	83.868	0,8	-72,8	71,3
- Inbertsio errealen bester.	8.803	386	713	0,0	-95,6	84,7
- Bestelako transferentziak	15.464	65.402	9.502	0,1	322,9	-85,5
- Finantza-aktiboen aldakuntza	48.040	20.413	17.485	0,2	-57,5	-14,3
- Tasa eta prezio publikoak	154.951	169.758	189.464	1,8	9,6	11,6
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA INGRESOS	8.679.986	8.930.380	10.475.834	100,0	2,9	17,3

Iturria: ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOA

Diru-partida nagusia 2007an LGENFekin (Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa) batera nekazaritzara zuzendutako diru-laguntzak kudeatzeko sortu zen BENFri (Bermerako Europako Nekazaritza Funtsa) dagokio. Horren bitartez 52,1 milioi euro jaso ziren 2009an, urte horretan jaso ziren funts europarren % 62,8.

Bigarrenez, FEDER-Eskualdeko Garapenerako Europako Funtsaren bitartez (eskualdeetako garapen ekonomikoa sustatzeko sortu zen finantza tresna) 13,9 milioi euro jaso dira, guztizkoaren % 16,7.

Beste partida interesgarri bat estatuarentzako kupoa da. Kupoaren zenbateko likidoa, Kupoaren Bost Urteko Legearen bidez urtero zehazten dena, 2012. urtean (behin-behineko likidazioen arabera) 297,6 milioi eurokoa da. 2011. urtearen aldean % 28,2 murriztu da.

Amaitzeko, Estatuari egiten zaizkion ordainketa horiek ez ezik, zenbait zenbateko ere jasotzen dira; horietatik nabarmenena Balio Erantsiaren gaineko Zergaren doikuntza da, barne merkatuan eta inportazioetan (azken hori Estatuko Ogasunak soilik egiten du) egindako eragiketengatik. Doikuntza hori Estatuko administrazioen eta EAEko administrazioaren arteko finantza-doikuntza da, zerga administrazioen artean zerga-bilketa teorikoak eta errealak egokitu beharra dagoelako, zerga administrazio horiek beren lurraldean jarduten baitute muga fiskalik gabeko espazio batean. Doikuntza horiei zerga bereziei dagozkienak erantsi zitzaizkien 1997. urtean. Zerga berezi horiek beharrezkoak dira honako honetatik ondorioztatutako distortsioa zuzentzeko: zerga horiek kargatzen dituzten produktuen behin betiko kontsumoa produktua fabrikatu den lurraldetik kanpo egiten da.


2010. urtean (informazioa duen azken urtea) BEZagatiko doikuntza 1.037 milioi eurokoa izan zen EAEn. Kopuru hori % 34,9 handitu zen, aurreko urtekoarekin erkatuta. Diru-partida horren barnean, aduanetan bildutakoagatiko doikuntza guztizkoaren % 50,6 da eta gainerakoa, % 49,4, hain zuzen, aurreko eragiketei dagokie. Lurralde banaketa urtero egiten da, koefiziente horizontalen arabera.

5. GIZARTE EKONOMIAREN KONTUAK[1] EAE-N

Kontabilitate Nazionala bi zati handitan banatzen da: a) merkatukoa edo enpresena eta b) ekoizleena, ez merkatukoa, "*hirugarren sektorea*" esan ohi zaiona. Azken sailkapen hori oso erabilgarria da estatistikak egiteko eta jarduera ekonomikoaren analisiak egiteko orduan, gaur egun indarrean dauden kontabilitate nazionaleko sistemekin bat etorriz.

Horrela, merkatu edo enpresako gizarte ekonomia, funtsean, kooperatibek eta lan sozietateek eta mutuek osatuko lukete. Bestalde, merkatukoa ez den gizarte-ekonomia batez ere elkarteek eta fundazioek osatzen dute. Beste forma juridiko batzuk dauzkaten erakundeak ere egon litezke. Kontabilitate nazionalean ezarritako irizpideen arabera, merkatuz kanpoko ekoizleak diren gizarte-ekonomiako erakundeek osatzen dute, hau da, beren ekoizpena batez ere dohainik edo prezio ekonomikoi ez-esanguratsuetan hornitzen dituzten erakundeek osatzen dute.

II.5.1. GRAFIKOA GIZARTE EKONOMIAREN PISUAREN BILAKAERA EAEn.



Iturria.- Eusko Jaurlaritza. Gizarte ekonomiaren kontuak

5.1. 2010EKO GIZARTE-EKONOMIAREN ESTATISTIKAREN EMAITZAK ETA 2011KO DATUEN AURRERAPENA

EAEn, Gizarte Ekonomiaren estatistikako azken datu finkatuen arabera, 2009-2010 biurtekoari dagozkionak, gizarte ekonomia guztira 2.171 enpresak osatzen dute, EAEn 2.997 establezimendu dauzkatenak. Aipatutako denboraldian 59.915 pertsonari lan eman zieten (erkidegoko lanpostuen % 6,3) eta 2.823,6 milioi euroko Balio Erantsi Gordina (BEG) sortu zuten (euskal ekonomiaren BEGaren %4,8). Honakoak dira estatistika eragiketa horretatik ondorioztatzen diten zifra nagusiak:

1. 2009-2010 biurtekoari dagokionez, hasteko, enplegu galera handia egon da, 2006 eta 2008 artean ikusitako bideari jarraituz eta areagotuz. Hala, galera %4,3koa izan da, gure erkidegoan guztira enpleguaren jaitsiera %3,9koa izan den bitartean.

   Horren ondorioz, gizarte-ekonomiak EAEko guztizko enpleguan duen garrantzi erlatiboa galdu du eta hala, 2010eko ratioa -%6,3-, 2008aren aldean eutsi arren, 2002an izandako maximotik -%6,8- urrundu da.

2. Bestalde, eta lanpostu kopuruaren jaitsieraren aurrean, enpresa sareak egonkor iraun du 2009-2010 biurtekoan eta establezimendu kopuruak %0,4ko hazkunde txikia ere izan du, 2.997ra iritsi arte. Hala, eta enpleguarekin ez bezala, aurreko

1 Gizarte Ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Estatu Legea mugarria izan da. *Haren arabera, gizarte ekonomiaren erakunde dira "kooperatibak, mutualitateak, fundazioak eta jarduera ekonomikoa garatzen duten elkarteak, lan sozietateak, gizarteratzeko enpresak, enpleguko zentro bereziak, arrantzaleen kofradiak, eraldaketako nekazaritza sozietateak", eta baita jarduera ekonomikoa eta enpresakoa egiten duten erakundeak ere, betiere, haien funtzionamenduak arauaren 4. artikuluan bildutako printzipio multzoari erantzuten badie. Printzipio horiek honakoak dira:*

Pertsonak eta gizarte-xedea gailendu egingo zaizkio kapitalari; horretarako, kudeaketa autonomo eta gardena, demokratikoa eta partaidea egingo da, eta erabakiak hartzerakoan pertsonak eta horiek erakundeari eskaini dizkioten lana edo zerbitzuak zein gizarte-xedea gehiago hartuko dira kontuan sozietatearen kapitalari egindako ekarpenak baino.

Jarduera ekonomikoaren bidez lortutako emaitzak batez ere egindako lana eta zerbitzua zein bazkide edo kideek egindako jarduera kontuan hartuta aplikatzea, edo erakundearen gizarte-xedean aplikatzea.

Erakunde barruko eta gizartearekiko elkartasuna sustatzea, tokiko garapenarekiko, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunarekiko, gizarte-kohesioarekiko, gizarte-bazterkeria jasateko arriskua duten pertsonen gizarteratzearekiko, kalitatezko enplegu egonkorra sortzearekiko, bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa bat egitearekiko eta iraunkortasunarekiko konpromisoa bultzatze aldera.

Botere publikoekiko mendekotasunik eza.


biurtekoan egondako jaitsierarako joera hautsi da. Biurteko horretan EAEko gizarte-ekonomiako establezimenduak %3,6 gutxitu ziren. Bilakaera horrek, 2008 eta 2010 artean, establezimenduen tamainaren murrizketa ekarri du (21 enplegutik 20ra, batez beste).

3. Sektorearen ikuspegitik, gizarte-ekonomiak –tradizioz industriala- hirugarren sektoreranzko etengabeko prozesua izan du 1994an operazio estatistikoa hasi zenetik. Azken biurtekoan, industriako enpleguaren galerak baldintzatu du gizarte-ekonomiako enpleguaren galera orokorra, eta horrek hirugarren sektoreranzko egiturazko joera biziagotu du: industriako 3.412 enpleguko galera garbiaren aurrean (%-11,4), zerbitzuen sektorean +818 lanpostu gehitu dira (%+2,7). Horren ondorioz, gizarte-ekonomiak industriako guztizko enpleguan duen pisu erlatiboa %12,1etik %11,8ra igaro da eta zerbitzuetan ratio hori 2008ko %4,8tik 2010eko %4,9ra igaro da, gizarte-ekonomiako enpleguaren pisuak guztizkoaren %6,3an egonkor iraun duen esparruan.

4. Lurraldeko enpleguaren dinamikari dagokionez, aurreko urteetan agertutako joerek iraun dute; horrela, Gipuzkoa oraindik da erabakigarria (EAEko gizarte-ekonomiako enpleguaren %48,7), baina industrialagoa denez gero, Gipuzkoak azken biurtekoan ia puntu bi pisu erlatibo galdu du EAEko gizarte-ekonomiako enplegu osoaren gainean.

   Ikuspegi sektorial batetik, gizarte-ekonomiak lurralde bakoitzean duen pisu espezifikoak erakusten du industriak Gipuzkoan daukan garrantzia, lurralde horretan baitaude industriako kooperatiba handietako asko (Gipuzkoako industriako lanpostuen %19 gizarte-ekonomiakoak dira). Bestalde, Bizkaian gizarte-ekonomiaren sektore tertziarioak pisu espezifiko handiagoa du eta gehitzen ari da, bai establezimendu kopuruari dagokionez bai lanpostu kopuruari dagokionez.

II.5.2. GRAFIKOA. GIZARTE EKONOMIAREN ENPLEGUAREN LURRALDE BANAKETAREN BILAKAERA EAEn




Iturria.- Eusko Jaurlaritza. Gizarte ekonomiaren kontuak.

5. Ekoizpenari dagokionez, EAEko gizarte-ekonomiako establezimendu guztiek sortutako BEG 2.823,6 milioi eurora iritsi zen 2010ean. Hori %3,6ko erorketa nominala da 2008aren aldean. Horrek aurreko biurtekoko %0,5eko erorketa areagotu du. Enpleguarekin ikusitakoaren aldean, EAEko ekonomia osoak konparatuta izan duen bilakaera negatiboagoak apur bat handiarazi du gizarte-ekonomiak EAE osoko BEGn duen parte-hartzea (2008ko %4,7tik 2010eko %4,8ra igaro da). Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren txostenak agertu duenez, krisiaren intentsitatearen gainetik, paradoxikoki, gizarte-ekonomiako industriak irabazi du pisu erlatibo gehien; 2010ean EAEko BPGd sektorialaren %10 dagokio, 2008an baino puntu erdi bat gehiago.

6. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren txostenak azpimarratu duenez, gizarte-ekonomia osatzen duten enpresen agregatuaren etekina 2010eko ekitaldian 207,5 milioi eurokoa izan da, hots, %41,7ko atzerakada nominala 2008aren aldean. Jaitsiera esanguratsu horrek aurreko biurtekoko %32,5ekoa luzatu eta areagotu du.

   Dinamika negatibo horren arrazoia fakturazio mailen murrizketa nabarmena da: 2008 eta 2010 artean salmenta bolumena %16,4 jaitsi da industrian eta %7,8 zerbitzuetan. Guztira 8.563,3 milioi fakturatuta, 2008aren aldean jaitsiera orokorra %12,2koa da.

II.5.3. GRAFIKOA. EAE-KO GIZARTE EKONOMIAREN ESPORTAZIOEN HELMUGA.



Iturria.- Eusko Jaurlaritza. Gizarte-Ekonomiaren Kontuak.

7. Fakturazioaren erorketaren zati bat esportazio bolumenaren jaitsierari lotuta dago. 2010ean, zentzu horretan, esportazio guztien bolumena 2.250,5 milioi eurokoa izan da, hots, 2008ko maila baino %7,2 gutxiago. Guztizko fakturazioaren erorketa, ordea, barne-salmentei dagokiona baino txikiagoa da (%-25) eta, beraz, 2008-2010 biurtekoan, esportazioek gizarte-ekonomiaren guztizko fakturazioren gainean duten pisuaren goranzko joerari eutsi dio eta, lehen aldiz, %25eko muga gainditu du (kanpoko merkatuetarako irekitze maila, zehazki, %26,3ra iritsi da).

   Esportazio gehienen helmuga Europa da oraindik (%62,1), baina 2008 eta 2010 artean pisuak ehuneko 18 puntu galdu ditu. Asiak, ordea, bere pisua bikoiztu du, %7,8tik 16,4ra igarota. Erdialdeko eta Hego Amerika, bestalde, pisu erlatibo txikiagoa izan arren (%9,4), bilakaera positiboagatik nabarmentzen dira, Estatu Batuak bezala (esportazio bolumen osoaren %6,6).

8. Azaldutako testuinguruan, enpresen forma juridikoari dagokionez gizarte-ekonomia estatistika horren aurreko edizioetakoaren oso antzekoa da, eta ezaugarri bereizgarri batzuk areagotu egin dira. Horrela, kooperatiben protagonismoa, eutsi ez ezik, areagotu egin da. Establezimenduei dagokienez, 2010ean kooperatibek zentroen %67,7 batzen zituzten; Erantzukizun Mugatuko Lan Sozietateek (EMLS) eta Lan Sozietate Anonimoek (LSA), aldiz, %32,3 baino ez. Mota juridiko horren pisua are deigarriagoa da enpleguari

II.5.1. KOADROA. EAEko GIZARTE-EKONOMIAKO ENPRESEN DIMENTSIOA. 2010.

	ENPRESA KOP.	%	ENPLEGUAK	%	BATEZ BESTEKO NEURRIA
Gehienez 5 lanpostu	1.201	55,3	3.639	6,1	3,0
6tik 15era	506	23,3	4.636	7,7	9,2
16tik 50era	306	14,1	8.801	14,7	28,8
51tik 100era	80	3,7	6.064	10,1	75,8
101etik 200era	36	1,7	5.182	8,6	143,9
201etik 500era	25	1,2	8.101	13,5	324,0
500 lanpostu baino gehiago	17	0,8	23.492	39,2	1.381,9
GUZTIRA	**2.171**	**100,0**	**59.915**	**100,0**	**27,6**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren estatistika, 2010.

II.5.2. KOADRAO. GIZARTE-EKONOMIAKO LANPOSTUEN BILAKAERA FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2008-2012

	2008		2010		Ald. %-tan 2008-10
	Lanpostuak	%	Lanpostuak	%	
Kooperatibak	50.359	80,4	48.196	80,5	-4,3
Lan sozietateak	12.257	19,6	11.720	19,5	-4,4
-LSA	7.451	11,9	7.355	12,3	-1,3
-EMLS	4.806	7,7	4.365	7,2	-9,2
GUZTIRA	**62.615**	**100,0**	**59.915**	**100,0**	**-4,3**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren estatistika, 2010


erreparatzerakoan, erreferentziazko urtean, kooperatibek gizarte-ekonomiako lanpostuen %80,5 batu baitzuten, eta lan sozietateei, aldiz, %19,5 zegokien.

Lan sozietateen testuinguruan, LSA da gizarte-ekonomian pisu erlatiborik handiena duen forma juridikoa (%12,3; EMLSek, ordea, %7,2). Establezimenduei dagokienez, aldiz, EMLSek LSAek halako bi daukate (%21,6 eta %10,7 hurrenez hurren).

Forma juridikoaren araberako enpleguaren bilakaerari dagokionez, guztietan erori bada ere,


kuantitatiboki enplegu galerarik garrantzitsuena kooperatibei dagokie; izan ere, suntsitutako 2.700

II.5.4. GRAFIKOA. GIZARTE EKONOMIAREN GARRANTZI ERLATIBOA ENPLEGUAN: PISUA SEKTOREKA



Iturria.- Eusko Jaurlaritza. Gizarte-Ekonomiaren Kontuak.

II.5.5. GRAFIKOA. GIZARTE EKONOMIAREN ENPLEGUEN ETA FAKTURAZIOAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria.- Eusko Jaurlaritza. Gizarte-Ekonomiaren Kontuak.

enpleguetatik, %80 (2.163) kooperatibetan suntsitu dira.

9. Aldaketa horiek enpleguak gizarte-ekonomiako sektore bakoitzean duen pisuan ere izan du eragin handia: gizarte-ekonomiako enpleguak industriako enpleguan duen pisu erlatiboa %12,1etik %11,8ra jausi zen. Gizarte-ekonomiako hirugarren sektoreak, aldiz, apur bat handitu zuen bere pisua hirugarren sektoreko pisu osoan, %4,8tik %4,9ra igarota. Hala ere, gizarte-ekonomian industria enplegua oraindik da sektore horri ekonomia osoan dagokiona baino askoz handiagoa; izan ere, gizarte-ekonomiako enpleguaren %44,2 da, eta orokorraren %23,7 (BJAko datuak hartuta).

   Zehaztu behar da, ordea, jardueraren araberako enpleguaren bilakaera sektorekako zifra handiek erakusten dutena baino dezente konplexuagoa dela; izan ere, industria adar guztiek ez dute enplegua galdu eta zerbitzuen sektoreko guztietan ez da enplegua handitu. Enplegu galerarik handienak honako adarrek izan dituzte: “Material eta ekipamendu elektriko, elektroniko eta optikoaren industriak" eta "Manufaktura-industriak" industrian, eta "Konponketen salmentak eta zerbitzuek” eta “Gizarte eta zerbitzuetako beste jarduera batzuek” zerbitzuetan. Igoerei dagokienez, saldo positiboak izan dituztenen artean honakoak nabarmendu dira: “Higiezinen alorreko eta alokairuko jarduerak eta enpresa zerbitzuak" hirugarren sektorean eta "Metalgintza eta metalezko produktuen fabrikazioa" industrian.

10. Bestalde, Gizarte-ekonomiaren estatistikaren 2011rako aurrerapenak nolabaiteko hobekuntza aurreratu du. Enpleguak bilakaera apur bat positiboa izango luke (%+0,9 2010aren aldean, enplegua aldi berean orotara %1,4 eroriko den bitartean), 60.448 lagun izan arte.

11. Enpleguaren berpizte hori kualitatiboki oso nabarmena da; izan ere, 2006 eta 1010 artean enplegu galera etengabea izan ondoren, joera hori hautsiko luke. Hala ere, aurreikusitako enpleguaren zifra 2002an lortutako 61.000en azpitik geratuko da. Hobekuntza horren oinarria fakturazioaren aurreikuspen ona da, hazkunde nominala %6,4koa izango baita, 9.109,6 milioi eurora iritsi arte. Hazkunde tasa hori okupazioaren hazkundea (%+0,9) baino nahiko handiagoa da; horrek, beraz, gizarte-ekonomiaren produktibitatearen igoera handia dakar 2010-2011 biurtekoan.

Azkenik, eta gainerako Autonomia Erkidegoekin alderatuta Gizarte-ekonomiak gure erkidegoan duen garrantzia jakiteko xedez, Sozietate Kooperatiboetako eta Lan-sozietateetako langileen eta forma hori duten enpresen kopurua aurkeztu dugu Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuak oinarri hartuta (jakin dakigu EAEko kopuruak ez datozela bat Gizarte-

II.5.3. KOADROA. SOZIETATE KOOPERATIBOAK ETA LAN-SOZIETATEAK: GIZARTE SEGURANTZAN ALTAN DIREN ENPRESEN ETA LANGILEEN KOPURUA (4. HIRUHILEKOA)

	Enpresak			Langileak		
	2000	2011	2012	2000	2011	2012
Andaluzia	6.567	7.465	6.871	59.386	71.786	67.337
Aragoi	1.287	1.259	1.199	10.874	8.423	8.138
Asturias	635	734	686	5.931	5.867	5.695
Balear U.	301	347	339	2.908	3.120	3.168
Kanariar U.	1.026	733	648	10.215	7.533	6.693
Kantabria	178	195	190	2.001	2.117	2.189
Gaztela-Mantxa	2.526	2.591	2.381	20.494	16.941	15.814
Gaztela eta Leon	1.964	1.946	1.859	14.993	12.406	11.920
Katalunia	6.992	5.961	5.859	53.236	44.521	43.894
Valentzia	3.809	3.681	3.568	48.739	52.937	53.198
Extremadura	1.108	964	937	9.119	7.273	6.959
Galizia	1.428	1.615	1.588	12.409	11.678	11.643
Madril	2.550	2.519	2.411	19.654	22.892	22.016
Murtzia	1.546	2.238	2.102	14.547	21.804	21.818
Nafarroa	713	739	707	8.380	9.585	9.139
EAE	2.334	2.284	2.242	58.116	63.532	62.358
Errioxa	231	165	156	2344	1.759	1.704
Ceuta eta Melilla	74	51	50	587	562	674
GUZTIRA	**35.269**	**35.487**	**33.793**	**353.933**	**364.736**	**354.357**

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.

ekonomiaren Kontuetako Estatistikan aurkeztutakoekin).

Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuen arabera, 2012ko laugarren hiruhilekoan EAEn 2.242 enpresa egon dira Gizarte Segurantzan alta emanda, beraz, Sozietate Kooperatibo eta Lan-sozietate gehien duen seigarren Autonomia Erkidegoa da (%-1,8 2011ren aldean, Estatuko batez bestekoa %-4,8 delarik).

Sozietate Kooperatiboetan eta Lan-sozietateetan lan egiten duten langileen kopuruaren araberako garrantzia neurtuz gero, aldiz, EAE estatuko bigarren Autonomia Erkidegoa da Andaluziaren atzetik (62.358 langile EAEn, aurreko urtean baino %1,8 gutxiago, eta 67.337 langile Andaluzian).

5.2. GIZARTE-EKONOMIAREN FORMA BERRIAK. 2010EKO DATUAK

Eusko Jaurlaritzaren Gizarte-ekonomiaren estatistikak lehen aldiz erantsi ditu sektorearen 2010eko txostenean, eta estatistika eragiketa horren gune historikoaren analisia osatu asmoz (kooperatibak eta lan-sozietateak), ordura arte eragiketan sartzen ez ziren entitateei buruzko datu orokor batzuk erantsi ditu, berariaz aipatuta, 2011ko Gizarte-ekonomiaren Legean ikusi dugunez. Honako entitate motak dira: fundazioak eta elkarteak, enplegu-zentro bereziak, laneratze enpresak, BGAE, arrantzale-kofradiak eta eraldaketako nekazaritza-sozietateak.

Lehen hurbilketan, aztertutako sei kategorien agregatuan, EAEn, 1.042 entitate sartzen dira, honela banatuta: 585 fundazio, 185 elkartea, enplegu-zentro berezietako 11 entitate, 44 laneratze enpresa, 175 BGAE, 16 arrantzale-kofradia eta eraldaketako 26 nekazaritza-sozietatea. 2010ean erakunde horien ordaindutako enplegu bolumena 19.091 enplegukoa dela kalkulatzen da, baina zifra orokor horretan gizarte-ekonomia berria osatzen duten entitateen eta gizarte-ekonomiaren estatistikan sartutako forma juridiko klasikoetan sartuta leudekeen beste batzuen artean elkarren ondoan ipinitako lanpostu batzuk sartzen dira (kooperatiba formako enplegu-zentro bereziren eta laneratze enpresaren baten kasua da). Doitutako enplegu bolumena 16.345 litzateke, guztizko enplegu agregatuaren %21,4, gizarte-ekonomia osorik hartuta. Bestalde, fundazioen eta elkarteen eremuan borondatezko enpleguaren bolumen handia nabarmentzen da, 4.955 lagun inguru.

2010ean gizarte-ekonomiako forma berrien sortutako BEGari dagokionez, 827,7 milioi eurokoa izan da. Bikoiztutako entitateei dagozkien zifrak kenduta, agregatutako BEG 778 milioi eurokoa da, eta gizarte-ekonomiako forma guztien BEG orokorra 3.601 milioi eurokoa litzateke; hortaz, "gizarte-ekonomia berria" deritzonaren zatia guztizko agregatuaren %21,6 litzateke.

II.5.4. KOADROA. GIZARTE EKONOMIAKO FORMA BERRIAK EAE-N: ADIERAZLE NAGUSIAK (DATU GORDINAK), 2010.

	Kopurua	Ordaindutako enplegua	BEG (€, milioika)
1. Fundazioak	585	10.213	360,7
2. Elkarteak	185	2.235	112,4
3. Enplegurako zentro bereziak.	11	5.563	116,3
4. Laneratze enpresak	44	783	14,4
5. BGAE	175	90	217,8
6. Arrantzale-kofradiak	16	103	4,4
7. Eraldaketako nekazaritza sozietateak	26	104	1,7
GUZTIRA	**1.042**	**19.091**	**827,7**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren estatistika.

6. LAN-MERKATUA

Hamabost urtez enplegua sortzen etengabe ibili ondoren, 2009an EAEko lan-merkatuak beherakada aldi berri bati ekin zion landunen kopuruan, eta 2012an horrekin jarraitu du.

Euskal ekonomian lanpostuak galtzen jarraitu da, eta beharbada urte horretan joera hori areagotu da. Horren ondorioz, langabezia nabarmen handitu da, bai pertsonen kopuruari dagokionez bai biztanleria aktiboaren gaineko portzentajeari dagokionez.


Izan ere, urtearen amaierako langabezia-tasa (% 12,8, EUSTATen Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestaren —BJA—ren arabera) handiena izan da 2000tik, eta langabeen kopurua (130.000, inkesta horren arabera, eta 170.000, LANBIDEko erregistroen arabera) are handiagoa izan zitekeen, lan-merkatua neurri handian utzi ezean. Horren ondorioz, jarduera-tasak murriztu dira batez ere gazteenen artean, baina 45 urtetik gorako gizonen artean ere bai.

II.6.1. KOADROA. EAE-KO ENPLEGUAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA. URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK ETA BALIO ABSOLUTUAK (MILAKA).

	2010EKO BATEZB.	2011KO BATEZB.	2012KO BATEZB.	2012KO HIRUHILEKOAK			
				I	II	III	IV
LANDUNEN ALD. (BJA)	-0,3	-1,2	-3,5	-2,9	-3,1	-3,6	-4,6
Landunen kopurua, BJAren arabera	948,9	937,6	904,4	912,3	914,3	905,2	885,8
LANPOSTUEN ALD. (HKE)*	-0,1	-0,9	-2,5	-1,8	-2,3	-2,7	-3,1
Landunen kopurua, HKEen arabera*	930,5	922,1	899,2	908,4	904,0	896,9	887,6
GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAREN ALD.**	-1,0	-0,6	-2,5	-1,7	-2,4	-2,4	-3,5
G. Segurantzako afiliatuen kopurua	925,8	919,6	896,6	909,1	907,3	899,2	893,1
LANGABEEN ALD. (BJA)	13,9	19,0	9,4	11,1	7,0	8,3	11,4
Langabeen kopurua, BJAren arabera	95,9	114,1	124,8	125,6	123,0	120,6	130,2
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIAREN ALD. (EEZP)	9,9	9,7	11,9	10,4	6,4	16,5	17,2
EEZPn erregistratutako langabeen kopurua	132,4	145,1	162,4	159,0	160,3	160,7	169,4
LANGABEZIA-TASA (BJA)	**% 9,2**	**% 10,8**	**% 12,1**	**% 12,1**	**% 11,9**	**% 11,8**	**% 12,8**

Iturria: EUSTATen eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuak erabilita egindakoa.
*** Lanaldi osoaren pareko lanpostuak.**
****Gizarte Segurantzan alta egoeran dauden kotizatzaileak.**

II.6.1. GRAFIKOA. ENPLEGUAREN EAE-KO BILAKAERAREN ADIERAZLEAK: URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK



	2011ko I	II	III	IV	2012ko I	II	III	IV
KN. EKONOMIKOAK	-0,3	-0,6	-1,0	-1,5	-1,8	-2,3	-2,7	-3,1
GIZ. SEGURANTZAKO AFILIAZIOA	-0,2	-0,3	-0,8	-1,0	-1,7	-2,4	-2,4	-3,5
EUSTATen BJA	-0,3	-0,8	-2,2	-1,4	-2,9	-3,1	-3,6	-4,6
EINren BAI	1,2	-1,7	-1,0	-1,5	-4,8	-4,7	-7,5	-7,1

Iturria: EUSTATen, EINren eta Gizarte Segurantzaren datuak erabilita egindakoa.

Alde horretatik, Gizarte Segurantzako kotizatzaileen[1] kopurua % 2,5 jaitsi da batez beste, baina azken hiruhilekoan % 3,5 jaitsi da. Aldi berean, EUSTATen Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen arabera, okupazioak beheranzko joera agertu du ekitaldian zehar.

6.1. JARDUERAREN, OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA

6.1.1. Jarduera eta okupazioa

II.6.2. KOADROA. 20 ETA 64 URTE ARTEKOEN OKUPAZIO-TASA: BILAKAERA "EUROPA 2020" ESTRATEGIAREN HELBURUA BETETZEAREN ARABERA

	2011	2012	2011-12ko ald-	% 75erai noko aldea
27ko EB	68,6	68,5	-0,1	6,5
EUROAREN EREMUA	68,5	68,0	-0,5	7,0
Belgika	67,3	67,2	-0,1	7,8
Bulgaria	62,9	63,0	0,1	12,0
Txekiar E.	70,9	71,5	0,6	3,5
Danimarka	75,7	75,4	-0,3	-0,4
Alemania	76,3	76,7	0,4	-1,7
Estonia	70,4	72,1	1,7	2,9
Irlanda	63,8	63,7	-0,1	11,3
Grezia	59,9	55,3	-4,6	19,7
Espainia	61,6	59,3	-2,3	15,7
Frantzia	69,2	69,3	0,1	5,7
Italia	61,2	61,0	-0,2	14,0
Zipre	73,4	70,2	-3,2	4,8
Letonia	66,3	68,2	1,9	6,8
Lituania	67,0	68,7	1,7	6,3
Luxemburg	70,1	71,4	1,3	3,6
Hungaria	60,7	62,1	1,4	12,9
Malta	61,5	63,1	1,6	11,9
Holanda	77,0	77,2	0,2	-2,2
Austria	75,2	75,6	0,4	-0,6
Polonia	64,8	64,7	-0,1	10,3
Portugal	69,1	66,5	-2,6	8,5
Errumania	62,8	63,8	1,0	11,2
Eslovenia	68,4	68,3	-0,1	6,7
Eslovakia	65,1	65,1	0,0	9,9
Finlandia	73,8	74,0	0,2	1,0
Suedia	79,4	79,4	0,0	-4,4
Erresuma Batua	73,6	74,2	0,6	0,8
EAE	**67,2**	**64,6**	**-2,6**	**10,4**

Iturria: EUROSTATen eta LANBIDEren datuak erabilita egindakoa.

1 "Kotizatzaileak" esatean, maiz erabiltzen den "afiliazioa"z ari gara. Egia esan, Gizarte Segurantzan alta emanda dauden afiliatuak, hau da, kotizatzera behartuta dauden pertsonak aipatu nahi dira. Hortik ondorioztatzen da "kotizatzaileak" hitza. Kontuan hartu behar da afiliatuen kopurua ez datorrela bat langileen kopuruarekin, kotizatu beharra sortzen duten egoerekin baizik. Hau da, pertsona batek araubide berean lan jarduera asko izateagatik edo hainbat araubidetan lan jarduera izateagatik dituen kotizazio egoerak zenbatu, eta horiexek islatzen dira. Gainera, afiliazioa bizitza osorako da: bajak heriotzagatik baino ez dira gertatzen, eta afiliazioa gizarte segurantzaren sistemaren edozein araubidetan sartzea dakarren lehenengo enpleguarekin batera sortzen da.

Lehenik eta behin, BJAren datuek erakusten dute EAEko biztanleria aktiboaren urteko batezbestekoa murriztu egin dela 2012an. Hala, 2011n lan-merkatuan parte hartzen zuen % 56,2koaren aldean, 2012an % 54,9 dugu, hots, % 1,3 gutxiago. Populazioaren zahartzea eta krisia luzatu izanaren ondoriozko uzkurdura izan litezke bilakaera horren arrazoiak.

Emakumeen jarduera-tasak urteko % 49,1eko batezbestekoa du, 2011koa baino 4 hamarren txikiagoa eta, bestalde, gizon landunen tasa 2011ko % 63,2tik 2012ko % 61,1era igaro da. Enplegurako aukerarik ezak funtsezko eragina izan du jaitsiera horretan, halako moldez non lan egiteko adinean diren eta lana galdu duten langileen zati handi bat zuzenean sartu baita lanik gabekoen multzoan. Halaxe gertatzen da maizago adin-taldeen gorengo tarteetan, baina eragina oso handia da gazteen artean. Hala, lehen hiruhilekoan jarduera-tasa % 29,2koa izanik ere, ratioak behera egin du laugarrenean % 23,1eraino. Hala ere, talde horretarako urteko batezbestekoa % 26,1ekoa da, hau da, 2011koa baino 4,2 puntu txikiagoa.

BJAren datuek diotenez, 2012an Euskal Autonomia Erkidegoan erregistraturiko enpleguaren galeraren ondorioz, 20 eta 64 urte artekoen artean enplegu-tasa % 64,62 izan zen, hau da, Europako Batzordeak 2020rako ezarritako xedea (% 75) baino 10,4 puntu txikiagoa. Europako batezbestekoa % 68,5 da, gure Erkidegoko datua baino 3,9 puntu handiagoa, beraz.

EUROSTATen datuen arabera, azken urtean enplegu-tasak handitu egin dira 15 herrialdetan (hiru herrialde baltikoetan eta Maltan ia bi puntu portzentual baino gehiago), baina Europako batezbestekoa bere horretan mantendu da (hamarren bat inguru murriztu da), eta EAEko datua 2,6 hamarren jaitsi da. Estatuko ratioa (% 59,3) 2,3 hamarren jaitsi da, 2011ko datuarekin alderatuta.

EAEn 2011ko abendutik 2012ko abendura bitartean okupazioak izandako jaitsiera % 4,6koa izan zen, 42.900 lanpostu galduta. Gizonen enpleguak izan du bilakaerarik txarrena, azken urtean 24.000 lanpostu galdu baitira bertan; emakumeenak, aldiz, 18.500 enpleguko jaitsiera izan du. Gainera, azken urtean % 35 jaitsi da 25 urtetik beherako gazteen enplegua eta % 4,5, aldiz, 25 eta 44 urte artekoena; 44 urtetik gorako langileen enplegua, berriz, % 2 murriztu da.

Urteko batez besteko balioak kontuan hartuz gero, 2012an galdu diren 33.200 lanpustuetatik (% -3,5, 2011ko datuen aldean), 23.600 gizonek galdu zituztenak izan ziren eta 9.600 (% -2,2), aldiz, emakumeek galdutakoak; horrenbestez, enpleguaren feminizazioa 6 hamarren gehitu da, eta talde horren enplegua % 46,2koa da.

Sektoreen arabera, eraikuntzak galdu zuen lanpostuen kopururik handiena 2011n (-5.200), eta ehunekoetan, lehen sektoreak du jaitsierarik handiena (% -9,2). 2012an, berriz, zerbitzuen sektoreak galdu du lanpostu gehien (14.500, jaitsiera osoaren % 44) eta ehunekoen murrizketarik handienak eraikuntza ukitzen du (% -14,3). Industriak, aldiz, 9.400 lanpostu galdu ditu, eta % 4,2ko jaitsiera izan du.


Behin-behinekotasunaren mailari dagokionez, BJAren datuek erakusten dute 2012ko urteko batezbestekoa aurreko urtekoa baino zertxobait txikiagoa izan zela (% 21,4 2012an eta % 20,1 aurreko urtean). Enpleguaren suntsidurak bereziki eragin die aurten kontratu finkoa zutenei (% -4,5; langabezia, berriz, % 4,3 gehitu da), lan guztiaren % 2,2ko igoera duen aldi baterako kontratua dutenen aldean.

II.6.3. KOADROA. BIZTANLE LANDUNAK ETA LANGABEAK, SEKTOREKA. 2011-2012.

	BATEZBESTEKOAK (milaka)		GEHIKUNTZA (milaka)		Urte arteko aldakuntza-tasa (%)	
	2011	2012	10-11	11-12	10-11	11-12
LANDUNAK - BJA	937,6	904,4	-11,3	-33,2	-1,2	-3,5
LEHEN SEKTOREA	7,9	8,1	-0,8	0,2	-9,2	2,5
INDUSTRIA	223,6	214,2	-1,4	-9,4	-0,6	-4,2
ERAIKUNTZA	67,3	57,7	-5,2	-9,6	-7,2	-14,3
ZERBITZUAK	638,8	624,3	-3,9	-14,5	-0,6	-2,3
LANGABEAK - BJA	114,1	124,8	18,2	10,7	19,0	9,4
LEHEN SEKTOREA	0,5	0,7	-0,4	0,2	-44,4	40,0
INDUSTRIA	19,9	22,9	-0,5	3,0	-2,5	15,1
ERAIKUNTZA	18,7	16,8	4,4	-1,9	30,8	-10,2
ZERBITZUAK	67,3	75,0	11,5	7,7	20,6	11,4
1. enpleguaren bila	7,7	9,4	3,2	1,7	71,1	22,1

Iturria: EUSTATen **Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta.**

II.6.2. GRAFIKOA ALDI BATERAKO KONTRATUEK ETA "KONTRATURIK GABE ETA BESTELAKOAK" EGOEREK SOLDATAPEKO GUZTIEN GAINEAN DUTEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ARABERA.



Iturria: EUSTATen BJA.

II.6.4. KOADROA. ENPLEGUAREN ADIERAZLEAK EUROPAR BATASUNEAN 2011-2012

	LANGABEZIA-TASA		GAZTEEN LANGABEZIA-TASA		BEHIN-BEHINEKOTASUNAREN TASA	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012
27ko EB	9,7	10,5	21,4	22,8	14,1	13,7
EDB	12,2	11,4	20,8	23,0	15,8	15,2
BELGIKA	7,2	7,6	18,7	19,8	9,0	8,1
BULGARIA	11,3	12,3	26,6	28,1	4,1	4,5
TXEKIAR E.	6,7	7,0	18,0	19,5	8,5	8,8
DANIMARKA	7,6	7,5	14,2	14,1	8,8	8,5
ALEMANIA	5,9	5,5	8,6	8,1	14,7	13,8
ESTONIA	12,5	10,2	22,3	20,9	4,5	3,7
IRLANDA	14,7	14,7	29,4	30,4	9,9	10,2
GREZIA	17,7	24,3	44,4	55,3	11,6	10,0
ESPAINIA	21,7	25,0	46,4	53,2	25,3	23,6
FRANTZIA	9,7	10,2	22,9	24,3	15,3	15,2
ITALIA	8,4	10,7	29,1	35,3	13,4	13,8
ZIPRE	7,8	11,9	22,4	27,8	13,6	15,0
LETONIA	15,4	14,9	29,1	28,4	6,5	4,7
LITUANIA	15,4	13,3	32,9	26,4	2,8	2,6
LUXEMBURG	4,8	5,1	15,6	18,1	7,1	7,7
HUNGARIA	10,9	10,9	26,1	28,1	8,9	9,4
MALTA	6,5	6,4	13,7	14,2	6,6	6,9
HOLANDA	4,4	5,3	7,6	9,5	18,4	19,5
AUSTRIA	4,2	4,3	8,3	8,7	9,6	9,3
POLONIA	9,7	10,1	25,8	26,5	26,9	26,9
PORTUGAL	12,9	15,9	30,1	37,7	22,2	20,7
ERRUMANIA	7,4	7,0	23,7	22,7	1,5	1,7
ESLOVENIA	8,2	8,9	15,7	20,6	18,2	17,1
ESLOVAKIA	13,5	14,0	33,2	34,0	6,6	6,8
FINLANDIA	7,8	7,7	20,1	19,0	15,6	15,6
SUEDIA	7,5	8,0	22,9	23,7	16,4	16,4
ERRESUMA BATUA	8,0	7,9	21,1	21,0	6,2	6,3
EAE	**10,8**	**12,1**	**24,1**	**33,3**	**20,1**	**21,4**

Iturria: EUROSTATen (2013ko maiatzaren 15ean jasotako datuak) eta EUSTATen BJAren datuak erabilita egindakoa.

II.6.5. KOADROA. EAE-N 16 URTE EDO GEHIAGO ETA SOLDATAPEKO LANA DITUZTEN BIZTANLEEN BILAKAERA, KONTRATU MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EAE, 2011-2012.

		BATEZBESTEKOAK (milaka)		% BERTIKALA		Urte arteko aldakuntza-tasa (%)	
		2011	2012	2011	2012	10-11	11-12
GUZTIRA	Guztira	775,9	742,7	100,0	100,0	-1,0	-4,3
	Gizonak	407,1	385,9	100,0	100,0	-2,0	-5,2
	Emakumeak	368,8	357,8	100,0	100,0	0,1	-3,0
MUGAGABEA-FINKOA	Guztira	601,5	574,5	77,5	77,4	-0,9	-4,5
	Gizonak	332,5	312,3	81,7	80,9	-2,5	-6,1
	Emakumeak	269,1	262,2	73,0	73,3	1,1	-2,6
ALDI BATERAKOA	Guztira	155,7	159,1	20,1	21,4	-1,6	2,2
	Gizonak	72,1	72,5	17,7	18,8	0,0	0,6
	Emakumeak	83,6	86,6	22,7	24,2	-2,9	3,6
KONTRATURIK GABE ETA BESTELAKOAK	Guztira	18,7	10,1	2,4	1,4	0,3	-46,0
	Gizonak	2,5	1,0	0,6	0,3	11,1	-60,0
	Emakumeak	16,2	9,1	4,4	2,5	-1,2	-43,8

***Iturria: EUSTATen* Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta.**

Behin-behinekotasuna areagotu egin da bi sexuetarako. Hala ere, gizonen artean % 0,6 handitu da —% 17,7tik % 18,8ra—; emakumeen artean, aldiz, proportzio handiagoan handitu da (% +3,6), eta 2011n % 22,7koa izatetik 2012an % 24,2 izatera igaro da. Horren ondorioz, behin-behinekotasunaren arloan sexuen artean dagoen zuloa 2012an gure Erkidegoan gehitu egin da, eta 5,4 puntu portzentualekoa izan da, hau da, aurreko urtekoa baino puntu erdi handiagoa.

II.6.6. KOADROA. JARDUERA- ETA LANGABEZIA-TASEN BILAKAERA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEEN ARABERA. URTEKO BATEZBESTEKOAK.

	JARDUERA-TASA			LANGABEZIA-TASA		
	2010	2011	2012	2010	2011	2012
>16 urtetik beherakoak	55,9	56,2	54,9	9,2	10,8	12,1
16-24	31,9	30,3	26,1	25,0	24,1	32,8
25-34	87,0	87,1	83,3	11,9	13,8	16,5
35-44	87,5	88,2	88,2	7,6	10,6	10,8
45-54	80,9	82,8	82,9	7,2	8,6	9,7
55-64	47,1	48,6	48,8	4,9	5,5	6,4
+64	1,2	1,0	0,8	0,0	0,0	0,0
Gizonak, GUZTIRA	64,0	63,2	61,1	9,6	11,3	12,5
16-24	32,9	30,0	25,4	28,8	26,0	35,0
25-34	89,9	88,2	84,7	14,0	14,9	18,2
35-44	94,7	93,6	93,3	7,5	10,6	10,6
45-54	90,8	92,1	89,8	6,5	9,2	9,7
55-64	60,2	60,1	58,1	5,5	6,0	7,1
+64	1,6	1,3	1,2	0,0	0,0	0,0
Emakumeak, GUZTIRA	48,3	49,5	49,1	8,6	10,3	11,7
16-24	30,7	30,5	26,8	20,6	22,0	30,2
25-34	84,0	85,8	81,8	9,5	12,6	14,7
35-44	80,0	82,4	83,0	7,7	10,7	10,9
45-54	712	73,7	76,0	8,1	7,8	9,6
55-64	34,5	37,6	40,0	3,9	4,8	5,4
+64	0,9	0,8	0,6	0,0	0,0	0,0

Iturria: EUSTATen BJA.

II.6.7. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAKO BATEZ BESTEKO KOTIZATZAILEAK*, LURRALDEAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUAK.

		ABENDUAK		11-12KO ALDAKUNTZA	
		2011	2012	ABS.	%
ARABA	GIZONAK	86.274	81.277	-4.997	-5,8
	EMAKUMEAK	65.687	64.055	-1.632	-2,5
	GUZTIRA	151.963	145.335	-6.628	-4,4
GIPUZKOA	GIZONAK	167.272	159.093	-8.180	-4,9
	EMAKUMEAK	137.705	134.314	-3.391	-2,5
	GUZTIRA	304.979	293.409	-11.571	-3,8
BIZKAIA	GIZONAK	252.046	273.524	-14.522	-5,8
	EMAKUMEAK	214.734	211.391	-3.343	-1,6
	GUZTIRA	466.783	448.917	-17.865	-3,8
EAE, GUZTIRA	GIZONAK	505.593	477.894	-27.699	-5,5
	EMAKUMEAK	418.126	409.760	-8.366	-2,0
	GUZTIRA	**923.724**	**887.660**	**-36.064**	**-3,9**

**Ikusi kapitulu honetako 1. oin-oharra.*
Iturria: LANBIDE, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuak erabilita.

Gure Erkidegoan behin-behinekotasuna % 20 ingurukoa da, Holanda (% 19,5) eta Portugal (% 20,7) bezalako herrialdeetan bezalatsu; Europar Batasunean batezbestekoa % 13,7 da eta Euroaren Eremuan, aldiz, % 15,2. Behin-behinekotasunaren ratiorik handienak Espainian (% 23,6) eta Polonian (% 26,9) daude.

Horrez gain, kontraturik gabeko egoerak eta bestelakoak, funtsean emakumeak ukitzen dituztenak, biltzen dituen tasa azken urtean puntu bat murriztu da % 1,4raino. Emakumeei dagokienez, % 2,5ekoa da; gizonei dagokienez, berriz, % 0,3koa baino ez.

Adin talde bakoitzari dagokionez, oraindik ere aldi baterako kontratuak dituztenen eta kontraturik ez dutenen ratiorik handienak adinez gazteenak direnek osatzen dituzte, aurreko urtekoak baino gehiago izan direla. Zehazki, 16 eta 24 urte arteko emakumeen % 58,5ek (2011n baino 8,2 puntu portzentual gehiago) eta gizonen % 65,6k (aurreko urtean baino 7 puntu gehiago) aldi baterako kontratua dute.

Adin talde horretan kontraturik gabeko egoera eta beste batzuk dituzten soldatapeko pertsonen tasak % 8,2 eta % 1,6 dira, hurrenez hurren (aurreko urtearekin alderatuta, emakumeen tasa 1,9 puntu portzentual murriztu da eta gizonena, aldiz, 2,8 areagotu da). Aurreko adierazpenak zehazteko, komenigarria da kontuan hartzea 16 eta 24 urte arteko pertsonen % 17,5ek baino ez dutela lanik izan 2012an (% 30 2010ean eta % 23 2011n), jarduera- eta langabezia-tasen bilakaera dela-eta.

Azkenik, eta Gizarte Segurantzako 2012ko abenduko kotizatzaileei dagokienez (ikusi kapitulu honetako 1. oin-oharra), haien kopurua % 3,9 jaitsi da aurreko urteko abenduko kopuruarekin alderatuta (% -4,6 da Estatuko batezbestekoa). Estatuan, EAE izan da kotizatzaileen beherakadarik txikiena izan duen bigarren erkidegoa, Madrilen ondotik (% -0,7).

Lurraldeka, Araba da bilakaerarik txarrena izan duena, hango kotizatzaileak % 4,4 murriztu baitira; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, beherakada % 3,8koa izan da. Sexuaren arabera, gizonen afiliazioa % 5,5 murriztu da eta emakumeena, aldiz, % 2.

2012an etxeko langileei buruzko araudi berria ezarri da. Horrek etxeko lanari lotutako kotizatzaileen kopurua nabarmen gehitzea ekarri du: 2011ko abenduan 15.851 ziren, eta 2012a amaitzean, berriz, 26.130 (% +64,9). Horri esker, kotizatzaileen kopuruaren beherakada moteldu da, funtsean emakume atzerritarren kolektiboari eragin diola.

Horrez gain, eraikuntza da Gizarte Segurantzako kotizatzaile gehien galdu dituen jarduera: % 13,6,

2011ko amaieraren aldean. Industria % 5,5, zerbitzuak % 2,1 eta lehen sektorea % 13,3 murriztu dira. Eraikuntzari lotutako jarduerez gain, kotizatzaile asko galtzeagatik nabarmentzen diren beste batzuk honako hauek dira: Metalezko produktuen fabrikazioa (ia 3.000 afiliatu galdu ditu), Administrazio Publikoa (2.000 inguru), handizkako eta txikizkako merkataritza (4.400 afiliatu baino gehiago galduta), nekazaritza (-1.582), metalurgia (-1.410) eta Makineriaren fabrikazioa (-1.148). Etxea alde batera utzita, gutxi-gutxi dira urte horretan saldo positiboa agertu duten jarduerak. 100 eta 150 kotizatzaile inguru gehiago dituzte informatikari, egoitza establezimenduetako laguntzari eta kirol jarduerei lotutako jarduerek.

Horrez gain, kotizatzaile atzerritarren kopurua % 4,4 murriztu da azken urtean; bertako afiliatuen kopurua, aldiz, % 3,9. Bilakaeraren sexuaren araberako aldea oso handia da: gizonen artean % 12,9 murriztu da; emakumeen artean, berriz, % 6,5 handitu da, etxeko lan hori erregularizatu izanagatik.

Kotizatzaile atzerritarren kopuruaren jaitsiera hori oso nabarmena izan da Araban, % 12,3 murriztu baita. Gipuzkoan % 4 murriztu da, eta Bizkaian % 1,1. EBko beste herrialde batzuetatik datozen pertsonen artean, % 7,4 murriztu da, eta Europar Batasunetik kanpokoen artean, aldiz, % 3.

6.1.2. Langabezia


2012ko lan-merkatuaren bilakaeraren ondorioz, BJArako langabezia-tasa orokorra % 12,8koa izan da urtearen amaieran eta % 12,1ekoa batez beste lau hiruhilekoetan. Datu horiek ez dira agertu 2000tik, eta EBko batezbestekotik hurbil daude (% 10,5 27ko EBn eta % 11,4 Euroaren Eremuan.

II.6.8. KOADROA. EAE-KO BIZTANLE LANGABEAK. ALDAGAI NAGUSIEN BILAKAERA.

	Pertsonen kop.			Aldea		Aldakuntzaren %		Langabezia-tasa	
	2010	2011	2012	2010-11	2011-12	2010-11	2011-12	2011	2012
GUZTIRA	**95.900**	**114.100**	**124.800**	**18.200**	**10.700**	**19,0**	**9,4**	**10,8**	**12,1**
GIZONAK	56.000	64.800	69.600	8.800	4.800	15,7	7,4	11,3	12,5
EMAKUMEAK	39.900	49.300	55.200	9.400	5.900	23,6	12,0	10,3	11,7
ADINA: 16-24	13.800	12.400	14.200	-1.400	1.800	-10,1	14,5	24,1	33,3
ADINA: 25-44	56.300	70.400	75.000	14.100	4.600	25,0	6,5	12,1	13,3
ADINA: +45	25.700	31.300	35.700	5.600	4.400	21,8	14,1	7,5	8,5
Lehen mailako ikasketak	8.900	9.800	9.400	900	-400	10,1	-4,1	10,2	12,3
Erdi mailako ikasketak	67.200	79.400	84.500	12.200	5.100	18,2	6,4	13,2	14,3
Goi mailako ikasketak	19.800	24.900	30.900	5.100	6.000	25,8	24,1	7,0	8,6
Aurretik lan egin dute	91.400	106.400	115.500	15.000	9.100	16,4	8,6		
Lehenengo enpleguaren bila dabiltza	4.500	7.700	9.400	3.200	1.700	71,1	22,1		

Iturria: EUSTAT en BJA.

II.6.3. GRAFIKOA. LANGABEZIA-TASEN BILAKAERA EB-N ETA EAE-N, SEXUAREN ARABERA




Iturria: EUSTATen eta EUROSTATen datuak erabilita egindakoa.

II.6.9. KOADROA. EAE-KO LANBIDE-REN BULEGOETAN ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA (ABENDUAK).

	2010	2011	2012	2010 - 2011 ko %	2011-2012 ko %
GUZTIRA	**135.961**	**145.394**	**169.083**	**6,9**	**16,3**
GIZONAK	67.330	71.255	84.571	5,8	18,7
EMAKUMEAK	68.631	74.139	84.512	8,0	14,0
Adina: < 25 urte	11.129	11.935	13.281	7,2	11,3
Gainerako adinak	124.832	133.459	155.802	6,9	16,7
ATZERRITARRAK	17.331	20.646	23.061	19,1	11,7

Iturria: LANBIDE–Euskal Enplegu Zerbitzua.

II.6.4. GRAFIKOA. LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



Iturria: EUSTATen BJA

Europan, oso ezberdinak dira langabeziaren kopuruak: % 20tik gorako balioak ditugu, adibidez, Espainian (% 25) edo Grezian (% 24,3), eta % 5ekoak edo txikiagoak Austrian, Holandan edo Luxemburgen, esate baterako. AEBetan % 8,1eko langabezia-tasa dago, % 4,3koa Japonian, eta Frantziak, Italiak eta Poloniak Europako batezbestekoaren antzeko ratioak dituzte, zenbait adibide aipatzearren.

2012a gure Erkidegoan langabeen kopurua gehitu duen ondoz ondoko bosgarren urtea izan da, eta gehikuntza horrek adin tarte guztiei eragin die. Izan ere, 2011n ez bezala, gazteenen (25 urtetik beherakoak) artean ere hedatu da, talde horretan 2011n baino 1.800 langabe gehiago egon direla. Horren ondorioz, haren langabezia ratioa 9,2 puntu handitu da, urtean % 33,3ko batezbestekora heldu arte.

Europan gazteen langabezia-tasa % 22tik gorakoa izan da Batasun osorako, baina Italian, Portugalen eta Eslovakian, besteak beste, % 30etik gorakoa izan da, eta Grezian eta Espainian, aldiz, % 50etik gorakoa. Beste muturrean kokatu dira Alemania, Holanda eta Austria, % 8-9 inguruko ratioak izan baitituzte.

Kopuru absolutuetan langabezia neurri handiagoan handitu da 25 eta 44 urte artekoen taldean (+4.600), baina kopuru erlatiboetan neurri txikiagoan (% +6,5), 2011n % 25 handitu ondoren. 45 urtetik gorakoen taldea langabezia-tasa txikiena duena da: % 8,5. Hori lan-merkatua uzteagatik eta lanpostua galtzean pertsona horietako asko langabezian sartzeagatik gertatu da.

Sexuka, langabeen % 55,8 gizonak izan dira eta % 44,2 emakumeak, baina proportzioan azken horien langabezia neurri handiagoan handitu da (% +12 eta gizonena % +7,4). Hala ere, langabezia-tasa handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino (% 12,5 eta % 11,7, hurrenez hurren).

Sektoreka, langabeen % 60,1 zerbitzuen sektorekoak izan dira; sektore horretan langabezia % 11,4 handitu da (2011n % +20,6). Halaber, industrian langabezia % 15,1 handitu da (batezbestekoa den % +9,4ren gainetik), eta eraikuntzaren sektorean, aldiz, % 10,2 murriztu da langabeen kopurua (-1.900 pertsona). Bestalde, lehenengo lanpostua bilatzen ari diren pertsonen taldean 1.700 gehiago izan ziren, 9.400 batez beste urtean.

Gainera, lehen mailako ikasketak dituzten langabeak 9.400 izan dira, hau da, % 4,1eko murrizketa izan dute eta % 12,3ko langabezia-tasa izan dute. Bestalde, erdi mailako ikasketak dituztenak 84.500 ziren (guztien % 67,7), % 6,4 gehiago, langabezia-tasa batezbestekoa baino handiagoa izan arte: % 14,3. Amaitzeko, goi mailako ikasketak dituzten langabeak batezbestekoaren (% 24,1) gainetik gehitu dira, haien langabezia-tasa % 8,6koa izan dela.

Lurraldeka, desberdintasunak aurkitu dira langabezia-tasen mailei eta bilakaerei dagokienez: Gipuzkoak % 9ko urteko batezbestekoa du, lurralde guztietako txikiena, hain zuzen, eta 8 hamarreneko gorakada izan du 2011ren aldean; Araba ere EAEko batezbestekoaren azpitik kokatzen da (% 9,6), baina 1,7 puntu portzentual handitu da, aurreko urtearekin

alderatuta; Bizkaian, aldiz, tasarik handiena dago (batez beste % 14,7) eta % 1,4 puntu handitu da 2011ko batezbestekoaren aldean.

Bestalde, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak erregistraturiko langabeziak BJAren datuak gainditzen dituela egiaztatu da. 2012ko abenduan LANBIDEn 169.083 langabe erregistratu dira (% +16,3 aurreko urtearekin alderatuta) eta EUSTATen biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestak 130.200 langabe kalkulatu zituen urteko laugarren hiruhilekoan; izan ere, inkesta horretako langabeen sailkapenak kanpo uzten ditu enplegu-eskatzaile gisa izena eman duten hainbat pertsona[2].

Aurreko urteko bilakaeraren aldean, gehikuntza handiagoa (% +16,3, 2011ko abenduko urte arteko % +6,9ren aurrean) antzeman da, eta, 2010ean eta 2011n ez bezala, erregistratutako langabezian neurri handiagoan handitu da gizonen kopurua (% +18,7) emakumeena (% +14) baino. Gainera, luzaroko langabezia berriro ere handitu da beste urtebete batez. Gauzak horrela, 2009an luzaroko langabeen proportzioa % 29,2koa, 2010ean % 34,4koa eta 2011ko abenduan % 39,1ekoa bazen ere, 2012a amaitzean erregistratutako langabezia osoaren % 42,8koa da (% 37,9 gizonen artean eta % 47,6 emakumeen artean).

Bestalde, atzerritarren langabezia (% +11,7) batezbestekoaren azpitik handitu da. Hori dela eta, murriztu egin da atzerritar langabeen portzentajea: Gaur egun langabe guztien % 13,6 dira, hau da, 2011ko abenduan baino puntu erdi gutxiago. Estatuan langabeen % 12,6 dira, orain dela urtebete baino 1,6 puntu gutxiago.

2 Bi operazioen arteko alde metodologikoak oso handiak dira, eta, beraz, ezin dira erkatu, langileak sailkatzeko modu desberdinez gain, LANBIDEren kopuruak erregistroetatik datozen bitartean, BJArenak lagin batean oinarrituta egindako inkesta batetik datozelako. Halaber, kontuan izan behar da Europako Batzordearen 1897/2000 araudiari jarraituz, BJAk langabetzat jotzen dituela, soldatapeko lanik edo independenterik ez izateaz eta egun lan bila eta lan egiteko prest egoteaz gain, aurreko lau asteetan Araudi horretan lan bilaketa "aktibo"tzat jotako gestioren bat egin duten pertsonak. Ez da bilaketa aktibotzat jotzen lan eskaera berritzeko izapidea edo prestakuntza ikastaroak direla-eta enplegu bulego publikoarekin kontaktatzea. Horren ondorioz, EUSTATen inkestak "langabea" kontzeptutik kanpo uzten ditu LANBIDEn hala erregistratutako pertsona asko.

6.2. KONTRATAZIOEN ETA IRAIZPENEN BILAKAERA

6.2.1. Kontratazioaren egoera

2012an kontratazioa murriztu egin da aurreko urtearekin alderatuta (orotara % -6,9, hasierako kontratu kopuruaren % -6,6). Alderantziz jazo zen 2011n, noiz-eta guztizko kontratazioa % 1,9 eta hasierako kontratuak % 2,2 gehitu ziren.

Kontratu mugagabeen kopuru osoan (27.163), berriz, % 13,1 handitu da hainbat urtetan metaturiko jaitsieren ondoren, baina urtean izenpeturiko hasierako kontratuen % 4,13 eta kontratu guztien (hasierakoak gehi bihurketak) % 4 besterik ez dira. Gainera, gehikuntza horrek mota guztietako kontratuei eragin die, bai lanaldi osokoei (15.643, hau da, 2011n baino % 5,4 gehiago) bai lanaldi partzialeko 11.520 kontratuei (% +25,6).

II.6.10. KOADROA. EAE-KO LAN KONTRATU MUGAGABEEN BILAKAERA. KONTRATU BERRI GUZTIEN GAINEKO PORTZENTAJEA

	2010		2011		2012	
	GUZTIRA	%	GUZTIRA	%	GUZTIRA	%
Mugagabe arruntak	12.499	1,81	11.870	1,69	15.107	2,30
Mugagabe berriak	4.431	0,64	2.793	0,40	396	0,06
Lanaldi osoko gainerako mugag.	206	0,03	175	0,02	140	0,02
Lanaldi osoko mugagabeak	17.136	2,49	14.838	2,11	15.643	2,38
Lanaldi partzialeko mugagabeak	10.566	1,53	9.170	1,30	11.520	1,75
MUGAGABEAK, GUZTIRA	**27.702**	**4,02**	**24.008**	**3,41**	**27.163**	**4,13**
KONTRATU BERRIAK, GUZTIRA	688.717	100,0	704.152	100,0	657.403	100,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. KOIUNTURAZ aldizkaria, 82. zk. 2013ko I. hiruhilekoa, EEZPren datuekin

II.6.11. KOADROA. EAE-N ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA

	KONTRATU KOP.			Urte arteko aldakuntzaren %				
	2010	2011	2012	2008	2009	2010	2011	2012
Lanaldi osoko mugagabeak	17.136	14.838	15.643	-8,7	-32,0	-7,3	-13,4	5,4
Lana edo zerbitzua	146.751	152.614	134.609	-11,4	-21,1	8,1	4,0	-11,8
Behin-behinekoak	175.256	170.103	148.877	-9,4	-28,0	11,1	-2,9	-12,5
Lanaldi partziala	234.992	246.635	249.296	-1,3	-9,7	5,0	5,0	1,1
Prestakuntza kontratuak*	5.224	5.367	4.634	-13,0	-37,7	8,1	2,7	-13,7
Gainerakoak	109.358	114.595	104.344	7,9	-6,6	-1,9	4,8	-8,9
HASIERAKO KONTRATUAK	688.717	704.152	657.403	-5,2	-17,8	5,6	2,2	-6,6
Bihurtuak**	10.336	19.668	16.126	-9,3	-26,4	-52,8	90,3	-18,0
KONTRATUAK, GUZTIRA	710.042	723.820	673.529	-5,3	-18,1	5,3	1,9	-6,9
Atzerritarrei egindako kontratuak	88.284	86.029	75.820	..	-18,0	0,4	-2,6	-11,9


** Prestakuntza kontratuetan lanaldi partzialeko praktiketako kontratuak sartzen dira.*
*** Mugagabe bihurtutako kontratuak eta gizarte lankidetzako atxikipenak.*
Iturria: EEZPren datuak erabilita egindakoa.

II.6.12. KOADROA. EAE-KO KONTRATAZIOA (KONTRATU BERRIAK GEHI BIHURKETAK), SEXUAREN ETA JARDUERAREN ARABERA (CNAE 2009)

	2011	2012KO KONTRATUAK				10-11ko ald. %	11-12ko ald. %
		GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	% bertikala		
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza	12.852	12.681	1.346	14.027	2,1	0,2	9,1
Erauzketa-industriak	109	68	12	80	0,0	22,5	-26,6
Manufaktura-industria	60.290	41.528	13.243	54.771	8,1	4,3	-9,2
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	67	46	24	70	0,0	17,5	4,5
Ur hornidura, hondakin kudeaketa	3.748	3.149	340	3.489	0,5	-1,6	-6,9
Eraikuntza	41.954	32.079	1.527	33.606	5,0	-11,7	-19,9
Handizkako eta txikizkako merkataritza; konponketak	66.199	21.772	42.104	63.876	9,5	6,0	-3,5
Garraioa eta biltegiratzea	28.136	17.828	7.379	25.207	3,7	5,0	-10,4
Ostalaritza	75.339	26.469	50.127	76.596	11,4	6,6	1,7
Informazioa eta komunikazioak	21.081	10.738	7.190	17.928	2,7	7,4	-15,0
Finantza eta aseguru jarduerak	3.578	930	1.954	2.884	0,4	-12,1	-19,4
Higiezinen jarduerak	983	442	394	836	0,1	-3,8	-15,0
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	29.180	8.816	15.614	24.430	3,6	3,7	-16,3
Administrazio jarduerak	217.784	103.611	89.038	192.649	28,6	0,3	-11,5
Administrazio publikoa	9.882	2.488	4.181	6.669	1,0	-12,6	-32,5
Hezkuntza	30.867	8.592	21.004	29.596	4,4	2,4	-4,1
Osasun-jarduerak eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	78.480	13.427	65.338	78.765	11,7	5,5	0,4
Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	27.595	16.590	11.783	28.373	4,2	6,6	2,8
Bestelako zerbitzuak	14.895	4.915	8.704	13.619	2,0	-4,7	-8,6
Langileen enplegatzaile gisako etxeak	794	686	5.364	6.050	0,9	27,0	662,0
Lurraldez kanpoko erakundeak eta organismoak	7	3	5	8	0,0	0,0	14,3
GUZTIRA	**723.820**	**326.858**	**346.671**	**673.529**	**100,0**	**1,9**	**-6,9**


Iturria: LANBIDEko datuak erabilita egindakoa, EEZPren datuak oinarri hartuta.

II.6.5. GRAFIKOA. KONTRATAZIOAREN BILAKAERA EAE-N, JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA



Iturria: LANBIDE, EEZPren datuak erabilita.

II.6.6. GRAFIKOA. LAN TXANDAKETAREN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ARABERA



Iturria: EEZPren datuak erabilita egindakoa.

EEZPren datuek erakusten dutenez, 2012an 673.529 lan-kontratu egin dira guztira (berriak eta kontratu aldaketak kontuan hartuta), aurreko urtean baino % 6,9 gutxiago (-50.291). Horietatik % 51,5 emakumeek sinatu dituzte (aurreko urteko % 50,7rekin alderatuta), eta 2012an kontrataturikoen % 51,1, gainera, emakumeak izan dira.

Lurraldeka Araban kontratazioak % 4,7ko murrizketa izan du, Bizkaian % 7,7koa eta Gipuzkoan, berriz, % 6,9koa. Estatuan 2012an 14,24 milioi kontratu erregistratu dira, hau da, 2011n baino % 1,3 gutxiago, nahiz eta urte horretan % +0,1eko gehikuntza egon zen aurreko urtearen aldean.

Sektoreka, industriak % 9 kontratu gutxiago izan ditu, zerbitzuek % 6,2 eta eraikuntzak, aldiz, % 19,9 galdu ditu. Hala, hirugarren sektoreak erregistratutako kontratuen % 84,3 hartu du, aurreko urtean baino 7 hamarren gutxiago, industriak % 8,7 (-2 hamarren), eraikuntzak % 5 (-8 hamarren) eta lehen sektorea % 2,1ean mantendu da (2011n baino 3 hamarren gehiago).

Halaber, EEZPren datuek adierazi dute 2012an, gure Erkidegoan inskribatutako lan-kontratu guztietatik 75.820 atzerritarrek sinatu dituztela; kopuru hori kontratu guztien % 11,3 da, eta 2011n baino % 11,9 gutxiago. Horren ondorioz, EAE ukitzen duen kontratazioaren murrizketa are handiagoa da atzerritarrentzat. Atzerritarrek sinatutako kontratu guztietatik % 13,1 lehen sektoreko jarduerei dagozkie, % 12,3 eraikuntzari eta % 68,6 zerbitzuei. Halaber, % 42,2 Bizkaian, % 30,9 Araban eta % 26,9 Gipuzkoan sinatu dira.

Amaitzeko, lan-txandakatzeari (sinatutako kontratuen kopuruaren eta kontratatutako pertsonen kopuruaren arteko zatidura) buruzko datuek gehikuntza handia agertu dute 2012an, ratioak 2,73 kontratuko balioa hartzen baitu pertsonako urtean zehar, 2011n baino 1,34 gehiago. Bilakaera hori bi sexuetan gertatu da, txandakatzea handiagoa izan baita gizonentzat (1,24 kontratutik 2,68ra), baita emakumeentzat ere (2011ko 1,57 kontratutik 2012ko 2,75era).

6.2.2. Banakako eta taldeko iraizpenen bilakaera

Lehenengo eta behin, gogorarazi behar da erregistraturiko banakako iraizpenak Autonomia Erkidegoko lan-administrazioko agintaritza eskudunaren aurrean (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ordezkatuta) egindako adiskidetzeen ondorioz eta bi aldeak ados egonik egin direla, baita Lan arloko Epaitegien bidez izapidetutakoak ere; iraizpen horiek Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari jakinarazten zaizkio.


Horrez gain, taldeko iraizpenak enpresak lan harremanak arrazoi ekonomikoengatik, teknikoengatik, antolaketa eta ekoizpen arrazoiengatik, ezinbestean edo enpresaburuaren nortasun juridikoa iraungitzeagatik suntsiarazteko (langileen legezko ordezkariak ados egonda edo ados egon gabe) erabakitzen dituenak dira.

II.6.13. KOADROA. ENPLEGUA ERREGULATZEKO EAE-N ERREGISTRATUTAKO ESPEDIENTEAK: UKITUTAKO LANGILEAK ETA HAIEN KOPURUA (EUSKO JAURLARITZA)

	Espedienteak	Ukitutako langileak			
		Guztira	Murriztketa	Etena	Iraungipena
2007	282	4.815	17	3.856	942
2008	496	12.795	108	11.217	1.470
2009	2.565	68.722	1.170	65.574	1.978
2010	1.993	35.426	1.051	32.349	2.026
2011	1.560	22.072	2.203	17.991	1.878
2012	2.636	37.429	5.466	28.627	3.336
10-11ko ald. %	-21,7	-37,7	109,6	-44,4	-7,3
11-12ko ald. %	69,0	69,6	148,1	59,1	77,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

II.6.7. GRAFIKOA. IRAIZPENAK EAE-N: UKITUTAKO LANGILEEN BILAKAERA



Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA

Nabarmendu behar da 2012ko otsailean indarrean sartu zen lan erreformak taldeko iraizpenetarako administrazio baimenaren behar historikoa ezabatu zuela. Horrenbestez, ordutik aurrera enpresak berez erabakitzen du, langileen ordezkariak ados egonda edo ados egon gabe, eta lan agintaritzari taldeko iraizpena gauzatzeko erabakia jakinarazi besterik ez du egin behar.

Kasu berezi gisa, ezinbesteko iraizpenei dagokienez, oraindik lan agintaritzak egiaztatu behar du zirkunstantzia hori egon badagoela, enpresak iraizpen horiek gauzatu ditzan. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak arlo horri buruz argitaratzen dituen estatistikek ez dituztela islatzen egindako iraizpen

II.6.14. KOADROA. IRAIZPENEN BILAKAERA EAE-N (ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA)

	Balio absolutuak			Aldakuntzaren %	
	2010	2011	2012	2010-2011	2011-2012
Ukitutako langileak					
Bitartekaritza, arbitrajea eta adiskidetzea	1.018	955	2.248	-6,2	135,4
Gizarteko gai judizialak	3.787	4.049	4.478	6,9	10,6
Enpleguaren erregulazioa	43.889	28.492	51.948	-35,1	82,3
GUZTIRA	48.694	33.496	58.674	-31,2	75,2
ADOSTUTAKO IRAIZPENEN BANAKAKO ADISKIDETZEETAN ERABAKITAKO KOPURUAK:					
Zenbateko osoa (milaka €-tan)					
Bitartekaritza, arbitrajea eta adiskidetzea	56.875	41.447	96.156	-27,1	132,0
Gizarteko gai judizialak	25.645	30.289	41.642	18,1	37,5
GUZTIRA	82.520	71.736	137.798	-13,1	92,1
Batez besteko zenbatekoa (€)					
Bitartekaritza, arbitrajea eta adiskidetzea	55.869	43.400	42.774	-22,3	-1,4
Gizarteko gai judizialak	6.772	7.481	9.299	10,5	24,3

***Iturria: EGZMren* Lan Estatistiken Aldizkaria.**

guztiak, ez baitituzte biltzen arrazoi ekonomikoengatik, teknikoengatik, antolaketa edo ekoizpen arrazoiengatik gertatu direnak, taldeko iraizpentzat[3] jotzen denak ezarri duen langile kopuruari baino gutxiagori eragiten badie; gainera, enplegu-erregulazioko erabakien ondoriozko erretiro aurreratuak adostutako iraungipentzat jotzen dira estatistikoki, eta ez iraizpentzat.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ere EAEn erregistratutako enplegua erregulatzeko espedienteei buruzko estatistikak argitaratu ditu. Iturri horretako eta Enplegu Ministerioko datuak bat etorri ez arren (Ministeriokoak gehiago dira, erkidegoa baino esparru handiagoko espedienteak, euskal langileak ukitzen dituztenak, erregistratzen dituelako), interesgarria da bi estatistikek egindako azterketa, bien bilakaera norabide berean baitoa. Iturri horrek 2.636 EEE jaso ditu 2012an; enplegua erregulatzeko espediente horiek

3 Taldeko iraizpentzat jotzen da hark 5 langiletik gorako langileria osoari eragiten dionean, enpresa jarduera erabat amaitzearen ondorioz edo, laurogeita hamar eguneko epean, 100 langiletik beherako enpresetan gutxienez 10 soldatapekori, langileen % 10i 100 eta 300 langile arteko enpresetan edo 30 soldatapekori 300 langiletik gorako enpresetan (Langileen Estatutuaren Legeko 51. artikulua).

37.429 langileri eragin diete (aurreko urtean baino % +69,6 gehiago); horietatik % 76,5i aldi baterako eteteko espedienteak ezarri zaizkie (% 81,5 2011n), % 14,6ri lanaldia murriztu zaie (% 10 2011n) eta gainerako % 8,9ri amaiera-espedientea ezarri zaie (% 8,5 aurreko urtean). Sektoreka, espedienteen % 41,8 eta ukitutako langileen % 61,3 industriari dagozkie, eta horren atzetik zerbitzuen sektorea dago, haren portzentajeak % 41,4 eta % 27,4 direla, hurrenez hurren.

EEEak % 69 gehitu izana ez dator bat aurreko bi urteetako bilakaerarekin, 2010ean % 22,3 eta 2011n % 21,7 murriztu baitziren, nahiz eta 2009an enpleguko doikuntza handiena egin eta espedienteen kopurua boskoiztu, aurreko urtearen aldean.

Horrez gain, Enplegu Ministerioaren datuak oinarri hartuta (Estatuko gainerako erkidegoetan gertatzen denarekin erkatzea ahalbidetzen baitute) EAEn erregistratutako iraizpenen kopuru osoa, 2002 eta 2007 bitartean beheranzko ibilbidea izan arren, % 355,5 handitu zen 2009an, 2010-2011 biurtekoan murriztu zen (% 31,2 azken urte horretan), eta 2012an berriro areagotu da % 75,2, guztira 58.674 langile ukituta.

Joera hori antzekoa da Estatu osoan. Izan ere, iraizpenak gehitu dira, baina proportzio txikiagoan egin dute (% +39,3). Hori dela eta, EAEko iraizpenek iraizpen guztien gainean duten portzentajea 2012an berriro handitu da % 8,8raino, nahiz eta 2011n % 7ra murriztu.

Iraizpenen kopuruaren EAEko gorakadak EEEak ukitzen ditu bereziki, iraizpen guztien % 88,5 arrazoi horrengatik izan baitira (% 82,3 gehitu dira, aurreko urtearekin alderatuta); bitartekaritza, arbitraje eta adiskidetzeen inguruko kontuen eragina jasan duten langileen kopurua % 135,4 handitu da eta gizarteko gai judizialetan sartutako pertsonen kopurua, aldiz, % 10,6 handitu zen.

Iraizpenei buruzko kalte-ordainengatik adostutako zenbatekoei dagokienez, 2012an, guztira, 137,8 milioi euro izan dira, 2011n baino % 92,1 gehiago.

6.3. LANEKO OSASUNA

EAEko lan istripuei buruzko datuek, OSALANek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak) erregistratuek, erakusten dute 2012an 29.886 lan istripu gertatu direla, 2011n baino % 14,7 gutxiago (lan istripua izan eta baja eskuratu duten langileen kopurua kontuan izanik, lansaioan eta “in itinere” gertatuko istripuak eta lanbide gaixotasunak barne); Estatu osoan, ordea, jaitsiera % 20,4koa izan da, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuen arabera. Jaitsiera horrekin batera, gure Erkidegoan 2009tik izan diren beherakadak ditugu, halako moldez non azken lau urtean % 48,5eko jaitsiera metatu baita.

Lanaldian istripua izan duten pertsonei helduta, azken urtean larritasunaren araberako mota guztiak murriztu dira: % 16,3 istripu arinak eta % 20,1 larriak; istripu hilgarriak, aldiz, % 13,5 murriztu dira.

Gainera, sektorekako azterketak erakusten du ezbehar-kopuruak nabarmen egin duela behera eraikuntzan (% -28,1) eta industrian (% -18,7), zerbitzuen sektorean (% -11,3) eta, hein txikiagoan, nekazaritzan ere bai (% -7,4).

Zenbateko horiek sektore bakoitzeko lanpostu bolumenari lotuz gero, bilakaera antzekoa da: istripuen indizea 28,3koa da mila landuneko (32,7 mila landuneko 2011n; beraz, istripuak % 13,3 murriztu dira), eta beherakadarik handiena eraikuntzan (% -16,3) eta industrian gertatu da; azken horretan istripuak % 15,1 murriztu dira eta 43,5 istripu gertatu dira sektorean lan egiten duten mila pertsonako.

II.6.15. KOADROA. LANEKO EZBEHARREN BILAKAERA EAE-N: LANEKO BAJA DUTEN LANGILEAK.

	LANALDIKO ISTRIPUAK								IN ITINERE	LANB. GAIX.	GUZTIRA
	GUZTIRA	LARRITASUNA			SEKTOREA						
		ARINAK	LARRIAK	HILGARRIAK	NEKAZARITZA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK			
2008	**44.437**	44.115	275	47	896	18.327	7.659	17.555	4.656	1.547	50.640
2009	**35.200**	34.932	233	35	718	12.996	6.274	15.212	4.008	1.067	40.275
2010	**34.110**	33.849	225	36	667	12.455	5.770	15.218	4.002	1.041	39.153
2011	**30.628**	30.392	199	37	665	11.460	4.372	14.124	3.384	1.028	35.040
2012	**25.615**	25.424	159	32	616	9.322	3.143	12.534	3.326	945	29.886
10-11ko ald. %	**-10,2**	-10,2	-11,6	2,8	-0,3	-8,0	-24,2	-7,2	-15,4	-1,2	-10,5
11-12ko ald. %	**-16,4**	-16,3	-20,1	-13,5	-7,4	-18,7	-28,1	-11,3	-1,7	-8,1	-14,7

Iturria: OSALAN.

II.6.16. KOADROA. LANALDIAN BAJAN EGOTEA ERAGIN DUTEN ISTRIPUEN INDIZEA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA

	2009	2010	2011	2012*	10-11ko ald.	11-12ko ald.
ESTATUA	4.131	3.765	3.440	2.795	-8,6	-18,8
ANDALUZIA	4.041	3.592	3.326	2.679	-7,4	-19,5
ARAGOI	3.492	3.361	3.103	2.581	-7,7	-16,8
ASTURIAS	5.166	4.837	4.362	3.491	-9,8	-20,0
BALEAR UHARTEAK	5.270	4.937	4.672	3.843	-5,4	-17,7
KANARIAR UHARTEAK	4.653	4.304	4.081	3.317	-5,2	-18,7
KANTABRIA	3.825	3.393	3.176	2.572	-6,4	-19,0
GAZTELA-MANTXA	4.943	4.466	4.044	3.335	-9,4	-17,5
GAZTELA ETA LEON	4.262	3.897	3.407	2.749	-12,6	-19,3
KATALUNIA	4.202	3.760	3.403	2.768	-9,5	-18,7
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	3.660	3.368	3.094	2.550	-8,1	-17,6
EXTREMADURA	3.849	3.423	3.029	2.552	-11,5	-15,7
GALIZIA	4.714	4.254	3.695	2.926	-13,1	-20,8
MADRIL	3.677	3.427	3.180	2.562	-7,2	-19,4
MURTZIA	3.908	3.555	3.337	2.695	-6,1	-19,2
NAFARROA	4.143	3.812	3.580	2.766	-6,1	-22,7
EAE	**4.441**	**4.129**	**3.716**	**3.175**	**-10,0**	**-14,6**
Araba	4.819	4.540	4.004	3.356	-11,8	-16,2
Gipuzkoa	4.226	3.905	3.585	3.126	-8,2	-12,8
Bizkaia	4.444	4.126	3.697	2.145	-10,4	-42,0
ERRIOXA	4.311	3.927	3.645	2.880	-7,2	-21,0
Ceuta	5.151	4.798	3.403	2.887	-29,1	-15,2
Melilla	4.201	3.749	3.626	2.803	-3,3	-22,7


Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOAren* Lan Istripuen Estatistika. *(*) Datuen aurrerapena.

II.6.17. KOADROA. KONTRATUAREN ARABERAKO EZBEHARREN BILAKAERA EAE-N

	2008	2009	2010	2011	09-10eko %	10-11ko %
Kontratu mugagabeak						
Soldatapekoak (BJA)	630.000	622.000	607.200	601.500	-2,4	-0,9
Bajadun istripuak	25.221	21.823	21.291	19.614	-2,4	-7,9
Ezbehar-tasa (milaka) (A)	40,0	35,1	35,1	32,6	-0,1	-7,1
Behin-behineko kontratuak						
Soldatapekoak (BJA)	167.300	146.500	158.200	155.700	8,0	-1,6
Bajadun istripuak	16.988	11.183	10.306	8.887	-7,8	-13,8
Ezbehar-tasa (milaka) (B)	101,5	76,3	65,1	57,1	-14,6	-12,3
B / A	2,54	2,17	1,86	1,75		

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOAren* Lan Istripuen Estatistikaren *datuak eta EUSTATen BJAren datuak erabilita egindakoa.

II.6.8. GRAFIKOA. ISTRIPUA IZAN DUTENEN INDIZEA 1.000 LANDUNEKO EAE-N, JARDUERA SEKTOREEN ARABERA



Iturria: EUSTATen eta OSALANen datuak erabilita egindakoa.

Aitortutako laneko gaixotasunei (945) dagokienez (laneko ezbehar guztien % 3,16 2012an), esan beharra dago azken urteetako bilakaeraren azterketa jakinarazpen-sisteman ezarritako aldaketek baldintzatzen dutela; hortaz, 2008an aurreko urtearekin alderatuta erregistratutako % +113,1 hori kontuz hartu behar da. Ondoren, 2009an eta 2010ean, hain zuzen, % 31 eta % 2,4 murriztu ziren, hurrenez hurren. 2011n aurreko urtean baino % 1,2 gutxiago erregistratu ziren, eta 2012an berriro murriztu dira % 8,1.

Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak Autonomia Erkidego bakoitzeko kalkulaturiko lanaldiko istripu kopuruak[4] erakusten du 2012an Balear Uharteek eta ondoren Asturiasek izan dituztela kopururik handienak. EAEk 3.715eko indizea izan du (2011n baino % 14,6 gutxiago); beraz, estatuko batezbestekoa gainditu du kopuru absolutuetan, baina, portzentajeari dagokionean, aldiz, Estatuko aldakuntzak baino beherakada txikiagoa izan du (% -18,8).

Beste alde batetik, kontratu motaren araberako lan istripuen datuek adierazten dute ezbehar kopurua askoz handiagoa dela aldi baterako kontratua duten pertsonen artean kontratu mugagabea duten pertsonen artean baino.

Horrela adierazi dute Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren azken datuek, 2011ri dagozkienek. Izan ere, kontratu mugagabea duten pertsonen arteko ezbehar kopurua 32,6koa izan da milaka; aldi baterako kontratua dutenen artekoa, berriz, 57,1ekoa izan da milaka. Edonola ere, sektore, adin talde eta okupazio mota bakoitzaren arabera gertatzen diren istripuen banaketa ezagutu behar da, behin betiko ondorioak ateratzeko.


6.4. LAN HARREMANAK

6.4.1. Lan-gatazkak

Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, 2012an 278 greba egon dira guztira EAEn, horietan 21.600 pertsonak hartu dute parte eta lan egin gabeko 130.930 egun eragin dituzte; zifra horiek urte arteko goranzko joera erakusten dute: % 15,8, % 15,9 eta % 56, hurrenez hurren. Zenbaki horiei dagokienez, Lan Harremanen Kontseiluak (LHK) ohartarazi du datu horiek ez dituztela barne hartzen sektore publikoko grebak (otsaila eta maiatza), ezta martxoko, iraileko eta azaroko grebak ere, datuak ez izateagatik.

[4] *Istripu kopurua 100.000 langileko istripu kopuruaren eta Gizarte Segurantzan lan-istripuen arriskua berariaz estalita duten afiliatutakoen kopuruarenarteko zatidura bezala kalkulatzen da.*

II.6.9. GRAFIKOA. ISTRIPUA IZAN DUTENEN INDIZEA 1.000 LANDUNEKO EAE-N, JARDUERA SEKTOREEN ARABERA



Iturria: EUSTATen eta OSALANen datuak erabilita egindakoa.

II.6.18. KOADROA. GREBA KOPURUA, UKITUTAKO LANGILEAK ETA GALDUTAKO LANEGUNAK EAE-N

		2009	2010	2011	2012*	2010-11ko %	2011-12ko %
Araba	Grebak	55	59	67	64	13,6	-4,5
	Parte-hartzaileak	2.626	2.392	4.755	3.050	98,8	-35,9
	Lanegunak	14.185	10.361	10.095	21.017	-2,6	108,2
Bizkaia	Grebak	141	144	104	133	-27,8	27,9
	Parte-hartzaileak	16.342	20.092	9.462	10.115	-52,8	6,9
	Lanegunak	60.498	85.960	44.235	49.190	-48,5	11,2
Gipuzkoa	Grebak	84	95	69	81	-27,4	17,4
	Parte-hartzaileak	8.149	15.606	4.423	8.435	-71,7	90,7
	Lanegunak	51.501	83.198	29.605	60.723	-64,4	105,1
EAE	Grebak	280	298	240	278	-19,5	15,8
	Parte-hartzaileak	27.177	38.090	18.640	21.600	-51,1	15,9
	Lanegunak	126.184	179.519	83.935	130.930	-53,2	56,0

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.
**Behin-behineko datuak*

Arrazoiei dagokienez, industria krisiaren aurrean hartutako neurriek greben eta lan egin gabeko lanegunen kopuru handiena hartzen dute (guztien % 31,7 eta % 39,6, hurrenez hurren); negoziazio kolektiboak, aldiz, ukitutako langileen kopuru handiena (guztien % 42,6) biltzen du. Sektoreka, zerbitzuek izan dituzte greba gehien (guztien % 48,6), nahiz eta industriak biltzen dituen langile eta lan egin gabeko lanegun gehien (guztien % 72,8 eta % 80,8, hurrenez hurren).

Estatu osoan ere greba kopurua gehitu egin da 2012an. Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuen arabera, gatazken batura —878, guztira— % 13 gehitu da; partaideen kopurua, berriz, % 45,9. Halaber, lan egin gabeko lanegunen kopurua, guztira 1.290.114 izanik, % 166 handitu da.

6.4.2. Negoziazio kolektiboa: soldata igoera eta lanaldia

2012ari buruzko LHKren *Negoziazio Kolektiboaren Balantzea*ren arabera, urte horretan zehar Euskal Autonomia Erkidegoko langileen % 79,2ri eragiten dieten hitzarmen kolektiboak berritu behar ziren. 2011koa (% 76,6) baino handiagoa da ehuneko hori. Halaber, beste behin negoziazio-prozesuak zailak izan dira, eta hori erraz ikus daiteke; izan ere, urteko hamabi hilabeteetan langileen % 10,9rentzako hitzarmenak baino ez dira lortu, hau da, negoziatu beharrekoaren laurdena baino gutxiago. Lan-hitzarmen berriturik lortu ez duten negoziazio kolektiboen mendeko langileak % 68,3 izan dira urtearen amaieran (% 59,3 2011n).

II.6.19. KOADROA. EAE-N ERABAKITAKO SOLDATA IGOERAK 2011RAKO ETA 2012RAKO

	IGOERA, BERRIKUSPEN KLAUSULARIK GABE		BERRIKUSPEN KLAUSULEN ERAGINAK		SOLDATA IGOERA, GUZTIRA	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012
ARABA	2,49	2,41	0,65	0,24	3,14	2,65
BIZKAIA	3,80	1,67	0,14	0,75	3,94	2,42
GIPUZKOA	3,50	2,64	0,00	0,11	3,50	2,75
LURRALDE ARTEKOAK	1,29	2,71	0,03	0,02	1,32	2,73
EAE-N ERREGISTRATUTAKOAK	3,47	1,09	0,16	0,00	3,63	1,09
ESTATUA	1,63	1,28	0,50	0,27	2,13	1,55
EAE, GUZTIRA	**2,90**	**1,93**	**0,26**	**0,25**	**3,16**	**2,18**

Iturria: LHK.

II.6.20. KOADROA. EAE-N ERABAKITAKO LANALDIAREN MURRIZKETA, URTEKO ORDUTAN ADIERAZITAKOA.

	2007	2008	2009	2010	2011	2012
ARABA	3,9	1,6	1,1	0,3	0,7	1,4
BIZKAIA	3,1	1,5	0,7	-0,2*	0,7	0,5
GIPUZKOA	1,1	1,6	1,6	1,1	0,5	1,3
LURRALDE ARTEKOAK	3,3	9,7	1,5	2,9	2,9	3,8
EAE-N ERREGISTRATUTAKOAK	2,5	1,8	1,2	0,6	0,8	0,0
ESTATUA	1,1	0,6	0,9	0,5	0,8	0,3
EAE, GUZTIRA	**2,2**	**1,5**	**1,2**	**0,6**	**0,8**	**0,9**

Iturria: LHK
**Bizkaiko emaitza horren kasuan, hitzartutako lanaldia 0,2 ordu/urtean handitu zen.*

2012an erregistratutako hitzarmenak aztertzen baditugu, negoziazioaren dinamika urria izan da, eta pixka bat handiagoa izan da enpresaren eremuan (% 16,8, enpleguaren aldetik) sektorean baino (% 9,4). Horri aurreko urteetatik datozen eta 2012an indarrean egon diren hitzarmen urriak (% 34,3 enpresaren arloan eta % 17,3 sektorean) gehitzen badizkiogu, urtea amaitzean egoera negatiboa egon da oro har (% 68,3 berritzeko zeuden, enpleguaren aldetik), eta are okerragoa izan da sektore negoziazioan (% 73,3 berritzeko zeuden) enpresaren arloan baino (% 48,9 berritzeko zeuden).


Halaber, LHKren txostenak nabarmendu du EAEn erregistratzen diren sektore hitzarmen guztien % 25ek (32 hitzarmen) lau urte baino gehiago daramatela berritu gabe. Hitzarmen horiek eremu horrek ukitutako langileen % 4,4 ukitzen ditu: 16.327 langile. Gainera, sektore adierazgarri batzuetan erabakirik ez egoteak ez dio lagundu multzoari: Metala Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan; Eraikuntza Gipuzkoan; Irakaskuntza pribatu arautua EAEn; Eraikinen eta Lokalen garbiketa Bizkaian; Ostalaritza Gipuzkoan; Bulegoak Gipuzkoan, eta abar.

Laburbilduz, 2012. urtearen amaieran, eta eskuragarri dauden azken datuen arabera (2012/12/31ra arte erregistraturiko hitzarmenak), berritutako 444 hitzarmen zeuden guztira, eta 184.453 pertsonari eragiten zieten (horietatik % 67 sektoreko hitzarmenen mende daude eta gainerako % 33 enpresa hitzarmenen mende); horiez gain, beste 600 hitzarmen zeuden berritzeko, 397.407 langileri eragiten zietenak.

Guztira, 2012rako adostutako batez besteko soldata igoera % 2,18koa izan da (% 1,09 gure Erkidegoan erregistraturiko hitzarmenetan eta % 1,55 EAEn eragina duten Estatuko hitzarmenetan). Halaber, enpresa hitzarmenetan soldata igoera % 2,21ekoa izan da eta sektore hitzarmenetan % 2,17koa.

Oro har, beheranzko bilakaera garrantzitsua nabari da 2012rako hitzartutako soldata igoeretan (% 2,18, % 3,16ren aurrean), neurri handian negoziazioan aurreko urteko KPIrekiko erreferentzia baita nagusi EAEn erregistratutako hitzarmenetan (2011ko abenduko urte artekoa % 2,4 izan zen eta 2010ekoa, aldiz, % 2,8).

II.6.10. GRAFIKOA. EAE-N ERREGISTRATUTAKO HITZARMENEK UKITUTAKO PERTSONAK. PORTZENTAJEZKO DATUAK.



Iturria: LHK.

KPIren bilakaeraren arabera berrikuspen klausulei edo soldata bermatzeko klausulei egin beharreko doiketei dagokienez, batez beste 0,25 puntuko eragin positiboa dutela zenbatetsi da.

Bestalde, urte horretan gastua murrizteko onartutako neurrien eraginez, EAEko Administrazio Publikoetan lan egiten duten funtzionarioen ordainsariak % 7 murriztu dira 2012an.

Amaitzeko, berritzen ari diren hitzarmenek azken urteotan antzemandako joera neurri handian berreskuratu dute; horrela, lanaldia murrizten duten gero eta hitzarmen gutxiago daude. Lanaldia murrizten duten hitzarmenen portzentajea % 7,4koa da, hau da, 2011koa (% 16,8) baino txikiagoa. EAEn eragina izanda berritu diren hitzarmen guztietan 0,9 orduko murrizketaren batezbestekoa lortu da urtean (aurreko urteko -0,8 orduko murrizketaren aurrean). Kontuan hartu behar da, hitzarmen asko berritu ez direnez, eremu horietan lanaldia aldatu gabe egon dela, eta zenbait kasutan aspalditik, gainera.

6.5. SOLDATAK EAE-N

6.5.1. 2010eko Soldata-egiturari buruzko Inkestaren emaitzak

EINren *Soldata-egituraren urteko Inkesta*k autonomia erkidegoetako datuak ematen ditu, beste aldagai batzuen artean, sexuaren eta lanbidearen araberako soldatei buruz. Ordura arte lau urterik behin baino ez zen lortzen horren inguruko informazioa soldata-egituraren inkesten bidez, hain zuzen ere, eta gainera, 10 langile edo gehiagoko enpresei buruzkoa baino ez zen. Inkesta horrek hainbat iturritako administrazio-erregistroak erabiltzen ditu, hala nola, Gizarte Segurantza edo Zerga Agentziak, baita EINren beraren lan-kostuari buruzko hiruhilekoko inkestako informazioaren zati bat ere. Emaitzetan erabiltzen diren soldaten kontzeptuak balio gordinetan daude, hau da, PFEZren konturako atxikipena edo langileak Gizarte Segurantzarako kotizazioak egin gabe.

Inkestaren arabera, 2010ean EAEn urteko batez besteko irabaziak 26.594 euro ziren langile bakoitzeko, aurreko urtearekin alderatuta % 1,7 handituta (2008 eta 2009 bitartean % +2,4). Kopuru hori Estatuko batezbestekoa baino % 16,7 handiagoa da denboraldi berean, eta autonomia erkidegoen zerrendako lehenengoa da; ondoren Madrilgo Erkidegoa dago Soldata gordin hori 29.709 euro ziren gizonentzat eta 22.706 euro emakumeentzat; hortaz, bi sexuen artean % 30,8ko aldea dago. Alde hori 2,4 puntuan areagotu da azken urtean (% 28,4koa zen 2009an), gizonen soldata emakumeena baino gehiago handitu baita (% +2,8 eta % +0,9, hurrenez hurren).

II.6.21. KOADROA. LANGILE BAKOITZAREN URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIAK (EUROAK). 2009-2010.

	2009	2010	09-10eko ald.
ESTATUKO BATEZBESTEKOA	22.511	22.790	1,2
Andaluzia	0.906	20.913	0,0
Aragoi	22.134	22.317	0,8
Asturias	22.598	22.241	-1,6
Balear Uharteak	21.070	21.614	2,6
Kanariar Uharteak	18.926	19.316	2,1
Kantabria	20.870	21.157	1,4
Gaztela eta Leon	21.037	20.961	-0,4
Gaztela-Mantxa	20.229	20.363	0,7
Katalunia	23.851	24.449	2,5
Valentziako Erk.	20.490	20.707	1,1
Extremadura	19.100	19.481	2,0
Galizia	19.807	20.242	2,2
Madril	25.861	25.989	0,5
Murtzia	20.430	20.863	2,1
Nafarroa	23.658	23.825	0,7
EAE	**26.162**	**26.594**	**1,7**
Errioxa	21.180	21.036	-0,7

***Iturria: EINren* Soldata-egiturari buruzko inkesta.**

II.6.22. KOADROA. LANGILE BAKOITZAREN URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIAK (€ URTEAN) EAE-N ETA ESTATUAN, SEKTOREEN ARABERA. SEXUAREN ARABERAKO DATUAK

	Bi sexuak			Emakumeak			Gizonak		
	2009	2010	Ald. %	2009	2010	Ald. %	2009	2010	Ald. %
EAE									
Sektore guztiak	26.162	26.594	1,7	22.502	22.706	0,9	28.890	29.709	2,8
Industria	28.585	29.626	3,6	24.502	25.351	3,5	29.469	30.592	3,8
Eraikuntza	25.346	25.579	0,9	..	..	..	25.770	25.646	-0,5
Zerbitzuak	25.324	25.591	1,1	22.260	22.337	0,3	29.213	29.980	2,6
ESTATUA									
Sektore guztiak	22.511	22.790	1,2	19.502	19.735	1,2	25.001	25.480	1,9
Industria	24.453	25.377	3,8	20.028	20.926	4,5	25.915	26.871	3,7
Eraikuntza	21.775	21.962	0,9	20.011	20.190	0,9	22.067	22.240	0,8
Zerbitzuak	22.171	22.332	0,7	19.430	19.607	0,9	25.369	25.677	1,2
EAEren Estatuko %									
Sektore guztiak	116,2	116,7	0,4	115,4	115,1	-0,3	115,6	116,6	0,9
Industria	116,9	116,7	-0,1	122,3	121,1	-0,9	113,7	113,8	0,1
Eraikuntza	116,4	116,5	0,1	..	..	..	116,8	115,3	-1,3
Zerbitzuak	114,2	114,6	0,3	114,6	113,9	-0,6	115,2	116,8	1,4

***Iturria: EINren* Soldata-egiturari buruzko inkesta.**

II.6.23. KOADROA. URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIAK EAE-N ETA ESTATUAN, SEXUAREN ETA KONTRATU MOTAREN ARABERA. 2009-2010.

	Bi sexuak			Emakumeak			Gizonak		
	2009	2010	Ald. %	2009	2010	Ald. %	2009	2010	Ald. %
EAE									
Guztira	26.162	26.594	1,7	22.502	22.706	0,9	28.890	29.709	2,8
Iraupen mugagabea	27.705	28.846	4,1	23.217	24.090	3,8	30.997	32.532	5,0
Iraupen jakina	20.806	19.451	-6,5	20.118	18.636	-7,4	21.347	20.176	-5,5
Mugagab./Iraup. jakina %	33,2	48,3		15,4	29,3		45,2	61,2	
ESTATUA									
Guztira	22.511	22.790	1,2	19.502	19.735	1,2	25.001	25.480	1,9
Iraupen mugagabea	23.980	24.565	2,4	20.383	20.989	3,0	26.961	27.677	2,7
Iraupen jakina	16.701	16.694	0,0	15.997	15.553	-2,8	17.279	17.740	2,7
Mugagab./Iraup. jakina %	43,6	47,1		27,4	35,0		56,0	56,0	

***Iturria: EINren* Soldata-egiturari buruzko inkesta.**

Jarduera sektoreetako soldatei dagokienez, *Soldata-egituraren Inkesta*k agertu duenaren arabera, handienak industriaren jardueran daude, EAEn zein Estatu osoan. Zehazki, sektorearen urteko batez besteko irabaziak 29.626 euro dira Euskal Autonomia Erkidegoan (2009an baino % +3,6 gehiago), batez beste 30.592 euro gizonentzat eta 25.351 emakumeentzat. Industriako batez besteko soldata hori Estatu osokoa baino % 16,7 handiagoa da. Estatuan ere generoen arteko aldeak daude.

Ondoren, zerbitzuen sektoreko soldatak dira handienak (urtean batez beste 25.591 euro EAEn, 2008an baino % 1,1 gehiago); gainera, Estatuko batezbestekoa baino handiagoak ere badira, % 14,6, hain zuzen. Amaitzeko, eraikuntzaren sektoreko soldatek 25.579 €-ko batezbestekoa izan dute (% +0,9, aurreko urtearen aldean), eta zenbateko hori Estatuko batez besteko balioen gainetik (% 16,5 gorago) dago.

Beste alde batetik, langile bakoitzaren batez besteko irabaziak kontratu-harreman motaren arabera ere aldatzen dira. Gauza logikoa da, enpresako antzinatasunagatik jasotzen diren ordainsariek gora egiten dutelako. Zehazki, urteko batez besteko soldata gordina % 48,3 handiagoa da kontratu mugagabea duten langileentzat aldi baterako kontratua duten langileentzat baino. Aldea, gainera, handiagoa da gizonen artean (% 61,2) emakumeen artean baino (% 29,3).

6.5.2. *Lan-kostuari buruzko urteko inkesta2011*ren emaitzak

Lan-kostuari buruzko urteko inkesta langileek jasotzen duten soldataren hurbilketa egiten duen EINren bigarren estatistika da. *Lan-kostuaren hiru hilez behingo inkesta*ren galdetegi erantsia oinarri hartuta lantzen da, eta lan-kostuaren urteko maila eta haren osagaiak ezagutzea ahalbidetzen du. Horien artean, "lansarien eta soldaten" partidak besteren konturako langileei diruz zein gauzaz emandako ordainsari guztiak hartzen ditu barne. *Soldata-egituraren Inkesta*ren kasuan bezala, zenbatekoak gordinak dira, hau da, atxikipenak edo langileak Gizarte Segurantzarako kotizazioak egin aurrekoak.

*2011ko lan-kostuari buruzko inkesta*ren arabera, EAEn langile bakoitzaren lan-kostu gordina 36.171 euro dira; horietatik % 73,44 *"lansariei eta soldatei"* dagokie, hau da, 26.565 euro. Batez besteko soldata hori Estatuko batezbestekoa baino % 16,6 handiagoa da, eta, Madrilgo Erkidegoarekin batera, autonomia erkidegoen artean kopuru handiena da.

"Lansarien eta soldaten" partida 2002tik etengabe gehitu da, eta 2011n aurreko urtean baino % 0,2 gehiago handitu zen, Estatuko batezbestekoaren % 1eko gehikuntzarekin alderatuta .


II.6.24. KOADROA. LANGILE ETA URTE BAKOITZEKO LAN-KOSTUA; AUTONOMIA ERKIDEGOEN ETA KOSTUAREN OSAGAIEN ARABERAKO DATUAK. 2011.

	KOSTU GORDINA	Lansariak eta soldatak	Derrigorrezko kotizazioak	Borondatezko kotizazioak	Zuzeneko gizarte prestazioak	Bestelakoak (1)	Diru-laguntzak eta kenketak	KOSTU GARBIA	Lansariak eta soldatak / GUZTIRA %
ESTATUA	31.170	22.776	6.873	223	294	1.005	283	30.887	73,07
Andaluzia	28.937	20.843	6.459	170	233	1.231	247	28.3690	72,03
Aragoi	29.750	21.586	6.872	169	225	898	294	29.455	72,56
Asturias	30.632	22.531	7.035	210	264	591	317	30.315	73,56
Balear Uharteak	29.302	21.256	6.504	154	255	1.133	231	29.071	72,54
Kanariar Uharteak	26.065	18.877	6.055	126	227	780	227	25.838	72,42
Kantabria	28.748	20.890	6.672	153	375	658	329	28.420	72,66
Gaztela eta Leon	28.731	20.903	6.549	204	260	815	249	28.482	72,75
Gaztela-Mantxa	28.009	20.541	6.326	155	292	696	198	27.812	73,34
Katalunia	33.320	24.475	7.319	200	270	1.057	304	33.016	73,45
Valentziako Erk.	28.107	20.404	6.452	167	234	851	291	27.816	72,59
Extremadura	26.560	19.473	6.062	141	211	673	405	26.155	73,32
Galizia	27.713	20.055	6.287	308	267	796	308	27.405	72,37
Madril	35.806	26.441	7.286	344	416	1.319	279	35.528	73,85
Murtzia	28.510	20.627	6.382	134	274	1.092	254	28.255	72,35
Nafarroa	32.771	24.018	7.708	167	338	540	379	32.392	73,29
EAE	**36.171**	**26.565**	**8.058**	**362**	**420**	**766**	**364**	**35.806**	**73,44**
Errioxa	28.951	21.379	6.587	151	246	588	239	28.712	73,85

(1) Bestelakoak: Iraizpenengatiko kalte-ordainak, lanbide heziketaren eta garraioaren gastuak, gastu sozialak, kontratuaren amaierako kalte-ordainak, konpentsazio-ordainketak, erremintak, laneko arropa eta beste gastu batzuk biltzen ditu. Dietak eta bidaia-gastuak kanpo uzten ditu.

***Iturria: EINren* Lan-kostuen urteko inkesta 2011.**

II.6.11. GRAFIKOA. LAN-KOSTUAREN "LANSARIAK ETA SOLDATAK" PARTIDAREN ZENBATEKOA, LANGILE ETA URTE BAKOITZEKO. EAE-REN ETA ESTATUAREN ARTEKO ERKAKETA.



Iturria: EINren Lan-kostuari buruzko urteko inkesta.

6.6. ENPLEGU POLITIKAK

Enplegu politikek atal honetan hizpide izango diren politika aktiboak (EPA) barne hartzen dituzte; politika horiek langabeek enplegua lortzeko eta enplegua dutenek hori mantentzeko helburua dute; politika pasiboen helburua, berriz, langabeak ekonomikoki babestea da. EAEko Memoria Sozioekonomikoaren edizio honetan azken kontu hori lehenengo aldiz landuko da lan-merkatuari buruzko kapitulu honetan (6.6.2. puntuan), nahiz eta orain arte "*Gizarte babesa EAEn*" izeneko kapituluan aztertzen zen.

6.6.1. Enplegu politika aktiboak

(a) Arautegi orokorra

Lehenik eta behin, gogorarazi behar da 2011ko urtarrilaren 1ean EAEko Autonomia Administrazioari lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide heziketaren arloetako lan legedia betearazteko funtzioak eta zerbitzuak eskualdatu zitzaizkiola, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuak zeregin horiek bere gain hartu zituela.

Itun ekonomikoaren araubidearen arabera, erabaki horrek estatu eremuan lotutako kargak, 472 milioi eurokoak izan direnak, baloratzea dakar. Erabakiak egozpen indizea (gaur egun % 6,24koa da) aplikatzeko mekanismoak zein hobarien bidez antolatzen diren eta eskualdatu diren jarduketa eta programa publikoen finantzaketa autonomikoa ezarri ditu. Langileei dagokienez, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministeriotik 491 lanpostu lekualdatzea dakar, horietatik 18 Itsasoko Gizarte Institutuari eta gainerakoak EEZPri (lehengo EIN) dagozkiola.

Zehatz-mehatz, gauzatzeko funtzioak honako arlo hauetan eskualdatu dira:

1. Laneko bitartekaritza: Funtzio horien helburua lan-eskaintzak eta lan eskatzaileak harremanetan jartzea da, azken horiek laneratzeko asmoz. Funtzio horien artean, eskatzaileen inskripzioari eta erregistroari buruzkoak eta EAEra mugatzen den eremua duten laneratzeko agentzien baimena eta funtzionamendua daude.

2. Enplegu sustapena eta laguntza: Erabaki horren bidez, EAEko Administrazioak bere gain hartu du enplegu politika aktiboen programak prestatzea, helburu horretarako diru-laguntzak eta laguntzak ematea, minusbaliatuak laneratzea, Enplegu Zentro Bereziak kalifikatzea eta lantegi-eskolen, lanbide etxeen eta enplegu tailerren programak prestatzea. Atal horren barnean, kontrataziorako kuota sozialen hobarien araubidearen bidezko pizgarriak eskualdatu dira, estatuko legedian ezarritakoaren arabera, EAEn dauden lantokietako langileei eta autonomoei dagokienez. Gizarte Segurantzaren printzipioak aplikatuta, Erkidegoak hobari horien kostua ordainduko dio Gizarte Segurantzari.

3. Enplegurako lanbide heziketa: Lantegi-eskolen, lanbide etxeen eta enplegu tailerren sorrera eta zuzendaritza eskualdatu dira, baita bidezko profesionaltasun ziurtagiriak homologatzea eta ematea ere. Halaber, EAEk bere gain hartu ditu langabe eta landunentzako eskaintzaren prestakuntza programak eta prestakuntza-enpleguko programa publikoak. Eskariaren prestakuntzaren jarraipena ere eskualdatu da. Hori, EAEn dauden lantokiei dagokienez, enpresei aplikatzen zaien lanbide heziketaren kuotetako hobarien bidez finantzatzen da, eta Estatuari ordaindu behar zaio hobari horien kostua.

Horrez gain, Estatuaren testuinguruan nabarmena da 2011ko urrian *Enpleguko Espainiako Estrategia 2012-2014* onetsi izana; hori araudi esparru berria da Estatu osoan enplegu politika aktiboak koordinatu eta gauzatzeko, eta EEZPk eta Autonomia Erkidegoek aplikatu behar dute. Helburu komunak eta koordinazio prozedurak ezartzeko esparru berria da, efikazia eta eraginkortasuna hobetzeko, eta Estatu osoko pertsonentzako arretaren batasuna, EPAak eskuratzeko berdintasuna, gizarte kohesioa eta merkatu unitatea bermatzen ditu, lurralde aniztasuna errespetatuta.

Haren helburuak *Europa 2020* Estrategiaren bat etorrita ezarri dira. Honako hauek dira: partaidetza areagotu lan-merkatuan eta langabezia murriztu, enpleguaren behin-behinekotasuna eta segmentazioa murriztu, lanaldi partzialeko lana eta barneko malgutasuna indartu enpresetan, lanbide gaitasunak hobetu eta merkatuaren beharrizanetara egokitu, pertsonak lan-merkatuan azkar eta egoki sartzen direla sustatu, eta genero-berdintasuna sustatu enpleguan.

II.6.25. KOADROA. LANBIDE: ENPLEGURAKO LAGUNTZEN 2011KO BANAKETA (MILAKA €-TAN).

ARLOAK	LANBIDEREN LAGUNTZAK	2011KO ZENB.	2011 KO %
a. Lan-merkaturako zerbitzuak	Orientazioa	8.934	2,54
	BItartekaritza	358	0,10
	GUZTIRA	9.292	2,64
b. Lanbide heziketa	Prestakuntza	41.150	11,68
	Hobetuz	31.000	8,80
	GUZTIRA	72.150	20,48
c. Lan-txandakatzea eta enpleguaren banaketa	Laneko eta familiako bizitzak uztartzea	2.500	0,71
	Txanda-kontratuak	5.000	1,42
	GUZTIRA	7.500	2,13
d. Enplegurako pizgarriak		150.000	42,58
e. Minusbaliatuak laneratzea	Enplegu zentro bereziak	33.020	9,37
	Laguntza atalak	2.000	0,57
	Enplegu mugagabea	1.800	0,51
	Lantokiak	200	0,06
	Laneratzea	400	0,11
	GUZTIRA	37.420	10,62
f. Enpleguak zuzenean sortzea: kontrataziorako laguntzak		50.500	14,34
g. Enpresak sortzeko laguntzak	Autonomoak (1622/2007 TAS Agindua)	12.850	3,65
	Autonomoen kuotak	1.000	0,28
	ETGE*, I+G	1.677	0,48
	Laneratze enpresak	9.872	2,80
	GUZTIRA	25.399	7,21
GUZTIRA		**352.261**	**100,0**

Iturria: LANBIDE. Kabinete Teknikoak egindakoa.
***Enplegu eta Toki Garapeneko eragileak.**

Horretarako, arreta pertsonalizatu eta espezializatuko eredua diseinatu da, lehentasunezko arretarako kolektiboak finkatu dira, eta lurralde mailan koordinatu beharreko ekintzak eta neurriak ezarri dira. Estatu osoan urteko batez beste 9,4 milioi pertsonari arreta emango zaiela aurreikusi da, eta guztiei parametro horien bidezko arreta emango zaie. Horrez gain, Estrategia horretarako 24.400 milioi euro baino gehiago erabiliko dira, urtean 8.156 milioi euroko batezbestekoa erabilita.

Amaitzeko, 2011ko abenduan Eusko Jaurlaritzak *Enpleguko Euskal Estrategia 2011-2014* onetsi zuen, enpresa lehiakortasuna eta enplegagarritasuna hobetzeko, gazteen enplegua indartzeko eta hezkuntzaren eta enpleguaren arteko bidea hobetzeko helburuak dituena. Halaber, honako helburu osagarri hauek ditu: gizarte eta lurralde kohesioa indartu kolektibo ahulenei laneratzen lagunduta, enplegurako zerbitzu efikaz eta eraginkorragoa eskaintzeko asmoz teknologia, antolaketa, azpiegitura eta prestakuntza baliabideak hobetu, eta enplegu politika aktiboen kontrola eta ebaluazioa bermatu. Gutxi gorabeherako aurrekontu osoa 1.300 milioi eurokoa da, eta horietatik ia 100 enplegurako baliabideak eta zerbitzuak hobetzeko erabiliko dira. Estrategia horren mende plan zehatz batzuk daude, adibidez, LANBIDEren Operazio Plana 2012, memoria honek horri buruzko jarraipena egingo duela hurrengo edizioetan.

(b) LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuaren jarduera 2011n


LANBIDEren 2011ko memoriatik (erabilgarri dauden azken datuak) ondorioztatu da Zerbitzu horrek 352,26 milioi euro erabili zituela, guztira, enplegurako laguntzetan. Zenbateko horren barnean nabarmenak dira bai pizgarriak (150 milioi euro, hau da, zenbateko osoaren % 42,58) bai Lanbide Heziketarako laguntzak (% 20,5).

Horrez gain, 50,5 milioi euro (% 14,34) erabili ziren kontrataziorako laguntzetarako eta beste 25,4 milioi euro (zenbateko osoaren % 7,21) enpresak sortzeko laguntzetarako.

Laguntzen banaketa hori kontuan hartuta eta 27ko EBrako eta Estatu osorako erabilgarri dauden zifrekin (2009ko datuak) erkatuta, LANBIDEk nabarmendu du neurri handian gainditzen duela Espainian minusbaliatuentzako laguntzen proportzioa (EAEko fondoen % 10,9, Estatu osoko fondoen % 4,2ren aurrean), nahiz eta 27ko EBko batezbestekoaren (% 14,4) azpitik dagoen. Enplegurako pizgarriei dagokienez, EAEk neurri txikian gainditzen du Estatuko pizgarrien portzentajea (% 43,7, % 40ren aurrean), baina neurri handian gainditzen du Europakoa (% 23,8, 2009rako behin-behineko datuak erabilita).

Halaber, grafikoaren arabera nabarmena da Europak Lanbide Heziketarako erabiltzen duen proportzio handia, Espainiaren eta EAEren aldean. Horrek erakusten du lehentasun ezberdinak daudela lan-merkatuaren beharrizanei erantzuteko.

II.6.12. GRAFIKOA. LAN-MERKATURA ZEBITZUEN BANAKETA, EUROSTAT-TERMINOLOGIAREN ARABERAKO



Iturria.-LANBIDE egindakoa EUROSTAT datuekin.

Hona hemen nabarmentzea merezi duten 2011ko jarduketen balantzearen zenbait zifra:

- Erreferentziazko urtean LANBIDEn 193.838 enplegu eskatzaile erregistratu dira, guztira. Hona hemen eskatzaileen ezaugarri nagusiak: gizona (% 58), 31 eta 54 urte artekoa dena (% 43) eta bigarren mailako ikasketak dituena (guztien % 75). Pertsona horiei lan-merkatuan sartzen laguntzeko asmoz, 15.715 lanpostu kudeatu dira eta 11.228 eskaintza erregistratu dira. Horrez gain, 140.000 kandidatura inguru bidali dira aholkularitza eta bitartekaritza eskatzeko LANBIDEra jo duten enpresetara (5.000 baino gehiago).

- 88.569 pertsonak orientazio zerbitzuak jaso dituzte, eta horietatik % 95 enplegu eskatzaile gisa zeuden inskribatuta; gainerako % 5 administrazio baimenik gabeko atzerritarrak ziren.

- Enplegua sustatzeko neurrien artean, autoenplegurako 1.530 proiektu diruz lagundu dira, kontrataziorako laguntzak eman dira 50,48 milioi euroko zenbatekoan, eta 3.933 lanpostu sustatu dira. Pertsona guztientzako aukera-berdintasuna bermatzeko asmoz, adierazi behar da laguntza horien onuradunen % 35 18 eta 30 urte arteko gazteak izan direla, eta % 20 Sarrerak Bermatzeko Errentaren hartzaileak izan direla. Gainera, Lanbidek Euskadin Enplegu Zentro Berezi gisa erregistratutako 92 enpresetako baten batean lan egiten duten 7.413 minusbaliatu ingururi lagundu die diruz hilean.

- Enplegurako prestakuntzaren arloan baiezta daiteke 20.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu dutela prestakuntza ikastaroetan urtean. Horietatik 7.491k 395/2007[fn] Errege Dekretuak araututako ekintzetan parte hartu dute; errege dekretu horrek enpresen, landunen eta langabeen artean haien beharrizanei erantzuten dien eta jakintzan oinarritutako ekonomia garatzen laguntzen duen prestakuntza sustatzeko eta hedatzeko helburua du. Proiektu horietan 158 entitatek hartu dute parte, guztira, eta laguntzak 24,66 milioi eurokoak izan dira.

Halaber, enplegu eskatzaileak laneratzeko prestakuntza baliabideen katalogoa zehazten duen 327/2003[5] Dekretua garatzeko, 874 ikastaro eman dira, guztira. Horietan 11.125 ikaslek hartu dute parte, eta kostua 12,77 milioi eurokoa izan da. Aldi berean, 37 ikastaro gehiago eman dira, 607 ikasle izan dituztenak, autonomoa izaten ikasteko, partaideek beren negozioak sortzeko beharrezko gaikuntza ezartzeko helburua duen 328/2009[6] Errege Dekretua garatzeko.

Amaitzeko, lantegi-eskolen jarduera nabarmendu behar da: EAEn 42 dira, guztira, eta haien helburua prestakuntzarik gabeko gazteak, emakumeak, atzerritarrak, minusbaliatuak eta luzaroko langabeak laneratzeko aukerak hobetzea da. 58 prestakuntza programa garatu dira, guztira, eta horietan 814 ikaslek parte hartu dute, haien kostua 9,36 milioi eurokoa izan dela.

5 327/2003 DEKRETUA, abenduaren 23koa, lan-aukerak areagotzeko eta laneratzea sustatzeko neurriak arautzen dituena.

6 328/2009 ERREGE DEKRETUA, martxoaren 13koa, enpresen inskripzioari eta langileen Gizarte Segurantzako afiliazioari, altei, bajei eta datu aldaketei buruzko araudi orokorra aldatzen duena.

(c) EPAen beste zifra batzuk


Horrez gain, EEZPren Lanbideen Behatokiak egiten duen *Espainiako Lan-merkatuari buruzko Txostena 2012* izenekoak argitaratutako datuak ezagutu dira. Horrek agertu du 2011n (erabilgarri dauden azken datuak), Enplegu Politika Aktiboen atalean, EAEn 114.700 pertsonak baino gehiagok, hau da, Estatu osoko % 3,4k, eskuratu zituztela bitartekaritza eta aholkularitza ekintzak. Horietatik % 13,8 Arabakoak, % 52,8 Bizkaikoak eta % 33,4 Gipuzkoakoak ziren. Hala eta guztiz ere, dokumentuak berak ohartarazi du balioespen zifrak direla eta osagabeak izan daitezkeela.

Zerbitzu horietako erabiltzaileen eredu profilak (Estaturako datuak, autonomia erkidegoka erabilgarri ez daudela) erakutsi du gizonen eta emakumeen arteko banaketa orekatua dagoela eta asko daudela 25 eta 45 urte arteko pertsonen adin-taldean. Izan ere, adin hori daukatenak zerbitzu motaren bat hasi edo egin duten pertsonen % 59 izan dira. Horrez gain, 25 urtetik beherakoek % 17,6 egin zuten, eta 45 urtetik gorakoek, aldiz, zerbitzuen % 23,4.

Halaber, txosten horren arabera, 6.477 pertsonak enplegurako prestakuntza ekintzak gauzatu zituzten gure Erkidegoan 2011n, kopuru hori Estatu osoko % 3,1 dela. Horietatik % 18,2 Araban, % 63 Bizkaian eta % 18,8 Gipuzkoan bizi ziren. Estatu osoan garatutako prestakuntza ekintzetatik, proportzio handiena (% 20,24) Administrazioa eta kudeaketa lanbide familiari dagokio; horren atzetik Informatika eta komunikazioak (% 16,43) eta Gizarte-kultur zerbitzuak eta erkidegoarentzako zerbitzuak (% 9,25) daude.

Enplegurako prestakuntza ekintzetako erabiltzaileen profila oso antzekoa da, sexuaren eta adinaren araberako banaketari dagokionez, bitartekaritza eta aholkularitza ekintzak eskuratzen dituztenekin erkatzeko orduan: sexuaren araberako banaketa orekatua eta bitarteko adina (25 eta 45 urte

II.6.13. GRAFIKOA. EAEKO EPAEI LOTUTAKO ZEBITZUEN PERTSONA ERBILTZALEAK. 2011



Iturria.- EEZPen datuekin egindakoa.
Oharra.- Gutxi gorabeherako datuak. Izan ere, ez da Hirutariko Fundazioaren eta EEZPek zehazten ez dituen gainerako erakundeen informasiorik sartzen

artekoa) duten pertsonen gehiengoa. Haien prestakuntza mailari dagokionez, EEZPren txostenak nabarmendu du kasuen % 45ek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak edo beherakoak dituztela, % 14k Batxilergoa daukatela, % 25ek lanbide heziketako ikasketak dituztela, eta % 16k unibertsitate ikasketa motaren bat egin dutela.

Bestalde, Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioak, lurralde estatistiken bere datu-basetik aurrera, autonomia erkidego bakoitzak *"enplegua sustatzeko"* egindako gastua jakitea ahalbidetzen du, haien aurrekontu likidazioetako partida orokorra den aldetik.

Informazio horren arabera, 2012an Euskadi izan da prestakuntza, orientazio eta laneratzeko programetarako fondo gehien erabili dituen autonomia erkidegoa kopuru erlatiboetan (2.846,17 euro langabe bakoitzeko, hau da, 2011n baino % 1,3 gutxiago, nahiz eta Estatuko batezbestekoa % 30etik gora murriztu den). Kopuru horiek erakusten dute EAEk, Estatuan erregistratutako langabeziaren % 3,5 izanik (abenduko datua), fondoen % 9,8 erabili dituela (Estatuan 4.889 milioi eurotik gorakoak izan dira). Beraz, langabe bakoitzeko zenbatekoa Espainiako batezbestekoa baino bi aldiz handiagoa izan da (Estatuan langabe bakoitzeko 1.013,50 euro izan dira).

II.6.26. KOADROA. AUTONOMIA ERKIDEGOEK ENPLEGUA SUSTATZEKO EGINDAKO GASTUA 2011-12.

	ZENBATEKOA (milioika €-tan)				GASTUA (€/langabe)			
	2011	2012	2012ko ban. %	11-12ko ald. %	2011	2012 abs.	2012 erl.	2011-12ko ald. %
ESTATUA	5.547,72	4.889,00	100,0	-11,9	1.464,73	1.013,50	100,0	-30,8
Andaluzia	1.139,04	1.137,87	23,3	-0,1	1.175,3	1.049,86	103,6	-10,7
Aragoi	143,11	138,50	2,8	-3,2	1.403,3	1.253,19	123,6	-10,7
Asturias	145,93	145,94	3,0	0,0	1.611,9	1.406,16	138,7	-12,8
Balear Uharteak	93,30	62,84	1,3	-32,6	951,2	655,72	64,7	-31,1
Kanariar Uharteak	324,02	291,01	6,0	-10,2	1.220,1	1.021,39	100,8	-16,3
Kantabria	67,83	74,28	1,5	9,5	1.376,3	1.318,39	130,1	-4,2
Gaztela eta Leon	294,09	181,64	3,7	-38,2	1.410,7	765,56	75,5	-45,7
Gaztela-Mantxa	297,18	149,04	3,0	-49,8	1.315,9	568,12	56,1	-56,8
Katalunia	797,10	780,88	16,0	-2,0	1.297,7	1.207,01	119,1	-7,0
Valentziako Erk.	494,21	437,39	8,9	-11,5	923,7	767,70	75,7	-16,9
Extremadura	237,16	221,54	4,5	-6,6	1.751,6	1.517,97	149,8	-13,3
Galizia	326,35	311,82	6,4	-4,5	1.263,8	1.118,48	110,4	-11,5
Madril	529,07	253,39	5,2	-52,1	1.082,6	465,38	45,9	-57,0
Murtzia	120,10	103,25	2,1	-14,0	840,3	668,06	65,9	-20,5
Nafarroa	91,04	67,29	1,4	-26,1	1.939,4	1.295,45	127,8	-33,2
EAE	**419,17**	**481,24**	**9,8**	**14,8**	**2.883,0**	**2.846,17**	**280,8**	**-1,3**
Errioxa	29,02	51,08	1,0	72,4	1.167,2	1.852,32	182,8	58,7

Iturria: Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioaren lurraldeetako datu-basearen datuak (AAEEetako aurrekontu likidazioen datu egiaztatuak. Sailkapen funtzionala, 24. kodea: "enpleguaren sustapena") eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuak erabilita egindakoa.

(d) Etengabeko prestakuntza

Indarreko araudiaren eta eskumenen banaketaren ondorioz, langileentzako etengabeko prestakuntzako jarduerak Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ) eta Estatuko Enplegurako Prestakuntzaren Hirutariko Fundazioaren (EPHF) bidez kudeatzen dira EAEn. Ekintza horien finantzazioa baterako bilketako kuoten eta Europako Gizarte Funtsak emandako kopuruen eta aurrekontu publikoetatik (bai administrazio zentraletik —EEZPri emandakoak— bai) Eusko Jaurlaritzatik —HOBETUZen kasuan—) eratorritako funtsen kargura egiten da, batez ere.

Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ[7]) bidez burutzen diren etengabeko prestakuntzako jardueren kasuan, 2011n (urte horretakoa da eskuragarri dagoen azken datua) 1.099 espediente kudeatu zituen, guztira (% +30,8, 2010aren aldean). Horretarako 27,13 milioi euroko diru-laguntzak eman ziren (% +36,3). HOBETUZ organismoak landunen etengabeko prestakuntza kudeatzen du EAEn.

2012ko emaitzen aurrerapenari dagokionez, 1.452 espediente kudeatu dira, guztira, enpresen, enpresa eta sindikatu erakundeen eta prestakuntza zentroen eremuan, eta 27,75 milioi euroko diru-laguntzak eman dira.

Enplegurako Prestakuntzaren Hirutariko Fundazioak (enpresa planetarako, sektore arteko eta sektoreetako prestakuntza planetarako, gizarte ekonomiarako eta langile autonomoentzako) sustaturiko langileen etengabeko prestakuntzarako ekintzetan 2012an 174.725 pertsonek hartu dute parte behin-behineko datuen arabera, hau da, aurreko urtean baino % 4,9 gehiagok, 22.196 enpresa formatzaileren esku-hartzeari esker (% +7,1, 2011ren aldean). Guztira, enplegurako prestakuntzarako erabilgarri dauden fondoen 46,13 milioi euro erabili dituzte, eta horrengatiko hobaria izan dute Gizarte Segurantzako kuotetan.

7 Enpresa eta sindikatu erakundeetako ordezkariek eta Eusko Jaurlaritzak osatzen dute.

II.6.27. KOADROA. HOBETUZ: 2011KO DEIALDIAREN BALANTZEA. BEHIN BETIKO DATUAK.

		PLAN MOTA	ESPEDIENTEAK	EMANDAKO DIRULAGUNTZAK (€)	PARTEHARTZAILEAK
ENPRESAK	EKINTZA ESTRATEGIKOAK	ENPRESA PLANAK	324	3.281.525,46	13.186
		ENPRESA TALDEEN PLANAK	59	1.180.491,31	4.590
	PRESTAKUNTZA BEHARRIZANEN AZTERLANAK ETA ANALISIAK	ENPRESA DIAGNOSTIKOAK	236	684.845,21	0
		ENPRESA TALDEEN DIAGNOSTIKOAK	28	103.722,55	0
		ENPRESAZ GAINDIKO DIAGNOSTIKOAK	32	325.798,09	0
		GUZTIRA	679	5.576.382,62	17.776
LANGILEAK	SEKTOREEN ARTEKO SEKTORE PLANAK – ERAK. SINATZAILEAK	ERAKUNDE SINATZAILEAK	25	8.223.263,74	11.445
		ERAK. SINATZAILEAREN SEKT.	4	546.792,43	1.165
		ERAK. SINATZAILEAREN SEKTOREEN ARTEKOA	21	7.676.471,31	10.280
	PRESTAKUNTZA ERAKUNDEEN, AUTONOMOEN ETA GIZARTE EKONOMIAREN PLANAK, SEKTOREEN ARTEKOAK ETA SEKTOREKOAK – ZENTRO ETA ERAKUNDE EZ SINATZAILEAK	PRESTAKUNTZA ERAKUNDEEN SEKT.	18	125.860,84	713
		EZ SINATZAILEEN SEKT.	23	342.507,98	1.250
		MODULU KATALOGOA	136	7.181.596,34	7.756
		GIZARTE EKONOMIA	2	251.049,82	149
		AUTONOMOAK	5	328.188,92	482
		PRESTAKUNTZA ERAKUNDEEN SEKTOREEN ARTEKOA	185	3.304.975,75	8.475
		GUZTIRA	394	19.757.443,39	30.270
LAGUNTZA - AHOLKULARITZA		SUSTAPENA ETA HEDAPENA	4	376.682,00	0
		ORIENTAZIOA	4	352.073,53	0
		BERRIKUNTZA	12	720.042,46	0
		FOROAK	0	0,00	0
		AZTERLANAK	6	351.202,01	0
		GUZTIRA	26	1.800.000,00	0
		GUZTIRA	**1.099**	**27.133.826**	**48.046**

Iturria: HOBETUZ.

II.6.28. KOADROA. EPHF: ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA EAE-N: 2011-2012 EKITALDIETAKO BILAKAERA

	2011	2012	11-12ko ald. %
EAE-N PRESTATURIKO PARTE-HARTZAILEAK			
GUZTIRA	166.599	174.725	4,9
IKASKETA MAILAREN %			
Ikasketarik gabe edo lehen mailako ikasketak	25,1	26,3	4,8
Bigarren mailako ikasketak eta LH	39,5	40,9	3,5
Unibertsitateko diplomaturak	12,9	12,4	-3,9
Unibertsitateko goi mailako ikasketak	21,9	19,7	-10,0
ENPRESA FORMATZAILEAK			
GUZTIRA	20.727	22.196	7,1
JARDUERA SEKTOREA			
Nekazaritza	61	95	55,7
Industria	4.943	5.465	10,6
Eraikuntza	2.835	2.636	-7,0
Merkataritza	2.671	2.886	8,0
Ostalaritza	3.264	3.461	6,0
Bestelako zerbitzuak	6.952	7.653	10,1
FINANTZAKETA: Kreditu erabilgarria (milioika €-tan)	**37,13**	**46,13**	**24,2**

Iturria: ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAREN HIRUTARIKO FUNDAZIOAren datuak erabilita egindakoa.

Enpresek lehenik eta behin lehen eta bigarren mailako ofizialak prestatu dituzte (% 19,1), eta bigarrenez ofizial administrariak (guztien % 14). Horrez gain, ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituzten langileen prestakuntza % 26,3koa izan da, eta bigarren mailako eta lanbide ikasketak dituzten langileen proportzioa nabarmendu da, guztien % 40,9 izan baitira.

Prestakuntza edukiei dagokienez, enpresetako prestakuntza Laneko Arriskuen Prebentzioari (prestakuntza jaso duten partaideen % 18,2), Giza Baliabideen Kudeaketari (% 9,2), Hizkuntzei (% 8,3) eta Informatika eta ofimatikari (% 6,6) lotuta egon da nagusiki, besteak beste.

Amaitzeko, parte-hartzaileen % 67,3k prestakuntza aurrez aurre jaso dute, % 14,1ek urrunean, % 11,9k modu mistoan parte hartu dute, eta gainerako % 6,7k teleprestakuntza jaso dute.


6.6.2. Enplegu politika pasiboak

Langabeziagatiko prestazioek lan egin ahal eta nahi dutenak baina aldi baterako edo behin betiko lana galdu edo lanaldiaren zati handi bat murriztuta dutenak eta, horren ondorioz, soldatak antzeko moduan murriztuta dituztenak babesten dituzte. Kotizaziopeko prestazioak (erabateko langabezia edo langabezia partziala) eta laguntzako prestazioak (langabeziagatiko subsidioa) daude.

Kotizaziopeko prestazioen zenbatekoa langileek eta enpresariek Gizarte Segurantzari egoera horretarako ordaindutako kotizazioekin finantzatzen da, eta langabeziaren lehenengo 6 hiletan langabearen kotizazio oinarriaren % 70 da (gainerakoan % 50), langabe bakoitzaren familia egoeraren arabera zenbait muga dituela.

Langabeziagatiko subsidioa familia egoeraren arabera IPREMen (Askotariko Efektuen Errentaren Adierazle Publikoa) gaineko ehuneko jakin baten erreferentzia duen prestazio ekonomikoa da. 2012rako IPREM 532,51 €-koa izan da hilean, aurreko bi urteetako berdina, beraz.

II.6.14. GRAFIKOA. LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOEN JASOTZAILEEN KOPURUAREN HILEKO BILAKAERA EAE-N (MILAKA)



Iturria: EGSMren datuak erabilita egindakoa.

II.6.29. KOADROA. EAE-N LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOAK JASOTZEN DITUZTEN PERTSONEN BATEZ BESTEKO KOPURUA

	KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIOAK			LAGUNTZAKO PRESTAZIOAK			PRESTAZIOAK, GUZTIRA*		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
2008	19.053	16.742	35.795	6.427	9.648	16.075	25.480	26.390	51.870
2009	33.011	22.947	60.958	9.938	12.459	22.397	42.949	35.406	78.355
2010	31.011	22.720	53.731	15.397	16.257	31.654	46.408	38.977	85.385
2011	28.632	22.357	50.989	14.841	16.016	30.857	43.473	38.374	81.847
2012	**31.014**	**24.471**	**55.485**	**16.065**	**16.586**	**32.651**	**47.079**	**41.057**	**88.136**
10-11ko ald. %	-7,7	-1,6	-5,1	-3,6	-1,5	-2,5	-6,3	-1,5	-4,1
11-12ko ald. %	8,3	9,5	8,8	8,2	3,6	5,8	8,3	7,0	7,7

(*) Gizarteratzeko Errenta Aktiboa barne.
Iturria: EEZP (Prestazioen Zuzendariordetza) eta ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA.

II.6.30. KOADROA. LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOEN GASTUAREN ETA ESTALDURAREN ADIERAZLEAK, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. ABENDUAK.

	Estaldura-tasa*			Onuradun bakoitzeko kotizaziopeko prestazioaren batez besteko zenbatekoa (€ hilean)		
	2011	2012	2011-12o ald. pp-tan	2011	2012	11-12ko ald. %
Andaluzia	74,1	67,4	-6,7	834,5	830,6	-0,5
Aragoi	69,3	64,6	-4,8	877,0	876,5	-0,1
Asturias	67,4	63,1	-4,3	882,1	883,3	0,1
Balear Uharteak	110,7	107,6	-3,0	912,5	918,6	0,7
Kanariar Uharteak	66,1	60,2	-5,9	785,3	781,4	-0,5
Kantabria	65,9	60,0	-5,9	843,7	856,1	1,5
Gaztela-Mantxa	62,7	57,8	-4,9	835,2	851,0	1,9
Gaztela eta Leon	67,6	61,0	-6,6	839,9	839,6	0,0
Katalunia	77,0	70,2	-6,9	919,2	914,5	-0,5
Valentziako Erk.	61,8	57,7	-4,1	843,7	847,7	0,5
Extremadura	75,4	69,8	-5,6	760,1	753,8	-0,8
Galizia	68,0	63,3	-4,7	825,9	818,2	-0,9
Madril	63,3	58,3	-5,0	882,9	887,9	0,6
Murtzia	65,3	58,8	-6,5	829,4	826,3	-0,4
Nafarroa	68,6	66,7	-1,8	956,5	957,4	0,1
EAE	**62,7**	**57,0**	**-5,7**	**954,2**	**961,3**	**0,7**
Errioxa	64,4	61,5	-2,9	885,7	898,5	1,4
Ceuta	56,6	48,5	-8,2	867,7	856,7	-1,3
Melilla	46,4	42,7	-3,8	795,4	806,3	1,4
GUZTIRA	**69,8**	**64,0**	**-5,8**	**864,7**	**864,3**	**0,0**

Iturria: EGSMren datuak erabilita egindakoa.
(*) Ministerioaren metodologia berriaren arabera, estaldura-tasak honela kalkulatu dira: hileko azken egunean alta emanda zeuden prestazioen (kotizaziopekoak gehi subsidioak) onuradunen kopurua / (lan esperientzia izanda erregistratutako langabeak + Nekazaritzako aldi baterako langileen —Andaluziakoak eta Extremadurakoak— subsidioaren onuradunak).

a) Langabeziako estaldura eta prestazioen jasotzaileak

2012an langabeziagatiko prestazioen onuradunak, batez beste, 88.136 lagun izan dira EAEn, aurreko urtean baino % 7,7 gehiago, nahiz eta urte horretan % 4,1 murriztu zen. Estatuan jasotzaileen kolektiboa neurri txikiagoan handitu da: % 3,4ko batezbestekoa urtean. Horrela, EAEk Estatuko onuradun guztiengan duen partaidetza areagotu egin da, 2011ko % 2,9tik 2012ko % 3ra igarota.


2012ko 88.136 jasotzaileetatik % 46,6 emakumeak dira (haien kopurua batezbestekoa —% 7— baino neurri txikiagoan handitu da), eta gainerakoa, % 53,4, alegia, gizonak (% +8,3, 2011ren aldean).

Jasotzaileen hileko bilakaeran arreta jartzen badugu, uztailean eta abuztuan neurri txikian gora egin duela antzeman daiteke; gero jaitsi, eta azaroan berriro handitu da. Edonola ere, bilakaera irregularra antzeman da, goranzko joera agertzen duena. Joera hori egiaztatu egiten da, 2011ko abenduko eta 2012ko abenduko zifrak erkatzean, horien artean % 6,7ko gehikuntza egon baita.

2012ko abenduko datuei dagokienez, 88.400 jasotzaileetatik % 63k kotizaziopeko prestazioak jaso dituzte, % 34k subsidioak eta gainerako % 3k Txertaketarako Errenta Aktiboa. Estatuan, berriz, kotizaziopeko prestazioak jasotzen dituzten jasotzaileen ratioa % 47koa izan da, subsidioak jasotzen dituztenak, aldiz, % 40 izan dira eta Txertaketarako Errenta Aktiboa % 5ek jaso dute. Gainera, % 8k Nekazaritzako aldi baterako langileen subsidioa jasotzen zuten.

Erregistratutako langabeziaren zifrak kontuan izanik, esan liteke 2012ko abenduan EAEko 100 langabetik 48k ez dutela inolako prestaziorik jaso (43 2011n); bai ordea, ehunetik 52k, eta horien artean 33k kotizaziopeko prestazioa jaso dute, 18k subsidioa eta batek bakarrik Txertaketarako Errenta Aktiboa.

II.6.15. GRAFIKOA. LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOAK EAE-N: JASOTZAILEEN KOPURUAREN ETA GASTUAREN BILAKAERA



Iturria: EEZPren datuak erabilita egindakoa.

Erregistratutako langabeziaren aldean, langabeziagatiko prestazioen estaldura-tasak ezberdinak dira autonomia erkidego bakoitzean. Balear Uharteetan, eskuragarri dauden datuen arabera, aurretiko lan esperientzia duten langabe guztiek jasotzen dute nolabaiteko prestazioren bat eta, aldiz, Ceutan eta Melillan langabeen erdiek baino gutxiagok jasotzen dute prestazioren bat.

2012ko abenduko datuen arabera, Estatuko batezbestekoa % 64 izan da (2011ko abenduan baino 5,8 puntu portzentual gutxiago). Horrekin alderatuta, EAEko datua txikiagoa da (hil horretan erregistratu diren eta aurretik lan egin duten langabeen % 57, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak erabiltzen duen metodologiaren arabera).

Langabeziagatiko kotizaziopeko prestazioaren batez besteko zenbatekoa 961,3 eurokoa izan da EAEn 2012ko abenduan (aurreko urtean baino % 0,7 gehiago), Estatu osoko batezbestekoaren (864,3 €, 2011ko abenduan erregistratutakoa ia berdina dela) gainetik dagoela. Beste era batera esanda, onuradun bakoitzeko prestazioa Estatu osokoa baino % 11,2 handiagoa izan da EAEn. EAE, Nafarroa, Katalunia eta Balear Uharteak datu horren zerrendan lehenak dira.

Langabeziaren babeseko gastua eta diru-sarrera

Langabeziagatiko prestazioetarako erabilitako gastu osoa EAEn 1.258,28 milioi eurokoa izan da 2012an, behin-behineko datuen arabera, hau da, 2011n baino % 9,9 gehiago. Zenbateko hori EAEko BPGd-aren % 1,90 da, aurreko urteko % 1,72ren aldean. Horrez gain, Estatuko gastu osoaren % 4 da, hau da, aurreko urtean baino bi hamarren gehiago ditu.


Beste alde batetik, enpresek eta soldatapeko langileek ordaindutako eta EAEko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak bildutako EEZPrentzako Gizarte Segurantzaren kotizazioen diru-sarrerek gora egin zuten 2011n (eskuragarri dauden azken datuak) eta 1.131,52 milioi eurokoak izan ziren, guztira, hau da, aurreko urtean baino % 0,3 gehiago. Hortaz, EAEko langabeziaren arriskua estaltzeko diru-sarreren eta gastuen arteko kendurak, 2010ean ia 0 izan zenak (haren saldo positiboa 30.000 euro ingurukoa izan zen) 2011n ia 13 milioi euroko saldo negatiboa izan du.

II.6.31. KOADROA. EAE-KO LANGABEZIAKO GASTUAREN ETA EEZP-REN GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOEN ONDORIOZKO DIRU-SARREREN BILAKAERA (MILIOIKA EUROTAN)

	2009	2010	2011	2012*	11ko ald. %	12ko ald. %
Kotizaziopeko prestazio gordinak	757,23	737,48	667,86	750,94	-9,4	12,4
(-) Langabearen konturako Gizarte Segurantza	*42,15*	*40,67*	*36,04*	*41,84*	*-11,4*	*16,1*
(-) PFEZren atxikipenak	*2,45*	*3,39*	*6,15*	*6,15*	*81,4*	*0,0*
Kotizaziopeko prestazio garbiak	712,63	693,42	628,64	702,95	-9,3	11,8
Langabeziagatiko subsidioaren prestazioak	110,12	164,90	161,29	170,19	-2,2	5,5
EEZPren Gizarte Segurantzarako kotizazioak	317,75	325,21	315,27	337,15	-3,1	6,9
- EEZPren konturako kotizaziopeko prestazio bakoitzeko	*289,81*	*293,70*	*279,93*	*299,93*	*-4,7*	*7,1*
- EEZPren konturako laguntzako prestazio bakoitzeko	*27,94*	*31,51*	*35,34*	*37,22*	*12,2*	*5,3*
LANGABEZIAREN GASTUA, GUZTIRA	1.185,10	1.127,59	1.144,42	1.258,28	1,5	9,9
EEZP-RENTZAT BILDUTAKO KUOTAK	1.125,88	1.127,62	1.131,52	..	0,3	..
SALDOA	-59,22	0,03	-12,90	..		
DIRU-SARRERA / GASTUA	1,0	1,0	1,0	..		

Iturria: EEZPren eta GSDOren datuak erabilita egindakoa. Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.
****2012ko zifrak behin-behinekoak dira.***

II.6.16. GRAFIKOA. LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOEN GASTUA ETA DIRU-SARRERA EAE-N.



Iturria: EEZPren eta EUSTATen datuak erabilita egindakoa.

III. KAPITULUA

Bizi-Kalitatea EAE-n

1. FAMILIAK ETA FAMILIA, NORBERAREN BIZITZA ETA LANA BATERATZEA

1.1. FAMILIA EAE-N

EAEko familia-sistemen tipologia asko aldatu da azken hamarkadetan, demografia, gizarte eta kultura prozesuen ondorioz. Jarraian, garrantzitsuenak laburbilduko dira, gehienbat Eusko Jaurlaritzaren "*Familien 2008ko Inkesta*"ren emaitzak kontuan izanik. Datu horiek balio izan zuten "*EAEko familiei laguntzeko Erakunde Arteko III. Plana*" egiteko aurretiazko ataza gisa.

Gaioi buruz eskuragarri dagoen informaziorik berriena da, eta oso aztergai estrukturala denez, informazioa erabat indarrean dagoela esan daiteke[1].

- *Familia moten aniztasun handiagoa:* 2008an EAEn guztira 794.387 familia erregistratu ziren, lau urte lehenago baino %7 gehiago. Euren tipologia aztertuz gero, agerikoa da gunea duen famili etxeak, familien %76,9ak, %6,3 gora egin duela 2004 eta 2008 artean, guztira 610.560 egin arte. Mota horren barruan, garrantzirik handiena mendeko seme-alabak dituzten senar-emazteen familiak dauka, gunea duten familien %46,6, eta familia guztien %35,9. Eta gainera, mota horretako familien kopuruak %9,3 gora egin zuen azken laurtekoan.

  Halaber, 2004 eta 2008 bitartean gora egin dute aurreko garaietan kopuru txikiagoa zuten familia mota batzuek hala nola guraso izan osteko familiak; izan ere, 2008an %25,2 egin zuten gora 2004. urtearekiko (guztizkoaren %15,7 dira; 2004an, berriz, %13,4). Era berean, %9,4 egin du gora pertsona bakarreko familien kopuruak (familia guztien %18,2 guztira 2008an); izan ere, kasu askotan 70 urtetik gorako emakume alargunek edo bananduek osaturiko etxeak dira.

  Bestetik, familia-loturarik gabeko kide anitzeko familien kopuruak ere egin du gora (+ %17,5), hau da, euren artean ahaidetasun-harremanik ez duten bi lagunek edo gehiagok osatutakoena (dena dela, 2008an familia guztien %1,4koa zen euren kopurua). Mota horretako familiak batez ere, immigrazioa areagotzean sortu dira.

- *Familien batez besteko tamaina txikiagoa:* EAEko familien batez besteko tamaina 2,68 pertsonakoa zen 2009an. Zalantzarik gabe, familia guztien batez besteko tamainaren jaitsiera nabarmena izan da (familiarrak ez diren pertsona anitzeko familiena

III.1.1. KOADROA. EAE-KO FAMILIAK MOTAREN ARABERA. 2004-08KO BILAKAERA.

Etxe mota	2004	2008	% Hazk 2004 - 08an	Batez besteko tamaina 2008an	Erref. pertsonatzat emak. dutenak 2008an
1. Pertsona bakarra	132.184	144.598	9,4	1,00	67,8
2. Kide anitzeko ez familiarra	9.375	11.011	17,5	2,56	48,3
3. Gunerik gabeko familiarra	13.857	13.259	-4,3	2,21	56,7
4. Familiarra gunearekin	574.106	610.560	6,3		
Guraso izan aurretiko ezkontza-familia	53.941	47.080	-12,7	2,11	30,5
Mendeko umeak dituzten gurasodun ezkontza-familia	260.467	284.791	9,3	3,74	23,4
Mendeko umerik ez duten gurasodun ezkontza-familia	89.545	88.486	-1,2	3,38	20,6
Guraso izan osteko ezkontza-familia	99.370	124.377	25,2	2,07	22,1
Mendeko seme-alabak dituen ezk. osteko familia	34.740	24.724	-28,8	2,87	85,0
Mendeko seme-alabarik ez duen ezk. osteko familia	30.719	38.814	26,4	2,36	79,5
Mendeko seme-alabak dituen ezk. gabeko familia	4.648	1.522	-67,3	2,74	80,1
Mendeko seme-alabarik ez duen ezk. gabeko familia	675	766	13,5	2,36	79,6
5. Polinuklearra	13.231	14.949	13,0	5,41	39,8
GUZTIRA	**742.753**	**794.378**	**7,0**	**2,73**	**37,4**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 2008ko Familiei buruzko Inkesta.

1 2008ko Familiei buruzko Inkestaren emaitzen gaineko informazio zehatzagoa nahi izanez gero, ikus beza irakurleak EAEko 2011ko Memoria Sozioekonomikoa.

izan ezik), seme-alaben batez besteko kopuruaren jaitsierarekin eta jaiotze-data txikiagoarekin lotuta. Izan ere, 2001etik aurrera gorako bidean izan arren, ez da lortu familien batez besteko tamainaren beherakada geldiaraztea. Gainera, familien tamaina txikiagotzen duten egiturazko aldaketek ere badute eraginik beherakada horretan –bikote batek osatutako familien edo guraso bakarreko familien kopurua-.

- *Familietako erreferentziako kideen ezaugarrien aldaketak:* Eusko Jaurlaritzaren txostenak erakusten duenez, 1996 eta 2008 artean gora egin du erreferentziako pertsonak 45 urtetik beherakoa duten familien proportzioak. 2008an, familien %29,8k 45 urtetik beherako famili burua du, eta 1996an %28,2ko ratioa zen. Halaber, euskal familien %32k 65 urtetik beherako pertsona bat du buru, eta tasa hori ere hazi da, 1996an %28,5etik. Zehazkiago, bakarrik bizi diren pertsona gehienek (pertsona bakarreko familiak) 65 urtetik gora dituzte (ia %56) eta %22k, berriz 80 urtetik gora ditu. Hala ere, burua 45 eta 64 urte arteko pertsona bat duten familien proportzioak behera egin du; aldi horretan, %43,3tik %38,2ra jaitsi da (ehuneko 5,1 puntu galdu ditu).


- *Familietan dauden adingabeen proportzioaren beherakada:* 65 urtetik gorako biztanleen ehunekoak gora egin duen neurrian, EAEko adingabeen ehunekoak behera egin du. 2008an, familien %16,1ek 16 urtetik beherako kideak dituzte (127.100 familia dira, guztira). Horien artean, 3 urtetik beherako adingabeak dituztenak %7,9 dira (63.038 familia). Adingabe gehienak, gainera –zehazki, haien %89,2–, mendeko seme-alabak dituzten gurasodun familietan bizi dira.

- *Familietako mendetasun-egoeren gorakada:* Gero eta gehiago dira adinekoak EAEko etxeetan. 2008an, familien %35ek 65 urtetik gorako kideren bat dute; eta %12k, 80 urtetik gorako kideren bat. Pertsonen ezaugarri hori nabarmena da dibortzioa izan deneko edo kideetako bat hil deneko familietan eta seme-alabarik ez dagoenean (mendeko umerik ez duten gurasodun ezkontza-familia) emantzipaturiko seme-alabak dituzten ezkontza-familiako guneetan (etxea konpartitzen duten bi famili gune edo gehiago) edo gunerik gabeko familietan (bi edo pertsona gehiago sendi dira, baina ez dago kideen arteko seme-alaba erlaziorik ez senar-emate erlaziorik.

- *Guraso bakarreko familien kasua:* 2008an EAEn guztira guraso bakarreko 65.826 familia daude. Beraz, familia guztien %8,3 dira horrelakoak. Era horretako familien kopuruak behera egin du 2001az geroztik –urte horretan, familia guztien %11,7 ziren horrelakoak-. Hala ere, pisu kuantitatibo handia dute, eta, batez ere, arreta berezia merezi duen eragin kualitatibodun errealitatearen adierazgarri dira. Emakumezko profildun familiak dira. Horien artean, kasuen %80 baino gehiagotan erreferentziako kidea emakumea da. Hori datu esanguratsua da, familien joera nagusia gizonezko erreferentzia-kidea edukitzea dela kontuan hartuta.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoaren Kabineteak azterlan bat burutu du 2012an, "Familia EAEn" izenburua duena, eta herritarrek familiari buruz duten balorazioaren ikuspegi orokorra ematen du:

III.1.1. GRAFIKOA. ZURE USTEZ, FAMILIAK GARRANTZI HANDIAGOA EDO TXIKIAGOA DU EAE-N? HAINBAT URTE




Iturria. Eusko Jarularitza. Familiak EAE-n. 2012.

III.1.2. KOADROA. EGUNGO FAMILIA ETA ORAIN DELA 20 URTEKOA KONPARATUZ GERO, ZURE USTEZ, GARRANTZI BERDINA, HANDIAGOA EDO TXIKIAGOA DU? HAINBAT URTE

		PORTZENTAJE BERTIKALAK*		
		1997	2001	2012
Seme-alaben askatasuna	Handiag.	92	93	85
	Berdina	5	5	7
	Txikiagoa	1	1	2
Seme eta alaben arteko berdintasuna	Handiag.	69	72	53
	Berdina	25	23	35
	Txikiagoa	2	3	4
Konfiantza aitarengan eta amaregan	Handiag.	50	61	40
	Berdina	32	22	28
	Txikiagoa	14	13	21
Seme-alaben hezkuntzarekiko arreta	Handiag.	61	60	35
	Berdina	27	21	24
	Txikiagoa	10	16	34
Familiarekin konpartitzeko denbora	Handiag.	17	23	17
	Berdina	19	18	14
	Txikiagoa	59	56	62
Adinekoen zaintza	Handiag.	12	18	10
	Berdina	22	23	17
	Txikiagoa	61	55	67
Aita eta amarekiko errespetua	Handiag.	5	4	4
	Berdina	25	20	12
	Txikiagoa	68	74	77

Iturria: EUSKO JAURLARITZA.Familia EAEn 2012.
** Ez da sartu "Ez daki/Erantzunik ez"*

III.1.2. GRAFIKOA. INDEPENDENTEKI SEME-ALABA APARTEKO BADU, PENTSATU DU. BESTE BAT IZATEAN? CAPV-A, 2001 ETA 2012 URTE.



Iturria. Eusko Jaurlaritza. Familiak EAE-n 2012.

Herritarren aldetik eta haiek ukitzen dituzten gertaera nagusiekin lotutako zenbait aldagai daude. Emaitza horietan, lehenik eta behin nabarmendu behar dugu elkarrizketaturiko pertsonen %96k uste duela familia oso edo nahikoa garrantzizkoa dela, beste alderdi batzuen gainetik: denbora librea edo aisialdia (%93), lagunak (%92) edo lana (%91).

Gainera, gehienek uste dute aurreko garaietan bezain garrantzitsua dela familia (elkarrizketaturikoen %47k), edo garrantzi handiagokoa (%15). Familia aurreko garaietan bezain garrantzitsua izatearen iritzi hori konstantea da baldin eta inkesta horretako emaitzak aurreko emaitzekin konparatzen baditugu, zehazki 1997an eta 2001ean, baina igoera ikusten da 2001ekiko, familia gero eta garrantzi txikiagokoa dela uste dutenen portzentajeei dagokiena (%24tik %30era).

Halaber, aurreko inkestei dagokienez, behera egin du seme-alabek orain 20 urte baino askatasun handiagoa dutela uste dutenen proportzioak (ehuneko handia da oraindik ere, %85), baita seme-alaben berdintasunean aurreratu egin dela uste dutenen artean ere (hala dela %53k, eta 1997an, berriz, %69k eta 2001ean %72k). Gainera, gehientsuenek uste dute (%77) gaur egun errespetu txikiagoa dagoela aitarekiko eta amarekiko.

Familiarekin konpartitzeko dagoen denborari dagokionez, %62k uste du gaur egun lehen baino denbora gutxiago duela, eta oso banatuta dago seme-alaben hezkuntzari eskaintzen zaio arretari buruzko iritzia: %34k uste du orain arreta txikiagoa ematen dela, %35ek arabera arreta handiagoa eta %24k uste du orain dela 20 urteko arreta berdina eskaintzen dela. Aurreko inkestetan, aldiz, nagusia zen aldeko iritzia (lehen baino arreta handiagoa): %61ek 1997an eta %60k 2007an.

Azkenik, eta aurreko inkestetan bezala, euskaldunik gehienek uste dute seme-alaben kopururik egokiena bi dela (erantzunen %46), eta ondoren hiru (%19). Gainera, %55ek uste du gaur egun zailagoa dela seme-alabak haztea orain 30 edo 40 urte baino (%31k ezetz dio), eta galdeturiko pertsonen %72k uste du seme-alabak edukitzeak ahalegin ekonomiko handia eskatzen duela familientzat, lehen baino handiagoa (%19 iritzi horren kontrakoa da). Etorkizuneko amatasunari edota aitatasunari dagokionez, deigarria da etorkizunean ziurtasun osoz seme-alabak izango dituztela uste duten elkarrizketaturiko pertsonen kopurua, %11 hain zuzen; 2011n, berriz, elkarrizketatuen %22 ziren. Hala ere, ziurtasun osoz seme-alabarik ez dutela uste dutenen ehunekoak gora egin du, %56tik %77ra.

1.2. LANA, NORBERAREN BIZITZA ETA FAMILIA BATERATU BEHARRA

Azken urteetan, familien osaerak izan dituen aldaketak eta aldaketa horiek ugalkortasun-tasetan izan duten eraginak handituz doan interes publikoa zirikatu dute, dakartzan ondorioak direla eta. Ugaltzeko joera duten adinekoen artean laneratze eta igoerekiko kontzientziak emakume gazteak oso egoera zailean jartzen ditu seme-alabak izateko erabakiari dagokionez. Ama izan nahi duten gehienek amatasuna lanarekin bateratu nahi izaten dute eta geroz eta gehiago dira bikoteko bi kideek lan egiten duten eta 15 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familiak.

Emakumeak lan-merkatuan sartzea azken hamarkadetako aldaketarik garrantzitsuenetako bat izan da: 2011n euskal familietako %58k emakume landunak zituzten. Ehuneko hori 1996an %29 zen. Familiako kideen zeregin eta iguripenei, familia antolamenduari edo familia-gunea osatzen duten pertsonen zaintzari zuzenean eragiten dien aldaketa kulturala da, tradizioan emakumeek beren gain hartu dituzten eginkizunak izan direlako.

Inguruabar horiek arazo berriak sortzea eragin dute elkarbizitza unitateen barruan, ordaindutako lana eta familiaren zaintza bateratzeko beharrizanen inguruan.

Lanaren eta familia bizitzaren arteko gatazka une bitan areagotzen da: haurrak txikiak direnean, baina gero eta sarriago, mendeko adinekoei arreta eman behar zaienean ere bai. Hori dela-eta, herritarrek euren familia bizitza eta norberaren konpromisoak eta lana bateratu ahal izatea gizarte politikari buruzko eztabaidaren ardatzetako bat bihurtu da.

"Familia EAEn 2012an" azterlanaren emaitzekin jarraituz, nabarmendu behar dugu lehenik eta behin elkarrizketatuen %47k uste duela oinordekoak izateak nahikoa oztopatzen duela emakumearen lanbide karrera, eta %19k eragozpen "handia" dela deritzo. Gizonezkoen ustez, aldiz, galdeturikoen %10ek baino ez du uste emakumeek eragozpen asko edo nahikoak dituztela lanbide karreran seme-alabak izateagatik. Gainera, gehienek uste dute (%51ek 2012an eta %57ak

III.1.3. KOADROA. ZURE USTEZ, ZEIN ERANTZUKIZUN DU ADMINISTRAZIOAK GAI HORIETAN? EAE, 2001 eta 2012.

		PORTZENTAJE BERTIKALAK	
		2001	2012
Aukerak ematea gurasoei etxetik kanporako lana eta seme-alaben zaintza uztartzeko	Handia	48	40
	Nahikoa	37	36
	Txikia	7	10
	Batere ez	3	6
	Ed/Ee	4	8
	Guztira	100	100
Bikoteek nahi duten seme-alaba kopurua eduki ahal izatea	Handia	35	20
	Nahikoa	33	26
	Txikia	16	18
	Batere ez	12	25
	Ed/Ee	5	10
	Guztira	100	100

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Familia EAEn 2012.

2001ean) amatasun baja oso laburra dela, baita aitatasun baja ere (%53k uste du 2012an –2001ean ez zegoen baimen hori- aitatasun baimena ez dela nahikoa).

Administrazioak bateratze horretan duen erantzukizunari dagokionez, gehienek uste dute administrazioa erantzulea dela gurasoei aukerak emateko, etxetik kanporako lana eta seme-alaben zaintza uztartzeko (%40k uste du oso erantzulea dela eta %36k nahikoa), baina ez administrazioak bikoteek nahi duten beste seme-alaba kopurua izateko modua errazteari dagokionez; horri buruzko iritzia oso banatuta dago: %20k uste du administrazioak erantzukizun handia duela alde horretan, %26k nahikoa eta %18k, berriz, txikia. Administrazioak alde horretatik erantzukizunik ez duela deritzo %25ek.

Bestalde, EUROFUNDen (Bizi eta lan-baldintzak hobetzeko Europar Fundazioa) "Bizi Kalitatearen Europako III. Inkestak" (2012) jakinarazi zuen 2012an Europar Batasuneko langileen %53 lanetik itzultzean nekatuegi egoten direla etxeko zereginak egiteko, gutxienez hilean hainbat aldiz, eta langile horien laurdenak hala sentitzen direla astean hainbat alditan. Gainera, ordaindutako lanorduak zenbat eta gehiago izan, orduan eta handiagoa da maiztasun hori. Horrenbestez, astean 48 ordu baino gehiago lan egiten duten gizonen % 35ek eta emakumeen % 28k bakarrik esaten du aipatu nekea "inoiz ere ez" edo "oso gutxitan" izaten duela. Halaber, %30ek familiako erantzukizunei erantzuteko arazoak ditu lanagatik, eta % 14k dio lanean arreta jartzeko arazoak dituela familiako erantzukizunak direla eta.

2 Eusko Jaurlaritzaren 2011ko Lan Merkatuko Erroldaren datuak.

Ehuneko horiek asko aldatzen dira herrien arabera, eta aztertutako hiru adierazleetan Batasuneko batez bestekoa baino nahiko handiagoak dira Espainian (%69, 41 eta 21eko ratioak, hurrenez hurren). Europako herrialderik aurreratuenek, aldiz (Erresuma Batuak izan ezik), askoz egoera hobea islatzen dute bateratzeari dagokionez. Gainera, emaitza okerragoak dira, oro har, 2007ko inkestaren aldean, lana dela-eta familiako erantzukizunak betetzeko zailtasunak izan ezik; izan ere, horren garrantziak behera egin du herrialderik gehienetan (Espainian %57tik %41era).


EUROFOUNDek (bizi- eta lan-baldintzak hobetzeko Europako Fundazioa) gogorarazten du lan egiteko adina duen populazioak seme-alabak zaindu behar izaten dituela eta, gero, adineko pertsonak ere zaindu behar izaten dituela. Hori dela eta, bateragarritasuna eta horrekin lotutako arazoak, nola edo hala, lan egiteko adin osoa hartzen dute.

III.1.4. KOADROA. FAMILIA ETA LANA BATERATZEKO ZAILTASUNAK, HERRIALDEKA. DATUAK EHUNEKOETAN ADIERAZITA, 2007 eta 2012.

	LANA DELA ETA ETXEKO ZEREGINAK EGITEKO NEKATUEGI		LANA DELA ETA FAMILIAKO ERANTZUKIZUNAK BETETZEKO ZAILTASUNAK		FAMILIAKO ERANTZUKIZUNAK DIRELA ETA LANEAN ARRETA JARTZEKO ZAILTASUNAK	
	2007	2012	2007	2012	2007	2012
AUSTRIA	45	45	45	24	14	14
BELGIKA	37	49	37	28	8	12
BULGARIA	63	66	63	39	17	20
ZIPRE	69	75	69	52	8	23
TXEKIAR ER.	58	60	58	39	9	21
ALEMANIA	39	47	39	24	9	9
DANIMARKA	40	42	40	17	7	5
ESTONIA	61	64	61	32	12	10
GREZIA	72	73	72	48	20	20
ESPAINIA	57	69	57	41	16	21
FINLANDIA	44	46	44	17	7	8
FRANTZIA	47	56	47	26	7	12
HUNGARIA	62	59	62	39	17	23
IRLANDA	40	55	40	25	11	14
ITALIA	36	37	36	21	12	9
LITUANIA	53	43	53	32	15	11
LUXENBURGO	43	50	43	25	13	11
LETONIA	59	70	59	56	22	26
MALTA	58	64	58	36	8	17
HERBEHEREAK	37	36	37	18	6	6
POLONIA	56	61	56	45	18	26
PORTUGAL	46	49	46	27	15	17
ERRUMANIA	65	61	65	38	17	16
SUEDIA	46	54	46	24	5	7
ESLOVENIA	54	48	54	35	11	15
ESLOVAKIA	45	46	45	34	10	20
ERRESUMA BATUA	52	60	52	28	13	15
EB27	48	53	48	30	12	14

Iturria: EUROFOUND. Bizi Kalitatearen Europako II. Inkesta (EQLS), 2007 eta 2012.

III.1.3. GRAFIKOA.LANGILEEK ETXEKO LANETAKO JARDUERETAN EMANDAKO EGUNEKO ORDUAK, EZAUGARRIEN ARABERA, EAE, 2011.



Iturria.- EUSTAT.BKEI. 2011.

Bizi-kalitateari buruzko 2012ko Inkestaren emaitzen artean, azpimarratzekoa da Europako langileen % 22k adierazten duela ez dagoela pozik beren lanaren, bizitza pertsonalaren eta lanekoaren arteko orekarekin, % 6k uste du bere laneko ordutegia ez datorrela bat, inondik inora ere, bere familia eta gizarte bizitzarekin eta % 16k dio ez dela "oso ongi" moldatzen. Lanaren, bizitza pertsonalaren eta familiako bizitzaren artean duten oreka nahikotzat jotzen ez duten langileen proportzioa % 10etik (Danimarkan, Holandan eta Suedian) % 30etik gorakoa izateraino doa (Grezian, Lituanian eta Espainian).


Gainera, zuzeneko erlazioa aipatzen du laneko estatusaren eta pobreziaren artean lana-bizitzako "egokitzapenean", eta autoenplegatuak diren pertsonen %36k dio lana ez zaiola "ondoegi" edo "batere" lanetik kanpora dituzten betebeharrei moldatzen. Haien kargura langilerik ez duten autoenplegatuen %25ek edo soldatapekoen %21ek baino ez dute hori esaten.

III.1.5. KOADROA. ORDAINDUTAKO LANA ETA FAMILIA UZTARTZEKO ZAILTASUNARI BURUZKO BATEZ BESTEKO BALORAZIOA (GEHIENEZ 10), HAINBAT ALDAGAIREN ARABERA. 2011.

	Seme-alaba adingabeak zaintzearekin	Mendeko pertsonak zaintzearekin	Etxeko lanekin	Kudeaketa burokratikoekin	Jarduera pertsonalekin	Orokorrean
Adina						
16 - 24 urte	4,2	4,2	3,0	3,2	3,6	3,2
25 34 urte	4,5	5,1	3,6	3,5	4,1	3,7
35 - 44 urte	4,6	4,9	4,0	3,9	4,7	4,2
45 - 54 urte	4,0	4,2	3,6	3,6	4,1	3,7
55 eta gehiago	4,1	4,5	3,3	3,3	3,7	3,4
Sexua						
Gizonak	4,6	4,6	3,7	3,5	4,2	3,8
Emakumeak	4,2	4,4	3,5	3,7	4,2	3,8
Ikasketa maila						
Lehen mailakoak edo hortik beherakoak	4,2	4,6	3,6	3,4	4,1	3,7
Ertainak	4,4	4,3	3,6	3,5	4,1	3,7
Goi mailakoak	4,5	4,7	3,8	3,8	4,4	4,0
Lanbide egoera						
Enplegatzaileak	4,8	5,4	4,9	3,8	5,0	4,6
Autonomoak, famili laguntza eta beste egoera bat	5,0	4,4	4,1	3,7	4,6	4,2
Kooperatibetako kideak	4,5	4,7	3,8	3,6	4,7	4,1
Sektore publikoko soldatapekoak	3,9	4,3	3,2	3,4	3,7	3,4
Sektore pribatuko soldatapekoak	4,4	4,5	3,6	3,6	4,2	3,8
GUZTIRA	**4,4**	**4,5**	**3,6**	**3,6**	**4,2**	**3,8**

Iturria: EUSTAT. LBBI 2011.

III.1.4. GRAFIKOA. LANGILEEK BATERATZEAREN ARLOAN EMANDAKO DENBORAREKIN DUTEN GOGOBETETASUN MAILA, SEXUAREN ARABERA. EAE, 2011.



Iturria: EUSTAT. BKEI 2011.

Laneko ordutegian malgutasuna izatea zuzenean lotzen da bateratze hobearekin, halako moldez non sartzeko eta irteteko ordutegi malguak dituzten langileetatik %33k dio lana eta familia eta norberaren bizitza "oso ondo" moldatzen direla. Malgutasun hori ez dutenen artean, berriz, portzentaje txikiagoa da, %21ekoa hain zuzen.

EAEn, inkesta bat jarri zuen abian EUSTATek 2010ean, EAEn bizi diren eta lanean ari diren familiek lana familiarekin eta norberaren bizitzarekin bateratzeko dituzten posibilitateak aztertzeko. Urtero egiten den "*Lana, Norberaren Bizitza eta familia bateratzeari buruzko inkestak*" (LBBI) 2011ko datuen emaitzak aurkeztu zituen 2012an.

Lehenengoz, nabarmena da emakumeek seme-alaba adingabeen eta mendeko pertsonen zaintzan ematen dituzten orduak gizonek ematen dituztenak halako bi direla ia-ia. Alde honetan, emakumeen ustez zailtasun txikiagoa dago ordaindutako lana familiarekin eta eremu pertsonalarekin uztartzeko, eta beharbada horregatik, ia gizonen bi halako ordu kopurua ematen dute seme-alabak eta mendekotasunean diren pertsonak zaintzen. Gizonek egunean 2,8 ordu ematen dituzte adingabeen zaintzan; emakumeek, aldiz, 4,7 (2010eko ordu kopuru bera). Diferentzia hori gertatzen da berriz ere mendekoen zaintzan: gizonek 1,6 ordu ematen dituzte egunean (1,9 ordu 2010ean) eta emakumeek 2,8 ordu egunean (4,3 ordu 2010ean).

Inkestak, era berean, agerian uzten du bereganaturiko kargen desberdintasun horrek eragina duela bizitza pertsonalean, aisialdian edo prestakuntzarako dagoen denboran, zeren eta, 0tik 10erako eskala batean, 5,7ko betetasun maila adierazten baitute emakumeek eta gizonezkoek, berriz, 6,1ekoa. Betetasun txiki hori familia eratzen ari deneko adinetan metatzen da, 35 urtetik 44 uretara, non betetasun maila 5,5ekoa den. Ondorengo adinetan, handiagoa da.

Bestalde, EAEn lanean ari diren askok dio zailtasunak dituela lana eta mendeko senideak zaintzea uztartzeko. 0tik 10erako eskalan, 2011n 4,5eko zailtasun-maila adierazten dute (4,6koa gizonen kasuan eta 4,4koa emakumeen kasuan).

Zailtasun hori 4,4ko batez besteko mailakoa da, seme-alaba adingabeak zaindu behar direnean, eta 3,6koa da etxeko betebeharrak egin behar direnean.

Enplegatzaileek eta autonomoek gainerako landunek baino pixka bat zailtasun gehiago dituzte lana eta familia uztartzeko. Bada, lehenengoek 4,8ko zailtasun-maila aitortzen dute eta bigarrenek 5ekoa seme-alaba adingabeak zaintzeko betebeharrei dagokienez, eta 5,4koa eta 4,4koa, hurrenez hurren, lana eta menpeko pertsonen zaintza bateratzearekin lotuta.

Orokorrean, Euskal EAEko landunen ordaindutako lana eta norberaren bizitza eta familia uztartzeko zailtasun maila 3,8 puntukoa da (3,3 zen 2010ean; eta 10 puntu izango lituzke uztartzeko bat ere aukerarik ez duen pertsonak). Landunek uztartzeko zailtasun handiena duten elementua mendekotasuna dutenak zaintzea da (4,5 puntu) eta jarraian seme-alaba adingabeak zaintzea (4 puntu).

Enpresan edo erakundean zenbait baimen eskateko zailtasun mailari dagokionez, EUSTATen inkestan agerian utzi du lanean ari direnen batez besteko zailtasun maila: 10etik 3,1ekoa, eta 2,1ekoa besterik ez lanera ez joateko, norberaren gaiak konpondu ahal izateko. Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzea erraztu dezaketen neurrien artean, lanaldi murrizketak 3,6ko batez besteko zailtasuna du, ondoren eszedentziek (3,5) eta lan eta soldatarik gabeko egunek, 10etik 3,2 hain zuzen. Oro har, ez da alde handirik ikusten sexuen arabera, kasu batean izan ezik: gizonek lanaldia murrizteko (gizonek 3,8 eta emakumeek 3,3,) eta eszedentziak eskatzeko (3,6

gizonentzat eta 3,3 emakumeentzat) zailtasun handiagoak adierazten dituzte). Seguruena, gainera, adinak eta lanpostuko antzinatasunak murriztu egiten dituzte aipaturiko uztartze neurriak lortzeko zailtasunak.

Azkenik, ordutegi motei eta malgutasunei dagokienez, EAEko langileen %17,4k lanaldia luzatu behar du ia egun guztietan. Egoera hori jasaten dute enplegatuen %40,8k eta autonomoen %37k. Irteteko ordutegi malgua, hobeto bateratzeko beste tresna osagarria, langileen %36,1ek erabiltzen du (%42,1ek 2010ean), eta emakumeek (%32,6) gizonezkoek (%39,1) baino gutxiago. Norberaren etxean lan egiteari dagokionez, %8,1ek lantzean behin egiten du lan etxean eta %5,3k egun erdiak gutxienez. Lana duten zazpi pertsonetatik batek, oro har, etxean egiten du lan maiztasun ezberdinekin.

Azkenik, Lan eta Immigrazio Ministerioaren "Laneko bizi-kalitateari buruzko inkestak" (2010) agerian jartzen duenez, landunek seme-alaba adingabeak zaintzen igarotzen duten denborarekiko gogobetetzearen batez bestekoa alderatzen badugu, EAEn 6,3 puntu ditugu eta Estatu Espainiarreko gogobetetze mailaren apur bat gainetik dago, 6,5ekoa baita estatuan dagoen gogobetetzea. Seme-alabak zaintzen igarotzen duten denborarekin EAEko landunen artean dagoen gogobetetze maila gainditzen duten bakarrak Aragoi, Galizia eta Madril dira. Gogobetetze handiago hau ikusten da azterketan sexuaren aldagaia sartuz gero ere; EAEko gizonek 6,2 puntu ematen dizkiete seme-alabei eskaintzen dien denborari eta Estatukoak 6,4an geratzen dira. Euskal emakumeak 6,5 puntura iristen dira eta autonomia-erkidego guztiak hartuz gero 6,7ra iristen dira.

Betetasun txikiago hori ez dator bat EAEko langileek baimen mota ezberdinak eskatzeko dituzten zailtasun txikiagoekin, Estatuko eta autonomia erkidego gehienetako batez bestekoarekin alderatuta. EAEko langileek batez beste 2,7ko zailtasuna adierazten dute lan eta soldatarik gabeko egunak eskatzeko familiagatik; Estatuaren babeste bestekoa, berriz, 3,5 da (eta 4,5erainoko zailtasuna Kanarietan, adibidez); eszedentziak eskatzeko zailtasuna 2,8 da EAEn eta 3,9ko batez bestekoa Estatuan, eta 2,9koa lanaldi murrizketetarako (4,1 Estatuan). Azkenik, lantzean behin norberaren gaietarako lanera ez agertzeko batez besteko zailtasuna 2,4koa da 10etik EAEn. Estatuan, berriz, 3,3koa da.

III.1.6. KOADROA. ENPRESAN BATERATZEAREKIN LOTUTAKO ZENBAIT BAIMEN ESKATZEKO LANGILEEK DUTEN BATEZ BESTEKO ZAILTASUN MAILA. 2010.

	LAN ETA SOLD. GABEKO EGUNAK	ESZEDENTZIA	LANALDI MURRIZKETA	LANERA NOIZEAN BEHIN EZ AGERTZEA
ANDALUZIA	3,4	4,2	4,4	3,7
ARAGOI	3,8	4,2	4,6	3,7
ASTURIAS	2,7	3,3	3,4	2,2
BALEAREAK	4,3	4,5	4,4	4,5
KANARIARRAK	4,5	4,1	4,8	4,3
KANTABRIA	3,4	3,7	4,0	3,2
G. MANTXA	4,0	4,0	4,4	3,6
G. ETA LEON	3,6	3,8	3,9	3,4
KATALUNIA	3,6	4,2	4,4	3,3
VALENTZIAKO E.	2,9	3,1	3,6	2,8
EXTREMADURA	3,0	3,2	3,7	2,4
GALIZIA	3,4	3,7	3,8	3,2
MADRIL	3,7	4,0	4,4	3,5
MURTZIA	3,8	4,0	4,2	3,6
NAFARROA	3,7	4,4	4,5	3,1
EAE	2,7	2,8	2,9	2,4
ERRIOXA	2,5	2,7	2,9	2,4
GUZTIRA	**3,5**	**3,9**	**4,1**	**3,3**

Iturria: MESS. Laneko bizi-kalitateari buruzko 2010eko inkesta.

III.1.7. AZKEN URTEAN FAMILIEI LAGUNTZEKO NEURRIETAKO BAT ERABILI DUTEN FAMILIAK (SEME-ALABENGATIKO LAGUNTZAK BARNE), FAMILIABURUAREN EZUGARRIEN ARABERA. 2006-2010.

		2006		2010	
		Eragina	% bertikala	Eragina	% bertikala
Sexua	Gizona	12,5	90,3	9,9	91.4
	Emakumea	3,8	9,7	2,6	8.6
Adina	< 35 urte	21,7	22,4	18,8	21.3
	35-44 urte	34,0	65,1	26,2	67.9
	45-54 urte	5,9	11,1	3,2	8.1
	55-64 urte	0,3	0,6	0,6	1.2
	65-74 urte	0,3	0,4	0,4	0.8
	> 75 urte	0,2	0,4	0,3	0.7
Nazionalitatea	Estatua	9,8	93,2	7,6	90.9
	Beste bat	22,1	6,8	16,7	9.1
GUZTIRA		10.2	100,0	8,0	100,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte premiei buruzko 2010eko inkesta.


1.3. FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKA PUBLIKOAK

Azaldutako egoera horiek arintzeko, familiei laguntzeko planak abiarazi zituen Eusko Jaurlaritzak 2002an, zertarako-eta familiek seme-alaba kopurua askatasunez erabakitzea galarazten duten eragozpen ekonomikoak eta gizarte eta laneko eragozpenak gainditzeko. Hala, Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen 2008an, eremuari lerrun juridiko handiagoa emateko eta famili politika integralerako oinarriak ezartzeko, betiere familien eta familiako kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetze aldera.

Familientzako zuzeneko laguntzak 2002an hasi ziren I. Famili Planarekin. Harrezkero, 2012ra arte, 500 milioi euroko gastuak izan dira laguntza horietan, gutxi gorabehera erdibana banatuta jaiotza, adopzio edo aurre-adopzioko harrerarako laguntzen eta uztartzeko laguntzen artean.

Memoria hau amaitu den egunean, ez dugu behin betiko datuen berri, baina 2012rako aurrekontuetan ezarritakoaren arabera, 57,4 milioi euro erabili dira familientzako diru-laguntzak finantzatzeko. Horietatik 30,04 bateratzeko laguntzak ordaintzeko erabili dira, eta 27,44 seme-alaben jaiotza edo adopzioagatiko laguntzetarako.

III.1.5. GRAFIKOA. SEME-ALABEN JAIOTZA EDO ADOPZIOGATIKO LAGUNTZAK EAE-N. ESKABIDEEN ETA GASTUAREN BILAKAERA, MILA EUROTAN




Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

2010ean, bestalde, Familiei Laguntzeko Planaren laguntzak baliatu dituzten familien ezaugarriak jakin ziren, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte premiei buruzko inkestan oinarrituta. Inkesta horrek dioenez, 2010ean laguntza horiek guztira 65.523 familiak lortu zituzten, EAEn daudenen %8k. Zifra horrek familien kopuruaren %10,2ko beherakada agertzen du, 2006ko familia onuradunekin alderatuta.

Familia horien ezaugarriak kontuan hartuta, nabarmentzen dira gizon bat buru dutenak, guztien %91,4, eta 45 urtetik beherako pertsonak buru dituztenak, adin horietan baitaude laguntza guztien %89,2, %67,9 soil-soilik 35 eta 44 urte bitarteko pertsonen familiei buruz.

Laguntza horien onuradunak aktibo guztiak okupatuta dituzten etxekoen unitateak dira nabarmendu behar den funtsezko alderdi bat (aintzat hartutako laguntzak jaso dituzten etxeko unitateen %81,2 dira etxekoen unitate horiek). Gainera, laguntzetara jotzen duten etxekoen unitateen kopurua jaitsi egiten da lan egonkorreko moduetatik gehiago aldatzen diren neurrian. Izan ere, aktibo guztiak landun egonkorrak diren etxekoen unitateetan %12,6k jotzen du laguntza horietara, baina proportzioa %8,7 da aktibo landunak dituzten baina horietakoren bat egoera ezegonkorrean dauden familien unitateetan, %7,7 langabeak eta landunak dauden (nahiz eta horietakoren bat modu egonkorrean) familien unitateetan, eta %6,9 langabeak eta landun ezegonkorrak dauden familien unitateetan.

III.1.6. GRAFIKOA. BATERATZE-NEURRIAK BALIATZEN DITUZTEN FAMILIEN BANAKETA, HILEKO SARRERA GARBIEN ARABERA. EAE. 2002-2009KO ALDIA.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Politiketarako Saila.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 2002 eta 2009 bitartean laguntza mota hori baliatu zuten familiengandik jasotako informazioa abiapuntu hartuta 2011n eginiko "*Familia eta lan bizitza bateratzeko neurriei buruzko azterlan longitudinaletik",* intereseko zenbait datu atera daitezke.

- Lehenik eta behin, indarreko neurrietatik lanaldi murriztua da gehien erabiltzen dena, eskaturiko laguntzen %72,9 neurri horretarako baita; eszedentzietarako, berriz, %26,4.

- Gainera, bateratze-neurri horiek gizonentzat nahiz emazkumeentzat diren arren, eskatzaileen %94,5 emakumezkoak izan dira. Laguntza motaren arabera, eszedentzia eskatu duten pertsonen %96,9 emakumeak ziren, eta %93,8ko ratioa da lanaldi murrizketarako. Bestalde, emakumeek hartzen dute zaintzaileak kontratatzeko laguntzen eskabideen %65,1 (2007. urtean ezarriak). Gainera, azterlanean nabarmentzen denez, urteen poderioz ez da aldatzen bateratzeko laguntzetan emakumeak nagusi izateko joera, baizik eta denboran konstante eutsi zaion aldagaia da, salbu eta 2007an, arestian esan den legez, zaintzaileak kontratatzeko laguntza abiarazi zenean; gizonek bai eskatzen dute laguntza hori.

- Erabilitako eszendentziaren batez besteko denbora 832,65 egun da (bi urte baino pixka bat gehiago) seme-alabak zaintzeko eta 1.239,44 egun (3 urte eta 4 hilabete) lanaldi murrizketarako.

- Laguntzak baliatu dituzten pertsonen %20,2k administrazioan edo enpresa publikoan egiten du lan, eta gainerako %79,8k enpresa pribatuan. Hauexek dira laguntza horiek baliatzean langileek dituzten enpresen ezaugarriak: 250 langiletik gorako (guztizkoaren %36,8) edo 25 langiletik beherako enpresak (%30,5). Gehienbat jarduera horien aritzen dira: gizarte eta zerbitzu jarduerak (guztizkoaren %25,3), ibilgailuen salmenta/konponketa (%18), hezkuntza (%9,5), osasunekoak (%9,1), Administrazio publikoa/defentsa eta gizarte segurantza (%6,6) eta metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa (%5,9).

- Bateratze-neurriak baliatzen dituen pertsonaren hileko diru-sarrera garbiak 2.000€-tik beherakoak dira talde horretakoen %91,3rentzat. Bateratze-neurriak baliatzean, elkarrizketaturiko pertsonen %45 diru-sarrera pertsonalen 1.100 eta 1.500€ birtartean zegoen. %45,6, berriz, aurreko tartean dago, hilean 1.000€ eurotik beherakoen artean. Gainera, norberaren diru-sarreretan jaitsiera nabarmena dakar bateratze-neurriak baliatzeak, eta kasu askotan, urteetako galera izaten da.

- Alabaina, grafikoak dakarrenez, familia gehienek, bateratzeko laguntzak jasotzean, hilean 1.600 eurotik gorako diru-sarrerak dituzte, eta batez bestekoa 2.100 eta 3.000 € bitartean dago

kokaturik, EAEko batez besteko famili errentaren inguruko diru-sarrerak.

Azkenik, 2011ko abenduan EAEko Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Plana onetsi zen 2011-2015 aldirako eta, gutxi gorabehera 674,6 milioi euroko aurrekontua izanik, familia politiken gaineko zeharkakotasun handiagoa eman zaio aurreko bi planekin alderatuta. Hartara, sailen eta erakundeen arteko lana indartu da.

Dagoeneko ezarrita dauden neurriak nahiz beste berri batzuk modu bateratuan antolatu nahi dira, oinarri honen pean: lana, bizitza familiarra eta pertsonala bateratzeak familiako eta gizarteko kide guztien parte-hartzea behar duela, guztiok baitugu nolabaiteko erantzukizuna.

Memoria hau amaitu dugun egunean, ez dugu Planaren ondorioz 2012an eginiko jarduketei buruzko informaziorik.

III.1.8. KOADROA. EAE-KO III FAMILI PLANA (2011-15): ILDO ESTRATEGIKOAK ETA GASTU-AURREKONTUA (MILIOI EUROTAN).


Ildo estrategikoak	Gastua (mil. €)
Familiei laguntzeko eta horien autonomia errazteko zerbitzuak, neurriak eta politikak indartzea	607,4
Familien jabekuntza, gizarte sentsibilizazioa eta prebentzioa bultzatzeko politika eta gizarte ekintzen gizarte balioa sustatzea eta ezagutaraztea	57,2
Sailen arteko eta erakundeen arteko koordinazioa familiei laguntzeko politiketan eta gizarte partaidetzaren garapena	1,1
Jarduteko paradigma eta eremu berriak familiei laguntzeko politiketan eta neurrietan	8,7
GUZTIRA	**674,6**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA, Enplegu eta Gizarte Politiketarako Saila.

2. BIZI-BALDINTZAK

Gizarte bazterkeriaren arazoa egungo gizarteetan jazotzen ari den egoera bat da. Erakundeek eta ikertzaileek urte askotan erabili duten "pobrezia" kontzeptuak ez ditu barne hartzen guztiz gizarte bazterkeriaren egoera eta horrek dakartzan dinamikak. Horregatik, azken bi hamarkadetan adostasun handia dago gizarte arloko ikertzaileen eta kudeatzaile publikoen artean, pobreziaren kategoria "gizarte bazterkeria" kategoriara zergatik zabaldu den azaltzean: pobrezia ekonomikoaren ideia hertsia gainditu delako, eta, batez ere, egungo gizartean aldaketa sakonak jazo direlako, aurrerapen teknologikoek, bizimodu aldaketek eta bidean diren gizarte arloko aldaketek eraginda.

III.2.1. GRAFIKOA. POBREZIA ETA BAZTERKETA JASATEKO ARRISKU-TASAREN ETA BERE HIRU OSAGAIEN BILAKAERA EUROPAR BATASUNEAN (27-EB)



Iturria: EUROSTAT.

Europar Batasunean, gaur egungo krisiak modu larrian eragiten die jarduera ekonomikoari eta enpleguari. Langabezia maila kezkagarriekin, barneko eskaria nabarmen jaitsi da eta merkatuen konfiantza oso hondatuta dago[1]. Horren ondorioz, pobrezia edo gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden europarren kopuruak gora egin du nabarmen (6 milioi pertsona) 2008 eta 2011 artean. Egoera horretan dago gaur egun biztanleriaren %24,2, edo beste modu batean esanda, ia-ia 120 milioi europar, Europa Estrategia 2020[2] delakoan "AROPE Tasa" izenaz (population at risk of poverty and exclusion) ezagutzen den horretan ezarrita dauden irizpideen arabera. 2011n, arrisku mailarik handienak Bulgarian (biztanleriaren %49), Errumanian eta Letonian (biak %40rekin), Lituanian (%33), Grezian eta Hungarian (biak %31rekin) erregistratu ziren. Aldiz, mailarik txikienak Txekiar Errepublikan (%15), Holandan eta Suedian (biak %16rekin), Luxenburgon eta Austrian (biak 17rekin).

2010arekin alderatuta, deigarria da batez besteko tasak Batasunarentzat 8 hamarren gora egin arren, krisiaren eraginak bereziki jasan dituzten eta arrisku-ratio oso handiak dauzkaten herri batzuetan, adibidez Polonian, Portugalen eta Erresuma Batuan, pobrezia eta bazterkeria arriskuaren eraginak behera egin izana. Portugalen ia puntu bat egin du behera (%25,3tik %24,4ra jaitsi da). Ez da hori izan Espainiaren kasua. Bertan, 2011n %27ko tasa mantendu da, aurreko urtean baino ehuneko 1,5 puntu gehiago.

EAEn, 2011n, pobrezia eta bazterkeria arriskuak (EUROSTATen eta INEren metodologiaren arabera) biztanleriaren %16ri eragiten dio (2010ean baino ehuneko puntu erdi gehiago) edo, beste era batera esanda, ia-ia 350.000 pertsonari. Maila hori txiki samarra da, eta Suedia, Holanda edo Luxenburgo bezalako herrien egoerarekin konparatu ahal da.

Adierazle hori osatzen duten elementuetako bakoitzari erreparatuta, lehenengoz, EBko biztanleriaren %16,9 2011n gizarte transferentzien ondoren pobrezia arriskuan zegoen, kontuan hartuta herri bakoitzean diru-sarrerak kontsumo unitate bakoitzeko sarreren banaketaren medianaren %60an ("pobrezia atalasea" izenekoan) daudenean hasten dela egoera hori. Ehuneko horrek 5 hamarren gora egin du 2011n, eta bereziki handia da Bulgarian, Errumanian eta Espainian (%22 inguru, %21,8 Espainian).

Bigarrenez, europarren %9k 2011n gabezia material larria jasan du. Alde horretatik, euren bizi-baldintzetan baliabide-faltaren eraginak jasaten dituzte, adibidez fakturei aurre egiteko, etxea bero mantentzeko edo urtean astebeteko oporraz gozatzeko[3] ahalmena. Gabezia horren eraginean osoa aldaketa handiak daude

1 EUROPEAN COMMISSION. EU Employment and Social Situation. Quarterly Review, dec. 2012.

2 "Europa 2020" Estrategiaren ondorioetarako, pertsona bat pobreziako eta gizarte bazterkeriako arriskuan dago langabezia arazoak dituen edo lan intentsitate oso baxua duen familia unitate batean badago, gizarte transferentzien ondoren pobrezia arriskuan badago eta/edo gabezia material larria jasaten ari bada.

3 Zehazki, EUROSTATek uste du gabezia material larria jasaten dela bederatzi item hauetako lau gutxienez gertatzen badira: fakturak garaiz ezin ordaintzea, etxebizitza behar bezala bero ezin mantentzea, ustekabeko gastuei ezin aurre egitea, haragia, arraina edo proteina baliokideak bi egunean behin ezin jatea, urtean astebeteko oporraz ezin gozatzea, autoa, garbigailua, koloreko telebista edo telefonoa (mugikorrak barne) ezin edukitzea.

Batasuneko herrialdeen artean, Luxenburgoren edo Suediaren %1etik Bulgariaren %44ra edo Letoniaren %31ra. Espainiak %3,9ko eragina jasaten du, txiki samarra Batasun osoan.

Azkenik, Europako biztanleriaren %10 lan-intentsitate oso txikiko familietan bizi dira. Halakotzat jotzen da etxeko pertsona helduek azken urtean beren LAN AHALMEN OSOAREN %20 baino gutxiago lan egin dutenean. Belgikak ratiorik handiena dauka (%14) eta Ziprek txikiena (%5). Espainia rankingaren goiko aldean dago, %12,2rekin.

Batasuneko gizarte egoerari buruzko azken azterketetan, Europako Batzordeak nabarmendu egun du pobrezia edo gizarte bazterkeria jasateko arriskua gizartean ez dela modu uniformean handitu. 2008aren eta 2011ren artean haurren txirotasuna 27 estatu kideetako 18tan handitu da, eta batzuetan oso modu kezkagarrian. Horren adibide dira Irlanda, Hungaria, Letonia eta Bulgaria. Haurren bizi-baldintzak neurri handi batean daude pertsona helduen lan-egoeraren menpe, eta hain zuzen ere, lan egiteko adinean dauden pertsonak dira krisiaren eragina modu zuzenagoan jasaten ari direnak. Kalkuluen arabera, Europar Batasunean kolektibo honen pobrezia eta bazterkeria arriskuak 2008tik 2011ra ehuneko 1,5 puntuko igoera izan du.

Nabarmentzekoa da ere, aldi horretan bertan, herrialderik gehienetan adinik handieneko pertsonentzat pobreziaren eta bazterkeriaren arrisku tasek behera egin dutela. Euren egoeraren itxurazko hobekuntza justifikatuta dago pentsio gehienak ez direlako aldatu krisian zehar, eta are gehiago, pentsiodunen diru-sarrerak apur bat igo ahal izan dira, kasu batzuetan herrialde batzuetako eta besteetako pobrezia atalaseekin alderatuta, errentaren banaketan gertatutako aldaketen ondorioz, egoera ekonomikoa kopuru errealetan aldatu ez arren.

Jarraian EAEko bizi baldintzen eta pobrezia eta gizarte bazterkeriaren egoeraren deskribapen laburra aurkeztuko da, INEren *Bizi-baldintzei buruzko Inkesta*ren 2011ko emaitzetan eta Eusko Jaurlaritzaren 2012ko *Pobreziari eta Gizarte Arloko Desberdintasunen Inkestaren* emaitzetan oinarrituta. Gero, Gure Erkidegoan adineko pertsonen bizi baldintzak deskribatzen dira, Memoria Sozioekonomikoaren edizio honetan interes bereziko kolektiboa direlako.

III.2.1. KOADROA. POBREZIA EDO GIZARTE BAZTERKERIA ARRISKUAN DAGOEN EUROPAKO BIZTANLERIA, "EUROPA 2020" ESTRATEGIAREN IRIZPIDEEN ARABERA

	EHUNEKOA		ABSOLUTUAK (MILIOIAK)	
	2010	2011	2010	2011
27-EB	23,4	24,2	115,5	119,6
BELGIKA	20,8	21,0	2,2	2,3
BULGARIA	41,6	49,1	3,1	3,7
TXEKIAR ERREPUBLIKA	14,4	15,3	1,5	1,6
DANIMARKA	18,3	18,9	1,0	1,0
ALEMANIA	19,7	19,9	16,0	16,1
ESTONIA	21,7	23,1	0,3	0,3
IRLANDA	25,7	:	1,2	:
GREZIA	27,7	31,0	3,0	3,4
ESPAINIA	25,5	27,0	11,7	12,4
FRANTZIA	19,3	19,3	11,8	11,8
ITALIA	24,5	:	14,7	:
ZIPRE	22,2	23,5	0,2	0,2
LETONIA	38,1	40,1	0,9	0,9
LITUANIA	33,4	33,4	1,1	1,1
LUXENBURGO	17,1	16,8	0,1	0,1
HUNGARIA	29,9	31,0	2,9	3,1
MALTA	20,6	21,4	0,1	0,1
HOLANDA	15,1	15,7	2,5	2,6
AUSTRIA	16,6	16,9	1,4	1,4
POLONIA	27,8	27,2	10,4	10,2
PORTUGAL	25,3	24,4	2,7	2,6
ERRUMANIA	41,4	40,3	8,9	8,6
ESLOVENIA	18,3	19,3	0,3	0,4
ESLOVAKIA	20,6	20,6	1,1	1,1
FINLANDIA	16,9	17,9	0,9	0,9
SUEDIA	15,0	16,1	1,4	1,5
ERRESUMA BATUA	23,1	22,7	14,2	14,0
EAE	15,5	16,0	0,33	0,35

Iturria: Geuk egina EUROSTATen eta INEren datuekin.

2.1. BIZI-BALDINTZAK EAE-N.

2.1.1. 2011ko Bizi-baldintzen Inkestaren emaitzak. 2012ko aurrerapena.

INEren Bizi-baldintzei buruzko Inkesta Europar Batasunak Errentari eta Bizi-baldintzei buruz dituen estatistikak bateratzeko prozesuaren barruan sartzen da; "*Statistics on income and living conditions*" (EU-SILC) deritzo inkesta horri. Helburu nagusi horietako bat pobrezia eta gizarte bazterkeria aztertzea ahalbidetzen duen informazioa ematea da. Askotariko informazioa ematen du; etxebizitzari, etxebizitzak dakartzan gastuei, sarrerei, etxeko ekipamenduari, egoera ekonomikoari, helduen jarduerari, osasunari, osasun laguntza eskuratzeari eta hezkuntzari buruzko datuak eta datu biografikoak biltzen ditu.

2011ko inkestaren emaitzek, lehenik eta behin, agerian jartzen dute etxeko batez besteko errenta 2010ean EAEn 30.788 eurokoa zela (2009. urtean baino

%1,1 gehiago), Estatuko batez bestekoa -25.094 euro-baino %22,7 handiagoa (Estatuan %3,6 egin du behera 2009arekin alderatuta). EBn, aldi horretan bertan familien errentaren aldaketa +%0,8koa izan zen. EAEko datua Nafarroako Komunitateak soilik gainditzen du (batez besteko sarrerarik handiena du etxeko, 31.825 euro). Aurreko urtearekin alderatuta, Madril rankingaren hirugarren postuan geratu da (29.746€).

Gainera, Inkestaren arabera, pertsonako batez besteko errenta EAEn urtean 12.435 euro izan zen (aurreko urtean baino %1,9 gehiago), eta kasu honetan Nafarroako Komunitateak bakarrik gainditzen du: Estatuko batez bestekoa baino %31,6 gehiago. Rankingaren beste muturrean, bi aldagaietarako eta aurreko urteetan bezala, Extremadura, Gaztela-Mantxa, Kanariak, Murtzia eta Andaluziako erkidegoak daude.

Aurreko urtearekin alderatuta, erkidego guztietan jaitsi dira batez besteko errentak, EAEn, Asturiasen, Kanarietan eta Extremaduran izan ezik. Horietan, beraz, aurreko urteko jaitsieretatik suspertu dira, behintzat zati batean.

Etxeetako bizi-baldintzak eta errenta maila erakusten dituen beste adierazle bat hilearen amaierara iristeko zailtasunak dituztenen ehunekoari buruzkoa da: egoera horrek 2012. urtean (behin-behineko datuekin) gure erkidegoko familien %37,9ri eragiten zion, aurreko urtean baino 1,3 hamarren gutxiago. Estatuan batez bestekoa %60,3 da, eta ehuneko 5 puntu igo da 2011rekin alderatuta.

III.2.2. KOADROA. URTEKO BATEZ BESTEKO ERRENTAREN BILAKAERA, ETXEKO ETA PERTSONAKO ETA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2009-2010. EUROAK.

	BATEZ BESTEKO ERRENTA ETXEKO			BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONAKO		
	2009	2010	% Ald.	2009	2010	% Ald.
ESTATUKO BATEZ BEST.	26.033	25.094	-3,6	9.737	9.446	-3,0
ANDALUZIA	22.754	21.732	-4,5	8.035	7.753	-3,5
ARAGOI	26.634	26.241	-1,5	10.422	10.161	-2,5
ASTURIAS	26.285	27.248	3,7	10.400	10.865	4,5
BALEARRAK	25.859	25.395	-1,8	10.164	9.934	-2,3
KANARIAK	22.397	22.820	1,9	8.108	8.340	2,9
KANTABRIA	26.630	24.849	-6,7	9.972	9.555	-4,2
GAZTELA ETA LEON	24.888	23.534	-5,4	9.885	9.563	-3,3
GAZTELA-MANTXA	23.356	22.200	-4,9	8.565	8.208	-4,2
KATALUNIA	27.834	26.418	-5,1	10.605	10.101	-4,8
VALENTZIAKO E.	24.982	23.596	-5,5	9.631	9.052	-6,0
EXTREMADURA	19.858	20.600	3,7	7.245	7.756	7,1
GALIZIA	26.139	24.475	-6,4	9.716	9.182	-5,5
MADRIL	30.468	29.746	-2,4	11.332	11.046	-2,5
MURTZIA	22.200	21.421	-3,5	7.629	7.536	-1,2
NAFARROA	34.409	31.825	-7,5	13.179	12.248	-7,1
EAE	30.456	30.788	1,1	12.203	12.435	1,9
ERRIOXA	25.420	23.025	-9,4	9.697	9.261	-4,5

Iturria: INE. Bizi Baldintzen Inkesta.

III.2.3. KOADROA. ZAILTASUN MATERIALAK DITUZTEN ETA/EDO ZENBAIT GASTU EZIN EGIN DITUZTEN FAMILIEN EHUNEKOA. KONPARAZIOA EAE-ESTATUKO BATEZ BESTEKOA.

	OPORRIK EZ GUTXIENEZ URTEAN ASTEBETE		HILAREN AMAIERARA HELTZEKO ZAILTASUNAK		ATZERAPENAK ETXEBIZITZA NAGUSIAREN ORDAINKETETAN*		USTEKABEKO GASTUEI AURRE EGITEKO EZINTASUNA	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE
2005	40,4	27,2	58,3	48,3	4,7	3,5	33,8	24,0
2006	38,3	22,3	60,1	47,2	4,9	4,9	31,2	18,9
2007	35,8	19,2	56,7	47,0	5,2	4,6	30,5	19,4
2008	33,5	14,6	59,9	41,7	5,4	3,2	28,1	15,8
2009	38,9	20,6	59,0	43,4	7,2	2,4	34,0	20,5
2010	39,7	20,4	58,8	39,3	7,7	3,4	36,7	19,0
2011	38,9	25,4	55,3	39,2	6,2	4,2	35,9	20,9
2012p	44,5	22,6	60,3	37,9	7,4	2,7	40,0	18,2

** Etxebizitza nagusiarekin lotutako gastuen ordainketetan (hipoteka edo alokairua, gasaren, erkidegoaren, etab.en ordainagiriak,...) atzerapenak izan dituzte azken 12 hilabeteetan.*
Iturria: INE. Bizi Baldintzen Inkesta.

Gainera, kontuan hartu behar da hilaren amaierara iristeko zailtasunak aitortzen dituzten euskal familien %37,9tik %16,6k "zailtasun handiak" dituela (%15 2011n), eta %25,3k soilik "zailtasunak". Gainerako %58k "zailtasun batzuk" zeuzkan. Banaketa hori antzekoa da Estatu osoan, baina zailtasun mailarik handienak eragin handiagoa dauka, %21 ingurukoa baita.

Horrez gain, hainbat gastu eduki ezin dituztela dioten familien ehunekoa kalkulatzen du inkestak: Euskal familien %22,6k ezin du urtean astebeteko oporraldirik hartu (behin-behineko datuak) (Estatuan %44,5ek) eta %18,2k ezin die ustekabeko gastuei aurre egin (Estatuko batez bestekoa %40 da). Ratio horrek ehuneko 2,7 puntu egin du behera 2011rekin alderatuta.

Europan, ikus daiteke 2011n EB27ko familien %37,5ek ezin ziela ustekabeko gastuei aurre egin, %9,8k ezin zuela etxebizitza tenperatura egokian mantendu, eta %11,4k azken urtean etxebizitza nagusiarekin lotutako ordainketei aurre egiteko arazoak izan zituen. Herrialdeen arteko aldeak handiak dira, eta nabarmentzekoa da bizi mailaren okertzea Bulgarian, Letonian, Lituanian eta Hungarian (%60 eta %80 artean) ustekabeko gastuen aldetik, eta Grezian eta Errumanian (laurak %30etik gorako ratioekin), berriro ere, etxearen mantentzean.

Ildo beretik, "*gabezia materialaren indizea*" zehaztu du EUROSTATek, sarreran aipatutako bederatzi gastu eta ekipamenduko zerrendatik gutxienez hiru ezin eskura ditzaketen pertsonen kopuruak emanda: INEk ematen dituen lau gastu kontzeptuez gain, hipoteka gastuak egunean izatea eta garbigailua, koloreko telebista, telefonoa eta autoa edukitzea sartzen dira. Definizio horren arabera, EBko biztanleen %18,2k ezin balia zitzakeen zenbait gauza 2011. urtean, eta alde handiak daude herrialdeen artean, gehienbat EBko kide berrien eta gainerakoen artean. Alde batetik, biztanleen %4 baizik ez dago egoera horretan Suedian eta Luxenburgon, eta %10etik behera Europako herrialdeetan eta Holandan (Espainiak %11,6ko ratioa dauka). Bulgarian, aldiz, biztanleen %60k gutxi gorabehera ezin ditu zenbait gauza baliatu, eta %50ek Letonian eta Errumanian.

INEk, Bizi-baldintzen Inkestako zati gisa, Autonomia Erkidegoen arabera eta 2010az geroztik, antzeko adierazlea kalkulatu zuen. Adierazle horretarako, gastuaren eta ekipamenduaren zazpi kontzepturen gabezia kontuan hartu zen, eta adierazle horren arabera, 2011n, EAEk %9,1eko gabezia indizea zuen (7 kontzeptuetatik 3 gutxienez falta dituzten familiak), eta Estatuko batez bestekoa %12,3 zen –EUROSTATen indizea %11,6 da-. Hortaz, adierazle biak –Europakoa eta Espainiakoa- konparagarritzat jo daitezke, azaldu diren oharrak kontuan hartuta.

Azkenik, Bizi-baldintzen Inkestan, pobreziari buruzko azalpen-azterketa egiten da (hots, moneta pobrezia erlatiboa) eta horretarako, biztanleria pobreak direnen eta pobreak ez direnen artean sailkatzeko erabilitako metodoa moneta pobrezia erlatiboko lerro bat ezartzean oinarritzen da. Erabilitako pobrezia lerroaren oinarria etxeko kontsumo unitateko sarrera garbiak dira; etxeko guztizko sarrera garbiak (errenta eskuragarria) zati kontsumo unitateen kopurua egin behar da kalkulua egiteko. Hortik abiatuta, %60koa da pertsonei esleituriko kontsumo unitateko sarreren[4] banaketaren erdikoaren pobrezia lerroa edo pobrezia atalasea. Beraz, kontsumo unitateko atalase horretatik beherako sarrerak dituen pertsona orori deritzo "pobre" (halako moldez non familia bereko kide guztiak sailkatuko baitira modu berean: pobreak edo pobreak ez direnak). Atalase hori, EB mailan herrialde bakoitzerako kalkulatu da[5] eta, beraz, herrialde bakoitzaren ikuspegi erlatiboa lortzea ahalbidetzen du, baina ez da zuzenean konparagarria haien artean.

4 Kontsumo unitateko sarrera edo sarrera baliokidea, familiako sarrera osoa zati "kontsumo unitate" kopuruaren artean ateratzen dena da; dena dela, kontzeptu hori eta per capita sarrerak ez dira gauza bera. Izan ere, lehenengo horretan ez zaie familia bateko kide guztiei sarrera berbera esleitzen. Aitzitik, beste faktore batzuk hartzen dira kontuan, adibidez eskala-ekonomiak. Hau da, familia bateko kide kopurua handitzeak ez du esan nahi sarrerak ere modu proportzional berean handitu behar direnik ongizate maila berberari eusteko, eta gainera kontsumoko jarraibideak ez dira berberak familiako kide bakoitzaren adina kontuan hartuta.

5 Esan den bezala, pertsonei esleitzen zaizkien kontsumo unitate bakoitzeko sarreren banaketaren medianaren %60an ezarri da, EBko herrietako bakoitzean. Beraz, errentaren banaketa herri bakoitzaren barruan aztertzen da, ez Batasun osorako.

III.2.4. KOADROA. EUROPAKO FAMILIEN GABEZIA MATERIALAREN ADIERAZLEAK. EAErekiko KONPARAZIOA. 2010-2011.

	USTEKABEKO GASTUEI AURRE EGITEKO EZINTASUNA		GABEZIA MATERIALAREN INDIZEA	
	2010	2011	2010	2011
27EB	36,2	37,5	17,5	18,2
EDB	32,7	33,7	13,6	14,8
BELGIKA	25,4	26,1	12,3	12,9
BULGARIA	65,0	65,3	59,4	60,1
TXEKIAR ERREPUBLIKA	37,9	40,4	15.1	16,1
DANIMARKA	23,7	24,9	6.0	6,9
ALEMANIA	33,7	34,5	11.1	12,4
ESTONIA	43,6	44,7	22.3	21,5
IRLANDA	49,2	..	19,6	..
GREZIA	28,2	34,4	24.1	28,4
ESPAINIA	36,3	35,4	13.2	11,6
FRANTZIA	33,0	33,0	12.6	12,4
ITALIA	33,3	38,6	16,0	22,3
ZIPRE	48,2	51,3	26,9	28,6
LETONIA	77,6	80,1	46.1	48,7
LITUANIA	62,1	60,4	36.0	34,6
LUXENBURGO	24,4	23,0	4.1	4,7
HUNGARIA	73,9	74,0	39.9	42,2
MALTA	26,9	26,4	14.7	16,5
HOLANDA	22,2	21,7	7.2	6,6
AUSTRIA	25,0	22,8	10.7	9,5
POLONIA	50,6	51,2	28.4	26,4
PORTUGAL	27,2	29,1	22.5	20,9
ERRUMANIA	41,6	50,3	49.2	47,7
ESLOVENIA	45,1	46,7	15.8	17,2
ESLOVAKIA	38,6	35,8	24.9	22,0
FINLANDIA	28,1	27,4	8.4	8,4
SUEDIA	15,8	16,6	3.9	4,2
ERRESUMA BATUA	34,7	36,7	13.4	13,3
EAE	19,0	20,9	6,6*	9,1*


Iturria: INEren eta EUROSTATen datuekin landutakoa.
****Gutxi gorabeherako kopurua da, diferentzia metodologiko batzuk daudelako (ikusi testua).***

Hortik abiatuta, pobreziaren atalasearen azpitik dauden pertsonen ehunekoa kalkulatzen du Inkestak. Erkidegoko datua, 2011n, sarreran aurreratu dugun bezala, %16,9 zen. Izan ere, hori da pobrezia jasateko arriskuan dagoen biztanleria (AROPE Tasaren barruko hiru dimentsioetatik lehenengoa) kalkulatzeko erabilitako metodologia.

Estatuari dagokionez, ratio hori, estatistika egiten den zazpi urteko epean. %20 ingurukoa izan da. 2011n gehieneko mailara heldu zen, %21,8ra, aurreko urtean baino puntu bat gehiago. Gure Erkidegoan, %10,8koa da irizpide horren arabera "pobre"tzat hartutako pertsonen tasa -egoera hori Nafarroako Erkidegoan eta Asturiasen baizik ez da hobea-, eta azken urtean ia puntu bat (8 hamarren) egin du gora. Hala ere, pobrezia atalase horretatik beherako sarrerak dituzten pertsonen ratio horrek gora egin du gure Erkidegoan %14,9 (ehuneko 1,4 puntu) 2008az geroztik.

2.1.2. Pobrezia eta bazterketa: 2012ko Pobrezia eta Desberdintasunaren Inkestaren emaitzak.

III.2.2. GRAFIKOA. III.X.X GRAFIKOA. POBREZIA ATALASEAREN AZPIAN DAUDEN PERTSONEN EHUNEKOA 2008-2011



Iturria: INE. Bizi-baldintzen Inkesta.

Eusko Jaurlaritzak lau urtean behin "Pobreziaren eta gizarte arloko desberdintasunen inkesta" (PADI) egiten du. Horren bidez pobreziak gure gizartean daukan eraginaren, pobreziari eragiten dioten arrisku faktoreen eta haren banaketa desberdinaren bilakaeraren berri ematen da. EAEko pobreziaren eragina neurtzeko aukeratutako adierazlearen araberakoa da.

Lehenengoz, Inkestak agerian jarri du gora egin dutela familiek ohiko betebehar eta gastuei aurre egiteko dituzten zailtasunak hazkundea izan duela, parerik gabe 1996az geroztik. 1996an hasitako PADIren sail historiko osoan, ohiko betebeharrei aurre egien ezin dieten pertsonen ehunekoak ez zuen inoiz ere %13,1a gainditu (%11,4 2008an). 2012an, aldiz, biztanleriaren %24,5era arte igo zen.

Eragozpenik handienak gertatzen direneko alderdi zehatza batzuk aztertuta, egiaztatu ahal da biztanleriaren %7,1 azken 12 hilabeteetan arrazoi ekonomikoengatik bigarren eskuko jantziak eskuratu dituzten etxeetan bizi dela, 2008ko %3,7aren aldean. %8,3k azaldu du azken neguan batzuetan hotz jasan

duela, 2008ko %4,1aren aldean, eta azken urtean PADIK aztertutako elikadura-segurtasunik ezeko arazoetako batzuk jasan dituen biztanleriaren proportzioak gora egin du, 2008ko %5,7tik 2012ko %7,7ra arte.

Pobrezia-egoeren gorakada, era berean, nabarmena da PADIren berezko metodologia erabiltzean. Izan ere, 2004ko eta 2008ko mailak gainditzen dira, baina 80ko eta 90eko hamarkadetan erregistratzen denetik beherago dago. Lehenengoz, mantentze pobreziaren arriskuaren adierazlea[6] – EUROSTATen metodologiaren arabera, atzera jo behar izan da Inkesta honen emaitzak berrikustean- biztanleriaren %5,7tik %7,3ra igaro da. Horrek esan nahi du 35.000 lagun gehiago daudela pobrezia egoeran, eta EAE osoan 157.686ra heldu dira. Bestalde, ongizaterik ezaren ehunekoa ere areagotu da (mantentze dimentsioan hori ere): %16,4tik %19,9ra. Orotara 2008an baino 80.000 pertsona dira.

Pobrezia-adierazleen bilakaera hobea da metaketa-pobreziarekin lotutako adierazleak aztertuz gero; hartara, familien ondarearen eta ondasun materialen ingurukoak ditu kontuan. Izan ere, bizigarritasun arazoekin etxebizitzetan bizi direnen ehunekoa oso txikia da, %6,2koa 2012an, eta etxebizitzako oinarrizko ekipamenduen gabezia %1,2tik %0,6ra jaitsi da. Metaketa-pobrezia ere jaitsi da: %1,5etik %1,4ra.

Beste alde batetik, kontuan hartu behar da aztertutako arazo edo arrisku-egoera batzuen eta besteen ondorioz ez direla zertan nahitaez gertatu behar pobrezia edo prekariotasun egoerak. Hori gertatzen da, aztertutako dimentsioetako batean (mantentzea edo metatzea) arrisku-egoera batzuk eta besteak konpentsatzen dituzten ongizate-elementu batzuk agertzen diren neurrian. Arrazoi horregatik, PADI osotzeko, pobrezia errealeko egoerak identifikatzeko adierazle sintetiko bat eman da, hots, zenbait alderditako egoera onak beste batzuetako balizko gabeziak konpentsatzen direneko egoerak. Adierazle hori erabiliz ikus daitekeenez, gora egin dute pobrezia errealeko egoerek: %4,2tik %5,3ra, hots, %27,9ko igoera ukituriko pertsonen proportzioan. Inkestak berak aitortzen duenez, historiako mailarik altuenetakoa da, baina nolanahi ere 1996an izan zena baino txikiagoa (%8,7), noiz-eta 185.000 pertsona bizi baitziren pobrezia errealean. 2012rako, berriz, 114.000 zenbatetsi dira.

Puntu honetan, PADIk ohartarazten du paradoxikoa dela azaldu den bezala pobrezia errealeko egoeren kopuruaren gorakada eta ongizate osoko egoeran – gabeziarik gabe, ez diru-sarrerei ez ondareari eta bizi-baldintzei dagokienez– dauden etxeetako pertsonen proportzioaren gorakada bateragarriak izatea. 2012an, talde horrek daukan garrantzia PADIk estaltzen duen sail historiko osoko handiena da (%37,4), 1996an erregistratutako %20,1aren aldean. Datu horiek agerian jarri dute gizartearen polarizazio prozesu bat gertatzen ari dela, eta bidea ematen dute pentsatzeko krisiaren ondorioak ez direla berberak biztanleria talde batzuetan eta besteetan.

Hain zuzen ere, PADIko datuak profil soziodemografikoen ikuspegitik aztertuz gero, euskal gizartearen polarizazio handiagoa adierazten duten datu batzuk ikusten dira: alde batetik, pobrezia-tasak oraindik ere oso handiak dira immigranteak buru dituzten familietan, guraso bakarreko familietan, lan egonkorrik gabeko pertsona aktiboen artean eta 35 urtetik beherako pertsonak buru dituzten familietan, eta hain zuzen ere egoerak talde horietan egin du okerrera batik bat, 2008ko emaitzekin alderatuta. Aitzitik, pobrezia errealeko tasek behera egin dute kide aktibo guztiak lan egonkorrarekin dauzkaten familietan, goi mailako ikasketak dauzkaten pertsonak buru dituztenetan edo pertsona ez-aktiboek osatutako familietan.

2012an pobrezia eraginik handiena jasaten duten kolektiboetan kontzentratu zen: 2008an pobrezia errealeko kasuen %68,6 ziren, eta 2012an ehunekoa %78,9koa izatera igaro zen. Pobreziari eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkestaren arabera, aipatutako kolektiboek komunean duten ezaugarri nagusia da familia horien kide nagusiak ez duela lanik, eta faktore hori atzerritarra izatearekin, guraso bakarra izatearekin eta, bi pertsonak edo gehiagok osatutako familia-taldeen barruan, gaztetasunarekin lotuta dago. Gainera, 2012an, pertsona aktibo guztiak langabezian edo lanpostu ezegonkorrekin dituzten etxeek benetako pobreziaren %76,4 barne hartzen zuten; 2008an, aldiz, ratioa %57,8koa zen.

6 Mantentze-dimentsioan, pobrezia jasateko arrisku-egoerak, oinarrizko beharrak (elikadura, etxebizitza, jantziak eta oinetakoak) asetzeko behar adina diru-sarrera ez izatearekin lotzen dira. Beste alde batetik, ongizatea ez izateko arriskua, hau da, oinarrizko beharrak asetzeaz harago gizarte jakin batean espero diren ongizatearen eta erosotasunaren gutxieneko mailei eusteko beharrezko gastuei aurre egiteko behar adina diru-sarrera ez izatearekin lotzen da.

III.2.5. KOADROA. POBREZIA ERREALAK EAE-n DUEN ERAGINA, ETXEKO FAMLIABURUAREN EZAUGARRIEN ARABERA. 2008-2012 BILAKAERA.


	2008		2012	
	Eragin-tasa	%, guztizkotik	Eragin-tasa	%, guztizkotik
45 urtetik beherako eta lan egonkorrik gabeko emakumeak, guraso bakarreko familietan	60,7	8,9	63,8	10,2
45 urtetik gorako eta lan egonkorrik gabeko emakumeak, guraso bakarreko familietan	9,7	2,5	18,8	4,7
Lan egonkorrik gabeko emakumeak, guraso bakarreko familietan	6,9	2,5	2,7	1,2
Lan egonkorrik ez daukaten 45 urtetik beherako emakumeak, bakarrik daudenak	5,4	0,3	16,1	0,7
Lan egonkorrik ez daukaten 45 urtetik gorako emakumeak, bakarrik daudenak	30,1	5,0	23,3	2,3
Lan egonkorra duten 65 urtetik beherako emakumeak, bakarrik daudenak	4,1	0,9	0,7	0,1
Lan egonkorra duten 65 urtetik beherako gizonak, bakarrik daudenak	0,0	0,0	0,5	0,1
Lan egonkorrik ez duten 65 urtetik beherako gizonak, bakarrik daudenak	24,1	3,9	22,6	2,9
45 urtetik beherako eta lan egonkorrik gabeko pertsonak buru dituzten familia-taldeak	19,1	15,2	19,0	18,2
45 urtetik gorako eta lan egonkorrik gabeko pertsonak buru dituzten familia-taldeak	2,8	5,9	3,9	7,1
45 urtetik beherako lan egonkordun pertsonak buru dituzten familia-taldeak	1,3	7,4	0,6	2,1
45 urtetik beherako lan egonkordun pertsonak buru dituzten familia-taldeak	0,8	5,7	0,6	3,0
65 urtetik gorako gizonak	1,1	4,4	1,0	3,4
65 urtetik gorako emakumeak	2,4	4,6	3,1	4,1
EBtik kanpoko herriak	34,5	31,2	37,3	36,0
Guraso bakarreko familietako gizonak	7,4	1,6	18,2	3,8
GUZTIRA	4,2	100,0	5,3	100,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PADI 2012.
Oharra: PADI adierazleak doitutako kopuruetan ageri dira.

III.2.6. KOADROA. POBREZIAREN ETA GABEZIAREN ADIERAZLE BATZUEN BILAKAERA EAEN (BIZTANLERIAREN EHUNEKOA)


	Adierazleak	1996	2000	2004	2008	2012
Gabezia-adierazleak	Ez ditu oinarrizko gastuak estaltzen	3,6	6,9	5,4	3,1	5,7
	Ohiko gastuei aurreko egiteko eragozpenak	9,3	9,2	13,1	11,4	24,5
	Aurrezkiak maiz erabili behar izatea	3,3	3,8	5,4	4,7	12,3
	Elikadura arazo larriak	-	2,4	2,5	3,5	4,7
	Ez ordaintzea edo berandu ordaintzea	2,0	2,3	2,7	2,9	5,9
	Hotza etxean	4,2	5,3	5,5	4,1	8,3
PADI adierazleak	Ongizatea galtzeko arriskua (mantentzea)	36,3	24,7	21,9	16,4	19,9
	Pobrezia jasateko arriskua (mantentzea)	13,3	7,9	5,6	5,7	7,3
	Metatze-pobrezia	3,6	4,2	3,6	1,5	1,4
	Pobrezia erreala	8,7	5,1	4,5	4,2	5,3

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PADI 2012.
Oharra: PADI adierazleak doitutako kopuruetan ageri dira.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PADI.

III.2.4. GRAFIKOA. EAEKO BIZTANLERIAREN BANAKETAREN BILAKAERA, PADIKO POBREZIA ERREALAREN ADIERAZLEEN ARABERA




Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PADI.

Ildo horretan, INEren *Etxerik gabeko pertsonei buruzko inkestaren* azken datuek (EAEri dagokion zatia egin da EUSTATen laguntzaz), 2012ari buruzkoek alegia, agerian jarri dute lana galtzeak mutur-muturreko kasuetan bizi-baldintzetan izan ditzakeen ondorioak. Estatistika-eragiketa horrek dioenez, etxerik gabeko pertsonen %45 egoera horretara heldu ziren euren lanpostua galdu zutelako, %26 ezin izan zuelako ostatua ordaintzen jarraitu, eta hirugarrenez, %20,9 bere bikotekidearengandik banatu zelako (inguruabar bat baino gehiago batera gertatu ahal dira). Inkesta horrek, halaber, nabarmendu egiten du etxerik gabeko pertsonen kopuruak gora egin duela 2005az geroztik. Kopuru hori %14 da, eta talde horren herenak urtebete baino gutxiago eman du ostaturik gabe; %24ak urtebete eta hiru urte artean, eta %44,5ek ez du ostatu egonkorrik duela hiru urte baino gehiagotik.

2.2. ADINEKOEN BIZI-BALDINTZAK

Nazio Batuen Zahartzeari buruzko azken txostenaren arabera (2012), munduan 1950ean 60 urtetik gorako 205 milioi pertsona zeuden. 2012an, aldiz, talde horretan pertsona-kopuruak gora egin du 800 milioi arte (haietatik %60 baino gehiago garapen bidean dauden herrietan bizi dira). Hain zuzen ere, azken hamar urteetan soilik, adinekoen kopuruak gora egin du –178 milioi pertsona gehiago–.

III.2.5. GRAFIKOA. 60 URTETIK GORAKO PERTSONAK MUNDUAN: BILAKAERA ETA PROIEKZIOAK 2050ERA ARTE. MILIOIAK.




Iturria: NBE.

Hori Pakistango, munduko herririk jendetsuenen artean seigarrena denaren biztanleriaren baliokidea da, eta urtero 58 milioi pertsona 60 urteko adinera heltzen direla kalkulatzen da, hau da, segundo bakoitzeko ia bi pertsona.

Etorkizunera begira, NBEK uste du 2050ean adinekoak 2.000 milioi izango direla, munduko biztanleriaren %21,8 (gaur egun %11,5 dira). Une hartan, eta lehenengo aldiz, munduan 60 urtetik gorako pertsona gehiago egongo dira 15 urtetik gorako baino (azken horiek 1.900 milioiko kopuruan geldituko dira, baina 60 urtetik gorakoen kopuruak gora jarraituko du). Biztanleriaren zahartze prozesu hori sakona da, eta eraginak edukiko ditu bizitzaren alderdi guztietan. Bereziki azpimarratzekoak dira aurrezpenean, kontsumoan, laneko merkatuetan, pentsioetan, zergetan, osasun sistemetan, familien eraketan eta migrazio fluxuetan igarriko diren ondorioak.

III.2.6. GRAFIKOA. EAEko BIZTANLERIAREN BILAKAERA ADIN-TALDEEN ARABERA. PROIEKZIOAK.



Iturria: EUSTATen datuekin landutakoa.

Fenomeno hori gure herrian ere gertatzen da. Gero eta gehiagotan, belaunaldi gehiago batera bizitzen dauzkaten familiak aurki ditzakegu, eta beraz, gero eta gehiagotan, belaunaldirik gazteenak aitona-amonekin batera bizi dira. Are gehiago, birraitona edo birramona izatea ez da hain gauza berria. Adineko pertsonen kopuruak gora egiten du pertsona horien ezaugarri pertsonal eta sozialak aldatzen diren erritmo berean. Bizimodu berriak dauzkate eta euren iritzi, uste eta helburuak oso diferenteak dira duela hamarkada batzuk biztanleria-talde horretako kideenekin alderatuta, eta talde horren aldaketak gure gizarteak jasaten dituen aldaketa orokorren mendean daude.

2011ko abenduaren 31n, EAEko 65 urte eta gehiagoko biztanle taldean 424.298 pertsona dago (kopuru osoaren %19,5) eta 20 urtetik beherako gazte segmentua baino segmentu oparoagoa da (haiek 376.257 pertsona dituzte, kopuru osoaren %17,4). Emaitza hauek aldaketa handia suposatzen dute 1981. urtean igarritako adin egituraren aldean; une hartan segmentu gazteena biztanleriaren %34,2koa zen eta adinekoenak kopuru osoaren %9,2 besterik ez zuen hartzen. Eraldaketa honek 80ko eta 90eko hamarkadetan jasandako jaiotza kopuruaren murriztapena islatzen du, biztanleriaren bizi itxaropena areagotzearekin batera.

Are garrantzitsuagoa da ikustea, ziurrenik, biztanleriaren zahartzea areagotu egingo dela datozen urteetan.

III.2.7. KOADROA.ZAHARTZEA MUNDUAN: ADIERAZLE OROKORRAK

	2011-12	2050erako proiekzioa
BIZI-ITXAROPENA		
B.I. jaiotzean (G/E)	67,1 - 71,6	73,2 – 78,0
B.I. 60 urteko adinean (G/E)	18,5 – 21,6	20,9 – 24,2
B.I. 80 urteko adinean (G/E)	7,1 – 8,5	8,3 – 9,8
BIZTANLERIA		
60 urtetik gorakoak (milaka)	809.743	2.031.337
%	11,5	21,8
80 urtetik gorakoak (milaka)	114.480	402.467
%	1,6	4,3
100 urtetik gorakoak (milaka)	317	3.224
Ratioa sexuaren arabera: Gizonak, 100 emakumeko (60 urtetik gorakoak)	83,7	86,4

Iturria: UNITED NATIONS: "Ageing in the 21st century: A celebration and a challenge". 2012.

Izan ere, EUSTATen "*Proiekzio demografikoak 2020*" txostenean aurreikusi egiten da biztanleen kopuru osoaren bilakaerak aldaketa garrantzitsuak edukiko dituela adinaren araberako egituran: Multzo ugarienak, gaur egun adin heldu eta gazteetan kokatzen direnak, helduenetara igaroko dira, eta horiek kopuru gutxiagoko belaunaldiekin ordezkatuz joango dira. Horrek 20 urtetik 29 urtera bitarteko biztanleriaren galera eragingo du, eta baita 40 eta 59 urte arteko pertsonen areagotzea ere. Hazkundea oso bizia izango da biztanleriaren piramidearen tontorrean, belaunaldi ugariagoen pixkanakako iritsieren eta adin aurreratuen biziraupen baldintzetan aurreikusitako hobekuntzen arteko sinergiak egongo direlako.

Gauzak horrela, 65 urte eta gehiagoko biztanleriak hazkunde eutsiaren joera mantenduko du datorren hamarkadan, egungo 400.000 pertsona baino pixka bat gehiagotik irten eta milioi erdi baino gehiago izatera iritsiz 2020an, hau da, adinekoen biztanleriaren %25

gehiago egongo da. Gainera, 65 urtetik gorakoen gaineko aurreikuspen horren populazioaren %22,5aren barruan, %7,3 75-84 urteko pertsonak izango dira, eta populazioaren %4,2 85 urtetik gorakoa izango da. Pentsatu behar dugu gure populazioaren %1,1 besterik ez zirela 1990ean.

Osasun arreta hobetzea, bizi itxaropena areagotzea eta adin gehieneko pertsonen bizitza autonomorako geroz eta hobekuntza ugariagoak bezalako faktoreek eragin egiten dute geroz eta handiagoa izatea adin heldueneko pertsonek bakarrik betetako etxebizitza kopurua. Eusko Jaurlaritzaren *"60 urtetik gorakoen bizi-baldintzak EAEn"* (2011) izenburuko azterlanak dioenez, adinekoen artean egoera zibilik arruntena ezkonduta edo bikoitzean bizi izatea da. Adinekoen %61,4 dago egoera horretan. Atzerik dator alargunen ehunekoa (%29,4) eta, %10etik beherako indizeekin, ezkongabeak (%6,2) eta dibortziatu edo bananduak (%2,9). Adinak gora egin ahala, bikotekidearekin bizi diren pertsonen eta alargunen kopuruak berdindu egiten dira eta are gehiago, alderantzikatu egiten dira. Horrela, laurogei urte beteta dituzten pertsonen artean alargunen ehunekoa %52,8 da, eta ezkonduena edo bikotekidearekin bizi direnena %40,1.


Bizikidetza-ereduei dagokienez, EAEn 60 urtekoak eta urte gehiagokoak bizi diren etxeen batez besteko tamaina 2,23 pertsonakoa da. %36,9 euren bikotekidearekin bizi dira, %35,2 belaunaldi anitzeko familietan bizi dira euren etxeetan eta %22,3 kide bakar batek osatutako familietan. %2,7 soilik bizi dira seme edo alaba baten jabetzako belaunaldi anitzeko etxeetan, eta %3,2 beste mota bateko etxeetan bizi dira. Gainera, adinak gora egin ahala, handiagoa da bakarrik bizi diren pertsonen ehunekoa (80 urtetik gorakoen %27) edo belaunaldi anitzeko etxeetan seme edo alaba batekin bizi direnena (%9,4).

Azkenik, jarduerari dagokionez, erretiratuta daudela deklaratzen dute adineko gehienek (%84,7). %18,7 etxeko lanetan aritzen dira, %15,9 pentsiodunak dira eta lehenago ez dute lanik egin, %7,4 lanean ari dira (%16,2ra arte, 60 eta 69 urte bitartean) eta %1,9 langabezian daude. 60 urtetik gorakoa izanik lanpostuan jarraitzeak harreman zuzena dauka betetako karguarekin. Horrela, goi mailako agintariak, zuzendariak eta negozioen jabea dira 60 urte bete ondoren lan-merkatuan jarraitzeko aukera gehienak dituztenak. Azterlan horren emaitzek diotenez, erretiroa hartzeko batez besteko adina 60,7 urte da, adin ofizialetik eta Estatuko batez bestekotik –gaur egun 63 urte dela kalkulatzen da– nabarmen beherago.

2.2.1. Adinekoek gizartean eta ekonomian duten rol berria. Zahartze aktiboa.

Biztanleriaren pixkanakako zahartzea herrialde guztiei eragiten dien erronka da, bai ekonomiaren aldetik, bai gizartearenetik, eta horrek inpaktu handia eduki du adinekoen geroz eta kopuru handiagoaren agerpena nola antzematen den eta belaunaldien arteko harremanak nolakoak diren ikusterakoan. Batzuek alderdi negatiboetan oinarritzen dute eztabaida: zahartzea karga gisa. Aitzitik, nagusi da sentimendu positiboa: zahartzea gizarte aurreratuen lorpena da, eta, gaur egun, zahartzeari buruz hitz egitea aukerei buruz hitz egitea da. Ongi zahartzea geroz eta garrantzitsuagoa den kontzeptua da, behin estereotipo negatiboak ezabatuta, eta hurrengo ideian oinarritzen den baikortasun berri batean zabaltzen da: adinekoak behar beste aprobetxatuta ez dauden aukerak eta gaitasunak eramaten dituzten pertsonak bezala hartzea.

III.2.7. GRAFIKOA. EAEKO ADINEKOEN BIZIKIDETZA-MODUAK, ADINEN ARABERA. 2010.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA.

III.2.8. KOADROA. "HURRENGO ESALDIETAKO ZEINEK ADIERAZTEN DU ONDOEN ZUK ADINEKOEI, HIRUGARREN ADINEKO PERTSONEI BURUZ DAUKAZUN IDEIA?". ESTATUA, 2010.

	SEXUA			ADINA				
	Gizona	Emakumea	Guztira	65 eta 69 urte bitartean	70 eta 74 urte bitartean	75 eta 79 urte bitartean	80 urte eta gehiago	Guztira
EZIN DIRA EUREN KABUZ MOLDATU ETA ZAINTZAK BEHAR DITUZTE	%28,3	%31,2	%30,0	%23,6	%35,5	%28,0	%32,2	%30,0
ZAMA DIRA GAINERAKOENTZAT	%4,7	%6,5	%5,7	%4,8	%4,9	%6,1	%7,0	%5,7
EZ DUTE BETEBEHARRIK	%10,3	%10,2	%10,2	%11,6	%8,7	%13,3	%7,9	%10,2
AKTIBOAK DIRA ETA BIZITZAZ GOZATZEN DUTE	%16,1	%16,9	%16,5	%23,2	%14,4	%14,8	%13,9	%16,5
EUREN FAMILIEI ETA BESTE PERTSONA BATZUEI LAGUNTZEN DIETE	%13,3	%9,0	%10,8	%11,6	%10,1	%8,9	%12,3	%10,8
BAKAR-BAKARRIK DAUDE, FAMILIAREN EDO GIZARTEAREN LAGUNTZARIK GABE	%8,8	%8,5	%8,6	%9,5	%9,9	%7,6	%7,5	%8,6
OSO DIFERENTEAK DIRA ELKARRENGANDIK, BAKOITZAK EGOERA DIFERENTEA DAUKA	%14,8	%13,7	%14,1	%13,1	%12,6	%18,4	%13,0	%14,1
BESTE BATZUK	%0,6	%0,6	%0,6	%0,5	%0,7	%1,2	%0,1	%0,6
ED/EE	%3,2	%3,5	%3,4	%2,0	%3,1	%1,7	%6,2	%3,4
GUZTIRA	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0

Iturria: IMSERSO. Adinekoei buruzko Inkesta 2010.

Azken batean, zahartzea esperientzia positibo gisa hartu behar bada, bizitza luzeagoarekin batera etengabe joan beharko dira osasunerako, partaidetzarako eta segurtasunerako aukerak. 90eko hamarkadaren amaieran, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) "*Zahartze Aktiboa*" terminoa hartu zuen, ideia hori lortzeko bidea ematen duen prozesua adierazteko. Hain zuzen ere, "zahartze osasuntsua" baino mezu inklusiboagoa ematen duen ideia da, eta pertsonak zahartzeko moduari dagozkion beste faktore batzuk hartzen ditu kontuan. Hala, Zahartze Aktiboa honela definitzen da: "*Pertsonen bizi-kalitatea bermatzeko osasun, parte hartze eta segurtasunerako aukerak hobetzeko prozesua zahartzen diren heinean*". Zahartze aktiboa banakoei nahiz biztanle taldeei aplikatzen zaie. Horri esker, pertsonek euren ongizate fisikoa, soziala eta mentala osorik garatzen dute bizitza osoan, eta gizartean parte hartu ahal dute euren beharrizan, nahi eta aukeren arabera. Aldi berean, babes egokia, segurtasuna eta zaintzak jasotzen dituzte, behar dituzten unean.

Premisa horiekin, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2012 «*Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Urte Europarra*» izendatu zuten, Europan zahartze aktiboaren kultura zabaltzeko, adin guztietarako gizarte batean oinarrituta. Eremu horren barruan, estatu kideen eta haien tokiko eta eskualdeko agintaritzek orotariko sentsibilizazio hitzaldi, jarduera eta ekimenen bitartez zahartze aktiboa sustatzeko eta 60 urte inguru dauzkaten pertsonen edo adineko pertsonen potentziala (pertsona horiek gero eta ugariagoak dira-eta) mobilizatzeko esfortzuak bikoizteko egin dituzten ahaleginak sustatu eta babestea du helburu, baita gizarte-solaskideenak, gizarte zibilarenak eta enpresa-erkidegoarenak ere (enpresak txikiak eta ertainak barne)

Orain arte adinekoei buruz pentsatzerakoan joera haiek hartzaile gisa bakarrik hartzea bazen ere (zaintzen hartzaile, laguntza material eta ekonomikoaren hartzaile), gaur egun babesa eta laguntza ematen jarraitzen dute batez ere beren senideei –gogora dezagun EAEn aitona-amonen %45ek baino gehiagok laguntzen dutela ilobak zaintzen eta %13k duela senideren bat gaixorik–. Halaber, geroz eta gehiago, boluntario izaerako elkarteen barruan gizarte jarduera altruistak egiten dituzte[7].

IMSERSOk (Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioko Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Erakundeak) adinekoen irudiari buruz 2008an egindako Inkesta batek azpimarratu egiten du talde honen gaineko pertzepzioa (70 urteak gainditzen dituztenak aintzat hartuz) mirespenekoa dela, gurasoek eta aitona-amonek askotan gazteenei emandako laguntza finantzarioa, familian mendetasun egoeran dauden pertsonen zaintzaile gisa eta lan boluntarioan

7 2010eko IMSERSOREN Adinekoei buruzko Inkestak dioenez, Estatuan adinekoen %9,1ek gizarte-boluntariotzako zereginak egiten ditu sarritan, eta ia-ia %30ek dio ez lukeela eragozpenik izango horrelako zereginak egiteko.

egiten duten ekarpen handia bezalako alderdiak baloratuz, besteak beste. Gainera, biztanleriaren %75ak baino gehiagok uste du adinekoek beren esperientzia ematen diotela gizarteari.

Are gehiago esatearren, bizi itxaropenean aurrerantz egiteak finkatu egiten du banaketa argia "adineko gazteen" eta "adineko zaharren" artean. Orain dela gutxira arte muga hori 75 urteen inguruan kokatzen bazen ere, gaur egun batzuk 80 urteetaraino eramaten dute, eboluzioaren bizi baldintzek adin horietara iristea ahalbidetzen ari direla ikusita. Gauzak horrela, erretiroa hartu berri dutenek (orokorrean 65 urtetik gorakoei buruz ari gara) hurrengo ezaugarriak dituzte komunean:

- Osasun hobea daukate: Bizi itxaropena hobetu egin da gutxienez 30 urtean azken mendean. Izan ere, gehiago eta hobeto bizi gara, eta adineko biztanleriaren pertzepzioa osasun egoeraren gainean hobetu egin da ere azken urteetan, osasun ona duela uste duen erretirodun kopurua areagotuz. Izan ere, erretirodunak izan badira ere tradizionalki aisialdi pasiboko jarduerei denbora gehien ematen zietenak, gaur egun areagotu egin da haien berariazko pisua eremu eta gizarte ekitaldi guztietan, hirugarren adinari tradizioz gutxien uztartutako horietan eta guzti, kirolean adibidez.
- Ikasketa eta kultura maila altuagoa daukate: Orain hogei urte erretiroa hartzera iristen ziren pertsonak oinarrizko ikasketa maila portzentaje txiki batek bakarrik lortzen zuen belaunaldi batekoak ziren. Gaur egun Euskadin 60 urtetik gorako gehienek lehen mailako ikasketak dauzkate, kasu guztietan amaitu ez dituzten arren (%30,8k lehen mailako ikasketak amaitu gabe dauzkate eta %31,3k amaituta, 2010eko datuak), baina oraindik ere pertsonen %2k ez daki ez irakurtzen ez idazten (%4,1 1993an, antzeko ikerketa bat aurretiaz egin zen datan). Generoaren arabera diferentziak nabarmenak dira: analfabetismo tasa %2,8 da emakumeentzat, eta %1 gizonentzat. Era berean, goi mailako unibertsitate-ikasketei dagokienez, emakumeen %3,2 eta gizonen %7,7 identifikatzen da (%1,3 sexu bientzat 1993an). Kultuagoa eta ikasiagoa den belaunaldi batek beste bizimodu batzuk dauzka, irakurketa bezalako aisialdi jarduerak egiten ditu, ikuskizunetara joaten da, ikus-entzunezko materiala erabiltzen du, kultur eta politika eremuetan parte hartzen du…

Adinekoek informazioaren teknologiak eskuratzeari eta erabiltzeari dagokienez, EUSTATen datuek diotenez, 45 urtetik gorakoentzat (ez da berariaz bereizten zaharrenentzako informazioa), gazteekiko "*hutsune teknologikoak*" bere horretan dirau azken urteotan, baina biztanleriarik gazteena zahartzen den heinean hutsune hori txikiagotuko litzateke. Hala, 2010ean EAEn 45 urteko eta gehiagoko pertsonen ia-ia %50ek interneterako konexioa zeukan etxean (eta %30ek soilik erabiltzen zuen). 2012an, aldiz, ratioa %54,6ra eta %35,6ra arte igo da, hurrenez hurren, eta apur bat murriztu dira biztanleria osoarentzako batez bestekoekiko desbideratzeak[8].

- Gizabanako aktiboagoak dira, gizartearentzat bereziki erabilgarriak: Gaur egun, 65 eta 75 urte arteko pertsona gehienek ez dituzte jarraitzen "zahartzaroari" tradizionalki uztartu izan zaizkion gaixotasun, mendetasun… ezaugarriak, eta esan daiteke haien bizitzak antza handiagoa duela langabezian dagoen heldu batek duen bizitzarekin, orain dela hamarkada gutxiko adineko batenarekin baino. Ondorioz, "gizarte erabilgarritasunerako" aukerak, politikaren, ekonomiaren eta gizartearen aldetik, zalantza guztitik harago daude. Azken batean, erretiroa hartuta duten pertsonak aztertzen direnean, geroz eta aukera gehiago dituztela igartzen da, eta ez bakarrik arrazoi demografikoak helduta, baizik eta, baita ere, erretiroa oraindik gazte direnean hartzen dutelako eta aurrekoek baino ezagutza eta gaitasun gehiago dituztelako. Horrek eragin dezake jarduera ezberdinak egin nahi izatea geroz eta gehiago, toki bat topatu nahi izatea beraientzat, definizio berriak eta nortasun atseginak. *2010eko IMSERSOREN Adinekoei buruzko Inkestak agerian jarri duenez,* adinekoen %60k jarduera berriei ekiten die erretiroa hartu ondoren; %26,6 kirola egiten hasten da, %12,2 eskulan ikastaroak, %8,8 turismoa…
    - Horren guztiaren ondorioz, adinekoen kontsumoa areagotu egin da, bai kopuru absolutuetan, bai erlatiboetan. Kontua da adinekoak geroz eta erakargarritasun handiagoko sektore bihurtzen ari direla ondasunen eta zerbitzuen merkatuan.

8 Gai horri buruzko informazio gehiago izateko, irakurleak Memoria Sozioekonomiko honetako I.2. kapituluko "IKTen ekipamenduak eta erabilerak EAEn" atalera jo dezake.

III.2.9. KAODROA. BIZI-ITXAROPENAREN ADIERAZLEAK JAIOTZEAN EUROPAN ETA EAEn. 2000 ETA 2010.

	GIZONAK		EMAKUMEAK	
	2000	2010	2000	2010
FRANTZIA	75,3	78,3	83,0	85,3
ESPAINIA	75,8	79,1	82,9	85,3
MALTA	76,2	79,2	80,3	83,6
SUEDIA	77,4	79,6	82,0	83,6
AUSTRIA	75,2	77,9	81,2	83,5
FINLANDIA	74,2	76,9	81,2	83,5
LUXENBURGO	74,6	77,9	81,3	83,5
IRLANDA	74,0	78,7	79,2	83,2
ESLOVENIA	72,2	76,4	79,9	83,1
BELGIKA	74,6	77,6	81,0	83,0
ALEMANIA	75,1	78,0	81,2	83,0
HOLANDA	75,6	78,9	80,7	83,0
GREZIA	75,5	78,4	80,6	82,8
PORTUGAL	73,2	76,7	80,2	82,8
ERRESUMA BATUA	75,5	78,7	80,3	82,6
DANIMARKA	74,5	77,2	79,2	81,4
TXEKIAR ERREP.	71,7	74,5	78,5	80,9
ESTONIA	65,2	70,6	76,2	80,8
POLONIA	69,6	72,1	78,0	80,7
ESLOVAKIA	69,2	71,7	77,5	79,3
LITUANIA	66,8	68,0	77,5	78,9
HUNGARIA	67,5	70,7	76,2	78,6
LETONIA	..	68,6	..	78,4
ERRUMANIA	67,7	70,1	74,8	77,8
BULGARIA	68,4	70,3	75,0	77,4
ZIPRE	75,4	..	80,1	..
ITALIA	76,9	..	82,8	..
EAE	76,4	79,0	83,7	85,7

Iturria: EUSTAT. Euskadi 27-EBn. 2012.

- adibidez turismoan, besteak beste–, eta haiek duten eragin ekonomikoak, gizartekoak eta kulturakoak zerikusi gehiago duela hezkuntzarekin, ikaskuntzarekin eta bizi estiloekin adinarekin baino. Adinekoek merkatuan talde kontsumitzaile bezala betetzen duten papera faktore ezberdinek zehaztuko lukete: Jarduera tasak, lanean ari direnen eta lanean ari ez direnen
- arteko erlazioa, adina eta erretiro baldintzak, osasun politika eta gizartekoa, adinekoen ondarea. Azterlan ezberdinen arabera, Europan sortzen ari dira jada sektore batzuk, adinekoen biztanleria haztearen ondotik eta haien mentalitate berriaren ondotik garatzea aurreikusi dutenak.

Hala, adibidez, Europako Batzordearen "*Europe, the world´s No 1 tourist destination. A new political framework for tourism in Europe*" (COM 2010/352) komunikazioak dioenez, kontuan hartzekoak dira joera demografikoek planteatzen dituzten erronkan, eta beste alde batetik, turismoaren sektoreak azkar moldatu behar du, bere lehiakortasunari eusteko. Komunikazio horrek nabarmentzen duenez, 65 urtetik gorako biztanleek gaitasun ekonomiko handiagoa daukate, baita aisialdirako gaitasun handiagoa ere (kalkulatzen denez, 2011n, 65 urte eta gehiagoko europarren %46k lau egun edo gehiagoko bidaia turistiko bat egin zuen, eta orokorrean, talde horrek batez bestekoa baino bidaia gehiago eta bidaia luzeagoak egiten ditu, eta bidaia horietan diru gehiago gastatzen du). Aukera ugari dauzkan merkatua sortu da, baina hala ere, euren beharrizanak beteko dituen eskaintza izan beharko du.

III.2.10. KOADROA. JARDUERA BERRIAK ERRETIROA HARTU ONDOREN: ERRETIROA HARTZEAN EDO 65 URTE BETETZEAN, LEHENAGO EGIN EZ ZENUEN JARDUERAREN BAT EGITEN HASI ZINEN? (ERANTZUN ANITZAK: (GEHIENEZ HIRU ERANTZUN)

	SEXUA			ADINA				
	Gizona	Emakumea	Guztira	65 - 69 urte bitartean	70 – 74 urte bitartean	75 -79 urte bitartean	80 > gehiago	Guztira
Turismoa	%8,4	%9,0	%8,8	%15,9	%6,3	%7,9	%5,4	%8,8
Eskulanen ikastaroak (buztina, kakorratza, pintura)	%5,9	%16,8	%12,2	%13,7	%13,1	%9,6	%12,1	%12,2
Informatika ikasi	%3,5	%1,7	%2,5	%4,3	%2,9	%1,5	%1,2	%2,5
Kirola edo ariketa fisikoa egin	%35,6	%20,5	%26,9	%36,9	%28,2	%27,1	%16,5	%26,9
Lagunak egin/lagunekin irten	%6,7	%6,1	%6,3	%6,5	%6,7	%8,7	%3,9	%6,3
Negozio batean parte hartu	%1,3	%0,1	%0,6	%0,4	%0,3	%1,8	%0,3	%0,6
Kultur eta gizarte jardueretan parte hartu (solasaldiak)	%4,8	%3,3	%3,9	%5,1	%4,4	%4,4	%2,1	%3,9
Ortu bat edo lorategi bat landatu	%10,2	%1,2	%5,0	%6,9	%4,1	%5,7	%3,7	%5,0
Elkarteren batean parte hartu	%1,8	%2,9	%2,4	%2,4	%2,1	%1,6	%3,5	%2,4
Pertsona ezagunei laguntzeko ordaindu gabeko jarduerak	%0,3	%3,4	%2,1	%2,9	%4,1	%1,4	%0,0	%2,1
Gizarte boluntariotzako jardueretan lagundu	%0,4	%4,6	%2,9	%1,3	%5,5	%3,1	%1,5	%2,9
Nire elizaren, parrokiaren, erlijio zentroaren jarduerak	%0,5	%3,7	%2,4	%5,1	%2,3	%0,7	%1,4	%2,4
Trebatzeko ikastaroak	%0,4	%0,8	%0,6	%2,3	%0,1	%0,1	%0,0	%0,6
Beste batzuk	%4,2	%4,2	%4,2	%5,7	%4,1	%4,0	%3,2	%4,2
Ezer berezirik ez	%34,9	%43,3	%39,7	%30,9	%36,1	%43,4	%48,2	%39,7
ED/EE	%6,9	%6,5	%6,7	%4,3	%6,1	%5,0	%10,7	%6,7

Iturria: IMSERSO. Adinekoei buruzko Inkesta 2010.

2.2.2. Bizi-baldintzak

EAEko osasun egoera orokorra eta, berdinki garrantzitsua dena, adinekoek osasunaren gainean duten pertzepzioa ona da orokorrean. Talde osoa aintzat hartuta, mota ezberdineko ezintasunei lotutako osasun arazo larriak dituzten adinekoak ez dira, zorionez, proportzio txiki bat besterik. Eusko Jaurlaritzak bost urterik behin egiten duen "Osasunari buruzko inkestaren" azken alearen arabera, 2007ko datuekin, biztanleria osoaren %4,4 eskas batek uste badu osasun "txarra" edo "oso txarra" duela, ehuneko hori %8,9raino iristen da 65 urtetik gorakoen artean. Ehuneko hori %18,5ekoa zen 2002. urtean (%7,4 biztanleriaren multzoan).

Alde horretatik, adierazle demografiko garrantzitsua jaiotzean dagoen bizi-itxaropena. Nabarmendu behar da EAEn igoera garrantzitsua egon dela hamarkada batean soilik. Izan ere, euskal biztanleriaren bizi-itxaropena 2000. urtean 76,4 urtekoa zen gizonentzat, eta 83,7koa emakumeentzat. 2010ean, aldiz, 79koa eta 85,7koa zen hurrenez hurren, EUSTATen datuekin. Azken kopuru hori 27-EBko herri guztien artean handiena da. Espainian datuak hauek ziren: 79,1 urte gizonentzat eta 85,3 emakumeentzat.

Dena dela, ahalik eta baldintza onenetan bizitzeak duen garrantzia ikusita, eta politika publiko egokiak martxan jartzeari buruz pentsatuz, geroz eta bereizketa handiagoa egiten da bizi itxaropenaren eta osasun oneko bizi itxaropenaren artean. Hilkortasunaren, erikortasunaren eta bizi kalitatearen faktoreen konbinazioa da bigarrenak aintzat hartzen duena. "*Osasunari buruzko inkestaren*" arabera, adierazle hori areagotu egin zen 2007. urtean, bai gizonentzat, bai emakumeentzat, 2002ko datuaren aldean –aurreko inkestaren urtea–. Hazkunde horren arrazoia, gizonen artean, ezintasunen bat edukita gizonezkoek bizitzako urteetan izandako aldakuntza arina da (0,2 urte) eta, funtsean, osasun ona edukita bizi itxaropena areagotzea (1,4 urte). Gauzak horrela, erreferentziako urtean, gizonek jaiotzerakoan zuten bizi itxaropen osoa EAEn 78,3 urteetara iristen zen, 5 urte lehenago baino 1,4 gehiago.


Emakumeen artean, hazkundearen arrazoia osasun ona edukita bizi itxaropena hazten jarraitzea da (+ 1,9 urte), izan ere, ezintasunagatiko urteak ia konstante mantendu dira (are gehiago esatearren, 0,4 urte erori dira). Labur adieraztearren, itxaropena 85,6 urteetara iristen da, 2002an baino 1,6 gehiago.

III.2.11. KOADROA. EZINTASUNEN BAT DUTEN SEI URTE ETA GEHIAGOKO PERTSONAK, ADIN MULTZOA, SEXUA ETA AUTONOMIA ERKIDEGOA GORABEHERA. 1.000 BIZTANLEKAKO TASA. 2008.

	Guztira (sei urte eta gehiago)			65etik gorakoak			6 eta 44 urte bitartekoak		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
ESTATUA	89,7	72,6	106,4	302,7	240,7	349,0	25,4	28,1	22,6
Andaluzia	95,8	74,5	116,7	338,8	253,7	402,3	27,8	28,7	27,0
Aragoi	91,9	73,2	110,5	278,8	220,6	323,3	27,1	28,4	25,7
Asturias	103,7	76,6	128,4	296,9	214,8	353,8	27,7	32,0	23,3
Balear U.	71,0	54,1	87,9	245,8	163,1	310,3	28,1	28,0	28,1
Kanariak	71,3	63,1	79,5	267,3	232,7	294,7	23,7	25,4	21,9
Kantabria	70,0	54,7	84,7	222,4	162,2	266,0	18,8	24,7	12,7
Gaztela eta Leon	108,6	88,6	128,2	324,8	269,1	367,9	26,6	27,2	25,9
Gaztela-Mantxa	98,9	76,8	121,4	342,3	254,5	412,1	22,1	21,0	23,4
Katalunia	76,1	61,1	90,7	255,7	206,6	292,3	19,7	24,6	14,6
Valentziako Erk.	99,2	85,0	113,2	334,6	284,8	373,0	30,5	34,9	25,7
Extremadura	109,9	83,8	135,5	350,2	268,2	412,1	28,9	26,0	31,9
Galizia	112,9	89,8	134,3	330,9	261,7	380,2	28,9	31,0	26,6
Madril	75,9	63,9	87,1	276,2	231,6	307,6	24,7	28,7	20,5
Murtzia	98,0	81,7	114,7	374,6	291,3	438,0	27,9	34,2	20,9
Nafarroa	74,2	61,1	87,3	280,9	222,7	325,0	16,6	17,4	15,8
EAE	84,5	69,7	98,6	266,5	213,0	305,7	21,4	24,6	18,0
Errioxa	61,6	45,9	77,6	202,7	135,7	257,3	13,7	15,2	12,0
Ceuta	113,2	102,1	124,2	411,7	338,1	467,4	54,2	62,1	45,9
Melilla	118,6	93,2	142,8	424,6	295,5	522,3	41,4	45,2	37,7


Iturria.- OSASUNA ETA GIZARTE POLITIKA MINISTERIOA, INEren datuekin egina. INEBASE: Ezintasunari, Autonomia Pertsonalari eta Mendetasun Egoerei buruzko Inkesta, 2008.

III.2.8. GRAFIKOA. BIZI-ITXAROPENAREN BILAKAERA EAEN. 1992-2007.



Iturria. EUSKO JAURLARITZA. 2007ko Osasun Inkesta.

III.2.9. GRAFIKOA. ZAINTZA PERTSONALEKO JARDUERETARAKO MENDEKOTASUNA DAUKATEN 70 URTETIK GORAKO PERTSONEN EHUNEKOA, ADIN ETA SEXU TALDEEN ARABERA. EAE, 2007.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Osasun Inkesta 2007.

III.2.12.KOADROA. BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONALA BOSTURTEKO ADINAREN ETA ERRENTA MOTAREN ARABERA (EUROTAN). 2009. BI SEXUAK.

	Errenta osoa	Laneko errenta	Kapital higigarrien errenta	Kapital higiezinaren errenta	Jardueren errenta	Transferentziak	Eskura dagoen errenta
Guztira	19.631	12.290	1.679	320	901	4.441	16.808
18-19 urte	1.121	686	171	12	27	226	1.026
20-24 urte	5.946	5.043	198	25	133	547	5.274
25-29 urte	14.583	12.803	353	30	446	952	12.681
30-34 urte	19.293	16.656	488	69	801	1.279	16.612
35-39 urte	20.883	17.575	739	131	1.151	1.287	17.748
40-44 urte	22.289	18.522	1.017	205	1.423	1.122	18.679
45-49 urte	24.333	19.886	1.327	274	1.593	1.253	20.109
50-54 urte	25.955	20.470	1.695	360	1.644	1.786	21.278
55-59 urte	26.563	19.181	2.338	482	1.461	3.100	21.901
60-64 urte	23.084	9.132	3.360	606	1.081	8.906	19.798
65-69 urte	20.148	1.612	3.762	706	488	13.580	17.912
70-74 urte	16.692	332	3.116	674	183	12.388	15.229
75-79 urte	16.022	171	2.986	587	150	12.128	14.842
80-84 urte	15.587	102	2.964	528	69	11.924	14.590
85-89 urte	15.182	91	2.889	508	45	11.649	14.286
90-94 urte	14.550	72	3.000	491	71	10.916	13.725
95 eta urte gehiago	13.358	77	2.906	447	38	9.890	12.550

Iturria: EUSTAT. Errenta pertsonalaren eta familiakoaren estatistika.

Generoaren ikuspegia funtsezkoa da zahartzea aztertzeko. Emakumeak luzeago bizi dira mendebaldeko gizarteetan, baina gizonek baino ezintasun gehiago edukitzeko joera dute. 2007ko Osasunari buruzko Inkestaren arabera, 70 urtetik gorako emakumeen %11,9k laguntza behar du zaintza pertsonaleko jarduerak egiteko eta %18,7raino iristen da kopuru hori, aipatutako jarduerei bizitza independentea eduki ahal izateko behar diren egitekoak gehitzen badizkiegu. Gizonen artean, portzentajeak %9raino jaisten dira lehenengo kasuan eta %13,3raino bigarrenean.

Halaber, 65 urtetik gorako eta 74 urtetik beherako adinekoen tasa, jardueraren mugaketa kronikoa edukita, %15,8ra iritsi zen 2007. urtean (%15,3 emakumeen kasuan eta %16,4 gizonen kasuan). Ratio hauek nabarmenki areagotzen dira 74 urtetik gorako

pertsonentzat: %27,1 guztientzat, %28,4 emakumeentzat eta %24,7 gizonentzat. Emaitza hauek 2002ko Osasunari buruzko Inkestaren datuekin uztartu behar ditugu: urte horretan ez ziren aintzat hartutako bi adin taldeak bereizten; ondorioz, 65 urtetik gorako pertsona guztientzat jardueraren mugaketa kronikoa zutenen portzentajea %21,3koa zen (%22,8 emakumeen artean eta %19,2 gizonen artean).

Ondorioz, adinekoen osasun adierazle ezberdinek ideia berdin batera daramate: badirudi taldearen osasun-mendetasun arazoek, ehunekoetan begiratuz gero, hobetzeko joera dutela. Bizi itxaropenaren hazkundeak areagotu egin du nabarmenki mendetasun egoeran dauden adinekoen kopurua. Aldiz, kualitatiboki, adinekoen mendetasun mailak beherantz egiteko joera du. Biztanleria gehiago zahartzeak ez du bere horretan esan nahi mendetasun egoeran dagoen adineko kopuruak gorantz egiten duenik kopuru berdinean, izan ere, adina ez da mendetasun arazoak azaltzea eragiten duen faktore bakarra.

Orokorrean, eta mendetasun egoeran dauden pertsonen arretarekin uztartuta[9], zera egiaztatzen da[10]:

- Handia da ezintasuna dutenen batez besteko adina. Gehienek (%81,4) 50 urte edo gehiago dituzte, eta mendekotasunean diren pertsonen artean, are handiagoa da adinekoen pisua. Hirugarren pertsona baten laguntza beharra eguneroko jarduerak egiteko %12an kokatzen da adinekoen artean neurri bateko mendetasuna eta mendetasun larria aztertuz gero, eta %26an mendetasun arina ere aintzat hartuz gero.

- 75 urteetatik aurrera, biztanleriaren ia erdiak ditu arazoak eguneroko jarduera batzuk egiteko (oinarrizkoak eta instrumentalak), eta bostetik batentzat larriak dira. Mendetasuna hasten den eta laguntza beharra dagoen batez besteko adina 72 urtekoa izaten da.

- Gizarte aldaketek pentsarazi egiten dute zerbitzu formal gehiagoren eskaera egongo dela, nahiz eta laguntza informalak izaten jarraituko duen datozen urteetan mendetasun egoeran dauden pertsonentzako laguntza eredu nagusia, eta horrek beheranzko joera edukiko badu ere. Gaur egun, adinaren araberakoa da mendekotasuna duten adinekoen arteko eta belaunaldi askoko etxeen garrantzia: etxe mota horretan bizi da mendekotasuna dutenen %52,8. 65 eta 72 urteen artean ehunekoa %36,2ra arte jaisten da eta 80 urteetatik aurrera proportzioak berriro gora egiten du %46,7. Horren arrazoia baliteke izatea familia batzea zaintza dela-eta.

III.2.13. KOADROA. ADINEKOENTZAKO ZERBITZUENTZAKO ESTALDURA INDIZEAK. 2010EKO URTARRILA.

	EELZ	TELELAGUNTZA	EGUNEKO ZENTROAK	EGOITZA ZERBITZUAK
ANDALUZIA	4,87	12,59	0,82	2,99
ARAGOI	5,48	6,89	0,81	6,63
ASTURIAS	4,46	4,54	0,68	6,14
BALEAR UHARTEAK	3,07	4,10	0,93	4,17
KANARIAK	3,67	2,00	0,73	4,15
KANTABRIA	4,05	6,80	1,04	4,70
GAZTELA ETA LEON	4,82	4,61	0,70	7,34
GAZTELA-MANTXA	8,77	11,25	0,87	7,50
KATALUNIA	5,15	7,02	1,17	5,01
VALENTZIAKO E.	2,43	4,38	0,93	3,24
EXTREMADURA	9,68	4,52	1,09	5,96
GALIZIA	2,53	0,66	0,67	3,55
MADRIL	8,02	13,26	0,89	2,63
MURTZIA	2,54	3,94	0,87	2,47
NAFARROA	3,60	6,12	0,67	6,04
EAE	4,27	5,05	0,95	4,63
ERRIOXA	6,28	2,04	0,92	5,37
CEUTA	7,73	7,00	0,45	2,27
MELILLA	3,76	4,78	1,00	4,26
ESTATUA	4,97	7,26	0,89	4,38

Estaldura indizea: (Erabiltzaile edo plaza kop./biztanleria>65)*100

Iturria- IMSERSO, Autonomia Erkidegoen, Hiri Autonomoen eta Foru Aldundien datuekin

- INEren 2008ko inkestak agerian jartzen duenez, urte horretan ezintasun motaren baten dutenen tasa milako 84,5ekoa zen gure Erkidegoan. 65 urtetik gorakoen ratioa, berriz, milako 266,5ekoa da. Adinekoen taldearen barruan, logikoa den bezala, kopurua areagotu egiten da adinarekin, 80 urtetik gorakoen arteko %50era ia iritsi arte (%40 gizonezkoen artean eta %54,4 emakumeen artean).

- Ezintasunen bat duten adineko gehienek mugikortasunarekin (milako 194,7), etxeko

9 Ezintasuna, urritasun baten ondorioz modu beregainean eguneroko bizimoduko jarduerak egiteko zailtasuna da. Mendekotasuna, aldiz, ezintasuna duen pertsona batek jarduera horiek egiteko laguntza jasotzen dueneko egoera da. Adineko pertsona guztiak ez dira mendekoak, baina zahartzean autonomia galtzeko arriskua agertzen da.

10 EUSKO JAURLARITZA (2011). Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoen ezintasuna eta mendekotasuna. INEren Ezintasunari, Autonomia Pertsonalari eta Mendetasun Egoerei buruzko 2008ko inkestako datuekin egindako txostena.

bizitzako lanak egiteko aukerekin (milako 171,1) eta norberak bere burua zaintzearekin (milako 153,2) uztartutako mugak jasaten dituzte.

Egoera horien aurrean, laguntza informala da "gizarte babes ikusezina" deitu den hori eratzen duena. Babes horrek, doakoa eta masiboa, berebiziko garrantzia du adinekoei emandako arreta zerbitzuen sisteman. Mendetasun egoeran dauden adinekoen zaintza informalaren profila bat dator emakumeekin (%83,6), normalean etxekoandreekin (%50). Haien batez besteko adina 52,9 urtekoa izaten da. Adinekoen zaintzaz arduratzen diren emakume gehienen okupazio nagusia etxeko lanak badira ere (laneko merkatutik kanpo daude), segmentu garrantzitsu batek bateratu egiten ditu lan horiek soldatapeko lanarekin. Normalean zaintzen duten pertsonaren emazteak edo alabak izaten dira. Gainera, gehienek ez dute berariazko prestakuntzarik egiten dituzten lanak egiteko. %75ek iraunkorki ematen du zerbitzu hori eta %47k sei urtetik gora darama mendetasun egoeran dagoen pertsona zaintzen.

IMSERSOk "Adinekoak Espainian" (2010) izeneko txostenean bildutako datuen arabera, mendetasun egoeran dauden adinekoentzako gizarte zerbitzuen eskaintzan EAE Autonomia Erkidegoen multzoaren batez bestekotik gertu dago. Telelaguntzako zerbitzuen estaldura (65 urtetik gorakoen %5,05) Estatuko batez bestekoaren azpitik dago; aldiz, eguneko zentroetako zerbitzuetan (%4,27), egoitzakoetan (%0,95) eta etxez etxeko arreta zerbitzuetakoan (%4,63) gainetik dago.

Labur adieraztearren, zerbitzu nagusien estaldura %14,9ra iristen da gure Erkidegoko adinekoen kasuan (%14,4, 2008. urtean, 2009ko Memoria Sozioekonomikoan aztertu zenez). Estatu osoan, adinekoen kopuru hori %17,5era iristen da (%14,7 zen 2008. urtean). Gaztela-Mantxa (%28,4), eta Madril (%24,8) izango lirateke alderaketa azterlanaren datuen erreferentzia datan (2010eko urtarrila) kokaleku onenean daudenak.


EAEk adinekoentzako zerbitzuen estalduraren araberako Autonomia Erkidegoen ranking horretan daukan jarrera txar samar horren aldean, Estatuko Mendekotasunari buruzko Legearen (2006) ondorioz Beregaintasunerako eta mendekotasun egoeran dauden pertsonei laguntzeko Sistema ezartzearen inguruan aldian-aldian egiten diren balantzeen emaitzak dauzkagu. Memoria honen *"Gizarte Babesa EAEn"* izeneko kapituluan zehaztasun handiagoz ikusiko den bezala, Espainiako Mendekotasunaren Behatokiak gure Erkidegoari arlo horretan kalifikazio hobe samarrak ematen dizkio.

Une honetan nabarmentzekoa den gauza bakarra zera da: Mendekotasunari buruzko Legean arautzen diren prestazio eta zerbitzuen onuradunetatik, %76,7k 2012o abenduaren 31n 65 urte baino gehiago zeuzkan, eta %54k 80 edo gehiago. Mendekotasunaren arretari eta orokorrean EAEko Gizarte Zerbitzuei buruz informazio gehiago izateko, irakurleak Memoria honetako aipatutako kapitulura jo dezake.

Halaber, EUSTATen Gizarte Zerbitzuen Estatistikaren azken datuen arabera, 2010ari buruzkoak, 431 egoitza adinekoentzako jarrita dago eta haien eskaintza 19.873 plaza eta 17.209 erabiltzailekoa da. Horrek esan nahi du 65 urtetik gorako ehun pertsona bakoitzeko 4,1 plaza dagoela (IMSERSOren datuek %4,6ko estaldura ematen dute urte berdinerako). Sare publikoan 133 zentro eta 6.786 plaza dago, kopuru osoaren %34,1. Azken urteetan, egoitzetako plazen pixkanakako hazkundearekin, ikus daiteke negozio aukerek erakarritako enpresa sektore baten sistemara sartzen ari dela pixkanaka. Aukera horiek geroz eta handiagoa den eskaritik datoz, biztanleria zahartzen ari delako. Hiru lurraldeetan hazkunde garrantzitsua egon da eskaintza pribatuan, normalean pisuetan eta 30 plazatik beherako egoitza txikietan oinarrituta.

Atenditutako pertsonen ezaugarriei dagokienez, adinekoen egoitzen proportzio txiki batek bakarrik -27 guztira- atenditzen ditu laguntza behar duten edo mendetasun egoeran dauden agureak. Horien eskaintza osoa 2.232 plazakoa da, kopuru osoaren %11,2. Gainerakoa honela banatzen da: bere kabuz jarduteko gai diren agureentzat 84, eta 320 misto (plazen %74,2). Egoitzetan sartutako adinekoen

III.2.10. GRAFIKOA. POBREZIA ERREALAREN ERAGINAREN BILAKAERA, FAMILIABURUAREN ADINAREN ARABERA. FAMILIAKO ETXEBIZITZETAN BIZI DEN BIZTANLERIA. EAE, DATUAK EHUNEKOTAN.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PADI 2012.

multzoan, mendetasun egoeran daudenek hazkunde arina jasan dute azken urteotan. Lehentasuna eman zaie, funtsean, "mistoak" deitzen zaien plazei eta beherantz egin du beren kabuz jarduteko gai direnen edo autonomoen proportzioak.

Beste alde batetik, ekonomiaren alorreko gabeziak, mendetasuneko arazoekin batera, dira adinekoen gizarte arazo nagusiak. Askotan, bizitokitzat duten etxebizitzaren baldintzei eragiten diete horiek, eskura dauden diru-sarrerei baino. Dena dela, zorionez, egoera horrek hobera egin du azken urteotan. EUSTATen "*Errenta Pertsonaleko eta Familia Errentako Estatistikaren*" azken datuek -2009koak- agerian uzten dute eskura dagoen errentak behera egiten duela, adinak aurrera egin ahala. Izan ere, kopuru altuena 55 eta 59 urte artean eskuratzen da, 60 urteetatik aurrera pixkanakako murriztapenari ekiteko. Hala, pertsonek erretiroari eskura dagoen batez besteko 17.912€-ko errentarekin ekiten diote, erreferentzia gisa 65 urteko adina hartuta (2006an, eskuragarri dagoen aurreko datuan baino %26 gehiago). 95 urte eta gehiagoko taldean kopuru horrek behera egiten du 12.550€-ra arte. Gainera, alde garrantzitsuak daude sexuaren arabera begiratuz gero, izan ere, emakume gehiago dira adina areagotu ahala 65 urteetara iristen direnak eskura dagoen batez besteko 10.339 €-ko errentarekin (gizonezkoen 26.276 €-en aldean) eta 95 urte eta gehiagorekin errenta 11.697 €-etaraino murriztu da.

Halaber, Eusko Jaurlaritzaren *"60 urtetik gorakoen bizi-baldintzak EAEn"* azterlanak agerian jarri duenez, 2010ean adineko gehienak hileko 601 eta 900 euroko diru-sarreren artean zeuden (guztien %26). Nabarmendu behar da galdera horri erantzun nahi ez dioten perts

onen kopurua oso handia dela (%26,9). Nolanahi ere, adinaren ara berako diru-sarreren banaketak agerian jartzen duenez, adinak gora egin ahala, adinekoek hilean diru-sarrera gero eta txikiagoak edukitzen dituzte. Hala, 600€-tik beherako diru-sarrerak dauzkaten laurogei urtetik gorakoen ehunekoa (batik bat emakumeak) 60 eta 69 bitartekoena halako hiru da. Hori agerian jartzen dute sexuaren araberako diferentzia handiek. Izan ere, adineko emakume gehienak gizonezkoek baino diru-sarrera txikiagoak izaten dituzte.

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren 2012ko EAEren *"Pobreziari eta Gizarte Arloko Desberdintasunen Inkestak"* (PADI) pobrezia moduen eraginari buruzko azterketan nabarmentzen duenez, azken emaitzek antza denez adierazten duen joera aldaketak adinekoei ere eragiten die, intentsitate txikiagoarekin bada ere.

Lehenengoz, metatze-pobreziari –familien ondarearen eta ondasun materialen inguruko alderdiak kontuan hartzen ditu– dagokionez, egoera horien eragin-tasa, 65 urtetik gora pertsonentzat, 2008ko %1,3tik 2012ko %1,9ra igo da. Beraz, gora egin du, biztanleria osoarentzako ratioak apur bat behera egin duen bitartean (%1,5etik %1,4ra). Ondorioz, arazo hori jasaten duten adinekoak buru dauzkaten familiak, erreferentzia-urtean, kasuen %32,8 ziren (2008an %20,4).


Bigarrenez, mantentze-pobreziako kasuetarako –ohiko gastuei aurre egiteko baliabide urriak–, ikusten da okerrera egin duela 65 urtetik gorako pertsonen egoerak. Izan ere, kasu horien eragina, 2008 eta 2012 bitartean, %3,2tik %4,2ra igo da. Biztanleria osoarentzat, aldiz, ratio horrek gehiago egin du gora, %5,7tik %7,3ra.

III.2.14. KOADROA. POBREZIA ETA PREKARIOTASUN EGOEREN BILAKAERA, FAMILIABURUAREN ADINAREN ARABERA. FAMILIAKO ETXEBIZITZAN BIZI DEN BIZTANLERIA. EHUNEKO HORIZONTALAK..

		< 35 URTE	35-44	45-54	55-64	> 65 URTE	GUZTIRA
Mantentze-pobrezia	2008	17,2	36,9	15,9	16,3	13,6	100,0
	2012	24,3	31,0	18,7	11,7	14,2	100,0
Metatze-pobrezia	2008	14,3	49,0	6,8	9,4	20,4	100,0
	2012	24,2	27,2	14,1	1,6	32,8	100,0
Pobrezia erreala	2008	18,6	45,5	14,6	12,2	9,0	100,0
	2012	30,6	31,5	19,9	10,0	7,9	100,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PADI 2012.

III.2.11. GRAFIKOA. EAEKO ADINEKO BIZTANLERIAREN BANAKETA, HILEKO DIRU-SARREREN ARABERA. 2010.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA (2011), 60 urtetik gorakoen bizi-baldintzak EAEn.

Guztira, EAEn mantentze pobrezia jasaten duten familien %14,2aren buruan 65 urtetik gorako adineko bat dago (2008an %13,8).

Azkenik, TGDIk honela definitzen du benetako pobreziaren adierazlea: "*Pobreziaren dimentsio ezberdinetatik batean edo bestean ageri diren oinarrizko beharrak ongi ez estaltzeko arriskua duten egoeren inguruabarrak, horiek biztanleriaren eguneroko bizitzan behar beste orekatuta ez daudenean gutxieneko ongizate maila batera iristea posible izateko, pobreziaren esperientziatik harago*". Hori aintzat hartuz gero, ikus dezakegu 65 urtetik gorakoen taldearentzat, horren eraginaren bilakaera ez da aldekoa izan. Dena dela, eraginak okerrera egin du hamarren bat, eta %1,3tik %1,4ra igaro da azken laurtekoan. Sexuen arabera bereizita, tasak apur bat hobera egiten du 65 urtetik gorako gizonentzat (%1,1etik %1era), baina txarrera egiten du emakumeentzat (%2,4tik %3,1era).

Hala ere, pobrezia errealak 2008an adinekoak buru dituzten familien %9ri eragiten zien. 2012an, aldiz, %7,9ra (ratio horiek murriztu egiten dira sexu bientzat, ikusi 9. orriko taula), bilakaera demografikoaren ondorioz (izan ere, adinekoak buru dituzten familien kopuruak gora egin du, arazo horrek adin-talde horretan daukan eragina baino gehiago). Ikus dezakegunez, azken batean, mantentze-pobreziaren eta metatze-pobreziaren egoeren kopuruak gure Erkidegoko adineko pertsonen artean gora egin duen arren (biztanleria osoarentzat baino neurri txikiagoan), pobrezia errealak –oinarrizko beharrizanak gutxiegi estaltzeagatik ongizate faltaren eta bazterketaren arrisku nabarmenagoa adierazten duena dimentsio bateko gabeziak konpentsatu ezin direlako–, 2012an, modu erlatiboan, adinekoak buru dituzten familia gutxiagoei eragiten dio, europar Batasun osorako detektatu denaren ildotik, kapitulu honen sarreran azaldu den bezala.

3. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA

3.1 OSASUN EGOERA

3.1.1 Bizi itxaropena

Jaiotze uneko bizi itxaropena (BI) biztanleriaren osasun egoerara hurbiltzeko modu klasikoa da. Osasun maila ez ezik, adierazleak leku jakin bateko gizarte, ekonomia eta osasun maila islatzen ditu. X adineko bizi itxaropena x adin horretako banako batek ustez biziko duen batez besteko urte kopurua da, adinaren araberako berariazko heriotza tasetan egungo joerek iraunez gero. Batez besteko hori biztanleria osoari dagokio eta ez banakako jakin bati, hark bizi itxaropenak adierazitakoa baino gehiago bizi dezakeelako edo, alderantziz, dagokion itxaropena baino lehenago hil.

Neurri hipotetikoa da, ez baitu bizirauteko benetako probabilitaterik neurtzen. Egungo heriotza tasen arabera kalkulatzen da eta, jakina, tasa horiek denboran alda daitezke. Abantaila nagusia honakoa da: zenbait eskualde edo herri erkatzeko eta denboran izandako bilakaera aztertzeko erabil daiteke, erkatutako erkidegoetako adin egituren arteko aldeek eragiten ez diotelako.

EAEko 2012-2020ko Osasun Planaren datuen arabera, munduko handienen artean dago EAEko bizi-itxaropena, eta EU-27ko herrialde guztietako altuena da. Osasun Sailaren Heriotzen Erregistroaren arabera, gizonezkoetan zein emakumezkoetan egin du gora bizi-itxaropenak azken urteetan: 79,2 urtekoa gizonezkoentzat eta 85,9 urtekoa emakumezkoentzat 2010ean.

Bestalde, EUSTATek 2020. urtera arte egindako bizi itxaropeneko aurreikuspenek erakusten dute euskal biztanleria are urte gehiago biziko dela. Emakumeak 87,3 urteraino eta gizonak 81,2 urteraino biziko dira. Beraz, bizi itxaropenean, bi sexuen arteko aldea 6,1 urtera murriztuko litzateke.

Bizi itxaropenaren gehikuntzak biztanleriaren egituran aldaketa dakar. Egitura berrian adineko pertsonek protagonismo handia izango dute. Aldaketa honek ondorio garrantzitsuak izango ditu osasunean eta gizartean, besteak beste: gaixotasun kronikoengatik erikortasuna gehitzea, ezindutako eta mendeko pertsonen gehikuntza, eta gizarte-osasuneko arreta gehiago eskatzea.

Testuinguru honetan, osasun-adierazle klasikoak, hilkortasunean bakarrik oinarritzen direnak, mugatuak dira biztanleriaren osasun egoeraren bilakaera deskribatzeko. Beharrezkoa da jakitea hilkortasunaren murrizpenarekin batera biztanleriaren osasun maila gehitu den, edo erikortasun eta ezintasun handien kontura gehitu den. Horretarako, biztanleriaren hilkortasuna ez ezik erikortasun edo ezintasun esperientzia aintzat hartzen dituzten osasun adierazleak erabiltzea beharrezkoa da.

Zentzu horretan, biztanleriaren osasun egoeraren indizeak egiteak, hala nola ezintasunik gabeko bizi itxaropena (EGBI) –hilkortasunean eta ezintasunean oinarritua-, gaixotasun kronikorik gabeko bizi itxaropena (GKGBI) edo osasun oneko bizi itxaropena (OOBI), egiteak, neurri bakar batean iraupena ez ezik bizi kalitatea ere laburbiltzea ahalbidetzen du.

X adineko EGBIk x adin horretako pertsona bati hil arte ezintasunik gabe bizitzeko geratzen zaizkion batez besteko urteak adierazten ditu.

X adineko OOBIk x adin horretako pertsona bati hil arte osasun egoera onean bizitzeko geratzen zaizkion batez besteko urteak adierazten ditu. Osasun oneko bizi itxaropenaren (OOBI) eta EGBIren arteko aldea honakoan datza: bizi urteak subjektuek euren osasun egoeraz daukaten pertzepzio subjektiboaren arabera kalkulatzen direla, ezintasunaren arabera kalkulatu beharrean.

Ildo horretan, esan behar dugu ezen, EAEko 2012-2020ko Osasun Planean horri buruz bildutako azken datuetan ageri denez, gora egin du ezintasunik gabeko adinak; horren bizitza askeko urteek ere gora egin dute. Gizonezkoetan 69,6 dira eta emakumezkoetan 74,9.

3.1.2 Hilkortasuna

Hilkortasuna. Hiltzeko arrazoi nagusiak

Heriotza tasa gordina eta umeen heriotza tasa asko erabili ditu nazioarteko komunitateak biztanleriaren osasun adierazle gisa eta, zeharka, garapen sozioekonomikoaren adierazle gisa.

EUSTATen Heriotzen Estatistikaren datuen arabera, 2011. urteko heriotzen behin-behineko kopurua 19.235 izan zen. Haietatik 9.950 gizonak izan ziren eta 9.258 emakumeak. Hortaz, 2010ean baino 122 heriotza gutxiago gertatu ziren, hots, %0,6 gutxiago. Jaitsiera hori, beste neurri batean bada ere, sexuaren ikuspegitik ere errepikatzen da. Horrela, emakumezkoen artean 27 heriotza gutxiago egon ziren, hots, %0,3 gutxiago, eta gizonezkoen artean 95 gutxiago (-%0,9).

Heriotzetako asko adin handienetako tarteetan gertatzen dira, prebentzioan eta gaitzen tratamenduan egindako aurrerapenen ondorioz. Bestela esanda, biztanleak "laugarren adina" deritzonera iritsi dira. Horrela, 70-79 urteko taldean 3.878 heriotza gertatu dira, 80-89 urtekoan 7.570, 90-99 urtekoan 3.439, eta 99 urtetik gorakoan 185.

Aurreko urtearekin alderatuta, heriotza gehiago izan da 80-89 urtekoen eta 99 urtetik gorakoen artean; eta gutxiago 70-79 eta 90-99 urtekoen artean.

Bestalde, haurren heriotza tasa (urtebetez azpikoak) murriztu egin da 2010. urtearen aldean; 55 heriotzatatik 52ra, baina mutilen artean baino ez (28tik 15era), nesken artean mantendu delako (27tik 37ra).

EAEko heriotza gehienak, inguru sozioekonomiko bereko herrietan legez, gaixotasun ez transmitigarrien ondorioz gertatzen dira, gaixotasun kardiobaskularrak eta tumoreak gehienbat.

Eurostat regional yearbook 2012 txostenaren arabera, 2008an EB-27n heriotzen %40 zirkulazio-sistemarekin dago lotuta (%43,3 emakumezkoetan eta %36,2 gizonezkoetan), %25,7 neoplasia gaiztoekin (minbizia); %7,9, berriz, arnas aparatuaren gaixotasunengatik gertatzen da.

EUSTATen datuen arabera, 2007tik gertatutako heriotza gehienak tumoreengatik gertatu dira (2011n %31,9) eta bigarren tokian zirkulazio-sistemaren gaixotasunak kokatzen dira (%28,2). Aurreko urteetan zirkulazio-sistemaren gaitzek eragin zituzten heriotza gehien.

III.3.1. KOADROA. HERIOTZAK SEXUAREN ARABERA

	GUZTIRA			URTEBETETIK BEHERAKOAK		
	Orot.	Gizonak	Emak.	**Orot.**	Gizonak	Emak.
2007	**19.252**	10.021	9.231	**88**	47	41
2008	**19.437**	10.118	9.319	**62**	32	30
2009	**19.624**	10.232	9.392	**64**	39	25
2010	**19.357**	10.045	9.312	**55**	28	27
2011 (p)	**19.235**	9.950	9.285	**52**	15	37
Dif. 2010-11	**-122,0**	-95,0	-27,0	**-3**	-13	10
% aldak.10-11	**-0,6**	-0,9	-0,3	**-5,5**	-46,4	37,0

(p) Behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT. Heriotzei buruzko estatistika.

III.3.2. KOADROA. EAE-KO HERIOTZAK, BETETAKO ADINAREN ARABERA

	<1	1-9	10-19	20-29	30-39	40-49	50-59	60-69	70-79	80-89	90-99	>=100	>=110
2007	88	23	33	92	258	628	1.318	2.019	4.618	6.864	3.145	166	1
2008	62	21	24	97	216	626	1.265	1.990	4.601	7.124	3.247	164	-
2009	64	16	33	76	236	618	1.214	2.104	4.312	7.402	3.348	201	-
2010	55	27	26	74	188	578	1.245	1.985	4.111	7.434	3.475	159	-
2011(b)	52	22	27	65	178	533	1.276	2.010	3.878	7.570	3.439	185	-

(b) Behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika

III.3.3. KOADROA. HERIOTZAK, KAUSAREN ARABERA

	EAE								
	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011 (b)	
								n	%
Orotara	18.684	19.425	18.507	19.252	19.437	19.624	19.357	19.235	100,0
Tumoreak	5.479	5.462	5.580	5.812	5.811	5.896	6.021	6.134	31,9
Zirkulazio-sistema	5.775	5.891	5.615	5.710	5.692	5.806	5.675	5.424	28,2
Arnas sistema	1.788	2.214	1.739	1.854	1.941	1.797	1.691	1.704	8,9
Digestio sistema	1.013	950	949	990	979	925	898	918	4,8
Kanpoko kausak	745	776	697	734	711	677	653	629	3,3
Beste gaitz guztiak	3.884	4.132	3.927	4.152	4.303	4.523	4.419	4.426	23,0
Hiltzeko arrazoi ohikoenen arteko portzentajezko banaketaren bilakaera:									
Tumoreak	29,3	28,1	30,2	30,2	29,9	30,0	31,1		31,9
Zirkulazio sistema	30,9	30,3	30,3	29,7	29,3	29,6	29,3		28,2

(b) Behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika.

III.3.4. KOADROA. BALIZKO BIZI-URTE GALDUAK, SEXUAREN ETA KAUSA NAGUSIEN ARABERA

	BUPG	T. gordina*	T. Estand.*	BUPG	T. gordina*	T. Estand.*
	Gizonezkoak 2010			Gizonezkoak 2009		
Trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak	4.408	4,84	4,06	4.503	4,9	4,2
Kardiopatia iskemikoa	3.350	3,68	3,06	3.428	3,8	3,1
Suizidioa eta nork bere buruari eragindako zauriak	1.888	2,07	1,88	2.373	2,6	2,3
Ibilgailu motordunetako trafiko istripuak	1.827	2,01	2,10	1.873	2,1	2,1
Zirrosia eta gibelaren gaitz kronikoak	1.633	1,79	1,50	1.498	1,6	1,4
Ezpain, aho eta faringeko tumore gaiztoa	915	1,00	0,86			
Koloneko tumore gaiztoa	910	1,00	0,85	1.175	1,3	1,1
Gaixotasun zerebro-baskularrak	910	1,00	0,81	1.265	1,4	1,2
Urdaileko tumore gaiztoa	853	0,94	0,78	775	0,9	0,7
Entzefaloko tumore gaiztoa	847	0,93	0,84	758	0,8	0,8
Gibeleko eta gibel barruko behazun bideetako tumore gaiztoa	845	0,93	0,83	838	0,9	0,8
Psikofarmakoek eragindako istripuzko pozoitzeak eta gehiegizko drogak	813	0,89	0,72	1.028	1,1	0,9
Hiesa	803	0,88	0,69			
Istripuzko erorikoak	707	0,78	0,73	730	0,8	0,7
Pankreako tumore gaiztoa	655	0,72	0,60			
	Emakumezkoak 2010			Emakumezkoak 2009		
Trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak	2.075	2,31	1,87	1.940	2,2	1,8
Bularreko tumore gaiztoa	1.878	2,09	1,67	2.073	2,3	1,9
Koloneko tumore gaiztoa	713	0,79	0,64	548	0,6	0,5
Gaixotasun zerebro-baskularrak	700	0,78	0,67	570	0,6	0,5
Zirrosia eta gibeleko gaixotasun kronikoak	563	0,63	0,49	503	0,6	0,5
Obulutegiko tumore gaiztoa	540	0,60	0,49	605	0,7	0,6
Urdaileko tumore gaiztoa	515	0,57	0,46	510	0,6	0,5
Leuzemiak	504	0,56	0,73			
Kardiopatia iskemikoa	475	0,53	0,42	463	0,5	0,4
Motordun ibilgailuen trafiko istripuak	465	0,52	0,78	465	0,5	0,6
Ehun linfatikoaren, organo hematopoietikoen eta antzeko ehunen tumore gaiztoak, leuzemia izan ezik	403	0,45	0,36	465	0,5	0,5
Entzefaloko tumore gaiztoa	395	0,44	0,42			
Suizidioa eta nork bere buruari eginiko zauriak	390	0,43	0,34	608	0,7	0,6
Txarto zehaztutako tokietako, bigarren mailako eta zehaztu gabeko tokietako tumore gaiztoak	378	0,42	0,34	810	0,9	0,8

***Milako tasa gordina eta europar biztanleria estandarrarekin estandarizatutako tasa adinaren arabera.
Iturria. Heriotzen erregistroa. Osasun plangintza eta antolamenduaren zuzendaritza.

Hilkortasun goiztiarra. Bizi urte potentzial galduak (BUPG)

Adierazle hau, irizpide bateratu batzuk bilduta etorkizuneko epidemiologia azterketa bat osatzen duen pertsona talde batentzat, garaia baino lehenago (70 urte bete baino lehenago) hil diren pertsonek bizi ez dituzten urte guztiak (hiltzeko adinaren eta 70 urteen arteko aldeen batuketa metatua) oinarri hartuta eratzen da. Horrela, bizi urte potentzial galduak (BUPG) osasun publikoan neurri ona dira biztanleria gazteenarengan hilkortasunak izandako eragina islatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren datuen arabera, 2010ean emakumezkoen hilkortasun goiztiarrerako arrazoi nagusiak, ordenaren arabera, honakoak izan ziren: trakea, bronkio eta biriketako tumore gaiztoak; bularretako tumore gaiztoak; koloneko tumore gaiztoak, gaixotasun zerebro-baskularrak, zirrosia eta gibelaren gaixotasun kronikoak eta obulutegiko tumore gaiztoak.

Gizonezkoei dagokienez, 2010ean, EAEn BUPGrako zio nagusiak trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak, kardiopatia iskemikoak, suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak, ibilgailu motorduneko trafiko istripuak, zirrosiak eta gibelaren gaitz kronikoak eta ezpain, aho eta faringeko tumore gaiztoak.

3.1.3 Ospitaleko erikortasuna

Erikortasun terminoa populazio batean, toki eta denboraldi jakin batzuetan, gaixotasun baten efektuez aritzeko erabiltzen da. Biztanleria batean gaixotasun jakin batek dauzkan presentzia eta ondorioak aztertzea eta kuantifikatzea biztanleriak bere osasun egoeraz egiten duen autobalorazioaz neurtu ahal da. Autobalorazio horri atzemandako erikortasuna esaten zaio, eta haren datuak osasun inkestan jasotzen dira, edo osasun zentroan arreta eta tratamendua eman zaizkion biztanleriaren gaixotasunen erregistroan, ospitaleko laguntzaren kasuan Ospitaleko Erikortasunaren Estatistika dena.

Ospitaleko Erikortasun Estatistika, Heriotza Estatistikaren atzetik, gaixotasunen portaera aztertzeko erabiliena da herrialde gehienetan. Ospitale publiko eta pribatuetan alta jaso duten gaixoen kopuruaz informazioa jasotzen du, diagnostiko nagusiaren arabera.

Estatistika helburuekin eta joerak aztertzeko, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenak (GNS) daukan patologia-zerrenda luzea nolabaiteko agregazio mailarekin taldekatzen da. Beraz, ohikoa eta normala da diagnostiko (edo patologia) talde handiak aipatzea ospitaleko erikortasunaz hitz egitean.

EUSTATen datuen arabera, EAEko akutuen ospitaleetan (publikoak eta pribatuak) 323.621 ospitale-alta erregistratu ziren 2011n (2010ean baino %1,7 gehiago). Alten %74 ospitale publikoenak izan ziren eta %26 pribatuenak.

Haurdunaldi, erditze eta puerperioagatiko ingresoak baztertuta, ospitaleratzeko bi kausa nagusiak EAEn, 2010ean, nerbio sistemako eta zentzumenen organoen (hauen artean katarata nabarmendu behar dugu) gaixotasunak izan ziren, gaixo guztien %12,4raino, eta mila biztanleko 18,5 kasuko tasarekin, zirkulazio aparatuaren gaixotasunekin batera (%11,3; 16,8 kasu 1.000 biztanleko). Bigarren taldean, tumoreak (paziente guztien %9,2 eta 13,8 kasu 1.000 biztanleko) eta hezur eta giharreko gaixotasunak eta lokomozio eritasunak daude (%9,1 eta 13,5 kasu 1.000 biztanleko).

Aurreko urtearekin alderatuta, hauexek dira nabarmenak: batetik zauri eta pozoitze aldien (%-4,1) eta haurdunaldi, erditze eta puerperioko kasuen (%-1,1) jaitsierak daude. Gehikuntzen artean, berriz, gaixotasun infekziosoak (%14,0), azal eta larruazalpekoak (%10,0), hezur-giharretakoak (%7) arnasakoak (%5,7) burukoak (%5,2), nerbio-sistemakoak eta zentzumen organoetakoak (%4,4) eta digestio-aparatukoak (%3,4).

Eritasunik ohikoenak begi eta harekin lotutakoak eta katarata (nerbio-sistema eta zentzumenen organoak), bihotzekoak eta aterosklerosi koronarioa (zirkulazio-aparatu), hernia inguinala eta behazuneko kalkuluak (digestio-aparatua) eta pneumonia eta arnasaren gaitzak (arnasa-aparatua).

III.3.5. KOADROA. ALTA JASO DUTEN GAIXOAK, DIAGNOSTIKOAREN ETA SEXUAREN ARABERA

		2010		2011					
		Orotara		Orotara		Gizonak		Emakumeak	
		Altak	Altak/ 1.000 bizt.	Altak	Altak/ 1.000 bizt.	Altak	Altak/ 1.000 bizt.	Altak	Altak /1.000 bizt.
GNS-9. AK	**Orotara**	**318.194**	**145,9**	**323.621**	**149,0**	**156.359**	**147,4**	**167.262**	**150,6**
001-139	**Infekzio-eritasunak**	**3.667**	**1,7**	**4.179**	**1,9**	**2.365**	**2,2**	**1.814**	**1,6**
011	Birikako tuberkulosia	154	0,1	132	0,1	77	0,1	55	0,0
042	HIESA	351	0,2	278	0,1	195	0,2	83	0,1
070	Hepatitis birikoa	156	0,1	161	0,1	115	0,1	46	0,0
140-239	**Tumoreak**	**29.055**	**13,3**	**29.920**	**13,8**	**15.966**	**15,1**	**13.954**	**12,6**
153	Koloneko neoplasia gaiztoa	1.917	0,9	2.028	0,9	1.289	1,2	739	0,7
162	Trakea, bronkio eta birikako neoplasia	1.436	0,7	1.528	0,7	1.194	1,1	334	0,3
174	Emakumeen bularreko neoplasia gaiztoa	1.818	1,6	1.877	1,7	-	-	1.877	1,7
185	Prostatako neoplasia gaiztoa	1.664	1,6	1.797	1,7	1.797	1,7	-	-
188	Puxikako neoplasia gaiztoa	2.145	1,0	2.136	1,0	1.714	1,6	422	0,4
240-279	Gaitz endokrinoak eta metabolikoak	4.322	2,0	4.348	2,0	1.813	1,7	2.535	2,3
250	Diabetes mellitusa	1.575	0,7	1.516	0,7	879	0,8	637	0,6
280-289	**Odolaren gaitzak**	**3.383**	**1,6**	**3.343**	**1,5**	**1.611**	**1,5**	**1.732**	**1,6**
290-319	**Buruko gaixotasunak**	**4.806**	**2,2**	**5.055**	**2,3**	**2.754**	**2,6**	**2.301**	**2,1**
320-389	**Nerbio-sistemaren eta zentzumen organoen gaix.**	**38.385**	**17,6**	**40.090**	**18,5**	**16.888**	**15,9**	**23.202**	**20,9**
360-379		27.905	12,8	29.426	13,6	12.237	11,5	17.189	15,5
366	Katarata	21.471	9,8	22.692	10,4	9.154	8,6	13.538	12,2
380-382	Otitisa	1.025	0,5	1.071	0,5	591	0,6	480	0,4
390-459	**Zirkulazio-aparatuaren gaix.**	**36.695**	**16,8**	**36.453**	**16,8**	**20.887**	**19,7**	**15.566**	**14,0**
401-405	Hipertentsioa	1.625	0,7	1.730	0,8	783	0,7	947	0,9
410	Miokardioko infartu akutua	2.420	1,1	2.012	0,9	1.424	1,3	588	0,5
460-519	**Arnas gaixotasunak**	**25.881**	**11,9**	**27.348**	**12,6**	**16.259**	**15,3**	**11.089**	**10,0**
480-486	Pneumonia	4.627	2,1	5.046	2,3	3.119	2,9	1.927	1,7
490-491	Bronkitisa	2.929	1,3	3.098	1,4	2.500	2,4	598	0,5
493	Asma	1.708	0,8	1.673	0,8	608	0,6	1.065	1,0
500-519	Pneumokoniosia, eta beste batzuk	7.493	3,4	7.922	3,6	4.481	4,2	3.441	3,1
520-579	**Digestio gaixotasunak**	**35.321**	**16,2**	**36.526**	**16,8**	**21.227**	**20,0**	**15.299**	**13,8**
531-534	Urdaileko ultzerak	686	0,3	627	0,3	444	0,4	183	0,2
540-543	Apendizitisa	2.521	1,2	2.566	1,2	1.454	1,4	1.112	1,0
550-553	Sabelaldeko barrunbearen hernia	8.242	3,8	8.599	4,0	6.342	6,0	2.257	2,0
574	Kolelitiasia	5.085	2,3	5.246	2,4	2.245	2,1	3.001	2,7
580-629	**Aparatu genitourinarioaren gaix.**	**18.635**	**8,5**	**18.556**	**8,5**	**7.811**	**7,4**	**10.745**	**9,7**
580-584	Nefritisa	941	0,4	1.015	0,5	607	0,6	408	0,4
592	Giltzurrun- eta ureter-kalkulua	1.405	0,6	1.458	0,7	905	0,9	553	0,5
630-679	**Haurdunaldia eta erditzea**	**25.924**	**23,2**	**25.629**	**23,1**	**-**	**-**	**25.629**	**23,1**
650	Erditze arrunta	1.961	1,8	2.068	1,9	-	-	2.068	1,9
670	Puerperioko infekzio larria	20	0,0	15	0,0	-	-	15	0,0
680-709	Azal eta larruazalpeko gaix.	4.551	2,1	5.006	2,3	2.832	2,7	2.174	2,0
680-686	Azal eta larruazalpeko infekzioak	2.165	1,0	2.228	1,0	1.441	1,4	787	0,7
690-698	Azal eta larruazalpeko beste hantura batzuk	196	0,1	208	0,1	117	0,1	91	0,1
710-739	**Hezur-muskulu eta lokomozio gaix.**	**27.412**	**12,6**	**29.338**	**13,5**	**14.789**	**13,9**	**14.549**	**13,1**
715	Osteoartrosisa	5.426	2,5	5.804	2,7	2.467	2,3	3.337	3,0
722	Ornorarteko diskoaren trastornoa	1.749	0,8	1.890	0,9	1.063	1,0	827	0,7
740-759	**Sortzetiko anomaliak**	**2.196**	**1,0**	**2.224**	**1,0**	**1.321**	**1,2**	**903**	**0,8**
760-779	**Anomalia perinatalak**	**2.209**	**1,0**	**2.335**	**1,1**	**1.261**	**1,2**	**1.074**	**1,0**
773-774	Fetuaren gaix. hemolitikoa/Min hori perinat.	509	0,2	513	0,2	286	0,3	227	0,2
780-799	**Txarto zehaztutako gaixotasun egoerak**	**13.242**	**6,1**	**13.330**	**6,1**	**7.481**	**7,1**	**5.849**	**5,3**
800-999	**Zauriak eta pozoitzeak**	**23.049**	**10,6**	**22.113**	**10,2**	**12.340**	**11,6**	**9.773**	**8,8**
820	Femur lepoaren haustura	2.527	1,2	2.523	1,2	651	0,6	1.872	1,7
V01-V84	**V kodeak**	**19.406**	**8,9**	**17.768**	**8,2**	**8.726**	**8,2**	**9.042**	**8,1**
	Kodetu gabe	-	-	60		28		32	

(1) GNS-9. AK= Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena 9. Aldaketa Klinikoa
(2) Datuak EAEko akutuentzako ospitaleei (publikoak eta pribatuak) dagozkie.
Iturria: EUSTAT eta Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Ospitaleko erikortasunaren estatistika.

III.3.6. KOADROA. EAE-N NAHITAEZ AITORTU BEHAR DIREN GAIXOTASUNAK

	KASUAK			TASAK 10.000 BIZT.	
	2010	2011	DIF. 2010 -11	2010	2011
Botulismoa	0	-	-	-	-
Kolera	0	1	1	-	0,0
Disenteria	22	18	-4	1,0	0,8
Sukar tifo-paratifikoa	2	15	13	0,1	0,7
Trikinosia	0	-	-	-	-
Meningokoko gaixotasuna	32	34	2	1,5	1,6
Gripea	8.720	24.359	15.639	409,5	1.120,5
Legionelosia	106	103	-3	5,0	4,7
Meningitis tuberkulosoa	7	4	-3	0,3	0,2
Tuberkulosia	244	395	151	11,5	18,2
Barizela	8.665	6.678	-1.987	406,9	307,2
Infekzio gonokozikoa	114	133	19	5,4	6,1
Sifilia	107	114	7	5,0	5,2
Difteria	0	-	-	-	-
Parotiditisa	60	866	806	2,8	39,8
Poliomielitisa	0	-	-	-	-
Errubeola	0	-	-	-	-
Elgorria	1	37	36	0,1	1,7
Tetanoa	2	2	0	0,1	0,1
Kukutxeztula	4	179	175	0,2	8,2
A hepatitisa	49	31	-18	2,3	1,4
B hepatitisa	35	23	-12	1,6	1,1
C hepatitisa	8	11	3	0,4	0,5
Bestelako hepatitis birik.	0	1	1	-	0,0
Bruzelosia	0	1	1	-	0,0
Amorrua	0	-	-	-	-
Sukar horia	0	-	-	-	-
Paludismoa	24	36	12	1,1	1,7
Izurritea	0	-	-	-	-
Tifus exantematikoa	0	-	-	-	-
Lepra	1	2	1	0,1	0,1
Sortzetiko errubeola	0	-	-	-	-
Sortzetiko sifilia	0	-	-	-	-
Jaioberriko tetanoa	0	-	-	-	-

Iturria: EUSTAT.

Pisu handiko eritasunen beste talde bat tumoreak (hona hemen tumore kokapenik ohikoenak, hurrenkeran: puxika, kolona, bularra eta prostata) eta hezur-giharretako gaixotasunak (gehienbat, belauneko barneko trastornoa (47 urteko batez besteko adina) eta osteoartrosia (68 urte).

Ospitaleko batez besteko egonaldia 6 egunekoa izan zen 2011. Kasuen arabera, egonaldirik luzeenak buruko gaixotasunei (14,1 egun), jatorri perinataleko gaixotasunei (11,3 egun), gaixotasun infekziosoei (9,1 egun) eta tumoreei (8,2 egun) dagozkie.

Ospitaleratutako pertsona guztien %51,7 emakumezkoak izan ziren eta %48,3 gizonezkoak. Emakumeen presentzia handiagoa da haurdunaldi eta erditze ospitaleratzeengatik. Ospitaleratutako pertsonen %43,4k 65 urte edo gehiago zituen; izan ere, proportzio horrek etengabe egin du gora azken urteetan (%42,6 2009an eta %42,9 2010ean), eta 77 urtekoa da ospitaleratzeko adinik egokiena.

Gizonezkoetan, digestio-aparatuaren (%13,6) eta zirkulazio-aparatuaren (%13,4) gaixotasunak izan ziren ospitaleratzeko kausa nagusiak; ondoren nerbio-sistemaren eta zentzumenen organoen gaixotasunak (%10,8) eta arnasa-aparatuarenak (%10,4).

Emakumezkoei dagokienez, alta kopuru handiena haurdunaldi, erditze eta puerperioari dagokie (%15,3), eta ondoren nerbio-sistemako eta zentzumenen organoetako gaixotasunak (%13,9), zirkulazio-aparatukoak (%9,3) eta digestio-aparatukoak (%9,1).

Nahitaez aitortu beharreko gaixotasunak

Osasun publikoaren eginkizunetako bat gaixotasun transmitigarriak kontrolatzea da.

Bizi baldintzen hobekuntzak eta EAEko osasun sistemaren garapenak infekzio-gaixotasun askoren ondorioak murriztu badituzte ere, oraindik osasun arazo handia dira, aldian-aldian agertzen diren gaixotasunak daudelako eta horrek ezinbesteko bihurtzen duelako jagoletza epidemiologiko egokiari eustea.

Jagoletza epidemiologikoko sistemaren eginkizuna informazio azkar eta fidagarria ematea da, EAEn gaixotasun transmitigarriak eta agerraldiak zaindu eta prebenitu ahal izateko.

EUSTATen datuen arabera, 2011n bereziki azpimarragarriak dira, ikusitako kasuen kopuru absolutua eta 10.000 biztanleko tasak direla-eta, gripea (1.120,5 kasu 10.000 biztanleko; aurreko urtean[1], berriz, 409,5 izan ziren) eta barizela (307,2 kasu 10.000 biztanleko); eta neurri txikiagoan: Parotiditia(39,8),

1 Gogoratu aurreko kanpainan kasurik gehienak abenduan izan zirela eta, beraz, 2009an zenbatu ziren.

tuberkulosia (18,2), kukutxeztula (8,2), infekzio gonokozikoa (6,1), sifilisa (5,2), legionelosia (4,7) eta elgorria eta paludismoa (1,7 bakoitzean).

3.2 OSASUNAREN ERABAKIGARRI EZ MEDIKOAK

Pertsonen osasunean eragina izan dezakete beren bizi-ohiturek, hau da, beren portaera eta jarrerek, osasuntsuak diren edo ez diren neurrian. Ohitura ez osasuntsuen artean hauek daude: substantzia toxikoen kontsumoa (tabakoa, alkohola eta beste droga batzuk, elikadura desegokia eta ariketa fisiko eza).

EAEn, estatistika ofizialaren barruan, hiru informazio iturri daude, gure gizarte eta osasun errealitatearen ezaugarriak aztertzen dituztenak, eta bost urtean behin argitaratzen dira. Hauexek dira: Osasun Inkesta, Bizi Baldintzen Inkesta, eta Denbora Aurrekontuen Inkesta. Hala eta guztiz ere, epigrafe honetan interesatzen zaigun osasun alderdia haietako lehenengoan neurri eta xehetasun handiagoz aztertzen da.

Horri buruzko ikuspegia edukitzeko, irakurleari gure memoriaren 2008ko eta 2009ko edizioak aztertzeko gomendatzen diogu. Bertan, 2007ko Osasun Inkestaren emaitzak aztertu dira, elikadura, obesitate eta ariketa fisikoaren ohiturei buruzkoak.

Bestalde, 1992. urteaz geroztik, Eusko Jaurlaritzak bi urtean behingo kontsulta egiten du, EAEn zenbait substantzia adiktiboren kontsumoaren hedapena jakiteko, patroi nagusiak identifikatzeko eta eboluzioa baloratzeko, baita euskal herritarren drogen fenomenoari buruz eta gaian aplikatzen diren politika publikoei buruz duten iritzia jakiteko ere.

Horrela, *Euskadi eta Drogak* txostena [2] analisi epidemiologikoko serieetan osatuenetako eta erregularrenetako bat da gure inguruko herrialdeen artean. Azkenak 2010. urteko inkestaren emaitzak jasotzen ditu, baita eboluzioaren datu nagusiak seriearen hasieratik ere.

Ikuspegi laburra izateko, 2011ko gure memoriara jo beza irakurleak.

3.3 OSASUN SISTEMA ETA PRESTAZIOAK

Osasun laguntza ospitaleko edo ospitalez kanpoko jarduera izan daiteke (horren barruan ospitaleetatik kanpo ematen den lehen mailako laguntza eta laguntza espezializatua sartzen dira) eta publikoak edo pribatuak izan daitezke biak. Osasun laguntza jarduera publikoa Osakidetzak eta zentro itunduek ematen dute eta pribatua zentro pribatuek.

Epigrafe honetan aurkeztuko den azterketa honakoen bidez egin da:

- EUROSTATen datuak.
- EUSTATek emandako datuak, ospitaleko (Ospitaleko laguntzari buruzko estatistika) eta ospitalez kanpoko (Ospitalez kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika) sektoreei dagokienez. Lehenengo kasuan, informazioa sektore publiko eta pribaturako eskuragarri dagoen bitartean, bigarrenari dagokionez (ospitalez kanpokoa), sektore publikorako baino ez dago.
- Osakidetzak ospitalekoari zein ospitalez kanpokoari buruz emandako informazioa.

3.3.1 Sarrera

Lurralde bateko osasun sistemaren egoera eta bilakaera baloratzeko baliabide adierazlerik onartuenen artean ospitale kopurua, ohe kopurua, langile medikoak, erizaintzako langileak, etab. daude.

2 Etxez etxeko inkesta da. EAEko 15 eta 74 urte arteko 2.016 herritarrek parte hartu zuten. Galdetegiak hiru zati dauzka, eta 70 galdera dauzka. Lehenengo bederatziak euskal gizarteak drogen kontsumoari buruz eta gaian hartutako politikei buruz duten pertzepzioa ezagutzera emateko dira. Galdetegiko zati mardulenak 51 galdera dauzka, tabakoaren, alkoholaren, psikofarmakoei eta legez kanpoko dorogarik hedatuenen eraginari eta kontsumo-pautari buruzkoak. Azken bederatziek elkarrizketatutako pertsonen ezaugarri soziodemografikoak jasotzen dituzte.

III.3.7. KOADROA. OSASUN BALIABIDEAK (100.000 biztanleko tasak)

	Psikiatrak eta doktoreak				Haginlariak				Oheak			
	2005	2007	2009	2010	2005	2007	2009	2010	2005	2007	2009	2010
Belgika	287,1	290,5	292,5	292,0	73,4	72,2	70,9	70,4	742,5	663,1	650,8	644,0
Bulgaria	364,0	364,0	368,5	371,1	84,2	84,3	86,1	84,8	642,9	638,1	657,9	:
Txekiar Errep.	355,4	356,2	356,2	358,0	67,5	67,2	67,6	69,0	755,3	730,6	711,4	701,0
Danimarka	330,9	340,1	348,2	:	85,5	83,7	77,8	:	385,7	369,1	349,4	349,8
Alemania	341,1	350,3	363,6	373,1	75,6	76,6	78,5	79,5	846,7	823,9	823,9	824,8
Estonia	316,5	325,7	326,7	323,5	88,4	86,8	89,2	89,8	547,8	557,0	543,8	533,1
Irlanda	352,7	387,0	407,1	420,6	55,9	58,2	60,6	60,8	545,9	514,6	327,4	313,9
Grezia	500,3	555,8	611,8	612,6	121,0	128,9	130,9	129,7	472,9	481,5	484,8	:
Espainia	376,7	365,0	354,2	377,9	51,0	54,6	58,2	60,4	336,1	327,2	318,7	315,7
Galizia	331,8	418,5	310,3	346,9	49,8	53,7	58,8	60,6	362,7	363,5	360,1	361,6
Asturiasko Printzerria	415,4	311,9	453,3	340,2	51,1	54,4	59,2	60,5	362,4	362,8	354,2	346,0
Kantabria	508,1	443,6	277,6	380,6	43,7	46,1	47,4	49,8	379,4	374,4	352,9	340,8
EAE	**366,1**	**419,0**	**285,6**	**388,1**	**64,5**	**69,2**	**71,7**	**73,9**	**385,9**	**378,9**	**370,6**	**370,2**
Nafarroako Foru Komunitatea	620,0	503,2	423,1	630,0	48,1	48,6	47,8	48,1	387,3	388,9	385,2	382,9
Errioxa	305,8	685,7	411,8	382,2	51,0	50,3	51,6	54,5	318,3	309,5	281,6	289,2
Aragoi	361,9	493,8	502,4	533,1	42,8	44,5	45,7	48,2	401,0	385,7	384,0	381,0
Madrilgo Erkidegoa	558,3	376,7	441,6	506,6	78,2	83,5	90,0	93,5	321,5	311,2	:	:
Gaztela eta Leon	352,3	297,6	362,5	396,1	36,6	39,6	42,4	44,6	397,6	360,9	358,8	359,4
Gaztela-Mantxa	247,7	331,6	370,8	368,5	29,7	32,6	34,0	36,3	260,6	265,6	266,2	258,1
Extremadura	252,6	195,5	259,2	212,4	29,2	32,3	35,1	36,5	348,1	355,4	353,8	360,0
Katalunia	398,0	381,1	344,3	297,2	52,9	56,3	59,2	61,7	439,9	430,9	416,4	415,8
Valentziako Erkidegoa	309,9	355,1	310,5	448,5	48,2	51,9	54,4	55,8	254,5	256,0	244,3	244,8
Illes Balears	375,8	315,5	439,2	203,9	48,7	50,9	53,5	54,2	337,1	335,0	312,3	310,3
Andaluzia	346,8	333,4	328,8	344,9	47,4	51,6	53,7	55,7	260,7	254,0	238,6	231,4
Murtziako Eskualdea	361,5	496,1	374,1	417,6	54,4	56,0	58,4	60,9	317,5	320,9	312,4	312,5
Uharte Kanariarrak	309,1	350,5	284,1	249,0	40,6	43,5	46,4	47,9	399,8	350,9	332,8	328,7
Frantzia	333,8	331,4	326,6	327,0	69,2	68,3	66,8	66,5	722,5	706,0	665,9	642,4
Italia	379,2	383,9	409,8	391,6	79,2	90,3	92,1	93,4	399,9	384,5	362,6	352,5
Zipre	260,8	273,4	287,0	301,7	96,1	92,2	94,6	96,0	375,7	371,9	380,0	368,0
Letonia	288,1	303,9	299,5	291,1	61,8	64,3	67,0	66,5	768,4	757,1	640,1	532,4
Lituania	362,0	371,8	365,1	372,0	69,4	68,8	70,3	74,7	708,8	688,3	680,3	675,1
Luxenburgo	255,8	269,4	271,0	277,3	78,7	79,4	81,2	82,5	578,5	566,9	546,6	536,7
Hungaria	278,1	280,3	302,1	286,9	44,7	39,9	49,1	52,6	785,4	718,6	714,4	718,2
Malta	:	:	303,6	307,5	:	:	43,2	44,2	744,6	780,3	481,4	450,5
Holanda	270,7	279,4	292,3	:	46,9	48,4	49,8	:	445,5	474,2	465,7	:
Austria	431,7	453,5	467,7	478,0	51,4	54,1	55,2	55,8	768,7	774,7	765,9	762,9
Polonia	213,8	219,1	217,1	217,9	32,1	35,0	31,9	32,9	652,1	642,4	665,3	658,5
Portugal	335,0	349,9	369,9	382,4	58,2	63,1	72,0	75,3	354,3	341,4	335,2	334,7
Errumania	217,1	212,1	225,7	236,9	47,3	53,9	58,0	60,4	684,9	682,7	663,9	666,1
Eslovenia	234,5	239,5	241,0	243,0	59,9	61,4	60,6	61,5	677,3	653,9	662,0	628,5
Eslovakia	302,9	315,0	328,5	333,5	54,2	:	48,6	49,0	483,2	468,3	460,3	457,2
Finlandia	299,9	304,0	308,8	326,7	80,7	78,2	74,4	:	705,2	673,0	624,5	584,7
Suedia	350,8	367,7	380,2	:	82,4	82,8	80,2	:	293,2	286,4	275,9	272,6
Erresuma Batua	239,4	248,7	266,8	271,2	:	48,3	51,1	51,7	373,4	340,7	329,1	295,5
Kroazia	249,8	265,8	266,6	278,4	72,4	73,6	74,3	71,5	545,1	548,6	537,3	561,9

Iturria: EUROSTAT. Datu-basea

EUROSTATen[3] osasun baliabideei eta langileei buruzko datuen arabera:

– EAEn, 100.000 biztanleko EBko herrietan baino doktore eta psikiatra gehiago dago.

Hain zuzen ere, EUSTATen datuen arabera (zeinaren metodologiak ospitaleko osasun laguntza jarduera -publikoa eta pribatua- eta ospitalez kanpokoa -publikoa- bereizten dituen, eta zeinetan biak agregatu ezin diren), esan dezakegu hazkuntzarako joera

3 Datuak zuhurtziaz hartu behar dira, estatistika erakundeak berak adierazitako zenbait haustura dela-eta, psikiatren eta doktoreen 2009ko jaitsieratik ondoriozta daitekeenez.

dagoela medikuen kopuruan, baina ezin dugu zehatz-mehatz hazkuntza errealaren berri eman. Hala ere, 2010ean, joera hori hautsi egin zen ospitaleaz kanpoko jarduera publikoan, ondoren ikusiko dugunez, eta ezin jakin dezakegu zer gertatzen den "erantsian".

- 100.000 biztanleko haginlarien kopuruak hazkunderako joera du EAEn. Alabaina, EBko hainbat herrialdetan izandakoaren azpitik dago.

- Ospitaleko ohe kopuruak beheranzko joera dauka EBn eta EAEn, eta uste da murrizketa horren zati handi baten zioa egonaldiaren laburtzea izan dela. Hala ere, 2009 eta 2010 artean badirudi egonkortu egin dela adierazlea, zeren eta 100.000 biztanleko ohe kopurua 370,6 izatetik 370,2 izatera pasa baita.

3.3.2 Egitura, baliabideak eta osasun-laguntzako jarduera

a) Ospitaleaz kanpoko jarduera publikoa

2010ean, ospitalez kanpoko laguntza jarduera publikoak jaitsierak izan ziren zenbait adierazletan. Izan ere, behera egin du medikuen kopuruak (-%1,9), espezialista kopuruak behera egin izanaren ondorio zuzena (-%11,3), eta jaitsi egin da kontsulta kopurua (-%1,2), bai medikuntza orokorrean (-%0,5), bai pediatrian (-%5,8).

Alabaina, %0,4 igo da langileen kopurua, eta zentroen kopurua ere 472tik 475era igo da. Guztira, 14.297 kontsulta izan dira; 2009an, berriz, 14.477 izan ziren.

Orotara 8.090 langile ari dira lanean. Horietatik %77 osasun langileak dira (2.991 mediku eta 3.209 erizainak eta bestelakoak) eta %23 ez da osasunekoa.

Ospitalez kanpoko eremuan egindako osasun kontsulten %83 lehen mailako arretari dagokio: medikuntza orokorra/familiakoa (10,2 milioi) eta pediatria (1,7 milioi). Espezialitate biek areagotu dute kontsulta bolumena aurreko urtearen aldean, %0,5 medikuntza orokorrak eta %5,8 pediatriak.

Medikuen kopurua jaitsi izanaren ondorioz (espezialista kopuruak behera egindakoan), gora egin du medikuko biztanleko kopuruak, baina ez medikuntza orokorrean, non jaitsi egin den medikuko biztanle kopurua (1.235etik 1.201era). Bestalde, pediatrian ere igo da: medikuko 811 biztanletik 824 biztanlera.

2010ean mediku bakoitzeko batez beste 4.838 kontsulta egon ziren (aurreko urtean baino gehiago, 4.810 izan baitziren). Batez besteko horren gainetik daude mediku orokorrak, 5.648 kontsultarekin, eta pediatrak (5.036).

III.3.8. KOADROA. OSPITALEAZ KANPOKO LAGUNTZA JARDUERA EAE-N

	2007	2008	2009	2010	Δ 2009-2010 (%)
BALIABIDEAK					
Zentro kop.	467	472	472	475	0,6
Langileak guzt.	7.592	8.032	8.061	8.090	0,4
Medikuak	2.815	3.015	3.049	2.991	-1,9
Medikuntza orokorra	1.537	1.713	1.759	1.808	2,8
Pediatria	301	320	327	329	0,6
Espezialistak	977	982	963	854	-11,3
Beste osasun langileria guztia	3.008	3.151	3.177	3.209	1,0
Osasunaz kanpoko langileria guztia	1.769	1.866	1.835	1.890	3,0
LAGUNTZA-JARDUERA (milatan)					
Kontsulta guztiak	13.807	14.399	14.477	14.297	-1,2
Medikuntza orokorra	9.752	10.232	10.258	10.212	-0,5
Pediatria	1.642	1.723	1.758	1.657	-5,8

Iturria: EUSTAT, Ospitalez Kanpoko estatistika publikoa

III.3.9.KOADROA. OSPITALEZ KANPOKO ADIERAZLE NAGUSIAK EAE-N

	2007	2008	2009	2010
EGITURA ADIERAZLEAK (biztanleak/mediku)				
Mediku guztiak	763	715	713	726
Medikuntza orokorra	1.397	1.258	1.235	1.201
Pediatria (0-<14 urte)	844	805	811	824
JARDUERA ADIERAZLEAK (kontsultak 100 biztanleko)				
Kontsulta medikoak	643	668	666	658
Medikuntza orokorreko kontsultak	454	475	472	470
Pediatriako kontsultak	646	669	663	611
Kontsultak medikuko				
Kontsulta medikoak	4.974	4.838	4.810	4.838
Medikuntza orokorreko kontsultak	6.345	5.973	5.832	5.648
Pediatriako kontsultak	5.456	5.385	5.377	5.036

Iturria: EUSTAT, Ospitalez kanpoko estatistika publikoa

Biztanle bakoitzeko kontsulta kopurua 6,7koa izan zen batez beste. Batez besteko hori txikiagoa zen medikuntza orokorrean (4,7 kontsulta biztanleko) eta antzekoa pediatrian (14 urtetik beherakoak beren osasun zentrora joan ziren, pediatrarengana, 6,1 aldiz batez beste).

b) Ospitaleko jarduera publiko eta pribatua

EUSTATen Ospitaleen estatistikako datuen arabera, 2009 eta 2010 artean, ospitale kopuruak egonkor iraun du, 44: 18 sare publikoan eta 26 pribatuan. Ospitaleen kopurua sare pribatuan handiagoa izan arren, publikoan biltzen da baliabide kopururik handiena, oheen %69,3, medikuen %69,8 eta erizaintzako pertsonalaren %85,3.

2009 eta 2010 artean, ospitaleen kopurua izan ezik, aintzat harturiko gainerako baliabide guztietan (oheak, medikuak eta erizaintzako pertsonala), hazkundea izan zen. Zehazkiago, medikuen kopuruak %6,3 egin du gora sare publikoan eta %5,3 pribatuan; eta erizainena, berriz, %26,9 hazi da sare publikoan eta %9,4 pribatuan.

Laguntza jarduerari dagokionez, zenbait jardueratan murrizpenak izan dira: - %3,3 egonaldietan, -%0,3 kanpoko kontsultetan eta -%2,9 larrialdietan. Kirurgiako ebakuntzetan, berriz, %1,9ko igoera izan da eta %1,5ekoa erditzeetan.

Egindako kirurgiako 247.441 ebakuntzetatik, %66 ospitale publikoetan burutu ziren eta %35 pribatuetan. Eboluzio desberdina da zentroaren titularitatearen arabera: %7,5 egin dute gora sare publikoan eta pribatuan, berriz, %,7,4 jaitsi.

Arreta emandako erditze guztiei dagokienez (21.188), gehienak (%88) ospitale publikoetan izan ziren.

Egiturako ospitaleen adierazleen azterketatik ondoriozta daitekeenez, ospitaleek 7.921 ohe izan zituzten (aurreko urtean baino 5 gehiago), hots, batez beste 3,6 ohe 1.000 biztanleko, aurreko urtearen ildotik. Jarduera ospitaleko gaineko adierazleei dagokienez, behera egin zuen

egonaldien kopuruak 1.000 biztanleko (-%3,7), larrialdietakoak (-%3,3) eta kanpoko kontsultenak (-%0,7). 1.000 biztanleko ospitaleratzeetan eta kirurgiako ebakuntzetan, berriz, igoerak izan ziren, +%5,8 eta +%1,5 hurrenez hurren.

Funtzionamendu adierazleei dagokienez, gora egin dute txandaketa indizeek eta ospitaleratutako larrialdiek eta behera, berriz, okupazio indizeak, batez besteko egonaldiak, larrialdietako presioak, hilkortasun gordinak eta nekropsiak 1.000 heriotzako. Zehazki, batez besteko egonaldia 7,7 egunetik 6,9 egunera jaitsi da.

III.3.10. KOADROA. OSPITALEZ KANPOKO LAGUNTZA JARDUERAREN BILAKAERA EAE-N

	2008			2009			2010			Aldak. 2009-10		
	Orotara	Publikoa	Pribatua	Orotara	Publikoa	Pribatua	Orotara	Publikoa	Pribatua	Orot.	Publ.	Pribatua
DABILTZAN BALIABIDEAK												
Ospitale kop.	44	18	26	44	18	26	44	18	26	0,0	0,0	0,0
Oheak	8.018	5.565	2.453	7.916	5.513	2.403	7.921	5.490	2.431	0,1	-0,4	1,2
Medikuak	4.678	3.170	1.508	4.771	3.320	1.451	5.058	3.530	1.528	6,0	6,3	5,3
Erizaintza	6.247	5.155	1.092	6.748	5.625	1.123	8.368	7.139	1.229	24,0	26,9	9,4
LAGUNTZA JARDUERA												
Egonaldiak	2.406.301	1.715.524	690.777	2.334.268	1.672.139	662.129	2.257.414	1.628.663	628.751	-3,3	-2,6	-5,0
Kanpoko kontsultak	2.506.246	1.987.473	518.773	2.574.991	2.031.839	543.152	2.566.654	2.097.397	469.257	-0,3	3,2	-13,6
Larrialdiak	1.115.902	911.748	204.154	1.115.358	912.522	202.836	1.083.356	884.259	199.097	-2,9	-3,1	-1,8
Kirurgia ebakuntzak	241.190	150.984	90.206	242.764	151.749	91.015	247.441	163.191	84.250	1,9	7,5	-7,4
Erditzeak	21.472	18.769	2.703	20.884	18.403	2.481	21.188	18.591	2.597	1,5	1,0	4,7

Iturria: EUSTAT. Ospitaleko estatistika. Datu-basea.

III.3.11. KOADROA. EAE-KO OSPITALE ADIERAZLE NAGUSIEN EBOLUZIOA

	2008			2009			2010			Aldak. 2009-10		
	Orot.	Publik.	Pribat.	Orot.l	Publik.	Pribat.	Orot.	Publik.	Pribat.	Orot.	Publik.	Pribat.
EGITURA ADIERAZLEAK	Langileak zerbitzuan diren 100 oheko						Langileak hartutako 100 oheko					
Medikuak	44	52,8	24,2	46,5	56	24,7	67,4	77,4	41,7	-	-	-
Erizainak	74,1	88,3	41,8	81,4	97,6	44	124,4	147	65,7	-	-	-
JARDUERA ADIERAZLEAK (adierazlea 1.000 biztanleko)												
Oheak	3,7	2,6	1,1	3,6	2,5	1,1	3,6	2,5	1,1	0,0	0,0	0,0
Egonaldiak	1116,4	795,9	320,5	1074,3	769,6	304,7	1034,8	746,6	288,2	-3,7	-3,0	-5,4
Ospitaleratzeko maiztasuna (ospitaleratzeak)	144,3	104,0	40,3	140,8	102,3	38,5	149,0	111,6	37,4	5,8	9,1	-2,9
Larrialdiak	517,7	423,0	94,7	513,3	420,0	93,4	496,6	405,3	91,3	-3,3	-3,5	-2,2
Kirurgia ebakuntzak	111,9	70,1	41,9	111,7	69,8	41,9	113,4	74,8	38,6	1,5	7,2	-7,9
Kanpoko kontsultak	1162,8	922,1	240,7	1185,1	935,1	250,0	1176,5	961,4	215,1	-0,7	2,8	-14,0
FUNTZIONAMENDU ADIERAZLEAK												
Okupazio indizea (%)	82,2	84,5	77,2	80,8	83,1	75,5	78,1	81,3	70,9	-3,3	-2,2	-6,1
Batez besteko egonaldia	7,8	7,7	8,0	7,7	7,6	7,9	6,9	6,7	7,7	-10,4	-11,8	-2,5
Errotazio indizea	38,6	40,1	35,3	38,5	40,1	34,7	41,1	44,4	33,7	6,8	10,7	-2,9
Larrialdietako presioa	48,1	60,7	15,7	48,6	60,8	16,1	47,0	57,7	15,1	-3,3	-5,1	-6,2
Ospitaleratutako larrialdiak	13,4	14,9	6,7	13,3	14,8	6,6	13,6	15,1	6,8	2,3	2,0	3,0
Erikortasun gordina (%)	3,2	3,7	2,0	3,2	3,7	1,9	3,0	3,4	1,7	-6,3	-8,1	-10,5
Nekropsiak 1.000 heriotzako	45,9	54,9	2,3	45,8	54,2	2,5	42,5	49,0	4,9	-7,2	-9,6	96,0

Iturria: EUSTAT.Ospitale estatistika. Datu-basea

III.3.12. KOADROA. BALIABIDE PUBLIKOEN ERABILERA ESPEZIALITATEAREN ARABERA (*batez besteko egonaldia eta okupazio-indizea*)

ZERBITZUAK	Batez besteko egonaldia (egunak)					Okupazio indizea (%)				
	2007	2008	2009	2010	2011	2007	2008	2009	2010	2011
OSASUN ZERBITZUAK										
Barne medikuntza	8,9	8,4	8,1	8,1	8,2	118,6	108,4	97,8	97,2	112,2
Kardiologia	5,7	5,4	5,3	4,9	4,7	107,8	93,4	90,0	80,3	92,1
Digestioa	8,1	7,5	7,2	7,3	7,2	107,8	112,7	119,9	104,6	112,2
Hematologia	10,9	10,4	10,1	10,1	8,8	87,8	92,1	92,9	90,7	81,7
Pneumologia	7,0	6,7	6,6	6,5	6,4	145,9	108,3	91,6	90,1	127,3
Psikiatria	15,0	13,9	15,5	15,1	14,3	86,4	77,7	94,7	90,1	141,0
Errehabilitazioa	33,1	30,6	28,0	29,3	29,3	91,9	91,2	82,7	75,9	91,9
Zaintza aringarriak	18,2	17,8	15,4	15,0	14,0	121,6	92,2	81,6	78,8	87,5
KIRURGIA ZERBITZUAK										
Kirurgia orokorra	5,2	5,1	4,9	4,6	4,3	95,1	81,8	62,7	69,5	81,0
Kirurgia plastikoa	5,0	5,9	5,4	5,3	4,0	64,6	71,6	67,5	66,4	57,8
Bihotz-hodietako kirurgia	5,2	4,6	4,3	3,9	4,0	95,0	95,7	91,2	90,5	90,0
Hodietako kirurgia	5,9	6,1	6,1	5,5	4,9	78,1	72,8	75,8	71,5	71,7
Kirurgia torazikoa	4,8	4,6	4,4	4,7	4,4	87,7	79,0	77,1	79,6	78,6
Neurokirurgia	6,6	6,3	6,5	6,3	6,1	83,2	82,6	89,1	80,9	86,6
Traumatologia	6,0	5,5	5,4	5,0	4,5	91,5	81,8	78,4	75,3	82,2
Urologia	4,6	4,2	4,5	4,2	4,0	80,8	82,5	84,0	79,8	95,3

Iturria: Osakidetza: Akutuentzako ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

III.3.13. KOADROA. KANPOKO KOTSULTETAKO ITXARONZERRENDAK (paziente kopuru gehien duten espezialitateak)

	Gaixoak					Aldakuntzak			
	2007	2008	2009	2010	2011	07-08	08-09	09-10	10-11
Alergologia	1.658	906	2.117	1.516	2.107	-45,4	133,66	-28,4	39,0
Anestesiologia	3.805	4.008	-	-	-	5,3	-	-	-
Kardiologia	3.328	2.714	3.863	3.288	2.842	-18,4	42,34	-14,9	-13,6
Dermatologia	8.649	7.963	11.717	10.016	12.094	-7,9	47,14	-75,5	20,7
Digestioa	4.013	4.157	4.643	4.051	3.931	3,6	11,69	115,7	-3,0
Endokrinologia	1.985	1.963	2.876	2.363	1.780	-1,1	46,51	40,9	-24,7
Neurologia	3.980	2.833	3.906	3.818	4.388	-28,8	37,88	-39,5	14,9
Errehabilitazioa	3.730	3.145	4.714	3.875	4.806	-15,7	49,89	-19,0	24,0
Kirurgia orokorra	3.089	2.339	3.543	2.865	3.108	-24,3	51,48	299,1	8,5
Oftalmologia	17.026	10.818	11.157	14.141	14.735	-36,5	3,13	-57,4	4,2
ORL-otorrinolaringologia	5.132	3.862	5.265	4.754	5.561	-24,7	36,33	-26,4	17,0
Traumatologia	11.899	9.693	14.540	14.008	13.514	-18,5	50,01	-3,7	-3,5
Urologia	2.560	2.212	2.934	2.486	3.381	-13,6	32,64	-15,3	36,0
Ginekologia	7.646	6.076	12.497	10.538	9.523	-20,5	105,68	-67,3	-9,6
Beste batzuk	10.250	9.818	11.786	12.693	11.334	-4,2	20,05	62,5	-10,7
OROTARA	**88.750**	**72.507**	**95.558**	**90.412**	**93.104**	**-18,3**	**31,79**	**-5,4**	**3,0**

Iturria: Osakidetza. Akutuentzako ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

c) Osakidetzako ospitaleko eta ospitalez kanpoko jarduera

Baliabideen erabilera

Osakidetzak emandako datuen arabera, Osakidetzaren sareko batez besteko okupazio indizeak (adituek uste dute maila egokia %85 dela) %100 gainditzen duela (hala gertatzen da praktikan oheak espezialitateen artean aldatzen direlako beharrezkoa denean), psikiatriako espezialitatean (%141), pneumologian (%127,3), digestio-aparatuan eta barne medikuntzan (bietan %112,2). %100aren azpitik daude gainerako osasun zerbitzuak: kardiologia (%92,1), errehabilitazioa (%91,9), zaintza aringarriak (%87,5) eta hematologia (%81,7) eta kirurgiako zenbait zerbitzu ere: urologia (%95,3), bihotz-hodietako kirurgia (%90), neurokirurgia (%86,6), traumatologia (%82,2) eta kirurgia orokorra (%81).

Eguneko batez besteko egonaldiak berriz ere egin du behera, 5,6tik 5,5era. Batez bestekoaren oso gainetik daude errehabilitazioa (29,3), psikiatria (14,3), zaintza aringarriak (14), hematologia (8,8) eta medikuntza orokorra (8,2).

Itxaronzerrendak

III.3.14. KOADROA. EBAKUNTZETARAKO ITXARONZERRENDA

	2007	2008	2009	2010	2011
Paziente kop.	16.086	14.866	16.536	16.377	17.763
Bat. best. atzerap. (egunak)	53,03	51,86	53,18	48,19	51,83
Paziente kop. > 3 hilabete	2.414	2.050	2.484	1.903	2.815
Pazienteen % > 3 hilabete	15,0	13,8	15,0	11,62	15,85

Iturria: Osakidetza. Akutuentzako ospitaleak

Kanpoko kontsultei dagokienez, aurreko urtean hazi ondoren, itxaronzerrendako gaixoen guztizko kopurua jaitsi egin da 2011n, 90.412tik 93.104ra; urte batean hazteko joera apur bat izan du eta bestean jaistekoa.

Zerrendetan gaixo gehien dituzten espezialitateak, 2011n, hauek ziren: oftalmologia (14.735), traumatologia (13.514) eta dermatologia (12.094).

III.3.15. KOADROA. KANPOKO KONTSULTEN ITXARONZERRENDA, ATZERAPEN DENBORAK (%)

	2007	2008	2 kategoria besterik ez daude	2009	2010	2011
< hilabete	80,4	80,1	< hilabete	60,5	69,2	68,19
1 – 3 hilabete	19	17,5	>hilabete	39,5	30,9	31,9
> 3 hilabete	0,6	2,4				

Iturria: Osakidetza: Akutuentzako ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

III.3.16. KOADROA. OSAKIDETZAKO PAZIENTEEN GOGOBETETASUNA. OSPITALEKO LARRIALDIAK (%)

	2010	2011
Laguntzako balorazio globala		
Positiboa (bikaina+oso ona+ona)	93,4	91,5
Bikaina (bikaina+oso ona)	59,4	55,3
Zentrora joango lirateke berriro aukeratu ahal izanez gero	89,4	92,0
Medikuarekin lehen aldiz egon arte itxaron beharreko denboraren balorazio positiboa	75,9	74,3
Osasuneko langileek jasotako tratuaren gaineko balorazio positiboa	96,0	94,7
Medikuarengandik jasotako informazioaren gaineko balorazio positiboa	91,5	90,1
Osasuneko langileen gaikuntza teknikoaren gaineko balorazio positiboa	93,6	92,4

Iturria: Pazienteen gogobetetasunari buruzko inkestak, Osakidetzak eginikoak

Anestesiako itxaronzerrenda ez dago aginte-koadroaren datu normalizatuen artean, kirurgia guztien itxaronzerrendaren araberakoa delako.

Atzerapen denborari dagokionez, 2010 eta 2011 artean, hilabetetik gora itxaron behar duen biztanleria portzentajea hazi da, %30,9tik %31,9ra.

Kirurgiako itxaronzerrendei dagokienez, haietako gaixo kopurua murriztu egin da 2010 eta 2011 artean, 16.377 lagunetik 17.763ra, eta batez besteko atzerapen egunak murriztu egin dira (48,2tik 51,8ra). Horren ondorioz, ebakuntza izateko 3 hilabetetik gora itxaron behar duten gaixoen portzentajea jaitsi da, %11,6tik %15,9ra.

Kirurgia prozeduraren araberako itxaronzerrendei buruzko datuei dagokienez, esan behar da 2008ko urriaz geroztik, zuzendaritza nagusiaren erabakiz, haiek jasotzeari utzi zitzaiola.

Antzemandako kalitatea: EAEko osasun sistemari buruzko balorazioa

Pazienteen gogobetetasunari buruz Osakidetzak[4] eginiko inkestako datuak arlo askotarikoak dira, eta pazienteek antzemandako kalitatearen adierazle garrantzitsuak dira eta, ondorioz, EAEn dugun osasun sistema motari buruzko nahikoa ideia erreala lortzea ahalbideratzen dute.

Osakidetzako pazienteek ***oinarrizko arretako kontsultei (medikuntza orokorra eta pediatria)*** buruz duten gogobetetasuna handia da. Hala, inkestaturiko biztanleen %90ek baino gehiagok balorazio global positiboa eman du laguntzaren inguruan (bikaina+oso ona+ona), bai medikuntza orokorrean, bai pediatrian. Alabaina, jaitsiera txikia ikusten da ratio horretan eta, era berean, balorazio positiboan, kontsultaren aurretiazko aldiari dagokionez. Bereziki deigarria da kontsultan sartu arteko itxaroteko denboraren gaineko balorazio positiboaren jaitsiera pediatriako kontsultetan, zeren eta, 2009an inkestaturiko biztanleen %90,7k positibotzat hartzen bazuen ere, 2011n %87,7ra jaitsi da ratioa 2011n.

Bestalde, ***ospitale barruko kanpoko kontsultetan*** balorazio global ona dago, eta gainera hobetu egin da azterturiko azken aldiaren (2011) eta aurrekoaren artean, salbu eta galdera hau egiten zaienean inkestaturiko biztanleei: *zentrora itzuliko zinateke ahal izanez gero?* Izan ere, erantzunean %95,2tik %94,5era jaitsi da ratioa.

Ospitaleratzeei dagokienez, kalitatea positibotzat jotzen bada ere oro har (inkestaturiko biztanleen %90ek baino gehiagok ona/oso ona/bikaina dela irizten dio), ezberdintasunak ikusten dira akutuentzako unitateetan antzemandako kalitatearen eta egonaldi ertain eta luzeko unitateen artean; akutuena pixka bat handiagoa da. Hona hemen ezaugarri nabarmenak: batetik, gogobetetasun txikiagoa akutuentzako unitateetan ospitaleratzeko itxaronzerrendeei dagokienez, batez bestekoarekiko; bestetik, behera egin du mina erabat edo nahikoa kendu zaiela dioten egonaldi ertain eta luzeko unitateetan ospitaleratutako pazienteen ehunekoak, 2010 eta 2011ko datuekin alderatuta.

4 Inkesta horietako zenbait urtero egiten dira. Beste batzuk, berriz, bi urterik behin.

III.3.17. KOADROA. OSAKIDETZAKO PAZIENTEEN GOGOBETETASUNA. OINARRIZKO ARRETA ETA OSPITAL BARRUKO KANPOKO KONTSULTAK (%)

	Oinarrizko arretako kontsultak				Ospitale barruko kanpoko kontsultak*	
	Medikuntza orokorra		Pediatria*			
	2010	2011	2009	2011	2009	2011
Laguntzari buruzko balorazio globala						
Positiboa (Bikaina+oso handia+ona)	95,9	94,5	96,6	95,4	95,7	97,6
Bikaina (Bikaina+oso ona)	50,0	48,8	49,8	54,7	49,2	60,4
Zentrora itzuliko lirateke aukeratu ahal izanez gero	95,0	94,7	96,6	95,3	95,2	94,5
Kontsultan sartu arteko itxaroteko denborari buruzko balorazio posit.	89,6	90,1	90,7	87,7	78,6	82,1
Osasuneko langileriak emandako tratuari buruzko balorazio posit.	95,1	95,8	95,2	95,5	96,3	97,7
Medikuak emandako informazioari buruzko balorazio posit.	92,6	92,6	94,5	93,9	93,1	94,9

** Bi urteko inkesta. Iturria: Pazienteen gogobetetasunari buruzko inkesta, Osakidetzak egina*

III.3.18. KOADROA. OSAKIDETZAKO PAZIENTEEN GOGOBETETASUNA. OSPITALERATZE OROKORRA (%)

	Akutuentzako ospitaleak		Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak	
	2010	2011	2010	2011
Laguntzari buruzko balorazio globala				
Positiboa (bikaina+oso ona+ona)	97,5	97,0	94,3	95,7
Bikaina (bikaina+oso ona)	66,3	67,0	69,2	57,6
Zentrora itzuliko lirateke aukeratu ahal izanez gero	94,8	95,4	88,7	84,2
Itxaroteko zerrendako denborari buruzko balorazio positiboa	67,5	66,0		
Osasuneko langileriak emandako tratuari buruzko balorazio positiboa	96,6	96,5	94,4	95,2
Osasuneko langileriak emandako informazioari buruzko balorazio positiboa	93,6	94,4	92,7	90,9
Osasuneko langileriaren prestakuntza teknikoari buruzko balorazio posit.	97,4	97,1	94,7	94,9
Mina erabat edo nahikoa kendu zaien pazienteen kopurua	92,0	93,8	96,0	92,5

Iturria: Pazienteen gogobetetasunari buruzko inkesta, Osakidetzak egina

Azkenik, ***ospitaleko larrialdiei*** dagokienez ere, balorazioa oso altua da. Gogobetetasun txikiena duena medikuarekin lehen harremana izan arteko itxaroteko denbora da. Ikuspegi dinamikotik, ohartarazi behar dugu baloraturiko zerbitzu guztietan ("laguntza", "itxaroteko denbora", "tratua", "informazioa" eta "prestakuntza") 2010ean baino balorazio txarragoa izan dela, "zentrorako itzuliko zinateke aukeratu ahal izanez gero" izan ezik.

d) Osasun arreta pribatua: Osasun eta farmazia laguntzako aseguru libreko erakundeak

Aseguru libreko erakundeak (aurrerantzean ALE), EUSTATen 2010eko datuen arabera, 15 dira guztira, baina zenbait lurraldetan jardun dezakete. Haietatik, 3 igualatorioak dira, 9 aseguru konpainiak eta 3 BGAE eta mutuak.

Zorroari dagokionez, poliza kopurua berriz hazi da, 2009 eta 2010 artean %1,8, eta 215.086 dira. 382.677 lagunek daukate osasun laguntzako aseguru pribatu bana kontratatuta, 2009an baino %1,6 gehiagok. Ondorioz, EAEko biztanleen %18k daukate osasun aseguru pribatua kontratatuta.

Hala ere, aseguratuen kopuruaren igoera hori (%1,6) Estatuan izandakoa baino txikiagoa da (%4,2). Honelaxe banatu zen aseguratuen taldea eremu geografikoen arabera: %71,3 Bizkaiari zegokion, %18,1 Gipuzkoari eta %10,6 Arabari.

EAE osorako aseguratu bakoitzeko batez besteko urteko prima 699 eurokoa izan zen, 2009an baino %3,6 gehiago.

Hala, ingurune ekonomiko txarrean, osasun aseguruak gora egitea lortu zuen aseguratuen kopuruan eta primen bolumenean 2010ean.

Banakoak edo familiakoak eta talde aseguruak dira aseguratu kopururik handiena biltzen duten modalitateak (enpresak edo beste talde zehatz batzuek beren langileen edo talde horien alde zuzenean hitzartutakoak), bietan %45.


Banako edo familiako polizak mutualitate publikoena gainditu du (%10).

III.3.19. KOADROA. OSASUN ETA FARMAZIA LAGUNTZAKO ASEGURU LIBREKO ERAKUNDEEN BILAKAERA EAE-N*

	2006	2007	2008	2009	2010	Variación 2009-10
Erakundeak guztira**	16	15	14	14	15	7,1
Igualatorioak	4	4	3	3	3	0,0
Aseguru konpainiak	8	7	8	8	9	12,5
B.G.A.E. eta mutuak	4	4	3	3	3	0,0
Zorroa						
Poliza kop.	178.022	183.761	210.642	211.376	215.086	1,8
Aseguratu kop.	333.226	346.062	373.548	376.544	382.677	1,6
Biztanleria aseguratuaren %	16	16	17	17	18	0,6
Primen bolumena (mila euro)	185.818	201.130	238.083	254.134	267.618	5,3
Primak aseguratuko (euroak)	558	581	637	675	699	3,6
Primak biztanleko (euroak)	87	94	110	117	123	5,1
Primak / BPG (%)	0,30	0,30	0,37	0,40	0,41	
Jarduera ekonomikoa						
Gastuak guztira (mila euro)	177.792	192.986	200.824	224.442	239.058	6,5
Sarrerak guztira (mila euro)	196.283	211.541	245.191	274.630	286.731	4,4

** EUSTATek 2006ko eta 2007ko datuen berrikuspena egin du, berrikuspena ekarri duena*
*** Erakunde desberdinei dagokie guztizkoa, baina erakundeok lurralde batean baino gehiagotan jardun dezakete*
Iturria: EUSTAT. Datu-basea

III.3.1 GRAFIKOA. ASEGURATUEN KOPURUAREN ETA ASEGURATUKO PRIMEN BILAKAERA POLIZA MOTAREN ARABERA



Iturria: Eustat, Lag. mediko-farmazeutikoko aseguru askeko erakundea

Aseguraturiko biztanle gehienek (%90) osasun laguntza orokorraren estaldura duen aseguru medikoa zuten kontratatua, oinarrizko arreta eta ospitaleko arreta zerbitzuak estaltzen dituena. %7,7k, berriz, arreta espezifikoko poliza bat aukeratu zuen (oinarrizko arreta, espezializatua edo haginetakoa).

3.4 OSASUN SISTEMAREN GASTUA ETA FINANTZAZIOA

3.4.1 Osasun Sailaren gastua

EAEko aurrekontuaren likidazioaren datuen arabera, Osasun eta Kontsumo Sailaren gastuaren partida 3.434,3 milioi eurokoa izan zen 2011n, hots, %3,1 gutxiago 2010ean likidaturiko gastuarekiko.

Berariaz osasunekoak diren partidak (Egitura eta Laguntza, Osasun Finantzazioa eta Kontratazioa, Osasun Publikoa, Jakintzaren Kudeaketa eta Ebaluazioa eta Farmazia), 2011n likidatuak, 3.398,8 milioi eurokoak izan ziren, eta %3,9ko murrizpena ikusten da 2010eko urtearekiko. Hala, Osasun Sailak lehen tokian jarraitzen du baliabideen ehunekoetan, 2011ko guztizko %33,4arekin, non programa nagusia Osakidetzako transferentziei dagokien. Gastu hori BPGaren %5,13 da, aurreko urtekoa baino txikiagoa (%5,43).

Bestalde, Osasun eta Kontsumo Sailak 2012an 3.406,6 milioi euroko gastu-aurrekontua izan zuen (2011n likidaturikoa baino -%0,3 gutxiago). Berariaz osasunekoak diren partidak, 2012rako aurrekontuan ezarriak, 3.399,7 milioi eurokoak izan ziren. hots, BPGaren %5,13, aurreko urteko berdina.

III.3.20. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILAREN GASTUAREN BANAKAPENA (atala eta programa mila eurotan)

	Likidazioa		Aurrekontua	Aldakuntza (%)	
	2010	2011	2012	10-11	11-12
Egitura eta laguntza	22.101	16.347	21.369	-26,0	30,7
Osasun finantzazioa eta kontratazioa	2.845.223	2.766.889	2.763.372	-2,8	-0,1
Osasun publikoa	34.755	29.126	32.560	-16,2	11,8
Jakintzaren kudeaketa ebaluazioa	9.657	6.385	7.147	-33,9	11,9
Farmazia	624.898	580.043	569.574	-7,2	-1,8
Droga-mendekotasunak			5.629	-	-
Osasuna orotara	**3.536.634**	**3.398.790**	**3.399.651**	**-3,9**	**0,0**
Osasuna eta kontsumoa	**3.542.338**	**3.434.276**	**3.406.549**	**-3,6**	**-0,3**
OROTARA	**10.327.556**	**10.173.197**	**10.449.167**	**-1,5**	**2,7**
BPG	65.120.174	66.264.502	66.223.349	1,8	-0,1
Osasunaren % guztizkoaren gainean	34,2	33,4	32,5	-0,8	-0,9
Osasunaren % BPGaren gainean	5,43	5,13	5,13	-0,3	0,0

Iturria: EAEko Kontu Orokorrak eta Aurrekontuak, norberak egina

3.4.2 Laguntza jarduerako gastua

Arestian esana dugunez, osasun laguntza ospitaleko edo ospitalez kanpoko jarduera izan daiteke (horren barruan ospitaleetatik kanpo ematen den lehen mailako laguntza eta laguntza espezializatua sartzen dira) eta publikoak edo pribatuak izan daitezke biak. Osasun laguntza jarduera publikoa Osakidetzak eta zentro itunduek ematen dute eta pribatua zentro pribatuek.

3.4.2.1 Ospitaleaz kanpoko jarduera publikoaren gastua

Euskal osasun publikoak 593.783 mila euro erabili zituen ospitalez kanpoko osasun laguntzarako, hots, %3ko hazkundea aurreko urtearekin alderatua, hain zuzen EAEko ekonomiak urte bererako lortu zuen %1,8ko hazkundearen gainetik (BPGaren hazkunde nominalean adierazia).

Gastu guztietatik, % 97,2 (577,2 milioi euro) gastu arruntei dagokie eta %2,8 (16,6 milioi) inbertsio

gastuei; izan ere, %1,4 egin du gora kopuru horrek aurreko urtearekin alderatuta.

Langileriaren gastua %2,4 hazi da aurreko urtearekiko, eta %82,4 da.

Ospitalez kanpoko laguntza jarduera euskal BPGaren %0,9 izan zen 2010ean eta biztanleko 273€-ko batez besteko gastua, aurreko urtean baino %2,7 gehiago.

Ospitalez kanpoko gastu publikoaren finantzazio iturri nagusia Osasun Saila da orain ere (guztizkoaren %89,9: 608 milioi euroetatik 546).

III.3.21. KOADROA. SALMENTA ETA SARRERAK (milaka eurotan)

	2007	2008	2009	2010
Salmentak eta sarrerak guztira	514.255	571.574	632.575	607.991
Zerbitzugintzaren ondoriozko diru-sarrerak	498.123	554.109	614.757	590.567
Partikularrak	168	170	203	667
Aseguru erakunde pribatuak	1.359	1.381	1.437	1.479
Lan-istripuetako mutuak	35.754	38.653	37.106	42.000
Osasun Saila	460.657	513.722	575.913	545.937
Beste erakunde publiko batzuk	179	178	73	475
Zerbitzuengatiko beste sarrera batzuk	7	6	25	8
Enpresarentzat eginiko lanak	874	1.261	731	764
Ustiapenerako diru-laguntzak	1.969	2.371	2.873	2.460
Beste kudeaketa-sarrera batzuk	2.121	1.861	2.053	1.700
Finantza-sarrerak	1.869	2.759	773	262
Beste sarrera batzuk	9.297	9.213	11.389	12.237

Iturria: EUSTAT. Ospitalez kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika.

III.3.22. KOADROA. OSPITALEZ KANOKO SEKTORE PUBLIKOAREN GASTUA EAE-N

	2007	2008	2009	2010	% aldak. 2009/2010
Gastuak orotara	482.498	536.971	576.554	593.783	3,0
Gastu arruntak	454.732	517.350	560.140	577.147	3,0
Langileria gastuak	386.275	442.729	477.591	489.134	2,4
Bestelako gastu arruntak	68.457	74.621	82.549	88.013	6,6
Kapital gastuak	27.766	19.621	16.414	16.637	1,4
Langileria gastua / Gastua guztira (%)	0,8	0,8	0,8	0,8	-
Kapital gastuak / Gastua guztira (%)	0,1	0,0	0,0	0,0	-
Gastua/biztanle (euroak)	225	249	266	273	-
Gastua / BPG (%)	0,7	0,8	0,9	0,9	-

Iturria: EUSTAT. Ospitalez kanpoko estatistika publikoa.

3.4.2.2 Ospitaleko jarduera publiko eta pribatuko gastua

EUSTATen Ospitaleen estatistikako datuen arabera, EAEko ospitaleko osasun gastua (publikoa eta pribatua) 2.317,7 milioi eurokoa izan zen 2010ean, hots, %3,2ko igoera aurreko ekitaldiarekiko.

Ospitaleko laguntza jarduera euskal BPGaren %3,5 izan zen 2010ean eta biztanleko 1.062€-ko batez besteko gastua, aurreko urtean baino %2,7 gehiago.

Guztizko gastutik, 2.188,9 (%94,4) milioi gastu arruntei dagokie, eta aurreko urtean hasitako hazkundeak jarraitu du, eta 128,8 milioi inbertsiora.

Titularitatearen arabera, hots, sare publikoa eta pribatua bereiziz, gastuaren %84,9 gastu publikoa da.

III.3.23. KOADROA. GASTUAREN BILAKAERA EAE-KO OSPITALEEN SEKTOREAN (mila eurotan)

	2008			2009			2010			Aldak. 2009-10		
	Orotara	Publik.	Pribatua	Orotara	Publik.	Pribatua	Orotara	Publik.	Pribatua	Orotara	Publik.	Pribatua
Gastua guztira (arrunta+inbertsioa)	2.079.209	1.765.990	313.220	2.246.595	1.927.805	318.790	2.317.721	1.967.026	350.695	3,2	2,0	10,0
Erosketak eta gastu arruntak guztira	1.954.760	1.663.806	290.954	2.125.759	1.825.607	300.152	2.188.893	1.866.648	322.245	3,0	2,2	7,4
Erosketak	547.947	447.508	100.439	590.605	487.318	103.287	-	-	-	-	-	-
Langileria gastuak	1.259.434	1.117.471	141.964	1.375.422	1.226.897	148.525	1.397.210	1.242.008	155.202	1,6	1,2	4,5
Inbertsioak guztira	124.449	102.184	22.266	120.836	102.198	18.638	128.828	100.378	28.450	6,6	-1,8	52,6
Salmentak eta sarrera arruntak guztira	1.922.149	1.629.100	293.050	2.082.438	1.779.511	302.927	2.125.477	1.866.648	322.245	2,1	4,9	6,4

Iturria: EUSTAT. Ospitaleen estatistika.

III.3.24. KOADROA. GASTUAREN BILAKAERA EAE-KO OSPITALEEN SEKTOREAN

	2006	2007	2008	2009	2010	% aldak. 2009/10
JARDUERA EKONOMIKOA (mila eurotan)						
Gastua orotara (arrunta+inbertsioa)	1.651.364	1.844.063	2.079.209	2.246.595	2.317.721	3,2
Gastu arruntak	1.590.343	1.750.667	1.954.760	2.125.759	2.188.893	3,0
Langileria gastuak	1.007.459	1.122.140	1.259.434	1.375.422	1.397.210	1,6
Beste gastu arrunt batzuk	582.884	628.527	695.326	750.337	791.683	5,5
Inbertsioa	61.021	93.396	124.449	120.836	128.828	6,6
Sarrerak guztira	1.585.618	1.745.731	1.956.902	2.121.629	2.166.427	2,1
Sarrera arruntak	1.552.128	1.712.408	1.922.149	2.082.438	2.125.477	2,1
Salmentak	1.541.772	1.702.646	1.905.818	2.063.628	2.104.402	2,0
Diru-laguntzak	10.356	9.762	16.332	18.810	21.075	12,0
Kapital sarrerak	33.490	33.323	34.753	39.191	40.950	4,5
EKONOMIA ADIERAZLEAK						
Gastua/Biztanle (Euroak)	776	861	965	1.034	1.062	2,7
Gastua/B.P.G.	2,7	2,8	3,1	3,5	3,5	

Iturria: EUSTAT eta Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Ospitaleen estatistika.

III.3.25. KOADROA. OSAKIDETZAREN GASTUEN LIKIDAZIOA ETA AURREKONTUA (mila eurotan)

	2009			2010			2011		
	Aurrek.	Likidaz.	Aurrek.	Aurrek.	Likidaz.	Diferen.	Aurrek.	Likidaz.	Diferen.
INBERTSIOA	170.079	207.074	36.995	137.997	132.723	-5.274	120.610	123.682	3.072
USTIAPENEKO GASTUA	2.498.142	2.507.752	9.610	2.554.215	2.539.226	-14.989	2.544.125	2.538.867	-5.258
Langileria	1.760.916	1.750.591	-10.325	1.792.362	1.763.417	-28.945	1.758.292	1.757.114	-1.178
Hornikuntzak	519.293	539.763	20.470	540.554	554.975	14.421	562.662	557.505	-5.157
Beste batzuk	217.933	217.398	-535	221.299	220.834	-465	223.171	224.248	1.077
OROTARA	**2.705.216**	**2.544.747**	**-160.469**	**2.692.212**	**2.671.949**	**-20.263**	**2.664.735**	**2.662.549**	**-2.186**
BPG			63.988.786			65.120.174			66.264.502
Gastuaren urte arteko aldakuntza (%)			5,2			5,0			-0,4
BPGaren gaineko gastua (%)			3,98			4,10			4,02

Iturria: EAEko Kontu Orokorrak oinarri hartuta landutakoa

Gastu publikoak nahiz pribatuak gora egin dute 2009 eta 2010 bitartean, %2 lehenbizikoak eta %10 bigarrenak. Gastu arruntaren igoera %2,2koa da lehen kasuan eta %7,4koa bigarrenean. Bestalde, inbertsioak jaitsi egin dira sare publikoan eta igo sare pribatuan (%52,6). Gastu arruntei dagokienez (salmentak eta sarrerak), %4,9 igo da sare publikoan eta %6,4 pribatuan.

3.4.2.3. Osakidetzako ospitaleko eta ospitaleaz kanpoko jarduera

EAEko Kontu Orokorrak oinarri hartuta Osakidetzak eginiko aurreko-likidazioak erakusten duenez, erakundeak 2011n 2.663 milioi euroko gastua egin du (-%0,4 2010. urtearekiko), hots, BPG nominalaren %4,02. Jaitsiera hori gertatu da ustiapeneko gastuek behera egin dutelako (langileriak hornidura eta beste gastu batzuk), baita inbertsioak ere.

Likidaturiko guztizkotik, %4,7 inbertsioei dagokie (123.682 mila euro) eta %95.3 Ustiapeneko Gastuei, non erakundearen gastua osoaren %69,2 diren langileen gastuak nabarmentzen diren.


2011n benetan egikariturikoarekiko aurrekontuan desbideraturiko kopuruari dagokionez, aurrekontuan ezarritakoa baino txikiagoa da likidaturiko gastua (-2.186 mila euro), eta “langileria gastuak” eta “hornidurak” izenekoengatiko desbideratzeari dagokie.

4. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

EAEko higiezinen merkatuak 2012an izan duen bilakaeraren ezaugarri bat da, Eusko Jaurlaritzaren Higiezinen Eskaintzaren Inkestaren emaitzen arabera, etxebizitzaren eskaintzak % 11,4ko jaitsiera izan duela (% +54,4 izan zuen 2010-2011 aldian), bilakaera ezberdinak izan direlako salgai dauden etxebizitza libre berrietan (% +3,47), erabilietan (% -9,7), alokairuko etxebizitza libreetan (% +25,7) eta salgai dauden etxebizitza babestuetan (% -38,9); halaber, alokairuan dagoen etxebizitza babestuaren eskaintzak ere % -18,1eko jaitsiera izan du. Era berean, 2011ri buruzkoa den eta erabilgarri dagoen azken datuaren arabera, etxebizitzen eskaria edo beharrizana[1] % 21,9 murriztu da, 2010ean jada % 11,6 jaitsi zela.

Bestalde, etxebizitzetarako egindako hipoteken kopurua % 26,2 murriztu da 2012an, eta zenbateko osoa % 33,8. Aurreko denboraldian ere % 23,6 eta % 25,2 murriztu ziren horiek. Ondorioz, hipotekatutako finkaren gainean mailegatutako batez besteko zenbatekoa % 10,3 murriztu da 2012an. Bitartean, hipoteka merkatuko interes-tasak epe guztietan txikitu dira: Urtebeterako Euribor urtarrileko 1,67tik abenduko 0,6ra igaro da. Kreditu entitateek familientzat ematen duten mailegu tasa (UTB), berriz, 3,66tik 2,93ra igaro da denboraldi berean[2].

III.4.1. GRAFIKOA. ETXEBIZITZEN MERKATUAREN BILAKAERA EAE-N[1]



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren eta EINren datuak erabilita egindakoa.

1 Grafikoan azaltzen den eskariak eskuratzeko behar diren etxebizitzen kopurua erakusten du; eskaintza higiezinen sustatzaile eta agenteek emandakoa da; prezioak eurotan adierazita daude salgai dauden etxebizitza libreen (berriak nahiz erabiliak) m2 erabilgarri bakoitzeko.

2 Finantza-aldagai horiei buruzko informazio handiagoa eskuratzeko, irakurleari gomendatu nahi diogu Memoria Sozioekonomiko honetako "II.2. Egitura produktiboa eta berrikuntza EAEn" kapitulura jotzea.

4.1. LURZORUA ETA PRODUKZIO KOSTUAK

4.1.1 Lurzorua EAEn

Etxebizitzak etxebizitzen merkatura iristeko prozesua hasteko, lurzorua erosten da. Gero urbanizazioa, promozioa, eraikuntza eta, azkenik, etxebizitzen salmenta edo adjudikazioa datoz. Normalean informazioa izaten dugu prozesuaren azken zatiari buruz, eskaintzen den etxebizitza kopurua jakiten dugu, eta haien ezaugarri batzuk eta salneurria ere bai. Baina aurreko faseei buruz dagoen informazioa oso urria da eta, iturri batetik bestera, kontraesankorra ere bai.

Sustapen Ministerioaren Prezioen Estatistikako datuei erreparatuz gero, 2012ko laugarren hiruhilekoan EAEn egin diren hiri lurren transakzioetan batez besteko prezioa 417 euro izan da m^2 bakoitzeko. Beraz, urtebete lehenagoko batezbestekoa baino % 63,6 handiagoa da. Era berean, Estatu osoan egindako transakzioen batez bestekoa 187,40 €/m^2 izan da, 2011ko azken hiruhilekoan izandako batez besteko prezioaren aldean % 2,7ko gehikuntza ekarri duela.

Kopuru absolutuetan, Madrilgo Komunitateak dauka Estatuko preziorik garestiena (425,80 €/m^2, 2011ko laugarren hiruhilekoan baino % 1,8 gehiago), eta haren atzetik EAEk. EAEn izandako bilakaera lurralde historikoen arabera aztertzen badugu, nabarmentzekoa da prezioek Bizkaian izan duten gehikuntza handia: % +74,2. Horrela, 2012aren amaieran 490,70 €/m^2-ko batez besteko prezioa izan du. Gipuzkoan ere prezioak garestitu dira, % 31,7, hain zuzen; Araban, aldiz, % 7,9 murriztu dira.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak, 2012ko irailean, hurrengo urteetan babes publikoko 7.810 etxebizitza inguru eraikitzeko lurzoru-ondarea zeukan (Etxebizitza Sailak erosita zeuzkan lurzatiak eta erosi nahi zituen beste lurzoru batzuk barne). Kopuru horretatik % 58 (4.521 etxebizitza) 2013rako eskuragarri egongo lirateke, eta gainerako % 42 hurrengo bi urteetan egongo lirateke: 1.518 2014an eta 1.771 2015ean.

III.4.1. KOADROA. HIRI LURZORUAREN BATEZ BESTEKO PREZIOAREN BILAKAERA, €/M²-TAN. LAUGARREN

	2010	2011	2012	2011-12ko %
ESTATUKO BATEZBESTEKOA	227,7	182,5	187,4	2,7
Andaluzia	214,8	186,2	159,2	-14,5
Aragoi	155,7	136,9	159,4	16,4
Asturias	171,4	128,4	139,3	8,5
Balear Uharteak	248,5	255,8	254,7	-0,4
Kanariar U.	217,4	223,3	217,9	-2,4
Kantabria	239,9	148,2	126,4	-14,7
Gaztela eta Leon	93,3	84,8	65,8	-22,5
Gaztela-Mantxa	165,0	127,4	132,6	4,1
Katalunia	276,5	235,3	173,1	-26,4
Valentziako E.	248,9	203,8	183,6	-9,9
Extremadura	116,8	92,1	153,1	66,2
Galizia	162,8	152,7	111,7	-26,8
Madril	499,7	418,4	425,8	1,8
Murtzia	237,2	227,8	232,0	1,8
Nafarroa	176,2	235,9	217,6	-7,8
EAE	340,8	254,8	417,0	63,6
- Araba	*271,1*	*248,8*	*229,1*	*-7,9*
- Gipuzkoa	*296,0*	*222,6*	*293,2*	*31,7*
- Bizkaia	*412,6*	*281,7*	*490,7*	*74,2*
Errioxa	198,2	117,9	178,6	51,6

Iturria: SUSTAPEN MINISTERIOA


III.4.2. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA SAILAREN LURZORUAREN ONDAREAREN BANAKETA GEOGRAFIKOA

	ERABILGARRITASUNA				GUZTIRA (2012 -	
	2012	2013	2014	2015	ETXEBIZITZAK	% BERT.
EAE, GUZTIRA	**3.728**	**793**	**1.518**	**1.771**	**7.810**	**100,0**
ARABA	576	0	0	0	576	7,4
Arabako erdigunea	502	0	0	0	502	6,4
Laudio	74	0	0	0	74	0,9
BIZKAIA	1.999	486	1.016	221	3.722	47,7
Bilbo metropolitarra	1.755	224	1.016	221	3.216	41,2
Balmaseda-Zalla	0	70	0	0	70	0,9
Igorre	26	0	0	0	26	0,3
Durango	26	102	0	0	128	1,6
Gernika-Markina	192	90	0	0	282	3,6
GIPUZKOA	1.153	307	502	1.550	3.512	45,0
Donostia	728	0	412	1.500	2640	33,8
Eibar	109	0	0	0	109	1,4
Zarautz-Azpeitia	130	183	90	50	453	5,8
Arrasate-Bergara	0	124	0	0	124	1,6
Beasain-Zumarraga	30	0	0	0	30	0,4
Tolosa	156	0	0	0	156	2,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Etxebizitza Saila. 2012ko iraila.

Lurzoruaren ondarearen hiru laurdenak Bilboko (3.216 etxebizitza) eta Donostiako (2.640) arlo funtzionaletan daude, eta, lurzorua/biztanlea ratioaren ikuspuntutik, Donostialdea lehenengo posizioan dago: 6,9 etxebizitza 1.000 biztanleko; horren atzetik Zarautz-Azpeitiako arlo funtzionala dago: 6,8. Bilbo Metropolitarra laugarren posizioan dago (3,6 etxebizitza 1.000 biztanleko), Gernika-Markinaren (4 etxebizitza 1.000 biztanleko) atzean, hain zuzen.

III.4.2. GRAFIKOA. INTERURTEROKO ALDAKETAKO CAPV-eko ERAIKUNTZAKO KOSTUEN TASA. URTE OINARRIA: 2010 .



	Kostu guztizkoak	Eraikuntza-kostuak	Kostu lan-zibilak
2006	4,2	4,0	5,2
2007	4,5	4,4	4,5
2008	7,5	7,2	8,5
2009	0,2	0,9	-2,6
2010	1,1	0,5	3,1
2011	2,5	2,0	4,4
2012	0,8	0,6	1,7

Fuente: EUSTAT. ICCE.

4.1.2. Eraikuntza kostuen estatistika

EUSTATen "*Eraikuntza Kostuen Indizea*"[3] inguruabar izaerako adierazlea da. Kostu horien bilakaera neurtzen du, eraikuntza sektoreko lehengaien edo bitarteko kontsumoen (lehengaien eta materialen kostuen, energia kostuen eta askotako gastuen kostuen batura; hori sektoreko lehengai nagusien prezioen bidez zenbatesten da) eta langileria kostuen (soldata gordinen eta gizarte kotizazioen batura, sektoreko hitzarmen kolektiboen bidez zenbatetsia) indize baten bidez. Adierazle horrek ez du ahalbidetzen produkzioaren azken prezioari eragiten dioten kostu guztiak neurtzea, jakina, enpresa etekinaz gain, kapitalari lotutako faktoreak falta baitira.

3 Indize honek eraikuntza obra mota biak bereizten ditu: eraikinak egitea (eraikuntza iraunkor oro, bereizia edo independentea, etxebizitza familiar edo kolektiborako egiten dena, edo nekazaritzarako, industriarako, zerbitzuak emateko edo, oro har, jarduera bat egiteko —eskolak, siloak, eta abar— egiten dena) eta obra zibila (azpiegitura obra oro, eraikinak egitea ez dena, kolektiboki edo publikoki erabiltzeko dena). 2008ko otsailean EUSTATek base berria egin zuen, 2000tik 2005era igaroz. Aldaketa honek zenbait hobekuntza ekarri ditu, besteak beste, EAEko eraikuntza sektorearen produktu eta lehengai garrantzitsuenak eguneratzea, estaldura zinez gehituz.

III.4.3. KOADROA. ERAIKUNTZAREN SEKTOREAREN MAGNITUDE NAGUSIAK. EGUNEKO PREZIOAK. (MILAKA EUROTAN).

	2008	2009	2010	08-09ko %	09-10eko %
Lanean ari diren langileak	103.635	94.354	85.827	-9,0	-9,0
BEGd-a, fakt. kostuan	6.710.745	5.932.017	5.279.3630	-11,6	-11,0
Ustiapeneko sob. gordina	2.667.364	2.025.584	1.805.782	-24,.1	-10,9
Egindako inbertsioak	500.729	497.385	345.899	-0,7	-30,5
Amortiza-zioak	376.519	395.542	418.234	5,1	5,7
Negozioen zifra	24.810.267	21.001.878	17.099.703	-15,4	-18,6
Ustiapen kontsumoa	19.284.100	14.548.392	10.254.339	-24,6	-29,5
Kanpoko zerbitzuak	2.474.818	2.216.520	1.981.536	-10,4	-10,6
Langileri a kostuak	4.043.381	3.906.433	3.473.848	-3,4	-11,1
Zergen aurreko emaitzak	1.835.193	970.482	477.814	-47,1	-50,8
Ekitaldiko emaitza	1.666.067	848.637	389.986	-49,1	-54,0

***Iturria: EUSTATen* Industriako eta Eraikuntzako Estatistika.**

2012an, eraikuntza kostuak, beren osotasunean, % 0,8 handitu dira batez beste, eskulanarena % 1 eta lehengaien kostuak % 0,8 handitu dira, bilakaera ekonomikoaren ondorioz. Aurreko ekitaldian bezala, Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreek norabide bereko bilakaerak izan dituzte: lehenengoaren kostuak apur bat handitu ziren (% +0,6), eta bigarrenarenak are gehiago: % 1,7 handitu ziren.

Sektoreak erabiltzen dituen eta azken hamabi hiletan inflazio tasa handienak izan dituzten lehengaien prezioei dagokienez, nabarmenak dira honako sektore hauetako lehengaienak: Makineria (% 5,8), Energia elektrikoa, gasa eta lurrina (% 3,8) eta Material elektrikoa (% 2,5), besteak beste. Hala ere, honako sektore hauetako lehengaien prezioak murriztu dira: Metalezkoak ez diren mineralen erauzketa (% -4,8), Metalurgia (% -3,0) eta Petrolioa fintzeko fabrikak (% -0,2).

Bestalde, EUSTATen "*Industriako eta Eraikuntzako Estatistikaren*" datuek erakusten dute eraikuntza sektoreak 2010ean (informazioa eskuragarri duen azken urtea) atzerakada handia izan zuela, bai sortutako balio erantsiaren aldetik, bai enpleguaren aldetik.

Eraikuntzako enplegu kopuruak behera egin du % 9, aurreko urtean bezala. Hain zuzen ere, aurreko urtearekin alderatuta 8.500 landun gutxiago egon dira. Era berean, negozio kopuruak % 18,6ko beherakada izan duela eta langileen kostuek % 11,1 behera egin dutela kalkulatzen da.

Beste alde batetik, Ustiapeneko soberakin gordina % 10,9 murriztu da. Horrez gain, amortizazioak % 5,7 igo direnez, soberakin garbia % 14,9 jaitsi da. Azkenik, zergen aurreko emaitzak % 50,8 jaitsi dira, eta ekitaldiko emaitza —guztira, 390 milioi euro—, berriz, % 54.

4.2. ETXEBIZITZAREN ESKAINTZA

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren *"Higiezinen Eskaintzaren Estatistikaren"* datuek[4] adierazten dute, lehenik eta behin, azken urtean etxebizitzen eskaintza osoa (salmenta gehi alokairua) % 11,4 murriztu dela (aurreko urtean % +54,4), laugarren hiruhilekoan 39.542 etxebizitzetara iritsi arte. Lagin hori, prezioen estatistikaren oinarria izanda, honela dago osatuta: % 93 salgai eskainitako etxebizitzak dira eta % 7 alokairuan eskainitakoak. Salgai dauden etxebizitzetatik % 27 etxebizitza berriak dira eta % 73 erabiliak, eta berrien % 42 babes publikoko motaren baten pean daude. Alokairuko etxebizitzetatik % 76 libreak dira eta % 24, berriz, babestuak.

4 Datuak 5 etxebizitzatik gorako sustapenak dituzten 156 sustatzaileari eta higiezinen 176 agentziari egindako inkesta baten bitartez jaso ziren – 2011n laginaren tamaina handitu da-. Beraz, ez da eskaintza guztia ageri. Inkesta honen emaitzen alderdirik interesgarriena, datu absolutuak baino, bilakaera da.

III.4.4. KOADROA. EAE-KO ETXEBIZITZA ESKAINTZAREN BILAKAERAREN LABURPENA

	GUZTIRA	ETXEBIZITZAK SALGAI					ETXEBIZITZAK ALOKAGAI		
		SALGAIAK, GUZTIRA	ETXEBIZITZA BERRIAK			ETXEBIZITZA ERABILIAK	ALOKAGAIAK, GUZTIRA	LIBREAK	BABESTUAK
			GUZTIRA	BABESTUAK	LIBREAK				
2007	22.048	20.051	9.421	5.093	4.329	10.630	1.997	485	1.512
2008	26.766	23.767	10.373	5.424	4.949	13.395	2.999	603	2.396
2009	27.560	24.180	10.127	5.010	5.117	14.053	3.380	1.000	2.380
2010	28.921	26.353	8.169	3.573	4.596	18.184	2.568	1.215	1.354
2011	44.643	42.276	12.394	6.845	5.549	29.882	2.367	1.602	766
2012KO I. HIR.	43.348	41.045	11.835	6.212	5.624	29.209	2.303	1.607	696
2012KO II. HIR.	41.558	39.190	10.997	5.367	5.631	28.192	2.369	1.730	639
2012KO III. HIR.	39.436	36.917	10.241	4.484	5.757	26.676	2.519	1.849	670
2012O IV. HIR.	39.542	36.902	9.918	4.180	5.738	26.985	2.640	2.013	627

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. **Higiezinen Eskaintzaren Estatistika.**
Oharra: Datuak 4 ordenako batez besteko mugikorren bidez azaltzen dira.

Datuetatik ondorioztatu da, 2004an abiarazi zen eskaintzaren goranzko joera 2 urtean (2009 eta 2010) gelditu ondoren, joera nabarmen (% +54,4) leheneratu dela 2011n, batez ere salmentako etxebizitzari dagokionez (% +60,4), nahiz eta 2012an berriro murriztu den bereziki etxebizitza babestuetan (% -38,9) eta neurri txikiagoan salgai dauden etxebizitza erabilietan % (-9,7). Etxebizitza libre berriaren eskaintza % 3,4 handitu da, eta alokairuko etxebizitzen eskaintza % 11,5 handitu da, merkatu librearen bilakaeragatik; izan ere, haren eskaintza % 25,7 handitu da, alokairu babestuko eskaintza % 18,1 murriztu baita.

Azken hamarkadako bilakaerari erreparatuta, ikusi da eskainitako etxebizitza tipologiako hazkunde proportzionalik handiena etxebizitza erabilian gertatu dela. Gauzak horrela, 2012an salgai dauden etxebizitza guztien % 73 erabiliak dira, 2002an proportzio hori % 59koa bakarrik zen arren.

Prezioei dagokienez, salgai dauden etxebizitza libreen (berrien nahiz erabilien) batez besteko prezioa m^2-ko 3.595 eurotik gorakoa da; horrenbestez, % 6,1 murriztu da 2011ko batezbestekoaren aldean; aurreko urtean % 1,5 murriztu zen. Etxebizitza berrien merkatuari dagokionez, prezioak % 0,7 jaitsi dira; bestalde, bigarren eskuko etxebizitzenak % 7,2 jaitsi dira. Bestalde, etxebizitza babestu berriaren batez besteko prezioa % 3,5 igo da azken urtean. Alokairu libreko batez besteko errenta, ordea, % 4,5 jaitsi da (prezio horiek metro karratuko eurotan adierazi dira). Bestetik, etxebizitza babestuen alokairuko batez besteko errenta 400,80 eurokoa izan da, aurreko urtean baino % 34,9 gehiago (hirugarren hiruhilekoko datuak).

Azkenik, azpimarratu behar dugu higiezinen enpresek etxebizitza bat saltzeko behar duten denbora, batez bestez, 2012an 10 hilabete (hirugarren hiruhilekoko batezbesteko mugikorra) zirela, aurreko urtean 8,7 behar baziren ere.

4.2.1. Salgai dauden etxebizitzen eskaintza eta prezioak

(a) Etxebizitza berria

Lehenik eta behin, salgai dauden etxebizitza libre eraikiberrien eskaintza, 2012ko laugarren hiruhilekoan, 5.738 alera iritsi da, hau da, 2011n baino % 3,4 gehiago. Ondoko banaketa dauka lurraldez lurralde: Bizkaiak % 57 hartzen du, Gipuzkoak % 29 eta Arabak gainerako % 14a.

EAEko etxebizitza libre berrien ezaugarriei dagokienez, gehienak honelakoak dira (2011ko datuak): etxebizitza kolektiboak (% 91), eta akabera “jaso”tzat edo normaltzat jotzen da (% 89,8), luxuzko akaberaren (% 10,2) aurrean. Azalera erabilgarriari dagokionez, batezbestekoa 82,9 m^2–koa da, neurri hori 2010eko batezbestekoa (83,5 m^2) baino pixka bat txikiagoa dela.

Etxebizitza libre eraikiberrien batez besteko prezioa, 2012ko laugarren hiruhilekoan, 3.742,10 €/m^2–koa zen, hau da, 2011ko batezbestekoa baino % 0,7 merkeagoa. Lurraldez lurralde aztertzen badugu, Araban batezbestekoa txikiagoa da (3.426,6 €/m^2), Bizkaian 3.845,3 €/m^2 eta Gipuzkoan 3.682,3 €/m^2. Bilakaeraren aldetik, Gipuzkoak % 5eko beherakada izan du, eta Arabako batez besteko prezioa % 0,3 murriztu da; batez besteko joera ez bezala, Bizkaian % 1,1 handitu da metro karratu erabilgarriaren prezioa.

III.4.5. KOADROA. EAEko ETXEBIZITZA SALGAIEN BATEZ BESTEKO PREZIOAREN BILAKAERA. €/m² ERABILGARRI.

	ETXEBIZITZA LIBREA				ETXEBIZITZA BABESTUA **
	LIBREAK, GUZTIRA	ERABILIA	BERRIA	ETXEBIZITZA	
2006	4.046,9	4.272,8	3.646,3	3.153,6	1.285,1
2007	4.286,0	4.356,4	4.113,2	3.221,4	1.322,9
2008	4.160,4	4.199,0	4.053,8	3.428,4	1.372,0
2009	3.846,6	3.778,9	4.032,5	3.338,1	1.468,9
2010	3.888,3	3.891,0	3.877,4	3.496,2	1.474,3
2011	3.830,3	3.841,6	3.769,5	3.447,7	1.532,2
2012KO I. HIR.	3.825,5	3.837,2	3.764,5	3.425,0	1.535,4
2012KO II. HIR.	3.764,9	3.771,0	3.734,6	3.379,1	1.544,9
2012KO III. HIR.	3.692,1	3.684,0	3.729,7	3.376,2	1.562,4
2012KO IV. HIR.	3.595,8	3.564,7	3.742,1	3.378,1	1.585,4

** Etxebizitza berrien eta erabilien batez besteko prezioa*
*** 2006tik salgai dauden etxebizitza babestu guztiak BOEak dira (ez sozialak).*
Oharra: Datuak 4 ordenako batez besteko mugikorren bidez azaltzen dira.

Babestutako merkatuari dagokionez, gogora ekarri behar dugu 2006an salgai zeuden gizarte etxebizitzen eskaintza desagertu zela; etxebizitza horiek alokairurako soilik hasi ziren eskaintzen. 2012ko laugarren hiruhilekoan, BOEren eskaintza 4.180 unitatera iritsi da, aurreko urtean baino % 38,9 gutxiago; izan ere, aurreko urtean 6.800 etxebizitza baino gehiago izan ziren.

Saltzeko eskainitako BOEen batez besteko prezioa 1.585,4 €/m²-koa izan da 2012an, hau da, aurreko urtean baino % 3,5 garestiagoak. Lurralde historikoen arabera ez dago ia ezberdintasunik. Bizkaiak prezio garestiena du (1.626,7 €/m²), eta horren atzean Gipuzkoa (1.574,9 €/m²) eta Araba (1.525,7 €/m²) daude.

Bestalde, 2007. urtearen amaieraz geroztik, bolumen oso txikietan bada ere, babes araubideren bat daukaten bestelako etxebizitza tipologiak hasi ziren agertzen: babes ofizialeko etxebizitza tasatuak eta udal etxebizitza tasatuak. Etxebizitza horiek etxebizitza babestuak baino zerbait garestiago eskaintzen dira, baina etxebizitza librearen preziora iritsi gabe. Ez dago haien prezioen informazio zehatz eguneraturik.


(b) Etxebizitza erabilia

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren datuetan ikusten dugu 2012an guztira bigarren eskuko 26.985 etxebizitza eskaintzen zirela, hau da, aurreko urtean (urte horretan % 64,3 handitu zen) baino % 9,7 gutxiago[5]. Etxebizitza horiek ondoko banaketa daukate lurraldez lurralde: Bizkaian % 62, Araban % 17 eta Gipuzkoan gainerako % 21.

EAEko bigarren eskuko etxebizitza salgaien batez besteko prezioa 3.564,7 €/m²–koa zen 2012an, hau da, aurreko urtean erregistratutako batezbestekoa baino % 7,2 gutxiago. Lurraldeka, Gipuzkoan eta Araban batezbestekoak baino jaitsiera handiagoa izan dute prezioek (% -9,8 eta % -8,4 hurrenez hurren); Bizkaian, berriz, % 4,4 jaitsi dira. Horren ondorioz, prezioak Gipuzkoako 3.966 €/m²-ren eta Arabako 2.960,7€/m²-ren artean daude, eta Bizkaia tartean geratzen da, batez beste 3.600,3 €/m²-rekin. Etxebizitza bakoitzeko prezioetan, EAEko batezbestekoa 309.500 eurokoa da etxebizitza bakoitzeko; Gipuzkoan, berriz, 352.400 eurokoa eta Araban 242.200 eurokoa. Bizkaia beste bien artean dago berriro ere: 314.200 euro etxebizitza bakoitzeko.


Bestalde, etxebizitzen prezio tarte handien araberako banaketa oso sakabanatuta dago hiru lurraldeetan, baina prezio tarterik handienetako pilaketa handiagoa da Gipuzkoan beste bi lurraldeetan baino.

III.4.3. GRAFIKOA. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BERRIEN BILAKAERA EAE-N.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. HEE.

III.4.4. GRAFIKOA. SALTZEKO ETA ALOKATZEKO ETXEBIZITZA BABESTUEN ESKAINTZAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika.
(*) Mota hori 2006an desagertu da.

5 *Laginketa-datuak diren arren, informazio horrek erakusten du eskaintzen diren etxebizitza erabilien stockaren gehikuntza dagoela; higiezinen merkatuan jardun motela dagoenean hori gertatu ohi da.*

III.4.6. KOADROA. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA ERABILIAK, M^2 ERABILGARRI BAKOITZEKO PREZIOAREKIN (EUROTAN),ETA BATEZ BESTEKO PREZIOAK (MILAKA EUROTAN), LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA.

	EAE			ARALDA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	Kop.	m^2-ko prezioa	Prezioa/ etxebizitza	Kop.	m^2-ko prezioa	Prezioa/ etxebizitza	Kop.	m^2-ko prezioa	Prezioa/ etxebizitza	Kop.	m^2-ko prezioa	Prezioa/ etxebizitza
2007	10.630	4.356,4	350,7	3.031	3.834,6	311,4	6.067	4.490,9	357,3	1.533	4.847,1	404,4
2008	13.395	4.199,0	339,5	4.366	3.591,2	290,3	6.906	4.393,7	352,4	2.123	4.809,0	398,4
2009	14.053	3.778,9	310,1	4.009	3.550,0	295,2	7.378	3.581,7	294,1	2.666	4.686,4	374,3
2010	18.184	3.891,0	330,3	4.526	3.368,2	272,7	9.085	3.752,3	325,6	4.574	4685,5	398,5
2011	29.882	3.841,6	340,2	5.500	3.232,8	269,1	16.006	3. 766,4	344,3	8.376	4.395,3	379,4
2012	26.985	3.564,7	309,5	4.571	2.960,7	242,2	16.626	3.600,3	314,2	5.788	3.966,0	352,4

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika.

III.4.7. KOADROA. EAEn ALOKAIRURAKO ESKAINTZEN DIREN ETXEBIZITZEN ERRENTAREN BILAKAERA (€ HILEAN).

	MERKATU BABESTUA			MERKATU LIBREA
	BOEak	SOZIALAK	GUZTIRA	
2006	384,9	141,0	263,2	819,6
2007	325,3	131,7	194,1	890,2
2008	380,3	118,0	233,8	968,9
2009	325,0	121,4	219,8	875,3
2010	277,0	122,7	204,0	921,5
2011	331,8	134,6	279,2	896,3
2012	400,8*	149,3*	356,8*	856,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika.
** 2012ko hirugarren hiruhilekoko datuak.*

4.2.2. Alokairu araubidea


2012ko laugarren hiruhilekoari buruzko *Higiezinen Eskaintzaren Estatistika* izeneko inkestaren arabera, 2.640 etxebizitza eskaini ziren alokairurako, hau da, aurreko urtean baino % 11,5 gehiago. Libreei dagokienez (eskaintzaren % 76) % 25,7 handitu da: 1.602 etxebizitzatik 2.013 etxebizitzara; alokairuko etxebizitza babestuek, aldiz, % 18,1 egin dute behera. Beraz, babesturiko alokairuak behera egin du 2011ko % 32tik 2012ko % 24ra.

EAEko alokairuko etxebizitza babestuen batez besteko errenta, 2012an (hirugarren hiruhilekoko datuak), 356 eurokoa zen hilean, hau da, aurreko urtean baino % 41,8 gehiago. Motaren arabera, BOEen errenta 400,8 €-koa izan da hilean (% +34,9) eta 149,3 €-koa hilean etxebizitza sozialetarako (% +9,1, aurreko urtearen aldean).

Bestetik, 2012ko laugarren hiruhilekoan alokairurako eskainitako etxebizitza libreen lagina, esan dugunez, 2.013 unitatekoa zen. Lurralde banaketa honelakoa da: Bizkaian % 61, Araban % 17 eta Gipuzkoan % 22.

Eskainitako etxebizitzen azalera erabilgarriari dagokionez, Higiezinen Eskaintzaren Estatistikak agerian utzi du alokairuan eskainitako etxebizitza erabilien tamaina tipologia berean salgai jarritako etxebizitzetan ikusitakoa baino askoz txikiagoa dela (82,3 m^2 eta 89,4, hurrenez hurren, 2012ko hirugarren hiruhilekoko datuen arabera).

III.4.5. GRAFIKOA. ALOKAIRUKO ETXEBIZITZEN ESKAINTZAREN ETA ALOKAIRU LIBREKO HILEKO BATEZ BESTEKO ERRENTAREN (€) BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika.

III.4.8. KOADROA. ESKAINTZEN DIREN ALOKAIRUKO ETXEBIZITZA LIBREAK ETA HILEKO BATEZ BESTEKO ERRENTA. €.

	Etxebizitzak				Hileko errenta (€)			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	**EAE**	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2006	**578**	184	241	153	**819,6**	866,8	795,7	802,8
2007	**485**	181	212	92	**890,2**	908,5	875,4	901,5
2008	**603**	227	247	130	**968,9**	895,0	968,8	1.086,5
2009	**1.000**	395	387	218	**875,3**	836,7	881,0	941,1
2010	**1.215**	226	767	222	**921,5**	827,6	923,8	1.004,9
2011	**1.602**	413	797	392	**896,3**	830,7	882,3	993,8
2012	**2.013**	322	1.233	448	**856,0**	790,3	865,8	879,7

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika.

III.4.9. KOADROA. ETXEBIZITZAREN PREZIOEN INDIZEA: LAUGARREN HIRUHILEKOETAKO URTEKO ALDAKUNTZA-TASAK

	2009	2010	2011	2012
ESTATUKO BATEZBESTEKOA	-4,3	-1,9	-11,2	-12,8
Andaluzia	-1,7	-2,1	-8,4	-11,5
Aragoi	-6,8	-4,3	-12,5	-11,8
Asturias	-0,5	-1,0	-10,5	-12,4
Balear Uharteak	-5,6	-1,3	-9,8	-11,4
Kanariar U.	-2,5	-3,2	-7,7	-13,3
Kantabria	-6,0	-7,2	-11,6	-12,7
Gaztela eta Leon	-2,5	-1,3	-10,5	-12,4
Gaztela-Mantxa	-2,1	-0,8	-8,8	-11,2
Katalunia	-7,0	-2,8	-14,3	-14,3
Valentziako E.	-4,9	-3,3	-9,8	-14,0
Extremadura	1,9	1,7	-8,0	-8,6
Galizia	-1,5	-1,4	-7,9	-12,6
Madril	-6,6	1,7	-15,7	-13,1
Murtzia	0,0	-2,6	-7,1	-11,5
Nafarroa	-8,3	-5,9	-10,9	-11,0
EAE	-7,1	-1,4	-12,2	-13,3
Errioxa	-3,1	-6,2	-14,2	-13,8
Ceuta	-1,7	-2,6	-12,9	-9,1
Melilla	3,0	-1,1	-14,2	-9,3

Iturria: EIN. EPI.

Batez bestez, partikularrenak diren eta higiezin-jabetzaren agenteen bidez alokatzeko eskaintzen diren etxebizitzek hilean 856 euroko errenta daukate 2012an, aurreko urtean baino % 4,5 gutxiago, beraz. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak dauka preziorik garestiena (879,7 € hilean); gero Bizkaiak (865 € hilean) eta azkenik Arabak (790,3 € hilean). Bilakaeraren analisiak murrizketa txikiagoa agertu du Bizkaian (% -1,9), eta Arabakoa batezbestekoa baino pixka bat handiagoa izan da (% -4,9); Gipuzkoan, berriz, etxebizitza libreen alokairuko batez besteko errenta neurri handiagoan murriztu da: % 11,5.

4.2.3. Etxebizitzaren prezioen erkaketa, autonomia erkidegoen arabera

EIN 2008an hasi zen "*Etxebizitzaren Prezioen Indizea*" (EPI) egiten. Hiru hilean behingo adierazle horrek, 2007ko oinarriarekin, prezio libreko etxebizitzen (berriak nahiz bigarren eskukoak) salerosketa prezioen mailaren bilakaera neurtu nahi du denboran. EPI Europar Batasunaren estatistika harmonizatuen produkzioaren eremuan planteatutako informazio eskaerari dagokio; beraz, haren helburuetako bat estatu kideak alderatzeko tresna izatea da, etxebizitza librearen prezioen bilakaerari dagokionez. Horren eremutik kanpo daude, hortaz, etxebizitza babestuak, haien prezioak araututa daudelako eta ez direlako merkatuaren ohiko mekanismoen bidez arautzen.

EPIk Notariotzaren Kontseilu Nagusiak Ziurtapeneko Notariotza Agentziaren bidez emandako datu-baseetatik datorren informazioa erabiltzen du. Administrazio erregistroak erabiltzeak ahalbideratzen du, batetik, biztanleria osoaren informazio osoa edukitzea. Horrela, ez dago laginketa-teknikarik erabili beharrik; bestetik, salerosketako eragiketa ororen informazioa, sortzen den unean, indizearen kalkuluan sartzea ahalbideratzen du, eta hori funtsezkoa da koiuntura-adierazlea izan nahi duen indize batentzat.

2012ko emaitzek erakusten dutenez, 2008an eta 2009an gertatu zen etxebizitzaren batez besteko prezioen jaitsiera orokorra 2010ean baretu zen, eta, horren ostean, oro har, 2012an erkidego gehienetan jaitsiera handiak egon dira, erkidego askotan % 12tik gorakoak, baina merkatuaren egoera eta adierazlearen berritasuna kontuan hartuta, hori geroagoko hiruhilekoetan erkatu beharko da.

2012aren amaieran, gure Autonomia Erkidegoak urtetik urterako % 13,3ko jaitsiera izan du, Estatuko batez besteko % -12,8ren aurrean. Autonomia Erkidegoen arabera, urteko prezioen jaitsiera handienak Katalunian eta Valentziako Erkidegoan (% -14,3 eta % -14, hurrenez hurren) eta Errioxan (% -13,8) gertatu dira. Zerrenda horretako laugarren postuan gure Erkidegoa dago, Kanariar Uharteekin batera (biek % -13,3 lortu dute).

4.2.4. Eraikuntza jarduera

EAEn hasitako etxebizitzen kopuru osoak, 2008an eta 2009an jaitsiera handiak eduki eta gero, zeinua aldatu zuen 2010ean, % 6,9 handituta. Hazkunde hori 2011n errepikatu zen, % 24ko igoerarekin. Guztira, 9.344 etxebizitza abiarazi ziren: horietatik % 51,4 libreak ziren eta % 48,6 babestuak.

2012ari buruz, abiarazitako etxebizitza babestuen zifrak ezagutzen dira: 2.420, hau da, 2011n baino % 46,7 gutxiago. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Plana 2006-2009 abian jarri zenetik, etxebizitza babestuen merkatuan figura berriak sortu dira. Horrek ekarri du, oraingoz,

dotazio alojamenduak eraikitzen hastea 2006az geroztik, 2007az geroztik udal etxebizitza tasatuak (saltzeko eta alokatzeko) eta 2009az geroztik etxebizitza autonomiko tasatuak. Aldi horretan 665 dotazio alojamendu, alokairuko 100 udal etxebizitza tasatu eta salmentako 2.196 etxebizitza eta Eusko Jaurlaritzaren 491 etxebizitza tasatu eraikitzen hasi dira, guztira.

Bestalde, EAEn 2012an amaitutako etxebizitzak 8.592 izan dira, aurreko urtean baino % 24,1 gutxiago, amaitutako etxebizitza libreen eta babestuen beherakadaren (% -18,7 eta % -29,9, hurrenez hurren) ondorioz.

Horrez gain, 2012ko datuek agertu dute etxebizitza babestuek EAEko eraikuntza jardueran duten partaidetza urte horretan murriztu dela, amaitutako etxebizitzen artean etxebizitza babestuen pisua % 48,3tik % 44,6raino jaitsi baita, horiek sektore pribatukoak baino neurri handiagoan murriztu direlako.

III.4.10. KOADROA. ERAIKUNTZA JARDUERA EAEn: HASITAKO ETA AMAITUTAKO ETXEBIZITZAK.

		2008	2009	2010	2011	2012
HASITAKO ETXEBIZITZAK	LIBREAK	6.203	3.855	2.572	4.804	1.579 (2. hir.)
	BABESTUAK*	6.259	3.196	4.966	4.540	2.420
	GUZTIRA	12.462	7.051	7.538	9.344	..
AMAITUTAKO ETXEBIZITZAK	LIBREAK	9.083	8.782	6.409	5.851	4.757
	BABESTUAK	5.000	4.672	4.991	5.473	3.835
	GUZTIRA	14.083	13.454	11.400	11.324	8.592


Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Etxebizitza Saila.
** Etxebizitza babestuen figura berriak sartzen dira hemen: etxebizitza tasatuak eta dotazio alojamenduak.*

III.4.11 KOADROA. EAEn HASITAKO ETXEBIZITZA BABESTUEN BILAKAERA, TIPOLOGIAREN ARABERA.

	EJren kalifikazioaren pean daudenak			EJren kalifikazioaz kanpokoak			GUZTIRA
				Dotazio alojamenduak	Udal etxebizitza tasatuak		
	BOEak	Sozialak	Tasatuak		Alokairua	Jabetza	
2007	5.302	590	-	361	100	957	7.310
2008	4.793	847	-	103	-	516	6.259
2009	2.939	91	37	-	-	129	3.196
2010	3.756	846	14	-	-	350	4.966
2011	3.663	391	136	110	-	240	4.540
2012	1.961	60	304	91	-	4	2.420

Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Etxebizitza Sailaren datuak erabilita egindakoa.

III.4.6. GRAFIKOA. ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZAREN BILAKAERA LURRALDEEN ARABERA. HASITAKO ETXEBIZITZAK.



Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Etxebizitza Saila.

III.4.12. KOADROA. FAMILIAK, ETXEBIZITZA BEHARRAREN ARABERA ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2007-2010.

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Esk.(1)	Aldak.	Zaharb.	Eskur.	Aldak.	Zaharb.	Eskur.	Aldak.	Zaharb	Eskur.	Aldak.	Zaharb.
2008	74.461	40.894	128.669	10.992	6.813	18.231	39.052	21.714	71.544	24.417	12.367	38.893
2009	110.677	56.652	142.099	11.476	7.676	8.174	66.418	37.936	91.995	32.783	11.040	41.930
2010	97.800	56.397	80.969	15.246	8.512	12.785	54.157	27.294	40.942	28.397	20.591	27.242
2011	76.360	38.048	75.342	8.306	6.601	7.829	21.246	22.230	38.649	46.808	9.218	28.864
INDIZEAK. DATUAK, EHUNEKOTAN, ETXEBIZITZA KOPURUARI BURUZ (2):												
	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Esk. (1)	Aldak.	Zaharb.	Eskur.	Aldak.	Zaharb.	Eskur.	Aldak.	Zaharb	Eskur.	Aldak.	Zaharb.
2008	8,60	4,93	15,52	9,25	5,73	15,34	8,77	4,88	16,07	9,21	4,66	14,66
2009	13,20	6,73	16,89	9,30	6,22	56,63	14,80	8,46	20,51	12,20	4,09	15,55
2010	11,70	6,73	9,66	12,30	6,89	10,34	12,10	6,11	9,17	10,60	7,68	10,16
2011	9,00	4,50	8,91	6,60	5,20	6,17	7,80	4,90	8,52	10,40	3,40	10,65

(1) Eskuratzeko kasuetan, 18 eta 44 urte arteko pertsonek eskatzen dituzten etxebizitzak hartu ditugu kontuan.
Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin egina. Etxebizitzaren Beharraren eta Eskariaren Inkesta.

III.4.13. KOADROA. ESKURATU BEHARRA DUTEN BIZTANLEEN EZAUGARRIAK, SEXUAREN ARABERA. 2009-11. EHUNEKO BERTIKALAK, BEHARRA DUEN KOLEKTIBO OSOAN.

	2009	2010	2011
ADINA			
18 eta 24 urte artean	21,7	19,8	14,7
25 eta 34 urte artean	71,4	66,6	71,9
35 eta 44 urte artean	6,9	13,6	13,4
Batez besteko adina (urteak)	*27,8*	*28,5*	*28,8*
SEXUA			
Emakumea	44,0	44,4	48,1
Gizona	56,0	55,6	51,9
IKASKETA MAILA			
Ikasketarik ez / Lehen mailakoak	16,7	14,1	18,0
Ikasketa profesionalak	31,3	33,0	26,0
Bigarren mailako ikasketak	11,4	11,0	10,4
Unibertsitateko ikasketak	40,6	41,9	45,6
JARDUERAREKIKO HARREMANA			
Bere kontura lan egiten du	12,2	7,4	7,9
Landuna, kontratu finkoa	47,5	49,7	69,1
Landuna, aldi baterakoa	28,5	33,8	14,6
Langabea	6,4	5,9	5,8
Bestelako egoerak	5,0	3,2	2,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuak erabilita egindakoa. EBEI.

III.4.14. KOADROA. ESKURATU EDO ALDATU BEHARRA ADIERAZI DUTEN FAMILIEK BEHAR DITUZTEN ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK

	ESKURATZEA*			ALDAKETA		
	2009	2010	2011	2009	2010	2011
BALDINTZAK						
Berria	19,0	21,5	24,3	24,1	16,6	15,7
Erabilia	6,2	8,6	2,3	34,1	13,4	35,7
Bata nahiz best.	72,3	68,3	72,4	37,9	61,2	47,2
Ed/Ee	2,5	1,5	1,0	3,9	8,8	1,4
AZALERA ERABILGARRIA						
< 60 m^2	12,2	28,8	20,0	15,1	18,8	16,9
61 - 75 m^2	43,4	33,6	35,6	28,5	22,3	29,6
76 - 90 m^2	29,7	26,2	39,8	30,6	28,5	30,8
> 90 m^2	7,5	2,8	2,3	18,3	21,8	20,6
Ed/Ee	7,1	8,6	2,3	7,4	8,6	2,2
Batez besteko azalera (m^2)	*73,6*	*67,3*	*71,2*	*77,6*	*78,1*	*77,5*
EDUKITZE ARAUBIDEA						
Jabetza	59,5	51,6	52,0	64,9	62,9	65,7
Alokairua	16,4	23,2	17,8	27,0	24,8	26,5
Bata nahiz best.	24,1	25,2	30,3	8,1	12,3	7,8

(1) Portzentaje bertikala (beharrizana duten mota bakoitzeko pertsonen kopuru osoan).
Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuak erabilita egindakoa. EBEI.

4.3. ETXEBIZITZAREN ESKARIA

4.3.1. Etxebizitzaren beharra eta eskaria

Eusko Jaurlaritzak 2011n egin zuen *EAEko Etxebizitzaren Beharraren eta Eskariaren Oinarrizko Inkesta*ren[6] (EBEI) emaitzen arabera, erreferentziazko urtean % 9 ziren lehenengo etxebizitza eskuratu behar zutela zioten pertsonak. Kopuru absolutuetan zenbatesten dugu beharrizan hori adierazten duten pertsonen kopurua 76.360 familiaraino iristen dela, hau da, aurreko urtean baino % 21,9 gutxiago. Eskariari dagokionez, jotzen da 45.288 etxebizitzakoa dela lau urteko epean eta 4.786 etxebizitzakoa urtebeteko epean (epe laburrean).

Era berean, inkestak erakusten du EAEko familien % 4,5ek ohiko etxebizitza aldatu beharra dutela, hau da, 38.048 etxebizitza behar direla (% -32,5 2010eko datuen

6 EBEI. Inkesta hau 1994. urteaz geroztik urtero egiten da, EAEko 3.200 familia esanguratsutan.

aldean). Eskariari dagokionez, aurreikuspena 19.196 etxebizitzakoa da 4 urteko epean eta 9.468 etxebizitzakoa epe laburrean (urtebetea).

Bai etxebizitza eskuratzeko bai hori aldatzeko behar diren etxebizitzen ezaugarriei dagokienez, pertsona gehienei berdin zaie etxebizitza hori berria ala erabilia den. Hala ere, azken urtean etxebizitza erabiliaren aldeko lehentasun handiagoa antzeman da, etxebizitza aldatu behar denean. Halaber, gehienek tamaina ertaina (76 eta 90 metro karratuen arteko azalera erabilgarria) duten etxebizitzen alde egiten dute. Edukitze araubideari dagokionez, jabetza alokairuari lehenesten zaio (horrela adierazi dute etxebizitza eskuratu behar duten pertsonen % 52k eta hori aldatu behar dutenen % 65,7ek).

Bestalde, inkestak erakusten du etxebizitzak zaharberritu beharra daukaten familien proportzioa 2011n % 9,66tik % 8,91ra jaitsi zela, hau da, 75.342 familia (2010ean baino % 6,9 gutxiago). Lurraldeka Arabak eta Bizkaiak beren behar ratioak murriztu dituzte (% -38,8 eta % -5,6, hurrenez hurren); Gipuzkoan, berriz, areagotu egin da (% +6).

Lehenbiziko etxebizitza eskuratu beharra duten gazteen kasuan, ezaugarriak eta aurreko urteetakoak oso antzekoak ziren 2011n. Hasteko, % 70 baino gehiago 25 eta 34 urte artekoak dira (batez besteko adina 28,8 urte dira), eta ia % 70ek lan-kontratu finkoa daukate. Gainera, pertsona horien % 45,6k unibertsitate ikasketak dituzte, azken urteotan ratio hori areagotu dela.

Bestalde, etxebizitza aldatu beharra duten familien artean, etxebizitzaren tamaina desegokia oraindik ere arrazoirik aipatuena da (% 27); bigarrenez, igogailurik ez izatea dago (% 15,7). Eta hirugarrenez, errenta merkeagoa bilatzea dago (% 15,5).

4.3.2. Familien finantza-ahalegina


EAEko familiek etxebizitzak ordaintzeko egin behar duten finantza-ahaleginari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiak erakutsi du, Higiezinen Erregistro Estatistikako datuak erabilita, finantza-ahalegin hori hileko batez besteko hipoteka kuotaren eta soldata kostuaren arteko harremanaren ikuspuntutik aztertuz gero, % 32,9koa izan dela 2012ko laugarren hiruhilekoan, hau da, aurreko urtean baino 9,2 puntu portzentual gutxiago ditu.

Estatu osoari dagokionez, haren ibilbidea ere beheranzkoa da, nahiz eta proportzio txikiagoan izan (% 30,1, 2011ko laugarren hiruhilekoko % 32,8ren aurrean).

Hipoteka kuota horrek EAEko familietan duen eragina Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioak aldian-aldian argitaratzen duen informaziotik aurrera azter daiteke. Alde horretatik, 2011n (azken datu erabilgarria) EAEn hipoteka mailegua zeukaten familien portzentajea nabarmen murriztu dela antzeman da: 2010eko % 32,5etik % 25,2ra igaro da.


Zorpetuta dauden familien kopuruaren beherakada nabarmen horrek azken urteotako hazkunderako joera eten du, proportzio horrek 2006ko mailaren azpitik egotea dakarrela.

III.4.7 GRAFIKOA. INDARREKO HIPOTEKA-MAILEGUAK DITUZTEN EAE-KO FAMILIEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA, HEHAKFren datuak erabilita.


III.4.8. GRAFIKOA. HILEKO BATEZ BESTEKO HIPOTEKA KUOTAREN ETA SOLDATA KOSTUAREN ARTEKO HARREMANAREN BILAKAERA EAE-N ETA ESTATUAN. DATUAK %-TAN.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA, Higiezinen Erregistro Estatistikaren datuak erabilita.


4.3.3. ETXEBIDEn erregistratutako etxebizitza babestuaren eskaria

III.4.9. GRAFIKOA. ETXEBIDEEEN INSKRIBATUTA DAUDEN PERTSONEK ESKATUTAK ETXEBIZITZA MOTAREN BILAKAERA



Iturria. ETXEBIDE. EUSKO JAURLARITZA

III.4.10 GRAFIKOA. ETXEBIDEN INSKRIBATUTAKO ESKAERA ESPEDIENTEEN BILAKAERA.



Iturria ETXEBIDE. EUSKO JAURLARITZA.

III.4.15. KOADROA. ETXEBIDEN INSKTRIBATUTAKO BIZTANLEEN EZAUGARRIAK 2009-2011. EHUNEKO BERTIKALAK.

	2009	2010	2011
DIRU-SARREREN MAILA (€)*			
< 3.000	3,0	4,2	4,2
3.000-9.000	11,4	11,6	12,0
9.000-12.000	10,3	8,8	9,0
12.000-22.000	42,5	37,3	40,9
22.000-28.000	13,7	14,6	10,8
28.000-35.000	7,3	9,9	5,2
35.000-45.500	2,1	4,9	2,0
DIRU-SARRERARIK FROGATU GABE	9,6	8,8	16,0
ESKATZAILEAK, GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
Diru-sarrera haztatuen batezbestekoa (€)	17.082	18.244	17.670
			FAMILIA UNITATEKO KIDEEN KOP.
1	72,5	70,9	68,9
2	15,6	15,3	15,5
3	9,9	11,4	13,0
4 edo gehiago	2,0	2,4	2,7
ESKATZAILEAK, GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

*** Diru-sarrerak inskribatu baino lehenagoko bi urtekoak dira.**
Iturria. ETXEBIDE. EUSKO JAURLARITZA.

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak *ETXEBIDE Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua ebaluatzeko txostena* delakoan agerian jarri duenez, EAEn zerbitzu horretan erregistratuta dagoen etxebizitza babestuaren eskaria jaitsi egin da 2011n, bigarren urtez jarraian. Zehazkiago, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza babestuaren eskatzaileen erregistroak 2011ren amaieran EAE osoan inskribatutako 84.376 eskaera zenbatu zituen, hau da, aurreko urtean baino % 2,9 gutxiago, banakako eskaeren kopuruaren jaitsieraren ondorioz (% -5,7), banakako eskaera horiek guztien % 69 direla. Izan ere, familia-unitateen eskaeren kopurua % 4 gehitu da. Lurraldez lurralde, espedienteen % 55 Bizkaiari dagokio, % 34 Gipuzkoari eta gainerako % 11 Arabari.

Azterketaren ardatz gisa Etxebiden inskribatuta dauden pertsonen kolektiboaren ezaugarriak hartuta, eta haien diru-sarreren mailari erreparatuta, egiaztatzen da 2011n inskribatutako pertsonen % 66,1ek urtean 22.000 euro gordin baino gutxiagoko familiako diru-sarrerak zituztela, % 16k urtean 22.000 eta 35.000 euro arteko diru-sarrerak zituztela, eta % 2k hortik gorako diru-sarrerak, baina baimenduta dagoen urteko 45.500 euro gordineko gehieneko muga gainditu gabe. Gainera, inskribatutakoen % 16k ez zituzten diru-sarrerak egiaztatu.

Inskribatutako pertsonen batez besteko diru-sarrera haztatuak 2011n urtean 17.670 euro gordin ziren (% -3,1 2010arekin alderatuta).

Familia-unitatearen kide kopuruari dagokionez, kide bakar batek osatutako familiak, ugarienak izanik ere, gutxitu egin dira apur bat azken hiru urteetan: % 68,9 izan dira 2011n eta % 70,9 aurreko urtean. Bestalde, eskaeren % 15,5 bi lagunek osatu dituzte, eta % 15,7 hiru kidek edo gehiagok osatutako familia-unitateak dira.

Etxebizitza babestuaren eskatzaileek nahiago duten etxebizitza motari dagokionez, alokairuko etxebizitzaren eskariak gora egin duela egiaztatu da. Enpleguko ezegonkortasunak eta finantzaketa eskuratzeko prozesua gogortu izanak jabetza eskuratzea mugatzen dute, eta alokairu araubidea nahiago izatea eragin dute. Hain zuzen ere, 2006an Etxebiden inskribatuta zeudenen % 42,5ek jabetza araubideko etxebizitzak soilik eskatzen zituzten. 2011n, aldiz, proportzio hori guztien % 25era arte murriztu da.

Beste alde batetik, eskatzaileen % 38,2k alokairu araubidea baino ez dute aukeratzen bere etxebizitza-arazoa konpontzeko (% 23,7 2006an). Aurreko urtearekin alderatuta, mantendu egin da jabetza zein alokairua eskatzen dutenen proportzioa, % 39 inguru (% 33,7 2006an).

4.4. HIGIEZIN JARDUERA: ETXEBIZITZEN SALEROSKETA

Gure Erkidegoko etxebizitzaren eskaintza eta eskaria azaldu ondoren, jarraian 2011ko higiezin jardueraren dinamikaren zifra nagusien laburpena egin da. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiaren *Etxebizitza politikaren ebaluazio txostena 2011*ren arabera eta Sustapen Ministerioak Notario Estatistikatik aurrera emandako informazioa erreferentziatzat hartuta, EAEn 2011n notario aurrean egindako etxebizitzen salerosketen kopuru osoa 18.109 izan zen; horrek % 22,4ko murrizketa dakar 2010aren aldean (Estatu osoan % -28,9ko murrizketa egon da aldi berean).

Etxebizitza motaren araberako transakzioen kopurua ezberdina izan da: etxebizitza libre berriari dagokionez, 4.727 transakzio gauzatu dira, hau da, 2010ean baino % 22,7 gutxiago. Dinamika horrek beherakadak agertzen dituen bosgarren urtea izatea dakar, eta beheranzko joera horren intentsitatea nolabait areagotu dela antzeman daiteke 2010aren aldean, urte horretan beherakada % 7koa izan baitzen.


Bigarren eskuko etxebizitzen transakzioen kopuruari dagokionez, 2011n 9.593 transakzio gauzatu dira, portzentaje hori 2010ekoa baino % 28,5 txikiagoa dela; izan ere, urte horretan 13.415 etxebizitzaren salerosketa erregistratu zen (% +68,8, 2009aren aldean).

Portaera onena etxebizitza babestuen kasuan gertatu da: 2011n EAEn etxebizitzen 3.792 salerosketa gauzatu dira. Gauzak horrela, testuinguru zaila den arren, aurreko urteko transakzioen kopuruari eutsi zaio nolabait (% -0,2, 2010aren aldean).

2011n etxebizitza moten transakzio guztien gainean duen pisu erlatiboa aztertuta, nabarmena da bigarren eskuko etxebizitzen garrantzi erlatiboa. Horrela, urte horretan gauzatutako salerosketen % 53 etxebizitza mota horri dagozkio; etxebizitza libre berriei dagozkienak, aldiz, % 26,1 dira eta etxebizitza babestuei dagozkienak % 20,9.

Bilakaera horren lurraldekako analisia eginda, nabarmendu behar da EAE osorako ikusitako beheranzko joera hiru lurraldeetan agertzen dela, nahiz eta bakoitzean intentsitate ezberdina izan. Gipuzkoa 2011n salerosketen jaitsiera neurrizkoena izan duen lurraldea da: gauzatutako transakzioen kopurua % 7,9 murriztu da 2010aren aldean; Bizkaian eta Araban, berriz, % 24,2ko eta % 35,7ko murrizketak egon dira, hurrenez hurren.

III.4.11. GRAFIKOA. ETXEBIZITZEN SALEROSKETAREN BILAKAERA EAE-N, MOTAREN ARABERA




Iturria: EUSKO JAURLARITZA, Sustapen Ministerioaren datuak erabilita.

4.5. EAE-KO ETXEBIZITZA HUTSAK. 2011KO DATUAK.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak *EAEko etxebizitza hutsen kuantifikazioari eta ezaugarriei buruzko bi urteko inkesta* egiten du 1997tik, eta haren azken datuak 2011ri dagozkio. Ikerketa horren arabera, EAEn kokatutako etxebizitzen % 8,4 hutsik egon dira 2011n (% 7,9 2009an): 84.890 etxebizitza, guztira. Haietatik % 30,8 (26.120) sasoiko etxebizitzatzat jotzen dira eta % 69,2n (58.770) ez da inor bizi. Lurraldeka, sasoiko etxebizitzen pisurik handiena (% 44,3) Arabari legokioke.

III.4.12. GRAFIKOA. ETXEBIZITZEN HUTSEN*PROPORTZIOAREN BILAKAERA EAE-N



Fuente: GOBIERNO VASCO. Dpto. de Vivienda.
*En secciones censales urbanas son aquellas cuya población en diseminado es inferior al 10%.


Gure Erkidegoko etxebizitza hutsen portzentajearen bilakaera ikusteko, arreta jarri behar dugu “hiriko errolda sekzioak” (% 10etik beherako biztanleria sakabanatua dutenak) izenekoetan dauden etxebizitzetan, horixe baita 2009ko inkestaren aurreko eragiketetan aztertutako aldagaia. Adierazle horren arabera, 2011ko etxebizitza hutsen ratioa % 7,6koa da, 2009ko % 6,9ren eta 2007ko % 4,9ren aurrean, grafikoan islatu bezala. Gipuzkoan eredua irregularragoa bada ere, oro har joera EAE osoan errepikatzen da: etxebizitza hutsaren pisua jaitsi zen 2007ra arte (Araban lehenago geldotu zen), harrezkero berriro handitzeko.

Lurraldeka, Arabak, 15.226 etxebizitza huts izanda, guztien % 17,9 pilatzen ditu, lurralde horretako etxebizitza parkearen % 9,7, hain zuzen. Gipuzkoan, bestalde, 33.844 etxebizitza huts zenbatu dira, EAEko etxebizitza hutsen % 39,9 eta lurralde horretako etxebizitzen % 10,2. Azkenik, Bizkaian 35.820 etxebizitza huts daude, EAEko etxebizitza huts guztien % 42,2 eta lurralde horretako etxebizitza guztien % 6,8.

Udalen tamainari dagokionez, etxebizitza hutsen portzentajea % 21,2koa da 2.500 biztanletik beherako udalerrietan. Ratioa % 12,3koa da 2.500 eta 10.000 biztanle arteko udalerrietan eta % 9,2koa 10.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan.


20.000 eta 40.000 biztanle arteko udalerrietan etxebizitzen % 10 hutsik daude, eta 40.000 eta 100.000 biztanle artekoetan % 4,3. Amaitzeko, 100.000 biztanletik gorako udalerrietan, hau da, hiru lurraldeetako hiriburuetan, etxebizitza hutsen ratioa % 4,9koa da.

III.4.13. GRAFIKOA. ETXEBIZITZAREN JABETZAREN HELBURUAK, LURRALDEEN ARABERA. 2011.



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza saila.

III.4.14. GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA PROGRAMAREN GASTUAREN BILAKAERA KAPITULUKA. MILIOIKA EUROTAN ADIERAZITAKO DATUAK.



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza saila.

Etxebizitza huts horien jabeei haien jabetzaren helburuaz galdetuta eta sasoiko edo bigarren bizilekuaren pisua kenduta, EAE osoan portzentajerik handienak "salerosketa"k (% 34), "seme-alabentzako gordetzea"k (% 27) eta "inbertsioa"k (% 20) dauzkate; azken posizioan "errentak sortzeko" helburua (% 19) dago. Araban salerosketa % 45 eta Gipuzkoan % 42 da; Bizkaian, berriz, arrazoi ohikoena (% 39) "seme-alabentzako gordetzea" da.

Etxebizitza hutsen egiturazko ezaugarriei dagokienez, etxebizitza huts gehienek (guztien % 38,3) 75 eta 100 m^2 arteko azalera erabilgarria daukate; horien atzean 50 eta 75 m^2 artekoak daude (% 33,7), azken urteotan joera horri eutsi zaiola. 2011ko datuak eta aurreko urteetakoak erkatuta, ondoriozta daiteke logela gehien (bost edo gehiago) dituzten etxebizitza hutsen portzentajea neurri handian murriztuz joan dela, batez ere 2007tik aurrera. 2011n guztien % 8,2 baino ez ziren.

EAEn omen dauden etxebizitza hutsen % 8,4ri bigarren bizilekutzat jotzen diren % 3 kenduz gero, beste helburu batzuk dituzten etxebizitzak % 5,4 dira. Etxebizitza horietatik % 1,8 salgai edo alokagai daude. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak "kudeagarri"tzat (etxebizitza hutsa, bigarren bizileku gisa erabiltzen ez bada ere, merkatuan ere salgai edo alokagai ez dagoena) jotzen dituen etxebizitzen ratioa % 3,7koa da, hau da, 37.522 etxebizitza inguru.

4.6. ETXEBIZITZA POLITIKA

4.6.1. Eusko Jaurlaritzako etxebizitza politika

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Programan betearazitako gastua, azken urteetan nabarmen gehitu ondoren, 2009an gehienekora —207,4 milioi euro— iritsi arte, % 12 murriztu zen 2010ean, 182,5 milioi eurora iritsita. Gastu hori EAEko BPGd-aren % 0,28 izan zen. Tasa horrek ez du ia aldaketarik izan 2002tik.

2011ko gastuak % 32,6ko murrizketa handiagoa erakusten du, aurrekontu murrizketen ondorioz, 123 milioi eurokoa izan arte (BPGd-aren % 0,18, behin-behineko datuen arabera).

III.4.16. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA PROGRAMAREN GASTU LIKIDATUAREN BILAKAERA ETA BPGd-AN

	ETXEBIZITZA PROGRAMAREN GASTUA		EAEko BPGd-a PREZIO ARRUNTETAN		PROGRAMAREN % BPGd-AN
	Mil. €tan	Geh. %	Mil. €tan	Geh. %	
2005	157,43	2,0	57.289	7,5	0,27
2006	171,56	9,0	61.761	7,8	0,28
2007	188,88	10,1	66.427	7,6	0,28
2008	198,81	5,3	67.924	2,3	0,29
2009	207,39	4,3	64.225	-5,4	0,32
2010	182,50	-12,0	65.419	1,9	0,28
2011	123,00	-32,6	66.898	2,2	0,18

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren eta EUSTATen datuak erabilita egindakoa.

III. 4.17. KOADROA. ETXEBIZITZA PLANAREN ERREALIZAZIOAK (URTEKO JARDUKETA KOPURUA)						
	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Eraikitzen hasi diren etxebizitza babestuak	5.273	6.628	7.117	3.196	4.966	4.540
- Babes ofizialeko etxebizitzak	4.828	5.302	4.793	2.939	3.756	3.663
- Etxebizitza sozialak	320	590	847	91	846	391
- Dotazio alojamenduak	125	361	997	0	0	110
- Udal etxebizitza tasatuak	-	1.057	480	129	350	240
- Etxebizitza autonomiko tasatuak	-	-	-	37	14	136
Lurzorua eskuratzea (etxebizitza kopurua)	3.625	5.483	3.751	2.971	1.248	677
Etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko jarduketak	13.905	11.798	16.027	20.534	19.496	16.333
Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Etxebizitza Saila.						

III.4.18. KOADROA. ETXEBIZITZA PLAN ZUZENTZAILEA 2010-2013REN AGINTE KOADROA. ETXEBIZITZA BERRIA SUSTATZEKO JARDUKETAK.						
	2011			2010-2011ko metatua		
	Helburua	Egindakoa	Betetako %	Helburua	Egindakoa	Betetako %
ALOKAIRUA	1.650	780	47,3	2.400	1.732	72,2
- ADA	400	110	27,5	500	110	22,0
- Etxebizitza soziala alokairuan	1.050	375	35,7	1.600	1.197	74,8
- Etxebizitza babestuak eta itunduak alokairuan	200	295	147,5	300	425	141,7
SALMENTA	2.800	3.760	134,3	5.500	7.774	141,3
- Etxebizitza babestuak eta itunduak salmentan	2.100	3.384	161,1	4.400	7.034	159,9
- Etx. babestuak, erosteko aukera duen alokairuan	200	0	0,0	300	0	0,0
- Etx. Autonomiko tasatuak salmentan	100	136	136,0	200	150	75,0
- Udal etx. tasatuak salmentan	400	240	60,0	600	590	98,3
GUZTIRA	4.450	4.540	102,0	7.900	9.506	120,3
Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Etxebizitza Saila.						

Etxebizitza eraikuntzako inbertsioen kopuruari dagokionez, Etxebizitza Taldeak (Sailak berak eta horri lotutako sozietate publikoek osatutakoa) 2011n egindakoek 78 milioi euroko zenbatekoa ekarri zuten (% -42, 2010aren aldean). Programa horren inbertsio izaera neurri handian murriztu da, azken urtean gastu osoaren % 32 hartzen duela.

2010eko ekitaldian Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika Etxebizitza Plan Zuzentzaile berriak ezarritako ildo estrategikoetarantz zuzendu zen. 2010-2013 aldirako diseinatu zen, eta helburua alokairuko etxebizitzaren parke publikoa handitzea eta hiri zaharberritze eta eraberritze politika berria bultzatzea da, irtenbide eraginkor eta iraunkorra izateko. Era berean, lurzorua kudeatzeko politika aktiboari eutsi nahi dio, etxebizitza berrien eraikuntzaren sektoreari arintasuna emateko eta lurralde banaketa orekatuagoa lortzeko asmoz, etxebizitza politikaren zerbitzuan dauden baliabideak erabiltzeko orduan eraginkortasun handiagoa duen testuinguruaren barnean.

III.4.19.KOADROA. ETXEBIZITZA PLAN ZUZENTZAILEA 2010-2013REN AGINTE KOADROAZAHARBERRITZEKO JARDUKETAK.						
	2011			2010-2011ko metatua		
	Helb.	Egind.	Beteta ko %	Helb.	Egind.	Beteta ko %
Integratua	400	1.770	442,5	600	3.531	588,5
Isolatua	17.000	14.563	85,7	35.000	32.299	92,3
GUZTIRA	17.400	16.333	93,9	35.600	35.830	100,6
Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Etxebizitza Saila.						

III.4.20 KOADROA. ZAHARBERRIKUNTZAKO MAILEGUAK ETA DIRU-LAGUNTZAK.ETXEBIZITZA PLAN ZUZENTZAILEA 2010-2013

	2010		2011	
	Etxeb. kop.	Zenb. (milioika €-tan)	Etxeb. kop.	Zenb. (milioika €-tan)
DIRU-LAGUNTZAK				
Partikularrak: erkidegoko zaharberrikuntza		13,70		9,09
Partikularrak: banakako zaharberrikuntza		1,14		0,84
Jabeen erkidegoak		5,80		5,83
GUZTIRA	19.947	20,65	16.333	15,76
MAILEGUAK				
GUZTIRA	**785**	**5,99**	**475**	**3,55**


Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Etxebizitza Saila.

III.4.21. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN BIZIGUNE PROGRAMAREN LAGUNTZEN BILAKAERA

	HARTUTAKO ETXEBIZITZAK	DIRU-LAGUNTZAK (milaka €-tan)	Euro/etxeb.	ALD. %
2003	531	2,00	3.766,5	-
2004	1.132	4,50	3.975,3	5,5
2005	1.908	8,00	4.192,9	5,5
2006	2.605	10,00	3.838,8	-8,4
2007	3.446	14,38	4.173,0	8,7
2008	4.215	21,59	5.122,2	22,7
2009	4.557	21,19	4.650,0	-9,2
2010	4.741	22,29	4.701,5	1,1
2011	4.802	23,15	4.820,9	2,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Etxebizitza Saila.

III.4.15. GRAFIKOA. ALOKAIRUA SUSTATZEKO LAGUNTZEN BILAKAERA. MILIOIKA EUROTAN.



Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Etxebizitza Saila.

Agiri estrategiko berriak gogoan hartu du etxebizitza merkatuaren egoera erabat aldatu dela: finantza krisiak eta higiezinen burbuilaren eztandak oso zaildu dute kreditua eskuratzea eta horrek, ekonomia eta enplegu krisiari lotuta, neurri handian geldiarazi du merkatua. 2010-2013ko Etxebizitza eta hiri zaharberritze plan zuzentzailerako kalkulatutako aurrekontu kostua 1.193 milioi euro baino apur bat gehiago da. Haietatik 644 milioi 2010 eta 2013 artean egin beharreko jarduketei dagokie eta 549 milioi etorkizunari begira (2037 arte) hartuko diren betebeharrei.

2011n (datu finkoak dituen azken urtea) egindakoei dagokienez eta arreta batez ere eraikuntzaren helburu orokorretan jarrita, Planak urterako helburu gisa ezarri du babes publikoko 4.450 etxebizitza, guztira, eraikitzea. Horrenbestez, abiarazitako 4.540 etxebizitzek helburu hori gainditzen dute, betetze-maila % 102koa dela.

Edukitze araubidearen araberako analisiak alokairu araubideko etxebizitzak sustatzeko egondako zailtasunak erakusten ditu, ezin izan baita helburua lortu (helburu gisa ezarritako etxebizitzen % 47,3 egin dira); erosketako helburua, aldiz, neurri handian gainditu da (% 134,3). Babesaren modalitateari dagokionez, BOEek emaitza onenak izan dituzte; etxebizitza sozialak eta dotazio alojamenduak, aldiz, hasieran ezarritako helburuetatik urrun-urrun daude.

Plan Zuzentzailearen lehenengo bi ekitaldien analisi metatua kontuan hartuta, emaitzak 2011n lortutakoak baino hobeak izan direla egiaztatu da. Horrela, alokairu

III. 4.22. KOADROA. ETXEBIZITZAKO MAILEGUAK ETA DIRU-LAGUNTZAK. ETXEBIZITZA PLAN ZUZENTZAILEA 2010-2013

	2010		2011	
	Etxeb. kop.	Zenb. (milioika €-tan)	Etxeb. kop.	Zenb. (milioika €-tan)
A. ALOKAIRUA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK				
Etxebizitzak alokagai	666	17,13	96	2,89
Dotazio alojamenduak	32	0,16	21	0,29
Landa alokairua	3	0,20	0	0,00
GUZTIRA	701	17,49	117	3,18
B. ALOKAIRUA SUSTATZEKO SUBSIDIOAK	..	11,87	..	0,94
C. JARDUKETA BABESGARRIETARAKO MAILEGUAK				
Etxebizitza sustapena	21	130,25	16	120,41
Etxebizitza zaharberritzea	780	6,15	440	3,26
BOE eskuratzea	745	78,37	149	14,52
Etxebizitza erabiliak eskuratzea	64	6,61	17	1,90
Alokairu babesturako eskuratzea	8	34,86	5	2,35
Dotazio alojamenduak	2	6,06	0	0,00
Lurzorua eta urbanizazioa	1	25,00	4	1,13
GUZTIRA	1.621	287,39	631	143,57

Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Etxebizitza Saila.

metatuko etxebizitzen ekimenetarako betetze-maila % 72,2koa izan da; erosketena, aldiz, % 141,3koa.

Analisiaren arreta zaharberrikuntza jardueran jarrita, ezarritako helburuak neurri handian bete direla egiaztatu da. Izan ere, 2011n zaharberritutako etxebizitzen kopurua 16.333 zen, horrek ezarritako helburuaren % 93,9 bete izana dakarrela.

Bi ekitaldiak kontuan hartuta, betetze-maila % 100,6koa izan da. Gainera, zaharberrikuntza integratuko eragiketen edo zaharberrikuntza isolatuen araberako analisiak erakutsi du pixka bat gehiago direla zaharberrikuntza integratuko eragiketak, 2010-2011 biurtekorako betetze-maila % 588,5ekoa izan dela (3.531 jarduketa, aurreikusitako 600 jarduketen aurrean), zaharberrikuntza isolatuko jarduketak % 92,3 izan direla.

Eskaria eta eskaintza pizteko asmoz mailegu eta diru-laguntza gisa emandako laguntzei dagokienez, 2011n laguntza mota guztietako zenbatekoa neurri handian murriztu dela antzeman da. Alokairua sustatzeko diru-laguntzetan (117 etxebizitza barne hartzen dituzte) 3,18 milioi euro erabili dira, guztira, hau da, aurreko urtean baino % 81,8 gutxiago.

Jarduketa babesgarrietarako maileguei dagokienez, 143,57 milioi euro erabili dira, guztira, 631 etxebizitza ukituta. Zenbateko hori 2010ean helburu bererako erabilitakoa baino % 50 txikiagoa izan da. Maileguez eta diru-laguntzez gain, 940.000 euro erabili dira alokairua sustatzeko subsidioetarako.

Halaber, 2011n 15,76 milioi euro (% -23,7, 2010aren aldean) erabili ziren etxebizitza zaharberritzeko diru-laguntzetarako, 16.333 etxebizitzatan abiarazitako proiektuak ukituta, baita 3,55 milioi euro gehiago ere zaharberritzeko maileguetarako (% -40,7, 2010eko zenbatekoen aldean).

Eusko Jaurlaritzako alokairu politikarako erabilitako baliabideei dagokienez, alokairua sustatzeko diru-laguntzen eta Etxebizitza Sailak 2011n onetsitako eta ondorio horretarako erabilitako subsidioen batura 4,12 milioi eurokoa izan da (% -86, 2010aren aldean). Alokairurako subsidioen eta diru-laguntzen bilakaera beheranzkoa da azken urteotan, argi eta garbi (grafikoan islatu bezala), alokairu araubidearen sustapenak atzera egitearen ondorioz.

Bestalde, EAEko etxebizitza hutsak alokairu babestuan eskainiz erabiltzea sustatzeko helburua duen Etxebizitza Sailaren Bizigune Programaren

laguntzek 2011n 23,15 milioi euroko diru-laguntzak izan dituzte (% +3,9, 2010eko datuaren aldean), eta, horren ondorioz, urtearen amaieran erabili diren etxebizitzak 4.802 izan dira (% +1,3).

4.6.2. Foru Aldundietako etxebizitza politika

Eusko Jaurlaritzak garatu duen etxebizitza politikaz gain, interesgarria da gastu fiskalen kopuru handiak ezagutzea, foru aldundiek etxebizitza gaietan esku-hartze publikoa egiteko tresna gisa erabiltzen dituztelako. Horri buruz dauzkagun daturik berrienak 2009ko ekitaldiari buruzkoak dira. Datu horien iturria Eusko Jaurlaritzako Zerga Koordinaziorako Organoaren 2010eko *Euskal Ogasunaren urteko txosten integratua* da.


Hiru foru aldundietako PFEZgatiko likidazioetatik aurrera, ondorioztatu da alokairuko zein inbertsioko ohiko etxebizitzagatiko kenketen (kuantitatiboki bigarren kenketak —% 16,7— dira, familiako kenketen eta kenketa pertsonalen atzean) zenbatekoa 513,5 milioi eurokoa izan dela 2009an, hau da, aurreko urteko zenbatekoa baino % 2,3 txikiagoa. Horrela, egiaztatu egiten da aurreko ekitaldian abiarazitako beherakadaren joera, 2007aren aldean % 2,4 murriztu ondoren. Zenbateko hori Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Programak urte horretan erabilitako gastuaren % 248koa (207,39 milioi euro) da, aurreko atalean ikusitakoaren arabera.

513,5 milioi euro horietatik % 82,4 (423 milioi) ohiko etxebizitza eskuratzeagatiko kenketei dagokie, % 10,2 ohiko etxebizitzaren alokairuari, eta gainerako % 7,4 etxebizitza aurrezkiagatiko kenketei.

Kenketa horiek pisu handiagoa daukate 30.000 eta 42.000 euro arteko errentetan (likidazio-oinarria); haietan kenketen zenbateko osoaren % 26 dira batez beste (gehienekoa, hau da, % 25, oinarriko 37.200 eta 39.600 €-ren artean dago), eta gero apurka jaisten dira errenta mailek gora egin ahala:


Lurraldez lurralde, kenketa guztien % 21,3 izan zen Araban, % 16,5 Bizkaian eta % 15 Gipuzkoan.

III.4.16. GRAFIKOA. PFEZ-KO ETXEBIZITZAGATIKO KENKETEN ZENBATEKOAREN BILAKAERA ETA KENKETA GUZTIEN GAINEKO PORTZENTAJEA.



Iturria.- Eusko Jaurlaritza. Zegak Koordinatzeko Organoa.

III.4.17. GRAFIKOA. PFEZ-KO KENKETEN ERRENTA-TARTEEN ARABERAKO PORTZENTAJEZKO BANAKETA*. EAE, 2009.



Iturria: ZERGA KOORDINAZIORAKO ORGANOA. 2010eko urteko txostena.
* Ohiko etxebizitzagatiko eta mezenasgoagatiko kenketa familiarren eta pertsonalen banaketa, kenketa orokorra eta jarduera ekonomikoa sustatzeko kenketa kontuan hartu gabe.

III.4.23. KOADROA. UDALEN ETXEBIZITZAKO ETA HIRIGINTZAKO GASTUAREN ETA INBERTSIOAREN BILAKAERA, 2008-2010

	2008ko likidazioa		2009ko likidazioa		2010eko aurrekontua	
	Gastua biztanle bakoitzeko (€)	Gastu osoaren gaineko %	Gastua biztanle bakoitzeko (€)	Gastu osoaren gaineko %	Gastua biztanle bakoitzeko (€)	Gastu osoaren gaineko %
Araba	185,2	11,7	202,1	11,0	178,9	10,9
Vitoria-Gasteiz	171,0	10,9	189,8	10,2	159,9	9,7
Amurrio	124,8	8,7	135,2	8,3	205,1	13,1
Iruña Oka	632,8	34,0	598,7	29,6	195,6	14,8
Laudio	232,5	14,3	254,4	14,2	159,7	12,8
Oion	730,6	43,9	505,7	37,1	422,0	32,2
Agurain	170,1	10,0	122,7	6,4	385,8	15,3
Bizkaia	224,5	15,4	266,9	16,2	167,6	12,8
Bilbo	189,5	12,1	246,1	13,8	153,4	10,8
Barakaldo	100,0	8,5	126,7	9,1	78,3	7,1
Galdakao	650,2	41,5	868,1	43,0	180,7	17,6
Gernika	687,7	39,9	432,7	29,9	285,0	23,5
Portugalete	285,4	25,4	390,6	30,2	187,0	18,3
Santurtzi	157,1	13,9	236,3	18,9	146,7	11,0
Gipuzkoa	252,8	16,6	318,8	17,9	190,4	12,8
Donostia	306,5	17,2	312,2	15,2	187,8	10,9
Arrasate	231,2	14,6	441,1	22,5	113,5	7,3
Eibar	68,1	5,0	80,4	5,5	101,5	8,1
Errenteria	268,0	21,7	296,5	22,8	330,7	24,2
Irun	142,6	11,2	137,2	8,9	99,1	8,5
Zarautz	578,4	37,1	804,9	43,9	312,3	22,5
EAEko udalerriak, guztira	227,9	15,2	274,2	16,0	176,6	12,5

Iturria: Etxebizitza Sailak EUSTATen datuak erabilita egindakoa.

4.6.3. Udal etxebizitza politika

2011n Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak EAEko udalerriek etxebizitzan eta hirigintzan egindako gastuen eta inbertsioen zifra nagusien analisia egin zuen, 2008ko eta 2009ko ekitaldietako aurrekontu likidazioetatik eta 2010eko udal aurrekontuetatik datozen datuak erabilita.

Lehenengoz, datuek erakusten dute 2009an udalek etxebizitzan eta hirigintzan egindako gastua 595 milioi eurokoa izan zela. Hori udal aurrekontuaren likidazio osoaren % 16 da. Zenbateko horrek hazkunde nabarmena agerian jartzen du aurreko urteko gastuarekin alderatuta (% +20); hala ere, gastuaren likidazio osoarekin alderatuta, antzeko mailan dago (% 15,2 2008an).

2010eko aurrekontua kontuan hartuta, Udalen etxebizitza-funtzioari dagokion gastuak nabarmen egin du behera 383 milioi eurora arte (% -35,6). Aurrekontu-murrizketak aurrekontu orokorretan ere azaldu diren arren, esan behar da jaitsiera etxebizitza-funtzioan handiagoa izan dela, aurrekontu osoaren % 12,5 izan baita, aurreko ekitaldiko % 16ren aldean.

Lurraldez lurralde, eta 2009ko datuak azterketaren ardatz hartuta, guztien % 52 Bizkaiko udalerriei dagokie (307 milioi €), % 37 Gipuzkoakoei (223 milioi) eta % 11 Arabakoei (64 milioi). Beste alde batetik, Araban etxebizitza eta hirigintzako udal gastu eta inbertsioen % 70 Vitoria-Gasteizen biltzen da. Bilbok du Lurraldeko etxebizitzako gastuaren % 28, eta Donostiak Gipuzkoako udal gastuaren % 25. Hiriburuek lurraldeen gainean duten gastu banaketa hori bat dator hiriburuek lurraldeen gainean duten biztanleriaren portzentaje handiarekin.

Biztanle bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, EAEko udalerrien multzorako batezbestekoa 2009an 274 € izan zen, (biztanle bakoitzeko 228 € 2008an). Hala ere, Gipuzkoako udalerrietan biztanle bakoitzeko gastu erlatibo handiagoa egon dela egiaztatu da (biztanle bakoitzeko 319 €), atzetik Bizkaiko udalerriak doazela (biztanle bakoitzeko 267 €), eta azkenik Arabakoak (biztanle bakoitzeko 202 €).

Hiru Lurralde Historikoetan biztanle bakoitzeko etxebizitza eta hirigintzako batez besteko gastua aztertuz ondorioztatzen da 2009an hazkunde nabarmena egon dela, bereziki Gipuzkoako udaletan. 2010eko aurrekontuen informazioa kontuan hartuta, murrizketa handia da, batez besteko gastua biztanle bakoitzeko 190 €-koa baita Gipuzkoan (% -40, 2009arekin alderatuta), biztanle bakoitzeko 179 €-koa Arabako udalerrietan (% -11) eta biztanle bakoitzeko 168 €-koa Bizkaiko udalerrietan (% -37).

5. AISIALDIA ETA KULTURA

5.1. POPULAZIOAREN OHITURAK

5.1.1. Hedabideen eragina

III.5.1. KOADROA. KOMUNIKABIDEEN SARRERA AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERA (% HORIZ.)

	POPUL. > 14 (MILAKOAK)		EGUNKARIAK		GEHIGARRIAK		ALDIZKARIAK		IRRATIA (1)		TELEBISTA (1)		ZINEMA (2)		INTERNET (3)	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012
EAE	**1.868**	**1.860**	**49,4**	**49,3**	**39,5**	**36,5**	**49,7**	**44,4**	**67,9**	**65,1**	**92,2**	**89,0**	**2,8**	**2,7**	**57,1**	**44,9**
Estatua, guzt	39.485	39.449	37,4	36,1	18,2	16,2	48,9	45,4	58,5	61,9	88,5	89,1	3,4	3,3	60,4	46,7
Andaluzia	6.973	6.992	27,8	27,6	8,4	8,2	40,5	38,5	56,1	58,7	87,8	88,0	2,2	3,4	54,3	44,6
Aragoi	1.150	1.145	45,7	41,9	29,2	26,5	57,2	53,1	60,3	62,0	88,6	92,9	1,8	3,1	58,9	51,1
Asturias	949	946	53,8	54,1	26,1	24,3	43,0	49,8	57,6	60,8	88,8	89,4	4,1	3,4	50,7	42,4
Balearreak	924	932	43,2	44,8	19,8	24,9	41,8	39,7	58,5	64,0	85,2	82,1	7,6	5,2	56,1	47,2
Kanariarrak	1.797	1.810	33,3	32,5	14,1	12,2	55,0	48,3	55,8	59,5	86,5	90,1	4,4	3,8	59,3	47,0
Kantabria	509	507	42,9	43,8	26,0	21,5	39,2	42,4	60,8	61,6	92,4	90,9	..	-	54,3	37,1
G. eta Leon	2.214	2.203	40,2	42,9	25,3	24,1	55,6	54,5	61,3	66,2	91,6	91,4	3,6	2,6	47,9	40,2
G.-Mantxa	1.760	1.757	25,2	25,0	11,1	8,3	46,5	41,0	55,1	59,2	88,9	90,3	2,6	2,1	52,1	39,7
Katalunia	6.228	6.197	42,2	39,0	18,0	15,0	51,2	49,9	59,7	64,7	87,2	87,4	3,6	3,3	65,4	55,5
Valentzia	4.287	4.277	30,1	28,7	13,1	12,7	47,9	43,9	56,4	59,8	89,2	91,7	4,3	4,3	56,2	44,6
Extremadura	937	937	29,8	29,0	12,5	12,6	38,3	36,6	51,9	58,0	89,6	94,4	3,1	2,4	46,9	39,1
Galizia	2.436	2.431	48,1	47,4	28,3	24,7	52,3	45,8	58,9	62,2	88,4	88,0	3,0	3,7	49,6	39,3
Madril	5.421	5.423	39,9	36,0	17,9	15,4	52,9	48,2	61,4	64,1	87,9	87,7	3,8	3,7	62,7	54,1
Murtzia	1.226	1.229	29,1	28,2	14,2	7,8	49,6	43,0	54,0	57,3	89,2	91,9	4,2	2,1	51,6	39,9
Nafarroa	533	533	57,4	50,8	41,7	34,6	52,3	41,1	59,4	66,9	90,4	90,7	2,3	0,9	59,2	43,7
Errioxa	271	269	49,8	50,0	29,7	22,1	54,9	50,9	56,7	62,8	88,3	93,6	5,2	6,5	52,8	39,5

(1) Egunean pilatutako entzuleak, (2) Azken astean behin gutxienez, (3) Atzoko erabilera
Biztanleria milaka pertsonetan.
AIMC, Hedabideen Esparru Orokorra, 2012 eta 2013

AIMCk (Hedabideen Ikerkuntzarako Elkartea) "Hedabideen Esparru Orokorra Espainian" izenarekin 2012. urteari buruz egindako txostenean bildu dituen datuen arabera, hedabideen barneratzeak EAEn joera ezberdina ageri du hedabidea gorabehera.

Gauzak horrela, 2012an, telebistaren sarrera % 89ra iritsi zen, estatuko % 89,1eko portzentajearen gainetik eta ehuneko 3,2 puntu jaitsiz aurreko ekitaldiaren aldean. Irratiak %65,1 erregistratu du, estatuko %61,9ko batez bestekoaren gainetik eta 2,8 puntu beherantz eginez aurreko urtearekiko. Egunkarien sarrera biztanleriaren % 49,3koa da, estatuko batez bestekoa baino portzentaje altuagoa (% 36,1) eta ehuneko 1 gutxiago aurreko urteko ratioaren aldean. Aldizkariek % 44,4 hartzen dute, estatuko ratioaren azpitik ehuneko 1 puntu eta aurreko aldian baino 5,3 puntu gehiago. Eranskinek sarrera murriztu dute, % 39,5etik 36,5era, eta estatuko % 16,2ko batez bestekoaren oso gainetik kokatu dira.

Interneten sarrera-ratioa jaitsi egin da: %57,1etik %44,9ra (atzoko eguneko erabilera). Zinemaren sarrera %2,8tik %2,7ra jaitsi da (zinemara astean behin doazen pertsonak). Estatuan, berriz, %3,4tik %3,3ra.

1 Hedabide jakin batek eskuratu duen biztanleria portzentajea da. Hedabidearen arabera, irakurle guztiak, ikusle guztiak, entzule guztiak edo internauta guztiak izango dira.

III.5.2.KOADROA. BIZTANLERIAREN KULTUR OHITURA K ETA JARDUNAK

	Estatua		EAE	
15 urtetik gorako guztien %	2006-2007	2010-2011	2006-2007	2010-2011
Museoetara joan zirenak	31,2	30,6	33,0	34,4
Monumentuak ikustera joan zirenak	34,1	39,5	37,3	43,1
Arkeologi aztarnategietara joan zirenak	13,0	13,9	11,3	13,9
Liburutegi batera joan zirenak	17,6	20,5	16,4	25,5
Liburutegira internetegatik joan zirenak	4,6	9,6	3,3	9,3
Liburuak irakurri dituztenak	57,7	58,7	61,3	65,6
Antzerkira joan zirenak	19,1	19,0	22,2	19,7
Operara joan zirenak	2,7	2,6	3,4	3,0
Zarzuela ikuskizun batera joan zirenak	1,9	1,6	2,9	2,3
Balet/dantza ikuskizunera joan zirenak	5,1	6,1	5,2	7,2
Musika klasikoko kontzertuetara joan zirenak	8,4	7,7	7,2	7,7
Egungo musika kontzertuetara joan zirenak	26,4	25,9	33,2	31,3
Zinemara joan zirenak	52,1	49,1	49,4	45,7
Jarduera artistikoak egin zituztenak: idaztea	7,5	7,1	6,2	4,7
Jarduera artistikoak egin zituztenak: margotzea edo marraztea	9,2	13,2	8,7	12,3
Jarduera artistikoak egin zituztenak: argazkigintza	16,6	29,1	27,6	32,8
Jarduera artistikoak egin zituztenak: antzerkia	2,1	2,1	1,4	1,6
Jarduera artistikoak egin zituztenak: dantza/baleta	3,8	3,9	2,8	4,3
Jarduera artistikoak egin zituztenak: tresna bat jotzea	5,9	8,0	4,1	8,1
Jarduera artistikoak egin zituztenak: abesbatzan abestea	2,8	2,4	1,7	1,6
16-74 urtekoen guztizkoaren %	2010	2011	2010	2011
Ordenagailua azken 3 hileetan erabili dutenak	67,4	69,3	70,0	73,6
Internet azken 3 hileetan erabili dutenak	64,2	67,1	66,6	71,2

Iturria: HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. Kultura Estatistiken Urtekaria 2012.

5.1.2. Biztanleriaren kultur ohiturak eta jardunak

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak argitaratzen duen *"Kultura Estatistiken Urtekaria"*ren arabera, handiagoa da EAEn Estatuan baino ekipamenduetara joateko (museoak, monumentuak edo arkeologi aztarnategiak), liburuak irakurtzeko, liburutegi, antzerki ikuskizun, opera, zarzuela, balet, dantza edo egungo musika ikuskizunetara, etab. joateko kultura ohitura duten 15 urtetik gorako pertsonen ehunekoa. Joera hori goranzkoa da 2006-2007 eta 2010-2011ko aldiekin alderatuta.

Jarduera artistikoak egitearen arloan (idaztea, margotzea, marraztea, argazkigintza, dantza/baleta, abesbatzan abestea edo tresna bat jotzea), aldiz, ratio handiagoak dira Estatuan.

EAEko biztanleen artean hedatuen dauden kultura ohiturak eta jardunak hauexek dira: liburuak irakurtzea (inkestaturiko biztanleen %65,6), zinemara joatea (%45,7), monumentuak bisitatzea (%43,1), museoak bisitatzea (%34,4), argazkiak egitea (%32,8), egungo musika kontzertuetara joatea (%31,3) eta liburutegietara joatea (%25,5).

Beste muturrean, hots, gutxien hedatuta dauden ohituren eta jardunen artean, honako hauek: abesbatza batean abestea edo antzerkia egitea (inkestaturiko biztanleen %1,6), zarzuela ikuskizun batera joatea (%2,3), operara (%3), dantza/baleta egitea (%4,3) eta idaztea (%4,7).

5.2. KULTURA ETA AISIALDI JARDUEREN ESKAINTZA EAE-N

5.2.1. Bisitarien bertaratzea kultura ekipamenduetara

EAE derrigorrean bisitatu behar den tokietako bat bihurtzen ari da nazioarteko testuinguruan, hain zuzen ere dituen kultura ekipamenduen kopuru eta aniztasunagatik. Ekipamendu horiek ondare etnografiko, arkeologiko, bibliografiko eta dokumentalaren adierazpen eskaintza anitzaren bitartez gauzatzen dira, museo, liburutegi eta artxibo aniztasunaren eta aberastasunaren bitartez bezalaxe.

Museoen jarduera adierazletzat hartuta, eta zehazki Lurralde Historikoetako museo nagusien bisitari kopurua, hauxe ikusten da orain ere, BASQUETOUR Eusko Jaurlaritzaren Euskal Turismoaren Agentziaren datuen arabera: Guggenheim museoa da erakargarri nagusia, 962.005 bisitariekin 2011n, aurreko urtean

2 Banakoei zuzendutako inkesta denez gero, banakoaren bizilekuari dagokio sailkapen geografikoa eta ez kultura ekitaldiak edo partaidetza izan den tokiari. Hori bereziki adierazgarria da ikuskizunen asistentziaren emaitzak aztertzean.

3 Edizioaren erreferentziako aldia, oro har, urtebete naturala biltzen du. 2010-201, 2010eko martxoa eta 2011ko otsaila bitartean.

III.5.3. KOADROA. BISITARIAK KULTURA EKIPAMENDUETARA BERTARATZEAREN BILAKAERA EAEN

	2007	2008	2009	2010	2011	Haz. %2009/10	Haz. % 2010/11
Arabako Arte Ederren Museoa	14.513	13.443	15.917	14.737	22.564	-7.4	53,1
Artium	99.500	104.197	105.232	101.115	d.e	-3,9	-
Eliz Museoa	37.034	32.951	..	35.284	45.110	-	27,8
Arabako Arkeologia Museoa	15.961	8.791	61.406	47.185	45.555	-23,2	-3,5
Karten Fournier Museoa	20.585	20.585					
Santa Maria Katedralaren Fundazioa	103.258	100.967	105.086	108.133	108.836	2,9	0,7
Arkeologia Museoa	..	..	10.594	7.861	11.484	-25,5	46,1
Arrantzalearen Museoa	15.105	13.610	15.900	12.823	15.647	-19,4	22,0
Bilboko Arte Ederren Museoa	164.903	223.197	207.978	191.962	259.968	-7,7	35,4
Bilboko Itsasadarreko Itsas Museoa	73.455	48.242	61.502	28.545	56.720	-53,6	98,7
El Pobaleko burdinola	13.921	15.060	15.244	12.718	13.696	-16,6	7,7
Euskal Herria Museoa	10.057	9.612	8.695	14.570	15.467	67,6	6,2
Bilboko Euskal Museoa	37.996	60.909	45.462	42.576	57.662	-6,3	35,4
Gernikako Bakearen Museoa	35.111	24.755	26.057	26.948	29.005	3,4	7,6
Guggenheim Museoa	1.002.963	951.368	905.048	958.173	962.005	5,9	0,6
Santimamiñe Koba	..	8.816	11.460	11.140	d.e.	-2,8	-
Agorregiko burdinola eta errotak	12.447	13.788	10.518	9.613	11.637	-8,6	21,1
Chillida Leku Museoa	78.532	61.854	60.105	..	d.e.	..	-
Donostiako Aquariuma	270.098	277.285	310.541	301.771	315.593	-2,8	4,6
Igartubeti baserria	5.765	7.176	9.665	6.999	8.345	-27,6	19,2
Burdin Harana	23.979	20.718	16.497	13.240	11.802	-19,7	-10,9
San Telmo Museoa	12.717	94.391	98.973	104.637	134.326	5,7	28,4
Burdinbidearen Euskal Museoa	14.813	36.175	37.980	38.198	31.521	0,6	-17,5
Itsas Museoa	9.365	13.838	11.721	10.595	16.719	-9,6	57,8
Zientziaren Kutxa Espazioa	117.750	112.734	138.264	134.079	142.017	-3,0	5,9
Zumalakarregi Museoa	17.298	5.482	10.317	2.975	3.444	-71,2	15,8

Iturria: BASQUETOUR, Euskal Turismoaren Agentzia, EUSKO JAURLARITZA.

baino %0,6 gehiago, eta eutsi egiten zaio, hala, joera-aldaketari.

Joera hori 2010ean hasi zen, bi ekitalditan (2008 eta 2009) asistentzia kopuru jaitsiera txikien ondotik.

Bigarren taldea, berriz ere, Donostiako Aquariumak, Bilboko Arte Ederren Museoak eta Donostiako Zientziaren Kutxa Espazioak osatu zuten. Lehenak 315.593 bisitari izan zituen, aurreko urtean izandako bisitari kopurua baino zertxobait gehiago (% 4,6), hainbat urtean igoera jarraitua izan ostean. Bisitarien bolumen aldetik, Bilboko Arte Ederren Museoak jarraitzen dio, 259.968 bisitarirekin (+% 35,4 2010arekiko), eta, ondoren, Zientziaren Kutxaguneak; hain zuzen, gorantz egin du bisitari kopuruan (%5,9), aurreko urtean %3 jaitsi igo ondoren.

Hirugarren blokean, Artium eta Santa Maria Katedrala Fundazioa izango lirateke Gasteizen eta San Telmo Museoa. Bereziki adierazgarria da San Telmo Museoan izan diren bisitarien kopuruaren igoera (%28,4), hots, 134.326 bisitari. Santa Maria Katedrala Fundazioaren hazkundea oso txikia da (%+0,7), eta ez dugu Artiumari buruzko 2011ko daturik.

5.2.2. Biltzar eta azoka jarduera

Biltzar jarduera

BASQUETOURek emandako datuen arabera, EAEko biltzar jarduerak bilakaera ezberdina du gure Erkidegoko lurraldeen arabera. Gora egin du eginiko biltzarren kopuruak Araban, %13,8; Gipuzkoan %18,5 igo da (baina kontuan hartu behar da zenbait ekitaldi zenbatu direla, ez sailkatuak, “beste batzuk” epigrafean bilduak, eta horrek zaildu egiten du kopuruok interpretatzea). Bizkaian, berriz, %2,3 jaitsi da. Hala, 1.067 biltzar egin ziren Bizkaian (2010ean baino 25 gutxiago), 66 Araban (aurreko ekitaldian baino 8 gehiago) eta 147 biltzar Gipuzkoan (2010ean baino 23 gehiago).

III.5.4. KOADROA. EAE-KO BILTZARREN JARDUERAREN BILAKAERA (2008-2011)*

	ARABA				BIZKAIA				GIPUZKOA				ESTATUA
	2008	2009	2010	2011	2008	2009	2010	2011	2008	2009	2010	2011	2011
BILERAK GUZTIRA	80	66	58	66	981	1.021	1.092	1.067	107	92	124	147	21.382
Jardunaldiak, mintegiak, sinposiumak	35	20	27	28	712	801	890	780	22	5	26	47	11.609
Kongresuak	34	32	23	27	93	116	99	116	51	55	70	71	3.162
Konbentzioak	1	5	3	9	176	104	103	171	11	7	8	8	6.611
Beste batzuk	10	9	5	2	0	--		--	23	25	20	21	--
ORDEZKARITZA GUZTIRA	21.597	20.808	18.053	19.555	192.110	156.981	177.976	171.967	225.429	190.618	174.551	217.448	3.428.554
Jardunaldiak, mintegiak, sinposiumak	3.102	3.590	3.368	4.980	106.921	99.421	125.013	110.441	3.487	632	4.766	14.747	1.389.594
Kongresuak	8.035	8.810	5.655	7.675	42.873	26.293	25.607	26.140	13.395	23.450	20.542	19.904	1.079.651
Konbentzioak	55	908	570	1.200	42.316	31.267	27.356	35.386	3.261	895	1.400	2.169	959.309
Beste batzuk	10.405	7.500	8.460	5.700	0	--		--	205.286	165.641	147.843	180.628	--
ORDEZKARIAK/EMANKIZUNAK	270	315	311	296	196	154	163	161	2.107	2.072	1.408	1.479	160
Jardunaldiak, mintegiak, sinposiumak	89	180	125	178	150	124	140	142	159	126	183	314	120
Kongresuak	236	275	246	284	461	227	259	225	263	426	293	280	341
Konbentzioak	55	182	190	133	240	301	266	207	296	128	175	271	145
Beste batzuk	1.041	833	1.692	2.850	--	--	--	--	8.925	6.626	7.392	8.601	--
JARDUERA (%)													
Mediku-osasunekoa	d.e.				19,8	25,7	23,4	25,9	26,2	29,9	20.9	17,3	20,9
Zientziaren sektorea					0,0	--			8,3	9,0	9.7	11,8	5,9
Kulturaren sektorea					17,0	14,1	11,7	14,8	7,2	4,5	3.2	4,0	11,8
Ekon-merkataritza sek.					19,4	11,4	10,1	19,1	22,6	9,0	22.6	26,8	21,6
Sektore publikoa					9,7	10,4	10,1	7,0	4,8	9,0	9.7	2,4	7,7
Sektore teknologikoa					21,6	24,8	22,5	18,9	15,5	23,9	20.2	18,9	7,4
Unibertsitatea					5,3	7,1	6,8	5,5	11,9	4,5	3.2	2,4	8,7
Beste batzuk					7,2	6,5	15,5	8,7	3,6	10,5	10.5	16,5	16,0

***Biltzarren jarduera 2008tik 2011ra berrikusteko prozesuaren ondotik, honako aldaketa hauek egin dira: Arabako datu guztietan, jardueraren errealitateari egokitzeko lurralde horretan, Gipuzkoako datuetan, "beste batzuk" kategoriari dagozkion datuak osatu dira, posible izan denean.**
Iturria: BASQUETOUR, Turismo Euskal Agentzia, EUSKO JAURLARITZA

Bizkaiak du toki nabarmena bileren kopuruaren aldetik; izan ere, bertaraturiko ordezkarien kopurua 171.967 izan da guztira, hots, %3,4ko jaitsiera 2010eko datuekin alderatuta eta 161eko ratioa ekitaldi bakoitzeko (aurreko urtean baino 2 ordezkari gutxiago ekitaldiko). Bilerei dagokienez, osasun-medikuntzako sektorekoak nabarmentzen dira (guztizkoaren %25,9), eta ondoren izaera ekonomiko komertzialekoak (%19,1) eta sektore teknologikokoak (%18,9).

Gipuzkoan, %24,6 egin du gora bertaraturikoen guztizko kopuruak aurreko urtearekin alderatuta: 174.551 izatetik 217.448 izatera. Jarduerari dagokionez, berriz ere dira nagusi jarduera ekonomiko komertzialak (%26,8), sektore teknologikokoak (guztizkoaren %18,9) eta osasun-medikuntzakoak (%17,3).

Azkenik, Araban, bertaraturiko ordezkarien guztizko kopurua 19.555 izan da (2010ean baino %8,3 gehiago), eta ekitaldiko batez besteko ordezkari kopurua 296 izan da.

Azoken jarduera


Merkataritzako azokak eta erakusketak azken urteotan indar gehien edukitzen ari den sustapen elementuetako bat dira. Ekonomia orokorreko ikuspuntu batetik, jarduera ekonomikoaren sortzailetzat jo dira, izan ere, produktuak barreiatu eta saltzea erraztu dute, garapen teknikoa suspertu eta nabarmendu dute eta irudi nazionala eta nazioartekoa hobetzen duten lankidetzako sinboloak ere badira. Enpresen ikuspegitik aukera paregabea dira; izan ere, azoken saio batean erakusmahaiek eta bisitariek zuzenean eta bitartekaririk gabe irudikatzen dute edozein merkataritza sektoreko eskaintza eta eskaria.

Azokek enpresei ematen dizkieten zerbitzuak, erakusteko eta kontratazioa sustatzeko duten gaitasunagatik, eskari garrantzitsu bat ari dira sortzen, eta, eskari horri erantzuteko, inbertsio handiak ari dira egiten azoketan eta horrelako saioen garapenean. Horiek jarduera ekonomikoa sustatu eta bultzatzeko politikaren zati bihurtzen ari dira.

III.5.5. KOADROA. BILBAO EXHIBITION CENTRE, OINARRIZKO ADIERAZLEAK						
	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Erakusketak	20	24	16	21	20	27
Zuzeneko erakusketariak	2.551	3.555	2.354	2.253	1.936	2.565
Azalera garbia	176.720	152.699	158.436	106.141	119.596	103.562
Bisitari profesionalak	89.206	84.877	102.202	45.696	70.963	51.633
Jendea, orokorrean	1.118.166	1.127.188*	1.006.974	1.182.191	1.221.111	956.956

**Jendea, orokorrean: Arena pabiloian + BEC Konbentzioetan egindako emankizunetara bertaratzen direnak biltzen ditu. Iturria: BEC.*

III.5.1. GRAFIKOA. BEC. Bisitarien bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta BEC

Ondorioz, ia ez dago hiriburu garrantzitsurik erakusmahaien erakargarritasun aukerengatik eta hirigintzaren eta teknologiaren aldetik gorentasuna emateagatik nazioartean erreferentziako puntu bihurtu daitekeen azoka esparrurik gabe. Tradizio gehienekoak, adibidez Hannoverrekoa, Birminghamekoa, Milangoa, Madrilgoa, Bartzelonakoa eta Bilbokoa, berrikuntza, zabalkunde edo hobekuntza prozesuetan murgilduta egon dira edota daude gaur egun instalazioei dagokien horretan.

Espainiako Azoken Elkartearen (AFE) datuen arabera, Bilbao Exhibition Centre-BEC zazpigarren tokian zegoen 2010ean azoken rankignean, eginiko erakusketen arabera, 19 azokarekin. Aurretik ditu honako hauek: Madrilgoko Azoka (81), Bartzelonakoa (41), Valentziakoa (37); Espazioak eta Kongresuak, horien ere Madrilen (27), Eltxekoa (28) eta Zaragozakoa (23).

BECek azoken jardueraren bilakaerari buruz emandako datuek agerian uzten dute zuzeneko erakusketarietan, azalera garbian eta bisitari profesionalen kopuruan jazotzen aritu den bi urteko aldaketa, Makina-erreminta eta Ferroforma urte bikoitietan egitearen ondorio zuzena. Aitzitik, ahalik eta parte-hartzaile profesional gehien erakartzeko xedez, Ferroformak data aldatu zuen, nazioarteko egutegian toki pribilegiatua betetze aldera. Gauzak horrela, Ferroformaren 17. edizioa ez zen 2006. urtean egin eta, aldiz, 2007. urtera eraman zen.

Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, 27 erakusketa eta ekitaldi multzo bat egin ziren BECn, eta guztira 51.633 bisitari profesional bildu ditu (aurreko urtean baino %27,2 gutxiago), baita publiko orokorreko 956.956 pertsona; aurreko urtean, berriz, 1.221.111 izan ziren. Taularen arabera, nahikoa nabarmena izan da hartutako azaleraren eta bisitari profesionalen kopuruaren jaitsiera azken bost urtean (%41,4 eta %42,1 hurrenez hurren), baina kontuan hartu behar da zuzeneko erakusketarien kopuruari eusteko ahalegina; izan ere, epealdi berean %0,5 hazi da.

5.3. ARGITALPEN-PRODUKZIOA

INEren «Argitaletxeen Ekoizpenaren Estatistikaren» datuen arabera, EAEk seigarren postua zuen 2011. urtean (datuak eskuragarri dauden azken urtea) argitaletxeen ekoizpenaren rankingean (postu bat jaitsi du aurreko urtearen aldean), 2.197 izenburu (liburuak eta liburuxkak) argitaratuta, Estatuko kopuru osoaren % 3. Madrilgo Erkidegoaren (23.443 izenburu, guztien % 31,6), Kataluniaren (20.324 izenburu, guztien % 27,4), Andaluziaren (10.712), Galiziaren (2.866) eta Gaztela-Leonen (2.374) atzetik dago.

Izenburu guztietatik 1.836 (% 83,5) liburuak dira eta 361 (% 16,5) liburuxkak. Liburuen kasuan, titulu-

4 2004ko ediziotik, ohiko sektoreei indar izugarriko merkatu berriak sartu ziten, azokan euren protagonismo eske baitzetozen. Horrela, aldi berean Bricoforma, Brikolajearen azoka, burutu zen.

kopurua % 13,3 jaitsi da, eta aleena, berriz, % 30,3. Ondorioz, batez besteko inprimaketa % 19,6 igo da, guztira baita tituluko 1.306 ere. Liburuxkei dagokienez, izenburuek (% -5,5) eta ale kopuruak (% -17,2) beherantz egin dute, beraz, horien batez besteko inprimaketak beherakada jasan du % 12,3an.

III.5.6. KOADROA. ARGITALETXEEN EKOIZPENAREN BILAKAERA EAE-N

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	Bariazioa 2009-10	Bariazioa 2010-11
GUZTIRA											
Izenburuak	2.553	2.485	2.460	2.360	2.767	2.813	2.545	2.499	2.197	-1,8	-12,1
Aleak (milakoetan)	5.620	5.366	5.613	5.574	5.456	5.632	4.220	4.003	2.866	-5,1	-28,4
B. besteko inprimaketa	2.201	2.159	2.282	2.362	1.972	2.002	1.658	1.602	1.304,5	-3,4	-18,6
LIBURUAK											
Izenburuak	2.157	2.024	2.039	1.920	2.283	2.357	2.187	2.117	1.836	-3,2	-13,3
Aleak (milakoetan)	4.510	4.167	4.393	4.456	4.472	4.717	3.436	3.438	2.398	0,1	-30,3
B. besteko inprimaketa	2.091	2.059	2.155	2.321	1.959	2.001	1.571	1.624	1.306,1	3,4	-19,6
LIBURUXKAK											
Izenburuak	378	461	421	440	484	456	358	382	361	-16,2	-5,5
Aleak (milakoetan)	1.110	1.199	1.220	1.117	984	915	784	565	468	-38,3	-17,2
B. besteko inprimaketa	2.937	2.601	2.898	2.539	2.033	2.007	2.190	1.479	1.296,4	-26,3	-12,3

Iturria: INE. Argitalpenen Ekoizpenari buruzko Estatistika.

III.5.7. KOADROA. ARGITALPENAREN BaNAKETA GEOGRAFIKOA, INSKRIBATUTAKO ISBN-AK GORABEHERA

	2007	2008	2009	2010	2011		% Bar. 2010-11
					n	%	
Andaluzia	10.933	11.678	15.439	15.323	14.761	12,6	-3,7
Aragoi	1.556	1.354	1.979	1.538	2.039	1,7	32,6
Asturias	575	895	860	704	926	0,8	31,5
Illes Balears	836	757	808	749	689	0,6	-8,0
U. Kanariarrak	1.738	1.000	1.314	1.444	968	0,8	-33,0
Kantabria	445	349	400	420	617	0,5	46,9
Gaztela eta Leon	2.977	3.046	3.491	3.356	2.921	2,5	-13,0
Gaztela-Mantxa	733	701	803	711	830	0,7	16,7
Katalunia	29.323	34.512	32.081	30.629	34.689	29,7	13,3
Valentziako E.	5.915	5.771	5.798	6.031	8.236	7,0	36,6
Extremadura	524	537	1.130	2.017	1.690	1,4	-16,2
Galizia	3.396	3.690	4.069	4.754	3.384	2,9	-28,8
Madril	32.432	33.230	35.496	39.907	39.423	33,7	-1,2
Murtzia	736	682	591	797	648	0,6	-18,7
Nafarroa	985	1.262	1.268	2.039	1.254	1,1	-38,5
EAE	3.475	4.548	4.327	3.698	3.415	2,9	-7,7
Errioxa	176	170	282	220	248	0,2	12,7
Ceuta	9	10	26	122	113	0,1	-7,4
Melilla	6	31	43				
OROTARA	96.770	104.223	110.205	114.459	116.851	100,0	2,1

Iturria: ISBN. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.

INEren datuen arabera eta argitalpenaren hizkuntza kontuan hartuta, 2011. urtean Estatuan argitaratutako izenburu guztien % 1,1 argitaratu dira euskaraz, hau da, 794 liburu eta liburuxka, aurreko urteko ratio bera.

Horietatik % 46,1 "Literatura, Historia eta Kritika literarioa" kategorian argitaratu dira. Horren atzetik daude, garrantziari dagokionez, nahiz eta oso urrun, "Filologia, hizkuntza, hizkuntzalaritza" eta "Historia eta biografiak" kategoriak, biak % 7rekin, eta "Natur Zientziak", % 6,4rekin. Beste datu esanguratsu batzuk dira euskaraz argitaratutako izenburuen % 25,2k haurrak dituztela xede-publikoa, % 11,6 ikasliburuak direla eta % 9,2 argitalpen ofizialak direla. Gainera, euskaraz argitaratutako 794 izenburu horiek gure erkidegoko argitalpenen % 36,1 dira eta aurreko urtearekin alderatuz % 8,7 egin dute behera.

Bestalde, EAEn 2011. urtean argitaratutako liburu kopurua, Kultura Ministerioak argitaratutako ISBNren datuen arabera, 3.415ekoa izan zen (INEren kopurua baino altuagoa, ziurrenik azken kasu horretan ez direlako berrinprimatzeak sartzen); hala, % 7,7 egin du beherantz, aurreko urteko kopuruaren aldean.

Autonomia erkidegoek produkzio editorialaren arloan duten hurrenkeran, INEren datuen arabera, seigarren lekuan dago EAE (postu bat galdu du joan den urtearekin alderatuz). Aurretik ditu Katalunia, Madril, Andaluzia eta Valentziako Erkidegoa. Kopuru osoan duen parte-hartzea % 2,9koa da. Gainera, tarte garrantzitsua dago lehenengo bi erkidegoen eta gainerakoen artean. Horiek horrela, Madrilen 39.423 izenburu argitaratu ziren (kopuru osoaren % 33,7), eta Katalunian % 29,7 (34.689 izenburu).

ISBNren arabera, Espainiako Estatuan 2011n argitaratutako izenburuen % 77,7 gaztelaniaz ziren, % 11 katalanez, % 1,8 galizieraz, % 1,6 euskaraz (% 1,6 2010ean) eta % 1,1 valentzieraz.

III.5.8. KOADROA. INSKRIBATU DIREN ISBN-AK ARGITARATZE HIZKUNTZAREN ARABERA

	2008	2009	2010	2011		Bar. 2010-11
				n	%	
Gaztelania	79.017	86.318	90.939	90.813	77,7	-0,1
Katalana	10.750	10.526	10.748	12.836	11,0	19,4
Euskara	2.156	2.040	1.852	1.901	1,6	2,6
Galiziera	131	117	2.544	2.130	1,8	-16,3
Valentziera	1.488	1.397	1.492	1.310	1,1	-12,2
Beste hizkuntza espainiar batzuk	266	87	66	118	0,1	78,8
Beste hizk. batzuk	214	211	3.487	4.449	3,8	27,6
Eleanitzak	4.078	3.509	3.331	3.294	2,8	-1,1
GUZTIRA	**104.223**	**110.205**	**114.459**	**116.851**	**100**	**3,9**

Iturria: ISBN. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.

5.4. FINANTZAZIOA ETA GASTU PUBLIKOA KULTURAN

Kulturaren sektoreak EAEko ekonomian eta gizartean duen pisuaren zenbatespena zeharkako iturrien bitartez egiten da, aurreko urteetan bezala. Zehazki, Kultura Ministerioak argitaratzen duen «Estatistika Kulturalen Urtekariaren» bitartez.

Estatuko Administrazio Orokorrak, Administrazio Autonomikoak eta tokiko erakundeek kulturaren arloan eginiko gastu publikoari eta finantzazioari buruzko kapitulu bat dakar Urtekariak: Udalek eta Aldundiek, Kontseiluek eta kabildoek.

Estatuko Administrazio Orokorrari buruzko datuak ez dira Autonomia Erkidegoka xehatzen, bai, ordea, beste bien datuak. Datu hauek aurkeztu aurretik, bi ohartarazpen egitea besterik ez da falta: batetik, aintzat hartu behar da Urtekariko ohar metodologikoek argitu egiten dutela Autonomia Erkidegoek eskatutako informazio guztia eman ez dutenean egokitzat jotako zenbatespenak egin direla. Bestetik, argitalpenak berak ohartarazi egiten du ezinezkoa dela iturri ezberdinetako datuak bateratzea Autonomia Erkidegokako informazio orokorra emateko.

5 ISBN - INTERNATIONAL STANDARD BOOK NUMBER – argitaletxe jakin baten izenburuak zenbatu eta identifikatzeko nazioarteko sistema bat da, eta softwareari ere aplikatzen zaio. Behin identifikazioa emanda, zenbaki hori obra horri bakarrik eman ahalko zaio eta ezin izango da berrerabili.

6 Ikerketa honen esparruan sartutako kultura sektoreak hauek dira: Kultura ondasun eta zerbitzuak (monumentuak, museoak, aztarnategi arkeologikoak, agiritegiak eta liburutegiak), arte plastikoak eta eszenikoak (erakusketak, argazkilaritza, musika, dantza, antzerkia), liburuak eta ikus-entzunezkoak (zinema, bideoa eta grabatutako musika), diziplina artekoa (kultura sustapena eta barreiapena, administrazio eta zerbitzu orokorrak eta hizkuntza politika).

III.5.9. KOADROA. ADMINISTRAZIO AUTONOMIKOEK KULTURAN LIKIDATU DUTEN GASTUA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA.

	Balio absolutuak (milioi €-tan)		Estatuan, kulturan, likidatu den gastuaren %		Autonomia erkidegoek guztira likidatutako gastuaren %			BPGaren %			Batez besteko gastua biztanle bakoitzeko (€)		
	2009	2010	2009	2010	2008	2009	2010	2008	2009	210	2008	2009	2010
ESTATUA, GUZTIRA	**2.046**	**1.769**	**100**	**100**	**1,21**	**1,08**	**0,99**	**0,20**	**0,19**	**0,17**	**47,0**	**44,7**	**38,5**
ANDALUZIA	334	253	16,3	14,3	0,93	0,97	0,81	0,21	0,23	0,18	38,5	41,0	30,8
ARAGOI	45	39	2,2	2,2	0,95	0,77	0,71	0,15	0,14	0,12	39,0	34,5	29,9
ASTURIAS	60	62	2,9	3,5	1,72	1,33	1,45	0,30	0,26	0,27	67,6	56,7	59,0
BALEAREAK	21	15	1,0	0,8	0,49	0,57	0,39	0,07	0,08	0,06	17,0	20,0	13,4
KANARIAK	44	42	2,1	2,4	0,84	0,55	0,55	0,15	0,11	0,10	30,9	21,1	20,2
KANTABRIA	32	28	1,6	1,6	1,41	1,31	1,19	0,24	0,24	0,22	59,0	55,5	48,2
GAZTELA ETA LEON	135	109	6,6	6,1	1,45	1,26	1,03	0,25	0,24	0,19	58,6	53,8	43,5
GAZTELA-MANTXA	101	77	4,9	4,3	1,14	1,01	0,86	0,28	0,28	0,21	52,2	49,9	37,8
KATALUNIA	387	393	18,9	22,2	1,30	1,10	1,21	0,20	0,20	0,20	55,3	53,1	53,8
VALENTZIAKO E.	199	174	9,7	9,8	1,29	1,27	1,13	0,17	0,20	0,17	37,1	39,9	34,7
EXTREMADURA	79	64	3,9	3,6	1,44	1,47	1,27	0,42	0,44	0,37	70,2	73,1	59,2
GALIZIA	152	111	7,4	6,3	1,42	1,29	1,00	0,30	0,28	0,20	61,3	55,5	40,6
MADRIL	179	112	8,8	6,3	1,04	0,89	0,62	0,10	0,09	0,06	30,8	28,5	17,6
MURTZIA	53	49	2,6	2,8	2,01	1,09	1,00	0,36	0,19	,17	70,6	36,5	33,4
NAFARROA	68	71	3,3	4,0	1,59	1,55	1,66	0,38	0,37	0,39	115,4	110,5	115,0
EAE	**127**	**139**	**6,2**	**7,8**	**1,21**	**1,23**	**1,34**	**0,16**	**0,19**	**0,22**	**52,5**	**59,5**	**64,9**
ERRIOXA	17	14	0,8	0,8	1,39	1,29	1,11	0,22	0,21	0,18	56,8	52,7	45,0
CEUTA	7	7	0,3	0,4	4,37	2,51	2,84	0,63	0,43	0,49	141,6	97,2	99,2
MELILLA	6	11	0,3	0,6	3,05	2,44	4,29	0,43	0,39	0,78	91,6	84,6	147,3

Iturria: HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. Kultura Estatistiken Urtekaria 2012

Bestalde, Kultura Ministerioaren Urtekariak Kulturako Gastu Publikotzat jo du honakoa: "*kulturari zuzendutako gastu likidatua, administrazio publiko ezberdinek aitortutako betebeharren fasean; ondorioz, finantzazioa egiten duenaren izaera da, eta ez hartzailearena, gastuaren izaera publikoa edo pribatua finkatzen duena*". Ez dira kentzen kultura erakunde publiko jakin batzuk eduki ditzaketen jatorri pribatuko sarrerak, adibidez museoek eduki ditzaketenak. Enpresek edo partikularrek, kultura erakunde publikoei emandako babesengatik, dohaintzengatik, eta abarrengatik eduki ditzaketen zerga aringarriak ere ez dira gastu gisa sartzen.

Euskal Autonomia Erkidegoak, 2010ean, kulturan likidatutako gastua, Kultura Ministerioaren datuen arabera, 139 milioi eurokoa izan zen, 2009an baino 12 milioi gehiago. Horrek esan nahi du % 9,5 hazi dela. Gastu horrek Estatuko Administrazio Autonomikoek 2010. urtean kulturan likidatu zuten gastu osoaren % 7,8 hartzen du (%6,2 aurreko urtean) eta Eusko Jaurlaritzak urte horretan egindako gastu osoaren % 1,34 (% 1,23 aurreko urtean). Gainera, gure Erkidegoko BPGaren %0,22 da, Autonomia Erkidego guztien batez bestekoaren %0,17koaren azpitik. Adierazle honetan buruan ageri diren erkidegoak Extremadura eta Nafarroa dira, betiere, dituzten ezaugarri bereziengatik Ceuta eta Melilla kanpoan utziz gero. Biztanleko egin den gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 64,9 eurora iritsi zen 2010ean, 2009an baino 5,4€ gehiago, eta kopuru hori Estatu osoko batez bestekoa baino altuagoa da (38,5€).

Gastuaren xedeari begiratuta, EAEn, 12,2 milioi euroen %22,1, 2010ean, kultura ondasun eta zerbitzuetan erabili zen (%26,9 aurreko urtean); %12,3 arte plastiko, eszeniko eta musikaletan; %6,8 liburu eta ikus-entzunezkoetan; eta ez dago informaziorik gainontzeko %58,9ri buruz. Autonomia erkidego guztien artean, kultura ondasun eta zerbitzuetan % 37,3 erabili da (% 39,5 aurreko urtean); arte plastiko, eszeniko eta musikaletan % 23,9; eta liburu eta ikus-entzunezkoetan % 12,3.

Bestalde, 5.000 biztanletik gorako udalek eta Aldundiek, Kontseiluek eta Kabildoek kultura likidaturiko gastua dakar Urtekariak. EAEko 5.000 biztanletik gorako udalek, 2010ean, 273,9 milioi euroko gastua likidatu zuten kulturan, hots, Estatuko 5.000 biztanletik gorako udalek kultura likidaturiko gastu guztiaren %9,3. Bestalde, Foru Aldundiek 99,5 milioi euroko gastua likidatu zuten kulturan, hau da, Estatuko Aldundiek, Kontseiluek eta Kabildoek kultura likidaturiko gastu guztiaren %15,1.

Hona hemen EAEko 5.000 biztanletik gorako udalerrien gastuaren xede nagusia: Kulturaren sustapen eta zabalkuntza (5.000 biztanletik gorako udalek likidaturiko gastu guztiaren %81,7) eta Kulturaren Administrazio Orokorra (5.000 biztanletik gorako udalek likidaturiko gastu guztiaren %11,7).

Hona hemen EAEko Foru Aldundien gastuaren xede nagusiak: Kulturaren sustapena eta zabalkuntza (Aldundiek likidaturiko gastu guztiaren %27,5), Arkeologia eta ondare historiko artistikoaren babesa (Aldundiek likidaturiko gastu guztiaren %24,1) eta Kulturaren Administrazio Orokorra (Aldundiek likidaturiko gastu guztiaren %21).

III.5.10. KOADROA. TOKIKO ADMINISTRAZIOEK KULTURAN LIKIDATU DUTEN GASTUA, ERAKUNDE MOTA ETA DESTINOA GORABEHERA. (MILIOI EUROTAN). 2010.

	5.000 bizt. Baino gehiagoko udalerrietako udalak	Aldundiak, Kontseiluak eta Kabildoak
Guztira, Estatua	**2.926**	**658,8**
Andaluzia	415	64,5
Aragoi	53	32,7
Asturias	73	-
Balearreak	67	28,8
Kanariak	128	94,3
Kantabria	29	-
Gaztela eta Leon	121	33,7
G-Mantxa	104	18,0
Katalunia	583	139,9
Valentziako E.	337	90,6
Extremadura	31	13,3
Galizia	152	44,6
Madril	397	-
Murtzia	114	-
Nafarroa	34	-
EAE	273	99,5
Errioxa	17	-

Iturria: HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. Kultura Estatistiken Urtekaria 2012

5.5. FAMILIEN GASTUA KULTURAREN KONTSUMOAN

Kultura Ministerioaren datuak gorabehera, euskal familiek kultura ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua 2011. urtean 764,8 milioi eurokoa izan zen, 2010. urtean baino 68,2 milioi euro gutxiago. Horrek % 8,18ko murriztapena ekarri zuen. Gastu honek EAEko ondasun eta zerbitzuetan erabilitako kopuru osoaren %2,6 hartu du, Autonomia Erkidego guztien batez bestekoaren % 2,8aren azpitik. Adierazle honen buruan kokatzen diren erkidegoak Kanariar Uharteak eta Madril (% 3,2 bakoitzak) eta Katalunia (%3) dira.

Familia bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, hirugarren postuan dago EAE 2011n, 889,1 eurorekin (aurreko urtean baino -%8,9), Madrilen (1.139,6€) eta Kataluniaren (936€) atzetik. Pertsona bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 361,4 €-ra iritsi zen 2011. urtean, 2010. urtean baino % 15,5 gehiago. Kopuru hori Estatuko batez bestekoan igarritako kopurua baino % 15 gehiago da, eta EAE jartzen du gehien gastatzen duen bigarren erkidego gisa, Madrilen (424,4 €) atzetik.

Kasu bietan, jaitsiera izan da gastuan, EAEn nahiz Estatu osoan, 2010 eta 2011 urte bitartean.

EAEko gastu motari arreta emanez gero (liburuak eta argitalpenak, kultura zerbitzuak, informazioa tratatzeko banako ekipo eta osagaiak...), pertsona bakoitzeko gastatu diren 361,4 euroetatik % 26,8 liburuetarako eta aldizkako argitalpenetarako erabili zen 2011. urtean, % 26,6 kultura zerbitzuetarako, % 41,6 informazioa tratatzeko banako ikus-entzunezko ekipo eta osagaietarako eta % 5 beste ondasun eta zerbitzu batzuetarako.

Estatuko batez bestekoak aztertzeak aldeak islatzen ditu. Gauzak horrela, Estatu osoan EAEn baino gutxiago gastatzen da liburuetan eta aldizkako argitalpenetan (%17,6) eta, aldiz, gehiago kultura zerbitzuetan (%29,8, lehen %26,6) eta informazioa tratatzeko ikus-entzunezko ekipo eta osagaietan (%45,9, eta %41,6).

III.5.11. KOADROA. FAMILIEK KULTURA ONDASUN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTUA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA

	Balio absolutua (milioi €-tan)		Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu osoaren %		Batez bestekoa etxe bakoitzeko (eurotan)		Batez bestekoa pertsona bakoitzeko (eurotan)	
	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011
ESTATUA, GUZTIRA	15.631	14.363,7	3,1	2,8	910,4	828,3	341,2	312,9
ANDALUZIA	2.402	2.164,4	2,9	2,6	829,2	727,1	292,9	260,5
ARAGOI	468	394,5	3,3	2,7	922,5	777,2	359,8	302,8
ASTURIAS	417	350,9	3,2	2,9	1.005,2	824,3	397,2	335,0
BALEAREAK	436	336,7	3,5	2,7	1.046,7	791,1	404,8	309,5
U. KANARIARRAK	691	618,4	3,7	3,2	912,2	808,7	331,3	294,5
KANTABRIA	211	182,5	3,2	2,7	978,4	819,3	367,7	317,7
GAZTELA ETA LEON	729	704,8	2,8	2,7	739,3	704,7	295,9	286,9
GAZTELA-MANTXA	507	502,8	2,5	2,6	680,3	673,0	250,1	247,1
KATALUNIA	2.766	2.607,3	3,1	3,0	996,1	936,0	380,0	358,4
VALENTZIAKO E.	1.677	1.449,8	3,2	2,9	872,8	752,6	336,9	290,7
EXTREMADURA	241	238,4	2,4	2,4	603,0	586,1	224,2	221,6
GALIZIA	783	722,0	2,7	2,5	768,2	705,4	287,7	265,6
MADRIL	2.822	2.694,1	3,4	3,2	1.200,0	1.139,6	446,3	424,4
MURTZIA	290	308,7	2,1	2,2	578,4	591,1	199,3	210,4
NAFARROA	213	206,1	2,6	2,6	910,6	859,2	348,8	334,8
EAE	**833**	**764,8**	**2,9**	**2,6**	**975,4**	**889,1**	**392,7**	**361,4**
ERRIOXA	108	100,7	3,1	2,9	890,2	825,2	349,7	325,1
CEUTA ETA MELILLA	31	34,7	2,4	2,4	714,1	754,6	211,7	231,1

Iturria: HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. Kultura Estatistikoen Urtekaria 2012

III.5.12. KOADROA. FAMILIEK EGINDAKO GASTUA KULTURA ONDASUN ETA ZERBITZUETAN, GASTU TALDEAREN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA (EUROTAN)

	BATEZ BESTEKO GASTUA PERTSONA BAKOITZEKO (EUROAK)										BATEZ BESTEKO GASTUA ETXE BAKOITZEKO	
	Guztira (euroak)		Liburua eta aldizkako argitalpenak		Kultur zerbitzuak (emankizunak eta beste kultura zerbitzu batzuk hartzen ditu)		Informazioa tratatzeko ikus-entzunezko ekipoak eta osagaiak		Bestelako ondasun eta zerbitzuak			
	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011
ESTATUA GUZTIRA	341,2	312,9	60,9	55,0	100,3	93,2	156,6	143,6	23,2	21,1	910,4	828,3
ANDALUZIA	292,9	260,5	42,4	38,3	91,0	75,5	141,3	126,5	18,1	20,1	829,2	727,1
ARAGOI	359,8	302,8	77,0	59,5	114,4	88,2	151,2	141,6	17,3	13,5	922,5	777,2
ASTURIAS	397,2	335,0	72,6	71,3	119,6	114,2	183,3	139,0	21,6	10,5	1.005,2	824,3
BALEAREAK	404,8	309,5	107,4	44,3	99,6	96,6	169,6	155,4	28,8	13,2	1.046,7	791,1
U. KANARIARRAK	331,3	294,5	39,7	37,3	101,7	99,3	163,0	136,4	27,0	21,5	912,2	808.7
KANTABRIA	367,7	317,7	81,7	73,5	82,3	73,8	188,2	152,6	15,5	17,8	978,4	819,3
GAZTELA ETA LEON	295,9	286,9	54,9	58,4	67,4	73,5	153,6	138,5	20,0	16,5	739,3	704,7
GAZTELA-MANTXA	250,1	247,1	36,3	41,1	73,2	65,7	127,7	126,7	12,8	13,6	680,3	673,0
KATALUNIA	380,0	358,4	60,3	53,9	109,2	107,5	184,6	170,1	25,8	26,9	996,1	936,0
VALENTZIAKO E	336,9	290,7	48,7	45,3	118,3	86,6	150,9	139,3	19,1	19,5	872,8	752,6
EXTREMADURA	224,2	221,6	35,8	36,9	55,8	59,2	120,5	110,9	12,0	14,5	603,0	586,1
GALIZIA	287,7	265,6	67,1	56,5	67,4	62,8	131,0	128,0	22,2	18,4	768,2	705,4
MADRIL	446,3	424,4	90,3	80,7	140,8	142,0	180,5	170,4	34,8	31,3	1.200,0	1.139,6
MURTZIA	199,3	210,4	34,2	35,6	55,5	71,8	84,3	88,4	25,4	14,6	578,4	591,1
NAFARROA	348,8	334,8	90,9	80,0	84,3	91,3	150,3	144,9	23,4	18,7	910,6	859,2
EAE	**392,7**	**361,4**	**99,4**	**97,0**	**96,0**	**96,1**	**167,4**	**150,4**	**29,9**	**17,9**	**975,4**	**889,1**
ERRIOXA	349,7	325,1	59,7	80,4	92,1	84,3	179,3	143,8	18,5	16,5	890,2	825,2
CEUTA ETA MELILLA	211,7	231,1	25,9	38,6	60,1	86,5	112,4	92,9	..	-	714,1	754,6

Iturria: HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. Kultura Estatistikoen Urtekaria 2012

Kultura zerbitzuetan egindako gastuaren barruan sartzen da emankizunetan egindako gastua. Azken hori neurtu ahal izateko, Urtekariak etxe bakoitzeko kultura zerbitzuetan egindako batez besteko gastuari buruzko informazioa ematen du (eta ez pertsona bakoitzeko egindakoa). Kultura zerbitzuetan egindako gastu horiek 246,6 eurora iristen dira EAEn, eta Estatuko batez bestekoaren antzekoa: 246,9 euro. EAEn etxe bakoitzeko ikuskizunetan egindako gastua 101,8 eurokoa izan da 2011. Urtean (109€ aurreko urtean), eta Estatuan, berriz, gastu hori zertxobait txikiagoa izan da, 95,4 euro, etxeko. Ikuskizunetan etxeko gehien gastatzen duten autonomia erkidegoak Madril (185.8 euro), Katalunia (107 €) eta Errioxa (104,3 €) dira.

IV. KAPITULUA

Gizarte babesa EAE-n

Europako Gizarte Babesaren Estatistika Sistemak (SEEPROS) honela definitzen du gizarte babesa: "*erakundeek familia eta banakoentzat zenbait arriskuk edo premiak dakartzaten zamak arintzera zuzendutako jarduera guztiak, aldibereko, elkarrekiko edo banakako akordiorik egon ezean*".

EAEko Memoria Sozioekonomikoaren kapitulu honek gure erkidegoko gizarte babesari dagozkion eremu nagusiak birpasatuko ditu. Lehenbizi, EAEko gizarte zerbitzuen egoera aztertuko da; horretarako, haien zenbateko nagusiak eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak sistemaz egiten duen balorazioa aurkeztuko dira. Ondoren, Gizarte Segurantzaren prestazio guztiak eta Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legetik datozen txirotasunaren eta gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko dauden tresnak aurkeztuko dira. Azkenik, EAEko gizarte aurreikuspeneko sistema osagarrien zifra handiak aztertuko dira.

Horrez gain, eta Europako Batzordearen 458/2007 Erregelamenduak gizarte babesak barne hartzen dituen eremuez egindako sailkapenean langabeziagatiko prestazioak berariaz biltzen duen arren, horiei (Estatu Enpleguko Zerbitzu Publikoa-SEPEk kudeatutako Gizarte Segurantzaren prestazioak) buruzko informazioa Memoria Sozioekonomiko honetako "*Lan-merkatua*" izeneko kapitulura aldatzea erabaki da, enplegu politiken ikuspegi osoa eskaintzeko asmoz, politika aktiboak eta pasiboak batera landuta.

1. GIZARTE ZERBITZUAK EAE-N

1.1. GIZARTE ZERBITZUEN EGOERA

IV.1.1. KOADROA. GIZARTE ZERBITZUAK EAE-N. MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA

	2009	2010	%09/10
GASTUA (milaka eurotan)	2.122.914	2.176.240	2,5
- Gastu arruntak	1.427.917	1.463.885	2,5
- Familientzako transferentziak	576.342	628.214	9,0
- Kapital-gastuak	118.654	84.140	-29,1
Gastua/biztanleak (eurotan)	972,7	1.001,1	2,9
Gastua/BPGd (%)	3,31	3,33	-
FINANTZAKETA			
- Finantzaketa publikoa	1.591.367	1.633.484	2,6
- Finantzaketa pribatua	531.547	542.756	2,1
GIZA BALIABIDEAK			
Langileak, guztira	46.307	47.255	2,0
- Norberaren langileak	25.890	26.220	1,3
- Borondatezko langileak	20.417	21.035	3,0
BALIABIDE MATERIALAK			
- Erakunde kopurua	1.401	1.395	-0,4
- Zentro kopurua	3.088	3.101	0,4
- Egoitza kopurua	1.082	1.091	0,8
- Egoitzetako plazak	26.107	26.865	2,9

Iturria: EUSTAT. Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko Estatistika.

Hasteko, EAEko Gizarte Zerbitzuen gastua 2010ean (datuak dituen azken urtea) 2.176 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 2,5 gehiago, EUSTATen *"Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko Estatistika"*ren arabera. Gastu hori gure erkidegoaren urte horretako BPGd-aren % 3,33 da eta biztanle bakoitzeko batez beste 1.001,1 euroko gastua, 2009an baino % 2,9 gehiago.

Herri-administrazioen ahalegina 1.633 milioi eurokoa izan zen, guztiaren % 75, eta sektore pribatuak, aldiz, gainerako % 25 eman zuen. Erabilitako bost eurotik bat erabiltzaileen kuoten eta bestelako salmenta batzuen bidez finantzatu zen.

Datu horiek adierazten dute, hainbat urtetan hazkunde-tasa handiak egon ondoren, aurten ere gizarte zerbitzuetako gastu publikoa handitu dela, nahiz eta erritmo motelagoan egin. Estatuaren eta Eusko Jaurlaritzaren baliabideak gehitu arren (% +15,9 eta +13,8 gehiago, hurrenez hurren), (ekarpen publikoaren ia % 60 dakarten) foru eta toki administrazioen ekarpenetan egondako jaitsierak kontuan hartuta gastu publiko osoa % 2,6 handitu da,

IV.1.2. KOADROA. GIZARTE ZERBITZUAK EAE-N. GASTUAREN BILAKAERA ETA BANAKETA BIZTANLE MOTA BAKOITZEKO

	2009	2010	09/10e
GASTUA (milaka eurotan)	**2.122.914**	**2.176.240**	**2,5**
Biztanleria, oro har	856.847	925.565	8,0
- Familientzako transferentziak	571.266	623.241	9,1
Haurrak-Gazteak	91.217	84.696	-7,1
- Egoitzak	69.192	64.485	-6,8
Adinekoak	632.804	598.353	-5,4
- Egoitzak	507.112	507.386	0,1
Pertsona ezinduak	415.773	445.404	7,1
- Egoitzak	90.327	90.488	0,2
- Okupazio-zentroak eta EZB (1)	237.014	264.917	11,8
Emakumezkoak	16.518	15.893	-3,8
Gizarte bazterkeria	109.752	106.329	-3,1

(1) Enplegu-zentro bereziak
Iturria: EUSTAT. Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko Estatistika.

IV.1.3. KOADROA. GIZARTE ZERBITZUAK EAE-N. FINANTZAKETA PUBLIKOAREN ITURRIAREN ARABERAKO URTE ARTEKO GEHIKUNTZA

	2006/07	2007/08	2008/09	2009/10
Gobernu Zentrala	45,5	89,8	28,2	15,9
Eusko Jaurlaritza	5,4	15,4	26,9	13,8
Foru aldundiak	10,8	17,2	16,0	-3,9
Udalak	11,2	7,9	5,1	-5,2
FINANTZAKETA PUBLIKOA, GUZTIRA	**10,3**	**17,9**	**18,1**	**2,6**

Iturria: EUSTAT. Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko Estatistika.

nahiz eta 2000tik batez besteko urte arteko hazkundea % 13koa izan den (2009an % 18,1ekoa izan zen).

Sektoreko enpleguari dagokionez, 2010ean gizarte zerbitzu guztietan 330 enplegu garbi sortu ziren, 26.220 pertsonari zuzenean enplegua emanez (okupatuen % 2,8); horien artean % 70 emakumeak dira. Horrez gain, borondatez lagundu zuten langileak, eskuzabal lan egiten dutenak, hain zuzen ere, aipaturiko urtean 21.035 lagun izan ziren, hau da, arduraldi osoko 1.726 enpleguren pareko ahalegina.

Gizarte zerbitzu ugariren artean, biztanleentzako eta adinekoentzako zerbitzuak dira baliabide gehien jasotzen duten arloak, bien artean gastuaren % 70 hartzen baitute. Biztanleentzako baliabideen artean, nabarmenak dira familientzako transferentziak: 623,2 milioi eurokoak dira, hau da, gastu osoaren % 28,9, eta, gainera, % 9 handitu dira, lehen aipatutako % 2,5eko batezbestekoaren gainetik, beraz. Adinekoei dagokienez, batez ere egoitzetako zerbitzuak, laguntzarako eguneko zentroak, etxez etxeko laguntza-zerbitzuak eta telelaguntza dira gehien jasotzen duten arreta motak. 2010ean 19.873 plaza eskaini ziren egoitzetan, hau da, 75 urtetik gora zituzten 100 pertsonako 9,7 plaza eman ziren. Herri Administrazioak plaza horien % 34 eskaini zuen titulartasun publikodun zentroetatik eta beste % 31 adostu zuen instituzio pribatuekin.

Adinekoentzako laguntzarako eguneko zentroetan 3.828 plaza eskaini ziren. Herri Administrazioak plaza horien % 89 eskaini zuen zuzenean edo sare pribatuarekiko itunaren bidez.

Bestalde, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak (GZEK) 2011n egindako *"EAEko gizarte zerbitzuen egoerari buruzko bigarren txostena"* delakoari esker,[1] Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren egoera eta sektoreko langileek nola baloratzen duten ezagut dezakegu. Txosten honetako ondorioetako batzuk hauek ditugu[2]

- Prestazio ekonomikoen protagonismo gero eta handiagoa, zuzeneko arretako zerbitzuen kaltetan. Horrek erakusten du gure erkidegoan gizarte zerbitzuen sistemak arreta ematen dien pertsona guztietatik % 69k prestazio ekonomikoak jasotzen dituela (2008ko % 61en eta 1999ko % 48ren aurrean).

- Txosten honek adierazten du kezkatzeko modukoa dela euskal gizarte zerbitzuek daukaten komunitate izaera eskasa. Azken hamarkadan, tokian tokiko zerbitzuak (etxez etxeko laguntza, laguntzarako eguneko zentroak eta okupazio zentroak) laguntza eskaintzaren % 26 izatetik % 16 izatera pasatu dira. Bere aldetik, 1999. eta 2009. urteen bitartean egoitza zerbitzuak % 26tik

1 Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legeko 48. Artikuluak Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua (Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseiluaren ordezkoa) sortu zuen eta erakunde horri, besteak beste, honako eginkizuna esleitu zion: "Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistemaren esparruan jasotako datuetan oinarritua urteko txostena egitea.

2 Argibide gehiago jaso nahi izanez gero, Memoria honen 2011ko ediziora jo dezake irakurleak, han zehatzago jorratzen baitira Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren Bigarren Txostenaren (eskura dagoen azken txostenaren) edukiak.

%15 era pasatu dira eta prestazioak % 48tik % 69ra. Joera horren arrazoiak prestazio ekonomikoen estalduraren eta egoitza baliabideen hazkunde handia izan dira, etxez etxeko laguntza zerbitzuen hazkunde ahularekin batera.


- Bigarren Txosten honetako teknikarien taldean parte hartu duten langileen iritziei dagokienez, ondorio hauek nabarmentzen dira:

1. % 88k uste du EAEko gizarte zerbitzuen egoera ona edo oso ona dela. Hala ere, erdiak (% 49) uste du txarrera egin duela aurreko urtearekin alderatuz gero. Honen arrazoien artean hauek aipatu dituzte: gizarte beharrizanen gehikuntza, langile ratioen murrizketa, aurrekontu partiden murrizketa edo prestazioak eskuratu ahal izateko irizpide murriztaileak.

2. Baliabide sareen egokitasunari dagokionez, kalitate maila txikiena duten zerbitzuak aterpetxeak eta etxerik gabeko pertsonentzako ostatuak dira: % 58,2k uste du horien kalitatea hala-moduzkoa dela eta % 16,4k nahiko txarra edo oso txarra dela. Bestalde, adinekoentzako laguntzarako eguneko zentroak dira baloraziorik onenak lortu dituztenak: % 87,3k uste du horien kalitatea oso ona edo nahiko ona dela.

3. Gizarte zerbitzuen euskal sistemaren erronka nagusiak zeintzuk diren galdetu zaie sektoreko langileei eta ondorengoa nabarmendu dute: arauen garapena (bereziki, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen aplikazioa), erakundeen arteko koordinazioa eta sistemaren artikulazioa, lan baldintzak eta lanbide gaitasuna, gizarte zerbitzuen funtzioen azalpena (LANBIDEk, Euskal Enplegu Zerbitzuak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eskumena hartu duenetik) eta komunitate izaera handiagoa duen eta prebentziora bideratzen den gizarte zerbitzuen eredua.

IV.1.1. GRAFIKOA. GIZARTE ZERBITZUETAKO GASTUAREN ADIERAZLEEN BILAKAERA EAEN



Iturria: EUSTAT. GZE.

1.2. MENDEKOTASUNERAKO ARRETA

Estatuko arautegiari dagokion Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun-egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko Legea[3] (Mendekotasun Legea) indarrean sartu zen 2007an honako helburuarekin: *"eguneroko oinarrizko ekintzak garatzeko, norberaren autonomia eskuratzeko eta herritar diren aldetik euren eskubideak gauzatzeko laguntza behar duten urrakortasun egoeran dauden pertsonen beharrizanen ardura hartzea"*.

Lege horrek aurrerapen garrantzitsua dakar gizarte politiketarako; izan ere, mendekotasun egoeran dauden pertsonek legean bertan aurreikusitako prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko duten eskubidea onartu eta arautzen du eskubide subjektibo berri gisa.

[3] *Estatuko 39/2006 Legea abenduaren 14koa, mendetasun-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiek zaintzeari buruzkoa.*

IV.1.4. KOADROA. MENDEKOTASUNERAKO ARRETA AUTONOMIA ERKIDEGOKA 2012KO ABENDUKO EGOERA

	IMSERSO-REN 2012-12-31KO DATUAK			MENDEKOTASUNAREN BEHATOKIAREN EBALUAZIOA*		
	IRIZPENEN % BIZTANLERIAREN ARABERA	ONURADUNEN % IRIZPENEN ARABERA	ONURADUNEN % BIZTANLERIAREN ARABERA	2010	2011	2012
Gaztela eta Leon	3,89	65,49	2,44	7,5	9,8	9,2
EAE	**3,64**	**59,66**	**1,79**	**7,2**	**8,3**	**7,5**
Andaluzia	4,37	66,99	2,25	6,8	5,7	7,1
Errioxa	4,46	55,10	2,28	5,7	7,5	6,7
Gaztela-Mantxa	4,03	59,70	1,81	7,5	7,1	5,8
Katalunia	3,61	62,11	1,81	5,4	5,4	5,8
Galizia	3,03	73,56	1,40	4,6	4,6	5,8
Nafarroa	2,65	57,02	1,34	5,8	5,0	5,4
Extremadura	4,06	59,89	1,75	4,2	4,8	5,0
ESTATUKO BATEZBESTEKOA	**3,25**	**64,84**	**1,62**	**4,7**	**5,0**	**4,7**
Asturias	3,11	58,16	1,37	3,3	2,1	4,2
Kantabria	3,76	69,81	2,35	5,4	5,8	4,2
Madril	2,55	60,85	1,25	1,7	3,3	3,8
Aragoi	3,49	64,66	1,57	7,2	7,1	3,8
Murtzia	3,10	76,86	1,78	4,2	4,8	3,3
Balear U.	2,13	67,59	0,84	3,3	3,3	2,5
Kanariar U.	1,44	80,74	0,56	0,4	0,4	2,1
Ceuta eta Melilla	2,27	55,13	1,17	2,5	2,5	2,1
Valentziako E.	1,86	67,23	0,83	1,7	1,7	0,8

Iturria: IMSERSOren eta MENDEKOTASUNAREN BEHATOKIAren datuak erabilita egindakoa.
(*) Gizarte Zerbitzuen Zuzendari eta Gerenteen Estatu Elkarteak Mendekotasunarentzako Arreta Sistemaren hedapen mailari eta funtzionamenduari buruz sei hilean behin emandako 0 eta 10 arteko puntuazioa.

Mendekotasun Legearen ezarpenaren bilakaerari dagokionez, unera arte ezin izan da konparazio analisi zehatzik egin, autonomia erkidegoek ez baitaukate datuak biltzeko eta ustiatzeko irizpide bateratuak dituen sistemarik[4].

Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren (IMSERSO) 2012ko abenduaren 31ko datuek adierazi dute data horretan EAEk 84.902 balorazio eskabide erregistratu zituela Mendekotasunari Arreta eskaintzeko Sisteman. Gainerako erkidegoetan bezala, eskabide horietako gehienak mendekotasun mailaren aintzatespena berrikusteko dira. Eskabide horiek Estatu osoaren % 3,87 dira, nahiz eta gure Erkidegoko biztanleria Estatuko biztanleriaren % 4,64 den.

Eskatzailearen profila honako hau da: emakumea (eskatzaileen % 65,4 dira), 80 urtekoa edo zaharragoa (eskatzaileen % 52,14, eta emakumeen % 58,22). Bigarren adin-talde garrantzitsua 65 eta 79 urte artekoa da, eskabide guztien % 25,27 direla.

Erregistratutako ia 85.000 txosten eskabideetatik % 94,13k jada dagokion txostena jaso zuten (Estatuko batezbestekoaren % 93,86) eta 47.678 eskabideri, hau da, txostena jaso zuten kasuen % 59,66ri, prestaziorako eskubidea aintzatetsi zitzaien. Portzentaje hori Estatuko batezbestekoa (% 64,84) baino txikiagoa da.

Amaitzeko, aintzatetsitako 47.678 prestazioak 39.277 onuraduni dagozkie (pertsonako 1,19 prestazioren ratioa dago, pertsona bat zerbitzu edo prestazio baten baino gehiagoren onuraduna izan baitaiteke), eta data horretan 46.652 prestazio ematen ziren; horietatik % 49 senideak zaintzeko prestazio ekonomikokoak dira, % 18 egoitzetako arretakoak, % 11 eguneko/gaueko zentroetako zainketetakoak, % 10 etxez etxeko laguntza zerbitzuetakoak eta gainerako prestazio eta zerbitzu garrantzitsuagoak.

4 Erkidego gehienek (EAE barne) ez dute erabiltzen IMSERSOren Sistema kudeatzeko aplikazio informatikoa, datu homogeneoak konparatzea ahalbidetuko lukeena. Hori dela eta, eskainitako zifrak kontuz aztertu behar dira.

Zifra horien osagarri gisa, Gizarte Zerbitzuen Zuzendari eta Gerenteen Estatu Elkarteko kideek osatutako "Espainiako Mendekotasunaren Behatokia" delakoaren txostenek Mendekotasun Legetik abiatuta mendekotasunarentzako arreta sistemaren hedapenaren balorazio profesionalaren jarraipena egitea ahalbidetzen dute autonomia erkidegoka. 2012ko abenduko datuak biltzen dituen azken txostenak erakusten du EAEren garapena beste autonomia erkidego batzuena baino handiagoa dela, bai baloratutako pertsonen portzentajeari dagokionez (irizpenen % 3,64, Estatuko % 3,25eko batezbestekoaren aurrean), baita emandako prestazioei dagokienez ere (biztanleen % 1,8, Estatuko % 1,6ko batezbestekoaren aurrean, Behatokiaren kalkuluen arabera).

Sistema ezartzeko zifren eta profesionalen balorazioen laburpen gisa, Behatokiak erkidegoak puntuatu, eta sailkapena aurkeztu du. Sailkapen horretako lehenengo postuan Gaztela eta Leon dago 2012ko abenduan (10en gaineko 9,2 jasota), eta EAE bigarren postuan dago, 7,5 puntu jaso dituela, Estatuko batezbestekoa 4,7 puntukoa dela. Dena den, gure Erkidegoak puntuazio txikiagoa jaso du, orain dela urtebete 8,3 eskuratu baitzuen[5].

Behatokiaren ebaluazioak adierazi du EAEn emandako prestazio gehienak Familia Inguruko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoari dagozkiola, beste erkidego batzuetako mailara iritsi ez bada ere. Hala ere, Mendekotasun Legeari jarraiki, prestazio hau salbuespenezko kasuetan baino ez litzateke eman beharko.

Amaitzeko, 2011n ARARTEKOAk Mendekotasunarentzako Arretaren gaineko Legearen EAEko aplikazioari buruzko ohiz kanpoko txostena aurkeztu zuen. Horretan foru aldundiek egindako lana nabarmentzen zen, baita giza baliabideen eta baliabide materialen hornidurari dagokionez egindako ahalegina ere. Aipatutakoa gorabehera, txostenak adierazten zuen desiragarria litzatekeela koordinazio handiagoa lurraldeen arteko desorekak gainditzeko, baita arintasun handiagoa ere garapen arautegiaren onarpenean. Txostenaren gomendio zehatzen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

Informazio sistema bateratua sortzea, lurraldeen arteko desorekak gainditzen direla bermatuta.

Tokian tokiko erakundeei finantzaketa nahikoa ematea, Mendekotasun Legea indarrean sartzearen eraginez gertatutako eginkizunen gehikuntzari aurre egin ahal izateko. Horrez gain, erakunde horiei protagonismo handiagoa ematea gizarte politikak diseinatzeko orduan.

Mendekotasun egoeran dauden biztanleei eta horien zaintzaileei zuzendutako gizarte baliabideak, hala nola, zerbitzu, prestazio eta programak, sortu eta mantentzeko zereginarekin jarraitzea.

Zerbitzu eta prestazio ekonomikoen arteko (eta zerbitzu desberdinen arteko) bateragarritasuna ahalbidetzea, mendekotasunarentzako arreta egokia eta autonomia pertsonalaren sustapen eraginkorra bermatzeko.

5 Gainera, Behatokiaren puntuazioak beherantz berrikusi dira aurreko txostenen aldean. Hori dela eta, 2012ko abenduan aurkeztutako datuak ez datoz bat txostenen eta memoria honen aurreko edizioetan agertutakoekin.

2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK

IV.2.1. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN PENTSIOAK EAE-N, MOTA BAKOITZEKO. TAULA-LABURPENA.

	2009	2010	2011	2012	10/11ko %	11/12ko %
Onuradunak (urteko batezbestekoa)						
Kotizaziopeko pentsioak	487.600	494.800	501.800	508.200	1,4	1,3
Kotizaziorik gabeko pentsioak	9.741	9.949	10.107	10.230	1,6	1,2
Laguntzako pentsioak*	1.341	1.341	1.341	1.341	0,0	0,0
MGLko diru-laguntzak*	680	680	680	680	0,0	0,0
GUZTIRA	**499.362**	**506.770**	**513.928**	**520.451**	**1,4**	**1,3**
Biztanleen %	23,1	23,4	23,6	23,9	0,9	1,3
Gastua (milioi €-tan)						
Kotizaziopeko pentsioak	6.406,17	6.692,37	6.994,99	7.291,25	4,5	4,2
Kotizaziorik gabeko pentsioak*	45,87	47,32	48,55	50,71	2,6	4,4
Laguntzako pentsioak*	2,41	2,41	2,41	2,41	0,0	0,0
MGLko diru-laguntzak*	1,40	1,40	1,40	1,40	0,0	0,0
GUZTIRA	**6.455,85**	**6.743,50**	**7.047,35**	**7.345,77**	**4,5**	**4,2**
BPGd-aren %	10,0	10,3	10,5	11,1	1,9	5,7

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuak erabilita egindakoa. Lan Estatistiken Aldizkaria.
(*) Datu eguneraturik gabe. Zenbatespena.

2012an, milioi erdi lagun baino gehiago (520.451, lehen zenbatespenaren arabera) izan ziren gure Erkidegoko Gizarte Segurantza sistemako pentsioen onuradunak; hori aurreko urtean baino % 1,3 gehiago da, orduan ere % 1,4 hazi ondoren. Azken urteetan gertatu den bezala, hazkuntza hori kotizaziopeko pentsioen onuradunak diren pertsonen bilakaeragatik izan da; izan ere, beste modalitateetan oro har murrizteko joera izan du. Gizarte Segurantzak emandako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleen portzentajea % 23,9ra heltzen da.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (prestazioen % 97,6 dira eta gastuaren % 99,3), 2012an batez beste 508.200 onuradun egon ziren (% +1,3) eta hileko batez besteko zenbatekoa, 1.024,80 €, % 2,9 handitu da 2011ren aldean; horrela, kalkulatzen da urtean 7.291 milioi euro gastatu zirela, 2011n baino % 4,2 gehiago.

Labur esanda, EAEn pentsioetako gastua 2012an, behin-behineko datuak erabilita, 7.346 milioi eurokoa izan zen guztira, 2011n baino % 4,2 gehiago. Hortaz, BPGd-an duen portzentajea sei hamarren handitu da, 2011ko % 10,5etik % 11,1era (EUSTATen behin-behineko datuak kontuan hartuta).

2.1. TRANSFERITU GABEKO KUDEAKETA DUTEN GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak kudeatzen dituen transferitu gabeko Gizarte Segurantzaren prestazioak bi motatakoak dira:

Ordaindutakoaren araberakoak, hau da, lehenago kotizatutako zenbatekoaren eta kotizazioa egin den epearen arabera ematen dira. Ez dute iraupen zehatzik eta Gizarte Babesaren gastu osoaren % 50 dira gutxi gorabehera. Prestazio horien eginkizuna honako hau da batez ere: Baldintza jakinak betez prestazio horren eskubidea lortu duten pertsonei errentak lortzeko orduan jarraitutasuna bermatzea laneko bizitza amaitzea eragin dezaketen arriskuen ondorioz errenta horiek eteten direnean.

Ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak, esate baterako, erretiro eta baliaezintasun pentsioak (ordaindutakoaren araberakoak ez direnean) eta amatasunagatiko eta familiek jasotzen dituzten prestazioak.

IV.2.2. KOADROA EAE-N GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOPEKO PENTSIOEN BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA ETA JASOTZAILE KOPURUA

	2010	2011	2012	% 2012	2012ko LGSren %	10-11	11-12
Jasotzaile kopurua							
GUZTIRA	**494.800**	**501.800**	**508.200**	**100,0**		**1,4**	**1,3**
EZINTASUN IRAUNKORRA	44.600	44.400	44.200	8,7		-0,4	-0,5
ERRETIROA	303.600	309.600	314.800	61,9		2,0	1,7
ALARGUNTZA	130.900	132.200	133.100	26,2		1,0	0,7
ZURZTASUNA / FAMILIAREN ALDE	15.800	15.700	16.100	3,2		-0,6	2,5
Batez besteko zenbatekoa (euro/hileko)							
GUZTIRA	**966,1**	**995,7**	**1.024,8**	**100,0**	**159,8**	**3,1**	**2,9**
EZINTASUN IRAUNKORRA	1.090,0	1.112,6	1.134,9	110,7	176,9	2,1	2,0
ERRETIROA	1.101,5	1.136,4	1.171,9	114,4	182,7	3,2	3,1
ALARGUNTZA	674,7	692,6	710,0	69,3	110,7	2,7	2,5
ZURZTASUNA / FAMILIAREN ALDE	431,0	442,3	451,6	44,1	70,4	2,6	2,1

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOAREN "Lan Estatistiken Aldizkaria" oinarri hartuta egindakoa.

2012an 508.200 pertsona izan ziren Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen onuradunak EAEn, aurreko urtean baino % 1,3 gehiago. Pentsio mota bakoitzeko, ezintasun iraunkorragatiko jasotzaile kopurua % 0,5 handitu da azken urtean; aldiz, erretiroagatiko jasotzaileak % 1,7 handitu dira, eta alarguntzagatiko jasotzaileak % 0,7. Azkenik, zurztasunagatiko kotizaziopeko pentsioen jasotzaileen kopurua % 2,5 handitu da.

Pentsio horien hileko batez besteko zenbatekoa 1.024,80 eurokoa da. Horrek % 2,9ko hazkundea dakar 2011ren aldean.

Erretiroagatiko pentsioari dagokionez (Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen jasotzaileen % 61,9k jasotzen dute, hain zuzen ere), azpimarratu behar da 2012an batez besteko zenbatekoa 1.171,90 € izan zela hilean, 2011n baino % 3,1 gehiago.

Beste alde batetik, 2012an pentsio guztien batez besteko zenbatekoak igo dira intentsitate desberdinarekin: erretiroagatiko eta alarguntzagatiko pentsioak % 3,1 eta % 2,5 handitu dira, hurrenez hurren; ezintasun iraunkorragatiko pentsioak, berriz, % 2 eta zurztasunagatikoak % 2,1.

Hala, batez besteko pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldata baino askoz tasa handiagoan handitu da, baita KPIren gainetik ere. 1983ko batez besteko pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldata (193,29€) baino zertxobait txikiagoa zen (157,38 € EAEn eta 138,29 € batez beste Estatuan).

IV.2.3. KOADROA. PENTSIOEN ARLOKO AHALEGINAREN HURBILKETA EAE-N

Urteak	Kotiza-ziop. pentsioak (1)	Batez besteko zenbat., €/hila (2)	Zenbateko osoa €/hila(3)=(1) *(2)	Gizarte Seguran-tzan afiliatuta koak* (4)	Ahalegina: euro/hila afiliatu bakoitzeko (3) / (4)
2007	471.900	843,0	397.811.700	957.900	415,30
2008	479.400	898,3	430.630.638	967.900	444,91
2009	487.600	938,4	457.563.840	934.700	489,53
2010	494.800	966,1	478.026.280	925.800	516,34
2011	501.800	995,7	499.642.260	919.600	543,33
2012	**508.200**	**1.024,8**	**520.803.360**	**896.600**	**580,86**
11ko ald. %	1,4	3,1	4,5	-0,7	5,2
12k ald. %	1,3	2,9	4,2	-2,5	6,9

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAko Ministerioaren datuak oinarri hartuta egindakoa.
** Gizarte Segurantzan alta egoeran dauden kotizatzaileak.*

2012ko abenduan EAEko batez besteko pentsioa (1.033,50 €) % 3 handitu zen 2011ko abenduarekin alderatuta. Aldiz, urte arteko KPIren aldakuntza % 2,7 izan zen hilabete horretara arte.


Bestalde, pentsioetako gastu osoaren zenbatekoa % 4,2 handitu zen. Alderatzen badugu aipatutako gastuaren bilakaera Gizarte Segurantzan afiliatutako langile kopuruarekin balioetsi ahal izango dugu pertsona afiliatu bakoitzaren ahalegina zein den

(euro/hila) pentsio horiek ordaintzeko. 2012an 580,86 eurokoa zen hileko, aurreko urtean baino % 6,9 gehiago; izan ere, pentsioak ordaintzeko gastua handitu da eta kotizatzaileen kopurua murriztu.

Horrez gain, 2011n (datu ofizialak dituen azken urtea) Gizarte Segurantzako Sistemak 6.611 milioi euro bildu zituen guztira EAEn, 2010ean baino % 1,1 gehiago, hau da, Estatuan guztira bildutakoaren % 6,4 (2010ean % 6,3). Zenbateko hori gure Erkidegoko urte horretako BPGd-aren % 10 da, behin-behineko datuen arabera (% 9,9 aurreko urtean). Bildutako kopuru horretatik 1.104 milioi Arabari dagozkio (% 16,7), 2.173 Gipuzkoari (% 32,9) eta 3.334 milioi Bizkaiari (% 50,4).

Zenbateko horren % 90,5 Gizarte Segurantzaren kuotei dagokie; gainerako % 9,5, aldiz, lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateetatik ondorioztatutakoa da. % 71,1en jatorria erregimen orokorra da eta 4.701 milioi euro dira guztira (aurreko urtearekin alderatuta % +0,9). Halaber, Gizarte Segurantzak Langabeziari, Soldatak Bermatzeko Funtsari eta Lanbide Heziketari dagozkien kuotak ere biltzen ditu. EAEn horien zenbatekoa guztira 1.283 milioi euro izan ziren 2011n, aurreko urtean baino 4 gehiago.

IV.2.1. GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOENGATIKO* DIRU-BILKETAREN BILAKAERA EAEN



(*) Langabezia, LH eta Soldatak Bermatzeko Funtsa alde batera utzita.
Iturria: GSDOren datuetatik abiatuta egindakoa.

IV.2.4. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINTZA OROKORRAREN KUOTEN DIRU-BILKETAREN BILAKAERA EAE-N. MILIOIKA

	Milioika eurotan				2011ko %	Aldakuntzaren %		
	2008	2009	2010	2011		2008-09	2009-10	2010-11
Orokorra	4.682	4.623	4.658	4.701	71,1	-1,3	0,8	0,9
Autonomoak	616	618	619	661	10,0	0,3	0,2	6,8
Nekazaritza arlokoak*	4	3	3	3	0,0	-25,0	0,0	0,0
Itsasoko langileak	30	29	28	28	0,4	-3,3	-3,4	0,0
Etxeko langileak	24	26	28	30	0,5	8,3	7,7	7,1
Ikatzaren meatzaritzakoak	0	0	0	0	0,0	0,0	0,0	0,0
LI eta LG kuotak (diruzaintza)	7	6	6	6	0,1	-14,3	0,0	0,0
SEPEko langabeak	418	553	564	553	8,4	32,3	2,0	-2,0
GSDO-KO KUOTAK, GUZTIRA	**5.781**	**5.858**	**5.907**	**5.982**	**90,5**	**1,3**	**0,8**	**1,3**
LI eta LG mutualitateak	479	444	429	430	6,5	-7,3	-3,4	0,2
KA mutualitateak	189	193	205	199	3,0	2,1	6,2	-2,9
MUTUALITATEAK, GUZTIRA	668	637	634	629	9,5	-4,6	-0,5	-0,8
GS-KO SISTEMAREN DIRU-BILKETA, GUZTIRA	**6.449**	**6.495**	**6.541**	**6.611**	**100,0**	**0,7**	**0,7**	**1,1**
Langabeziarako bildutako kuotak	1.188	1.126	1.128	1.131	17,1	-5,2	0,2	0,3
Soldatak Bermatzeko Funtsa	30	29	29	29	0,4	-3,3	0,0	0,0
Lanbide Heziketa	124	122	122	123	1,9	-1,6	0,0	0,8

Iturria: GSDOren datuak erabilita egindakoa: urteko memoriak.

2.2. TRANSFERITUTAKO KUDEAKETA DUTEN GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK: ORDAINDUTAKOAREN ARABERAKOAK EZ DIREN PRESTAZIOAK

Ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak inoiz kotizatu ez duten edo kotizaziopeko prestazioak lortzeko behar besteko denboraz kotizatu ez duten eta iraupeneko bitartekorik ez izateagatik beharrizan-egoeran dauden pertsonei ematen zaizkienak dira. Errenta ekonomiko bat aitortzeaz gain, laguntza mediko eta farmazeutikoa eta gizarte zerbitzuak jasotzeko eskubidea ere badute; hortaz, beharrizan-egoeran egonez gero estaldura osoa ematen diete. Pentsio horien jatorria Estatuko abenduaren 20ko 26/1990 Legean dago. Lege horrek Gizarte Segurantzaren Babes Ekintza eta Egitura Arrazionalizatzeko presazko neurriei buruzko 26/1985 Legearekin hasitako berrikuntza osatu zuen. Horren bidez, babeserako kotizaziorik gabeko prestazio maila antolatu zen, lanbide- edo kotizazio-sistemarako sarbiderik ez duten eta beharrizan-egoeran dauden pertsonei prestazioak ematea ahalbidetzen duena. Hala, adinekoen edo ezinduen aldeko eskubide subjektiboa sortu zen.

Gizarte babesaren sistema unibertsala denez, ez da beharrezkoa prestazioa jasotzeko eskubidea baliatzeko aurrez kotizatu izana, eta kotizaziorik gabekoa denez, Estatuko Aurrekontu Orokorren Urteko Legeetan zehazten da. Prestazio hori erabat finantzatzea Estatuari dagokio, eta Gizarte Segurantzak bertatik jasotzen ditu kasuan kasuko transferentziak, 26/1990 Legeko Zortzigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera eta Toledoko Ituneko gomendioekin bat etorriz.

Estatuan autonomia erkidegoek dute eskumena. Aldiz, EAEn, eginkizunak eta zerbitzuak besterendu ondoren, prestazioa aitortzea, kudeatzea eta finantzatzea foru aldundiei dagokie. Ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak hiru motatakoak dira: Gizarte Segurantzaren kotizaziorik gabeko pentsioak, laguntzako pentsioak eta MGL prestazioak. Jasotzen den zenbatekoa errenten eta egoera pertsonalaren arabera ezartzen da.

2.2.1. Gizarte Segurantzaren kotizaziorik gabeko pentsioak

IV.2.5. KOADROA GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIORIK GABEKO PENTSIOAK EAE-N: ADIERAZLE NAGUSIAK

	ONURADUNAK (URTEKO BATEZBESTEKOA)			HILEKO ZENBATEKOA (€)
	ERRETIROA	EZINTASUNA	GUZTIRA	
2007	4.461	5.389	9.850	312,43
2008	4.339	5.318	9.658	328,44
2009	4.301	5.439	9.741	336,33
2010	4.311	5.638	9.949	339,70
2011	4.399	5.708	10.107	343,10
2012	4.494	5.736	10.230	354,10
09/10eko ald. %	0,2	3,7	2,1	1,0
10/11ko ald. %	2,0	1,2	1,6	1,0
11/12ko ald. %	2,2	0,5	1,2	3,2

Iturria: ESSMren datuak erabilita egindakoa. Lan Estatistiken Aldizkaria.

EAEko Foru Aldundiek emandako kotizaziorik gabeko pentsioak, kopuruari eta zenbatekoari dagokienez, kotizaziorik gabeko prestazioen artean nabarmenenak dira. Diru-sarrera nahikoak ez dituzten pertsonei daude zuzenduta (diru-sarrerak nahikoak ez direla zehazteko, urteko diru-sarreren baturak pentsioaren urteko zenbatekoak baino txikiagoa izan behar du) eta zenbatekoak urtetik urtera gora egiten du.

Kotizaziorik gabeko pentsioen zenbatekoak Estatu osorako ezartzen dira urtero. 2012rako 354,10 € finkatu ziren hileko erretirorako zein % 65eko mailako edo horretatik gorako baliaezintasunerako. % 75 edo hortik gorako maila eta beste pertsona baten laguntza premia dituzten baliaezintasuneko pentsioetarako % 50eko osagarria ere onartzen da. Halaber, onuradunak bere errentak edo sarrerak baditu eta haien zenbatekoa pentsioaren % 25 baino handiagoa bada, hura aipatu % 25 gainditzen duen kopuruan murriztuko da. Norberaren sarrerak % 25 baino gehiago ez badira, pentsioari osorik eusten zaio.

Zenbateko horietatik abiatuta, pentsioetarako urteko 50,7 milioi euroko gastua ondoriozta dezakegu, 2011n baino % 4,5 gehiago. Hala ere, memoria honen itxieran ez dakigu kopuru horren zenbateko zehatza zein den.

2.2.2. Gizarte Ongizateko Funtsaren laguntzako pentsioak

Foru Aldundiei transferitutako Gizarte Segurantzaren laguntzako pentsioak banakako laguntza ekonomikoak dira, aldian behingoak eta mugagabeak, adinekoen (65 urtetik gorakoak) eta gaixoen edo erabateko ezgaitasun iraunkorra dutenen alde, bizirauteko bitarteko ekonomikorik ez badute (euren urteko diru-sarreren batura batez besteko pentsioaren urteko zenbatekoa baino txikiagoa denean). Kotizaziorik gabeko pentsioetarako Estatuan legez bizitzeko irizpidea eskatzen bada ere (gutxienez 10 urtez bizi izana -5 urtez ezgaitasunaren kasuan-, haietatik gutxienez bi eskaera egin aurre-aurretik), laguntza horietan ezartzen den bakarra onuradunak EAEko udalen batean erroldatuta egotea da, Erkidegoan bizitzeko baimena duten atzerritarrak, errefuxiatuak eta aberrigabeak barne.

Prestazio horiek pixkanaka murriztu dira, 5/1992 ELDa indarrean sartu ondoren indargabetuta geratu direlako eta, beraz, harrezkero alta berririk gertatu ez delako; horrela, ordura arte onartutako pentsioei baino ez zaie eutsi, oro har zenbateko handiagoa duten kotizaziorik gabeko pentsioak jasotzea hautatu ez badute.

Informazio eguneraturik ez dagoenez gero, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak kalkulatu du halako pentsioen jasotzaile kopuruak egonkor iraun duela 2007tik: urtean batez beste 1.341 lagun inguru. Haietatik 886k "zahartzaroa" kontzeptuagatik eta 255ek "gaixotasuna" kontzeptuagatik jasotzen dituzte. 2012an laguntzaren zenbatekoa, 2000z geroztik bezala, 149,86 € hilean da, eta pertsona horiek, gainera, bi ordainketa gehigarri dauzkate onartuta urtean; beraz, EAEko Foru Aldundien Gizarte Ongizateko Funtsaren laguntzako pentsioen zenbatekoa, 2012n, gutxi gorabehera, 2,8 milioi euro da guztira.

2.2.3. MGL prestazioak

Minusbaliatua Gizarteratzeko 13/82 Legean (MGL) onartutako prestazioak gutxienez % 65eko ezgaitasunak jota dauden 18 urtetik gorako pertsonei daude zuzenduta, urtean pertsona bakoitzeko lanbide arteko gutxieneko soldataren % 70 baino baliabide gutxiago badaukate (euren ardurapeko pertsonak badauzkate, mendeko bakoitzeko % 10 handitzen da). Subsidio horiek Estatuko 26/1990 Legea indarrean sartu zenean indargabetu ziren. Lege haren bidez Gizarte Segurantzan kotizaziopeko prestazioak ezarri ziren. Dena dela, data horren aurretik subsidio horien onuradunak zirenek haien onuradunak izaten jarraitzea ala kotizaziopeko pentsioa eskatzea hauta dezakete, baina ez dira indargabetutako babes ekintza gehiagorik onartuko. Hori dela-eta, Gizarte Ongizateko Funtsaren laguntza prestazioetan gertatu legez, MGL prestazioen onuradunak urtetik urtera murriztu dira.

Laguntza horiek honako lau motetan jaso daitezke:

1. Gutxieneko diru-sarrera bermearen subsidioa (GDBS). Prestazio horren onuradunak % 65etik gorako ezgaitasuna duten 18 urtetik gorako pertsonak dira, haien baliabide pertsonalak Askotariko Efektuen Errentaren Adierazle Publikoaren (IPREM) % 70 baino gutxiago badira, edo % 100ekoa euren ardurapeko pertsonak badauzkate.

2. Hirugarren pertsona bati laguntzeko subsidioa (HPLS). Aldian aldiko prestazioa da, arestiko ataleko baldintzak beteta, % 75etik gorako ezgaitasuna duten pertsonentzat.

3. Mugikortasun eta garraio gastuetarako konpentsazio subsidioa (MGGS). Ohiko bizilekutik at joateko sortutako gastuei aurre egiteko da. Pertsonek 3 urtetik gorakoak izan behar dute, garraio kolektiboak erabiltzeko zailtasun handiak eduki, % 33etik gorako ezgaitasun maila izan, eta ez dute baliabide ekonomikorik izan behar.

4. Osasun laguntza eta farmaziako prestazioa. Foru Aldundiek onartzen dute prestazio hori, baina Osakidetzaren osasun zerbitzuek burutzen dute. Beraz, haientzako kostu ekonomikoa dakarte. Prestazioa jasotzeko, pertsonek % 33etik gorako ezgaitasun maila izan behar dute eta ez dute Gizarte Segurantza sistemaren aplikazio eremuan bilduta egon behar. Zehazki, haien helburua onuradunen osasuna zaindu eta indarberritzeko zerbitzuak ematea da, kasu bakoitzean erabakitako osasun-errehabilitazio eta farmazia laguntzaren bidez.

2008an (datuak dituen azken urtea), MGLren 680 onuradunak honela banatu ziren EAEn: 603 lagun GDBSren prestazioetan, 77 HPLSrenetan eta 28 MGGSrenetan. Subsidio horien murrizketa garrantzitsua izan da, duela hamarkada bat 5.000 pentsio baino gehiago baitzeuden onartuta. 2008an prestazio horiengatik guztira 1,4 milioi euro ordaindu ziren, 2007an baino % 8 gutxiago.

3. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO NEURRIAK EAE-N

Txirotasuna, tradizioz, gizarte desberdintasunei eta diru-sarreren maila txikiko biztanleria-kapei lotuta egon da. Azken urteotan, aldiz, gure gizartean gertatutako aldaketekin batera —bai ekonomiari, bai gizarteari, bai familiari lotutakoak—, marjinazio mekanismo berriak agertu dira; ekonomia hutsari lotutakoaz gain, beste eragile batzuk piztu dituzte gizarte bazterkeriako prozesuak. Egun, txirotasunez mintzatzeak errealitate mosaiko konplexu batera hurbiltzea esan nahi du. Ekonomia desberdintasunetik harago, errealitate horiek "bazterkeria" kontzeptua biltzen dute, honela ulertuta: "*gizarte eskubideak, batez ere lanerako eskubidea, baina baita hezkuntza, prestakuntza, kultura, osasun, etxebizitza duin eta gizarte babeserako eskubideak, erabiltzeko ezintasuna edo ezgaitasuna*"[6].

EAEn txirotasunari, marjinazioari eta gizarte bazterkeriari aurre egiteko tresna nagusien artean, Gizarte Zerbitzuen Legean, Bazterkeriaren aurkako Legean eta Gizarte Eskubideen Kartaren Legean kokatuta, azken urteotan egungo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (lehen Oinarrizko Errenta) eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) izan dira. Txirotasunaren aurka borrokatzeko osoko planaren baitako gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko programak dira biak.

Horiek ez ezik, gizarteratze, prestakuntza eta laneratze programak ere badaude, partaideen (laneratze enpresak sortu ahal izatea aintzat hartu da), udalen eta bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arteko hitzarmenen bidez.

2009an Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea sartu zen indarrean. Haren helburuak honakoak dira: alde batetik, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema eratzea, sistema autonomoa izanda —haren kudeaketan gizarte eta enplegu zerbitzuek hartzen dute parte eta herri administrazioaren beste arlo batzuek ere laguntzen dute—; bestetik, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren funtzionamendu printzipioak eta egitura oinarriak ezartzea eta herritarrek prestazio ekonomikoak eta gizarteratzeko eta laneratzeko tresnak eskura ditzatela bermatzea, berdintasun eta zuzentasuneko irizpideen arabera, lurralde osoan era homogeneoan aplikatuko dela bermatzeko behar diren neurriak hartuz.


Lege berriak funtsezko bi berritasun dauzka:

1. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) oinarrizko irizpideen arabera bereizitako bi modalitatetan egituratzen da: batetik, bizikidetza unitatean lanetik datozen diru-sarrerak egotea ala ez egotea eta, bestetik, modalitate bakoitzaren eta txertaketarako hitzarmenaren arteko lotura mota.

2. Bigarren berritasuna Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) da. Haren xedea premia handiena duten pertsonei —hots, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrei— etxebizitza lortzea erraztea da. Horrela, prestazio horrek ordura arte Gizarte Larrialdiko Laguntzek (GLL) estaltzen zituzten premietako asko estali zituen, baina, azkenak ez bezala, eskubide bihurtu da; haiek sartzeak, bestalde, aukera emango du GLLei ezohiko izaera itzultzeko.

6 12/1998 Legea, maiatzaren 22koa, Gizarte Bazterkeriaren aurkakoa.

IV.2.2. GRAFIKOA DIRU-SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN PRESTAZIOEN GASTUAREN BILAKAERA (MILIOIKA EUROTAN)



	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
EPO													51,11	64,9
DBE	42	45	53	68	77	100	114	139	153,7	168,6	197,3	262,7	314,8	330,3
GLL	11	13	16	19	19	24	24	30	35	36	38	54,5	24	17,3

Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Gizarteratzearen Zuzendaritzaren datuetatik abiatuta egindakoa.

Eskumen esparruari lotutako beste elementu azpimarragarria eta funtsezkoa honakoa da: bai DBE bai EPO prestazio subsidiarioak dira eta, behar izanez gero, titularrari edo haren bizikidetza unitateko edozein kideri legokiokeen indarreko legedian xedatutako baliabide eta prestazio ekonomiko mota guztien osagarriak. Horrela, prestazio horiek azken babes sarea dira eta, horren ondorioz, ezingo dituzte beste prestazio edo laguntza batzuek osatu.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eskainitako datu finkoen arabera, 2011n Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak 412,54 milioi euro, hau da, aurreko urtean baino % 5,8 gehiago, gastatu zituen. Honela banatu zituen: 330,34 milioi Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarako (guztizkoaren % 79), 17,3 milioi Gizarte Larrialdiko Laguntzetarako (% 4,1) eta 64,9 milioi euro Etxebizitzaren Prestazio Osagarri berrirako (% 15,5), horren bigarren urtean.

Prestazio horiek EAEko bizi-baldintzetan dituzten ondorioei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren *"Txirotasunari eta gizarte desberdintasunei buruzko Inkesta"*k (TGDI) uste du 2012an pobrezia atalasaren azpitik bizi diren pertsonak Euskadin % 37,5 murriztu direla, laguntza horien ondorioz. Prestazio horiek izan gabe benetako txirotasun egoeran dauden pertsonak biztanleriaren % 8,5 dira, baina prestazio horiek banatu ondoren portzentajea % 5,3koa da.

3.1. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO SISTEMAREN PRESTAZIOAK

3.1.1. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak aurreko Oinarrizko Errenta izenekoa ordeztu du. EAEn erroldatuta gutxienez urtebete eman duten pertsonei ematen zaie, oinarrizko premiei eta gizarteratzeko eta laneratzeko prozesutik datozenei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez badute.

Laguntza hori jasotzeko premia egoeraren ziurtagiria —oinarrizko gizarte zerbitzuek egiten dute— eta, salbuespenak salbuespen, txertaketarako hitzarmenetan parte hartzea behar da, gizarteratzea eta laneratzea eta premia egoera horretatik irtetea errazteko xedez. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratu ahal izateko betekizun orokorren artean, erreferentziazko urtean, 23 urtetik gorakoa izan behar da. Jasotako zenbatekoa honako hau da: hamabi hileko kuotetan lanbideen arteko gutxieneko soldataren % 88ko urteko diru-sarrerak bermatzeko behar dena, gehi haren % 25 bigarren pertsonarentzat eta % 10 gehiago pertsona bakoitzarentzat hirugarrenetik aurrera.

IV.3.1. KOADROA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA: GASTUAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN. MILIOIKA

	2008	2009	2010	2011	2010/11ko ald. %	2008/11ko ald. %
Araba	19,43	30,27	40,16	43,89	9,3	125,9
Gipuzkoa	26,08	37,62	46,51	51,84	11,5	98,8
Bizkaia	151,78	194,84	228,15	234,61	2,8	54,6
EAE	**168,56**	**262,72**	**314,82**	**330,34**	**4,9**	**96,0**

Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Gizarteratzearen Zuzendaritza.

IV.3.2. KOADROA. GIZARTERATZEKO GUTXIENEKO ERRENTAK AUTONOMIA ERKIDEGOKA. 2011KO DATUAK

	Estaldura-tasa		Titular hartzaileak			Gastua (milioi €-tan)		
	2010	2011	2011ko abs.	2011ko %	2010/11ko ald. %	2011ko abs.	2011ko %	2010/11ko ald. %
Andaluzia	3,54	4,05	34.154	15,3	15,21	61,60	8,0	-3,76
Aragoi	2,51	3,20	4.311	1,9	27,47	9,93	1,3	50,98
Asturias	7,50	8,08	8.741	3,9	7,53	32,52	4,2	17,05
Balear Uharteak	1,88	2,09	2.327	1,0	12,09	5,43	0,7	19,80
Kanariar U.	2,31	2,30	4.883	2,2	-0,35	17,70	2,3	0,11
Kantabria	5,78	7,23	4.288	1,9	25,23	7,10	0,9	115,07
Gaztela-Mantxa	0,67	0,93	1.973	0,9	39,83	2,41	0,3	35,27
Gaztela eta Leon	1,35	2,51	6.426	2,9	86,59	16,42	2,1	68,86
Katalunia	4,03	3,26	24.552	11,0	-18,91	159,80	20,8	6,68
Ceuta	1,27	1,54	127	0,1	24,51	0,17	0,0	29,23
Extremadura	1,43	1,06	1.178	0,5	-25,44	2,22	0,3	-36,43
Galizia	2,48	2,64	7.375	3,3	6,15	22,56	2,9	6,26
Madril	2,32	2,77	17.992	8,0	19,83	59,99	7,8	21,63
Melilla	5,14	6,19	486	0,2	24,30	1,19	0,2	25,67
Murtzia	0,94	1,29	1.900	0,8	38,69	2,82	0,4	41,36
Nafarroa	11,69	12,75	8.185	3,7	9,95	30,83	4,0	17,51
EAE	**30,55**	**39,70**	**86.734**	**38,7**	**30,34**	**313,30**	**40,9**	**4,07**
Errioxa	3,99	6,09	1.966	0,9	52,76	2,85	0,4	64,17
Valentziako E.	1,03	1,24	6.342	2,8	20,46	16,51	2,2	7,53
ESTATUA	4,10	4,75	223.940	100,0	16,25	766,73	100,0	9,96

Iturria: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasuneko Ministerioaren datuak erabilita egindakoa. Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten Txostena 2011.

2011n (datu finkoak dituen azken urtea) 55.660 familiak jaso dute Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (abenduko datua); hori aurreko urtean baino % 1,2 gehiago da, orduan lagundutako bizikidetza unitateak 55.020 izan baitziren. Lurraldeka, Bizkaiak dauka jasotzaile gehien, 36.887 guztira, EAEko guztien % 66,3; Gipuzkoak, ordea, jasotzaileen % 20,2 biltzen du, eta Arabak % 13,5.

Bestalde, 2010ean (datuak dituen azken urtea) bizikidetza unitate bakoitzeko batez besteko zenbatekoa hileko 456 euro izan zen, 2009an baino % 4 gutxiago.

2011n 330,34 milioi euro ordaindu dira Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta gisa (2010ean baino % 4,9 gehiago). Gehikuntza hori heterogeneoki banatzen da autonomia erkidegoko hiru lurraldeetan zehar. Horrela, gehikuntza handiagoa izan da Gipuzkoan (% +11,5) eta Araban (% +9,3). Bizkaian, berriz, euskal batezbestekoa baino txikiagoa da gehikuntza (% +2,8). 2008. eta 2011. urteen bitarteko bilakaera aztertzen badugu, gure Erkidegoan DBE jasotzen duten etxeen bolumena % 40 gehitu dela ikus dezakegu, 40.000 ingurutik 55.000ra pasatuta. Gainera, prestazio horren gastua bikoiztu da: 168,5 milioi eurotik 330,3ra pasatu da (% +96).

Halaber, 2012rako azken zifrak jakin baino lehen, memoria hau egin den egunerako 2012ko urriari buruzko datuak daude, hil horretan prestazioa jasotzen zuten 58.954 titular (% +5,9, 2011ko urriaren aldean) zeudela. Urtarriletik urrira bitartean 285,8 milioi euro erabili ziren, guztira, prestazio horretarako (% +4,3, 2011ko aldi beraren aldean).


Horrez gain, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasuneko Ministerioaren *"Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten Txostena"*k aukera ematen du autonomia erkidegoetako diru-sarrerak bermatzeko sistemen zifra handien konparazio-jarraipena egiteko, araudien heterogeneotasuna eta sistema horien garapen mailak kontuan hartuta. 2011ri lotutako txostenaren arabera, urte horretan gure Erkidegoak 3.759 euroko urteko gastua zeukan prestazio horien titular bakoitzeko, estatuko 3.765 euroko batezbestekoaren aurrean, eta haren estaldura-tasa % 39,7koa mila biztanleko (Estatuko batezbestekoa 4,75 da). Kontuan hartu behar da aipatutako urtean gure Erkidegoak Estatuan prestazio horietarako erabilitako fondoen % 40,9 zeukala, eta haren oinarrizko zenbatekoa (658,50 € hilean) Estatuko batezbestekoa baino % 55,9 handiagoa dela, autonomia erkidego guztietako handiena dela.

3.1.2. Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria

Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) eskubide subjektiboko prestazio bilakatzeak sistemaren funtsezko osagai bihurrarazi du, eta 18/2008 Legearen helburua islatzen du: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta osatzeko prestazio ekonomikoen sistema bat eratzea, biztanleria talderik ahulenei etxebizitzari lotutako gastuei aurre egiteko aukera emateko. Funtsezko gastuak estaltzeko gutxieneko egonkortasuna bermatu ez ezik, jarduketa tresna horren xedea GLLak jatorrizko helbururantz birbideratzea ere baada, hots, gastu bereziak estaltzea; horrela, beharrak direla-eta, urteen poderioz GLLak, praktikan, aldian aldiko izaera hartu eta, proportzio handi batean, etxebizitza gastuak ordaintzeko erabiliak izatera eraman zituen desbideratzea zuzendu da. Arestikoak ez du inondik inora esan nahi etxebizitza gastuak lege esparru berriak Gizarte Larrialdiko Laguntzei emandako xedeetatik at geratu direnik, halako gastuak estaltzeko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrak ez diren pertsonei bakarrik esleituko zaizkiela baizik.

EPOren xehetasunak etxebizitza gastuetarako prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuak arautzen ditu. Hark xedatzen duenez, haren helburua honakoak estaltzea da: "*etxebizitzari lotutako beharrak, etxebizitza edo ohiko bizilekua alokatzeko gastuak, alokairu, berrakura, alokairukidetza, ostatu eta gelen alokairuko modalitate guztietan*".

IV.3.1.1. GRAFIKOA. EPO-REN TITULAR HARTZAILEEN HILEKO BILAKAERA LURRALDEKA. 2010-2012KO URRIA



Iturria.- Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietarako saila

Indarrean egon den lehen urtean, EPOk 51,1 milioi euroko gastua ekarri du eta 64,9 milioi euroko gastua (% +27,13) 2011n (datu finkoak dituen azken urtea). 2011ko abenduan jasotzaileen guztizko kopurua 18.323 izan da (2010eko abenduan baino % 14,2 gehiago). Horien artetik % 21,1 Araban bizi zen, % 56,1 Bizkaian eta % 22,8 Gipuzkoan.

Halaber, 2012rako azken zifrak jakin baino lehen, memoria hau egin den egunerako EPOri buruzko urriko datuak daude, hil horretan prestazioa jasotzen zuten 22.139 titular (% +20,3, 2011ko urriaren aldean) zeudela. Urtarriletik urrira bitartean 58,9 milioi euro erabili ziren, guztira, prestazio horretarako (% +8,7, 2011ko aldi beraren aldean).


3.1.3. Gizarte Larrialdiko Laguntzak

Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) ez dira aldian aldikoak eta oinarrizko premia zehatzei aurre egitera daude zuzenduta. Premia horiek batez ere etxebizitzari daude lotuta eta behin-behinean agertutakoak dira, eta gizarte bazterkeriako egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko behar diren gastuei aurre egiteko behar beste baliabiderik ez duten pertsonentzat dira. Helburu baterako dira, eta eman diren xederako baino ezin dira erabili.

Laguntza horiek babestutako berariazko gastuak etxebizitza edo ohiko ostatua gozatzeari eta mantentzeari, etxebizitzaren edo ohiko ostatuaren epe luzerako bizigarritasunari eta oinarrizko ekipamenduari (altzariak, linea zuriko etxetresna elektrikoak, oinarrizko instalazioak edo horiek egokitzeko eta/edo konpontzeko gastuak) lotutakoak eta jantziei, hezkuntzari, prestakuntzari edo osasun arretari buruzko lehen mailako beharrizanei lotutako ohiz kanpoko, aurreikusi gabeko eta ohikoak ez diren beharrizanak, sistema publikoek estaltzen ez dituztenak, estaltzekoak dira, baita, oinarrizko Gizarte Zerbitzuen iritziz, gizarte bazterkeriako egoerak saihesteko edo arintzeko behar diren antzeko motako beste edozein ere.

EPOak abiarazi ondoren, GLLek beren jatorrizko helburuari heldu diote berriro, eta nabarmen murriztu zaie aurrekontu partida. Horrela, 2010ean laguntza horietarako 24 milioi euro erabili dira, guztira, aurreko urteko 54,5 milioi euroren aurrean. 2011n (datuak dituen azken urtea) laguntza horietarako 17,3 milioi

IV.3.2. GRAFIKOA. GIZARTE LARRIALDKKO LAGUNTZAK: JASOTZAILE KOPURUAREN BILAKAERA LURRALDEAREN ARABERA



	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Bizkaia	4.00	4.08	4.16	9.00	11.0	11.7	13.7	15.7	15.6	16.5	22.3	12.0	8.54
Gipuzkoa	6.40	7.01	8.96	4.35	4.85	4.98	5.63	5.97	6.18	6.10	9.19	5.59	4.94
Araba	2.25	2.40	2.65	3.15	4.05	4.07	4.88	4.35	4.54	4.67	6.52	2.54	1.84

Iturria.- Gizarteratze Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza

euro erabili ziren (% -68,3), horietatik % 57,6 Bizkaiari, % 27,6 Gipuzkoari eta % 14,9 Arabari dagozkiola.

Horrela, 15.331 hartzaile zenbatu dira, guztira, hau da, 2010ean baino % 24 gutxiago. Horietatik 1.840 Araban (% 12), 4.947 Gipuzkoan (% 32,3) eta gainerakoak (8.544) Bizkaian (% 55,7) bizi ziren.

3.2. GIZARTERATZEA LAGUNTZEKO PROGRAMAK

3.2.1. Gizarte esku-hartzearen esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak

"*649/2009 Dekretua, abenduaren 29koa, zeinen bidez Euskadiko gizarte esku-hartzearen eremuan hirugarren sektorearen jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen baitira*" delakoak eremu horretan ematen ziren diru-laguntzak aldatu ditu; izan ere, haren xedea Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren bidez, irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei erakunde horiek euren ekimenez gizarte esku-hartzearen eremuan gauzatzen dituzten jarduerak finantzatzen laguntzeko ematen dizkien diru-laguntza ekonomikoen esparrua arautzea da.

Diruz lagundu daitezkeen ildoei dagokienez, Dekretu horretan xedatutako diru-laguntzak honako ildoetan sartzen diren jarduerek (eta ez langileen egiturei egonkor eusteak edo erakundeen azpiegitura fisikoetan inbertitzeak) jasoko dituzte:

1. Gizarte esku-hartzeko jarduerak: pertsonen autonomia eta komunitateko txertaketa sustatu eta babestera zuzendutako jarduerak, batez ere esperimentazioa edo berrikuntza dakartenak eta, edonola ere, halakoak izateagatik, Gizarte Zerbitzuen Legean eta hura garatzeko araudian erantzukizun publiko gisa estandarizatu eta bermatutako prestazio eta zerbitzuen katalogoa osatzen ez dutenak.

2. Gizarte esku-hartzean borondatezko ekintza eta elkarteen parte-hartzea indartzeko jarduerak. Ildo horretan baino ez dira sartzen erakundeei bazkide edo langile gisa lotutako pertsonak hartzaile dituzten jarduerak, erakunde horiek, borondatezko ekintzarako eta elkarteen parte-hartzerako bide gisa, berez gizarte balioa dutelakoan.

IV.3.3. KOADROA. HIRUGARREN SEKTORERAKO LAGUNTZEN PROGRAMA: ADIERAZLE NAGUSIAK.

	2010		2011	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Erakunde eskatzaileak	395	% 100,0	345	% 100,0
Diru-laguntza jasotzen duten erakundeak	199	% 49,6	183	% 53,0
Proposatutako proiektuak	1.098	% 100,0	935	% 100,0
Diru-laguntza jaso duten proiektuak	444	% 40,4	404	% 43,2
1. Pertsonak, familiak, taldeak eta komunitateak	*299*		*240*	
2. Elkarteak indartzea	*93*		*88*	
3. Jakintzaren kudeaketa	*52*		*76*	
Eskatutako zenbatekoa (milaka €-tan)	34.377	% 100,0	31.363	% 100,0
Emandako zenbatekoa (milaka €-tan)	9.660	% 28,1	8.740	% 27,9
Proiektuen batez besteko zenbatekoa (€)	22.000		21.633	

Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren datuak erabilita egindakoa.

3. Gizarte esku-hartzerako erabilgarria den ezagutza sortu eta eskuratzera zuzendutako jarduerak, hala nola prestakuntza programak, ikerkuntza proiektuak, argitalpenak egin eta hedatzea, dokumentazioari lotutako jarduerak edo gertakizun teknikoak, hala nola ikastaroak eta mintegiak.

2011ko (datuak dituen azken urtea) balantzearen arabera 345 erakundek 935 laguntza eskatu zituzten; haietatik 404 proiektu hautatu ziren (guztien % 43,2) eta batez beste 21.633 euro (2010ean baino % 1,7 gutxiago) jaso zituzten. Guztira laguntzetan 8,74 milioi euro eman ziren (eskatutakoaren % 27,9), aurreko ekitaldian baino % 9,5 gutxiago. Proiektu guztien artetik 240 pertsona, familia, talde eta komunitateekiko esku-hartzeetara bideratu ziren, 88 elkarteak sendotzera eta gainerako 76ak ezagutzaren kudeaketari lotutako ekimenetara.

3.2.2. Laneratze enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak

Azken urteetan, Espainiar Estatuan laneratze enpresei dagokienez, asko sortu dira. Alde batetik, zenbait autonomia erkidegok (haien artean EAE) figura hori arautu dute eta onarpena eta berariazko diru-laguntzak eman dizkiote; gainera, enpresa kopurua esponentzialki handitu da.

IV.3.4. KOADROA. LANERATZE ENPRESETARAKO LAGUNTZA PROGRAMAREN BILAKAERA EAE-N. 2003-2011.

	ERAKUNDEAK	AURREKONTUA (milaka eurotan)	ONURADUNAK
2003	9	1.800	43
2004	21	3.040	90
2005	32	5.170	212
2006	40	7.940	321
2007	48	7.790	423
2008	45	7.130	450
2009	39	7.235	447
2010	42	9.380	525
2011	46	9.610	675
GUZTIRA 2003 -2011	**322**	**59.095**	**3.186**

Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren datuak erabilita egindakoa.

Laneratze enpresak definitzeko esan daiteke haien helburu nagusia gizarte bazterkeriako egoeran eta arriskuan dauden eta lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak gizarteratu eta laneratzea dela. Honako hau da haien funtsezko ezaugarria:

haren helburu sozialaren dualtasuna: alde batetik, enpresa eratu den jarduera ekonomikoa gauzatzea; bestetik, gizarte bazterkeriako arriskuan dauden taldeetako pertsonak gizarteratzea eta laneratzea.

Gure Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2002ko abenduaren 11ko Aginduak laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautu ditu. Agindu hori laneratze enpresen kalifikazioa arautu, haietan sartzeko prozedura ezarri eta laneratze enpresen erregistroa sortzeko abenduaren 26ko 305/2000 Dekretua garatzeko ezarri zen. Aipatutako 305/2000 Dekretua azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuak indargabetu zuen, laneratze enpresen araubidea arautzeko abenduaren 13ko 44/2007 Legearen eskakizunetara egokitzeko. Laguntza horien helburua halako enpresei euren ezaugarri eta premia berezietara egokitutako laguntza bideak eskaintzea da, haientzat berariaz diseinatutako laguntza ekonomikoen oinarri arautzaileak xedatuz. Haren esparruan, laneratze enpresak sortzeko erakunde sustatzaileentzako diru-laguntzak eta laneratze enpresei eurei, irauteko, zuzendutako diru-laguntzak aurreikusten dira. Tresna horien bidez, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze eta laneratze modalitate berezi hori hedatzea sustatu nahi du; haren bidez, pertsona bat, besteren konturako langile, bazkide langile edo laneko bazkide, laneratze enpresa batean sartzea kontratu baten bidez bideratzen da, laneko kontratua lehen kasuan eta sozietatekoa bigarrenean, eta lehenago txertaketarako hitzarmen bat sinatzetik ondorioztatzen da.

2003tik 2011ra arte, Eusko Jaurlaritzak, laguntza lerro horren bidez, 59,1 milioi euro banatu ditu, urtean batez beste 36 laguntza eman dituela eta 3.186 lagunek jaso dituztela.

2011n (datuak dituen azken urtea) diru-laguntzak eman zitzaizkien 46 laneratze enpresari. Horrek ahalbidetu du enpresa horiek 675 pertsona kontratatzea, merkatu normalizaturako biderako urrats gisa. 2011rako laguntzak 3,22 milioi eurokoak izan ziren

eta 2011-2014 aldirako sinatutako laguntza konpromisoa, guztira, 9,61 milioi eurokoa izan da.

4. GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMA OSAGARRIAK EAE-N

Gure Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2002ko abenduaren 11ko Aginduak laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautu ditu. Agindu hori laneratze enpresen kalifikazioa arautu, haietan sartzeko prozedura ezarri eta laneratze enpresen erregistroa sortzeko abenduaren 26ko 305/2000 Dekretua garatzeko ezarri zen. 305/2000 Dekretua azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuak indargabetu zuen, laneratze enpresen araubidea arautzeko abenduaren 13ko 44/2007 Legearen eskakizunetara egokitzeko. Laguntza horien helburua halako enpresei euren ezaugarri eta premia berezietara egokitutako laguntza bideak eskaintzea da, haientzat berariaz diseinatutako laguntza ekonomikoen oinarri arautzaileak xedatuz. Haren esparruan, laneratze enpresak sortzeko erakunde sustatzaileentzako diru-laguntzak eta laneratze enpresei eurei, irauteko, zuzendutako diru-laguntzak aurreikusten dira. Tresna horien bidez, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze eta laneratze modalitate berezi hori hedatzea sustatu nahi du; haren bidez, pertsona bat, besteren konturako langile, bazkide langile edo laneko bazkide, laneratze enpresa batean sartzea kontratu baten bidez bideratzen da, laneko kontratua lehen kasuan eta sozietatekoa bigarrenean, eta lehenago txertaketarako hitzarmen bat sinatzetik ondorioztatzen da.


2003tik 2011ra arte, Eusko Jaurlaritzak, laguntza lerro horren bidez, 59,1 milioi euro banatu ditu, urtean batez beste 36 laguntza eman dituela eta 3.186 lagunek jaso dituztela.

2011n (datuak dituen azken urtea) diru-laguntzak eman zitzaizkien 46 laneratze enpresari. Horrek ahalbidetu du enpresa horiek 675 pertsona kontratatzea, merkatu normalizaturako biderako urrats gisa. 2011rako laguntzak 3,22 milioi eurokoak izan ziren eta 2011-2014 aldirako sinatutako laguntza konpromisoa, guztira, 9,61 milioi eurokoa izan da.

EAEn, gizarte aurreikuspen osagarriko sistema pribatuan protagonista nagusiak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE) eta horiek osatzen dituzten aurreikuspen planak dira. Euskal zergapekoek errentaren gaineko zergaren aitorpenean gizarte-aurreikuspen osagarriko erakundeei ordaindutakoagatik kentzen dutenaren % 92 inguru BGAEetara bideratzen dute. Gainerako % 8 beste forma batzuetara bideratzen dute, besteak beste, pentsio plan eta funtsetara, taldeko aseguru kontratuetara, mutualitateetara, etab. EAEko BGAEei dagokien araudiaren arabera, erakunde horiek, derrigorrezko Gizarte Segurantza osatzen duten aurreikuspen sistemen esparrutik kanpo, irabazi asmorik gabeko xede nagusia borondatezko eta gizarteko aurreikuspen modalitatea erabiltzea daukate, haien kideak edo ondasunak halabeharrezko edo aurreikusteko moduko inguruabar edo gertaeren aurka babesteko.

Gizarte Segurantzaren sistema publikoak osatzeko pentsio plan pribatuak dauzkaten herrialde guztietan bezala, EAEn bi plan modalitate nagusi daude: enplegu edo lanbide aurreikuspenekoak, langileei zuzenduak, eta lan harremanen esparruan lan-hitzarmen kolektiboaren tresnaren bidez egituratuak; eta finantza erakundeek sustatutako banakako aurreikuspen planak edo kontu pertsonalak, haietara edozein pertsona fisiko bazkidetu daitekeela. Bestalde, gure legedian hirugarren modalitate bat ere badago: elkarteko aurreikuspen planak; haien bazkideak elkarte baten, sindikatu baten... kideak dira eta ez daude hain zabalduta.

IV.4.1. GRAFIKOA. BGAEEN BILAKAERA EAEN. OINARRIZKO URTEA: 2002



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuak erabilita egindakoa.

4.1. Magnitude nagusiak

2010eko datuen arabera (memoria hau amaitu den egunerako datu ofizialak dituen azken urtea), EAEk 182 BGAE dauzka Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko BGAE Erregistroan inskribatuta, 2009an baino bi gutxiago. 1,27 milioi bazkide dauzkate (gure Erkidegoko biztanleriaren % 58,5. Hala ere, kopuru handi horrek ez ditu aurreikuspen planak dituzten norbanakoak ordezkatzen; izan ere, pertsona batek plan bat baino gehiago izan dezake BGAE bakar batean edo BGAE bat baino gehiago izan dezake. Beraz, estatistika horretan behin baino gehiagotan kontabilizatuta agertuko da). Haietatik, % 57,8 banakako BGAEen bazkide dira eta % 33,6 enplegu erakundeenak.

Bere aldetik, ekarpenak 1,34 milioi eurokoak dira, eta ondarea, berriz, 19.258 milioi eurokoa (BPGd-aren % 29,4, behin-behineko datuen arabera). Hura ia erdi bana dago banatuta enpleguko eta banakako erakundeen artean.


Gure Erkidegoko BGAEei dagozkien magnitude nagusiek EAEn gizarte aurreikuspen osagarria ezartzeko prozesua moteltzeko joera daukate, haren forma nagusiari dagokionez, behintzat: BGAE. Izan ere, 2010a izan da atxikimendu kopurua jaitsi den (% -4,7) lehenengo urtea eta ekarpenak behera egin duten (% -6,7) bigarren urtea guztizko segida historikoan. Dena den, gure Erkidegoko BGAEen guztizko ondarea % 2,5 handitu da 2009aren aldean.

IV.4.1. KOADROA. BGAE-EN DATU IRMOAK EAE-N, 2010-12-31N (milioi eurotan)

	Kop	BAZKIDEAK	EKARPENAK	ONDAREA
ENPLEGU	51	427.079	522	9.968
BANAKAKO	48	733.860	810	9.276
GAINERAKO	83	109.681	6	14
BGAE. GUZTIRA	**182**	**1.270.62**	**1.338**	**19.258**

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO Ekonomia eta Ogasun Saila

IV.4.2. GRAFIKOA. BGAE-EI LOTUTAKO PERTSONAK EAE-N: ATXIKIMENDUAK ETA BIZTANLERIAREN GAINEAN DUEN



Iturria: EUSKO JAURLARITZAren eta EUSTATen datuak erabilita egindakoa.

Ondoko datu ofizialik ezean, Euskadiko BGAEen Federazioak 2012ko balantze gisa emandakoek (ez dituzte Eusko Jaurlaritzaren Erregistroan inskribatutako erakunde guztiak barne hartzen, baina bai gehienak) adierazi dute Euskadiko BGAEen ondareak 20.000 milioi euroko muga gainditu duela lehenengo aldiz, aurreko ekitalditako zifrek baino 1.200 milioi euro gehiago agertuta.

IV.4.2. KOADROA. BGAE EAE-N. SEKTOREAREN DIMENTSIO

	2007	2008	2009	2010
BGAE kuotak / BPGd %	2,18	2,07	2,23	2,05
BGAE ondarea / BPGd %	26,58	25,37	29,26	29,43
BGAE kuotak / Giz. Seg. kuotak %	26,22	24,29	24,48	22,65

Iturria: EUSKO JAURLARITZAren, EUSTATen eta GSDOren datuak erabilita egindakoa.

Ondare hori EAEko BPGd-aren % 30,7 da, ratio hori Estatuko zifra (% 8,2) baino askoz hobea dela eta 15eko EBko batezbestekoaren (% 30,7) berdina dela. Hala ere, urrun dago ELGEko batezbestekotik, erakunde horren hitzetan batezbesteko hori % 67,6koa dela.

Iturri horren arabera, 2012an kuotak edo ekarpenak 923 milioi eurotik gorakoak izan dira, nahiz eta elkarte sisteman eta banakakoan nabarmen jaitsi diren. Izan ere, ekitaldi zaila izan da krisiaren ondorioengatik eta murrizketa mugen zergak gutxitzeko ekintzak indarrean sartzeagatik. Aldi berean, atxikimenduak 1,17 milioi eurokoak izan dira, eta ia 9.000 baino gehiago izan dira 2011ren aldean. Halaber,

ordaindutako prestazioak 925 milioi eurokoak baino handiagoak izan dira, zifra hori aurreko urtekoa baino % 7 txikiagoa dela.

Sektore publikoari eta pribatuari dagokienez, enplegu planetako bazkide gehienek (% 70 inguru) sektore pribatuan egiten dute lan.

IV.4.3. KOADROA. BGAE-EN MAGNITUDE NAGUSIAK EAE-N

	2007	2008	2009	2010	07/08ko ald. %	08/09ko ald. %	09/10eko ald. %
Bazkideak*	1.241.510	1.332.721	1.333.743	1.270.620	7,3	0,1	-4,7
Ekarpenak (milioi €-tan)	1.451	1.404	1.434	1.338	-3,2	2,1	-6,7
Ondarea (milioi €-tan)	17.659	17.229	18.791	19.258	-2,4	9,1	2,5
BGAE kopurua	**185**	**187**	**184**	**182**	**1,1**	**-1,6**	**-1,1**

Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Ekonomia eta Ogasun Saila
(*) Pertsona bera BGAE batean baino gehiagotan egon daiteke. Bikoiztasunak ezabatuko balira, atxikitako pertsonen benetako kopurua txikiagoa litzateke.

Gizarte aurreikuspen osagarriaren ezarpena, ordea, askoz sendoagoa da sektore publikoan enpresa pribatuan baino: Euskadiko BGAEen Federazioaren datuen arabera, 2012an enpleguko aurreikuspen planak zituzten herri administrazioetako langileak 119.000 baino gehiago ziren, ia langile publiko guztiak. Hori sektoreko lan hitzarmen kolektiboaren emaitza da, eta honakoak sortzea ekarri du: ELKARKIDETZA BGAE toki eta foru erakundeen esparruan, ITZARRI BGAE Eusko Jaurlaritzaren esparruan, eta Estatuaren Administrazio Orokorraren Pentsio Plana administrazio horren mendeko langile publikoentzat.

Gizarte aurreikuspen mota horretako planak dituzten enpresa pribatuetako langileak, ordea, 300.000 inguru izanda, EAEko ekonomiaren sektore pribatuko langileen herena dira, ozta-ozta, Gipuzkoa lurraldean, sektoreko lan hitzarmen kolektiboaren bidez, GEROA BGAE sortu zen arren. GEROA BGAEk 239.653 bazkide izan ditu 2012an.

Azkenik, BGAEen garrantzi makroekonomikoa nabarmentzen da kudeatzen duten aktiboen bolumena ikusten dugunean. Pentsio funtsekin gertatzen den bezala, finantzaketa sisteman garrantzi handia duten herrialde askotan —pentsioen funtsa handiek berebiziko garrantzia dute nazioarteko finantza merkatuetan ere— BGAEek kudeatutako ondarea garrantzitsua da errenta nazional gisa: EAEko 2010eko BPGd-aren % 29,4, behin-behineko datuen arabera. Urte horretan bazkideek ordaindutako kuotak BPGd-aren % 2 dira eta Gizarte Segurantzaren kuota gisa ordaindutako funtsen % 22,6.

4.2. ARAUBIDE FISKALA

BGAEek EAEn izan duten garapen handiaren arrazoietako bat, neurri handi batean, zerga pizgarriak izan dira; izan ere, aurrezte bide horren erakargarritasuna areagotu dute, batez ere PFEZren bitartez (zenbakiko bazkideentzat), baina baita Sozietateen gaineko Zergaren bitartez ere (bai erakundeentzat eurentzat, bai enplegu planetan enpresa edo bazkide babesleen parte hartzea bultzatzeko). EAEn, zergari buruzko eskumenak lurralde historiko bakoitzeko foru aldundiak eta batzar nagusiek erabiltzen dituzte. Oro har zenbakiko bazkideak egindako ekarpenak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarritik ken daitezke[7]. Bestalde, errenta geroratutzat jotzen direnez, BGAEetatik jasotako prestazioak (baita erreskateak edo gertakizuna gertatu aurretik ordaindutako zenbatekoak) norberaren lanaren osoko

7 Ondarearen gaineko Zerga Bereziari dagokionez, bazkidearen eskubide irmoak zerga horren aitorpena aurkeztu behar den erabakitzeko baino ez dira zenbatzen, eskubide salbuetsitzat jo eta, beraz, haren zerga-oinarria osatu ez arren.

errendimendutzat jotzen dira, baita atxikipenari begira ere[8].

Zergak Koordinatzeko Erakundeak 2010eko bere txostenaren bidez emandako 2009ko PFEZren likidazio datuen arabera, BGAEei eta gainerako aurreikuspen formulei egindako ekarpenengatiko kenketa 1.200 milioi eurokoa izan zen, 2008an baino % 2,5 gehiago —hori EAEko urte horretako BPGd-aren % 1,87 zen, eta 2008an % 1,72 izan zen—, 502.000 aitortzailerentzat (aitortzaile guztien % 42,8), guztira, hau da, aurreko urtean baino % 3 gutxiago.

Horrek, batez beste, 2.392 euroko kenketa dakar, zenbateko hori aurreko urtekoa baino % 5,7 handiagoa dela. Hona hemen balioak: errenta mailarik txikienen (30.000 euro arteko likidazio-oinarria) batez besteko ekarpena 1.558 eurokoa izan zen, eta zergapekoen % 35,5ek baino ez zituzten ekarpenak egin; 30.000 eta 90.000 € arteko oinarria zuten zergapekoen batez besteko ekarpena 3.400 eurokoa izan zen, eta haietatik % 69,2k egin zituzten ekarpenak; eta errenta mailarik handienetan batez besteko ekarpena 9.200 eurokoa izan zen, eta zergapekoen % 69,7k egin zituzten ekarpenak.

IV.4.4. KOADROA. PFEZ-REN LIKIDAZIOA: PENTSIO-PLANETARAKO ETA BGAE-ETARAKO EKARPENENGATIKO ZERGA-OINARRI OROKORRAREN MURRIZKETAK

	Zenbatekoa (milaka €-tan)	Aitortzaileak		Batez besteko murrizketa (€)
		Kopurua	Guztiz-koaren g. %	
2007	1.199.980	513.222	45,2	2.338
2008	1.171.013	517.456	44,2	2.263
2009	1.200.570	502.000	42,8	2.392
07/08ko ALD. %	-2,4	0,8	-2,2	-3,2
08/09ko ALD. %	2,5	-3,0	-3,2	5,7

Iturria: ZERGA KOORDINAZIOKO ORGANOAren datuak erabilita egindakoa.

8 Hala ere, prestazioa kapital gisa jasotako kopurua bada, % 40ko kenketa dakar, eta errenta bada, aldiz, osorik sartzen da zerga-oinarrian.

V. KAPITULUA

Jardun araugilea EAEn

EAErako Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak azaltzen du EAEren eskumena dela gai jakin batzuetan legeria garatzea eta bere lurraldearen barruan estatuaren oinarrizko legeria betearaztea. Era berean, lege horrek adierazten du EAEko botereak Legebiltzarraren bidez, Eusko Jaurlaritzaren bidez eta lehendakariaren bidez gauzatuko direla, eta lurralde historikoek beren foru erakundeak estatutuan xedatutakoaren arabera edukiko eta antolatuko dituztela.

EAEko autogobernurako erakundeak indarrean sartzean, ezinbestekoa suertatu zen, Autonomia Estatutuan ezarritakoarekin bat etorriz, Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzaren antolaketari eta eskumenei buruzko legeak eta erakunde komunen eskumen maila eta lurralde historikoen eskumen maila arautzeko legeak onestea.

Eusko Jaurlaritzaren egitura, haren eskumenak eta Legebiltzarrarekin dituen harremanak finkatzeko helburuarekin, Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea onetsi zen. Besteak beste, legearen arabera, Gobernuak eskumen hauek ditu: legeak egiteko ekimena, lege proiektuak onetsiz eta Legebiltzarrari bidaliz; legegintzarako eskuordetzea, legegintzako dekretuen bidez; eta araudiak egiteko ahalmena, dekretuen eta aginduen bidez.

Gerora, Autonomia erkidegoko erakunde komunen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea aldarrikatu zen. Lege horrek Eusko Legebiltzarra izendatzen du lege lerruna duten arauak onesteko gaitasuna daukan erakunde bakar autonomi erkidego osoan, baldin eta lege horien gaia Autonomia Estatutuaren arabera autonomi erkidegoari badagokio eta estatutuak, lege honek edo ondorengo legeek ez badiete gaia lurralde historikoetako foru organoei esleitzen. Tradizio historikoarekin bat etorriz, lurralde historikoetako foru organoak Batzar Nagusiak eta Foru Aldundiak dira.

Era berean, lurralde historikoetako eskumenak arautzen ditu. Ezartzen duenez, beraien bakarreko eskumenekoak diren gaietan lurralde historikoei dagokie arauak egiteko ahalmena, bakoitzaren Batzar Nagusien foru arauen bidez.

Esparru honetan, **Eusko Legebiltzarrak,** bere funtzio legegilea betez, 2012an 19 lege onetsi zituen guztira, aurreko urteko kopuru bera.

Ekimen legegilea, hau da, prozedura legegilea martxan jartzeko gaitasuna, hauen proposamena izan daiteke:

- Legebiltzarreko taldeena, edo legebiltzarkide batena, beste lauren sinadura jasoz gero.
- Jaurlaritzarena.
- Lurralde historikoak ordezkatzen dituzten erakundeena.
- Herri ekimen legegilearena, EAEko 30.000 herritarren sinadurekin.

Ekimena Eusko Jaurlaritzarena denean lege proiektua izena jasotzen du; gainerako kasuetan, lege proposamena da.

Hona hemen Eusko Legebiltzarrak 2012an onetsitako legeen edukiaren laburpena:

- **Otsailaren 2ko 1/2012ko Legea, lehiaren euskal agintaritzari buruzkoa.**

EAEk lehen aldiz ezarri ditu lehiaren alde egiteko organoak, Lehiaren Defentsaren Euskal Auzitegia sortzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoan Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren eginkizunak esleitzeari buruzko apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuaren bidez.

Euskal organoak sortu zirenetik bildutako esperientzia eta esperientzia konparatua direla-eta, une egokitzat jotzen da Euskal Autonomia Erkidegoak nazioarte mailan hedatuen dagoen antolakuntza-eredua baliatzea, lehiaren defentsarako organoak dituzten autonomia erkidego gehientsuen bezala: arlo horrekin lotutako eginkizun guztiak independentziaz betetzen dituen organo bakarra.

Horregatik, Lehiaren Euskal Agintaritza sortu da legearen bidez, eta erakunde-eremua ematen dio.

- **Otsailaren 9ko 2/2012 Legea, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutuen 6/2003 Legea aldatu duena.**

EAEko gizarte errealitateak agerian utzi du euskarak azken hamarkadetan izan duen aurrerapena, eta horretarako, sustapen neurriak erabili dira funtsean hainbat eremutan. Gizarte esparru gehienetan gertatu dira aurrerapen horiek, herritarrei ondasunak eta zerbitzuak emateari lotutakoak barne, horretan diharduten enpresek eta subjektuek emandakoak.

Herri erakundeek eta jarduera publikoarekin lotutako gainerako erakundeek betebeharrak dituzte hizkuntzaren aldetik, hain zuzen ere Euskararen Erabileraren Normalizazioari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Legean xedatuak, eta lege horren arabera hainbat neurri xedatu izan dira. Hala ere, inposizio horietatik harago, hizkuntza betebehar horiek direla-eta sektore pribatua zigortzeko posibilitateak euskararen kontrako jarrera finka dezake eta, etorkizunean, haren erabilera pixkanaka gutxitu.

Gizarteak euskararen erabileraren inguruan dagoeneko egin dituen aurrerapen horiek goranzko bilakaerari eutsi diezaioten, zigorrak xedatzeko mekanismoekin batera, neurriak ezarri behar dira, herritarrek edozein hizkuntza koofizial arlo horretan erabiltzeko aukera indartzeko, ildo horretan aurrera egiteko sustapen-neurriak bideratu beharra ezarriz.

- **Otsailaren 16ko 3/2012 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea eta EMAKUNDE sortzeari buruzko Legea aldatu dituena**

Emakundek gauzatu izan ditu lehenago Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Defendatzaileari ezarritako eginkizunak eta, aldi berean, bat datoz erakunde autonomo horrek eratxikita dituen funtzioekin.

Ondorioz, eskumenen inguruko gatazkak saihesteko, funtzioak bikoiztu ez daitezen eta administrazio-egiturak zentzu handiagoz erabiltzeko, onetsi egin da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta Emakunde sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legea aldatzeko araua, defendatzaile hori kendu eta haren edukiak eta funtzioak aipaturiko erakundearen baitan biltzeko.

- **Otsailaren 23ko 4/2012 Legea, Lan Harremanen Kontseiluari buruzkoa**

Lan Harremanen Kontseiluak, ekainaren 27ko 11/1997 Legearen babesean, oso esperientzia positiboa garatu du sindikatuen eta enpresa konfederazioen arteko etengabeko elkarrizketarako eta kontsultarako organoa den aldetik. Bereziki, oso garrantzizkoa izan da Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren lanaren arloko erakunde aholku-emaile gisa egin duen lana. Lege berriak organo hori izatea bultzatu du, baita haren funtzioak mugatzeko eta funtzionamendua hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren zenbait erreforma sartzea ere.

Funtsezko aldaketetako bat kontseiluak aholku-lana burutuko duen arloen zehaztapena da; lan-esparrua mugatuko du. Era berean, handitu egin dira aholkularitza lan horiek garatuko direneko arau-lerruna eta xedapenak.

- **Otsailaren 23ko 5/2012 Legea, borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeei buruzkoa**

Arlo horretan duen eskumen esklusiboaren itzalpean, Eusko Legebiltzarrak urriaren 27ko 25/1983 Legea onetsi zuen, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzkoa. Legearen lehentasunezko helburuak eta informazio-oinarriak jarduteko askatasuna eta erakundeok garatzea ziren, baita uneoro pertsona elkartuen eskubideak zaintza ere. Lege hori, garai batean, arloari buruzko lehenbiziko araupetze autonomikoa izan zen, eta EAEn erakundeok sortzeko eta ondoren egoki garatzeko balio izan du, fruitu ugari ekarri ditu.

Legeak egoki bete ditu legegileak eskumena garatu beharra bere gain hartzean ezarri zituen helburuak, alde sozialetik, juridikotik, ekonomikotik eta finantzariorik. Izan ere, eskumen hori erabiltzeak berekin zekarren orduan beharrezko laguntzarik ez zuen arau-eremu bat estaltzea.

Alabaina, legea sortu zenetik igarotako urteetan, sektorearen aldaketa naturalaz gain, gertaera garrantzizkoak jazo dira estatu eta EB mailan. Ondorioz, komenigarria zen legeria autonomikoaren erreforma sakona egitea.

Legearen asmoa gizarte aurreikuspena euskal herritarren artean bultzatzea eta orokortzea da, bereziki sistema kolektiboak eta lanekoak sustatuz, baita araudia argitzea eta eguneratzea ere, betiere hurreneko legerian estatu mailan nahiz EB mailan sortuz joan diren kontzeptuak eta arauak ezarriz.

- **Martxoaren 1eko 6/2012 Legea, honako hauek aldatu dituena: EAEko Ogasun Nagusia eraentzeko oinarrien legearen testu bategina, Euskal Autonomia Erkidegoko kontrol ekonomikoari eta kontabilitateari buruzko legea eta Herri Kontuen Euskal Auzitegiaren Legea, gehienbat Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak partaideturiko edo finantzaturiko erakundeak arautzeko**

Euskal Autonomia Erkidegoaren eta erkidego honetako sektore publikoko Zuzenbide Administratiboko gainerako erakundeen administrazioa, maiz, erakundeen erabilera instrumentalaren bidez gauzatzen da, eta zuzenbide pribatuak eraentzen du gauzatze hori.

Ildo horretan, 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsitako Euskal Herriko Ogasun Nagusia Eraentzeko Oinarriei buruzko Legearen testu bateginaren 7.4. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeak bildu dira. Bertan sartzen dira administrazio orokorra, erakunde autonomoak eta zuzenbide pribatuko izakin publikoak, baita zenbait baldintza betetzen dituzten merkataritza sozietateak, fundazioak eta partzuergoak ere, sozietate kapitalean edo zuzendaritza organoetan gehiengoa izatea adibidez. Horrek agerian uzten du erakundeok kontrol politikoaren mende daudela, azken finean Euskal Autonomia Erkidegoak erakundeotan duen kontrola. Hori dela-eta legitimatua dago testu bateginak eta Euskal Herriko Ogasun Nagusiko beste lege batzuek zenbait arlotan aplikatu beharreko araubidea garatzea, hala nola aurrekontuak egitea, onestea eta aldatzea, zorpetzea edota barne kontrola.

Ahal den neurrian hainbat administrazioren kontrolpeko erakundeen izaerarako eta helburuetarako egokia den araubidea finkatzeko asmoz, honako hau aurreikusteko aukera egin du legeak: administrazio partaideek ogasunaren arloetan aplikatu beharreko araubidea erabakitzea, eta parte hartzeko aurretiazko baldintza izan daiteke akordio hori izenpetzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sektore publikoari dagokionez.

Halaber, parte hartzeko erabakia hartzeko prozeduraren gutxieneko beharkizunak arautu dira, parte hartze egokia eta zuzena dela bermatzeko. Era berean, laguntzen eta diru-laguntzen xedeari eta garrantzi erlatiboari erreparatuta, komenigarria da kontrol ekonomiko finantzarioaren eta kudeaketa kontrolaren norainokoaren muga handitzea, gehienbat Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak finantzaturiko kasuak direnean, erakundearen jarduera ekonomiko osora hedatu ahal izateko. Zabalkuntza hori tartean den interes publikoaren alde egiteko kontrol zabalagoaren beharraren araberakoa izango da, ezarritako mugetatik harago joan barik. Barne kontrolaren aldaketarekin bat etorrita, Herri Kontuen Euskal Auzitegiak eginiko kanpoko kontrolaren norainokoa ere aldatzen da.

- **7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa**

Europako Batasunaren eratze-itunek merkantzien, pertsonen, zerbitzuen eta kapitalen zirkulazio askea bermatzen dute barne mugarik gabeko gune batean, hots, barne merkatuan.

Lisboako estrategiaren eremuaren baitan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/123/EE Zuzentaraua onetsi zen 2006ko abenduaren 12an, barne merkatuko zerbitzuei buruzkoa (hemendik aurrera Zerbitzuen Zuzentaraua). Urte bereko abenduaren 28an jarri zen indarrean. Estatu kide bateko pertsona fisiko eta juridiko nazionalak beste estatu kide batean finkatzeko askatasuna dakar zerbitzuen barne merkatuak , baita zerbitzuak emateko askatasuna ere zerbitzuak ematen diren estatu kidean finkatu beharrik izan gabe.

Zuzentarau hori aplikatzeak betebeharra ezarri du zuzenbide komunitarioa den aldetik. Gainera, aukera ematen du sakon berritzeko ekonomia komunitarioaren maila ezberdinetarako hain garrantzitsua den sektorea, eta funtsezko tresna da zerbitzuen sektoreak Europan duen ahalmena osoa desblokeatzeko.

Zerbitzuen Zuzentarauaren xedea Europako Batasunean zerbitzuen benetako merkatu bakarra lortzea da, arau-eremu gardena, aurreikusteko modukoa eta jarduera ekonomikorako eta estatu kideetan finkatzeko eta zerbitzuak emateko askatasunerako, baita justifikaziorik gabeko edo neurriz kanpoko trabak desagerraraztea eta prozedurak erraztea ere. Azken finean, estatu kideen arteko elkarrekiko konfiantza eta barne merkatuan zerbitzuak ematen dituzten eta kontsumitzen dituzten pertsonen arteko konfiantza sustatu nahi da.

- **Maiatzaren 17ko 8/2012 Legea, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearena**

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak frogatu duenez, gardentasunez jokatzen du eta baliagarria da Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako politikaren arloko interes ekonomiko eta sozialetan parte hartzeko eta topagunea izateko.

Horrexegatik, erakundea sendotzeko, komenigarri iritzi zaio eraginkortasuna hobetzeari, orain artean bere funtzioak, eraketa eta funtzionamendua arautu izan dituen araudian zenbait aldaketa sartuta.

Bere funtzioei dagokienez, beharrezkotzat jo da bere eskumenak mugatzea Lan Harremanen Kontseiluak dituenekiko; izan ere, horren eskumenen ardatza lanaren arloa da berariaz.

Eraketa dela-eta, zehatzago mugatzen dira hirugarren taldea osatzen duten pertsonak, eta gizarte ekintzaren hirugarren sektorea izenekoaren ordezkaritza bat sartu da. Gainera, adituen laugarren taldeari eutsi zaio, eta kasu honetan lehentasuna izango dute unibertsitatearen arlotik datozenek, baina jarraipena izango du aurreko araudian ezarritakoak: hizpide eskubidea izango dute baina hautespiderik ez.

Eraketari dagokionez, eta erakunde-partaidetzarako organo garrantzitsu horren funtzionamendu eraginkorra bermatzeko, beharrezko neurriak ezarri dira organoko kide izateko eskubidea duten erakundeen balizko erabakiek -eskubide hori erabili ezean- kalte egin ez diezaioten gainerakoek funtzionamendu hartarako duten eskubide legitimoari.

Erakundeko presidentea izendatzea denaz bezainbatean, Batzordean boto eskubidea duten kideek hasieran onesteko aukera hautatu da, eta horretarako beharrezko adostasunik egon ezean, lehendakariak hautatzeko modua ezartzea.

Idazkaritzari dagokionez, hautazkoa izateari utzi dio, eta lege berrian xedatu denez, nahitaezkoa izango da, baita hari eratxikitako eginkizunak ere.

Azkenik, Batzordearen osoko bilkurak erabakiak hartzeko araubidea erraztu eta batzordeen araubidea argitu da. Berrikuntza gisa, lanean lagungarri izan

dezaketen kanpoko adituak izendatzeko aukera ematen zaie batzordeei.

- **Maiatzaren 24ko 9/2012 Legea, Nekazaritza eta Elikaduraren Politikarako Legea aldatzeari buruzkoa**

2008ko abenduaren 31ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean, Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legea onetsi zen. Indarrean jarri zenetik zenbait hilabete igarota, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko barne merkatuko zerbitzuei buruzko 200/123/EE Zuzentarauan xedaturikoa ikusita, xedapenaren testuan hainbat aldaketa egin behar izan dira.

- **Maiatzaren 30eko 10/2012 Legea, gobernuaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen erreformari buruzkoa**

Eusko Legebiltzarrak euskal kargudun publikoaren estatuari buruz 2010eko apirilean emandako ebazpenean hainbat aldaketa bildu dira, eta Eusko Jaurlaritzaren sailburuen estatuari dagokionez, 7/1981 Legea aldatu beharra dago, funtzio horiek bete izan dituztenek bizi arteko pentsioa izateko eskubidearen araudi berria ezartzeko.

Egungo gizarte eta ekonomiaren testuinguruan, eskubide hori berraztertu beharra dago, etorkizunari nahiz pentsioa jasotzen ari direnen egoera iragankorrari dagokionez.

- **Ekainaren 14ko 11/2012 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki kutxei buruzkoa**

Lege honen xedea Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza nagusia duten aurrezki kutxak arautzea da, baita EAEtik kanpora egoitza nagusia duten aurrezki kutxek EAEn buruturiko jarduketak ere.

Lege horretan, denboraren joan-etorriarekin eta gobernu organoei eta aurrezki kutxen araubide juridikoaren beste ezaugarriei buruzko 11/2010 Errege Lege-dekretuan ezarritako oinarrizko araudi berriaren ondorioz sortutako beharrek eragindako arau berriak sartu dira, baita finantza sektorearen saneamenduari buruzko otsailaren 3ko 2/2012 Errege Lege-dekretuan ezarritakoaren ondoriozkoak ere.

- **Ekainaren 21eko 12/2012 Legea, kirolean dopatzearen kontrakoa**

EAEk eskumen esklusiboa du kirolaren arloan. Eskumen horren itzalpean, otsailaren 19ko 5/1988 Legea onetsi zuen Legebiltzarrak, Kultura Fisikoari eta Kirolari buruzkoa. Lege testu horretan ez zen dopatzea arautu. Kirolean izaten ari den eraldaketa-prozesu bizkorra dela-eta, lege horren ordez indarrean dagoen ekainaren 11ko 14/1998 Legea eman behar izan zen. EAEko Kirolari buruzko lege horrek bai arautzen du dopatzearen eremua.

14/1998 Legearen V. Kapituluko VII. Titulua, oso-osorik, dopatzeari buruzkoa da. Kapitulu horretaz gain, dopatzearen arazoaren gaineko hainbat ezarpen bildu ditu gainerako artikulatuak. Nahiz eta legea lehen urrats garrantzitsu izan EAEk dopatzearen gaitzaren kontrako borroka arautzeko araudi propioa izan dezan, hura onetsi zenetik igarotako denborak agerian utzi ditu estatu eta nazioarte mailako antolaketa eraldaketa eta araudi garrantzitsuak, eta arazo berriak agertu dira.

Alde batetik, tradizioz kirol federazioen inguruan egitaraturiko kirol ekitaldiak nabarmen merkantilizatu dira eta federazio antolakuntzarekin zerikusirik ez duten erakundeek antolatzen dituzte. Baina horientzat ez zegoen ezarrita dopatzearen kontrako borroka.

Bestalde, nahiz eta dopatzearen inguruko jardunak beti izan diren kirol etikaren funtsezko oinarrien urraketa, dopatzea gaur egun ez da soilik kirol engainu larria; antolaturiko kirol jardun arriskutsu bihurtu da, eta oso arriskutsuak izan daiteke osasun publikorako, bereziki kirolarien bizirako. Dopatzeak kirol etikaren eta kirolaren banako osasunaren eremu esklusiboa gainditu eta osasun publikorako benetako arazo bihurtu da. Dopatzea ez da kirolarien banakako eta bakarkako jardunen adierazpena, baizik eta interes ekonomiko handiak dituzten azpijoko antolatuen araberako jarduna.

- **Ekainaren 28ko 13/2012 Legea, euskal unibertsitate sistemaren kalitatearen agentziari buruzkoa -UNIBASQ-**

Unibertsitateen Lege Organikoan ezarrita dagoenenez, unibertsitate politikaren funtsezko helburuetako bat unibertsitateen kalitatea sustatzea eta bermatzea da. Lege horretan bertan, unibertsitate jarduera ebaluatzeko agentziak ezarri dira ebaluazioa egiteko erakunde arduradun.

EAEn, irakaskuntzari buruzko eskumenen arabera, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legea onetsi da (EHAAren 50 zk., 2004ko martxoaren 12koa). Horren 79. artikuluan, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatzeko eta Egiaztatzeko Agentzia sortu du, eta 2005eko apirilaren 4an jarri zen abian bere Administrazio Kontseilua eratuta.

Eusko Sistemaren Kalitatea Ebaluatzeko eta Egiaztatzeko Agentzia Europako irizpide eta jarraibideei egokitzeko, ezinbestekoa da legea aldatzea, agentziarentzako beren beregiko lege baten bidez.

Hala, agentziaren independentziari buruzko irizpidea beteko da, gobernurako eta ebaluaziorako funtzioak bereizita, eta agentziak hezkuntza agintariei aholkuak emateko organo gisa duen eginkizuna indartuko da goi mailako hezkuntzaren arloko kalitatea bermatzeari dagokionez.

Egungo araudia abiapuntu hartuta, zenbait berrikuntza ezarri dira, goi mailako hezkuntzako Europako gunean kalitatea bermatzeko irizpide eta jarraibideekiko konpromisoa erakusteko.

- **Ekainaren 28ko 14/2012 Legea, genero-nortasunaren ziozko diskriminaziorik ezari eta transexualen eskubideen aintzatespenari buruzkoa.**

Autonomia Estatutuan ezarrita dagoenez, euskal herri botereek herritarren funtsezko eskubideak zaindu eta bermatu behar dituzte, baita gizarteko banakoen eta taldeen berdintasun eta askatasunerako eskubideak eraginkor eta benetakoak izateko, eragozpenak desagerrarazteko eta baldintza egokiak sustatzeko beharrezko neurriak hartzeko ere. Hartara, herritar guztiek EAEko politikan, ekonomian, kulturan eta gizartean parte hartzea erraztuko dute.

Autonomia Erkidego honek hainbat arlotako eskumenak ditu onetsita, Autonomia Estatuaren I. Tituluan bilduak eta transexualei dagozkienak, hala nola adingabeak babesteko eta zaintzeko erakundeen eta establezimenduen antolaketa, araubidea eta funtzionamendua (10.14. artikulua); barne osasuna (18.1. artikulua), eta, bereziki, gizarte laguntza (10.12. artikulua). Hortaz, beren beregi aipatu behar da zuzenbide positiboan giza nortasuna askatasunez eta diskriminaziorik gabe garatzeko eskubidea eta, zehazki, genero nortasuna, zertarako-eta Euskal Autonomia Erkidegoaren ordenamendu juridikoaren interpretazioan eta aplikazioan inor diskriminatzeko transexuala izateagatik.

Lege honen helburua gizakien inguruabar edo ezaugarri pertsonal edo sozialen ondoriozkoak diren eta legedian dirauten diskriminazio guztiak gainditzen laguntzea eta aurrera egitea da, bai eta bereizkeriarik ezaren, nortasunaren garapen askearen eta pertsona, familia edo taldeen babes sozial, ekonomiko eta juridikoaren printzipio konstituzionalen garapen arauemailea hobetzea ere, araudi aplikagarria bizi dugun une historiko honetako gizarte-errealitatera egokituz."

- **Ekainaren 28ko 15/2012 Legea, Euskadiko segurtasun publikoaren sistemaren antolamenduari buruzkoa**

Legearen xedea Euskadiko segurtasun publikoaren sistema konfiguratzea da, Herri Administrazio ezberdinen eskutik partaidetuta eta osagarritasunaren, lankidetzaren, koordinazioaren, laguntzaren, elkarrekiko informazioaren eta erakundeen leialtasunaren printzipioak oinarri hartuta.

EAEk ordenaren eta segurtasun publikoaren arloko eskumenak ditu eta, horiek direla bide, Euskadiko segurtasun publikoa modu integralean kudeatzen du, Estatutuan bertan bildutako komunitatez gaindiko edo kanpoko gaietan izan ezik.

Gure Autonomia Erkidegoak segurtasun publikoaren arloko ordenamendu espezifikoa ezarri zuen joan den mendeko azken hamarkadan, eskumen ahalbide hori erabiliz, baita segurtasun publikoarekiko zuzeneko lotura duten beste eskumen titulu espezifiko batzuk ere, funtsean tradizioz politika bereziko jarduera gisa eratu direla-eta. Modu horretan arau hauek aldarrikatu ziren: Euskal Herriko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legea; Larrialdien kudeaketarako apirilaren 3ko 1/1996; Ikuskizun publikoen eta aisia-jardueren azaroaren 10eko 4/1995 Legea; edo Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoak arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legea, besteak beste.

Denborak aurrera egin ahala izandako esperientzia dela bide, segurtasun publikoarekin zerikusia duten osagai nahiz arloko politika ezberdinen arteko konexioak eta sinergiak badaudela antzeman ahal izan da eta hori agerian utzi, nabarmendu eta koordinatu egin behar da.

Horrexegatik, EAEko segurtasun publikoaren arau-sistema berrantolatu beharra dago, baina segurtasun publikoaren gaineko ikuspegi jakin bat izan behar da abiapuntu, hainbat azpisistematako oinarriak eta partekaturiko zenbait elementu bilduta.

- **Ekainaren 28ko 16/2012 Legea, EAEko ekintzaileei eta enpresa txikiei laguntzeari buruzkoa**

Espainiako Konstituzioak enpresarako askatasuna aitortzen du merkatu ekonomiaren eremuan, baita botere publikoek bermatu eta babestu beharra ere, ekonomia orokorraren eskakizunen eta, hala denean, horren plangintzaren eskakizunen arabera.

Autonomia Estatutuak eskumen esklusiboa ematen dio "EAEko jarduera ekonomikoaren sutapenaren, garapen ekonomikoaren eta plangintzaren arloan, ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera". Era berean, artikuluaren 30. idatz-zatian, eskumen esklusiboa ezarri dio Autonomia Erkidegoari arlo honetan: "Industria, segurtasun, interes militar eta sanitarioa dela-eta araua bereziak dituzten industrien instalazioa, handitzea eta leku-aldaketa izan ezik, baita funtzio horietarako legeria espezifikoa behar dutenak eta atzerriko teknologia transferitzeko aurretiazko kontratuak behar dituztenak ere. Industri sektoreen berrantolaketan, Estatuak ezarritako planak garatzea eta betearaztea dagokio Euskal Herriari".

EAEko ekintzaileei eta enpresa txikiei laguntzeko lege horrek –Europako araudiaren "think small first" printzipioa oinarri hartuta- ekintzailetza bultzatu nahi du, zentzurik sakonenean, hots, pertsonaren jokabideak, lehentasunak eta ahalmena. Horretarako, izaera hori definitzen duten balioak indartu behar dira.

Hala, gizarte osoaren aurrerapen soziala eta ekonomikoa erraztuko da, bereziki baliabide eta aukera gutxien dituzten sektoreena. Bestalde, pizgarrien sistema egokia ere sortu nahi du, ideiak eta haien ekintzailetzarako gaitasuna izapidetzeko balioa sortzen duten jardueretan.

- **Ekainaren 28ko 17/2012 Legea, Kazetarien Euskal Elkargoa sortzeari buruzkoa**

Autonomia Estatutuak lanbide elkargoen eta tituludun lanbideen erabileraren gaineko eskumen esklusiboa eratxiki dio EAEri, Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan xedatu denari kalterik egin gabe. Hori dela bide, azaroaren 21eko 18/1997 Legea eman zen, tituludun lanbideak egiteari eta lanbide elkargoei eta kontseiluei buruzkoa. Horren 29. artikuluan ezarri denez, lanbide elkargo berriak sortzeko Eusko Legebiltzarraren legea beharko da, nahikoa ordezkarik eskatuta eta interesa duten profesionalek behar bezala egiaztatuta.

Espainiako Konstituzioak dioenez, herritar orok du egiazko informazioa edozein hedabideren bidez komunikatzeko edo jasotzeko eskubidea; oinarrizko eskubide hori ez da benetan babestuta egongo autokontrolerako sistemarik ez badago informatzaileen lanbide jardunean eta lanbidean botere publikoen eta enpresa botereen aurrean duintasunez aritzea bermatzen duten erakunderik ez badago.

Interes publikoaren ikuspegitik, kazetarien lanak eragina du oinarrizko eskubideetan, hala nola azaldutako informaziorako eskubidean eta intimitateari buruzkoan. Beraz, justifikatuta dago kazetarien euskal elkargoa sortzea, eta bertako kidea izatea borondatezkoa bada ere, beharrezko jakintza eta titulu nahikoa duten eta lanbide horretan diharduten nekazariak bilduko ditu.

Kazetarien euskal elkargoa zuzenbide publikoko erakunde gisa sortzea baliagarria izan daiteke, gainera, EAEko kazetarien adierazpen askatasunaren arloko lana handitzeko eta sendotzeko.

- **Ekainaren 28ko 18/2012 Legea, EAEko ekonomialariak eta merkataritzako titularrak elkargoan bat egiteari buruzkoa**

Autonomia Estatutuak lanbide elkargoen eta tituludun lanbideen erabileraren gaineko eskumen esklusiboa eratxiki dio EAEri, Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan xedatu denari kalterik egin gabe.

Eskumen hori erabiliz, azaroaren 21eko 18/1997 Legea onetsi zuen Eusko Legebiltzarrak, Lanbide Tituludunak eta Lanbide Elkargo eta Kontseiluen erabilerari buruzkoa.

Ekonomialarien Euskal Elkargoak eta Bizkai, Gipuzkoa eta Arabako merkataritza titularren elkargo ofizialek bat egitea erabaki dute, horien guztien batzar nagusiek hartutako erabakiaren bidez.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomialarien eta merkataritza titularren elkargo erakundeak bat egitea xedatu da.


Eraginkorra izan dadin, egungo Ekonomialarien Euskal Elkargoak bere eremua handitu du, merkataritza titularraren lanbidea eta merkataritza titularrak bere baitan biltzeko, halako moldez non EAEko elkargo bakarra izango baita ekonomialarientzat eta merkataritza titularrentzat.

- **Abenduaren 28ko 19/2012 Legea, 2013ko aparteko ordainsarien neurriei buruzkoa**

Aurrekontu-arauen gaineko ordenamendu berezia da lege hori, 2013ko aurrekontu-ekitaldirako. Izan ere, horien bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoko pertsonalaren aparteko ordainsariak jasotzeko era ezarri da.

Azkenik, zergak finkatzeko eta kontu publikoen iraunkortasuna lortzeko prozesuak behar dituen presazko eta ezohiko neurrien testuinguruan jardun da. Neurrion bidez, sektore publikoko pertsonalaren gastua zentzuz erabili eta murriztu nahi da, eta horren ondorioz, sektore publikoan kontuan hartzen diren ordainsariak murrizteko ahaleginak egin dira 2012ko ekitaldian, aurrekontuen egonkortasunerako bermea eta lehiaren sustapena uztartzeko xedez.

V.I.1. GRAFIKOA. EUSKO LEGEBILTZARRAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN LEGEGINTZA JARDUERA



Iturria: EHAEko datuetatik landutakoa.

Euskal EGABk, Eusko Legebiltzarraren kontsulta-erakundea denez, gero, 2012an onartutako legeetako zortziri buruzko iritzia eman zuen:

- 8/10 Irizpena, Lehiaren Euskal Agintaritzaren Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.
- 1/11 Irizpena, Borondatezko Gizarte Erakundeen Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.
- 13/10 Irizpena, hainbat lege Europako Parlamentuak eta Kontseiluak barne merkatuko

zerbitzuei buruz emandako abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentarauari egokitzeko Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.

- 15/11 Irizpena, EGABen Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.
- 2/11 Irizpena, Nekazaritza eta Elikaduraren Politikarako Legea aldatzeko legearen aurreproiektuari buruzkoa.
- 10/11 Irizpena, kirolean dopatzearen kontrako Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.
- 12/11 Irizpena, Transexualen Arreta Integralerako Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.
- 6/11 Irizpena, gizarte segurtasun publikoaren sistema antolatzeko Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, arauak egiteko duen ahalmena erabiliz, guztira 450 dekretu onetsi zituen 2012an.

Euskadiko EGABk, Jaurlaritzaren erakunde aholku-emailea den aldetik, 2012an onetsitako dekretuetatik 15i buruzko ebazpena eman zituen. Honako hauek:

- 12/12 Irizpena, EAEko kutsadura akustikoaren Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 22/12 Irizpena, EAEko enpresen eta turismo establezimenduen xedapen arau-emaileen aldaketaren Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 20/12 Irizpena, turismo aterpetxeen antolamenduaren Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 21/12 Irizpena, EAEko kanpinen eta kanpatzeko turismoko beste modalitate batzuen antolamenduaren Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 26/12 Irizpena, gizarte bazterkeria baloratzeko tresna onetsi duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 25/12 Irizpena, gizarte zerbitzuen euskal sistemaren gizarte diagnostikorako tresnaren eta gizarte fitxaren eredua onetsi dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 27/12 Irizpena, Elkarrizketa Zibileko Mahaia eratu eta arautzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 10/12 Irizpena, foru aldundiek adinekoen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduketa prozedura arautu duen Proiektu Dekretuari buruzkoa.
- 09/12 Irizpena, bizitza osoan zehar ikasteari buruzko jarduketak egiteko laguntzak arautu dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 14/12 Irizpena, ingurumen-laguntzarako erakundeak arautu eta EAEko ingurumen-lankidetzarako erakundeen erregistroa sortu duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 19/12 Irizpena, EAEko gizarte esku-hartzearen arloko hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautu dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 7/12 Irizpena, EAEko lanbide heziketarako ikastetxe integratuak arautu dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 17/12 Irizpena, EAEko ezintasun intelektuala duten biztanleen aho-hortzetako osasun arretaren Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 18/12 Irizpena, gizarte zerbitzuetako irabazteko asmorik gabeko erakundeak gizarte interesekotzat hartzearen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 24/12 Irizpena, EGABen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 23/12 Irizpena, erabiltzaileek gizarte zerbitzuen euskal sistemako zerbitzuen finantzaketan parte hartzeko irizpide orokorren Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 13/12 Irizpena, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren kontzertu-araubidearen Dekretu Proiektuari buruzkoa.


Lurralde Historikoetako batzar nagusiei dagokienez, aurreko urtekoaren oso antzekoa izan da 2012. urteko jardun araugilea, onetsitako foru arauen bidez neurtua hain zuzen.

Zehazki, Araban 29 foru arau onetsi ziren 2012an, aurreko urtean onetsitako 19ak baino gehiago.

Gipuzkoan ere antzera: 39 arau onetsi ziren; 2011n, berriz, 7 berretsi ziren.

Alabaina, 2012an 9 arau onetsi ziren Bizkaian, aurreko urtean baino pixka bat gehiago: 5 onetsi ziren aurreko urtean.

V.I.2. GRAFIKOA. LURRALDE HISTORIKOETAKO BATZAR NAGUSIEK ONETSITAKO FORU ARAUAK



Iturria: Geuk landutakoa, Bizkai, Gipuzkoa eta Arabako lurralde historikoetako aldizkari ofizialak oinarri hartuta

Laburpena eta gogoetak

1. ERREFERENTZIA-ADIERAZLEETAKO SINTESIS-A

1.1. EAE-KO JARDUERA EKONOMIKOA GARATZEKO BALIABIDEAK

1.1.1. Demografia eta inmigrazioa

VI.1.1. KOADROA DEMOGRAFIA ETA IMMIGRAZIOA EAE-N. ERREFERENTZIAKO ADIERAZLEAK.

	EAE		ESTATUA	EB27
	2005	2011	2011	2011
Populazio bolumenaren aldakuntza tasa	0,4	0,3	0,9	2,6
Mendekotasun ratioa*	43,6	48,3	47,4	49,6
Atzerritarren %	3,4	6,6	12,2	6,6
Migrazio saldoa / 1.000 biztanle	6,3	6,9	-0,9	1,8

Iturria: EUSTAT, EUROSTAT eta EINren datuekin eginikoa.
**65 urtetik gorakoen eta 16 urtekoen baturaren eta lanerako adinean (16-65 urte) daudenen arteko zatidura.*

1.1.2. Hezkuntza eta hezkuntza promozioa

VI.1.2 KOADROA HEZKUNTZA SISTEMA. ERREFERENTZIAKO ADIERAZLE NAGUSIAK

Emakumeak profil teknikoko familietan duen partaidetza ratioa, 2011-2012	LH Maila Ertaina			LH Goi Maila		
Elektrizitatea eta elektronika	4,7			5,8		
Fabrikazio mekanikoa	5,0			11,3		
Informatika eta komunikazioak	11,4			19,3		
Instalazioa eta mantentzea	2,3			6,4		
	EAE			Estatua		
Hezkuntza administrazioen gastuaren %, 2010eko BPGaren gainean	4,32			4,35		
HEZKUNTZA HELBURUAK EUROPAN 2020	EGOERA 2011			HELBURUA 2020		
	EAE	ESPAINIA	EA	EAE	ESPAINIA	EB
Haur hezkuntzako (4 urte) partaidetza	100	99,4	92,3	100	99,8	95
Titulazioa DBH	88,5	74,1	-	90	85,2	-
Eskola uzte goiztiarra	13	26,5	13,5	8,6	14,8	10
Goi mailako hezkuntzako titulazioa (30-40 urte)	61,3	40,6	34,6	68	45,8	40
Prestakuntza bizitzan (25-64 urte)	12,9	10,8	8,9	17	15,2	15

Iturriak: EUSTAT, EUROSTAT, MEC, INEE.

1.1.3. I+G+b IKT jarduerak

VI.1.3. KOADROA ADIERAZLE NAGUSIAK

	EAE		ESTATUA	EB27	Europako helburua
	2005	2011	2011	2011	
I+G-ko gastua/BPG (%)	1,82	2,04	1,33	2,03	%3
Sektore pribatuak eginiko gastuaren %	78,6	76	52,1	60,8	-
Sektore publikoak eginiko gastuaren %	3,8	6,1	19,5	13,7	-
Sektore pribatuak finantzaturiko gastuaren %	60,7	54,3	44,3	54,6	%66
Berrikuntza-adierazleen Europako panela: adierazlearen balioa	-	0,46	0,41	0,54	-
16-74 urteko kideetako batek gutxienez etxetik interneten sartzeko modua duten familien %	41,4	67,5	68	76	-

Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, EIN

1.1.4. Natura-ingurunearen egoera EAE-n

VI.1.4 KOADROA ADIERAZLE NAGUSIAK						
	EAE		ESTATUA	EB27	Helburua EAEn	Europako helburua
	2006/07	2010/11	2010/11	2010/11		
NEGen emisioak (1990. urtearekiko aldaketa)	+22-	+1,8	22,8	-11	+14*	+15 Espainiarentzat
Energia berriztagarriek azken energi kontsumoan duten kuota	%6,2	%7	%12	%10	-14**	%20
Ekonomiaren energi intentsitatea 2000ko datuekiko	91	85	85,6	89,7	-	-
Ingurumen babesaren gastua eta inbertsioa industri enpresetan, BPGaren gainean	0,38	0,33	-	-	-	-

**** Nahiz eta autonomia erkidegoentzako helbururik ez dagoen, Klima Aldaketaren Kontrako Borrokarako 2008-2012ko Euskal Planean, EAEn emisioak mugatzeko borondatezko helburua ezarri da aipaturiko epealdian, halako moldez non ez baitira %14 baino gehiago gaindituko oinarriko urtekoak***
***** 2020ko Euskadiren Energia Estrategiaren arabera***
Iturria: EUROSTAT eta EEE

1.2. EKONOMIA EAE-N

1.2.1. Egoera ekonomikoa

VI.1.5 KOADROA ADIERAZLE NAGUSIAK						
	2011			2012		
Munduko merkataritzan aldakuntza tasa	6,0			2,5		
Munduko PBGaren (benetakoa) aldakuntza tasa	4,0			3,2		
	EAE		EB27		ESTATUA	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012
Per capita BPG (1)	-	-	100	100	99	98
BPGaren (benetakoa) aldakuntza	+0,5	-1,2	1,6	-0,3	0,4	-1,4
Produktibitatea	1,3	1,4	1,3	0,1	2,0	2,9
	EAE		EUROGUNEA		ESTATUA	
	2011	2012	2011	2011	2012	2011
Azken kontsumo pribatuaren benetako aldakuntza	0,3	-1,0	0,1	-1,2	-0,8	-2,2
FBCFren benetako aldakuntza	-1,8	-5,4	1,6	-3,9	-5,3	-9,1
Esportazioen benetako aldakuntza	5,5	-5,2	6,5	2,9	7,6	3,1
Inportazioen benetako aldakuntza	4,0	-6,4	4,4	-0,9	-0,9	-5,0

(1) PPS, EB27=100
Iturria: EUSTAT, EIN, EUROSTAT

VI.1.6. KOADROA ADIERAZLE NAGUSIA. EAE		
	2008	2012
Establezimendu kopurua	203.911	184.471
Establezimenduen guztizko enplegua (Iturria: DIRAE)	942.479	873.121
Batez besteko enplegua	5,1	5,3
Industriaren BEG/BPG (mila eurotan)	24,5	22,0
Eraikuntzaren BEG/BPG (mila eurotan)	9,2	7,1
Zerbitzuetako BEG/BPG (mila eurotan)	56,5	61,6

Iturria: EUSTAT

1.2.2. Sektore Publikoa

VI.1.7. TAULA. EAE-REN SEKTORE PUBLIKOA. ERREFERENTZIAKO ADIERAZLEAK.

	Aldak. %. Itundutako zerga-bilketa	Aurrekontu-defizita SPV*		Zorpetzea SPV**	
		Aldak. %	BPGaren gaineko %	Aldak. %	BPGaren gaineko %
2010	+8,4	-31,5	2,7	+49,6	9,9
2011	-1,9	-52,7	1,3	+17,8	11,2
2012	-0,6	-42,8	0,7	+13,8	12,7

** Finantzaketa beharra. **
** Zor bizia urtearen amaieran.*
Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzaren datuekin landutakoa.

1.2.3. Lan merkatua

VI.1.8. KOADROA ENPLEGUA:ERREFERENTZIAKO ZENBAIT ADIERAZLE.

	LANGABEZI TASA		GAZTEEN LANGABEZI TASA		ALDI BATERAKO ENP.	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012
EB-27	9,7	10,5	21,4	22,8	14,1	13,7
UEM	12,2	11,4	20,8	23,0	15,8	15,2
ESPAINIA	21,7	25,0	46,4	53,2	25,3	23,6
EAE	**10,8**	**12,1**	**24,1**	**33,3**	**20,1**	**21,4**

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT, BJAtik eskuraturiko informazioarekin egina.

VI.1.9. KOADROA ENPLEGU POLITIKAK: EAE ETA ESTATUAREN ARTEKO ALDERAKETA. BPG-AREN GAINEKO EHUNEKO GASTUA

	P. AKTIBOAK		P. PASIBOAK	
	2011	2012	2011	2012
ESPAINIA	0,52	0,47	2,83	3,00
EAE	**0,63**	**0,73**	**1,72**	**1,90**

Iturria: EUSTAT, EIN eta OGASUN ETA LAN MINISTERIOEN datuekin eginikoa.

1.3. BIZI-KALITATEA EAE-N

1.3.1. Bizi baldintzak

VI.1.10 KOADROA BIZI BALDINTZAK EAEn. ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK.

	EAE		ESTATUA 2011	EB27 2011
	2005	2011		
AROPE Tasa	-	16,0	27,0	24,2
Familiek eskuragarri duten errentaren urte arteko bariazioa (2010)	+4,7	+1,1	-3,6	+0,8
Pobreziaren mugaren azpitik dagoen populazioaren % (% 60 tartekoa)	9,5	10,8	21,8	16,9

Iturria: EUROSTAT eta EIN.

1.3.2. Osasuna eta Osasun Sistema

VI.1.11 KOADROA. ADIERAZLE NAGUSIAK						
	EAE			Estatua	Alemania	Frantzia	Suedia
	2005	2010		2010	2010		
Ospitaleetako oheak 100.000 biztanleko	385,9	370,2		315,7	824,8	642,4	272,6
Medikuak eta psikiatrak 100.000 biztanleko	366,1	388,1		377,9	373,1	327,0	380,2
Haginlariak 100.000 biztanleko	64,5	73,9		60,4	79,5	66,5	80,2
	2005	2011	2012				
BPG (milioi eurotan)	56.885	66.265	66.223				
Osasun Sailaren Gastua BPGaren gainean	4,3	5,13	5,13				

Iturria: EUROSTATeta Eusko Jaurlaritza

1.3.3. Hirigintza eta etxebizitza

VI. 1.12. KOADROA. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA EAE-N. ERREFERENTZIAKO ADIERAZLEAK.				
	EAE			ESTATUA 2012
	2007	2011	2012	
Etxebizitzen eskaintzaren hazkundea (EOI)	+22,2	+54,4	-11,4	..
Etxebizitzen eskariaren hazkundea* (EEH)	-20,9	-25,8	..	..
Etxebizitzen Prezioen Indizea (EPI)	+4,1	-12,2	-13,3	-12,8
EJren Etxebizitza Programaren Gastua BPGaren gainean (%)	0,28	0,18	..	..

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN eta EINren datuekin egina.
** Etxebizitza eskuratzeko + aldatzeko beharren batura*

1.4. GIZARTE BABESA

1.4.1. Gizarte zerbitzuak

VI.1.13. KOADROA. GIZARTE ZERBITZUAK EAE-N: ERREFERENTZIAKO ADIERAZLEAK			
EAE-KO GIZARTE ZERBITZUEN ESTATISTIKA			
	2008	2009	2010
Gastua biztanleko (€)	860,4	972,7	1.001,1
Gastuaren % PBGaren gainean	2,72	3,31	3,33
MENDEKOTASUNAREN ARRETARAKO SISTEMA: MENDEKOTASUNAREN ESPAINIAKO BEHATOKIAREN BALORAZIOA			
	2010	2011	2012
EAE	**7,2**	**8,3**	**7,5**
ESTATUKO BATEZ BESTEKOA	4,7	5,0	4,7

Iturria: EUSTAT eta MENDEKOTASUNAREN ESPAINIAKO BEHATOKIAREN datuekin eginikoa.

1.4.2. Gizarte zerbitzuaren pentsioak

VI.1.14. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN PENTSIOEN SISTEMA EAE-N: ERREFERENTZIAKO ADIERAZLEAK

		2010	2011	2012
Onuradunak, orotara	Estaldura tasa	23,4	23,6	23,9
	Urteko hazkundearen %	1,5	1,4	1,3
Guztizko gastuak	BPGaren gaineko %	10,3	10,5	11,1
	Urteko hazkundearen %	4,5	4,5	4,2
Doako pentsioak	Guztizkoaren gaineko onuren %	97,6	98,0	97,6
	Batez besteko prestazioen % LGSren gainean	150,4	155,2	159,8

Iturria: LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOAREN datuekin eginikoa.

1.4.3. Diru sarrerak Bermatzeko sistema

VI.1.15. KOADROA. EAE-KO SARRERAK BERMATZEKO SISTEMA: ERREFERENTZIAKO ADIERAZLEAK

EAE-KO SARRERAK BERMATZEKOSISTEMA			
	2009	2010	2011
Urteko guztizko gastuaren hazkundearen %	34,8	22,9	5,8
GEOren onuradunen hazkundearen %*	22,1	13,5	1,2

GIZARTERATZEKO GUTXIENEKO ERRENTEN ESTALDURA. TASAK MILA BIZTANLEKO		
	2010	2011
EAE (GEO)	30,55	39,70
ESTATUKO BATEZ BESTEKOA	4,10	4,75

Iturria:EUSKO JAURLARITZAREN ETA OSASUN, GIZARTE POLITIKA ETA BERDINTASUN MINISTERIOAREN datuekin eginikoa.
** Abenduetakoak.*

2. LABURPENA

2.1. DEMOGRAFIA ETA IMMIGRAZIOA

EAEn, Biztanleen Udal Erroldak 2012ko urtarrileko erreferentziari buruz emandako azken datuen arabera, biztanle kopuruak 2000an hasitako goranzko bideari jarraitu dio, hazkundea gero eta txikiagoa bada ere.Zehazki, 2.193.093 pertsonako populazioa dago 2012an (2011n baino %+0,4 gehiago), hots, aurreko urtean baino 8.487 gehiago eta ia 78.000 gehiago 2005ean baino. Lurralde Historikoei dagozkien datuek erakusten dutenez, igoera nabarmenagoa dago Araban (%+1 azken urtean), eta neurri txikiagoan Gipuzkoan (%+0,4) eta Bizkaian (%+0,2).

Bestalde, EUROSTATEN zenbatespenen arabera, Europar Batasunean 503,7 milioi biztanle daude, 2012ko urtarrileko datuen arabera, hain zuzen 2011ko urtarrilean baino 1,2 milioi gehiago. Milako 2,4ko hazkunde horri esker -milako 2,7koa izan zen aurreko urtean-, beste urte batez eutsi ahal izan zaio 1960tik gertatu izan den etengabeko hazkunderako joerari, egungo Batasunaren populazioa 400 milioi biztanlekoa zenetik.Beste urte batez, bilakaera positiboa immigrazioaren portaerari zor zaio, aldaketa osoaren %33 baino ezin baitzaio egotzi berezko hazkundeari (jaiotzen eta heriotzen arteko alde positiboa).

EAEn, 2011ko behin-behineko datuen arabera, hazkunde begetatiboa (biztanleriaren aldakuntza, jaiotzen eta heriotzen arteko aldearen arabera, migrazio mugimenduak aintzat hartu gabe) zortzigarren urtez jarraian positiboa izan da berriz ere; hori gure erkidegoan ez zen gertatu 1986az geroztik: urte horretan 21.180 jaiotza gertatu dira, aurreko urtean baino % 0,1 gehiago, eta 19.235 heriotza, 2010ean baino % 0,6 gutxiago. Horren ondorioz, hazkunde begetatiboa +1.945 izan da, hots, milako 0,9koa.EAEko hazkunde begetatiboak 14 urtez jarraian behera egiteko joera adierazi zuen eta, behin betiko daturik lortu ezean, azkenean ere badirudi 2004an gelditu egin zela. Hala ere, joera hori baieztatu egin beharko da hurrengo urteetan.60ko hamarkadan eta 70ekoaren hastapenetan gertatu ziren saldo begetatibo positibo indartsuen ostean, 1990a negatiboa izan zen lehen aldiz 1937tik, eta 1996an

saldorik txikienera iritsi zen, urte hartan EAEk 2.000 biztanletik gorako hazkunde begetatibo negatiboa izan baitzuen.

Beraz, ikusten denez, saldo begetatibo positiboa izan da 2011n jaiotzak arinki handitu direlako eta heriotzak, berriz, erori direlako:+0,1 eta %-0,6 hurrenez hurren.Gainera, ohikoa denez, 2011ko portaerak aldeak izan ditu lurraldeen arabera:Bizkaiak, saldo positiboak berreskuratzeko atzeratuago egonda, urte horretan 38 biztanle irabazi ditu, behin-behineko datuen arabera, Gipuzkoak eta Arabak beste urte batez euren joera positiboak sendotu dituzten bitartean, hurrenez hurren, 898 eta 1.009 biztanle gehiago izanik.

Bestalde, EUSTATen 2011ri buruzko "*Migrazio mugimenduen estatistikak"* 14.986 laguneko hazkundea zenbatu du gure erkidegoan urte horretan (aurreko urtean baino % 15 gehiago), eta hamabi urtez jarraian migrazio saldoa positiboa izan da.Lurraldeka, Bizkaiak, 8.333 lagun irabazita, migrazio saldorik handiena dauka zenbaki absolutuetan, % 27 igo da 2010aren aldean. Bestalde, Arabak 3.704 lagun irabazi ditu (% -5, 2010eko saldoarekiko) eta Gipuzkoak 2.949 (% +15).Era berean, azken 20 urteetan laugarren urtez jarraian EAEn beste erkidegoetatik iritsitako immigrazio gehiago gertatu dira haietarako emigrazioak baino, eta horrela estatuarekiko migrazio saldoa positiboa izan da (+6.297).

Gainera, Udal Erroldaren datuen arabera, azken urtean EAEn bizilekua duten biztanle atzerritarrek gora egiten jarraitu dute.2005. eta 2012. urteen artean EAEn erroldatutako atzerritarren kopurua bikoiztu egin da.2005ean gure erkidegoan 72.894 etorkin bizi ziren; 2012ko urtarrilaren 1ean udal erroldak 151.162 zenbatu zituen, hain zuzen ere aurreko urtean baino % 4,1 gehiago (2012rako behin-behineko datuak; 2011rako, aldiz, behin betikoak). Biztanle etorkinen hazkunde horrek isla du guztizko populazioan duen gero eta pisu handiagoan:2012an EAEn atzerritarren pisua % 6,9koa da, eta estatuan % 12,1koa.Estatu osokoaren aldakuntza, aldiz, negatiboa izan da:%-0,7. Alabaina, EAEko datua Espainiako batez bestekotik oso urrun dago oraindik (erroldaren azken eguneraketan 5,73 milioi atzerritar dituena, eta 6,75 herrialdetik kanpo jaiotakoak kontuan izanik), eta batez ere Balearretatik, Valentziatik eta Madriletik. Azken hiru erkidego horietan atzerritarrak biztanleriaren oso portzentaje garrantzitsua dira.

Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) agerian utzi du gure erkidegoa izan dela 2012an atzerritarren hazkunde erlatiborik handiena izan duena (%+4,1), eta ondoren Andaluzia (%+1,8).Horrez gain, EINeko datuen bidez aditzera ematen da immigrazioa gehien handitu dela atzerritarren ehuneko oso txikia duten komunitate horietan.Ikusi dugunez, EAEko immigrazioaren pisua (% 6,9) estatu osokoaren erdia da (% 12,1); Extremaduran % 3,8koa eta Andaluzian % 8,8koa den bitartean.Aitzitik, etorkin-tasa handienak dituzten komunitateetan (Valentziako Erkidegoa, Madril, Aragoi, etab.) erroldatutako atzerritar kopurua gutxitu egin da.Ikuspegiren ustez, joera hori hainbat arrazoiri dago lotuta, besteak beste, atzerritarren nazionalizazioei eta lan-aukeretan jazotako aldaketen ondoriozko immigrazioaren lurralde birbanaketari.

2.2. HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA PROMOZIOA

EUSTATek aurreratutako datuen arabera, EAEn 2012/2013 ikasturtea unibertsitateaz kanpoko erregimen orokorreko irakaskuntzan (helduentzako hezkuntza kanpoan utziz) guztira matrikulatutako 355.737 ikaslerekin hasi da. Horrek berriz ere hazkundea dakar, aurten %0,7koa Hezkuntza Berezia sartzen badugu, eta %2koa sartu ezik).

Bigarren kasua kontuan izanik (hau da, hezkuntza berezia kanpoan utzita), gehikuntzaren azalpena da beheko mailak (haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta DBH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa (DBHO) eta irakaskuntza ertainak gehitu direla. Beheko mailen kasuan, 2012-2013 ikasturtean, EUSTATen behin-behineko datuen arabera, 292.110 ikasle zeuden matrikulatuta (+%1,1), Haur Hezkuntzan 74.046 (-%0,7), Lehen Hezkuntzan 122.184 (+%1,6) eta DBHn 74.046 (+%2,6).Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan (DBHO) edo irakaskuntza ertainetan matrikulatutako ikasle kopurua %6,5 igo da.Gehikuntza handienak maila ertaineko LHn (%9,5) eta goi mailako LHn (%10,5) gertatu dira.Batxilergoa ere gehitu da, baina neurri txikiagoan (%2,8).

2012-13 ikasturtean irakaskuntza ertainetan ikasten duten 62.471 ikasleetatik 29.787k, hau da, %47,7ak, batxilergoa aukeratzen du derrigorrezko irakaskuntza

amaitu ondoren. %52,3ak lanbide heziketa aukeratzen du eta gainerakoek zereginen ikaskuntza.

Unibertsitateko irakaskuntzei dagokienez, 2010-11 ikasturtean, orotara 59.132 ikasle zeuden matrikulatuta unibertsitateko graduko eta lehen eta bigarren zikloko ikasketetan EAEko unibertsitateetan, hots, aurre urtean baino %1 gutxiago.Ikasle guzti horietatik %68,2 lehen eta bigarren zikloko ikasketetan daude matrikulatuta (lizentziaturak, arkitekturak eta ingeniaritzak, diplomaturak eta arkitektura eta ingeniaritza teknikoak) eta %31,8 Goi Mailako Hezkuntzako Europako Eremuaren (GMHEE) ondoriozko graduetako ikasketetan.

Graduazio arloan, memoria hau bukatzean eskuragarri ditugun azken datuak 2009-10 ikasturteari buruzkoak dira, eta aurreko ikasturtearekiko %3,2ko igoera erakusten dute (%4,5 gizonentzat eta %2,4 emakumeentzat). Orotara, 10.498 pertsona graduatu, 6.249 emakume eta 4.249 gizon; aurreko ikasturtean, berriz, 10.170 ziren. Hots, emakumeen graduazioaren proportzioak guztizkoaren %50etik gorakoa izaten jarraitzen du.2009-10 ikasturtean, emakumeei dagokie graduazioen %59,5, aurreko epealdiko ratioa baino pixka bat txikiagoa (%60).

Titulazioen araberako graduazioaren bilakaeraren azterlana, momentuz, lehen eta bigarren zikloko ikasketei dagokie; eta hauxe erakusten du:

- 2009-10 ikasturtean, ikasleen % 51,1 Zientzia Sozialetan eta Juridikoetan graduatu zen, %30,5 Irakaskuntza Teknikoetan eta %7,2 Giza Irakaskuntzetan, %7,1 Osasun Zientzietan eta %4,1 Zientzia Esperimentaletan.

- 2008-09 eta 2009-10 ikasturteen artean, hazkundea gertatu da Osasunaren Zientzien (%10), Giza Zientzien (%3,2) eta Zientzia Sozial eta Juridikoen (%2,9) graduazioetan eta jaitsiera, berriz, Zientzia Esperimentaletan (%-8,6) eta Irakaskuntza Teknikoetan (%-0,7).

Laneratzearen arloan, LANBIDEren lan-bizitzan sartzeari buruzko azterlanaren azken datuen arabera, beherantz egin dute azterturiko azken unibertsitate promozioen jarduera eta enplegu tasak (2006, 2007 eta 2008ko promozioak); langabezi tasek, berriz, gora egin dute.

Hezkuntza adierazleei dagokienez:

- Eskolatze tasa garbiak.2012an, eskolatze tasarik handiena duten herrialdeen artean dago Espainiako estatua haur hezkuntzan.Bi urtera arte, 2010ean, haurren %26,5 zegoen eskolatuta. ELGAko eta EBko herrialdeen batez bestekoa, berriz, txikiagoa da: %3,3 eta %3,8 hurrenez hurren.3 eta 4 urte bitartean, eskolatzea unibertsala da Estatuan; izan ere, %99koa da. ELGAn %71,9 eta EBn %78,1.

  EUSTATek erakusten duenez, murritzak dira haur hezkuntzako lehen zikloari (0-2 urte) dagozkion adinetako eskolatze tasa garbiak:%51,9 (%52,7 mutikoak eta%50,9 neskatilak).16 eta 17 urtetan (bigarren hezkuntzako adin teorikoak, bigarren etapa), %96,5 dira (%96,5 mutilentzat eta %96,4 neskentzat).Goi mailako hezkuntzari dagozkion adinetan, tasa garbiek behera egiten dute adinean gora egin ahala. Hala, tasak %67,4 dira 18-21 urterekin, %29,4 22-25 urterekin eta %9,8 besterik ez 26-29 urterekin.

- Atzerritar ikasleak.1999-2000 ikasturtetik 2009-2010 ikasturtera etengabeko eta pixkanakako igoera izan da atzerritar ikasleen kopuruan.Autonomia erkidegoen banaketan, 2009-2010 ikasturtean ikusten denez, atzerritar ikasle gehiago daude Uharte Balearretan (%16,6), Errioxan (%16,2) eta Madrilen (%14,1).EAEk %7,0ko ratioa du.

- Ikasleak irakasle bakoitzeko.EBko herrialdeen artean, Espainiak 11 ikasle ditu irakasleko, hots, ikasleen ratio ertaina edo txikia du irakasleko unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzetan.Ratiorik handienak Erresuma Batuan, Herbehereetan, Alemanian eta Estonian daude: 16 ikasle baino gehiago irakasleko.

  EUSTATen arabera, 2010-11 ikasturtean oinarrizko irakaskuntzetan (13,2) eta unibertsitateko irakaskuntzan (13,5) dago ratiorik handiena EAEn. DBHn 9,8ko ratioa dago. Halaber, nabarmentzekoa da irakaskuntza publikoaren eta pribatuaren artean dagoen aldea, hezkuntza maila guztietan, eta handiagoa da titulartasun pribatuko ikastetxeetan.

- Ikaskuntza iraunkorreko parte-hartzea.Etengabeko ikaskuntzan parte hartzearen arloan EBk 2020rako ezarritako helburuaren arabera, 25-64 urteko helduen %15ek gutxienez hartuko du parte etengabeko ikaskuntzako jardueraren batean.Helburu hori oraindik urruti dago, zeren eta, EUROSTATen arabera, etengabeko prestakuntzako ikastaroak egiten dituztenen batez bestekoa %9koa baita EB27an eta %10,7 Espainian.

  2010. urtean, Espainiako helduen %10,8k hartu du parte etengabeko prestakuntzako jardueraren batean, eta ratiorik handienak Nafarroan (%13,2), EAEn (%13), Aragoin (%11,7) eta Uharte Kanariarretan (%11,6) lortzen dira.

- Ikasleen nazioarteko mugikortasuna.Hirugarren Mailako Hezkuntzako (A mota deritzen ikasketetan, hots, helburu hau dutenetan: ikerketa aurreratuko prometan sartzeko edo gaikuntza handiko lanbideak egiteko prometan sartzeko beharrezko prestakuntza ematea, ikerkuntza aurreraturiko programekin batera, ELGAren beraren metodologiaren arabera) nazioarteko ikasleen ehunekoa aztertuta, ikasleen mugikortasunari buruzko hurbilketa lor dezakegu.

  2010ean, A motako ikasketetan, %7,8ko batez bestekoa dago ELGAn; lurraldeka, Erresuma Batua nabarmentzen da, nazioarteko ikasle kopururik handienarekin (%17,6), ondoren Alemania (%8,7); Estatuan %2ko ratioa dago.Ikerkuntza aurreratuko prometan, berriz ere nabarmentzen da Erresuma Batua, programa horietan matrikulaturikoen %41,7; AEBn ere handia da.(%27,8), Irlanda (%27,1) eta Suedia (%24,2); ELGAren batez bestekoa %21,1ekoa da; Estatuan txikiagoa da, zeren eta programak egiten dituztenen artean %12,2 baizik ez baitira nazioarteko ikasleak.

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren gastu partida, 2012ko aurrekontuetan, 2.648 milioi eurokoa da.Horrek %2,5eko gutxikuntza dakar aurreko urtean likidatutako gastuaren aldean.Hots, EAEren BPGaren %4, eta hamarren bat gutxitu da 2010ean izandako portzentajearekin alderatuta.

  Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak 2010. urterako argitaratutako datuen arabera, hezkuntza administrazioen gastua, BPGaren gainean, % 4,32koa da EAEn (%3,42 unibertsitatekoa ez den hezkundean eta %0,78 unibertsitatekoan).

  Estatuan, berriz, %4,35ekoa (%3,18 unibertsitatekoa ez den hezkuntzan eta %1,01 hezkuntzakoan).

  Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak ikasleko duen gastuak (ikasle guztiak) behera egin du, 2010 eta 2011 artean: 5.323 eurotik 5.067 eurora.Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren datuen arabera, Unibertsitatekoa ez den Irakaskuntzan ikasle bakoitzeko egindako gastu publikoa (ikastetxe publikoan edo itunduan) 2010. urtean, Lanerako Prestakuntza kanpoan utzita, 7.388 eurokoa da EAEn. Horrela, gure erkidegoa da ikasle bakoitzeko gastu handiena ageri duena.Estatuko batez bestekoa 5.484 euro dira.

- Egokitasuna ikaslearen adinean.INEEren arabera, 8 urteko ikasleen %93 adin horretako kurtso teorikoan (Lehen Hezkuntzako hirugarrena) daude matrikulatuta 2009-10 ikasturtean; 10 urterekin, etapa horretako bosgarreneko tasa ehuneko 5 txikiagoa da (%88).DBHko adinetan, egokitasun tasek behera egiten dute adinean gora egin ahala; hala, 12 urteko ikasleen %83 hezkuntza etapa horretako lehen mailan ari da; 14 ikasleen %68 hirugarrenean 15 urteko ikasleen %60 laugarrenean.Azterturiko adin guztietan, Katalunia, Galizia eta EAE dira Estatuko batez bestekotik gorako egokitasun maila dutenak.

  EUSTATen arabera, 2011-2012 ikasturtean, EAEko 7 urteko populazioa teorian dagokion kurtsoan dago matrikulatuta.Baina erreferentziazko biztanle taldearen adinak gora egin heinean, egokitasunaren ehunekoak behera egiten du.Horrela, 13 urteko biztanle guztietatik, teorikoki dagokien mailan matrikulatuta daudenen ehunekoa %83,9ra jaisten da; eta 17 urteko biztanle guztietatik, teorikoki dagokien mailan matrikulatuta daudenen ehunekoa %61,8 arte jaisten da.

- Eskola behar baino lehen uztea.Europa Estrategia 2020aren barruan, eskola behar baino lehenago uztea %10era baino gutxiagora murriztea dago, gehienez 2020an. EUROSTATek argitaraturiko azken datuen arabera, Espainiako uzte tasa %24,9koa da 2012an.EB27ko herrialdeen batez bestekoa %12,8koa da.

  EUSTATen arabera, beherantz egin du EAEko eskola uztearen tasak, eta 2012an %7,7koa da.Bestalde, INEEren (horren metodologia EINrena da eta, beraz, EPA erabiltzen da BJAren ordez EAEn) hezkuntzaren adierazleen estatuko sistemaren datuen (2012ko edizioa) arabera, eskola uztearen tasa %26,5ekoa zen 2011. urtean. Uzte tasarik txikienak Nafarroan (%12), EAEn (%13) eta Madrilen (%19,8) zeuden.

- DBHko, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko ikasketetako eta goi mailako ikasketetako graduazio tasa gordinak. ELGAren arabera, bigarren hezkuntzako bigarren etapa gutxieneko kualifikazioa bihurtu da, lan-merkatuan arrakastaz sartzeko eta langabeziarako arriskua gutxitzeko.

  2009-10 ikasturteko datuek erakusten dutenez, hauexek dira DBHko graduazio tasa gordinik handiena dutenak:Kantabria (%87,7), Asturias (%86,5) eta EAE (%85,4).Eta batxilergoan:EAE (%67,7), Asturias (%61,5), Madril (%55,2) eta Nafarroa (%54).Bestalde, lanbide heziketako gradu ertaineko prestakuntza zikloetan, Kantabria (%24), Aragoi (%22,2), Errioxa (%22,1), Katalunia (%22), Asturias (%21,9) eta EAE (%21,8) nabarmentzen dira.

- Zientzia eta Teknologiako goi mailako hezkuntzako graduatuak, 20 eta 29 urte arteko 1.000 biztanleko.EUROSTATen datuen arabera, EB27rako batez bestekoa %15,2koa da 2010ean.Ratiorik handienak Finlandian (milako 21,2, 2012an), Frantzian (milako 21,5 2010ean), Irlandan (milako 20,1 2010ean) eta Erresuma Batuan (milako 19,5 2011n).

  ISEI-IVEIren datuen arabera, graduazio tasa milako 26,6koa da 2008-09 ikasturtean EAEn.

- Helduen ikasketa maila.2010ean, Madril, EAE, Nafarroa, Kantabria eta Aragoi dira nahitaezkoak baino ikasketa maila handiagoak dituzten pertsonen ehuneko handienak dituzten autonomia erkidegoak.

  ELGAren herrialdeetan, 2010ean, 25-64 urte bitarteko populazioaren %74k bigarren hezkuntzako bigarren etapako edo handiagoko ikasketa maila du.Espainia (%53) batez bestekoa baino 21 puntu gutxiagotan dago.EAE ere ratio horren azpitik dago, %63,4 (10,6 puntu azpitik).

2.3. I+G+B+IKT JARDUERAK

EUSTATen arabera, I+G-ko jardueretan 2011. urtean egindako gastua 1.360 milioi eurokoa izan da, eta horrek aurreko urteko kopuruaren aldean %0,4ko hazkundea esan nahi du.Gastu hau BPGaren %2,04 da.Horrela, EAE estatuko batez bestekoaren (% 1,33) eta EB27ko batez bestekoaren (% 2,039) gainetik dago I+G gaian egindako esfortzuan, baina gaian erreferentzia diren herrialdeen azpitik (gehienbat Europako iparraldekoak, Japoniakoak eta AEBetakoak).

I+G-ko enpresa burutzapena EAEn (gastuaren %76) sektore horrek Estatuan eginikoa baino handiagoa da (%52,1, INEren arabera) eta EB27an izandakoa baino handiagoa ere (2010an, gastuaren % 60,8).

Herri Administrazioak buruturiko gastuak behera egin du EAEn 2010 eta 2012 artean; %6,3tik %6,1era. Estatukoa (%19,5) eta EBkoa (%17,3) baino txikiagoa da.

I+G-ko gastuen finantzazioari dagokionez, sektore pribatuak horretan duen partaidetza handitu egin da 2010 eta 2011 artean: %54tik %54,3ra igaro da.Hauexek nabarmentzen dira I+G-ko gastuaren finantzaketa pribatuaren ratio handiak izateagatik:Japonia (%78,2), AEB (%67,3), Finlandia (%66,1), Alemania (%66,1), Danimarka (%60,7) eta Suedia (%58,2).

Bestalde, administrazioak %38,6 finantzatzen du EAEn (%39,8 aurreko urtean).

Sektore pribatuak eta sektore publikoak finantzaturiko I+G jarduerak BPGaren %1,12 eta %0,8 dira hurrenez hurren, baina Bartzelonako helburuak %2 eta %1 dira 2020. urterako.

I+G-ko jardueretako pertsonalak gora jarraitzen du, lanaldi osoaren baliokidetzan neurtua, eta 2011. urtean

populazio okupatuaren milako 18 da, Estatuan izandako milakoa baino handiagoa (milako 12), EBn (milako 11,5); eta lurralderik dinamikoetan izandakoetatik hurbil eta, are gehiago, handiagoak.Frantzia (17,7), Alemania (13), Japonia (14,1). Bestalde, ikerlariak milako 11,4 da; Estatuan, berriz, milako 7,3.

Patenteei dagokienez, Berrikuntza Adierazleen Panela kontuan izanda (IUS 2011), BPGaren bilioiko 1,71eko PCT[1] (PPV eurotan) patenteen eskabide adierazlea duen EAE estatuko batez bestekoaren gainetik dago (1,34), baina EB27ko batez bestearen azpitik (3,78) eta erreferentziako herrialdeetatik urrun: Suedia (10,53), Finlandia (9,57), Danimarka (7,52), Alemania (7,04) eta Herbehereak (6,39).

Europako Berrikuntza Adierazleen Panel berria (IUS 2010) herrialdeen ekonomiek berrikuntza-jarduerak egiteko zenbaterainoko gaitasuna duten eta zenbateraino garatzen dituzten neurtzen saiatzen da.EAEren arabera, EAEk EBren 15. postua izango luke, 0,46ko adierazleko balioarekin, 0,54ko batez bestekoaren azpitik. Hala, hirugarren taldeko goiko partean kokatuko litzateke, berrikuntza ertaineko herrialdeak.

Zehazki, EAE nabarmendu egiten da EB27ko datuekin alderatuta enpresa inbertsioaren (0,54ko puntuazioa lortu du; Europar Batasunak, berriz, 0,44), giza baliabideen (0,61 batean eta 0,56 bestean) eta ikerketa sistemen arloan (0,54 batean eta 0,53 bestean). Baina maila txikiagoak ditu finantzazioan eta laguntzan (gure Erkidegoak 0,38 eta EBk 0,58) eta lorturiko outputetan (0,42 batean eta 0,56 bestean).

EUSTATen Berrikuntza Teknologikoaren Inkestak erakusten duenez, 2009-2011ko epealdian, 9 langiletik gorako enpresen %37,8 berritzailea zen, aurreko epealdikoa baino ratio txikiagoa (%38,9), edo EB27koa baino txikiagoa, non industri eta zerbitzuen sektoreetako enpresek jarduera berritzaileak izan zituzten 2008 eta 2010 artean, Community Innovation Survey 2010aren (CIS7) arabera; baina estatukoa baino handiagoa da (%31,1), eta beherazko joera izanik ere EINren arabera).

Gora egin du 9 langiletik gorako euskal enpresen berrikuntza teknologikorako jardueren guztizko gastuak 2011n, %2,5, eta PBGaren %3,34 da (%3,3 ere aurreko epealdian).

Hots, berrikuntzarako jardueren gastuak gora egin arren, beherantz egiten ari da enpresa berritzaileen ehunekoa, baina joera hori ez da sektore guztietan gertatzen.

IKTen sarrerari eta erabilerari dagokienez, eta EUROSTATen datuen arabera, etxean Internetera sartzeko aukera duen 16 eta 74 urte arteko kide bat gutxienez baduen etxe portzentajea, 2012. urtean, %76 da EB27n eta %68,5 Estatuan.EUSTATen araberan, ratioa %67,5ekoa da EAEn.Ondorioz, EAE Europako batez bestekotik zertxobait beherago dago, eta ereduzko herrialdeetan agertzen diren balioetatik urrun: Herbehereak (% 95), Luxenburgo (% 93), Suedia (% 92), Danimarka (% 92), Alemania (% 85), Finlandia (% 87) eta Erresuma Batua (% 83).

Transakzio elektronikoei dagokienez, internet bidez erosi ez duten pertsonen ehunekoa kontuan izanik, hauxe ondoriozta daiteke: EAE, %37,4arekin, gorengo mailan dagoela autonomia erkidegoen rankingean, zeren eta erkidego batek ere ez baitu ehuneko txikiagorik. Eta azken hilean erosi duten pertsonen ehunekoa aztertuta, autonomia erkidego bakarra dago aktiboagoa dena: Madril.Alabaina, datuak guztiz homogeneoak ez badira ere, Europarekiko alderaketa eginez, agerian gelditzen da merkataritza elektronikoa gutxiago hedatuta dagoela EAEn.

Enpresetako IKT ekipamenduei dagokienez, Enpresetako Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestaren azken edizioak agerian uzten du IKTak euskal enpresetan sartzeko prozesuak gorantz egiten jarraitzen duela.

Enplegu-mailaren araberako analisiak lehenik eta behin erakusten du IKT ekipamenduak zabalduago daudela establezimenduaren tamaina handitu ahala.Bigarrenik, enplegu gehiago izan ahala, hobetzeko marjina txikiagoa dagoenez gero, ekipamenduen gehikuntzak murritzagoak dira; hain zuzen ere, enpleguaren estratu batzuetan erorketa txikiak gertatzen dira berriro ere.Eta, hirugarrenik, bi alderdi horiek gehiago igartzen direla establezimenduei dagokienez, enpleguari dagokionez baino.Arrazoia, besteak beste, establezimendu txikiek edukitako garapen handiagoa da, eta, halaber, establezimendu

1 Patenteen Lankidetza Ituna

handietan langile guztiek ez dutela ekipamendu horietara iristeko aukerarik.

Internet edo bide elektronikoz eginiko merkataritza transakzioei dagokienez, EUSTATen datuen arabera, gorantz jarraitzen du posta elektronikoak EAEko enpresen posta elektronikoa, sortzen dituen zifra ekonomikoetan nahiz bertan parte hartzen duten enpresen kopuruak.Nahiz eta zifra ekonomikoetan salmentak erosketak baino gehiago izan, partaidetzan, produktuak bide elektronikoetatik erosten dituzten establezimenduen kopurua askoz ere handiagoa da saltzen dutenena baino.

2.4. NATURA-INGURUNEAREN EGOERA

Airearen kalitateak, Eusko Jaurlaritzak emandako informazioaren arabera, hobera egin du azken urteetan, eta kalitate hori "ona" da, edo, gutxienez, "onargarria". Egun/urtean kalitate onarekin edo onargarriarekin ratioa handitu egin da: 2005ean %94,6 zen eta 2011n, berriz, %97,9. Hala ere, gora egin du airearen kalitatea oso txarra edo txarra duen indizeko egunen kopuruak 2010 eta 2011 bitartean: 4tik 16ra. Eta airearen kalitate ertainarena 31tik 71era.

Ur-masen kalitateari dagokionez (ibaiak, lakuak eta gune hezeak, trantsizio-urak, kostaldeko ura eta bainatzeko ura), honako hau lortu da, Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera:Ibaiei dagokienez, txikia da helburuen betetze maila, zehazki ur-masen %21,1ek betetzen zituen helburuak 2007an, eta 2011n, berriz, %32,6k.Lakuetan eta gune hezeetan, berriz, badirudi bilakaera positiboa dagoela, baina ez da nahikoa (2001/2002 ziklo hidrologikotik azterturiko 14 gune hezeetatik, lehen zikloak %7ak baino ez zituen betetzen ingurumenaren gaineko helburuak, eta azken zikloetan %21-%29ak.

Trantsizio-uretan, txikia da oraindik ere betetze maila (%57 2011n). Kostaldeko uretan, emaitzen egonkortasuna dago eta, oro har, helburuen betetze maila altua erakusten dute.Azkenik, bainatzeko uren kalitateari buruz 2011n eginiko azterketak agerian utzi duenez, bainatzeko 65 eremuetatik 5en kalitatea ez da nahikoa, 2renak nahikoa eta 9renak onak. Gainerakoek kalitate bikaina dute, hain zuzen ere ez-nahikoa, nahikoa, ona eta bikaina biltzen dituen sailkapenean.

Kontsumoko urari dagokionez, 183,4 Hm^3-koa EAEn herri hornidurarako banaturiko eta kontrolaturiko guztizko ur bolumena 2010ean, hots, %2,4ko jaitsiera.Horietatik 95,6 Hm^3 (guztizkoaren % 52,1) etxeak hornitzeko erabiltzen dira, 56,6 Hm^3 (%30,9) sektore ekonomikoetarako eta 31,2 Hm^3 (%17) udal kontsumoetarako eta beste erabilera batzuetarako. Banaketako herri sareetan ihesak, hausturak, etab. direla-eta oraindik gertatzen diren galerek, EINren arabera, %7,5 egin dute gora 2009 eta 2010 bitartean, eta ur eskuragarri guztiaren %19,9 da.Estatuan ur eskuragarriaren %17,5 galdu zen.

Per capita kontsumoa Estatuan kontsumituriko batez bestekoa baino txikiagoa da, 122 144 pertsona/litro/eguneko; baina 2009 eta 2010 artean gertaturiko jaitsiera txikiagoa (%3,2) Estatukoa baino txikiagoa da (%3,4).

Hondakinak sortu eta kudeatzeari dagokionez, EINen Industria Sektoreko hondakinen sorkuntzari buruzko inkestako azken datuen arabera, EAEko hondakin ez arriskutsuen sorkuntza %10,6 igo da 2009 eta 2010 bitartean eta industria hondakin arriskutsuena %19,8.Hala, EAEn 201,7 mila tona izanik, hirugarren erkidegoa da industri sektorean hondakinak sortzen dituztenen artean, Kataluniaren (333) eta Valentziaren (212,7) atzetik.

Hiri-hondakinen alorrean eta per capita balioetan, EINen Hiri-hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko inkestako datuen arabera, 2010. urtean EAEn 329,7 kg hiri-hondakin nahastu bildu ziren. Hau da, estatutako batez besteko kopurua (412,5) eta aurreko urtean erregistratutakoa (471) baino zenbateko txikiagoa. Bilketa selektiboari dagokionez, EAEk kasu guztietan (papera eta kartoia, beira, plastikoak eta ontzi mistoak) erregistratu ditu Estatuko batez bestekoen gaineko bilketa balioak.

Klima aldaketari eta negutegi-efektuko gasei (NEG) dagokienez, negutegi-efektuko gasen emisioen (NEG) inbentarioak emandako azken datuek erakusten dute ez direla murriztu NEG emisioak (zuzenean eta zeharka, hots, inportaturiko elektrizitatearekin lotuak barne), C02-baliokidean neurtuta.Hala, 2007an %22ko igoera ratioa izan zen oinarriko urtearekiko (1990); 2010ean, berriz, 1990ean erregistraturikoak baino %1,8 handiagoak dira.

Sekotereen aldetik azterketa sakona eginez ondoriozta daitekeenez, emisioak murriztu egin dira energiaren, garraioaren eta industriaren sektoreetan

hobekuntza teknologikoak ezarri direlako, zeren eta energia kontsumoa igoz joan baita, errepideko garraioarena bezala eta, horrekin batera, emisioena.

Energiaren sorkuntza eta kontsumoa oinarri hartuta, goranzko joera izan du energiaren azken kontsumoak 2008ko krisira arte. Izan ere, urte horretan kontsumoak behera egin zuen, ondoren gora, eta berriz ere jaitsi da 2010 eta 2011 urteen artean, zehazki %4,2, 5.178 Ktep-eraino.

Lehen mailako energiaren ekoizpena oso murritza da, hain zuzen 380 Ktep 2011n.Ekoizpen horren oinarria, gehienbat, energia berriztagarriei dagokie; alde horretan %6,1eko jaitsiera izan zen (393 Ktep-etik 369 Ktep-era).

Lehen mailako energiako norberaren produkzio eskas horrek EAEko energia eskariaren (barne kontsumo gordina) %5,8 asetzea bakarrik ahalbidetzen du (6.550 Ktep).Eta aldi berean, iturri berriztagarriak oinarri dituen ekoizpen txikiak (369 Ktep) azken kontsumoaren %7 betetzeko baizik ez du ematen.

Bestalde, energi intentsitatea (azken kontsumoa BPGaren unitateko) 2000koa baino %85 handiagoa da 2011n, eta %5 hobetu da aurreko urtearekin alderatuta.EB27an, EUROSTATen arabera, 2000koaren %89,7 da ekonomiaren energi intentsitatea.

Sektoreka banatuta, industriako energi intentsitatea ehuneko 7 puntu okertu da 2011n, energiaren kontsumoan gorakada izan arren industriako BPGan puntu 1 hobetu baita. Garraio sektorearena, berriz, 1,9 puntu hobetu da; eta zerbitzuena puntu 1 hobetu da.

Bukatzeko, EINk ***industri enpresek ingurumenean eginiko gastuari buruz*** burutu duen inkestako azken datuek erakusten dutenez, gastu hori %1,7 igo zen 2010ean EAEn 2009an izandakoaren aldean. Gastua BPGaren ehuneko gisa neurtuta ikus daitekeenez, egonkortasuna dago 2010ean 2009. urtearekiko, eta %0,33ko emaitza dugu. Gainera, murrizpena dago 2007ko datuekin alderatuta. Hala, laugarren tokian dago EAE 2010ean, Kantabriaren (%0,52), Asturiasen (%0,41), eta Nafarroaren (%0,35) atzetik.

2.5. EAEREN EGOERA EKONOMIKOA ETA KANPO TESTUINGURUA

Erosteko ahalmenaren parekotasunaren araberako munduko BPG haztatua % 3,2 hazi zen, eta aurreko epealdian, berriz, %4, NDFaren zenbatespenen arabera.Ekonomia aurreratuek % 1,2ko gorakada izan zuten: AEBko BPGd-a % 2,2 eta Japoniakoa % 2 handitu ziren, eta Euroaren Eremua, aldiz, % 0,6 jaitsi zen.

Horrez gain, goranzko ekonomiak eta garatzeko bidean daudenak % 5,1 inguru handitu ziren, aurreko urteko hazkundea % 6,4koa izan zela.Brasilek % 0,9ko hazkunde txikia izan zuen, aurreko aldikoa % 2,7koa izan zela. Txina eta India % 7,8 eta % 4 handitu ziren, hurrenez hurren, 2011n % 9,3 eta % 7,7 hazi arren.

Jarduera ekonomikoaren bilakaerarekin bat etorriz, munduko merkataritzaren hazkundea aurreko urtekoa baino ahulagoa izan zen, % 2,5eko aldakuntza-tasa izanda, aurrekoa % 6koa izan zela.

Prezioen bilakaerari dagokionez, 2011 eta 2012 bitartean, Brent upelaren batez besteko prezioa % 0,8 handitu zen: lehen 111,7 $-ekoa zen, eta orain, aldiz, 112,6 $-ekoa.Lehengai ez-energetikoen prezioek aurkako aldakuntzak izan zituzten: elikagaien prezioak 2011koak baino handiagoak izan ziren; industria-gai metalikoenak zein ez-metalikoenak, berriz, txikiagoak izan ziren.

Testuinguru horretan, euro-gunearen egun baterako esku-hartze tasa 2011 itxi zen moduan eutsi zitzaion 2012ko uztailera arte: %1.

Hil horretan, %0,75era jaitsi zuen Europako Banku Zentrala; ratio berarekin itxi zen urtea.Bestalde, AEBetako Erreserba Federalak eta Japoniako Bakuak berriz ere mantendu zituzten esku-hartze tasak 2012an, 2011 itxi zen moduan; lehenbizikoa %0,25ean eta bigarren %0,1ean.

Euroguneko moneta-merkatuaren interes tasek behera egin dute epe guztietan.Hilabeterako Euriborra %0,64 zen urteko lehen hiruhilekoan, eta laugarrena %0,11rekin bukatu zuen. Hiru hilerako Euriborra %1,04tik %0,2ra igaro da lehen eta laugarren hiruhilekoaren artean, eta urtebeteko euriborra %1,67arekin hasi eta %0,6arekin bukatu zuen.

Truke eta burtsa merkatuei dagokienez, dibisen merkatuan EEBBetako dolarraren benetako truke tasa errealak tokia irabazi zuen eta, ondorioz, euroak balio pixka bat galdu zuen.Halaber, Europako dibisak balioa galdu zuen, libera esterlinaren eta yenaren aldean.Munduko burtsa merkatuei dagokienez, Espainian IBEX 35ek urte arteko % 4,6ko jaitsiera izan zuen (2012ko abenduan neurtutakoa, 2011ko abendukoaren aldean), aurreko urteko% -13,1en aldean; Nikkeik % 22,9 egin zuen gora, 2011ko % -17,3ren aldean; Dow Jones indizeak % 7,2 egin zuen aurrera, 2011ko % 5,5en aldean; eta Euro Stoxx zabala % 15,5 handitu zen, aurreko urteko % 18ko jaitsieraren aldean.

EB eta zehazkiago eurogunea oinarri hartuta, urte arteko terminoetan, -%0,5ekoa izan zen BPGaren benetako aldakuntza tasa 2012an; aurreko urtean, berriz, %1,5eko hazkundea izan zen.

Sektoreen aldetik, atzeraldia izan da osagai guztietan, eta industriaren eta nekazaritzaren kasuan, aldakuntza tasak negatibo bihurtu dira (eraikuntzak bazuen 2011n aldakuntza tasa negatiboa eta jaitsiera areagotu egin da 2012. urtean). Bereziki deigarria da industrian ikusitako joera aldaketa; izan ere, 2011n %3,4ko aldakuntza tasa positiboa izatetik tasa negatibora igaro da 2012an, %-1,3ra hain zuzen. Zerbitzuen sektoreei dagokienez, merkatu-zerbitzuen kasu zehatzean, nahiz eta urteko batez besteko aldakuntza positiboa izan (%0,1), hiruhileko profilean atzeraldi argia ageri da; are gehiago, aldakuntza tasa negatiboak bildu dira azken bi hiruhilekoetan: -%0,1 eta %-0,2 hurrenez hurren.

EBri dagokionez, EUROSTATen arabera, %-0,3koa da BPGaren aldakuntza-tasa termino errealetan EB27ko eremuan 2012. urtean.Herrialde hauetan daude hazkunde tasarik handienak: (%5,6), Lituania (%3,6), Estonia (%3,2), Eslovakia (%2) eta Polonia (%1,9).Tasa txikiagoak dituzte hauek:Irlandak (%0,9), Suediak, Austriak, Maltak eta Bulgariak (lauretan %0,8), Errumaniak eta Alemaniak (bietan % 0,7), eta Erresuma Batuak eta Luxenburgok (bietan %0,3).Frantziak aldakuntza tasa nulua du, eta gainerako estatuek tasa negatiboak dituzte.

Langabezi tasak bi digituak gainditzen ditu hainbat estatutan.Zehazki, %10 eta %12 arteko tasak daude:Polonian, Estonian, Frantzian, Italian, Hungarian eta Zipren.%12-%15ekoak:Bulgaria, Lituania, Eslovakia, Irlanda eta Letonia.Eta %15etik gorakoak, EB27ko langabezi tasarik handienak, Portugalen (%15,9), Grezian (%24,3) eta Espainian (%25).Tasarik txikienak, berriz, herrialde hauetan daude:Austrian (%4,3), Luxenburgon (%5,1), Holandan (%5,3) eta Alemanian (%5,5).

Espainiako ekonomia ardatz hartuta, EINren arabera, BPG errealaren urteko batez besteko %1,4ko jaitsierarekin itxi da 2012. urtea; urtebete lehenago, berriz, %0,4ko hazkundea izan zen.

Nazio eskaria PBGaren urte arteko hazkundetik urrundu izanaren emaitza da bilakaera hori.Hala, nazio eskariak %3,9 kendu dio BPGaren urte arteko hazkundeari 2012. urtean. Kanpoko eskariak, berriz, %2,5eko ekarpena du.

Eskariaren aldetik, barne eskaria ahulago dago zeren eta, urte arteko kopuruetan, haren osagai guztietan beherako profil handiagoa baitu.Kontsumo publikoak luzatu egiten du beheranzko joera:%-0,5etik %-3,7ra 2011 eta 2012 bitartean. Etxeetako azken kontsumoko gastuak %2,5 egin zuen behera. 2011. urtean, berriz, %-0,8. Kontsumo pribatua azaltzeko faktore nagusien artean, enplegua desegitea eta familien errenta eskuragarria murriztea daude, baita irailaren 1ean indarrean sartu ziren BEZaren tasen igoerengatik erosketak aurreratu izanaren ondorioagatik ere.Kapital finkoaren eratze gordinak areagotu egin du beherako joera, %-5,3tik %-9,1era, haren osagai nagusiaren (eraikuntza) atzeraldi handiagoaren eta ekipo ondasunen eta landutako aktiboen eta aktibo finko ez-materialen beheranzko joeraren ondorioz.

Bestalde, aipatu dugunez, kanpoko eskariak ekarpen positiboa egin dio BPGaren hazkundeari (2,5 puntu).Esportazioek, 2011 eta 2012 bitartean, urte arteko batez besteko %3ko hazkunde izan zuten (aurreko urteko %7,5ekoa baino txikiagoa). Inportazioek, berriz, aurreko urtean baino jaitsiera handiagoa izan dute (%-5, eta aurreko urtean %-0,9).

Eskaintzaren aldetik, 2012ko BPGaren urte arteko jaitsiera ekoizpen-adar guztien jardueran islatu da, lehen mailako sektorean izan ezik; izan ere, haren balio erantsi gordinak (BEG) %2,2 egin zuen gora, aurreko urtean baino %6 gutxiago.Industriaren BEGak %2,9 egin

du behera eta aurreko urtean, berriz, %2,7 hazi zen; eraikuntzan %8,1eko jaitsiera izan zen (%-5,9 aurreko epealdian); eta zerbitzuen sektoreak %-0,4ko tasa izan du, aurreko urtean %1,4 igo ondoren.

Jardueraren murrizpen horren ezaugarri nagusia, gainera, beheranzko profila izan da urte osoan, eta areagotu egin ditu balio negatiboak hiruhilekoetako barne eskariaren osagai guztietan eta, horrekin batera, bizkortu egin da enplegua desegiteko prozesua.Hala, %1,7 egin du behera 2011n lanpostuen kopuruak (lanaldi osoko lana dutenak); 2012an %4,4ko jaitsiera zenbatu da.Soldatapekoen jaitsiera %5,1ekoa izan da; aurreko urtean, berriz, %1,5ekoa izan zen.Bestalde, EINren Populazio Aktiboaren Inkestak agerian utzi duenez, langabezi tasak (16 urtetik gorakoak) %21,6tik %25era egin du gora.Hauexek dira tasarik txikienak dituzten autonomia erkidegoak: EAEk %15, Nafarroak %16,4, Kantabriak %17,9, Aragoik %18,7 eta Madrilek %19,2. Estatuko batez bestekoaren gainetik daude Ceuta (%38,8), Andaluzia (%34,7), Uharte Kanariarrak (%33,3), Extremadura (%33,1), Melilla (%28,9), Gaztela-Mantxa (%28,6), Murtzia (%28) eta Valentziako Erkidegoa (%27,8).

Kanpoko sektorearen ekarpen positiboarekin bat etorriz, Espainiako ekonomiak hobetu egin du finantza egoera munduko gainerako herrialdeekiko.Ekonomiaren finantzazio beharra (defizita) BPGaren %3,2koa zen 2011n; 2012an, berriz, %0,2koa da, hots, 2.635 milioi euro, aurreko urtean baino 31.578 milioi gutxiago.

EAEren ekonomiaren bilakaera aztertuko dugu orain. EUSTATen 2013ko otsaileko datuen arabera, urte arteko %1,2ko jaitsiera izan zen 2012an termino errealetan, eta aurreko urtean, berriz, %0,5ekoa izan zen. BPG, ohiko terminoetan, 66.223 milioi eurokoa izan zen.

Eskariaren gaineko azterketak erakusten duenez, aurreko epealdian baino askoz beherakada handiagoa gertatu da barne eskarian (%-2,2koa, aurrekoa %-0,3koa izanik), eta urte arteko BPGaren jaitsiera %1,2koa izan da. Agerian uzten du horrek kanpoko saldoaren ekarpen positiboa, zehazki ehuneko batekoa, esportazioen (%-5,2) nahiz inportazioen (%-6,4) mailetan jaitsierak gertatu badira ere.

Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak atzerriarekiko ondasunen kanpoko merkataritzari buruz ematen dituen datuen arabera, betiere Aduanetako Erregistroetan oinarrituta, %0,9ko jaitsiera izan da esportazioen ohiko balioan 2012. urtean, eta %10,8ko igoera energiakoetan eta %2,1eko jaitsiera energiakoak ez direnetan (guztizkoaren %90 dira).Bestalde, %10,4 egin dute behera guztizko inportazioek, non energi inportazioen balioa (guztizkoaren %35) %10,2ko eta energiakoak ez direnean %10,5eko jaitsierak gertatu diren.

EAEko energiakoak ez diren esportazioen aduana-sarien taldeko azterketan agerian gelditu denez, lehenik eta behin ekipo-ondasunak nabarmentzen dira, esportaturiko guztizkoaren %42,3 (makinak, 4.241,4 milioi euro, eta garraio materiala, 4.337,6 milioi euro).Esportazioak %2 egin du behera, garraio materialaren esportazioaren jaitsieragatik (%-7,7), zeren makinek eta aparatuek gora egin baitute (%+4,6).Bigarrenik, metal komunen eta horien manufakturen esportazioa nabarmentzen da, guztizkoaren %25.%7,4ko jaitsiera izan da horien esportazioan.Hirugarrenik, plastikoen eta kautxuaren esportazioa nabarmentzen da, guztizkoaren %8,4; aldakuntza tasa positiboa du (%,1,9).Energiakoak ez diren inportazioen aldetik, metalak eta horien manufakturak nabarmentzen dira, guztizko inportazioen %21,2, %16,6 jaitsita, eta bigarrenik guztizko inportazioen %19,2 diren ondasun-ekipoak. Izan ere, %2,7 jaitsi dira, makinen eta aparatuen (%-2,9) nahiz garraio materialaren (%-2) jaitsieragatik.

Energiakoak eta energiakoak ez diren produktu eta ondasunak bereizita ondoriozta daitekeenez, energi saldoa defizitarioa da (-3.3847,7 milioi euro).Energiakoak ez diren produktuek, berriz, 8.179,0 milioi euroko superabita dute, BPGaren %12,4 hain zuzen, aurreko urtekoa baino (%11,1) %1,3ko ratio handiagoa.

EAEko esportazio ez energetikoen helmuga zein den kontuan hartuta, ELGAri zuzendutakoak eta eremu horren barruan 15EBri zuzendutakoak dira, berriz ere, garrantzitsuenak: kopuru osoaren % 77,2 dira, eta % 2,4ko jaitsiera-tasa ageri dute.Bereziki azpimarragarriak dira Frantziarantz, Alemaniarantz, Italiarantz eta Erresuma Baturantz egindako esportazioak, EAEk EB15erantz egindako esportazioen % 77 izanez. Inportazioei dagokienez, haietako

gehienak ELGAtik datoz eta, zehazki, EB15eko herrialdeetatik, funtsean, Alemaniatik, Frantziatik eta Italiatik, EB15etik egindako inportazio guztien % 54,3 hartuz. Neurri txikiagoan ageri dira Erresuma Batua, Belgika eta Portugal.

Eskaintzaren aldetik, 2011 eta 2012 urte artean, eraikuntzaren beherakada nabarmentzen da; izan ere, %6,3ko murrizpena izan du, eta beheranzko joerari eusten dio.Industrian eta energian aurreko urtean aldakuntza tasa positiboa izan bazuen ere (%+2), behera egin du jardueran, %2,4 hain zuzen, gehienbat manufakturen industriaren atzeraldiagatik (%-2,1).Nabarmentzekoa da industri jarduerak urteko lau hiruhilekoetan izan duen etengabeko beherakadarako profila ere.Zerbitzuen sektorean ere jaitsiera izan da jarduera mailan, %0,3koa.

Prezio arrunteko BPGaren bilakaerak erakusten duenez, jaitsi egin da industriaren sektorearen indarra, BPGaren %24,5etik 2008an %22ra izatera 2012an. Eraikuntzak, berriz, %9,2tik %7,1era; eta zerbitzuak %56,5etik %61,6ra.

EUSTATen Ekonomi Jardueren Direktorioaren gaineko 2012ko azken datuen arabera, guztira 184.471 establezimendu zenbatu dira, EAEko 165.517 enpresari dagozkienak (lehen sektorekoak alde batera utzita).Horren ondorioz, 2008 eta 2012 urte artean, enpresen kopuruak (lantegiak, dendak, bulegoak…) behera egin du EAEn, %10,2 (18.773 enpresa gutxiago), eta enpleguaren jaitsiera %7,4koa denez (-69.358), enpresa bakoitzeko batez besteko tamaina 5,1etik 5,3ra igaro da.

Produktibitateari dagokionez, hazkundea EAEn (%1,4) handiagoa da termino errealetan Europar Batasunean erregistraturikoa baino (EB27an nahiz euro-gunean:%0,1). Horrez gain, Estatuan askoz tasa erreal handiagoa da, %+3koa, behin-behineko datuen arabera.

Bestalde, gure ekonomiaren ULK ohikoek behera egin dute (%-0,7, 2011ko ratio berdina) industrian (%-0,9) eta eraikuntzan (%-9,2). Zerbitzuetan, berriz, %0,5eko igoera gertatu da.Europar Batasunean, ULK nominalak, soldatapekoek lanpostuko eskuratzen duten ordainsaritik abiatuta kalkulatzen dena, areagotu egin ziren 2012. urtean % 2,9 (EB-27) eta % 1,6raino eurogunean.

Inflazioari dagokionez, EAEn urteko batez besteko tasa 2012an %2,3koa da EAEn, 2011ko datua baino 8 hamarren gutxiago. Hala ere, abenduko urte arteko inflazioa %2,7koa da, aurreko urtekoa baino 3 hamarren handiagoa.

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera, atzerriko inbertsioa EAEn areagotu egin zen 2011 eta 2012 artean, hain zuzen ere % 217,3 atzerriko balioak edukitzeko enpresak deskontatuz gero.Orotara, 433.802 milioi euro jaso ditu EAEk.Alabaina, EAEk estatuko guztizkoarekiko duen proportzioa igo egin da: 2011ko %2,2tik 2012ko %3,2ra. Hala, EAEk hirugarren tokia du 2012an inbertsioen bolumenean; ondoren Madril dator, 8.727,8 milioi euro, atzerriko balioak edukitzeko enpresak deskontatuz, eta gero Katalunia, 2.603 milioi euroko jasotzen dituena.2011n, hirugarren tokian zegoen EAE inbertsioen bolumenean, Madrilen eta Kataluniaren atzetik.Sektore ikuspegitik begiratuz, bereziki nabarmenak dira, guztizkoarekiko duen pisua dela-eta, informazio eta komunikazioen, industria kimikoaren eta kautxu eta plastikoen eraldaketaren, administrazio jardueren eta zerbitzu osagarri eta osasun eta gizarte zerbitzuen jardueren sektorean eginikoak.Lurralde ikuspegitik begiratuz gero, inbertsioaren azken titularra bizi den herrialdea ELGAko herrialde batean kokatzen da kasuen % 96,7an, eta % 74,4tan 15EBean (guztira 322,6 milioi euro).Bereziki nabarmena da Brasil, India eta Zeelanda Berritik eratorritako inbertsioen igoera; izan ere, atzerriko inbertsioek EAEn eginiko inbertsioen %1,9, %10,4 eta %13 dira hurrenez hurren.

Euskal inbertsioa atzerrian, ABDEak kanpo utzita, hazi egin da 2011. urtetik 2012. urtera bitartean, 5.321 milioi eurotik 5.291 milioi eurora.EAEk laugarren postua betetzen du EAEko rankingean atzerrian eginiko inbertsioagatik. Aurretik daude Madril, 6.916 milioi euro; Kantabria, 1.593, eta Katalunia 1.240. Sektoreen aldetik eta finantza eta aseguru jarduerak eta argindar, gas, lur eta aire egokituaren jarduerak alde batera utzita, EAEren kanpoko inbertsioaren %59,2 eta %20,7 hurrenez hurren, eta Estatuak atzerrian sektorean eginikoaren %11,3 eta %7,9. Hauexek nabarmentzen dira:eraikuntza, beste manufaktura batzuk eta handizkako eta txikizkako merkataritza eta motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa.Herrialdeen arabera, hauexek izan dira EAEren inbertsioaren

helmuga nagusiak 2012an EB15ean: Portugal (50 milioi euro), Alemania (39,7 mila euro) eta Frantzia (30 milioi).Eta eurogunetik kanpora:Mexiko (42,6 mila euro), Hego Korea (10,1 mila euro), Txina (9,4 milioi) eta Brasil (7,1).

2.6. SEKTORE PUBLIKOA

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren "*Aurrekontu Burutzapenari buruzko Estatistikak"* erakusten duenez, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek (15.112 milioi euro) %0,1eko igoera txikia izan dute aurreko urtearekiko (2010etik 2011ra %2,5eko jaitsiera izan da), gehienbat zeharkako zergen bilakaera positiboagatik; izan ere, %1 hazi dira, eta konpentsatu egiten da zeharkako zergen jaitsiera: %2 egin du behera.Bi partidek Euskal Sektore Publikoaren sarreren %77 biltzen dute.Halaber, %7,6ko gehikuntza gertatu da finantza-pasiboen aldakuntzan, Eusko Jaurlaritzaren zorpetze handiagoarekin lotuta (zeren ratio hori negatiboa baita foru aldundientzat).

Sarreren %0,1eko gehikuntza horrek bilakaera ezberdina du administrazioen artean, zeren eta, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, %6,5eko igoera izan baitu (gehienbat ohiko transferentzien eta finantza sarreren igoeragatik). Foru aldundiei dagokienez, berriz, %3,5eko jaitsiera izan da (zeharkako zergapetzearen ondoriozko sarreren eta ohiko transferentzien galderagatik, baita finantza sarrerengatik ere).

Zerga itunduak zuzeneko eta zeharkako diru-sarreren gehiengoa dira, eta zenbateko osoaren %90 baino gehiago. Zerga itunduen bilketaren xehetasunari dagokionez, 2012rako behin-behineko datuek %0,6ko erorketa erakusten dute, aurreko urtean %1,9 murriztu ondoren.

Zuzeneko zergetan, guztira, aurreko urtean baino %1 gehiago bildu zen 2012an, PFEZaren bilketan izandako gehikuntza txiki bati (%0,2) eta ondarearen gaineko zergaren ezarpenari esker (115 milioitik gora bildu ziren zerga horretan).Zenbait arauk eta kontroleko jarduketen eta gerorapenen sarrerek bultzatu dute PFEZ, baina urteko azken hileetan hazkundea motelduz joan da, enpleguaren beherakadaren eta herri administrazioan Gabonetako ordainsaria kendu izanaren ondorioz.Hala, zerga honen zutabe nagusia den laneko atxikipenetan (%-1), lan-merkatuaren zailtasunak gertatu dira, baina konpentsatu egiten dira kuota diferentzial garbiari esker.

Zeharkako zergapetzeari dagokionez, egoera ekonomikoaren isla izan da, eta %3,6ko jaitsierarekin bukatu da 2012. urtea.Enplegua murriztu izanaren eraginez, behera egin du familien errenta eskuragarria eta, ondorioz, behera egin du kontsumoak.Horregatik, zerga tasak igo badira ere, norberaren kudeaketaren BEZak ez ditu balio negatiboak alde batera utzi (%-4,4).Alabaina, administrazio zentralak egin duen BEZaren doikuntzak (gehienbat erregaien komertzializazioagatik eta kanpoko merkataritzaren eragiketengatik) moteldu egin du zerga honen bilketaren jaitsiera globala, %-1,4ra.

Labur adieraztearren, bildutako bolumen osoa 11.408 milioi eurokoa da. Zenbateko hori, behin-behineko datuen arabera, EAEko BPG arruntaren % 17,2 izan da 2012. urtean (2011n % 17,3). Bildutako zenbatekoaren %37,9 PFEZari dagokio, %35,4 BEZari, %9,9 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerako %16,8 hainbat zerga bereziri.

Bestalde, Euskal Sektore Publikoaren gastu osoa, 14.685 milioi eurokoa (tokiko erakundeak kanpo utzita), murriztu egin da 2012. urtean % 2,6, aurreko urteko % -1,1eko balioaren aldean.Gastuak bilakaera positiboa izan du bai Eusko Jaurlaritzan (+%0,7) eta negatiboa foru aldundietan (-%2,4). Ondorioz, agregatuaren aldakuntzak indar handiagoa dauka (-%2,6); izan ere, diru partidetako batzuk erakundeen artean orekatzen dira (transferentzien zati bat, esaterako).

Halaber, 2012ko "*Aurrekontu Burutzapenari buruzko estatistikak*" agerian utzi duenez, EAEren sektore publikoaren zorpetze garbia (Eusko Jaurlaritza gehi foru aldundiak) %10,2 egin du gora aurten, aurreko ekitaldian %56,9 jaitsi ondoren.Zorra (zorpetze gordina ken amortizazioa) 1.023 milioi euro igo da aurten. Hauetatik 910 Eusko Jaurlaritzari dagozkio eta gainerako 113 milioiak foru aldundiei.

Ondorioz, ekitaldi amaieran Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek 8.444 milioi euroko bolumena duen zorra aurkeztu dute, 2011n baino %13,8 gehiago. Kopuru hau BPGd-aren %12,7 da, behin-behineko datuen arabera (%11,2 2011n). Horrela, beste

urtebetez, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (osoaren %76,7; %75 aurreko urtean).

2.7. LAN-MERKATUA

Lehenik eta behin, EUSTATen "Biztanleria Jardueraren Arabera" inkestaren datuek (BJA) erakusten dute 2012an EAEko biztanleria aktiboa gehitu dela urtean batez beste.Hala, 2011n lan-merkatuan parte hartzen zuen %56,2koaren aldean, 2012an %54,9 dugu, hots, %1,3 gutxiago.Populazioaren zahartzea eta krisia luzatu izanaren ondoriozko uzkurdura izan litezke bilakaera horren arrazoiak.

Emakumezkoen jarduera tasak urteko %49,1eko batez bestekoa du, 2011koa baino 4 hamarren txikiagoa eta, bestalde, gizonezkoen tasa 2011ko %63,2tik 2012ko %61,1era igaro da. Enplegurako aukerarik ezak funtsezko eragina izan du jaitsiera horretan, halako moldez non lan egiteko adinean diren eta lana galdu duten langileen zati handi bat zuzenean sartu baitira lanik gabekoen multzoan.Halaxe gertatzen da maizago adin-taldeen gorengo tarteetan, baina eragina oso handia da gazteen artean. Hala, lehen hiruhilekoan jarduera tasa %29,2koa izanik ere, ratioak behera egin du laugarrenean, %23,1eraino.Hala ere, talde horretarako urteko batez bestekoa %26,1ekoa da, 2011koa baino 4,2 puntu gutxiago.

Enpleguari dagokionez, 2011ko abendutik 2012ko abendura arte EAEn gertatu den okupazioaren murrizpena %4,6koa izan da; 42.900 lanpostu inguru galdu dira.Gizonen enpleguak izan du bilakaerarik txarrena, azken urtean 24.000 lanpostu galdu baitira bertan; emakumeenak, aldiz, 18.500 enpleguko jaitsiera izan du.Gainera, azken urtean % 35 erori da 25 urtetik beherako gazteen enplegua eta % 4,5, aldiz, 25 eta 44 urte bitartekoena; 44 urtetik gorako langileen enplegua, berriz, % 2 murriztu da.

Urteko batez besteko balioak kontuan hartuz gero, 2012an galdu ziren 33.200 lanpustuetatik (%-3,5 2011ko datuekiko), 23.600 gizonek galdu zituztenak izan ziren eta 9.600 (%-2,2), aldiz, emakumeek; horrenbestez, enpleguaren feminizazioa 6 hamarren hazi zen eta talde horren enplegua % 46,2koa da.Sektoreen arabera, eraikuntzak galdu zuen lanpostuen kopururik handiena 2011n (-5.200), eta ehunekoetan, lehen sektoreak du jaitsierarik handiena (-%9,2). 2012an, berriz, zerbitzuen sektoreak galdu du lanpostu gehien (14.500, jaitsieraren guztizkoaren %44) eta ehunekoen murrizketarik handienak eraikuntza ukitzen du (%-14,3).Industriak, aldiz, 9.400 postuak galdu ditu, eta %4,2ko jaitsiera izan du.

Behin-behinekotasun mailari dagokionez, BJAren datuek erakusten dute 2012an urteko batez bestekoa aurreko urtean baino zertxobait baxuagoa izan zela (% 21,4 2012an eta % 20,1 aurreko urtean).Enpleguaren desegiteak bereziki eragin die aurten kontratu finkoa zutenei (-%4,5; langabezia, berriz, %4,3 gehitu da), lan guztiaren %2,2ko igoera duen aldi baterako kontratua dutenen aldean.Gure Erkidegoan aldi baterako lanen kopurua Holandakoaren (%19,5) eta Portugalekoaren (%20,7) parekoa da. Europar Batasunaren batez bestekoa, berriz, %13,7 da, eta eurogunean %15,2.Behin-behinekotasun ratiorik handienak Espainian (%23,6) eta Polonian (%26,9) daude.

Bestalde, 2012ko kontratazioak aztertuta ikus daitekeenez, jaitsiera gertatu da aurreko urtearekin alderatuta (orotara -%6,9, hasierako kontratu kopuruaren -%6,6). Alderantziz jazo zen 2011n, noiz- eta guztizko kontratazioa %1,9 eta hasierako kontratuak %2,2 hazi ziren.Kontratu mugagabeen guztizko kopuruan (27.163), berriz, %13,1 handitu da hainbat urtetan metaturiko jaitsieren ondotik, baina urtean izenpeturiko hasierako kontratuen %4,13 eta kontratu guztien (hasierakoak gehi bihurketak) %4 besterik ez dira.

Gainera, beherakada horrek mota guztietako kontratuei eragin zien (15.643), bai lanaldi osokoei (2011n baino % 5,4 gehiago), baita 11.520 lanaldi partzialekoei ere (% +25,6).

EEZPren datuek erakutsi dutenez, 2012an 673.529 lan kontratu zeuden guztira (berriak zein bihurtuak zenbatuta), aurreko urtean baino %6,9 gutxiago (-50.291).Horietatik % 51,5 emakumeek sinatu zituzten (aurreko urteko % 50,7arekin alderatuta), eta 2012an kontrataturikoen % 51,1 emakumeak izan ziren baita ere.Sektoreka, industriak %9 kontratu gutxiago izan zituen, zerbitzuek %6,2 eta eraikuntzak, aldiz, %19,9 galdu zituen.Hala, hirugarren sektoreak erregistratutako kontratuen % 84,3 hartu zuen, aurreko urtean baino 7 hamarren gehiago, industriak % 8,7 (-2 hamarren), eraikuntzak % 5 (-8 hamarren) eta lehen sektorea % 2,1ean mantendu zen (2011n baino 3 hamarren gehiago).

2012ko lan-merkatuaren bilakaeraren ondorioz, BJArako langabezi tasa orokorra %12,8koa da urtearen amaieran eta %12,1ekoa batez beste lehen lauhilekoetan. Datu horiek ez dira bildu 2000tik, eta EBren batez bestekotik hurbil daude (%10,5 EB-27an eta %11,4 eurogunean.Europan, oso ezberdinak dira langabeziaren kopuruak: %20tik gorako balioak ditugu, adibidez, Espainian (%25) edo Grezian (%24,3), eta %5ekoak edo txikiagoak Austrian, Holandan edo Luxenburgon esate baterako.AEBetan %8,1eko langabezi tasa dago, %4,3koa Japonian, eta Frantziak, Italiak eta Poloniak Europako batez bestekoaren antzeko ratioak dituzte, zenbait adibide aipatzearren.

Berebiziko garrantzia dute lan-merkatuaren egoera horrek eta enplegurako politikek. Hauexek biltzen dituzte politika horiek: politika aktiboak, langabetuek lana lortu eta lana dutenek lanari eusteko helburua dutenak; eta politika pasiboak, langabetuen babes ekonomikoa lortzeko helburua duena.Politika aktiboei dagokienez, guztira 481 milioi euro erabili zituen gure Erkidegoak 2012an enplegua sustatzeko ekintzetarako, hots, 2.864 euro langabetu bakoitzeko, Estatuko ratiorik handiena.LANBIDEK, zehazki 352,26 milioi euro erabili zituen 2011n (eskuragarri dagoen azken kopurua) enplegurako laguntzetarako, eta horietatik ia erdia (150 milioi) pizgarrietarako eta %20,5 (72 milioi euro) lanbide prestakuntzarako.

Enpleguko politika pasiboetan, EAEn langabeziagatiko prestazioetarako bideratutako gastu osoa 2012. urtean, EEZPren behin-behineko datuen arabera, 1.258 milioi eurokoa zen, EAEren BPGaren %1,9 alegia.

Bestalde, EAEko lan istripuei buruzko datuek, Osalanek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak) erregistratuek, erakusten dute 2012an 29.886 lan istripu gertatu zirela, 2011n baino %14,7 gutxiago (lan istripua izan eta baja eskuratu zuten langileen kopurua kontuan izanik, lansaioan eta “in itinere” gertatuko istripuak eta lanbide-gaixotasunak barne); Estatu osoan, ordea, jaitsiera %20,4koa izan da, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuen arabera.Jaitsiera horrekin batera, gure Erkidegoan 2009tik izan diren beherakadak ditugu, halako moldez non azken lau urtean %48,5eko jaitsiera metatu baita.

Lanaldian istripua izan duten pertsonei helduta, azken urtean mota guztiak murriztu dira larritasunaren arabera:%16,3 istripu arinak eta %20,1 larriak; istripu hilgarriak, aldiz, %13,5 jaitsi dira.Gainera, sektorekako azterketak erakusten du ezbehar-kopuruak nabarmen egin duela behera eraikuntzan (% -28,1) eta industrian (% -18,7), zerbitzuen sektorean (% -11,3) eta, hein txikiagoan, baita nekazaritzan ere (% -7,4).

Zenbateko horiek sektore bakoitzeko lanpostu bolumenari lotuz gero, bilakaera antzekoa da:Lanean ari diren milako 28,3koa da istripu tasa (milako 32,7 2011n eta, beraz, %13,3ko jaitsiera izan da.

Jaitsierarik handiena eraikuntzan (-%16,3) eta industrian daude; izan ere, azken horretatik %15,1 egin du behera, hots, sektorean lan egiten duten milako 43,5 istripu.

Azenik, LHKaren 2012ko “Negoziazio Kolektiboaren Balantzea”ren arabera, urte horretan zehar gure erkidegoko langileen %79,2ari dagozkion hitzarmen kolektiboak berriztatu behar ziren.2011koa baino handiagoa da ehuneko hori (%76,6).Halaber, beste behin negoziazio-prozesuak zailak izan dira, eta hori erraz ikus daiteke; izan ere, urteko hamabi hilabeteetan langileen % 10,9arentzako hitzarmenak baino ez dira lortu, hau da, negoziatu beharrekoaren laurdena baino gutxiago.Lan-hitzarmen berriturik lortu ez duten negoziazio kolektiboen mendeko langileak %68,3 izan ziren urtearen amaieran %59,3 2011n).

2.8. FAMILIAK ETA LANEKO BIZITZA, BIZITZA PERTSONALA ETA FAMILIA UZTARTZEKO ARAZOAK

Familia etengabe aldatzen den instituzioa da.Kultur errealitateek gizarteak aldatzen dituzte, eta haiekin batera, familien forma eta funtzioa.Horregatik, gizarte antolaketaren forma ugariek zerikusia dute familien aniztasunarekin.Famili mota asko daude, baina guztien eginkizuna berdintsuak dira: pertsonen lehen mailako harremanak erraztea, errealizazio pertsonalak ahalbideratzea, afektuzko eta emoziozko dimentsioari euskarria ematea, bere kideak gizarteratzeko prestatzea eta gizarteratzea, portaera pautak eta tradizioak transmititzea...

Gaur egun, familien funtzioan ez ezik beraien antolaketa formak eta osagaiak aldatu dira.Lehenik eta behin, familien aniztasun handiagoa dago, baita batez bestekoaren tamaina txikiagoa ere, hots, 2,68

pertsonakoa 2009an. Halaber, aldaketak izan dira etxeetako erreferentziako pertsonen profilean, eta gora egin du adinekoen eta emakumeen garrantziak, baita etorkinenak ere.Bestalde, familietan adingabeen presentzia murriztu da, eta mendetasun egoerak areagotu.

Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoaren Kabineteak azterlan bat burutu du 2012an, "*Familia EAEn*" izenburua duena, eta herritarrek familiari buruz duten balorazioaren ikuspegi orokorra ematen du:elkarrizketaturiko pertsonen %96k uste du familia oso edo nahikoa garrantzizkoa dela, beste alderdi batzuen gainetik: aisialdia (%93), lagunak (%92) edo lana (%91).Gainera, gehienen ustez, aurreko garaietan bezain garrantzitsua da familia (elkarrizketatuen %47), edo garrantzitsuagoa (%15).Familiak aurreko garaietan bezain garrantzitsua izaten jarraitzearen gaineko iritzi hori etengabekoa da baldin eta inkesta honen eta aurrekoen emaitzak alderatzen baditugu, zehazki 1997koak eta 2001ekoak. Hala ere, familiak gero eta garrantzi txikiagoa duela uste dutenen ehunekoak gora egiten duela ikus daiteke (%24tik %30era).

Azken urteetan, familien osaerak izan dituen aldaketak eta aldaketa horiek ugalkortasun-tasetan izan duten eraginak handituz doan interes publikoa zirikatu dute, dakartzan ondorioak direla eta.Ugaltzeko joera duten adinekoen artean laneratze eta igoerekiko kontzientziak emakume gazteak oso egoera zailean jartzen ditu seme-alabak izateko erabakiari dagokionez.Ama izan nahi duten gehienek amatasuna lanarekin bateratu nahi izaten dute eta geroz eta gehiago dira bikoteko bi kideek lan egiten duten eta 15 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familiak.

"*Familia EAEn 2012an*" azterlanak alde horretan nabarmentzen duenez, elkarrizketatuen %47k uste du oinordekoak izateak nahikoa oztopatzen duela emakumearen lanbide karrera, eta %19k eragozpen "handia" dela deritzo.Gizonezkoen ustez, aldiz, galdeturikoen %10ek baino ez du uste emakumeek eragozpen asko edo nahikoak dituztela lanbide karreran seme-alabak izateagatik.Gainera, gehienek uste dute (%51ek 2012an eta %57ak 2001ean) amatasun baja oso laburra dela, baita aitatasun baja ere (%53k uste du 2012an –2001ean ez zegoen baimen hori- aitatasun baimena ez dela nahikoa).

Bestalde, EUROFUNDen (Bizi eta lan-baldintzak hobetzeko Europar Fundazioa) "Bizi Kalitatearen Europako III. Inkestak" (2012) jakinarazi zuen 2012an Europar Batasuneko langileen %53 lanetik itzultzean nekatuegi egoten direla etxeko zereginak egiteko, gutxienez hilean hainbat aldiz, eta langile horien laurdenak hala sentitzen direla astean hainbat alditan.Gainera, grafikoan ageri denez, ordaindutako lanorduak zenbat eta gehiago izan, gero eta handiagoa maiztasun hori. Horrenbestez, astean 48 ordu baino gehiago lan egiten duten pertsonen %35 soilik esaten du aipatu nekea "inoiz ere ez" edo "oso gutxitan" jasaten duela.Halaber, % 30k familiako erantzukizunei erantzuteko arazoak ditu lanagatik, eta % 14k dio lanean arreta jartzeko arazoak dituela familiako erantzukizunak direla eta.

Ehuneko horiek asko aldatzen dira herrien arabera, eta aztertutako hiru adierazleetan Espainian Batasuneko batez bestekoa baino nahiko handiagoak dira (%69, 41 eta 21eko ratioak, hurrenez hurren).Gainera, emaitza okerragoak dira, oro har, 2007ko inkestaren aldean, lana dela-eta familiako erantzukizunak betetzeko zailtasunak izan ezik; izan ere, horren garrantziak behera egin du herrialderik gehienetan (Espainian %57tik %41era).

EAEn, EUSTATek "*Laneko bizitza, bizitza pertsonala eta familia uztartzeari buruzko inkesta*" egiten du, eta horren 2011ko datuek nabarmentzen dutenez, lehenik eta behin emakumeek gizonezkoen ordu kopurua ia bikoiztu egiten dute adingabeen eta mendekotasunean diren pertsonen zaintzan.

Alde honetan, emakumeen ustez zailtasun txikiagoa dago ordaindutako lana familiarekin eta eremu pertsonalarekin uztartzeko, eta beharbada horregatik, ia gizonen bi halako ordu kopurua ematen dute seme-alabak eta mendekotasunean diren pertsonak zaintzen.Gizonek egunean 2,8 ordu ematen dituzte adingabeen zaintzan; emakumeek, aldiz, 4,7 (2010eko kopuru bera). Alde hori nabarmenagoa da mendekotasunean diren pertsonen zaintzaren kasuan. Jarduera horretan gizonek egunean 1,6 ordu ematen dituzte (1,9 2010ean), eta emakumeek, aldiz, bikoitza baino gehiago (4,3 ordu 2010ean).

Inkestak, era berean, agerian uzten du bereganaturiko kargen desberdintasun horrek eragina duela bizitza pertsonalean, aisialdian edo

prestakuntzarako dagoen denboran, zeren eta, 0tik 10erako eskala batean, 5,7ko betetasun maila adierazten baitute emakumeek eta gizonezkoek, berriz, 6,1ekoa.Betetasun txiki hori familia eratzen ari deneko adinetan metatzen da, 35 urtetik 44 uretara, non betetasun maila 5,5ekoa den. Ondorengo adinetan, handiagoa da.

Azaldutako egoera horiek arintzeko, familiei laguntzeko planak abiarazi zituen Eusko Jaurlaritzak 2002an, zertarako-eta familiek seme-alaba kopurua askatasunez erabakitzea galarazten duten eragozpen ekonomikoak eta gizarte eta laneko eragozpenak gainditzeko. Hala, Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen 2008an, markoari lerrun juridiko handiagoa emateko eta famili politika integralerako oinarriak ezartzeko, betiere familien eta familiako kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetze aldera.Familientzako zuzeneko laguntzak 2002an hasi ziren I. Famili Planarekin.Harrezkero, 2012ra arte, 500 milioi euroko gastuak izan dira laguntza horietan, gutxi gorabehera erdibana banatuta jaiotza, adopzio edo aurre-adopzioko harrerarako laguntzen eta uztartzeko laguntzen artean.

2.9. BIZI-BALDINTZAK

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzak lau urtean behin "Pobreziaren eta gizarte arloko desberdintasunen inkesta" (PADI) egiten du. Horren bidez pobreziak gure gizartean daukan eraginaren, pobreziari eragiten dioten arrisku faktoreen eta haren banaketa geografiko desberdinaren berri ematen da.2012ko datuetan ikus dezakegu zein eragin izaten ari den egungo krisia euskal herritarren bizi-baldintzetan eta, pobreziaren ageriko gehikuntza erakusten badute ere 2004 eta 2008ko datuak alderatuta:

- Mantentze pobreziaren arriskuaren adierazlea 2008an populazioaren %5,7 izatetik %7,3 izatera igo da 2012an, hots, 35.000 pertsona gehiago pobrezian, harik eta EAE osoan 157.686 izateraino.

- Bestalde, ongizaterik ezaren ehunekoa ere areagotu da (mantentze dimentsioan hori ere): %16,4tik %19,9ra. Orotara 80.000 pertsona dira.

- Pobrezia-adierazleen bilakaera berria hobea da metaketa-pobreziarekin lotutako adierazleak aztertuz gero; hartara, familien ondarearen eta ondasun materialen ingurukoak ditu kontuan.Izan ere, bizigarritasun arazoekin etxebizitzetan bizi direnen ehunekoa oso txikia da, %6,2koa 2012an, eta etxebizitzako oinarrizko ekipamenduen gabezia %1,2tik %0,6ra jaitsi da.Metaketa-pobrezia ere jaitsi da: %1,5etik %1,4ra.

- Halaber, PADI osotzeko, pobrezia errealeko egoerak identifikatzeko adierazle sintetiko bat eman da, hots, zenbait alderditako egoera onak beste batzuetako balizko gabeziak konpentsatzen direneko egoerak.Adierazle hori erabiliz ikus daitekeenez, gora egin dute pobrezia errealeko egoerek: %4,2tik %5,3ra, hots, %27,9ko igoera ukituriko pertsonen proportzioan.Inkestak berak aitortzen duenez, historiako mailarik altuenetakoa da, baina nolanahi ere 1996an izan zena baino txikiagoa (%8,7), noiz-eta 185.000 pertsona bizi baitziren pobrezia errealean. 2012rako, berriz, 114.000 zenbatetsi dira.

Bestalde, EINren "*Bizi-baldintzei buruzko inkesta*"ri esker (Europar Batasunaren errentari eta bizi-baldintzei buruzko "*Statistics on income and living conditions*" (EU-SILC) izeneko estatistikak bateratzeko prozesuaren barruan sartzen da), informazio berriagoarekin osa dezakegu EAEko bizi-baldintzen bilakaeraren jarraipena, zeren eta urteko datuak baitira eta, aldi berean, nazioarteko erreferentziarekin handitzen baitira, EUROSTATen metodologia bera erabiltzen delako adierazle askotan.

Eskuragarri ditugun azken datuek erakusten dutenez, lehenik eta behin gora egin du EAEko batez besteko errentak, bai etxeko, bai pertsonako (%+1,1 eta %+1,9, hurrenez hurren) 2010ean, azken bi urteetan EBn izandako joeraren ildotik.Badirudi hazkunde horrek adierazten duela, aurreko urteko jaitsiera baino txikiagoa izanik ere (%-2,8 eta %-2,9), gorako bidean dela sarreren maila gure erkidegoan. Estatu osoan eta autonomia erkidego gehienetan, berriz, errenten jaitsierari eusteko joera dago.

2 Mantentzearen dimentsioari dagokionez, pobreziaren arrisku-egoerak honako hauek dira: premia funtsezkoenei erantzuna emateko nahikoa diru-sarrerarik ez edukitzea (janaria, etxebizitza, arropa eta oinetakoak), ongizaterik ezaren arriskua, berriz, gizarte jakin batean espero diren ongizatearen eta erosotasunaren gutxieneko mailak mantentzeko behar diren gastuak ordaintzeko diru-sarrera nahikoak ez izatearekin lotzen da.

Era berean, zailtasun materialekin eta gabezia zailtasunekin lotutako zenbait alderdiren inguruko inkesta honen adierazleek erakusten dutenez, hobekuntza gertatu da euskal familien bizi-baldintzetan azken urtean:

- %18,2k dio ezin dietela aurre egin 2012an ezusteko gastuei (EB eta Espainian tasa hori %35aren ingurukoa da), 2011n baino %2,7 gutxiago.
- Behera egin du etxebizitza nagusiaren ordainketen atzerapenak dituzten etxeen ehunekoak azken urtean: %4,2tik %2,7ra.
- Hilaren bukaerara iristeko zailtasunak dituzten etxeen ehunekoa oraindik ere altua da (%37,9), baina %1,3 murriztu da 2011koarekin alderatuta. Estatukoak, berriz, goraka jarraitzen du eta etxeen %60tik gora ukitzen du.
- Urtean astebeteko oporraldia hartzeko diru ahalmenik ez duten familien ratioa igo egin da 2011 eta 2012 urte artean: %25,4tik %22,6ra.
- Bestalde, behera egin du 2011n pobreziaren atalasetik behera bizi direnen tasak ere: %11,6tik %10,6ra. Estatuan eta EBn gorantz egiten jarraitu du.

Alabaina, kontuan izan behar da, aldagai horietan azken urtean izandako hobekuntza gorabehera, oraindik oso urruti gaudela egungo krisiaren aurreko errenta mailetatik eta bizi-baldintzetatik. Izan ere, lehen euskal familien %15ek baino ez zuen adierazten zailtasunakzituela hilaren bukaerara iristeko edo urtean astebeteko oporraldia gozatzeko.

Bestalde, EUROSTATen zenbatespenen arabera, ia 120 milioi europar daude Europar Batasunean pobrezia eta bazterketa arriskuan (populazioaren %24,2 2011n), Europa Estrategia 2020aren irizpideen arabera. Espainian, %27ko ratioa da, eta %16koa besterik ez EAEn.

Gainera, EAEn Memoria Sozioekonomikoaren edizio honetan arreta berezia jarri dugu adinekoengan, eta horren inguruan esan behar dugu, lehenik eta behin, gure herrialdea ez dagoela munduko populazioaren zahartze prozesutik aparte.2011ko abenduaren 31n, EAEko 65 urte eta gehiagoko biztanle taldean 424.298 pertsona daude (kopuru osoaren % 19,5) eta 20 urtetik beherako gazte segmentua baino segmentu oparoagoa da (haiek 376.257 pertsona dituzte, kopuru osoaren % 17,4).Emaitza hauek aldaketa handia suposatzen dute 1981. urtean igarritako adin egituraren aldean; une hartan segmentu gazteena biztanleriaren % 34,2koa zen eta adinekoenak kopuru osoaren % 9,2 besterik ez zuen hartzen.Eraldaketa honek 80ko eta 90eko hamarkadetan jasandako jaiotza kopuruaren murriztapena islatzen du, biztanleriaren bizi itxaropena areagotzearekin batera.

Are garrantzitsuagoa da ikustea, ziurrenik, biztanleriaren zahartzea areagotu egingo dela datozen urteetan.EUSTATen proiekzioen arabera, 65 urteko eta 65 urtetik gorakoen populazioak etengabeko hazkundeko joerari eutsiko dio; izan ere, gaur egun 400.000 pertsona dira, eta 2020an, berriz, milioi erdi izango dira, hots, adinekoen %25.Gainera, 65 urtetik gorakoen gaineko aurreikuspen horren populazioaren %22,5aren barruan, %7,3 75-84 urteko pertsonak izango dira, eta populazioaren %4,2 85 urtetik gorakoa izango da. Pentsatu behar dugu gure populazioaren %1,1 besterik ez zirela 1990ean.

Biztanleriaren pixkanakako zahartzea herrialde guztiei eragiten dien erronka da, bai ekonomiaren aldetik, bai gizartearenetik, eta horrek inpaktu handia eduki du adinekoen geroz eta kopuru handiagoaren agerpena nola antzematen den eta belaunaldien arteko harremanak nolakoak diren ikusterakoan.Batzuek alderdi negatiboetan oinarritzen dute eztabaida:zahartzea karga gisa.Aitzitik, nagusi da sentimendu positiboa:zahartzea gizarte aurreratuen lorpena da, eta, gaur egun, zahartzeari buruz hitz egitea aukerei buruz hitz egitea da.Ongi zahartzea geroz eta garrantzitsuagoa den kontzeptua da, behin estereotipo negatiboak ezabatuta, eta hurrengo ideian oinarritzen den baikortasun berri batean zabaltzen da: adinekoak behar beste aprobetxatuta ez dauden aukerak eta gaitasunak eramaten dituzten pertsonak bezala hartzea.

Gainera, adinekoen osasun adierazleek ideia bera daramate:adinekoen osasun-mendekotasun arazoek, ehunekoetan, hobetzeko joera dute, halako moldez non orain arte adinekoak soilik hartzailetzat hartzen baziren ere (zaintza, laguntza materiala eta ekonomikoa), gaur egun batez ere senideei laguntza ematen jarraitzen baitute -gororatu aitona-amonen

%45ek baino gehiagok laguntzen dutela ilobak zaintzen eta %13k gaixorik dagoen senideren bat zaintzen dutela-, eta gero eta gehiago egiten dituzte gizarte jarduera altruistak boluntarioen elkarteetan.

Hala ere, bizi-itxaropenaren hazkundeak areagotu egin du nabarmenki mendetasun egoeran dauden adinekoen kopurua. Aldiz, kualitatiboki, adinekoen mendetasun mailak beherantz egiteko joera du.Nolanahi ere, egia da:

- EINren Ezintasunari buruzko Inkestak (2008) erakusten duenez, handia da ezintasuna dutenen batez besteko adina.Gehienek (%81,4) 50 urte edo gehiago dituzte, eta mendekotasunean diren pertsonen artean, are handiagoa da adinekoen pisua.Hirugarren pertsona baten laguntzaren beharra eguneroko jarduerak egiteko % 12an kokatzen da adinekoen artean neurri bateko mendetasuna eta mendetasun larria aztertuz gero, eta % 26an mendetasun arina ere aintzat hartuz gero.

- 75 urteetatik aurrera, biztanleriaren ia erdiak ditu arazoak eguneroko jarduera batzuk egiteko (oinarrizkoak eta instrumentalak), eta bostetik batentzat larriak dira.Mendetasuna hasten den eta laguntza beharra dagoen batez besteko adina 72 urtekoa izaten da.

- Urte horretan ezintasun motaren baten dutenen tasa milako 84,5ekoa zen gure Erkidegoan. 65 urtetik gorakoen ratioa, berriz, milako 266,5ekoa da.Adinekoen taldearen barruan, logikoa den bezala, kopurua areagotu egiten da adinarekin, 80 urtetik gorakoen arteko % 50era ia iritsi arte (% 40 gizonezkoen artean eta % 54,4 emakumeen artean).

- Ezintasunen bat duten adineko gehienek mugikortasunarekin (milako 194,7), etxeko bizitzako lanak egiteko aukerekin (milako 171,1) eta norberak bere burua zaintzearekin (milako 153,2) uztartutako mugak jasaten dituzte.

- Gizarte aldaketek pentsarazi egiten dute zerbitzu formal gehiagoren eskaera egongo dela, nahiz eta laguntza informalak izaten jarraituko duen datozen urteetan mendetasun egoeran dauden pertsonentzako laguntza eredu nagusia, eta horrek beheranzko joera edukiko badu ere.Gaur egun, adinaren araberakoa da mendekotasuna duten adinekoen arteko eta belaunaldi askoko etxeen garrantzia:etxe mota horretan bizi da mendekotasuna dutenen %52,8.Babes horrek, doakoa eta masiboa, berebiziko garrantzia du adinekoei emandako arreta zerbitzuen sisteman.Mendetasun egoeran dauden adinekoen zaintza informalaren profila bat dator emakumeekin (% 83,6), normalean etxekoandreekin (% 50). Haien batez besteko adina 52,9 urtekoa izaten da.

- Gainera, IMSERSOren arabera, autonomia erkidegoen batez bestekotik hurbil dago EAE (2010eko datuak) mendekotasuna duten pertsonentzako gizarte zerbitzuen eskaintzari dagokionez.Telelaguntzako zerbitzuen estaldura (65 urtetik gorakoen % 5,05) Estatuko batez bestekoaren azpitik dago; aldiz, eguneko zentroetako zerbitzuetan (% 4,27), egoitzakoetan (% 0,95) eta etxez etxeko arreta zerbitzuetakoan (% 4,63) gainetik dago.Labur adieraztearren, zerbitzu nagusien estaldura % 14,9ra iristen da gure Erkidegoko adinekoen kasuan (% 14,4, 2008. urtean, 2009ko Memoria Sozioekonomikoan aztertu zenez). Estatu osoan, adinekoen kopuru hori % 17,5era iristen da (% 14,7 zen 2008. urtean).

2.10. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA

Osasun Sailaren heriotzen erregistroaren arabera, gizonezkoek nahiz emakumezkoek bizi-itxaropenaren etengabeko igoera izan dute azken urteetan; izan ere, 79,2 urtekoa da gizonezkoentzat eta 85,9 emakumezkoentzat 2010ean.

Bestalde, EUSTATek 2020. urtera arte bizi-itxaropenaren gaineanegindakoaurreikuspenek erakusten dute euskal biztanleria urte gehiagoz biziko dela. Emakumeak 87,3 urteraino eta gizonak 81,2 urteraino biziko dira. Beraz, bizi-itxaropenean, bi sexuen arteko aldea 6,1 urtera murriztuko litzateke.

Aldi berean, EAEren 2012-2020ko Osasun Planean bildutako azken datuen arabera, jaitsi egin da ezintasunik gabe iristen deneko adina; handitu egin da ezintasunik gabeko bizitzako urteen kopurua ere: 69,6 urte gizonezkoetan eta 74,9 emakumezkoetan.

EUSTATen heriotzen estatistikak agerian utzi duenez, heriotzarik gehienak transmititzen ez diren gaixotasunen ondorioz gertatu dira, gehienbat gaixotasun kardiobaskularrak eta tumoreak.

Halaber, Heriotzetako asko adin handienetako tarteetan gertatzen dira, eta 70-99 adin tartea ardatz hartuta eta aurreko urtearekin alderatuta, heriotza proportzio handiagoa gertatu da 80-89 urte bitartekoen eta 99 urtetik gorakoen artean, eta txikiagoa 70-79 eta 90-99 urtekoen artean.

Heriotza goiztiarraren eragile nagusiei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailaren datuen arabera, hauexek izan ziren kausa nagusiak 2010ean:

emakumeak, ordena honen arabera: trakea, bronkio eta birikietako tumore txarrak, bularreko tumore txarrak; koloneko tumore txarrak, gaixotasun zerebrobaskularrak, zirrosia eta gibeleko gaixotasun kronikoak eta obarioetako tumore txarrak. Gizonezkoetan, berriz, trakea, bronkio eta birikietako tumore txarrak; kardiopatia iskemikoak, suizidioak, nork bere buruari min egitea, motordun ibilgailuen trafiko istripuak, zirrosia eta gibeleko gaixotasun kronikoak eta ezpain, aho eta faringeko tumore txarrak.

Morbilitatearen arloan, haurdunaldi, erditze eta puerperioagatiko ingresoak baztertuta, ospitaleratzeko bi kausa nagusiak EAEn, 2011n, nerbio sistemaren eta zentzumenen organoen (horien artean katarata nabarmendu behar dugu) gaixotasunak izan ziren, gaixo guztien %12,4raino, eta mila biztanleko 18,5 kasuko tasarekin, zirkulazio aparatuaren gaixotasunekin batera (%11,3; 16,8 kasu 1.000 biztanleko).Bigarren taldean, tumoreak (paziente guztien %9,2 eta 13,8 kasu 1.000 biztanleko) eta hezur-giharretako gaixotasunak eta lokomozio gaixotasunak daude (%9,1 eta 13,5, kasu 1.000 biztanleko).

Nahitaez adierazi beharreko gaixotasunei dagokienez, bereziki nabarmenak dira hauek 2011n, EUSTATen arabera:gripea (1.120,5 kasu 10.000 biztanleko, aurreko urtean 409,5) eta barizela (307,2 kasu 10.000 biztanleko; eta neurri txikiagoan:parotiditisa (39,8), tuberkulosia (18,2), kukutxeztula (8,2), infekzio gonokozikoa (6,1), sifilia (5,2), legionelosia (4,7) eta elgorria eta paludismoa (1,7 bakoitza).

EUROSTATen osasun baliabideei eta osasun langileei buruzko datuen arabera:

- EAEn, EBko herrietan baino mediku eta psikiatra gehiago dago100.000 biztanleko.
- Gorako joera du EAEn 100.000 biztanleko haginlarien kopuruak; baina, hala ere, EBko hainbat herrialdetakoa baino txikiagoa da.
- Ospitaleko ohe kopuruak beheranzko joera dauka EBn eta EAEn, eta uste da murrizketa horren zati handi baten zioa egonaldiaren laburtzea izan dela.Alabaina, 2009 eta 2010 urte artean badirudi adierazlea egonkortu dela, zeren 100.000 biztanleko ohe kopurua 370,6koa izatetik 370,2 izatera igaro baita.

Ospitalez kanpoko jarduera publikoari dagokionez:

- Ospitalez kanpoko 474 zentro publikoetan, 2010. urtean, guztira 14,3 milioi kontsulta egin ziren, aurreko urtean baino %1,2 gutxiago.
- Medikuen kopuruaren jaitsiera dela-eta (espezialista kopuruak behera egin duelako), gora egin du medikuko biztanle kopuruak, baina ez medikuntza orokorrean: mediku bakoitzeko 1.235 izatetik 1.201 izatera.
- Mediku bakoitzeko kontsulten batez besteko kopurua 4.838 izan zen 2010ean. Mediku orokorrek (5.648) eta pediatrek (5.036) gainditu dute zifra hori.
- Biztanle bakoitzeko kontsulta kopurua 6,6koa izan zen batez beste. Batezbesteko hori txikiagoa zen medikuntza orokorrean (4,7 kontsulta biztanleko) eta antzekoa pediatrian (14 urtetik beherakoak beren osasun zentrora joan ziren, pediatrarengana, 6,1 aldiz batez beste).

3 Gogoratu behar dugu aurreko kanpainan kasurik gehienak abenduan izan zirela eta, era berean, 2009an zenbatzen zirela.

4 Datuak zuhurtziaz hartu behar dira, estatistika erakunde berak zehazturiko hausturengatik, 2009ko psikiatra eta mediku kopuruaren jaitsieragatik ondorioztatzen denez.

Ospitaleko jarduerei (publikoa eta pribatua) erreparatuz gero, honako hau erakusten dute EUSTATen datuek:

- Nahiz eta ospitale kopurua handiagoa izan sare pribatuan, publikoan dago baliabideen kopuru handiena: oheen %69,3, medikuen %69,8 eta erizaintzako langileen %85,3.

2009 eta 2010 urte bitartean, ospitaleen kopurua izan ezik, hazkundea gertatu da kontsideraturiko gainerako baliabideetan (oheak, sendagileak eta erizaintzako langileak).Zehazkiago, %6,3 egin du gora pertsonal medikoak sare publikoan eta %5,3 sare pribatuan; eta erizaintzako langileek %26,9 sare publikoan eta %9,4 pribatuan.

- Laguntza jarduerari dagokionez, murrizpenak izan dira zenbait jardueratan: -%3,3 egonaldietan, %-0,3 kanpoko kontsultetan eta %-2,9 larrialdietan; ebakuntzen kopuruak, berriz, %1,9 egin du gora, eta %1,5 erditzeenak.

Eginiko 247.441 ebakuntzetatik, %66 ospitale publikoetan burutu dira eta %34 pribatuetan.Alabaina, zentroaren titularitatearen arabera aldatzen da bilakaera:%7,5 igo dira sare publikoan eta %7,4 pribatuan.

Arreta jaso duten erditze guztiei dagokienez (21.188), gehienak (%88) ospitale publikoetan burutu dira.

- 1.000 biztanleko ohe kopuruak egonkor eusten dio aurreko urtearekiko (3,6).

Osakidetzaren ospitaleko eta ospitalez kanpoko jarduerari dagokionez:

- Osakidetzako sarearen batez besteko okupazio tasak (adituen arabera, maila egokia %85ekoa da) %100 gainditzen du (hala posiblea da, praktikan oheak aldatzen baitira espezialitate medikoen artean beharrezkoa denean) psikiatria (%141), pneumologia (%127,3), digestio aparatua eta barne medikuntza (bietan % 112,2) espezialitateetan.

  %100etik behera ditugu gainerako zerbitzu medikoak:kardiologia (%92,1), errehabilitazioa (%91,9), zaintza aringarriak (%87,5) eta hematologia (%81,7), eta zenbait zerbitzu kirurgiko:urologia (%95,3), kirurgia kardiobaskularra (%90), neurokirurgia (%86,6), traumatologia (%82,2) eta kirurgia orokorra (%81).

- Batez besteko egonaldia, egunetan, berriro murriztu da, 5,6tik 5,5era. Oso gainetik daude errehabilitazioa (29,3), psikiatria (14,3), zaintza aringarriak (14), hematologia (8,8) eta barne medikuntza (8,2).

Azkenik, EAEren aurrekontuaren likidazioko datuen arabera, Osasun eta Kontsumo Sailaren gastuaren partida, 2011n, 3.434,3 milioi eurokoa izan zen, hots, %3,1eko jaitsiera 2010ean likidaturiko gastuarekiko. 2011n likidaturiko osasun partida espezifikoak (Egitura eta Laguntza, Osasun Finantzazioa eta Kontratazioa, Osasun Publikoa, Jakintzaren Kudeaketa eta Ebaluazioa eta Farmazia) 3.398,8 milioi eurokoa da, eta %3,9ko murrizpena ikus daiteke 2010ekoarekin alderatuta. Hala ere, Osasun Sailak oraindik lehen postua betetzen du baliabideen ehunekoan, guztizkoaren %33,4 2011n, non programa nagusia Osakidetzaren transferentziei dagokien.Gastu hori BPGaren % 5,13 da, aurreko urtekoa baino %5,43 gutxiago.

Bestalde, Osasun eta Kontsumo Sailak 2012an izandako gastuen aurrekontua 3.406,6 milioi eurokoa da (%-0,3 2011n likidaturiko gastuarekiko). 2012rako aurrekontuko osasun partida espezifikoak 3.399,7 milioi eurokoak dira, hots, BPGaren %5,13, aurreko urterako erregistraturikoaren berdina.

Osakidetzaren aurrekontuko likidazioak, EAEko kontu orokorretan oinarrituta egin zenak, erakusten du erakunde horrek egindako gastua, 2011n, 2.663 milioi euro izan zela (2010ean baino -%0,4 gutxiago), hau da, BPG nominalaren %4,02.Jaitsiera horien azalpena ustiapen gastuen (langileria, hornikuntza eta beste gastu batzuk) eta inbertsioen beherakadan datza.

2.11. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren *"Higiezinen Eskaintzaren Inkesta"*ren datuek adierazten dute azken urtean etxebizitzen eskaintza osoa (salmenta eta alokairua) %11,4 jaitsi dela (aurreko urtean +%54,4), laugarren hiruhilekoan 39.542 etxebizitzetara iritsi arte.Beraz, aldatu egin da joera 2012an, gorako bilakaerako hiru

urteko aldiaren ostean.Etxebizitza motaren arabera, datu hauek nabarmentzen dira:

- Salgai dauden etxebizitza libre berrien eskaintza %3,4 hazi da, eta horien batez besteko prezioa 3.742,1 €/m^2-koa da 2012ko laugarren hiruhilekoan, 2011n baino %0,7 gutxiago. Lurraldekako azterketak erakusten duenez, batez besteko txikiagoa dago Araban (3.426,6 €/m^2). Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, 3.845,3 €/m^2eta 3.682,3 €/m^2dira hurrenez hurren.

- Saltzeko eskainitako BOEren batez besteko prezioa 1.532 €/m2 zen 2012an, aurreko urtean baino %3,5 gehiago.Eskaintza 2012ko laugarren hiruhilekoan 4.180 unitatekoa zen, aurreko urtean baino %38,9 gutxiago.

- Eskaintzan dauden bigarren eskuko etxebizitzen stockean %9,7ko jaitsiera dago eta haien batez besteko prezioa 2012an 3.564 €/m zen, aurreko urteko batez bestekoa baino %7,2 gutxiago.Lurraldeka, Gipuzkoan eta Araban batez bestekoak baino jaitsiera handiagoa izan dute prezioek (%-9,8 eta %-8,4 hurrenez hurren); Bizkaian, berriz, %4,4 jaitsi dira.

- Alokairuan eskainitako 2.640 etxebizitzako eskaintza zenbatu da, aurreko urtean baino %11,5 gehiago.Libreei dagokienez (eskaintzaren %76), berriz, %25,7 hazi da: 1.602 etxebizitzatik 2.013 etxebizitzara, alokairuko etxebizitza babestuetan %18,1 egin du behera. Beraz, babesturiko alokairuak behera egin du: alokairuaren %32 2011n eta %24 2012an.

- EAEko alokairuko babestutako etxebizitzen batez besteko errenta, 2012an, 356 euro zen hilean, aurreko urtean baino %41,8 gehiago.

- Azkenik, alokairuan eskainitako etxebizitza libreen laginak 2012an hilean 856 euroko batez besteko errenta izan zuen, aurreko urtean baino %4,5 gutxiago.Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak dauka preziorik garestiena (879,7 € hilean); gero Bizkaiak, 865 € hilean eta azkenik Arabak (790,3 € hilean).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 2011n egin zuen *"EAEko etxebizitza beharraren eta eskariaren oinarrizko inkesta"*ren (EBEI) emaitzen arabera, lehenik eta behin erreferentziazko urtean %9 (aurreko urtean baino 2,7 gutxiago) ziren lehenengo etxebizitza eskuratu behar zutela zioten pertsonak.

Kopuru absolutuetan zenbatesten dugu beharrizan hori adierazten duten pertsonen kopurua 76.360 familiaraino iristen dela, hau da, aurreko urtean baino %21,9 gutxiago.Eskariari dagokionez, jotzen da 45.288 etxebizitzakoa dela lau urteko epean eta 4.786 etxebizitzakoa urtebeteko epean (epe laburrean).

Halaber, EAEko familien %4,5ek ohiko etxebizitza aldatu beharra du.Hots, 38.048 etxebizitza (%-32,5 2010eko datuekin alderatuta). Eskarien aldetik, aurreikuspenen arabera, 19.196 etxebizitza beharko dira 4 urteko epean eta 9.468 epe laburrera (urtebete).Eta gainera, 75.342 etxetan diote etxebizitza birgaitzeko beharra dutela (aurreko urtean baino %6,9 gutxiago).

5 EBEI. 1994tik urtero eginiko inkesta, EAEko 3.200 etxe adierazgarrien lagin baten gainean.

2.12. GIZARTE BABESA

Hasteko, EAEko Gizarte Zerbitzuen gastua 2010ean (informazioa eskura daitekeen azken urtea) 2.176 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %2,5 gehiago, EUSTATen *"Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika"*ren arabera.Gastu hori gure erkidegoaren urte horretako BPGd-aren %3,33 da eta biztanle bakoitzeko batez beste 1.001,1 euroko gastua, 2009an baino %2,9 gehiago. Herri administrazioen ahalegina 1.633 milioi eurokoa izan zen, guztiaren %75, eta sektore pribatuak, aldiz, gainerako %25 eman zuen.Erabilitako bost eurotik bat erabiltzaileen kuoten eta bestelako salmenta batzuen bidez finantzatu zen.

Gizarte zerbitzu ugariren artean, biztanleentzako eta adineko pertsonentzako zerbitzuak dira baliabide gehien jasotzen duten arloak, bien artean gastuaren %70 hartzen baitute.Adineko pertsonei dagokienez, batez ere egoitzetako zerbitzuak, laguntzeko eguneko zentroak, etxez etxeko laguntza-zerbitzuak eta telelaguntza dira gehien jasotzen dituzten arreta motak.2010ean 19.873 plaza eskaini ziren egoitzetan, hau da, 65 urtetik gora zituzten 100 pertsonako 9,7 plaza eman ziren.Administrazio publikoak plaza horien %34 eskaini zuen titulartasun publikodun zentroetatik eta beste %31 adostu zuen instituzio pribatuekin.

2007ko Mendekotasunaren Legea ezartzeari dagokionez, hauxe erakusten dute Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Erakundearen (IMSERSO) datuek 2012ko abenduaren 31n:

aipaturiko data horretan, EAEk orotara 84.902 balorazio-eskabide zituen erregistratuta Mendekotasunaren Arretarako Sisteman, eta horietatik gehienak (gauza bera gertatzen da gainerako erkidegoetan) mendekotasun-maila aintzatesteko berrikuspenei dagozkie.Eskabide horiek Estatuaren guztizkoaren %3,87 dira, noiz-eta gure Erkidegoko populazioa estatukoaren %4,64 denean.Hona hemen eskatzailearen profila: emakumea (guztizkoaren %65,4), 80 urtekoa edo gehiagokoa (guztizkoaren %52,14, eta %58,22raino emakumeentzat).Hurrengo talderik handiena 65 eta 79 urte bitartekoena da, hots, eskabide guztien %25,27.

Erregistraturiko ia 85.000 irizpen-eskabideetatik, %94,13k irizpena jasoa izan du (%93,86ko batez bestekoa Estatuan), eta 47.678k (irizpena jaso duten kasuen %59,66) prestaziorako eskubidea aintzatetsia du.Ehuneko hori Estatuko batez bestekoa (%64,84) baino txikiagoa da.Aintzatetsitako 47.678 prestazioak 39.277 onuradunei dagozkie (pertsonako 1,19ko prestazio ratioa dago, zeren eta pertsona bat zerbitzu edo prestazio baten baino gehiagoren onuraduna izan baitaiteke), eta erreferentziako datan 46.652 prestazio ezarri dira. Horietatik %49 familien zaintzaren ziozko prestazio ekonomikoari dagozkio, %18 egoitza arretari, %11 eguneko edota gaueko zentroetako zaintzei eta %10 etxez etxeko laguntza zerbitzuei, prestaziorik garrantzitsuenak aipatzearren.

Kopuru horien osagarri gisa, Espainiako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendari eta Gerenteen Elkarteko kideek osatzen duten *"Mendekotasunaren Espainiako Behatokia"*ren txostenari esker, mendekotasunaren arretarako sistemaren hedapenaren lanbide-balorazioaren jarraipena egin daiteke autonomia erkidegoka.

Laburpen gisa, puntuazioa ematen die Behatokiak erkidegoei, eta mendekotasunaren arreta garatzeko eta ezartzeko mailaren rankinga ematen du.2012ko abenduan Gaztela eta Leon buru duen ranking horretan, bigarren postua betetzen du EAEk, 10etik 7,5 puntu, eta Estatuaren batez bestekoa 4,7 puntukoa da.Hala ere, puntuazio txikiagoa izan du gure Erkidegoak, urtebete lehenago 8,3koa baitzuen6.

Behatokiaren ebaluazioak ohartarazten duenez, EAEn emandako prestazio gehienak, beste erkidego batzuen mailara iritsi ez badira ere, familia inguruko zaintzen prestazio ekonomikoari dagozkio. Alabaina, Mendekotasun Legearen arabera, salbuespenezko kasuetan baizik ez litzateke eman behar zaintza hori.

Bestalde, 2012an, milioi erdi lagun pasatxo (520.451 lehen zenbatespenaren arabera, informazio irmorik ezean) izan ziren gure erkidegoko Gizarte Segurantza sistemako pentsioen onuradunak; hori aurreko urtean baino %1,3 gehiago da, orduan ere %1,4 hazi ondoren.Azken urteetan gertatu den bezala, hazkuntza hori kotizaziopeko pentsioen onuradunak diren pertsonen bilakaeragatik izan da; izan ere, beste modalitateetan, orokorrean, jasotzaileen kopuruak

6 Gainera, Behatokiaren zehaztapenak behera berrikusi dira aurreko txostenekiko eta, beraz, 2012ko abenduan aurkezturiko datuak ez datoz bat haien txostenen eta memoria honen aurreko edizioetakoetan.

murrizteko joera izan du.Gizarte Zerbitzuaren prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleak %23,9 dira.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (prestazioen %97,6 dira eta gastuaren %99,3), 2012an batez beste 508.200 onuradun egon ziren (%+1,3) eta hileko batez besteko zenbatekoa, 1.024€, %2,9 hazi da 2011ren aldean; horrela, kalkulatzen da urtean 7.291 milioi euro gastatu zirela, 2011n baino %4,2 gehiago.

Labur esanda, EAEn pentsioenetako gastua 2012an, behin-behineko hasierako hurbilketa eginez, 7.346 milioi eurokoa izan zen guztira, 2011n baino %4,2 gehiago. Hortaz, BPGd-an duen portzentajea 6 hamarren hazi da, 2011ko %10,5etik %11,1era (EUSTATen behin-behineko datuak hartuta).

Azkenik, Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtsezko prestazioa Sarrerak Bermatzeko Errenta deritzona da, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean oinarrituta sortu zena.2011n 55.660 familiek jaso dute Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (abenduko datua); hori aurreko urtean baino %1,2 gehiago da, orduan lagundutako elkarbizitza unitateak 55.020 izan baitziren.Sarrerak Bermatzeko Errenta gisa 2011. urtean 330,34 milioi euro ordaindu ziren (2010ean baino %4,9 gehiago).Hazkunde handiagoa da Gipuzkoan (%+11,5) eta Araban (%+9,3). Bizkaiak, berriz, EAEko batez bestekoa baino txikiagoa du (%+2,8).

Gainera, 2010ean, Etxebizitzaren Prestazio Osagarria (EPO) abian jarri zen, 18/2008 Legea garatzeko. Haren helburua Sarrerak Bermatzeko Errentaren osagarri diren prestazio ekonomikoen sistema bat artikulatzea da, biztanleriako talderik ahulenek etxebizitzaren inguruko gastuak ordaindu ahal izateko.Indarrean egon den lehen urtean, EPOk 51,1 milioi euroko gastua ekarri du eta 64,9 milioi euroko gastua 2011n (+%27,13).2012ko urrian (eskura dugun azken zifra), guztira 22.139 hartzaile zeuden (2011ko urrian baino % 20,3 gehiago).

Era berean, EPO abian jarri ondoren, Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL), Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren hirugarren tresnak, bere jatorrizko helburua berreskuratu zuen (hau da, oinarrizko beharrizan espezifikoei aurre egitea, batez ere etxebizitzarekin zerikusia dutenak, gizarte bazterketako egoerak prebenitzeko, ekiditeko edo leuntzeko gastuei aurre egiteko baliabide nahikorik ez daukaten pertsonei egoera zehatzetan sortzen zaizkienak) eta bere aurrekontu partida nabarmen murriztu zen: 2010. urtean (informazio kontsolidatua daukagun azken urtea) laguntza horretarako 17,3 milioi euro bideratu ziren. Zenbateko hori, eta gehitu zitzaizkion 6,7 milioi euroak, 24 milioi euroko gastua dira guztira, aurreko urteko 54,5 milioien aldean.2011n, informazioa dugun azken urtean, 17,3 milioi erabili ziren, aurreko urtean baino %68,3 gutxiago.

Guztira, 2011. urtean, datu kontsolidatuekin, Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak guztira 412,54 milioi euro gastatu zituen, aurreko urtean baino %5,8 gehiago alegia, honela banatuta:330,14 milioi Sarrerak Bermatzeko Errentarako (guztizkoaren %79), 17,3 milioi Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako (%4,1, behin-behineko datuak badira ere) eta 64,9 milioi euro Etxebizitzaren Prestazio Osagarri berrirako (%15,5), honen bigarren urtean.

Konparazioa egite aldera, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren "*Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten Txostena*"ri esker, autonomia erkidegoetako sarrerak bermatzeko sisteman kopuru handien konparaziozko segimendua egin daiteke, betiere era askotako araudiak eta sistemak garatzeko maila ezberdinak daudela kontuan izanik.2011ko txostenaren arabera, aurten gure Erkidegoak urteko 3.759 euroko gastua zuen prestazio horien titularra izateagatik; Estatuaren batez bestekoa, berriz, 3.765 eurokoa da. Gainera, mila biztanleko 39,7ko estaldura-tasa du (Estatuaren batez bestekoa 4,75 da).Kontuan izan behar da gure Erkidegoak Estatuan prestazio horietarako dauden funts guztien %40,9 izan zuela aipaturiko urtean, eta horren oinarrizko kopurua, hilean 658,50€, Estatuko batez bestekoa baino %55,9 handiagoa dela eta autonomia erkidego guztien gainetik dagoela.

Azkenik, Lan eta Gizarte Politikoetarako Sailak gizarteratzea errazteko dituen ekimenen barruan, diru-laguntzen egitarau bat burutzen da hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko gizarte esku-hartzearen arloan. Horretarako, orotara 935 laguntza-eskabide aurkeztu zituzten 345 erakundek, eta horietatik 404 proiektu aukeratzen dira (guztizkoaren % 43,2), batez beste 21.633 euro (%-1,7, 2010. urtearekin alderatuta).

Emandako laguntzen guztizko zenbatekoa 8,74 milioi eurokoa da (eskatu denaren % 27,9), aurreko ekitaldian baino %9,5 gutxiago.

3. GOGOETAK

3.1. DEMOGRAFIA ETA IMMIGRAZIOA

Europar Batasuneko biztanleria asko hazi da azken urteetan, batez ere immigrazioagatik, 2011n haren ratio gordina berezko hazkunde tasarena (jaiotzak ken heriotzak) halako bi izan baitzen:Milako 1,8 migrazioa saldorako eta milako 0,8 naturalerako.Hortaz, migrazio-mugimenduek Europar Batasuneko herrialdeetako biztanleen dinamikan oinarrizko zeregina dute.

2011ko urtarrilean, guztira 33,3 milioi atzerritar bizi ziren EB27an, populazioaren %6,6.Horietako gehienak, 20,5 milioi, erkidegokoak ez diren herrialdekoak ziren, gainontzeko 12,8 milioiak EBko beste herrialde batekoak ziren bitartean.Baina, gainera, herrialde atzerritarretan jaiotako pertsonen zifra aintzat hartzen badugu (herritartasun atzerritarrekoak eta egoitza-herrialdean nazionalizatutako atzerritarrak), zifra 48,9 milioi pertsonetara heltzen da, Europar Batasuneko biztanleria guztiaren % 9,7.

EUROSTATeko datuen arabera, EBn bizi diren atzerritarren % 75 baino gehiago Alemanian, Espainian, Erresuma Batuan, Frantzian eta Italian bizi dira.Familiarekin berriz elkartzea Austrian, Frantzian edo Suedian immigraziorako arrazoi nabaria da. Aldiz, Irlanda, Espainia, Portugal eta Erresuma Batua bezalako herrialdeetan laneko immigrazioaren ehuneko handia dute.

Era berean, EINen *"Immigrazioari buruzko Inkesta Nazionala"* delakoak agertu zuenez, 2007an EAEn bizi ziren etorkinak gure erkidegora, batez ere, lan hobearen bila (%42,9), familia arrazoiengatik (elkarretaratzea) (%32,1), bizi-kalitatea hobetzeko (%23,9) eta lan faltagatik (%21,8) etorri zirela.Hortaz, migrazio-fenomeno bat da, batez ere, ekonomikoa.

Ikuspegik nabarmendu du immigrazio prozesua ez dela modu bertsuan gertatu denboran.1988 eta 2000 urte artean hazkunde fasea izan zen; izan ere, urteko 1.600 atzerritarreko hazkundea izatetik 6.000 pertsonako hazkundera igaro zen. Ondoren, 2001 eta 2003 urte artean finkatze aldia etorri zen: urteko 10.000 atzerritar erroldatu gehiago izan ziren.Ondoren, 2004 eta 2008 urte artean, areagotu egin zen immigrazioa gure Erkidegoan, non, immigrazio erritmoa moteldu barik, abiada bizian sartu baitzen, eta 2007an atzerritarren erroldatze berrien gehieneko kopurua izan zen: 18.813. 2009tik aurrera, aldiz, krisi ekonomikoak oso eragin nabarmena izan du eta hazkundeak beheranzko joera hartu du.Alabaina, immigrazioak goranzko joeran jarraitzen du, eta hasierako faseko maileta dago, urtean 5.000 erroldatze berri (ia 6.000 izan ziren 2012an).

Oso garrantzitsua da immigrazioak EAEren dinamika demografikoan izan duen eraginaren berri izatea.1998 eta 2012 urte artean, gure Erkidegoak ia 100.000 biztanle berri gehiago ditu (+93.094), eta hazkunde hori gertatu da atzerritarren etorrerari esker; izan ere, 1998an 15.000 erroldatu izanik, 2012an 150.000 baino gehiago dira. Epealdi berean, 42.870 pertsona galdu ditu euskal herritarren kopuruak.

Azken batean, immigrazioari esker, EAEk azken urteetan izan duen populazio galera konpentsatu ahal izan du, eta halaxe dela egiaztatzen da gure herrialdeko ugalkortasun tasaren bilakaera aztertuz gero.

2011ko EUSTATen "*Inkesta demografikoak*" demografia gertaeren gaineko atzera begirako hurbilketaren metodoa darabil, eta agerian utzi du EAEn 50eko hamarkadako bigarren zatian jaiotako emakumeak direla belaunaldien arteko ordezkatzea lortu zuten azkenak, hots, batez beste 2,1 seme-alaba izan zituzten.Hurrengo belaunaldien seme-alaba kopuruak behera egin du pixkanaka. Hala, 1966 eta 1970 urte bitartean jaiotako emakumeek 1,4 seme-alaba izan zituzten, ugalkortasun historia osotzat har daitezkeen azkenak hain zuzen.Gainera, halaxe gertatzen da Europako ia herrialde guztietan, non 1950etik aurrera jaiotako emakumeen seme-alaben kopuruaren jaitsiera orokorra ikusten den, eta ez da lortu belaunaldien arteko ordezkatzea 60ko amaieratik aurrera jaiotako belaunaldietan.

Hortaz, beste kontinente batzuetako migrazio-fluxuek eutsi diote hazkunde demografikoari Europan eta EAEn. Populazio autoktonoa, berriz, zahartze prozesuan dago murgilduta, joan den 50 urtean belaunaldien arteko ondorengotza bermatzeko gai ez dela. Izan ere, migrazioa ezinbestekoa izan da, gainera,

lanerako eta ekonomiaren ekarpenerako, azken urteetako ongizate mailak lortu ahal izateko.

Bestalde, Ikuspegiren 2011ko barometroak erakutsi duenez, EAEn etorkinak izatea ez da arazoa gizartearen gehiengoarentzat.Hamarretik batek baino ez du bat-batean adierazten immigrazioa arazoa dela, eta %5,6k arazo pertsonaltzat hartzen du.Euskal gizartearen kezka nagusiakdira krisiak enpleguan dituen ondorio txarrak, bizitzaren kostua edo pentsioak.Eztabaida publikoaren eta hedabideetako eztabaidaren ardatza gai horiexek dira, eta alde batera uzten dira aurreko barometroetan garrantzizkotzat jotzen ziren gainerako arazoak (etxebizitza, adibidez, herrialdeko hiru arazo nagusienetako bat zen inkestaturiko pertsonen erdiarentzat; 2011n, berriz, %10,5ek baino ez du aipatzen).

Hala, EAEko populazioak ez du joera argirik erakusten immigrazioak gizartean dituen ondorio positiboei edo negatiboei buruz:Ekonomia sektore batzuetarako etorkinak behar direla onartzen da (%44,9), baina aldi berean uste da haiek egoteak langabezia handitzen duela Euskadin (%55,1).Era berean, aurreko urteetan baino indar eta ongura txikiagoz bada ere, uste da atzerritarrei esker, orokorrean, ekonomia hobeto dabilela, baina horren ordaina soldata mailetan ondorio kaltegarriak izatea dela (%47,1) eta gure gizarteko sektore ahulenei kalteak dakarzkietela (%70,5).

Bestalde, atzerritar guztiek osasun laguntza eskuratzearen alde dago euskal populazioa, 2010ean baino gehiago (+2,8 puntu aurreko urtearekin alderatuta) , baita haien seme-alabak hezkuntza izatearen alde ere (+7,7 puntu), baina behera egin du atzerritarrei laguntza juridikoa ematearen alde daudenen kopuruak (-0,8 puntu 2010. urtearekin alderatuta), eta gizarte laguntzak (+3,3), familia batzearen (+6,4), botoa ematearen (+2,8) eta BOE lortzearen (+3,9) aldeko joera handiagoa dago.

Goragarria da herritarren jokabide hori, are gehiago kontuan hartzen badugu zein gogor astintzen dituen krisiak atzerritarren familiak:2012ko EAEren "*Pobreziari eta Gizarte Arloko Desberdintasunen Inkestak"* (PADI) nabarmentzen duenez, pobrezia moduen eragina oso handia da atzerritarra familia burua deneko etxeetan, eta gainera gora egin du azken lau urtean, populazio autoktonoaren artean baino proportzio handiagoan.Pobrezia erreala[7] %2,9tik %3,3ra igaro da 2008-2012ko aldian gure Erkidegoan bizi den Estatuko nazionalitatea duten herritarren artean. Atzerritarrak bizi diren etxeetan, berriz, hazkunde handiagoa izan da: %27,7tik %32ra.

Gainera, azken horiek pobrezia errealeko egoeretan duen pisua handitu egin da azken lau urtean: %34,1etik %41,2ra.

Nabarmentzekoa da datu hori, hots, atzerritarrek arrisku handiagoa dutela azken urteotan lan-merkatuaren baldintzak okerrera egin izanaren ondorioz, zeren eta immigrazioak garrantzi handia baitu gure Erkidegoko populazioaren bilakaera positiboan, eta eragina izango du ezinbestean gizarte babeseko sistemak erantzun beharreko eskakizunetan.

3.2. HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA PROMOZIOA

EAEn unibertsitate aurreko matrikulazioan bilakaera positiboa ikusi dugu berriro ere. Izan ere, EUSTATen 2012-13ko datuen aurrerapenaren arabera, hor hezkuntza berezia sartuz gero, %0,7 gehitu da; hezkuntza berezia ez badugu sartzen, %2 gehitu da.Gainera, matrikulazioa beheko mailetan (haur eta lehen hezkuntzak eta DBH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan (DBHO) edo irakaskuntza ertainetan gehitu da.

Aipatzekoa da LHko matrikulazioaren igoera (%9,5 Lehen Graduko LH eta %10,5 Goi Mailakoan), eta bereziki LHk azken bost urtean hazkunderako izan duen joera (%28tik %31ra hurrenez hurren).Azken kurtsoan, EAEn irakaskuntza ertaina egiten duten ikasle gehienek (%52,3) LH aukeratzen dute nahitaezko irakaskuntza amaitutakoan, eta hori bilakaera positiboa da, zeren eta enpresen beharrei modu egokiagoan erantzutea ahalbidetuko baitu.

Halaber, matrikulazioaren igoeren kausa posibleetako bat ziklo ekonomikoaren bilakaera da; izan ere, lan eskaintzarik ez dagoela-eta, zenbait langile ikasgeletara itzuli da, haien lanbide prestakuntza osatzeko.

7 2012ko PADIren emaitzei buruzko informazio gehiago izateko, ikus beza irakurleak III-2. atala. Memoria Sozioekonomikoaren "EAEko bizi-baldintzak".

Alabaina, emakumeek gizonezkoek baino partaidetza txikiagoa dute oraindik ere lanbide ikasketetan, batez ere profil teknikoko lanbide familietan. Gainera, laneratze txikiagoa izaten dute.Hala ere, kontrako joera ere ikusten da (hots, emakumearen partaidetza handia) zenbait arlotan. Zehazki:Arte grafikoak, merkataritza eta marketina, ostalaritza eta turismoa, kimika eta osasuna.Emakumeen partaidetzarik handiena dutenak emakumeek tradizioz aukeratzen dituztenetan dago:Irudi pertsonala eta ehungintza, joskintza eta larrugintza.

Unibertsitateko irakaskuntzei dagokienez, 2010-11 ikasturtean unibertsitateko graduko eta lehen eta bigarren zikloko ikasketetan matrikulaturiko ikasleen kopuruak %1 behera egin badu ere (59.132 orotara), baikor izateko motiboak daude graduazioaren maila ikustea, hots, 2008-09 eta 2009-10 ikasturteetan gora egin du %3,2 (%4,5 gizonezkoetan eta %2,4 emakumezkoetan). Guztira 10.496 pertsona eta aurreko ikasturtean, berriz, 10.170.

Hezkuntza adierazleei dagokienez:

- Nabarmendu behar dugu ikasle bakoitzeko (publikoa eta hitzartua) gastu publikoa unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, lanerako prestakuntza kanpo, 2010. urtean EAEn 7.388 eurokoa dela. Gure erkidegoa da ikasle bakoitzeko gastu handiena duena.Estatuko batez besteko 5.484 euro dira.

Atseginez egiaztatzen dugu:

- Estatuak eta EAEk ELGA eta EBko batez bestekoen gaineko eskolatze-tasak izatea Haur Hezkuntzan.

- EAEko eskola behar baino lehenago uzten dutenen tasak beherako joera du eta estatukoa baino txikiagoa da (EAEn %13 eta Estatuan %26,5 2011n); eta EBren antzekoa (%12,8).Zentzu horretan, ahaleginak egiten jarraitzea gomendatzen dugu, Europa 2020 Estrategian eskola behar baino lehen uzten dutenen tasa, 2020. urtean beranduenez, %10 baino txikiagoa izatea dago-eta.

  Halaber, agerian utzi nahi dugu ezen, amaren ikasketa maila eta eskola uztea erlazionatuta, hauxe ikus daitekeela: 2010ean nahiz 2011n, gazteen uztearen ehunekoa txikiagoa da goi mailako ikasketak dituzten amak dituztenengan; maila ertaineko edo txikiko maila duten amen seme-alaben metatzen da.

- DBHko graduatze tasa gordina estatuko handienetakoa da. Halere, azpimarratu behar dugu tasa hori gehitzen jarraitu beharra dagoela, hezkuntzako komunitateak beharrezkotzat jo duelako DBH “arrakastaz” amaitzen duten ikasle kopurua gehitzea (adina gorabehera).

- Zientzia eta Teknologiako goi mailako hezkuntzako graduatuak, 20 eta 29 urte arteko 1.000 biztanleko, EAE aurrera egiten ari da etengabe, eta horregatik estatuko nahiz Europako lehenengo postuetan gaude.Horren arrazoia da, neurri handi batean, EAEn goi mailako lanbide heziketa duten pertsona asko dagoela (CINE 5B), estatuko batezbestekoa baino ia hiru aldiz handiagoa.

- Espainiako estatua, ELGAko beste herrialde batzuen aldean helduen ikasketa maila txikiagoko abiapuntua badu ere, posiziorik hoberenetako bat du mugikortasun gorakorraren aldetik; horrek agerian uzten du igotzen ari dela helduen hezkuntza maila.Hala, 2010ean 25-24 urte bitarteko biztanleen %45ek gurasoek baino hezkuntza maila handiagoa lortua zuen; ELGAko edo EBko herrialdeetako baino handiagoak dira kopuru horiek (%37 eta %39), edo Finlandia (%27), Norvegia (%25) edo Alemaniakoak (%20).

Eta atentzioa erakarri nahi dugu hurrengo alderdietara:

- Etengabeko ikaskuntzan parte hartzearen arloan EBk 2020rako ezarritako helburuaren arabera, 25-64 urteko helduen %15ek gutxienez hartuko du parte etengabeko ikaskuntzako jardueraren batean.EAEren ratioa %13koa da 2010ean eta, beraz, ibilbide luzea du oraindik helburua lortzeko.

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailari bideratutako aurrekontu partida 2012. urtean %2,5 gutxitu da aurreko urtean likidatutako gastuaren aldean.Hots, EAEren BPGaren %4, eta hamarren bat gutxitu da 2010ean izandako portzentajearekin alderatuta.

- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak 2010. urteari buruz argitaraturiko azken datuen arabera, hezkuntza administrazioek BPGaren gain duten gastua antzekoa da Estatuan eta EAEn, baina EB27koaren gastuaren batez bestekoa baino txikiagoa. Halaber, unibertsitateko hezkuntza eta unibertsitatekoa ez dena bereizita, EAEk bigarrenean duen portzentaje txikiagoa nabarmentzen da (EAE:%7,8 eta Estatua:%1).

- Egokitasun-tasak murriztu egiten dira adinarekin eta denboran.Ildo horretan, gure ustez arreta berezia eman behar zaie lehenengo adinei, izan ere, eskola atzerapenak eta, ondorioz, egokitasun ezak areagotu egiten dira eta pilatu egiten dira urteek aurrera egin ahala, eta horrek eskola porrota eragin dezake azkenean.

- ELGAren herrialdeetan, 2010ean, 25-64 urte bitarteko populazioaren %74k bigarren hezkuntzako bigarren etapako edo handiagoko ikasketa maila du.Espainia (%53) batez bestekoa baino 21 puntu gutxiagotan dago.EAE ere ratio horren azpitik dago, %63,4 (10,6 puntu azpitik).

Horrek denak erakusten du, Hezkuntzan egiten den ahalegina garrantzitsua izanik ere eta emaitzak onak izanik ere, komenigarria dela eremu honetan arreta handia ematen segitzea, une hauetan alderdirik txarrenetan sakontzen jarraitu ahal izateko.Ez da berriz ere azpimarratu behar hezkuntzako inbertsio eraginkorra lagungarria dela gizartean dauden desberdintasunak gutxitzeko; halaxe gelditzen da agerian prestakuntza mailen arabera langabezi tasetan dagoen aldean ere.

Ikasle batzuek daukaten hezkuntzako desabantaila egoeraren jatorria inguruabar pertsonal edo soziokulturaletan egon ohi da sarritan, askotan beren inguruko arrisku edo bazterketa egoerei lotuak.Eta ez dugu ahaztu behar hezkuntza gero eta gehiagotan erantzukizun kolektiboa dela, bizitza osoan zehar garatua eta bizi den lurralde eta gizarte testuinguruaren eragin handiarekin.

Etorkizuna, neurri handi batean, Jakintzaren Gizarterantz aurrera egiten jarraitzeko dugun gaitasunaren emaitza izango da.Oinarrizko gaitasunak eta beharrezko lanbide gaitasunak trebatzeko gai den hezkuntza sistema garatzeko baliabideak jartzea da erronka, bazterketarako arriskurik ez dakarren bidezko eta berdintasunezko sistema bat, jakintza mota eta moduak eskuratzea erraztuko duena; honi deritzo jakintza mota:zientifikoa, humanistikoa, ekonomikoa, artistikoa… eta eskuratzeari:Hainbat hezkuntza ibilbide izatea, hezkuntza sistemaren eta enpresa sistemaren arteko pasaguneak, besteak beste; baita ikaskuntza bizitza osoan indartzea ere.

3.3. I+G+B JARDUERAK ETA IKTAK

Berriro ere I+G+b adierazleek EAE Estatuko autonomia-erkidegorik dinamiko eta berritzaileenetakoen artean kokatzen dute, baina oraindik bide luzea egin behar dugu esparru horretako erreferentziazko herrialdeen parera iristeko.

Bada, EAEn I+G arloko ahalegina pixkanaka haziz joan da, 2011n % 2,04ko ratiora iritsi zen, EB27ren antzera (% 2,03) eta estatuko batez bestekoaren gainetik (% 1,33), baina oraindik Europako helburutik (% 3) 0,96 puntura dago, eta herrialderik berritzaileenek dituzten ratioetatik urrun: Finlandia (% 3,78), Suedia (% 3,37), Japonia (% 3,36), Danimarka (% 3,09), AEB (% 2,87), Alemania (% 2,84) eta Frantzia (% 2,25).

Sektore pribatuak EAEn gauzatu duen gastua (gastuaren % 76) sektoreak Estatuan (% 52,1) eta EB27n (2010ean gastuan % 60,8) erregistratu duena baino altuagoa da. Hala ere, EAEko Herri-administrazioen gastua hazi egin da 2005a eta 2011 bitartean, eta % 6,1eraino iritsi da, baina oraindik Estatukoa (% 19,5) eta EBkoa (% 13,7) baino baxuagoa da. Emaitza hori EAEko ikerketa-zentro publikoak gutxiago izatearekin lotuta dago (adibidez, aipatzekoak dira Estatuko CSIC zentroak).

I+G arloko gastuaren finantzaketari dagokionez, zorionez, sektore pribatuak gastu horretan zuen pisuaren galera eten egin da krisialdian; hain zuzen ere, parte-hartzea areagotu egin da 2010a eta 2011 bitartean, hau da, % 54tik % 54,3ra igaro da. Hala ere, aipatzekoa da EAE 11,7 puntura dagoela Lisboako helburutik: I+G arloko gastu osoaren % 66 funts pribatuekin finantza dadila. Gainera, azpimarratzekoa da ez dituela lortu lurralderik dinamiko eta berritzaileenetan ikusi ditugun ratioak; zehazki, Japonian gastuaren % 78,2 finantzatzen du sektore pribatuak, AEBn % 67,3, Finlandian % 66,1, Alemanian % 66,1, Danimarkan % 60,7 eta Suedian % 58,2.

Berrikuntzaren Adierazleen Panel europarrak alderdi hori berresten du; izan ere, panel horren arabera, gure Erkidegoa, 0,46ko puntuazioarekin, hirugarren taldeko goiko aldean kokatuko litzateke: "berrikuntza moderatuko herrialdeak".

Eta, panelaren arabera, EAEk zerrendan gora egiteko gaitasun handiak ditu. Bada, alde positiboen artean, gailentzekoa da I+G arloko gastu pribatuak BPGari dagokionez duen ehunekoak nabarmenki gainditzen duela Europako batez bestekoa, hirugarren mailako hezkuntza (Unibertsitateko ikasketak edo Goi-mailako Prestakuntza Profesionala) duten 30 eta 34 urte arteko pertsonen populazio-ratioa altua dela EBko batez bestekoarekin alderatuta (% 43,7koa eta % 33,6koa, hurrenez hurren), nazioarteko ko-argitalpen zientifikoen kopurua (milioi bat biztanleko) altua dela (EAEn 498, EB27n, berriz, 301) eta 20 eta 24 urte arteko pertsonen artean gutxienez bigarren hezkuntza bukatu dutenen ehunekoa Europakoaren antzekoa dela (% 79,1 eta % 79, hurrenez hurren).

Baina gogoan izan behar da aldi berean adierazle batzuk oso adierazgarriak direla eta EAEk gauzatzen duen I+G lana balioesterakoan zailtasunak dituela erakusten dutela. Arlo horretan lan egin beharko litzateke. Bada, herrialdeko doktore guztien artean EBtik kanpokoak direnen ehunekoa % 18,8koa da, EB27n, aldiz, % 19,2koa da; berrikuntzara bideratutako gastua (ez I+G arlokoa), negozio-zifraren ehuneko gisa, EB27koa baino baxuagoa da, eta, bereziki, aipatzekoa da patenteen kopurua nahiko baxua dela, beste eremuekin alderatuta.

Etxeetako edota biztanleriaren IKT ekipamenduei dagokienez, esan behar dugu zorionez EAEk hazten jarraitzen duela. Aitzitik, Europako batez bestekoen azpitik gaudela ikusi dugu pixka bat. Gauzak horrela, Interneterako sarbidea duen 16 eta 74 urte arteko kide bat gutxienez duen etxebizitza portzentajea % 76koa da EB27n 2012. urtean, EAEn % 67,5ekoa den bitartean.

Positiboa iruditzen zaigu Interneten bidez sekula ezer erosi ez duten pertsonen ehunekoa Estatuko ehunekorik baxuena dela. Eta azken hilabetean zerbait erosi duten pertsonen ehunekoa neurtuz, Autonomia Erkidego bakarra da aktiboagoa, Madril, alegia (% 25,6, eta EAEn % 24,6).

Enpresetako IKT ekipamenduen erabilerari dagokionez, eta, zehazki, merkataritzako transakzioetan Internet edo baliabide elektronikoren bat erabiltzearen harira, zorionez, merkataritza elektronikoak hazten jarraitzen duela egiaztatu dugu, zehazki, eragiten dituen zifra ekonomikoek nahiz bertan parte hartzen duten enpresen kopuruak gora egin dute, eta deigarria iruditzen zaigu zifra ekonomikotan salmentak erosketak baino altuagoak diren arren parte-hartzeari dagokionez saltzen duten establezimenduen kopurua baliabide elektronikoen bidez produktuak erosten dituzten establezimenduena baino altuagoa izatea, eta horrek salmentak enpresa-multzo baten inguruan kontzentratzen direla ondorioztatzera garamatza.

3.4. NATURA-INGURUNEAREN EGOERA

Azken urteotan hobekuntzak izan dira ingurumenaren egoera orokorrean, gizartearen kontzientziazioari eta garapen iraunkorra lortzeko ekimen publiko eta pribatuei esker; baina kontuan hartu behar da iraunkortasunaren kontzeptuak baliabidearen kontsumoa eta erabileraren eraginkortasun-maila kontuan hartzea eskatzen duela.

Bada, positibotzat jotzen dugu *airearen kalitateak* hobera egin duela azken urteotan eta "ona" edo, behintzat, "onargarria" dela.

Pozgarria da *ur-masen kalitateak (ibaiak, lakuak eta eremu hezeak, trantsizio-urak, kostaldeko urak eta bainatzeko urak)* bilakaera positiboa izan dutela esan ahal izatea, baina kontuan hartu behar da Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak (2002-2020) planteatzen zuela 2012rako gainazaleko ur-masen % 80k egoera ekologiko eta kimiko ona edo oso ona izan zezatela lortu beharko litzatekeela, baita ur artifizialen eta oso aldatuen masen % 80k potentzial ekologiko ona eta egoera kimiko ona izatea ere. Beraz, ur-masen kalitatea ez da nahikoa ibaiei, lakuei eta eremu hezeei eta trantsizio-urei dagokienez.

Bainatzeko uren kalitateari dagokionez, Batasuneko araudiak ezarri duen helburua da agintaritza eskudunek beharrezko neurriak aplika ditzatela 2015eko bainu-sasoiaren bukaerarako bainatzeko ur guztiek behar besteko kalitatea izan dezaten. Horren harira, bainatzeko 65 eremuen artean 2011n 5 jo ziren behar baino kalitate baxuagokotzat, 9 ontzat eta

gainerakoak kalitate bikainekotzat; horrenbestez, badirudi argi dagoela helburua beteko dela.

Uraren kontsumoari dagokionez, hornidura-sare publikoetan oraindik dauden galeren, ihesen, hausturen eta abarren ondorioz, EAEko hiriko hornidura-sare gehienek errendimendu baxua dute eraginkortasunari dagokionez (ur kontrolatuaren bolumena hiriko hornidura-sare batean txertatutako ur-bolumenarekin alderatuta).

Klima aldaketari eta berotegi-efektuko gas (BEG) isuriei dagokienez, gogoan izan behar da 2008-2012 aldirako abiapuntu urtearen (1990) aldean isuri zuzenen igoera % 15ez mugatzeko konpromisoa ezarri diola Kyotoko protokoloak Espainiako estatuari. Autonomia Erkidegoek ez daukate BEG murrizteko helburu juridikoki loteslerik; baina Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko 2008-2012 Euskal Planak ezartzen duenez, EAEko isuriak mugatuko dira aldi horretan, ez dezaten abiapuntu urteko kopurua % 14 baino gehiago handitu.

Horren harira, zorionez, berotegi-efektuko gasen isurien (BEG isuriak) Inbentarioak eskaintzen dituen datuek erakusten dute BEG isuriak (zuzenekoak eta zeharkakoak, hau da, inportatutako elektrizitatearekin lotutakoak barne), CO2-baliokidea terminotan neurtuta, murriztuz joan direla. Bada, 2007an abiapuntuko urtean (1990) erregistratutako isuriekin alderatutako hazkuntza-ratioa % 22koa zen, baina 2010ean 1990ean erregistratutakoak baino % 1,8 altuagoa zen.

Hala ere, kontuan hartzekoak dira Klima-aldaketaren Aurkako Euskal Planaren (2008-2012) indarraldia eta Europako 2020 Estrategiaren gomendioak: 2020rako BEG isuriak % 20 murriztea.

Energiaren ekoizpenarekin eta kontsumoarekin lotutako alderdiak bereziki garrantzitsuak dira ingurumenean duten eraginagatik.

Alderdi honen harira azpimarratu nahi dugu lehen mailako energiaren ekoizpena oso txikia dela. Gainera, lehen mailako energiaren ekoizpen propio eskas horrek EAEko eskariaren % 5,8 asetzea bakarrik ahalbidetzen du. Ondorioz, EAEk kanpoko energiarekiko duen menpekotasuna % 94,2koa da, hau da, Estatukoa baino altuagoa (% 76,7), 2010ean, EUROSTATek argitaratu zuen "Energy, transport and environment indicators, 2012" txostenaren arabera, baita EB27ren batez bestekoa (% 52,7) baino altuagoa ere.

Paraleloki, energia-iturri berriztagarrien bitartez ekoitzitakoak azken kontsumoaren % 7 besterik ez du asetzen. Bestela esanda, energia berriztagarriek azken kontsumoan duten parte-hartze ratioa 2006koa (% 6,2) baino altuagoa da, baina EB27n EUROSTATen arabera izandakoa (% 12,5 2010ean) baino askoz baxuagoa eta gure erkidegorako Euskadiko Energia Estrategia 2020n (3E2020) ezarritako helburutik (% 14) urrun[8]. Are gehiago, petrolioak eta petrolioaren eratorriek kontsumoaren gehiengoa hartzen jarraitzen dute, % 37,9, hain zuzen ere.

Positiboa iruditzen zaigu ekonomiaren energia-eraginkortasunaren adierazlea, hau da, energia-intentsitatea, hobetu dela eta 2011n 2000koaren % 85ekoa dela; EB27n, berriz, EUROSTATen arabera, ekonomiaren energia-intentsitatea 2000koaren % 89,7koa da.

EBk 2020rako duen Ekonomia Politikaren helburuetan jasotako hiru alderdi horiek hobera egin izanak adierazten du norabide zuzenera bideratutako ahaleginak egiten ari direla, baina ezin da ezkutatu helburu horiek erdiestea oso zaila dela. Ondorioz, ahaleginak ez dira ahuldu behar, kontrakoa baizik. Eta, hori lortze aldera, Euskal EGABen ustez ezinbestekoa da herritarrak sentsibilizatzeko eta hiru aldagaien (ingurumena, gizartea eta ekonomia, hau da, teknologiaren berrikuntza babesteko ildoak) integrazio egokia helburu duten ekoizpen prozesu garbiak martxan jartzeko lan egiten jarraitzea, horretarako talde desberdinetan ingurumen sentsibilizaziorako ekintzak babestuz, eta abar.

3.5. EAEREN EGOERA EKONOMIKOA ETA KANPOKO TESTUINGURUA

2012ko lehenengo seihilekoan munduko jarduera ekonomikoaren abiadura moteldu zen, industria-ekoizpena eta nazioarteko merkataritza murrizteagatik, funtsean. Bigarren seihilekoan jarduera egonkortzen joan zen ekonomia aurreratuetan, eta gora egin zuen goranzko merkatuen eta garatzeko bidean dauden merkatuen ekonomietan, politikek konfiantza suspertzen lagundu baitute.

8 *Gogoan izan behar da Europako Estrategia 2020n EBrako helburua %20koa dela.*

Horrela, Europako agintariek hartutako neurri zorrotzek konfiantza eta finantza-baldintzak hobetzen lagundu zuten. Estatubatuarrek "amildegi fiskala" ekidin zuten, eta, aurreikusitako dezelerazioa baino handiagoa izan zenari erantzunez, Japoniak politika makroekonomiko hedagarriagoak hartu zituen. Denborak aurrera egin ahala, funtsezko garrantzia daukaten goranzko merkatuetako politikak baretu izanak barneko eskaria suspertu zuen.

Aldi berean, finantza eta moneta baldintzak gero eta onuragarriago bilakatzen joan ziren, urteak aurrera egin ahala, errentagarritasunaren bilaketa eta ekonomia garatu nagusietako batzuetako banku zentralen moneta politika hedagarrietan sakontzeko aukerak nagusi izan dituen ingurunean.

Hala ere, urte osoan, benetako hazkuntza % 3,2koa izan zen; aurreko aldian, berriz, % 4koa, eta munduko merkataritza nabarmenki ahuldu zen (% 2,5 eta aurreko urtean % 6).

Munduko ekonomiaren joeran ikusi den joera-aldaketan ez bezala, euroaren eremuko BPGk berriro egin zuen behera 2012ko laugarren hiruhilekoan, hau da, sei hiruhilekoz jarraian egin du behera ekonomiak 2011ko udatik, eta horrek eremuan berriro atzeraldia jasatea ekarri zuen. Urte arteko datuei dagokienez, 2012an BPGaren benetako bariazio-tasa -% 0,5ekoa izan zen; aurreko urtean, aldiz, %1,5eko hazkuntza izan zuen.

Eskaeraren esparruan, 2012an beherakada 2011n baino handiagoa izan zen. Are gehiago, inbertsio nahiz kontsumo pribatuak bariazio-tasa negatiboak izan zituzten: KFEGd -% 3,9ko bariazio-tasa izan zuen, aurreko aldian % 1,6ko hazkuntza izan zuen, ordea; kontsumo pribatuak, berriz, % 1,2 egin zuen behera, eta aurreko urtean % 0,1eko hazkuntza izan zuen. Bestalde, kontsumo publikoak -% 0,1eko bariazio-tasa negatiboa mantendu du. Gailentzekoa da inbertsioak urtean zehar gero eta beherakada handiagoa izan duela, zehazki, lehenengo hiruhilekoan -% 2,5eko bariazio-tasa izatetik laugarrenean -% 4,9koa izatera iritsi da. Kanpoko sektoreari dagokionez, esportazioek % 2,9 egin dute gora, baina aurreko urteko hazkuntza % 6,5ekoa izan zen, eta azpimarratzekoa da inportazioek behera egin dutela (-% 0,9), aurreko aldian % 4,4ko hazkuntza izan ondoren.

Bestalde, lanari dagokionez, 2011n bariazio-tasa negatiboak izan zituen, eta 2012an zehar ere mantendu egin ziren. Hortaz, lanak 2012an % 0,6 egin zuen behera. Langabezia-tasa, 2012 osoa kontuan hartuz, % 11,4koa izan zen, hau da, aurreko aldiko tasa baino ehuneko 1,2 altuagoa.

IAPCk neurtutako inflazio orokorrak gora egin zuen, 2012an % 2,5, batez beste, 2011n % 2,7 igo ostean. 2010aren bukaeratik, urte arteko inflazio-tasak nabarmenki mantendu dira % 2tik gora.

Jarduera ekonomikoaren beherakadaren ondorioz eta lana desagertu egin den arren, laneko produktibitatea dezeleratu egin zen aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, hau da, % 1,2ko igoeratik tasa nulu batera igaro zen.

Testuinguru honetan, EUROSTATen datuen arabera, 2012an BPGaren gaineko zor publikoa estatu guztietan handitu da, Danimarkan, Grezian, Letonian, Hungarian, Polonia eta Suedian izan ezik. Egonkortasun Itunean ezarritako % 60ko muga honako estatu hauetan gainditu da: Belgika (% 99,6), Alemania (% 81,9), Irlanda (% 117,6), Grezia (% 156,9), Espainia (% 84,2), Frantzia (% 90,2), Italia (% 127), Zipre (% 85,8), Hungaria (% 79,2), Malta (% 72,1), Holanda (% 71,2), Austria (% 73,4), Portugal (% 123,6) eta Erresuma Batua (% 90). Euroaren Eremu osoan, BPGaren gaineko zor publikoa % 90,6koa izan da.

Defizitari dagokionez, EUROSTATen arabera, Egonkortasunari eta Hazkundeari buruzko Hitzarmenean finkatutako BPGaren % 3ko muga gainditu ez zuten Estatu bakarrak hauek izan ziren: Alemania (% 0,2, superabita izan duen estatu bakarra dela), Estonia (-% 0,3), Suedia (-% 0,5), Bulgaria eta Luxemburg (biak -% 0,8), Letonia (-% 1,2), Finlandia eta Hungaria (biak -% 1,9), Alemania eta Austria (-% 2,5), Errumania (-% 2,9) eta Italia (-% 3). Euroaren Eremu osoan, defizit publikoa BPGaren % 3,7ko maila baliokidean kokatu zen.

Defizit handienak honako estatu hauetan egon dira: Espainia (% 10,6), Grezia (% 10), Irlanda (% 7,6), Portugal (% 6,4), eta Erresuma Batua eta Zipre (biak % 6,3).

Europako ekonomiak izan duen bilakaera positibo urriak Espainiaren kasuan bilakaera txarragoa erakusten du, eta EINen datuen arabera, 2012ko

laugarren hiruhilekoan bere beheranzko profila areagotu egin zen. EINek 2013ko otsailean plazaratu zituen Hiruhileroko Kontabilitate Nazionalaren (HKN) datuen arabera, espainiar ekonomiaren benetako BPGak 2013ko laugarren hiruhilekoan % 0,8 egin zuen behera, hiruhilekoen arteko datuen arabera, eta % 1,9 egin zuen behera, urte arteko datuen arabera, hau da, aurreko hiruhilekoan baino puntu erdi eta hiru hamarren gehiago, hurrenez hurren. Bada, BPGak 2012a urteko % 1,4ko beherakadarekin itxi zuen urtea, aurreko urtean % 0,4 gora egin ostean.

Autonomia Erkidegoei dagokienez, seik beherakada txikiagoa izan zuten, baina EB27ren batez bestekoa (-% 0,3) baino altuagoa, nolanahi ere: Balearrak (-% 0,3, EB27ko batez bestekoaren parean), Galizia (-% 0,9), Katalunia eta Kanariak (biak -% 1ekin) eta Madril eta Kantabria (biak -% 1,3rekin), baita Ceutako Hiri Autonomoa ere (-% 1,1). Emaitzarik txarrenak izan zituztenak honakoak izan ziren: Gaztela-Mantxa (-% 3), Asturias (-% 2,5), Extremadura (-% 2,2) eta Errioxa (-% 2,1).

Per capita BPG nominalari dagokionez, lehenengo tokian EAE dago, biztanleko 30.829 euroko BPGarekin, batez bestekoa (22.772 euro) baino % 34,5 gehiago, alegia. Haren atzetik datoz Madril, 29.385 euroko per capita BPGarekin, Nafarroa (29.071 euro per capita), Katalunia (27.248 euro biztanleko), Aragoi (25.540), Errioxa (25.508) eta Balear Uharteak (24.393). Beraz, guztiak daude estatuko batez bestekoaren gainetik. Kontrako egoeran daude Extremadura (15.394 euro), Andaluzia (16.960) eta Melilla (16.981).

Jardueraren beherakada horrekin batera, lanaren desagerpen prozesua azeleratu egin da. Gauzak horrela, 2011. urtean lanaldi osoan betetako lanpostu kopuru osoa % 1,7 murriztu bazen ere, 2012. urtean % 4,4 egin zuen behera. Soldatak % 5,1 jaitsi ziren; aurreko urtean, berriz, % 1,5. Bestalde, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) agerian uzten du langabezia-tasa (16-64 urtekoen artean) % 21,8koa izatetik % 25,2koa izatea igaro dela 2011 eta 2012a bitartean. Langabeziak autonomia-erkidegoen artean duen banaketa ez da homogeneoa, ordea. Tasa baxuena honako autonomia erkidego hauek dute: EAE, % 15ekin, Nafarroa % 16,4rekin, Kantabria % 17,9rekin, Aragoi % 18,7rekin eta Madril, % 19,2rekin. Estatuko batez bestekoaren gainetik daude Ceuta (% 38,8), Andaluzia (% 34,7), Kanariar Uharteak (% 33,3), Extremadura (% 33,1), Melilla (% 28,9), Gaztela-Mantxa (% 28,6), Murtzia (% 28) eta Valentziako Erkidegoa (% 27,8).

BPGaren urte arteko beherakada handiagoa izan zenez eta lanaren desagerpenak gora egin zuen arren, landun bakoitzeko produktibitatea dezeleratu egin zen bigarren hiruhilekotik aurrera; baina, hala ere, handitu egin zen 2011ren eta 2012aren artean.

Espainiako ekonomiaren Ordainketa-balantzari dagokionez, kanpoko sektoreak egindako ekarpen positiboarekin batera, bere egoera hobetu egin du munduko gainerako eskualdeekin alderatuta. Ekonomiaren finantzazio beharra (defizita) BPGren % 3,2tik (2011n) % 0,2ra (2012n) igaro zen, hau da, 2.365 milioi euro, aurreko urtean baino 31.578 milioi gutxiago, alegia.

Bestalde, defizit publikoa (Estatuko Herri-administrazio guztiena, oro har) Kontabilitate Nazionalari dagokionez, 2011n BPGaren % 9,4koa izatetik 2012an % 10,6koa izatera igaro da. Ogasun eta Herri-administrazioen Ministerioaren datuen arabera, defizita, finantza-sistemarako laguntzak (38.343 milioi euro) kontuan hartu gabe, BPGaren % 6,98koa da. Defizit horrek helburu berrikusitik (% 6,3koa) BPGaren ehuneko 0,68 urrundu dela esan nahi du.

Datuak eragileka bereiziz, Administrazio Zentralak, Autonomia Erkidegoek, tokiko korporazioek eta Gizarte Segurantzak, hurrenez hurren, % 7,8ko, % 1,8ko, % 0,1eko eta % 1eko defizitarekin itxi zituzten euren kontuak.

Azkenik, EAEren ibilbide ekonomikoan kontzentratuz, autonomia-erkidegoko jardueraren beherakada gailentzen da, baina datu zehatza desberdina da estatistika-iturriaren arabera. BPGa % 1,2 murriztu da urte arteko tasan, EUSTATen arabera; EINek adierazten duenez, berriz, beherakada % 1,4koa izan da. Eskaintzaren ikuspuntutik, EAEko ekonomiaren balio erantsiak % 1,2ko beherakada izan du 2012an zehar: eraikuntza -% 6,3, bere beheranzko joerarekin jarraituz; industria eta energia -% 2,4 (aurreko urtean, aldiz, % 2 hazi zen); eta zerbitzuek ere jarduera-mailan % 0,3ko beherakada izan dute.

Alderdi interesgarri samar bat da euskal ekonomiaren posizio teknologikoarekin lotutakoa. Horri dagokionez, 2010a eta 2011 alderatuz, BEGari

dagokionez, eduki teknologiko ertaina-altua duten sektoreen pisua handitu egin da eta baxua edo ertaina-baxua duten sektoreena txikitu egin da; lanaren harira, talde bakoitzaren garrantzia egonkortu egin dela ikusten da, aurreko urteko datuekin alderatuta; eta salmenten alderdiari dagokionez, berriro hazi da eduki ertaina-baxua duten sektoreen pisua, eta eduki altua eta ertaina-altua duten sektoreena gutxi gorabehera berdin mantendu da.

Nabarmendu beharra dago berriro ere maila teknologikorik altuena duten sektoreek izan dutela BEG hazkunderik handiena eta enplegu-murrizketarik txikiena, eta maila teknologiko baxuko sektoreek, aldiz, kontrako bilakaera izan dutela.

Eskariaren osagaien araberako bereizketa eginez gero, etxebizitzetako kontsumoaren gastuak gorabeherak izan zituen hiruhilekoen artean eta urtea % 1,6ko beherakadarekin amaitu zuen. Bestalde, herri-administrazioen gastuari dagokionez, bariazio-tasa negatiboak pixkanaka areagotzen ari dira, zehazki, lehenengo hiruhilekoan -% 0,2koa izatetik hirugarrenean -% 3,4koa izatera igaro da, baina laugarrenean beherakada txikiagoarekin bukatu zuen (-% 1,6koa).

Kontsumo pribatuan nahiz publikoan izan diren urte arteko benetako bariazio-tasa negatibo hauek azken kontsumoak behera egin izana ekarri du. Zehazki, lehenengo hiruhilekoan bariazio-tasa nulua izatetik laugarrenean -% 1,6koa izatera igaro da, eta, horrela, urteko batez besteko tasa -% 1,2koa izan da. Inbertsioari dagokionez, eta zehazkiago ekipo-ondasunetan egindako inbertsioari dagokionez, datuek egoera zaila islatzen dute; izan ere, beherakada-tasak urteak aurrera egin ahala hazten joan dira, lehenengo hiruhilekoan % 1,3ko bariazio-tasa negatiboa izatetik laugarrenean -% 5,8koa izatera iritsi baita.

EUSTATen arabera, kontsumo pribatuak egoeraren arabera dituen adierazle nagusiek berretsi egin dute islatutako egoera. Bada, Industria-ekoizpenaren indizearen urte arteko bariazio-tasak, kontsumoko ondasunei dagokionez, -% 5,1eko bariazioa izan du 2012an azalera handietako salmentei dagokienez, baita prezio konstanteei dagokienez ere (-% 3,2); automobilen matrikulazioen kasuan -% 16,7ko bariazioa izan da, eta ostatu-gauek gora egin duten arren (EAEko ostatu-gau propioak salbuetsita), aurreko aldian baino gutxiago igo dira, hau da, % 1,1 egin dute gora, eta 2011n % 5,1. Inbertsio-adierazleei dagokienez, ekipo-ondasunen Industria-ekoizpenaren indizeak 7,7 egin du behera (aurreko aldian, berriz, % 5,2ko igoera izan zuen). Zamalanetarako ibilgailu industrialen matrikulazioak % 42,9ko beherakada izan zuen aurreko urteko % 19,3ko beherakadaren aldean.

Lanaren bilakaera, lanpostutan neurtuta, EUSTATen hiruhileroko kontu ekonomikoen arabera, negatiboa izan da, zehazki, 2012an % 2,5eko batez besteko beherakada izan du. Beherakada hori sektore guztietan ikusi da, txikiagoa izan da lehenengo sektorean (-% 0,1) eta zerbitzuen sektorean (-% 0,8) eta handiagoa eraikuntzaren sektorean (-% 11,8) eta industrian (-% 4,3), baina neurri txikiagoan.

Laneko itxurazko produktibitatean, termino errealetan, % 1,4 hazi zen 2012an, hau da, aurreko urtean baino hamarren bat gehiago, lanak ekoizpenak baino gehiago egin baitzuen behera. EAEko produktibitate errealaren hazkunde hori Europar Batasunekoa baino handiagoa izan zen (bai EB27koa, bai euro zonakoa kontuan hartuz gero, 2011n % 1etik gorako emaitzak lortu ondoren eskualde horietako produktibitatea % 0,1 hazi baitzen), eta behin-behineko datuen arabera, Espainiako estatuko tasa erreala askoz altuagoa izan zen, +% 3koa, hain zuzen, urtean zehar galdutako enplegu kopuru handiaren ondorioz.

Bestalde, 2012rako behin-behineko datuek gure ekonomiaren ULK korronteen beherakada bat islatzen dute, aurreko urtean ez bezala (-% 0,7, 2011ko ratio bera), industrian txikiagoa izan da (-% 0,9) eta eraikuntzan handiagoa (-% 9,2). Zerbitzuek, bestalde, ULK korronteen hazkundea eduki dute, %0,5ekoa, aurreko urtean %0,1eko hazkundea izan zuten bitartean. Europar Batasunean, ULK nominalak, soldatapekoek lanpostuko eskuratzen duten ordainsaritik abiatuta kalkulatuta, % 2,9 areagotu ziren 2012. urtean (EB27) eta % 1,6 euro zonan. Aurreko urtean, berriz, +0,9ko bariazioak izan zituzten biek. Bitartean, Estatuan, 2011n % 1,5eko bariazio negatiboa egon da, eta -% 3,1ekoa 2012an, behin-behineko datuekin.

Inflazioari dagokionez, EAEn, 2012an zehar, prezioek hiru etapa izan dituzte: urtearen lehenengo zatia nahiko laua izan da, udaren ostean gora egin dute eta 2012ko azken hilabeteetan behera egin dute. Bada, urteko batez besteko tasa % 2,3koa izan da, hau da, 2011ko datua baino 8 hamarren baxuagoa. Batez

besteko mailak behera egin duen arren, abenduko urte arteko inflazioa % 2,7koa da, aurreko urtekoa baino 3 hamarren gehiago. Horren arrazoietako bat da abuztuan petrolioaren prezioak gora egin zuela eta BEZak irailean gora egin zuela eta, gainera, elektrizitate-tarifaren prezio arautuek gora egin zutela.

Osotara, 2012a euskal ekonomiarako urte zaila izan dela esan daiteke. Gure ekoizpen-egituraren ezaugarriak ikusita, bereziki kezkagarria da industriak izan duen beherakada, zalantzarik gabe bere lehentasunezko merkatua osatzen duten arlo ekonomikoetan ikusi den jarduera eskasak areagotu duena. Era berean, ez dugu ahaztu behar Zerbitzuen sektoreak izan duen bilakaera, urtea % 1aren inguruko tasa negatiboarekin bukatu baitu. Horrek guztiak eragin garrantzitsua izan du lan-merkatuan; hain zuzen ere, urtearen bukaerako langabezia-tasa egungo krisi ekonomikoaren hasieran zegoenaren bikoitza da. Laburbilduz, esan daiteke aldagai garrantzitsu guztietan beheranzko profila ikusten dela, eta momentuz ez da ikusten inolako joera-aldaketarik.

3.6. SEKTORE PUBLIKOA

Azpimarratzekoa da diru-sarrera publikoek 2011n izan zuten beherakadaren ostean (Eusko Jaurlaritzak Foru Aldundiek baino beherakada handiagoa izan zuten), 2012an pixka bat hobetu zirela, % 0,1, hain zuzen, funtsean zuzeneko zergek bilakaera positiboa izan zutelako, zehazki, % 1 hazi ziren, eta horrek zeharkako zergen beherakada konpentsatu zuen, zerga horien diru-bilketak % 2 egin batzuten behera. Bi partidak Euskal Sektore Publikoko diru-sarreren % 77 barne hartzen dute. Era berean, pasibo finantzarioen bariazioan % 7,6ko igoera izan zen, Eusko Jaurlaritzaren zorpetze handiagoarekin lotuta (Foru Aldundientzat ratioa negatiboa baita).

Ondorioz, Euskal Sektore Publikoaren BPGaren gaineko diru sarrerak 4 portzentaje puntu igo dira: 2011ko %22,78tik %22,82ra (behin-behineko datuak).

Euskal Sektore Publikoaren guztizko gastua, bere aldetik, % 2,6 jaitsi da, aurreko urteko -% 1,1en aurrean. Hortaz, magnitude honek EAEko BPGaren gain ordezkatzen duen ehunekoak 57 ehuneneko beherakada izan du, % 22,74tik % 22,17ra igaroz. Gastuak bilakaera positiboa izan du bai Eusko Jaurlaritzan (+% 0,7) eta negatiboa Foru Aldundietan ere (-% 2,4). Ondorioz, agregatuaren aldakuntza negatiboa da ehuneko altuagoan (-% 2,6), izan ere, diru partidetako batzuk erakundeen artean orekatzen dira.

Eusko Jaurlaritzaren gastuan kontzentratuz, 2012ko behin-behineko kitapenak 2011ko ekitaldiarekin alderatuta % 0,7ko igoera izan dela erakusten du. Hala eta guztiz ere, 2009aren erdialdean izan zen legealdi-aldaketaren ondorioz sailen antolaketan izan zen aldaketak atal batzuetan gastu-zifra handien bilakaera azken urtetik aurrera aztertzea zailtzen du. Beren gastu-bolumenaren ondorioz garrantzitsuenak diren bi sailak Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa (gastu osoaren % 25,6) eta Osasuna (% 32,8) dira. Lehenengoak % 3,3 egin du behera 2011rekin alderatuta, eta bigarrenak, berriz, % 1,5. 2012rako gastu oso kitatua 10.246 milioi eurokoa da guztira, hau da, gure Erkidegoak urte horretan izan duen BPGaren % 15,5, behin-behineko datuen arabera.

Diru-sarreren eta gastuen bilakaeraren ondorioz, aurrezki publikoak % 70,9 egin du gora (BPGaren % 1,58raino), eta, aldi berean, defizit publikoa % 42,8 murriztu da, hau da, BPGaren % 0,71. Ratio hori BPGaren % 1,39raino gehitu da halere, 2012-2014ko EAEko berrorekatzeko Ekonomia eta Finantza Planarekin lotutako defizitaren datua kontuan izanez gero. Hor, EAEko Administrazio Orokorraz gain, LANBIDE eta OSAKIDETZA erakunde autonomoen kopuruak sartzen dira. 2011ko emaitzari dagokionez, murrizketa garrantzitsua ikusten da, urte horretan ratioa % 2,56koa izan baitzen.

Defizitaren bilakaera horretatik ondorioztatzen dugu 2012an finantza publikoen susperraldia finkatu dela (susperraldia 2010ean hasi zen), 2009ko beherakadaren ondoren, bizi dugun abagune konplexuaren ondorioz. Abagune horrek baliabide gutxi edukitzea dakar, eta horregatik, baliabideak ahal den neurrian arrazionalizatu behar dira.

Testuinguru horretan, beste urte batez azpimarratu behar dugu zenbait partida murriztu behar direla (funtzionamendu gastuak adibidez), herritarren ongizatean zuzeneko eragina daukatenak ez kaltetzeko, adibidez inbertsio errealak eta transferentzia arruntak, gure erkidegoan bizi-kalitatea mantentzeko funtsezko tresnak direnak, eta aurrekontuen egungo egoeraren ondorioak jasan behar ez dituztenak.

Horren harira, positiboa iruditzen zaigu funtzionamendu-gastuak aurten murriztu izatea (-% 2,2), baina kezkagarria iruditzen zaigu transferentzia korronteek % 6,5eko beherakada izan dutela. Era berean, beste datu kezkagarri bat dago: inbertsio errealak % 12,1 murriztu dira, (2011n -% 13,2). Horrek gure herrialdea garatzeko funtsezko proiektuen etorkizuna auzitan jar dezake.

Nolanahi ere, azpimarratzekoa da igarotzen ari garen eta 2012an ere defizit publikoa eragin duen egoera ekonomiko zaila Euskal Sektore Publikoa bere zorra handitzera bultzatzen ari dela; zehazki, 2012ko abenduaren 31n, 8.444 milioi eurotik gorakoa zen, hau da, 3.884 euro inguru biztanle bakoitzeko. Horrenbestez, finantza publikoak orekatzeko ahaleginak lehentasunezko arreta jaso behar du.

3.7. LAN MERKATUA

Hamabost urtez lana sortu ondoren, 2009an, EAEko lan-merkatuak okupazioarekin lotutako zifretan beheranzko etapa berri bat hasi zuen, eta 2012an joera horrek aurrera jarraitu zuen. Euskal ekonomia izan den enplegu-galera horrek aurrera jarraitu du eta areagotu ere egin da urtean zehar, eta horrek langabeziak nabarmenki gora egitea ekarri du, bai pertsonen kopuruari dagokionez, bai biztanleria aktiboaren gaineko ehunekoari dagokionez.

Zehazki, urtearen amaierako langabezia-tasa (% 12,8koa, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko EUSTATen inkestaren arabera, BJA) 2000tik izan den tasarik altuena da. Langabetuen zifrak (130.000, aipatutako Inkestaren arabera, eta 170.000, LANBIDEren erregistroen arabera) are handiagoak izan zitezkeen lan-merkatuan izan den eta jarduera-tasen beherakada ekarri duen uzte garrantzitsuagatik izan ez balitz, bereziki gazteen artean, baina baita 45 urtetik gorako gizonen artean ere. Zentzu horretan, Gizarte Segurantzan kotizatzen duten pertsonen kopuruak % 2,5 egin du behera batez beste, baina % 3,5eraino jaitsi da azken hiruhilekoan, eta, aldi berean, EUSTATen Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen okupazioak, era berean, ekitaldian zehar beheranzko profila erakusten du.

Bestalde, EAEn lan-arloan izan diren kaleratzeen kopuru osoak, Enplegu Ministerioa iturri gisa hartuz (Estatuko gainerako eremuetan gertatzen denarekin alderatzea ahalbidetzen digu), 2002tik 2007ra beheranzko bilakaera izan zuen, 2009an % 355,5 hazi zen, 2010-2011 biurtekoan behera egin zuen (% 31,2 azken urte honetan), eta 2012an berriro ere % 75,2 areagotu zen, eta 58.674 langile ukitu ditu guztira. Joera hori antzekoa da Estatuan, oro har; bertan, kaleratzeek gora egin dute, baina proportzio txikiagoan (+% 39,3), eta, ondorioz, EAEko kaleratzeek kopuru osoaren gainean duen pisua 2011n % 7raino jaitsi zen eta 2012an berriro hazi zen, % 8,8raino.

Datuek erakusten dute EAEn lanetik kaleratuak izan diren pertsonen kopuruaren igoerak bereziki eragiten diela enplegu-erregulazioko espedienteei; zehazki, kopuru osoaren % 88,5 dira guztira, eta % 82,3 hazi dira aurreko urtearekin alderatuta. Bilakaera hori kezkagarria iruditzen zaigu krisi ekonomikoa mantendu egiten delako.

2011ko abendutik 2012ko abendura galdu diren 42.900 lanpostuak kontuan hartuz, lanpostuen galeraren erritmoa bizkortu egin dela ikusten dugu, eta kezkagarria iruditzen zaigu: krisiaren lehenengo urteetan, lanpostuen galera txikiagoa izan zen (2008an 12.300 lanpostu galdu ziren, 2009an 26.600, 2010ean 9.000 eta 2011n 13.400). Bilakaera honen emaitza gisa, 2008ko hirugarren hiruhilekoan lortu zen gehieneko okupaziotik, BJAren zifren arabera, 106.300 lanpostu galdu dira, hau da, orduan lortu zen lanaren % 10,7). Aldi horretan, eraikuntzak bere enpleguaren % 35 galdu du, industriak % 17,4, zerbitzuek 3,3 eta lehenengo sektoreak % 32,2.

2012a, gainera, gure erkidegoan langabetuen kopurua hazi egin zen, aurreko lau ekitaldietan bezala. Fenomeno horrek adin-tarte guztietan izan zuen eragina; izan ere, 2011n ez bezala, gazteenen artean ere gora egin zuen (25 urtetik berakoen artean); zehazki, adin horretako pertsonen artean, 2011n baino 1.800 langabetu gehiago egon ziren, eta, beraz, beren langabezia-tasak 9,2 puntu egin zuen gora, % 33,3ko urteko batez bestekoraino. Europan, gazteen langabezia-tasa % 22tik gorakoa izan zen Batasun osorako, eta Italian, Portugalen eta Eslovakian, besteak beste, % 30etik gorakoa izan zen, eta Grezian eta Espainian, aldiz, % 50etik gorakoa. Beste muturrean kokatu ziren Alemania, Holanda eta Austria, % 8-9 inguruko ratioak izan baitzituzten.

Kasu honetan 25 eta 44 urte arteko pertsonen taldean izan du langabeziak termino absolututan hazkuntza handiena (+4.600), baina hazkuntza txikiagoa izan da termino erlatibotan (+% 6,5), 2011n % 25 hazi ondoren. 45 urtetik gorako pertsonena da langabezia-tasarik baxuena duena (% 8,5), talde horretako pertsona askok lan-merkatua utzi dutelako eta horietako asko inaktibitate egoerara igaro direlako lanpostua galdu dutenean.

Gazteenen artean (25 urtetik beherakoak), era berean, lan-merkatua utzi egin dutela (edo ez direla sartu) ikusten da, eta beren jarduera-tasak behera egin du (ehuneko 5 2011ko laugarren hiruhilekoaren eta 2012ko laugarren hiruhilekoaren artean, eta jada oso baxua izanik, % 28,1etik 23,1era igaro da), animoa galdu dutelako lanarekin lotutako itxaropen faltaren ondoriozko etsipenagatik. Beharbada horregatik gazte asko ikasketak luzatzen ari dira edo herrialdetik joaten ari dira lana kanpoan bilatzera. Azken fenomeno hori kuantifikatzea zaila da oraindik, eta jarraipena egin beharko da, baina aipagarria da fenomeno kezkagarria dela, giza kapitala galtzea eragiten duelako.

Sektoreka, langabetuen % 60,1 zerbitzuen sektorekoak izan dira; sektore horretan langabezia % 11,4 hazi zen (2011n +% 20,6). Halaber, industria ere langabezia % 15,1 hazi zen (+% 9,4ko batez bestekoaren gainetik), eta eraikuntzaren sektorean langabetuen kopurua % 10,2 murriztu zen (-1.900 lagun garbi). Bestalde, lehenengo lanpostua bilatzen ari diren pertsonen taldean 1.700 gehiago izan ziren, 9.400 batez beste urtean.

Bestalde, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak erregistraturiko langabeziak BJAren datuak gainditzen dituela egiaztatu da. 2012ko abenduan LANBIDEn 169.083 langabetu erregistratu ziren (+% 16,3 aurreko urtearekin alderatuta) eta EUSTATen Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkestak 130.200 langabetu kalkulatu zituen urteko laugarren hiruhilekoan, izan ere, inkesta horretako langabetuen sailkapenak kanpo uzten ditu enplegu-eskatzaile gisa izena eman duten hainbat pertsona.

Aurreko urteko bilakaerarekin alderatuta, langabeziaren igoera handiagoa izan da (+% 16,3, 2011ko abenduko urte arteko -% 6,9arekin alderatuta), eta 2010ean eta 2011n ez bezala, gizonezkoen langabeziak gehiago egin du gora (+% 18,7) emakumezkoenak baino (+% 14). Gainera, iraupen luzeko langabezia (urtebete baino gehiago langabezian egotea) aurten ere hazi egin da; hain zuzen ere, 2009an iraupen luzeko langabetuen proportzioan % 29,2koa zen, eta pixkanaka haziz joan da, eta 2012aren bukaerarako, erregistratu den langabezia osoaren % 42,8 hartu du (% 37,9 gizonen kasuan eta % 47,6 emakume langabetuen artean).

Bilakaera hau kezkagarria iruditzen zaigu, Euskadiko langabetuen ia erdiak urtebete baino gehiago baitarama langabezian. Azken finean, datuek erakusten dute krisiaren iraupenaren ondorioz pertsona askok langabeziaren prestazioaren aldiak agortzea. Gero eta zailagoa da eskubide hori berriro sortzeko behar den denboran lan egitea. Are gehiago, prestazioen estaldura-tasak behera egin du, urtebetean, ehuneko 5,7, eta 2012ko abenduan % 57koa izatera iritsi da.

Politika pasiboei dagokienez, 2012an langabezia-prestazioak jasotzen zituzten pertsonen batez bestekoak gora egin zuen; zehazki, EAEn 88.136 izatera iritsi ziren, hau da, aurreko urtean baino % 7,7 gehiago, lehenago % 4,1 jaitsi zen arren. Estatuan, prestazioak jasotzen zituzten pertsonen kolektiboak hazkuntza txikiagoa izan zuen: urtero % 3,4 batez beste, eta, beraz, EAEn horrelako prestazioak jasotzen dituzten pertsonek Estatuan duten parte-hartzea handitu egin da; hain zuzen ere, 2011n % 2,9koa izatetik 2012an % 3koa izatera igaro da. 2012ko 88.136 onuradunen artean, % 46,6 emakumezkoak ziren (emakumezkoen kopuruak batez bestekoak baino pixka bat gutxiago egin du gora, % 7, alegia), eta gainerako % 53,4a gizonezkoak dira (+% 8,3 2011rekin alderatuta).

2012ko abenduko datuei dagokienez, 88.400 jasotzaileen artean, % 63k kotizaziopeko prestazioak jaso zituzten, % 34k subsidioak eta gainerako % 3ak Txertaketarako Errenta Aktiboa. Estatuan, berriz, kotizaziopeko prestazioak jaso zituzten pertsonen ratioa % 47koa zen, subsidioena % 40koa eta Txertaketarako Errenta Aktiboarena % 5ekoa. Gainera, % 8k Nekazaritzako Gorabeheretarako Subsidioa jasotzen zuen. Erregistratu diren langabezia zifrak kontuan hartuz, esan daiteke 2012ko abenduan EAEko 100 langabetutik 48k ez zutela inolako prestaziorik jasotzen, 2011n baino 5 gehiagok, hain zuzen, eta bilakaera horrek gizarte-bazterkeriak gora egitea ekar lezake, baita Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eskaera haztea ere.

Arazo horiek ikusita, enpleguko politika aktiboak are garrantzitsuagoak dira lan-merkatuan sartzeko eta gizarte ongizatea lortzeko funtsezko elementu gisa. Zentzu horretan, Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioaren datuek erakusten dute 2012an Euskadi izan zela prestakuntza, orientazio eta laneratze programetarako funts gehien bideratu zuen autonomi erkidegoa, bai termino absolutuetan (481,24 milioi euro), bai erlatiboetan (2.846 euro langabetu bakoitzeko). Kopuru horiek erakusten dute EAEk, estatuan erregistratutako langabeziaren % 3,5 izanik, funtsen % 7,6 erabili zituela (estatuan 4.889 milioi eurotik gora izan zirenak).

Zifra horiek erakusten dute, gainera, partida honen zenbateko osoa 2011rekin alderatuta Estatuan % 11,9 murriztu den bitartean, EAEn % 14,8 hazi dela (are gehiago, autonomia-erkidegoen artean Euskadin, Errioxan eta Kantabrian baino ez da hazi). Lanbagetu bakoitzeko gastua, aldiz, % 1,3 jaitsi da, langabeziaren goranzko bilakaeragatik, baina Espainia osoan baino askoz gutxiago (-% 30,8).

3.8. FAMILIAK ETA LANEKO BIZITZA, BIZITZA PERTSONALA ETA FAMILIAKOA UZTARTZEKO ARAZOAK

Familiak, bizi izan dituen eraldaketak gorabehera, instituzio oso garrantzitsua da garapen pertsonalean eta pertsonen gizarte parte hartzean. Egia da gero eta forma ezberdinagoak jaso dituela, baina ez dirudi bere garrantzia galdu duenik. Orain dela gutxi euskal ume eta nerabeei egindako kontsulta batek[9] hori ikusten laguntzen digu: gehienek uste dute familiak ez dutela zertan osatu odol-kidetasuna daukaten pertsonek, baina argi daukate familiaren osagaiak "segurtasuna, errespetua, maitasuna eta konfiantza" direla.

Familiaren eraldaketan eragin handiena izan duten fenomenoetako bat emakumea modu masiboan lan-merkatuan sartzea izan da. Laneratze honek, egoera batzuetan, dilema bat sortzen du: lan profesionala eta etxeko lanak, seme-alaben zaintza eta, batzuetan, seme-alabak izateko itxaropena bera bateratu ahal izatea. Arazo hau larriagoa da baldin eta arreta premiak mendetasun eta ezintasun egoeretara zabaltzen badira.

EUROFOUNDek (bizi- eta lan-baldintzak hobetzeko Europako Fundazioa) gogorarazten du lan egiteko adina duen populazioak seme-alabak zaindu behar izaten dituztela eta, gero, adineko pertsonak ere zaindu behar izaten dituztela. Hori dela eta, bateragarritasuna eta horrekin lotutako arazoak, nola edo hala, lan egiteko adin osoa hartzen dute. Bizi-kalitateari buruzko 2012ko Inkestaren emaitzen artean, azpimarratzekoa da Europako langileen % 22k adierazten duela ez dagoela pozik beren lanaren, bizitza pertsonalaren eta lanekoaren arteko orekarekin, % 6k uste du bere laneko ordutegia ez datorrela bat, inondik inora ere, bere familia eta gizarte bizitzarekin eta % 16k dio ez dela "oso ongi" moldatzen. Lanaren, bizitza pertsonalaren eta familiako bizitzaren artean duten oreka nahikotzat jotzen ez duten langileen proportzioa % 10etik (Danimarkan, Holandan eta Suedian) % 30etik gorakoa izateraino doa (Grezian, Lituanian eta Espainian).

Era berean, Batasuneko langileen % 53 nekatuegi daude lanetik itzultzen direnean etxeko eginkizunez arduratzeko, hilean behin baino gehiagotan, gutxienez, eta ia laurden bat sentitzen da horrela astean behin baino gehiagotan. Gainera, ordaindutako lanorduak zenbat eta gehiago izan, gero eta handiagoa maiztasun hori. Horrenbestez, astean 48 ordu baino gehiago lan egiten duten gizonen % 35ek eta emakumeen % 28k bakarrik esaten du aipatu nekea "inoiz ere ez" edo "oso gutxitan" izaten duela. Halaber, % 30ek familiako erantzukizunei erantzuteko arazoak ditu lana dela eta, eta % 14k dio lanean arreta jartzeko arazoak dituela familiako erantzukizunak direla eta.

Horren harira, EUSTATen *"Laneko Bizitza, Bizitza Pertsonala eta Familiakoa Bateratzeari buruzko Inkesta"*k erakusten du EAEko pertsona okupatuen zati garrantzitsu batek dioela zailtasunak dituela lana eta menpeko senideen zaintza baterako. 0tik 10erako eskalan, 2011n 4,5eko zailtasun-maila adierazten dute (4,6koa gizonen kasuan eta 4,4koa emakumeen kasuan). Zailtasun hori 4,4ko batez besteko mailakoa da, seme-alaba adingabeak zaindu behar direnean, eta 3,6koa da etxeko betebeharrak egin behar direnean. Oro har, zailtasun-maila 3,8koa da, hau da, maila berekoa da gizonentzat nahiz emakumeentzat. Enplegatzaileek eta autonomoek gainerako landunek baino pixka bat zailtasun gehiago dituzte lana eta familia uztartzeko. Bada, lehenengoek 4,8ko zailtasun-

9 EUSKO JAURLARITZA (2010): EAEko umeen eta nerabeen beharrizanei hurbiltzea.

maila aitortzen dute eta bigarrenek 5ekoa seme-alaba adingabeak zaintzeko betebeharrei dagokienez, eta 5,4koa eta 4,4koa, hurrenez hurren, lana eta menpeko pertsonen zaintza bateratzearekin lotuta.

"*La familia en la CAPV 2012*" azterlanak erakusten duenez, euskal herritarrek % 55ek uste du gaur egun duela 30 edo 40 urte baino zailagoa dela seme-alabak heztea (% 31k uste du ezetz), eta inkestatutako pertsonen % 72k uste du seme-alabak izatea lehen baino ahalegin ekonomiko handiagoa eskatzen diela familiei (% 19 dago horren kontra). Etorkizunean guraso izatearen harira, kezkagarria iruditzen zaigu egiaztatzea elkarrizketatutako pertsonen artean etorkizunean seme-alabak izango dituztela erabat ziur daudenak % 11 besterik ez direla (2001ean, berriz, elkarrizketatutakoen % 22 ziren). Era berean, seme-alabarik izango ez dutela ziur daudela esaten dutenak azken hamarkadan % 56 izatetik % 77 izatera igaro dira. Jokabide horren ondorioak ikusten ari gara dagoeneko, jaiotza tasaren beherakadarekin eta biztanleriaren zahartzearekin.

Egoera horien aurrean, gizarteak argi du Administrazioaren erantzukizuna dela; izan ere, gehiengo handi batek pentsatzen du gurasoei etxetik kanpoko lana eta seme-alaben zaintza bateratzeko aukera emateko erantzukizuna duela (% 40k uste du oso arduraduna dela eta % 36k nahiko arduraduna dela), "*La familia en la CAPV 2012*" azterlanaren arabera; eta, zalantzarik gabe, Eusko Jaurlaritzak Familia Planen bitartez 2002tik garatu duen Familia Politikak paper garrantzitsua du. Oro har, laguntza horiek lortu dituzten familien gogobetetasun-maila altua da, eta gizonak beren erantzukizunak onartzearekin eta emakumeen jabekuntzarekin lotutako ondorio positiboak dituztela uste dute, mugatutzat jotzen dituzten arren.

Bestalde, gogoan izan behar da EAEko langileen % 17,4k ia egunero luzatu behar duela bere lanaldia (EUSTATen LBBI) eta % 69 (Estaturako datua, EUROFOUND) etxetik itzultzen denean nekatuegi dagoela etxeko betebeharrak egiteko, eta hori, ziurrenik, lotuta dago laneko plangintza hobetzeko eta laneko ordutegien arrazionalizazioan aurrera egiteko beharrarekin. Alderdi horietan aurrerapenak lortzen ari diren arren, oraindik bide luzea dago egiteke.

Horren harira, Europako Batzordearen tesiarekin bat etorriz, eta aurrekontuekin lotutako mugez ohartzen garen arren, gurasoen laneratzea bultzatzen duten eta laneko bizitza, bizitza pertsonala eta familiakoa hobeto bateratzea sustatzen duten berdintasun- eta familia-politika eraginkorren garapenean aurrerapenak egiten jarraitu behar dela azpimarratu nahi dugu.

3.9. BIZI BALDINTZAK

Txirotasuna eta bazterkeria murrizteko helburua 2005ean zehaztu zuen Europako Batzordeak AROPE (*population at risk of poverty and exclusion*) Tasaren bitartez, hiru adierazletan oinarrituz kalkulatuta: pobreziaren arrisku tasa (gizarte transferentziak jaso ondoren), gabezia materialaren indizea eta lan-intentsitate txikiko familietan bizi diren pertsonen portzentajea. Definizio horrek, aldi berean pobreziaren eta bazterketaren mendean dauden faktoreak eta Europak dauzkan arazoak eta ezarri diren lehentasunak islatzen ditu.

Eranskin horrek ikuspuntu ekonomikotik normalean "pobre"tzat jotzen dena baino biztanleria handiagoa barne hartzen du, beti errentarekin erlazionatuta egiten ez diren bazterkeria-moduak eta lurralde-esparrua barne hartzen baititu; zehazki, 2011n ia 120 milioi europar ukitu ditu, eta biztanleriaren % 24,2. Ehuneko hori Estatuan % 27koa da, baina euskal herritarren % 16 bakarrik ukitzen du, hau da, 350.000 pertsona inguru (% 15,5 2010ean).

Adierazle honen azken aldiko bilakaera ikusirik esan daiteke 2020a baino lehen gutxienez 20 milioi europar pobreziatik eta bazterkeriatik urruntzeko helburua (2005ean 124 milioi pertsonakoa zen kolektibo batetik abiatuz) betetzeko benetako arazoak daudela krisi ekonomikoaren eta ezarritako soiltasun-neurrien ondorioz, eta kezkagarria iruditzen zaigu.

Gainera, kapitulu honetan aztertutako iturriek adierazten dute Europako eta EAEko bizi-baldintzek izan duten narriadura ez dela uniformea, hau da, kolektibo batzuetan beste batzuetan baino eragin handiagoa duela. EBn, EUROSTATen datuek adierazten dute 2008aren eta 2011ren artean haurren txirotasuna 27 estatu kideetako 18tan handitu dela, eta batzuetan oso modu kezkagarrian. Horren adibide dira Irlanda, Hungaria, Letonia eta Bulgaria. Haurren bizi-baldintzak

neurri handi batean daude pertsona helduen lan-egoeraren menpe, eta hain zuzen ere, lan egiteko adinean dauden pertsonak dira krisiaren eragina modu zuzenagoan jasaten ari direnak. Kalkuluen arabera, Batasunean kolektibo honen pobrezia eta bazterkeria arriskuak 2008tik 2011ra 1,5 puntuko igoera izan du.

Era berean, EAEn Eusko Jaurlaritzaren Pobreziaren eta Gizarte-desberdintasunen Inkestaren datuek islatzen dute euskal gizartean polarizazio handiagoa ikusten dela: batetik, pobrezia-tasak bereziki altuak dira immigranteak kide nagusi gisa dituzten familien artean, guraso bakarrekoetan, lanpostu egonkorrik gabeko pertsona aktiboen artean eta 35 urtetik beherako pertsonak buru gisa dituzten familien artean, eta kolektibo horietan egin du okerrera egoerak 2012an, 2008ko emaitzekin alderatuta. Aitzitik, kide aktibo guztiak lan egonkorrarekin dituzten familietan, goi-mailako ikasketak dituzten pertsonak buru gisa dituztenetan edo pertsona ez aktiboz osatutako familietan benetako pobrezia tasak txikiagoak dira.

Inkestak egungo egoeraren gainean arreta deitzen du, talde jakin batzuen egoerarekin lotutako hobekuntza erlatiboa eta horrek barne hartzen duen gizarteko polarizazioak zalantzan jartzen dutelako krisiak erdi-mailetan duen eraginaren gainean gizarteak duen pertzepzio nagusia, eta pentsarazten du oraindik ere biztanleriaren zati handi batek krisiaren eragin negatiboenak saihesteko behar besteko baliabide ekonomikoak dituela. Izatez, 1986tik izan den baliorik baxuena den arren, Inkestak erakusten du biztanleriaren % 83k adierazten duela ez dituela oinarrizko gastuak murriztu behar izan, eta % 75ek ez du inolako arazorik bere ohiko betebehar eta gastuei aurre egiteko.

2012an pobrezia eraginik handiena jasaten duten kolektiboetan kontzentratu zen: 2008an benetako pobreziaren % 68,6 ziren, eta 2012an ehunekoa % 78,9koa izatera igaro zen. Pobreziari eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkestaren arabera, aipatutako kolektiboek komunean duten ezaugarri nagusia da familia horien kide nagusiak ez duela lanik, eta faktore hori atzerritarra izatearekin, guraso bakarra izatearekin eta, bi pertsonak edo gehiagok osatutako familia-taldeen barruan, gaztetasunarekin lotuta dago. Gainera, 2012an, pertsona aktibo guztiak langabezian edo lanpostu ezegonkorrekin dituzten etxeek benetako pobreziaren % 76,4 barne hartzen zuten; 2008an, aldiz, ratioa % 57,8koa zen.

Fenomeno horiek ikusta, eta Europako Batzordearen tesiarekin bat etorriz, berriro azpimarratu behar dugu beharrezkoa dela gizarteratzearen hiru oinarriak sustatzen jarraitzea: enplegu politika aktiboak, gutxieneko errenten bermea eta gizarte-zerbitzuak, edozein kasutan ere pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren kontra borrokatzeko mekanismoak indartuz. Gainera, une honetan ez dakigu zein puntutara arteko eragina izango duen egungo krisiak euskal gizartean, oro har, eta, bereziki, kolektiborik ahulenetan.

Bestalde, kapitulu honetan azpimarratu da Europa gero eta gehiago eta azkarrago ari dela zahartzen, baita gure Erkidegoa ere. Harro esan dezakegu bizi-itxaropenaren rankingen buru garela. Helburu hori osasunaren eta gizartearen arloetan azken hamarkadetan egin ditugun hobekuntzei esker lortu dugu. Euskal herritarrak luzeago bizi dira, eta osasun handiagoarekin: 2007an, Euskadiko emakumeek 85,6 urteko bizi-itxaropena zuten, eta horietako 75,2, batez beste, osasun onekoak dira; gizonen kasuan, berriz, 78,3 urteko batez besteko bizi-itxaropena dute, eta horietako 69,7 dira osasun onekoak.

Populazioaren zahartzea erronka bat da gizartearentzat, belaunaldien artean eta familien barruan elkartasun berri bat eskatzen du, baita Europako gizarte-eredua indartzea eta gure ongizate-estatuko politikoak egokitzea ere. Prozesu motel bat da, eta, bertan, gure bizitzaren heren bat baino gehiago igarotzen da, eta adineko pertsonei prestakuntza eta enplegu aukerak izatea bermatu behar zaie, familiako bizitzan eta gizartean aktiboki parte hartzea, adibidez, boluntariotza jardueren bitartez, etengabeko ikaskuntzaren bidez, kultura adierazpenaren bidez eta kirolaren bidez.

XXI. mendean zehar aurrera jarraituko duen bilakaera isil bat da, eta gure gizartean aldaketa garrantzitsuak egitea eskatzen ditu, baita gure bizikidetza-ereduetan ere. 2012a «*Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Urte Europarra*» izendatu zuten, Europan zahartze

aktiboaren kultura[10] zabaltzeko, adin guztietarako gizarte batean oinarrituta. Estatu kideen eta haien tokiko eta eskualdeko agintaritzek orotariko sentsibilizazio hitzaldi, jarduera eta ekimenen bitartez zahartze aktiboa sustatzeko eta adineko pertsonen potentziala mobilizatzeko esfortzuak (gero eta ugariagoak) bikoizteko egin dituzten ahaleginak sustatu eta babestea du helburu, baita gizarte-solaskideenak, gizarte zibilarenak eta enpresa-erkidegoarenak ere (enpresak txikiak eta ertainak barne) Aldarrikapen horrek adineko pertsonek gizartean eta arlo ekonomikoan Europan ongizatearen gizartea eraiki eta mantentzeko duten garrantzia balioestea dakar, eta Eusko Jaurlaritzak bere garaian aldarrikapen horrekin bat egin zuen.

EAEn bizi diren pertsonek 400.000 pertsonatik gorako kolektibo bat osatzen dute, eta gehienak beren lehentasunak zainduz bizi dira: aktiboak dira, beren osasuna zaintzen dute, kirola egiten dute eta familiako kideekin harreman-sare ona dute, eta haiekin askotariko zaintza eta laguntza transferentziak egiten dituzte. Beren bizi-baldintza materialak nabarmenki hobetu dira azken urteotan. Beraz, gaur egun duten bizitzarekin nahiko pozik dagoen kolektibo bat dira. Zahartzaroko funtsezko alderdi batzuen balorazioak positiboak izatea (adibidez, gizarte-harremanenak eta munduarekin konektatuta eta munduaren parte sentitzea) berme bat dira babes-sareak eraikitzeko eta zaintza-transferentziak egiteko zahartze-prozesuan zehar.

Orain arte adinekoei buruz pentsatzerakoan joera haiek hartzaile gisa bakarrik hartzea bazen ere (zaintzen hartzaile, laguntza material eta ekonomikoaren hartzaile), gaur egun babesa eta laguntza ematen jarraitzen dute batez ere beren senideei –gogora dezagun EAEn aitona-amonen % 45ek baino gehiagok laguntzen dutela ilobak zaintzen eta % 13k duela senideren bat gaixorik–. Halaber, geroz eta gehiago, boluntario izaerako elkarteen barruan gizarte jarduera altruistak egiten dituzte. IMSERSOk adinekoen irudiari buruz egindako Inkesta batek azpimarratu egiten du talde honen gaineko pertzepzioa mirespenekoa dela, gurasoek eta aitona-amonek askotan gazteenei emandako laguntza finantzarioa, familian mendetasun egoeran dauden pertsonen zaintzaile gisa eta lan boluntarioan egiten duten ekarpen handia bezalako alderdiak baloratuz, besteak beste. Gainera, biztanleriaren % 75ak baino gehiagok uste du adinekoek beren esperientzia ematen diotela gizarteari.

Hala ere, ezin dugu adineko pertsonen kolektibo osoa lotu balorazio positibo horiekin. Zahartzaroari buruz hitz egiten dugunean, heterogeneotasunean pentsatu behar dugu, eta adineko pertsonen artean bi talde handi bereizi behar dira. Batetik, bere lehentasunen araberako bizitza-proiektuaz gozatzeko aukera duen gehiengoa dago, hau da, autonomoak diren pertsonak eta, oro har, 80 urtetik beherakoak direnak. Bestetik, berriz, eguneroko zereginetarako laguntza behar duten pertsonak daude, hots, adineko pertsonen % 20, gutxi gorabehera. Batzuen eta besteen errealitate soziala eta pertsonala oso desberdina da. Besteak beste, ohiko profila da 80 urtetik gorako emakumea, gizarte-sare eta senide-harreman gutxi dituena, etxera sartzeko arazoak dituena eta aisialdi-jarduera gutxi egiten dituena. Zahartzaroaren profil hori desagertuz doa tarteko adineko jendea zahartzarora iritsi ahala; baina, nolanahi ere, kolektibo hau bereziki ahula da, eta bere babesak lehentasunezkoa izan behar du.

Gainera, adineko menpeko pertsonen arretari dagokionez, EAEn nahiz Espainiako gainerako eskualdeetan eta Europako herrialde gehienetan, senideak dira, maila handi batean, pertsona horiei zaintza ematen dietenak. Alabak eta emazteak “gizarteko armada ikusezin” garrantzitsua dira, emakumeen gero eta presentzia handiagoa duen beste talde baten babesarekin: etxeetan menpekotasun-egoerez arduratzen diren emakume immigranteak. Azken hauen garrantzia kalkulatzea zaila da, lan-harreman irregularrak izan ohi dituztelako, baina argi dago gero eta garrantzi handiagoa dutela.

Gaur egungo egoeraren ondorioz aurrekontuetan dauden murrizketez ohartzen garen arren, gure ustez, etxeko testuinguruko zaintzaren gaineko babes publikoa zaindarien prestakuntzaren eta babesaren bitartez, zerbitzuak eskainiz eta prestazio ekonomikoekin sustatu behar da. Testuinguru honetan, Menpekotasunari buruzko Estatuko Legearen eta Gizarte-zerbitzuen Legearen garapena erabakigarria izan daiteke prozesu honetarako.

10 *Hau da, osasun, parte-hartze eta segurtasun aukerak optimizatzeko prozesua da, jendeak zahartu ahala duen bizi-kalitatea hobetzeko, OMEk definitu duen bezala.*

3.10. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA

EUSTATek heriotzei buruz egin dituen estatistikek adierazten dutenez, heriotza gehienak adin handienetako tarteetan gertatzen dira, prebentzioan eta gaitzen tratamenduan egindako aurrerapenen ondorioz. Bada, biztanleak "laugarren adina" deritzonera iritsi dira.

Horren harira, zorionez, EAEko 2012-2020 Osasun Planaren datuen arabera, gizonen nahiz emakumeen bizi-itxaropena luzatu egin da azken urteotan; baina, bereziki, adin handiago batera iristen dira menpekotasunik gabe, hau da, gizonak 69,6 urteko adinera eta emakumeak 74,9 urteko adinera iristen dira egoera horretan.

Berriro ere heriotzen arrazoien inguruan itxuraz finkatu den aldaketa nabarmena iruditzen zaigu. Berez, EUSTATen datuen arabera, 2007tik hasita, heriotza gehienak tumoreen ondoriozkoak izan dira (% 31,9 2011n) eta zirkulazio sistemako gaixotasunen ondoriozkoak ondoren (% 28,2). 2007. urtea baino lehenagoko urteetan zirkulazio sistemako gaixotasunek eragiten zuten heriotza gehien.

Heriotza goiztiarraren hiru arrazoi nagusiak aztertuta (emakumeen artean: trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak, bularreko tumore gaiztoak eta koloneko tumore gaiztoak; eta, gizonen artean: trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak, kardiopatia iskemikoak, eta suizidioak eta autolesioak) ikusten da zein garrantzitsua den prebentzioa eta baheketa, baita bizi-ohitura fisiko nahiz psikiko osasungarriak sustatzea ere.

Zorionez, EUROSTATen datuen arabera, gure Erkidegoak 100.000 biztanleko duen doktore eta psikiatra tasa EBko beste herrialde batzuetakoa baino altuagoa da, baina azpimarratzekoa da 100.000 biztanleko dentista kopuruaren tasa EAErentzat erreferente diren Europako beste estatu batzuetakoa baino baxuagoa dela.

Ildo honetatik, pozik esan dezakegu ospitale-jardueran (arlo publikoan nahiz pribatuan) medikuen kopuruak gora egin duela. Hala eta guztiz ere, bi sareen arteko aldeak ere agertu nahi ditugu: sare publikoan 100 ohe okupatuko 77,4 mediku daude eta pribatuan 41,7 mediku; eta sare publikoan 100 ohe okupatuko 147 erizain daude eta sare pribatuan 65,7 erizain.

Ospitalez kanpoko jarduerari dagokionez (publikoa), kezkagarria iruditzen zaigu espezialisten kopuruak izan duen beherakada, horren ondorioz mediku bakoitzeko biztanle kopuruak gora egin duelako, baina alderdi positiboa iruditzen zaigu menpekotasun hori ez dela ikusten medikuntza orokorrean, bertan mediku bakoitzeko 1.235 biztanle izatetik 1.201 izatera igaro da.

Kanpoko kontsultetarako itxaron zerrenden eta atzerapen denboraren kasuan antzeman dugu, Osakidetzaren datuen arabera, 2011n hazi egin dela, aurreko urteko beherakadaren ondoren, itxaron zerrendan dauden pazienteen kopurua (90.412tik 93.104ra). Urte batean hazteko joera izan du eta hurrengoan murriztekoa. Zerrendetan itxaroten ari diren paziente kopuru gehien duten espezialitateak hauek dira: oftalmologia (14.735), traumatologia (13.514) eta dermatologia (12.094).

Atzerapen denborari dagokionez, 2009 eta 2010 artean, arreta jasotzeko hilabete batetik gora itxaron behar duen biztanleriaren portzentajea handitu egin da, % 30,9tik % 31,9ra, hain zuzen.

Azkenik (baina ez du garrantzi txikiagoa), kontuan hartuz 2010a eta 2011 artean Osasun Sailak BPGaren arabera kitatutako gastu partidak izan zuen murrizketa (% 5,43tik % 5,13ra), positiboa iruditzen zaigu 2012an osasunaren arloko ahalegina mantendu nahi izan dela. Bada, Osasun Sailak 2011n BPGaren gainean kitatu zuen gastua nahiz 2012rako BPGaren arabera zehaztutako gastu-aurrekontua % 5,13koak dira.

3.11. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

EAEko higiezinen merkatuak 2011n izan zuen bilakaeraren ezaugarri bat da, Eusko Jaurlaritzaren Higiezin Eskaintzaren Inkestaren emaitzen arabera, etxebizitzaren eskaintzak % 11,4ko beherakada izan duela (+% 54,4 izan zen 2012-2011 aldian), bilakaera ezberdinak izan direlako salgai dauden etxebizitza libre berrietan (+% 3,4), erabilietan (-% 9,7), alokairurako etxebizitza libreetan (+% 25,7) eta salgai dauden etxebizitza babestuetan (-% 38,9), eta, halaber, alokairuan dagoen etxebizitza babestuak ere behera egin du (-% 18,1). Era berean, etxebizitzaren eskaera

edo beharra, 2011ri buruz eskuragarri dagoen azken datuaren arabera, % 21,9 murriztu zen lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharrei dagokienez, eta % 25,8raino, etxebizitza eskuratzeko eta aldatzeko beharren batuketa aintzat hartzen badugu.

Eskaeraren etenaldi honen ondorioz (ekonomi eta finantza krisiak ekarri dutena), prezioek behera egin dute aurten ere, bai etxebizitza berriaren merkatuan bai bigarren eskuko etxebizitzaren merkatu librean. Halere, badirudi horrek ez duela laguntzen salerosketa jarduera suspertzen. Etxebizitza libre berrien eskaintza 1994tik izan den eskaintzarik altuena da gutxienez (urte hartan hasi zen eragiketa estatistiko hau), eraikuntza-jarduera nabarmenki gutxitu den arren eskaera txikiagoa izateak salgai dagoen *stock*a areagotu egin duelako.

Erabilitako etxebizitzaren eskaintzak, aldiz, behera egin du, eta aldi berean, etxebizitza librearen alokairu-eskaintza hazi egin da; ziurrenik salmentak lortzea ezinezkoa denez eraikinak merkatu batetik bestera igarotzen ari direlako. Errentarik baxuenetako etxebizitza alokagarrien (babes publikoa) eskaerak gora egiten jarraitzen du (2011n % 38,2koa izan zen, 2010ean % 30,7koa), eta, hala ere, etxebizitza babestuaren eskaintza gutxi gorabehera erdira murriztu da, eta datuak 2007-2010 aldian lortutakoetatik oso urrun daude.

Testuinguru horretan, etxebizitzaren politika publikoak are garrantzi handigoa du. Aitzitik, eta administrazioek aurre egin beharreko aurrekontu murriztapenen testuinguruan, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Programaren gastua, azken urteetan nabarmen hazi izan dena, % 32,6 murriztu zen 2011. urtean (bigarren ekitaldiz segidan) eta 123 milioi euroko zenbatekora iritsi zen. Etxebizitzaren eraikuntzan 2011n egin diren inbertsioen bolumenari dagokionez, Etxebizitza Taldearen multzoak (Sailak eta harekin lotutako Sozietate publikoek osatzen dute) 78 milioi euro barne hartu zuen guztira (-% 42, 2010eko datuekin alderatuta), programa honen inbertsio-izaera nabarmenki murriztu da, eta azken urtean gastu osoaren % 32 izan da.

Laguntzei dagokienez, 2011n zenbatekoak modalitate guztietan egin du behera. Alokairua sustatzeko diru-laguntzen eta subsidioen atalean, guztira 4,1 milioi euro bideratu dira, hau da, aurreko urtean baino % 86 gutxiago, eta 2002-2011 aldian izan den zenbatekorik baxuena da. Azpimarratzekoa da baliabideen beheranzko joera hau, Etxebideko erregistroan alokairuko etxebizitzaren eskaerak gora egin duela ikusita.

Azken urteotan alokairua sustatzeko programetara bideratutako baliabide publikoek behera egin dute, eta horrek beharbada arriskuan jar dezake eskaeraren igoerari erantzuteko gai den gizarte-etxebizitzen alokairu sorta izatea, bereziki gazteen kolektiboaren eta egoerarik zaurgarrienean dauden pertsonen kasuan.

Ekintza babesgarrietarako maileguei dagokienez, guztira 143,57 milioi euro erabili dira, eta 631 etxebizitzatan izan dute eragina. Kopuru hori 2010ean helburu horretara bideratutako zenbatekoa baino % 50 baxuagoa da.

Azkenik, ohiko etxebizitzarekin (alokairua eta inbertsioa) lotutako PFEZeko kenketak 2009an 513,5 milioi euro izan ziren guztira, hau da, aurreko urtean baino % 2,3 gutxiago. Zenbateko hori Eusko Jaurlaritzak Etxebizitza Programaren bidez gauzatutako gastuaren % 248 da (207,39 milioi euro). 513,5 milioi euro horien % 82,4 (423 milioi) ohiko etxebizitza erostearen ondoriozko kenketei dagokio, % 10,2 ohiko etxebizitzaren alokairuari eta gainerako % 7,4a Aurrezkia-etxebizitza kenketei.

3.12. GIZARTE BABESA

Azpimarratzekoa da urte luzez hazkuntza-tasa altuak izan ondoren EAEko Gizarte Zerbitzuetako gastuak 2010ean gora egin zuela, % 2,5, hain zuzen (urte horretakoak dira eskuragarri ditugun azken datuak). Bilakaera hori gastu publikoan ere ikusi zen (gastu osoaren % 75 da); zehazki, % 2,6 egin zuen gora, baina 2000n urte arteko batez besteko igoera % 13koa izan zen (2009an % 18,1 hazi zen).

Aipatutako azken urteko hazkuntza txikiagoa ez dator bat azken hamarkadako tasa altuekin, eta, funtsean, prestazio ekonomikoetako gastuaren hazkuntza txikiagoa izan delako gertatu da. Familien transferentziak aurreko urteetan baino gutxiago hazi dira (2010ean % 9; 2009an, berriz, % 35,5), baina sistemaren batez besteko gastua baino askoz gehiago (+% 2,5). Horrek erakusten du gaur egungo egoerarekin

lotutako beharrek gora egin dutela baina aldi berean Sistema ahalegin handiagoa egiten ari dela.

Ildo berean, eta 2012ko balantzearen datu bateratuak falta direla, esan daiteke Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema (18/2008 Legetik eratorria da eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta du funtsezko oinarri gisa) ahaleginak areagotzen ari dela krisi egoera honetan, bai gastuari dagokionez, bai laguntza hauen onuradun diren pertsonei dagokienez.

2011. urtean, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak guztira 412,54 milioi euro gastatu zituen, aurreko urtean baino % 5,8 gehiago, alegia, eta horien % 79 Diru-sarrerak Bermatzeko Errentara bideratu ziren. Eta DBE jasotzen duten familien bolumena analizatzen badugu ikusten dugu 2011n % 1,2 hazi zirela 2010arekin alderatuta, 2010eko abenduan indarrean sartu zen arau-aldaketaren ondoren errenta jasotzeko baldintzak zorroztu ziren arren[11]. 2008-2011 aldia kontuan hartuz, errenta jasotzen duten etxeen kopurua % 40 hazi da, hau da, 40.000 izatetik 55.000 izatera igaro da, eta, bitartean, prestazio honen gastua ia bikoiztu egin da: 168,5 milioi eurotik 330,3ra pasatu da (+% 96).

Datuak alderatuz, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak 2011n egin zuen "*Informe de Rentas Mínimas de Inserción*" agiriaren bitartez, estatuko testuinguruan euskal sistemaren garapen altua egiazta daiteke, bai estaldurari dagokionez (39,7 prestazio mila biztanleko, Estatuan, berriz, 4,75 batez beste), bai laguntza horietara bideratutako funtsei dagokienez; izan ere gure Erkidegoak urte hartan Estatuko funts guztien % 40,9 izan baitzuen. Aldagai horiek, gainera, azken urtean autonomia-erkidegoen batez bestekoaren gainetik haziz jarraitu dute.

Eusko Jaurlaritzaren 2012ko "*Pobreziari eta Gizarte Desorekei buruzko Inkesta*"k diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren garapen altua berresten du. Inkesta horren emaitzen arabera, pobreziaren mugaren azpitik dauden pertsonen kopuruak Euskadin % 37,5 egin du behera laguntza horien ondorioz. Bada, prestazio horiek gabe, benetako pobrezia-egoeran egongo liratekeen pertsonak biztanleriaren % 8,5 izango lirateke, eta ehuneko hori % 5,3raino jaisten da prestazio horien banaketaren ostean.

Gure erkidegoak egin duen ahalegina egiaztatzeak eta Gizarte-babesarekin lotutako arloan beste erkidego batzuekin alderatuta duen posizio onak ez du ilundu behar ziurrenik epe laburrean behintzat jasaten ari garen krisiak babes-beharrak areagotzen jarraituko duela. Hori gertatzen bada, sistema egungo estaldura-mailekin mantentzea bermatzea erronka garrantzitsua izango da gure gizartearentzat, eta helburu hori bete ahal izatea espero dugu.

11 4/2011 Legea, azaroaren 24koa, Sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzko 18/2008 Legea aldatu zuena.

KOADROAK ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

KOADROAK

KOADROA I.1.1.	EAEko biztanleriaren egungo bilakaera 2007-2012	**2**
KOADROA I.1.2.	Jaiotzak eta heriotzak ebn mila biztanleko 1975 eta 2011	**4**
KOADROA I.1.3.	EAEko biztanleriaren mugimendu naturala	**4**
KOADROA I.1.4.	Migrazio-saldoen bilakaera EAE-n	**7**
KOADROA I.1.5.	Autonomia erkidego bakoitzeko fenomeno demografikoak 1.000 biztanlekako tasa. 2011	**7**
KOADROA I.1.6.	Barneko migrazioak, abiapuntuko eta helburuko lurralde historikoaren arabera. 2011	**8**
KOADROA I.1.7.	100 ezkontzako dibortzio kopuruaren bilakaera, autonomia erkidegoen arabera	**11**
KOADROA I.1.8.	Ezkontza zibilen portzentajearen bilakaera guztien gainean, autonomia erkidegoen arabera	**11**
KOADROA I.1.9.	Europar batasuneko ezkontzak. Adierazleak 1.000 biztanleko	**11**
KOADROA I.1.10.	16 urteko eta gehiagoko biztanleak EAEra lehenengo aldiz etorri zirenetik, urte kopuruen arabera, jatorrizko herrialdea kontuan hartuta. Ehuneko horizontalak eta batez besteko urte kopurua EAEn. 2010	**16**
KOADROA I.1.11.	EAE-ko ikasleak titulu eta mailaren arabera (1)	**21**
KOADROA I.1.12.	Lanbide heziketako ikasleak maila, adar eta sexuaren arabera. EAE, 2011-2012 ikasturtea	**22**
KOADROA I.1.13.	EAE-ko ikasleen banaketaren bilakaera ikastetxeen titulartasunaren arabera	**23**
KOADROA I.1.14.	EAE-ko hizkuntza-ereduen bilakaera (% horizontal*)	**23**
KOADROA I.1.15.	Raduko eta lehen eta bigarren zikloetako ikasketetan matrikulatutako ikasleen kopuruaren bilakaera EAE-n	**24**
KOADROA I.1.16.	Unibertsitateko graduko eta lehen eta bigarren zikloetako ikasketetan graduatutako ikasleen kopuruaren bilakaera EAE-n	**25**
KOADROA I.1.17.	Laneratzearen adierazle nagusiak EAE-n	**26**
KOADROA I.1.18.	Enplegu- eta langabezia-tasak jakintza arloaren arabera EAE, 2008ko promozioa (2011ko iv. Hiruhilekoko elkarrizketa)	**26**
KOADROA I.1.19	helburuak europako erreferentziazko puntua 2020rako	**27**
KOADROA I.1.20.	Adierazleen sailkapena (hezkuntza adierazleen estatuko sistema)	**27**
KOADROA I.1.21.	Adin-taldeen eskolatze-tasa garbiak (1), maila, sexu eta ikasturtearen arabera (%). EAE.	**28**
KOADROA I.1.22.	Hezkuntza etapa bakoitzaren estatuko atzerritar ikasleen portzentajea, autonomia erkidegoen arabera	**29**
KOADROA I.1.23.	Ikasle/irakasleko eta ikasle/taldeko ratioak. EAE.	**31**

KOADROA I.1.24. Etengabeko ikaskuntzako parte-hartzea eb-n. EAE-rekiko erkaketa. (etengabeko hezkuntzako edo prestakuntzako ekintza batean parte hartzen duten 25-64 urte bitarteko biztanleen %) **31**

KOADROA I.1.25. Hirugarren mailako hezkuntzako nazioarteko ikasleak, hezkuntza komunitateko matrikula osoaren portzentaje gisa, 2010ean (a mota eta ikerketa aurreratuko programak) **32**

KOADROA I.1.26. Eusko jaurlaritzako hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa sailaren likidatutako gastuaren eta aurrekontuan adierazitakoaren bilakaera **34**

KOADROA I.1.27. Hezkuntzaren gastua autonomia erkidegoen arabera 2010ean **34**

KOADROA I.1.28. Unibertsitatekoa ez den irakaskuntzaren gastu publikoa (1), autonomia erkidegoen arabera **35**

KOADROA I.1.29. Egokitasuna EAE-ko ikasleen adinean **35**

KOADROA I.1.30. Egokitasuna ikasleen adinean, autonomia erkidegoen arabera eta 2009-10 ikasturtean (adinari dagokion maila teorikoan matrikulatuta dauden ikasleen portzentajea) **36**

KOADROA I.1.31. Eskola behar baino goizago uztea. EAE-rekiko erkaketa. (DBHko 2. Etapa amaitu ez duten eta hezkuntza-prestakuntzarik egiten ez duten 18-24 urteko biztanleak) 2020ko helburua: % 10 **37**

KOADROA I.1.32. Eskola behar baino goizago uztea estatuan, autonomia erkidegoen eta sexuaren arabera. **37**

KOADROA I.1.33. Irakaskuntza/titulazio bakoitzean graduatzen diren biztanleen tasa gordina 2009-10 ikasturtean, autonomia erkidegoen arabera **39**

KOADROA I.1.34. Zientzia eta teknologiako goi mailako hezkuntzan graduatutako pertsonak (Isced 5-6) 20-29 urte bitarteko 1.000 biztanleko. Autonomia erkidegoen araberako datuak **40**

KOADROA I.1.35. 25-64 urte bitarteko biztanleen langabezia-tasak hezkuntza mailaren arabera. 27ko EB-ren, euroaren eremuaren eta espainiaren arteko erkaketa **42**

KOADROA I.1.36. Langabezia-tasaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera. EAE-ren eta estatuaren arteko erkaketa **42**

KOADROA I.2.1. BPGD-aren agregakinen bilakaera: eskaintza (milaka eurotan eta ratioak) eta enplegua (lanaldi osoaren parekoak eta ratioak) **43**

KOADROA I.2.2. EAE-ko enpresak* egoitza sozialaren eta enpleguaren arabera **44**

KOADROA I.2.3. Establezimenduen egitura enpleguaren arabera **45**

KOADROA I.2.4. EAE-ko kooperatiba kopuruaren bilakaera, motaren arabera sailkatuta (abenduaren 31n) **45**

KOADROA I.2.5. EAE-ko enpresa eta enplegu kopuruaren bilakaera, jarduera adarraren (CNAE 09) eta nortasun juridikoaren arabera **46**

KOADROA I.2.6. Enpresa-txandakatzea jarduera-sektorearen, enplegu-mailaren eta nortasun juridikoaren arabera, 2012 (establezimendu kopurua) **47**

KOADROA I.2.7. Nekazaritzako makromagnitudeen bilakaera (milaka eurotan) **48**

KOADROA I.2.8. Nekazaritza errenta errealaren bilakaera (basogintza sektorea kontuan hartu gabe) (aldakuntza-tasak) 2011-2012 **50**

KOADROA I.2.9.	Adierazleak industria sektorean	**51**
KOADROA I.2.10.	IEIren bilakaera lurralde historikoen eta ondasunen helmuga ekonomikoaren arabera. datu gordinak. Urteko batez besteko hazkundea	**51**
KOADROA I.2.11.	IEI, jarduera sektoreen arabera. Datu gordinak. Urteko batez besteko hazkundea	**51**
KOADROA I.2.12.	IPI, ondasunen helmuga ekonomikoaren eta jarduera sektorearen arabera, CNAE-2009 (urteko batez besteko hazkundea)	**52**
KOADROA I.2.13.	Industria sektoreko magnitudeak sektoreka	**53**
KOADROA I.2.14.	EAE-ko sektore nagusietako magnitudeak	**54**
KOADROA I.2.15.	Industriak EAE-n duen eduki teknologikoa, elga-ren sektoreen arabera	**55**
KOADROA I.2.16.	Eraikuntza sektorearen bilakaera	**56**
KOADROA I.2.17.	Zerbitzuen sektorearen bilakaera (urte arteko aldakuntza-tasak)	**57**
KOADROA I.2.18.	Zerbitzuen sektorearen egitura eta bilakaera EAE-n	**58**
KOADROA I.1.19.	Handizkako eta txikizkako merkataritzaren salmenta indizearen bilakaera sektoreka*	**59**
KOADROA I.1.20.	Barne merkataritzaren salmenta indizearen eta merkataritzan lanean ari diren pertsonen indizearen bilakaera*	**59**
KOADROA I.1.21.	Turismoak euskal ekonomiari egindako ekarpena (balio absolutua eta bpgd-aren gaineko portzentajea. Prezio arruntak)	**61**
KOADROA I.1.22.	Bidaiari kopuruaren, bertan igarotako gauen eta egunetako batez besteko egonaldiaren bilakaera EAE-n	**61**
KOADROA I.2.23.	Bertan igarotako gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio maila	**61**
KOADROA I.2.24.	Establezimenduen, plazen eta eskainitako gelen kopurua	**61**
KOADROA I.2.25.	Errepide sarea (km), mota eta lurraldearen arabera	**63**
KOADROA I.2.26.	Errepide sarea bide-motaren eta aldiaren arabera. (km)	**63**
KOADROA I.2.27.	Trenbideko km, EAE-n	**63**
KOADROA I.2.28.	Errepide bidezko salgaien helmuga eta jatorria autonomia erkidegoen arabera (milaka tonatan)	**64**
KOADROA I.1.29.	Euskotrenen eta metro bilbaoren bidaiariak	**65**
KOADROA I.1.30.	Airetiko trafikoaren bilakaera kontzeptu, eremu eta aireportuka	**65**
KOADROA I.2.31.	Ontziak, bidaiariak eta itsasoko garraioak mugitutako salgaiak, motaren arabera sailkatuta	**66**
KOADROA I.2.32.	Gordailu entitateek sektore publikoari eta pribatuari emandako kreditua (abenduaren 31ko saldoak)	**67**
KOADROA I.2.33.	Kreditu entitateek etxebizitzei eta eziage-ei emandako interes-tasa*	**67**
KOADROA I.2.34.	Etxebizitza erosteko hipoteka-bermea duten kredituak estatuan	**67**
KOADROA I.2.35.	Landa finken eta hiri finken hipotekak EAE-n	**68**
KOADROA I.2.36.	Sektore pribatuaren eta administrazio publikoen gordailu entitateetako gordailuak (abenduaren 31ko saldoak	**68**
KOADROA I.2.37.	Bilboko burtsaren 2000 indizea	**69**
KOADROA I.2.38.	Bilboko burtsaren kontratazio-bolumena (*)	**69**
KOADROA I.2.39.	Zientziari eta teknologiari buruzko adierazleak 2011(*)	**70**
KOADROA I.2.40	barne gastuak arlo zientifikoagatik eta burutzapen sektorea funtsen jatorrien arabera	

	(milaka eurotan)	
KOADROA I.2.41.	D.O.B. pertsonala okupazio eta sexuaren arabera	**72**
KOADROA I.2.42.	D.O.B pertsonala burutzapen sektoreka, okupazioaren arabera	**73**
KOADROA I.2.43.	Patenteak eta eredu baliagarriak EAE-n	**73**
KOADROA I.2.44.	Enpresa kopuruaren eta pertsonalaren bilakaera I+G-n	**74**
KOADROA I.2.45.	Enpresa sektorearen adierazleak (ztesko tzrik gabe) jarduera-adarraren arabera. I+G 2011	**74**
KOADROA I.2.46.	Europako berrikuntza adierazleen panela, ius 2011, blokeak eta dimentsioak. indize konposatuak	**76**
KOADROA I.2.47.	Jarduera berritzaileak dituzten enpresen ehunekoaren bilakaera EAE-ko empresa guztien gainetan	**78**
KOADROA I.2.48.	10 enplegatu edo gehiago dituzten establezimenduen ehunekoa, berrikuntza motaren eta jarduera-adarraren arabera	**78**
KOADROA I.2.49.	Berrikuntza jardueretan eginiko gastua jarduera sektoreen arabera, 9 langiletik gorako enpresak, 2011	**79**
KOADROA I.2.50.	Berrikuntza teknologikoko jardueretan eginiko gastua bpg-aren gainean	**80**
KOADROA I.2.51.	I+G+B jarduera onartu / kontratatu moten bilakaera (eurotan)	**80**
KOADROA I.2.52.	I+G+B jardueren bilakaera, arlo zientifikoaren arabera	**81**
KOADROA I.2.53.	I+G+B funtsen (eurotan) jatorriaren bilakaera	**81**
KOADROA I.2.54.	Beste emaitza batzuk. Patente erregistratuak eta argitalpenak	**81**
KOADROA I.2.55.	Familiak etxean ikt-en ekipamendua erabiltzearen arabera (%) i. Hiruhilekoa	**82**
KOADROA I.2.56.	Etxetik interneteko atzipena duten familiak. Urteko batez bestekoa (%)	**83**
KOADROA I.2.57.	15 urteko eta gehiagoko biztanleak etxean IKT ekipamenduak erabiltzearen arabera (%) I. Hiruhilekoa	**83**
KOADROA I.2.58.	Ordenagailuaren sarrera eta internet konexioa eta erabilera EAE-ko 14 urtetik gorako biztanleen artean, ezaugarrien arabera (%)	**84**
KOADROA I.2.59.	IKT ekipamenduen EAE-ko establezimenduen bilakaera jarduera sektorearen arabera (establezimenduen %)	**85**
KOADROA I.2.60.	Enpresen ikt-en ekipamendua tamainaren arabera (IKTak dituzten establezimenduen edo langileen %)	**86**
KOADROA I.2.61.	IKT-en enpresa ekipamenduaren bilakaera (iktak dituzten langileen ehunekoa)	**86**
KOADROA I.2.62.	Interneteko atzipena duten establezimenduen % EAE-n, erabilera motaren arabera	**86**
KOADROA I.2.63.	Interneteko atzipena duten enpresak (%)	**87**
KOADROA I.2.64	Administrazio adierazleak	**88**
KOADROA I.2.65.	Azken 3 hilean internet erabili eta elektronikaren bidez erosi duten pertsonak	**88**
KOADROA I.2.66.	Azken 3 hilean internet erabili duten eta internet bidez erosi duten pertsonak; eta erosi ez duten pertsonak, 2012	**88**
KOADROA I.2.67.	Merkataritza elektronikoa helburu pribatuetarako edo etxerako erabiltzea (ehuneko bertikaletan)	**89**
KOADROA I.2.68.	Erosketak eta salmentak jarduera eta enplegu-estratuaren arabera (milioi €-tan)	**90**
KOADROA I.2.69.	Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen bilakaera (%)	**90**

KOADROA I.3.1.	EAEko aire kalitatearen indizea mailen eta urteen arabera (urteko egunen %)	**91**
KOADROA I.3.2.	Aire kalitate txarreko edo oso txarreko egun kopurua guneen eta urteen arabera	**92**
KOADROA I.3.3.	Beg isurien bariazioa oinarrizko urtearen aldean eta hitzartutako murrizketa helburuak (oinarrizko urtea 1990=100)	**92**
KOADROA I.3.4.	EAEko guztizko beg isuriak sektoreka (co2 tona bateragarrietan	**93**
Koadrao i.3.5.	**EAE**ko ibai kategoriako ur-masak (urtegiak izan ezik). Egoera ekologikoaren eta egoera kimikoaren bilakaera, 2007-2011. %	**95**
KOADROA I.3.6.	EAEko hezeguneak.egoera ekologikoaren bilakaera, 2001/02-2010/11. %	**95**
KOADROA I.3.7.	Bainatzeko uren kalitatea EAEn, itsasoko urak. 2011	**98**
KOADROA I.3.8.	EAEn hornidura publikorako kontrolatutako eta banatutako ur bolumena	**99**
KOADROA I.3.9	Hondakin uren bilketa eta tratamendua EAEn (m3 egunean)	**99**
KOADROA I.3.10.	Uraren batez besteko kontsumoa eta aleko balioa etxeetan	**100**
KOADROA I.3.11.	EAEko kontsumoko uraren kalitatea. Biztanleriaren banaketa balorazioaren arabera	**100**
KOADROA I.3.12.	Hondakin motaren arabera sailkatutako hiri-hondakin bilduak (tonak)	**101**
KOADROA I.3.13.	Hiri- eta industria-hondakinen sorkuntza (*) (milaka tonatan)	**102**
KOADROA I.3.14.	Bildutako hiri-hondakinak, motaren eta urtearen arabera (biztanleko eta urteko kiloak)	**102**
KOADROA I.3.15.	Sortutako hiri-hondakin solidoak (pertsonako)	**103**
KOADROA I.3.16.	EAEren energia balantzea, 2011	**104**
KOADROA I.3.17.	Energia mendekotasuna (%)	**105**
KOADROA I.3.18.	Ingurumena babesteko industri enpresen gastua eta inbertsioa	**106**
KOADROA II.1.1.	Aldagai ekonomiko nagusien aurkibidea	**108**
KOADROA II.1.2.	Bpgd erreala, kontsumitzailearentzako prezioak eta kontu korronteko saldoak (NDF)	**111**
KOADROA II.1.3.	Euroaren eremuko adierazle ekonomiko nagusiak	**112**
KOADROA II.1.4.	Europar batasunaren bilakaera ekonomikoa	**113**
KOADROA II.1.5.	Finantza publikoak EB-n	**114**
KOADROA II.1.6.	Estatuko egoera makroekonomikoa. 2008ko oinarria urte arteko aldakuntza-tasak. **K**ateatutako bolumena. Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak	**116**
KOADROA II.1.7.	Espainiako ekonomiaren ordainketa-balantza (milioi euro)	**117**
KOADROA II.1.8.	Ordainketa-balantza	**117**
KOADROA II.1.9.	Saldo publikoa agenteen arabera* (milioi euro)	**118**
KOADROA II.1.10.	Estatuko zerga-bilketa (autonomia erkidegoek eta tokiko korporazioek PFEz, BEz eta zerga bereziei egindako ekarpena barne) (milioi euro)	**118**
KOADROA II.1.11.	Aurrekontuaren betearazpena: estatuak onartutako obligazioak (milioi euro)	**118**
KOADROA II.1.12.	Autonomia erkidegoetako bpgd-aren hazkundea, enplegua eta langabezia-tasak	**119**
KOADROA II.2.1.	EAE-ren egoera makroekonomikoaren eboluzioa (urte arteko aldakuntza-tasa)	**121**
KOADROA II.2.2.	BPG-aren agregatuen eboluzioa. Eskaria (mila eurotan eta ratioak)	**122**
KOADROA II.2.3.	Kanpoko eskariaren zenbait adierazleren eboluzioa (urte arteko aldakuntza tasa)	**123**
KOADROA II.2.4.	Kanpo merkataritzaren bilakaera (urteko aldakuntza-tasak, nominalak)	**125**
KOADROA II.2.5.	EAE-ren ondasun eta zerbitzuen kanpoko merkataritza atzerriarekiko (milioi eurotan) (muga-zerga taldeen araberako sailkapena)	**126**

KOADROA II.2.6.	EAE-ko energiakoak ez diren ondasunen kanpoko merkataritza eremu geografikoen arabera (muga-zerga taldeen araberako sailkapena) (mila eurotan)	127
KOADROA II.2.7.	EAE-ko energiakoak ez diren ondasunen kanpoko merkataritza, eremu geografiko eta herrialdeen arabera (muga-zerga taldeen araberako sailk.) (mila eurotan)	**128**
KOADROA II.2.8.	Kanpoko merkataritzaren bilakaera EAE-n, maila teknologikoaren arabera	**129**
KOADROA II.2.9.	Atzerriko inbertsio gordina*, autonomia erkidegoen arabera (mila eurotan)	**130**
KOADROA II.2.10.	EAE-k duen inbertsio gordina*, sektore eta herrialdeen arabera (mila €-tan) (CNAE-09)	**131**
KOADROA II.2.11.	EAE-k atzerrian eginiko inbertsio gordina* (mila eurotan)	**133**
KOADROA II.2.12.	EAE-k atzerrian izandako inbertsio gordina*, sektore eta herrialdeen arabera (mila €-tan) (CNAE-09)	**133**
KOADROA II.3.1.	Kontsumoko prezioen indizearen banakapena: aldakuntza tasa urteko batez bestekoa	**134**
KOADROA II.3.2.	Kontsumoko prezioen indizea. EAE eta estatua.	**135**
KOADROA II.3.3.	KPIH: urte arteko aldakuntza tasa. 2005eko oinarria	**136**
KOADROA II.3.4.	Lan-kostuen adierazle makroekonomikoak	**138**
KOADROA II.3.5.	Lan-kostuen bilakaera jarduera sektorearen arabera. Langileko kostua €/urte	**138**
KOADROA II.3.6.	Lan-kostuen bilakaera jarduera sektorearen arabera. Langileko kostua €/ordua	**138**
KOADROA II.3.7.	Laneko itxurazko produktibitatearen bilakaera EAEn	**140**
KOADROA II.3.8.	Laneko produktibitatea langile, herrialde eta urte bakoitzeko (27-EB = 100). (erosteko ahalmenaren parean)	**140**
KOADROA II.3.9.	Unitateko lan-kostuak EAE-n: urteko aldakuntza	**140**
KOADROA II.3.10.	Errentaren banaketa EAE-n, estatuan eta eurogunean.	**142**
KOADROA II.3.11.	Etxeen errenta eskuragarri gordina, per capita. Euroak. 2008ko oinarri berria	**143**
KOADROA II.3.12.	Per capita bpg (pcb) herrialde eta urtearen arabera (EB27=100).	**144**
KOADROA II.4.1.	Euskal sektore publikoaren diru-sarreren likidazioa. Milaka eurotan.	**146**
KOADROA II.4.2.	Foru aldundiak: itundutako zuzeneko eta zeharkako zergengatiko diru-sarreren Likidazioa milaka eurotan	**146**
KOADROA II.4.3.	Gastu fiskalak zerga itunduengatik. Milaka eurotan.	**147**
KOADROA II.4.4.	EAE-ko foru aldundietako zerga itunduetatik bildutakoa. (milaka eurotan)	**148**
KOADROA II.4.5.	Euskal sektore publikoaren gastuen likidazioa. Milaka eurotan.	**149**
KOADROA II.4.6.	Eusko jaurlaritzaren gastua, sailka. Milaka eurotan	**149**
KOADROA II.4.7.	Euskal sektore publikoa: aurrekontu magnitude finkatuak. Milaka eurotan.	**151**
KOADROA II.4.8.	Eusko jaurlaritzaren eta foru aldundien zorpetzearen bilakaera (milaka eurotan)	**152**
KOADROA II.4.9.	Foru aldundiek EAE-ko erakunde komunei egiten dizkieten ekarpenen bilakaera (milaka eurotan)	**153**
KOADROA II.4.10.	EAE-k estatuari ordaindutako kupoaren bilakaera. Milaka eurotan 2012	**154**
KOADROA II.4.11.	Eusko jaurlaritzak likidatutako diru-sarrerak, jatorriaren arabera (milaka eurotan)	**155**
KOADROA II.5.1.	EAEko gizarte-ekonomiako enpresen dimentsioa. 2010	**158**
KOADROA II.5.2.	Gizarte-ekonomiako lanpostuen bilakaera forma juridikoaren arabera. 2008-2012	**158**
KOADROA II.5.3.	Sozietate kooperatiboak eta lan-sozietateak: gizarte segurantzan altan diren enpresen eta langileen kopurua (4. Hiruhilekoa)	**160**

KOADROA II.5.4.	Gizarte ekonomiako forma berriak EAE-n: adierazle nagusiak (datu gordinak), 2010	**161**
KOADROA II.6.1.	EAE-ko enpleguaren eta langabeziaren bilakaera. Urte arteko aldakuntza-tasak eta balio absolutuak (milaka)	**162**
KOADROA II.6.2.	20 eta 64 urte artekoen okupazio-tasa: bilakaera "europa 2020" estrategiaren helburua betetzearen arabera	**163**
KOADROA II.6.3.	Biztanle landunak eta langabeak, sektoreka. 2011-2012	**164**
KOADROA II.6.4.	Enpleguaren adierazleak europar batasunean 2011-2012	**160**
KOADROA II.6.5.	EAE-n 16 urte edo gehiago eta soldatapeko lana dituzten biztanleen bilakaera, kontratu motaren eta sexuaren arabera. EAE, 2011-2012.	**160**
KOADROA II.6.6.	Jarduera- eta langabezia-tasen bilakaera, sexuaren eta adin-taldeen arabera. Urteko batezbestekoak	**166**
KOADROA II.6.7.	Gizarte segurantzako batez besteko kotizatzaileak*, lurraldearen eta sexuaren arabera. Abenduak.	**167**
KOADROA II.6.8.	EAE-ko biztanle langabeak. Aldagai nagusien bilakaera	**167**
KOADROA II.6.9.	EAE-ko lanbide-ren bulegoetan erregistratutako langabezia (abenduak).	**168**
KOADROA II.6.10.	EAE-ko lan kontratu mugagabeen bilakaera. Kontratu berri guztien gaineko portzentajea	**169**
KOADROA II.6.11.	EAE-n erregistratutako lan kontratuen bilakaera	**170**
KOADROA II.6.12.	EAE-ko kontratazioa (kontratu berriak gehi bihurketak), sexuaren eta jardueraren arabera (CNAE 2009)	**170**
KOADROA II.6.13.	Enplegua erregulatzeko EAE-n erregistratutako espedienteak: ukitutako langileak eta haien kopurua (Eusko Jaurlaritza)	**172**
KOADROA II.6.14.	Iraizpenen bilakaera EAE-n (enplegu eta gizarte segurantzako ministerioa)	**172**
KOADROA II.6.15.	Laneko ezbeharren bilakaera EAE-n: laneko baja duten langileak	**174**
KOADROA II.6.16.	Lanaldian bajan egotea eragin duten istripuen indizea, autonomia erkidegoen arabera	**174**
KOADROA II.6.17.	Kontratuaren araberako ezbeharren bilakaera EAE-n	**174**
KOADROA II.6.18.	. Greba kopurua, ukitutako langileak eta galdutako lanegunak EAE-n	**176**
KOADROA II.6.19.	EAE-n erabakitako soldata igoerak 2011rako eta 2012rako	**177**
KOADROA II.6.20.	EAE-n erabakitako lanaldiaren murrizketa, urteko ordutan adierazitakoa.	**177**
KOADROA II.6.21.	Langile bakoitzaren urteko batez besteko irabaziak (euroak). 2009-2010	**178**
KOADROA II.6.22.	Langile bakoitzaren urteko batez besteko irabaziak (€ urtean) EAE-n eta estatuan, sektoreen arabera. Sexuaren araberako datuak	**179**
KOADROA II.6.23.	Urteko batez besteko irabaziak EAE-n eta estatuan, sexuaren eta kontratu motaren arabera. 2009-2010.	**179**
KOADROA II.6.24.	Langile eta urte bakoitzeko lan-kostua; autonomia erkidegoen eta kostuaren osagaien araberako datuak. 2011.	**180**
KOADROA II.6.25.	Lanbide: enplegurako laguntzen 2011ko banaketa (milaka €-tan).	**182**
KOADROA II.6.26.	Autonomia erkidegoek enplegua sustatzeko egindako gastua 2011-12.	**185**
KOADROA II.6.27.	Hobetuz: 2011ko deialdiaren balantzea. Behin betiko datuak.	**186**
KOADROA II.6.28.	EPHF: enplegurako prestakuntza EAE-n: 2011-2012 ekitaldietako bilakaera	**186**
KOADROA II.6.29.	EAE-n langabeziagatiko prestazioak jasotzen dituzten pertsonen batez besteko kopurua	**187**

KOADROA II.6.30.	Langabeziagatiko prestazioen gastuaren eta estalduraren adierazleak, autonomia erkidegoen arabera. Abenduak.	**188**
KOADROA II.6.31.	EAE-ko langabeziako gastuaren eta eezp-ren gizarte segurantzako kotizazioen ondoriozko diru-sarreren bilakaera (milioika eurotan)	**190**
KOADROA III.1.1.	EAE-ko familiak motaren arabera. 2004-08ko bilakaera	**192**
KOADROA III.1.2.	Egungo familia eta orain dela 20 urtekoa konparatuz gero, zure ustez, garrantzi berdina, handiagoa edo txikiagoa du? Hainbat urte	**194**
KOADROA III.1.3.	Zure ustez, zein erantzukizun du administrazioak gai horietan? EAE, 2001 eta 2012	**195**
KOADROA III.1.4.	Familia eta lana bateratzeko zailtasunak, herrialdeka. Datuak ehunekoetan adierazita, 2007 eta 2012.	**196**
KOADROA III.1.5.	Ordaindutako lana eta familia uztartzeko zailtasunari buruzko batez besteko balorazioa (gehienez 10), hainbat aldagairen arabera. 2011.	**197**
KOADROA III.1.6.	Enpresan bateratzearekin lotutako zenbait baimen eskatzeko langileek duten batez besteko zailtasun maila. 2010.	**199**
KOADROA III.1.7.	Azken urtean familiei laguntzeko neurrietako bat erabili duten familiak (seme-alabengatiko laguntzak barne), familiaburuaren ezugarrien arabera. 2006-2010	**200**
KOADROA III.1.8.	EAE-ko III famili plana (2011-15): ildo estrategikoak eta gastu-aurrekontua (milioi eurotan).	**202**
KOADROA III.2.1.	. Pobrezia edo gizarte bazterkeria arriskuan dagoen europako biztanleria, “europa 2020” estrategiaren irizpideen arabera	**204**
KOADROA III.2.2.	Urteko batez besteko errentaren bilakaera, etxeko eta pertsonako eta autonomia erkidegoen arabera. 2009-2010. Euroak	**205**
KOADROA III.2.3.	Zailtasun materialak dituzten eta/edo zenbait gastu ezin egin dituzten familien ehunekoa. Konparazioa EAE-estatuko batez bestekoa	**205**
KOADROA III.2.4.	Europako familien gabezia materialaren adierazleak. EAErekiko konparazioa. 2010-2011	**207**
KOADROA III.2.5.	Pobrezia errealak EAE-n duen eragina, etxeko famliaburuaren ezaugarrien arabera. 2008-2012 bilakaera.	**209**
KOADROA III.2.6.	Pobreziaren eta gabeziaren adierazle batzuen bilakaera EAEn (biztanleriaren ehunekoa)	**209**
KOADROA III.2.7.	Zahartzea munduan: adierazle orokorrak	**211**
KOADROA III.2.8.	“hurrengo esaldietako zeinek adierazten du ondoen zuk adinekoei, hirugarren adineko pertsonei buruz daukazun ideia?”. Estatua, 2010.	**213**
KOADROA III.2.9.	Bizi-itxaropenaren adierazleak jaiotzean europan eta EAEn. 2000 eta 2010.	**215**
KOADROA III.2.10.	Jarduera berriak erretiroa hartu ondoren: erretiroa hartzean edo 65 urte betetzean, lehenago egin ez zenuen jardueraren bat egiten hasi zinen? (erantzun anitzak: (gehienez hiru erantzun)	**215**
KOADROA III.2.11.	Ezintasunen bat duten sei urte eta gehiagoko pertsonak, adin multzoa, sexua eta autonomia erkidegoa gorabehera. 1.000 biztanlekako tasa. 2008.	**216**
KOADROA III.2.12.	Batez besteko errenta pertsonala bosturteko adinaren eta errenta motaren arabera (eurotan). 2009. Bi sexuak.	**217**

KOADROA III.2.13.	Adinekoentzako zerbitzuentzako estaldura indizeak. 2010eko urtarrila	**218**
KOADROA III.2.14.	Pobrezia eta prekariotasun egoeren bilakaera, familiaburuaren adinaren arabera. Familiako etxebizitzan bizi den biztanleria. Ehuneko horizontalak.	**220**
KOADROA III.3.1.	Heriotzak sexuaren arabera	**223**
KOADROA III.3.2.	EAE-ko heriotzak, betetako adinaren arabera	**223**
KOADROA III.3.3.	Heriotzak, kausaren arabera	**224**
KOADROA III.3.4.	Balizko bizi-urte galduak, sexuaren eta kausa nagusien arabera	**224**
KOADROA III.3.5.	Alta jaso duten gaixoak, diagnostikoaren eta sexuaren arabera	**226**
KOADROA III.3.6.	EAE-n nahitaez aitortu behar diren gaixotasunak	**227**
KOADROA III.3.7.	Osasun baliabideak (100.000 biztanleko tasak)	**227**
KOADROA III.3.8.	Ospitaleaz kanpoko laguntza jarduera EAE-n	**230**
KOADROA III.3.9.	Ospitalez kanpoko adierazle nagusiak EAE-n	**230**
KOADROA III.3.10.	Ospitalez kanpoko laguntza jardueraren bilakaera EAE-n	**231**
KOADROA III.3.11.	EAE-ko ospitale adierazle nagusien eboluzioa	**232**
KOADROA III.3.12.	Baliabide publikoen erabilera espezialitatearen arabera (batez besteko egonaldia eta okupazio-indizea)	**232**
KOADROA III.3.13.	Kanpoko kotsultetako itxaronzerrendak (paziente kopuru gehien duten espezialitateak)	**233**
KOADROA III.3.14.	Ebakuntzetarako itxaronzerrenda	**233**
KOADROA III.3.15.	Kanpoko kontsulten itxaronzerrenda, atzerapen denborak (%)	**234**
KOADROA III.3.16.	Osakidetzako pazienteen gogobetetasuna. Ospitaleko larrialdiak (%)	**235**
KOADROA III.3.17.	Osakidetzako pazienteen gogobetetasuna. Oinarrizko arreta eta ospital barruko kanpoko kontsultak (%)	**235**
KOADROA III.3.18.	Osakidetzako pazienteen gogobetetasuna. Ospitaleratze orokorra (%)	**235**
KOADROA III.3.19.	Osasun eta farmazia laguntzako aseguru libreko erakundeen bilakaera EAE-n*	**236**
KOADROA III.3.20.	Eusko Jaurlaritzaren osasun sailaren gastuaren banakapena (atala eta programa mila eurotan)	**237**
KOADROA III.3.21.	Salmenta eta sarrerak (milaka eurotan)	**238**
KOADROA III.3.22.	. Ospitalez kanoko sektore publikoaren gastua EAE-n	**238**
KOADROA III.3.23.	Gastuaren bilakaera EAE-ko ospitaleen sektorean	**239**
KOADROA III.3.24.	Gastuaren bilakaera EAE-ko ospitaleen sektorean	**239**
KOADROA III.3.25.	Osakidetzaren gastuen likidazioa eta aurrekontua (mila eurotan)	**239**
KOADROA III.4.1.	Hiri lurzoruaren batez besteko prezioaren bilakaera, €/m2-tan. Laugarren	**242**
KOADROA III.4.2.	Eusko jaurlaritzako etxebizitza sailaren lurzoruaren ondarearen banaketa geografikoa	**242**
KOADROA III.4.3.	Eraikuntzaren sektorearen magnitude nagusiak. Eguneko prezioak. (milaka eurotan)	**243**
KOADROA III.4.4.	EAE-ko etxebizitza eskaintzaren bilakaeraren laburpena	**244**
KOADROA III.4.5.	EAEko etxebizitza salgaien batez besteko prezioaren bilakaera. €/m2 erabilgarri	**245**
KOADROA III.4.6.	Salgai dauden etxebizitza erabiliak, m2 erabilgarri bakoitzeko prezioarekin (eurotan), eta batez besteko prezioak (milaka eurotan), lurralde historikoen arabera	**246**
KOADROA III.4.7.	EAEn alokairurako eskaintzen diren etxebizitzen errentaren bilakaera (€ hilean)	**246**
KOADROA III.4.8.	Eskaintzen diren alokairuko etxebizitza libreak eta hileko batez besteko errenta	**246**

KOADROA III.4.9.	Etxebizitzaren prezioen indizea: laugarren hiruhilekoetako urteko aldakuntza-tasak	**247**
KOADROA III.4.10.	Eraikuntza jarduera EAEn: hasitako eta amaitutako etxebizitzak	**248**
KOADROA III.4.11.	EAEn hasitako etxebizitza babestuen bilakaera, tipologiaren arabera.	**248**
KOADROA III.4.12.	Familiak, etxebizitza beharraren arabera eta lurralde historikoaren arabera. 2007-2010	**248**
KOADROA III.4.13.	Eskuratu beharra duten biztanleen ezaugarriak, sexuaren arabera. 2009-11. Ehuneko bertikalak, beharra duen kolektibo osoan.	**249**
KOADROA III.4.14.	Eskuratu edo aldatu beharra adierazi duten familiek behar dituzten etxebizitzen Ezaugarriak	**249**
KOADROA III.4.15.	Etxebiden insktribatutako biztanleen ezaugarriak 2009-2011. Ehuneko bertikalak	**251**
KOADROA III.4.16.	Eusko jaurlaritzaren etxebizitza programaren gastu likidatuaren bilakaera eta BPGD-an	**255**
KOADROA III.4.17.	Etxebizitza planaren errealizazioak (urteko jarduketa kopurua)	**255**
KOADROA III.4.18.	Etxebizitza plan zuzentzailea 2010-2013ren aginte koadroa. Etxebizitza berria sustatzeko jarduketak	**256**
KOADROA III.4.19.	Etxebizitza plan zuzentzailea 2010-2013ren aginte koadroazaharberritzeko jarduketak	**256**
KOADROA III.4.20.	. Zaharberrikuntzako maileguak eta diru-laguntzak.etxebizitza plan zuzentzailea 2010-2013	**257**
KOADROA III.4.21.	Eusko jaurlaritzaren bizigune programaren laguntzen bilakaera	
KOADROA III.4.22.	Etxebizitzako maileguak eta diru-laguntzak. Etxebizitza plan zuzentzailea 2010-2013	**258**
KOADROA III.4.23.	Udalen etxebizitzako eta hirigintzako gastuaren eta inbertsioaren bilakaera, 2008-2010	**259**
KOADROA III.5.1.	Komunikabideen sarrera autonomia erkidegoaren arabera (% horiz.)	**261**
KOADROA III.5.2.	Biztanleriaren kultur ohitura k eta jardunak	**262**
KOADROA III.5.3.	Bisitariak kultura ekipamenduetara bertaratzearen bilakaera EAEn	**263**
KOADROA III.5.4.	EAE-ko biltzarren jardueraren bilakaera (2008-2011)*	**264**
KOADROA III.5.5.	Bilbao exhibition centre, oinarrizko adierazleak	**265**
KOADROA III.5.6.	Argitaletxeen ekoizpenaren bilakaera EAE-n	**266**
KOADROA III.5.7.	Argitalpenaren banaketa geografikoa, inskribatutako isbn-ak gorabehera	**266**
KOADROA III.5.8.	Inskribatu diren isbn-ak argitaratze hizkuntzaren arabera	**267**
KOADROA III.5.9.	Administrazio autonomikoek kulturan likidatu duten gastua, autonomia erkidegoen arabera	**268**
KOADROA III.5.10.	Tokiko administrazioek kulturan likidatu duten gastua, erakunde mota eta destinoa gorabehera. (milioi eurotan). 2010	**269**
KOADROA III.5.11.	Familiek kultura ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua, autonomia erkidegoen arabera	**270**
KOADROA III.5.12.	Familiek egindako gastua kultura ondasun eta zerbitzuetan, gastu taldearen arabera, autonomia erkidegoen arabera (eurotan)	**270**
KOADROA IV.1.1.	Gizarte zerbitzuak EAE-n. Magnitude nagusien bilakaera	**273**
KOADROA IV.1.2.	Gizarte zerbitzuak EAE-n. Gastuaren bilakaera eta banaketa biztanle mota bakoitzeko	**274**
KOADROA IV.1.3.	Gizarte zerbitzuak EAE-n. Finantzaketa publikoaren iturriaren araberako urte arteko gehikuntza	**274**

KOADROA IV.1.4.	Mendekotasunerako arreta autonomia erkidegoka 2012ko abenduko egoera	**276**
KOADROA IV.2.1.	Gizarte segurantzaren pentsioak EAE-n, mota bakoitzeko. Taula-laburpena	**278**
KOADROA IV.2.2.	Gizarte segurantzaren pentsioak EAE-n, mota bakoitzeko. Taula-laburpena	**279**
KOADROA IV.2.3.	Pentsioen arloko ahaleginaren hurbilketa EAE-n	**279**
KOADROA IV.2.4.	Gizarte segurantzaren diruzaintza orokorraren kuoten diru-bilketaren bilakaera EAE-n. Milioika	**280**
KOADROA IV.2.5.	Gizarte segurantzaren kotizaziorik gabeko pentsioak EAE-n: adierazle nagusiak	**281**
KOADROA IV.3.1.	Diru-sarrerak bermatzeko errenta: gastuaren bilakaera lurralde historiko bakoitzean. Milioika	**284**
KOADROA IV.3.2.	Gizarteratzeko gutxieneko errentak autonomia erkidegoka. 2011ko datuak	**285**
KOADROA IV.3.3.	Hirugarren sektorerako laguntzen programa: adierazle nagusiak	**288**
KOADROA IV.3.4.	Laneratze enpresetarako laguntza programaren bilakaera EAE-n. 2003-2011.	**288**
KOADROA IV.4.1.	BGAE-en datu irmoak EAE-n,2010-12-31n (milioi eurotan)	**380**
KOADROA IV.4.2.	BGAE EAE-n. Sektorearen dimentsio	**381**
KOADROA IV.4.3.	BGAE-en magnitude nagusiak EAE-n	**381**
KOADROA IV.4.4.	PFEZ-ren likidazioa: pentsio-planetarako eta bgae-etarako ekarpenengatiko zerga-oinarri orokorraren murrizketak	**292**
KOADROA VI.1.1.	Demografia eta immigrazioa EAE-n. Erreferentziako adierazleak	**294**
KOADROA VI.1.2.	Hezkuntza sistema. Erreferentziako adierazle nagusiak	**294**
KOADROA VI.1.3.	I+G+B y tics. Koadroa adierazle nagusiak	**294**
KOADROA VI.1.4.	Natura-ingurunearen egoera EAE-n. Adierazle nagusiak	**295**
KOADROA VI.1.5.	Egoera ekonomikoa. Adierazle nagusiak	**296**
KOADROA VI.1.6.	Egitura produktiboa. Adierazle nagusiak	**296**
KOADROA VI.1.7.	EAE-ren sektore publikoa. Erreferentziako adierazleak	**307**
KOADROA VI.1.8.	Mercado de trabajo. Indicadores de referencia.	**307**
KOADROA VI.1.8.	Koadroa enplegua:erreferentziako zenbait adierazle.	**307**
KOADROA VI.1.9.	Enplegu politikak: EAE eta estatuaren arteko alderaketa. BPG-aren gaineko ehuneko gastua	**307**
KOADROA VI.1.10.	Bizi baldintzak EAEn. Erreferentziazko adierazleak.	**307**
KOADROA VI.1.11.	Osasuna eta osasun sistema. Adierazle nagusiak	**308**
KOADROA VI.1.12.	Hirigintza eta etxebizitza EAE-n. Erreferentziako adierazleak.	**308**
KOADROA VI.1.13.	Gizarte zerbitzuak EAE-n: erreferentziako adierazleak	**309**
KOADROA VI.1.14.	Gizarte segurantzaren pentsioen sistema EAE-n: erreferentziako adierazleak	**309**
KOADROA VI.1.15.	EAE-ko sarrerak bermatzeko sistema: erreferentziako adierazleak	**309**

GRAFIKOAK

GRAFIKOA I.1.1.	EAEko biztanleriaren ehuneko banaketa, adinen eta nazionalitatearen arabera. 2012	**2**
GRAFIKOA I.1.2.	2020rako EAEren proiekzio demografikoa: osagaika aurreikusitako hazkundea. Milaka pertsonak	**3**
GRAFIKOA I.1.3.	Jaiotza-tasen bilakaera lurraldeka, eta ezkondu gabeko amengandik jaiotakoen ehunekoaren bilakaera.	**4**
GRAFIKOA I.1.4.	Jaiotzen bilakaera amaren adinaren arabera. EAE	**6**
GRAFIKOA I.1.5.	1905. Eta 1970. Urteen artean jaiotako emakumeek izandako seme-alaba kopurua eta amatasunaren batez besteko adina. EAE .2011	**6** **6**
GRAFIKOA I.1.6.	EAEn hildako pertsonen batez besteko adinaren bilakaera, sexuaren arabera	**6**
GRAFIKOA I.1.7.	Migrazio-saldoen bilakaera EAE-n	**8**
GRAFIKOA I.1.8.	EAEko migrazio-saldaren bilakaera, ikasketa-mailaren arabera. Bost urtetik gorako pertsonak	**8**
GRAFIKOA I.1.9.	EAE-ko migrazio-saldaren bilakaera, ikasketa-mailaren arabera. Bost urtetik gorako pertsonak	**9**
GRAFIKOA I.1.10.	Ezkontza zibilen ehunekoaren bilakaera EAE-n	**10**
GRAFIKOA I.1.11.	50 urteko adinean ezkongabe daudenen proportzioa, jaiotza-urtearen eta sexuaren arabera. EAE, 2011	**10**
GRAFIKOA I.1.12.	Ebren hazkunde demografikoaren bilakaera osogaien arabera. Ratioak 1.000 biztanleko	**13**
GRAFIKOA I.1.13.	Biztanleria atzerritarren urte arteko hazkundea eta biztanleria osoaren gaineko ehunekoa. 2012	**14**
GRAFIKOA I.1.14.	Udal erroldan estatuan eta EAEn inskribatuta dauden atzerritarren ehunekoaren bilakaera	**15**
GRAFIKOA I.1.15.	Biztanleria atzerritarra, nazionalitate-eremuen arabera. Atzerritar guztien gaineko ehunekoa. 2012	**15**
GRAFIKOA I.1.16.	Biztanleria atzerritarrak EAEn eta estatuan duen garrantziaren bilakaera	**16**
GRAFIKOA I.1.17.	Zein dira EAEko hiru arazorik garrantzitsuenak? (gehienez hiru erantzun). 2011.	**17**
GRAFIKOA I.1.18.	Zure ustez zein izango litzateke politikarik egokiena langile immigranteei dagokienez? Datuak ehunekotan	**17**
GRAFIKOA I.1.19.	Immigranteek honako eskubide hauek eskuratu beharko al lituzkete? EAE, 2011.	**18**
GRAFIKOA I.1.20.	Immigrazio buruzkok tolerantzia indizea EAEn: 2008-2011 bilakaera	**19**
GRAFIKOA I.1.21.	Familien pobrezia eta prekariotasun egoeren bilakaera, pertsona nagusiaren nazionalitatearen arabera. Datuak ehunekotan.	**20**
GRAFIKOA I.1.22.	Gizartearen hobekuntzari buruzko pertzepzioa. Bertako biztanleak eta immigranteak. EAE 2010.	**20**
GRAFIKOA I.1.23.	Biztanle helduen ikdasketa maila autonomia erkidegoen arabera. 2010eko portzentajeak 25-64 urte bitartekoak	**40**
GRAFIKOA I.2.1.	Industriako adierazle nagusien eboluzioa dato zuzenduak	**51**
GRAFIKOA I.2.2	Adierazle nagusien eraikuntzako bilakaera. Datu zuzenduak	**56**

GRAFIKOA I.2.3.	Bidaiarien EAE-rako bidaien bilakaera. Hotel erako establezimenduak	**62**
GRAFIKOA I.2.4.	I+G-n eginik ahaleginaren eta enpleguaren bilakaera EAEn	**71**
GRAFIKOA I.2.5.	Europako berrikuntza panela ius 2010. EAE eta EB-27	**75**
GRAFIKOA I.3.1.	Trantsizio uren kategoriako ur-masei lotutako kontrol-estazioak	**96**
GRAFIKOA I.3.2.	Hondar industrialeko sorkuntzaren bilakaera (tm)	**102**
GRAFIKOA I.3.4.	Lehen mailako energiaren ekoizpena (ktep)	**103**
GRAFIKOA I.3.5.	Energiaren intentsitatearen bilakaera	**104**
GRAFIKOA II.2.1.	. EAE-ren BPG. Aldakuntza tasak bolumen kateatuan	**120**
GRAFIKOA II.2.2.	Barne eta kanpo eskariak bpg-aren hazkundean eginiko ekarpena	**120**
GRAFIKOA II.2.3.	Barne eskaria. Aldakuntza errealeko urte arteko tasak	**123**
GRAFIKOA II.2.4.	Kanpoko sektorearen bilakaera EAE-n (bolumen-indizearen urte arteko aldakuntza tasa. Datu zuzenduak)	**124**
GRAFIKOA II.2.5.	Esportazioek (x) eta inportazioek (m) bpg-ean duten pisua (prezio korronteak)	**124**
GRAFIKOA II.2.6.	Kanpoko merkataritzaren bilakaera EAE-n eduki teknologikoaren arabera	**128**
GRAFIKOA II.2.7.	Atzerriko inbertsio gordina* EAE-n	**130**
GRAFIKOA II.2.8.	EAE-k atzerrian egindako inbertsio gordina	**132**
GRAFIKOA II.3.1.	Kontsumoko prezioen indizea: urte arteko aldakuntza tasa. EAE eta estatua	**135**
GRAFIKOA II.3.2.	Lan-kostuen igoera jarduera sektorearen arabera EAE-n. €/ordua.	**137**
GRAFIKOA II.3.3.	Lan egindako orduko lan-kostuen bilakaera, eb, estatua eta EAE. Urteko aldakuntza (%)	**139**
GRAFIKOA II.3.4.	Lanaren benetako produktibitatearen aldakuntza EAE-n	**139**
GRAFIKOA II.3.5.	Lanaren benetako produktibitatearen aldakintza EAE-n, estatuan eta europar batasunean	**141**
GRAFIKOA II.3.6.	Unitateko lan-kostu errealak. Langileen ordainsariak oinarri hartuta kalkulaturiko urteko aldakuntza.	**141**
GRAFIKOA II.3.7.	Faktoreen errenten ehunekkoen banaketaren bilakaera EAE-n	**141**
GRAFIKOA II.3.8.	Per capita bpg-aren bilakaera (pcb) . Eb-27=100.	**144**
GRAFIKOA II.4.1.	Euskal sektore publikoaren magnitude nagusien bilakaera bpgd-ari dagokionez	**145**
GRAFIKOA II.4.2.	Grafikoaeuskal sektore publikoaren sarrerak: inposatutako nagusiengatiko bilketaren bilakaera (milak €)	**147**
GRAFIKOA II.4.3.	Euskal sektore publikoaren gastuaren bilakaera kapituluka. Milaka eurotan adierazitako datuak.	**150**
GRAFIKOA II.4.4.	Aurrezki eta superabit/defizit publikoen (finantziazio gaitasuna/premia) bilakaera EAEn, BPGD-aren gainean.	**151**
GRAFIKOA II.4.5.	EAE-ko administrazioen finantza-zorra (milaka eurotan)	**152**
GRAFIKOA II.4.6.	Foru aldundiek eusko jaurlaritzari egindako ekarpenaren bilakaera. Milaka eurotan	**153**
GRAFIKOA II.4.7.	Bez-aren doikuntzaren bilakaera lurraldeka. Milaka eurotan	**154**
GRAFIKOA II.5.1.	Gizarte ekonomiaren pisuaren bilakaera EAEn.	**156**
GRAFIKOA II.5.2.	Gizarte ekonomiaren enpleguaren lurralde banaketaren bilakaera EAEn	**157**
GRAFIKOA II.5.3.	EAE-ko gizarte ekonomiaren esportazioen helmuga.	**158**
GRAFIKOA II.5.4.	Gizarte ekonomiaren garrantzi erlatiboa enpleguan: pisua sektoreka	**159**

GRAFIKOA II.5.5.	Gizarte ekonomiaren enpleguen eta fakturazioaren bilakaera EAE-n	**159**
GRAFIKOA II.6.1.	Enpleguaren EAE-ko bilakaeraren adierazleak: urte arteko aldakuntza-tasak	**162**
GRAFIKOA II.6.2.	Aldi baterako kontratuek eta "kontraturik gabe eta bestelakoak" egoerek soldatapeko guztien gainean duten portzentajearen bilakaera EAE-n, sexuaren arabera.	**164**
GRAFIKOA II.6.3.	Langabezia-tasen bilakaera eb-n eta EAE-n, sexuaren arabera	**167**
GRAFIKOA II.6.4.	Langabezia-tasaren bilakaera, lurralde historikoen arabera	**168**
GRAFIKOA II.6.5.	Kontratazioaren bilakaera EAE-n, jarduera sektorearen arabera	**170**
GRAFIKOA II.6.6.	Lan txandaketaren bilakaera EAE-n, sexuaren arabera	**171**
GRAFIKOA II.6.7.	Iraizpenak EAE-n: ukitutako langileen bilakaera	**172**
GRAFIKOA II.6.8.	Istripua izan dutenen indizea 1.000 landuneko EAE-n, jarduera sektoreen arabera	**175**
GRAFIKOA II.6.9.	Istripua izan dutenen indizea 1.000 landuneko EAE-n, jarduera sektoreen arabera	**176**
GRAFIKOA II.6.10.	EAE-n erregistratutako hitzarmenek ukitutako pertsonak. Portzentajezko datuak	**177**
GRAFIKOA II.6.11.	Lan-kostuaren "lansariak eta soldatak" partidaren zenbatekoa, langile eta urte bakoitzeko. EAE-ren eta estatuaren arteko erkaketa.	**180**
GRAFIKOA II.6.12.	Lan-merkatura zebitzuen banaketa, eurostat-terminologiaren araberako	**183**
GRAFIKOA II.6.13.	EAEko epaei lotutako zebitzuen pertsona erbiltzaleak. 2011	**184**
GRAFIKOA II.6.14.	Langabeziagatiko prestazioen jasotzaileen kopuruaren hileko bilakaera EAE-n (milaka)	**187**
GRAFIKOA II.6.15.	Langabeziagatiko prestazioak EAE-n: jasotzaileen kopuruaren eta gastuaren bilakaera	**189**
GRAFIKOA II.6.16.	Langabeziagatiko prestazioen gastua eta diru-sarrera EAE-n	**190**
GRAFIKOA III.1.1.	Zure ustez, familiak garrantzi handiagoa edo txikiagoa du EAE-n? Hainbat urte	**193**
GRAFIKOA III.1.2.	Independenteki seme-alaba aparteko badu, pentsatu du. Beste bat izatean? EAE-n, 2001 eta 2012 urte.	**194**
GRAFIKOA III.1.3.	Langileek etxeko lanetako jardueretan emandako eguneko orduak, ezaugarrien arabera, EAE, 2011.	**197**
GRAFIKOA III.1.4.	Langileek bateratzearen arloan emandako denborarekin duten gogobetetasun maila, sexuaren arabera. EAE, 2011..	**198**
GRAFIKOA III.1.5.	Seme-alaben jaiotza edo adopziogatiko laguntzak EAE-n. Eskabideen eta gastuaren bilakaera, mila eurotan	**200**
GRAFIKOA III.1.6.	Bateratze-neurriak baliatzen dituzten familien banaketa, hileko sarrera garbien arabera. EAE. 2002-2009ko aldia.	**201**
GRAFIKOA III.2.1.	Pobrezia eta bazterketa jasateko arrisku-tasaren eta bere hiru osagaien bilakaera europar batasunean (27-EB)	**203**
GRAFIKOA III.2.2.	III.X.X. Pobrezia atalasearen azpian dauden pertsonen ehunekoa 2008-2011	**207**
GRAFIKOA III.2.3.	Padiko pobrezia adierazle eragin-tasen bilakaera EAEn	**209**
GRAFIKOA III.2.4.	EAEko biztanleriaren banaketaren bilakaera, padiko pobrezia errealaren adierazleen arabera	**210**
GRAFIKOA III.2.5.	60 urtetik gorako pertsonak munduan: bilakaera eta proiekzioak 2050era arte. Milioiak.	**210**
GRAFIKOA III.2.6.	EAEko biztanleriaren bilakaera adin-taldeen arabera. Proiekzioak	**211**
GRAFIKOA III.2.7.	EAEko adinekoen bizikidetza-moduak, adinen arabera. 2010.	**212**
GRAFIKOA III.2.8.	EAEko adinekoen bizikidetza-moduak, adinen arabera. 2010.	**217**

GRAFIKOA III.2.9. Zaintza pertsonaleko jardueretarako mendekotasuna daukaten 70 urtetik gorako pertsonen ehunekoa, adin eta sexu taldeen arabera. EAE, 2007. **217**
GRAFIKOA III.2.10. Pobrezia errealaren eraginaren bilakaera, familiaburuaren adinaren arabera. Familiako etxebizitzetan bizi den biztanleria. EAE, datuak ehunekotan **219**
GRAFIKOA III.2.11. EAEko adineko biztanleriaren banaketa, hileko diru-sarreren arabera. 2010. **221**
GRAFIKOA III.3.1. Aseguratuen kopuruaren eta aseguratuko primen bilakaera poliza motaren arabera **236**
GRAFIKOA III.4.1. Etxebizitzen merkatuaren bilakaera EAE-n 1 **241**
GRAFIKOA III.4.2. Interurteroko aldaketako capv-eko eraikuntzako kostuen tasa. Urte oinarria: 2010 **242**
GRAFIKOA III.4.3. Salgai dauden etxebizitza berrien bilakaera EAE-n **245**
GRAFIKOA III.4.4. Saltzeko eta alokatzeko etxebizitza babestuen eskaintzaren bilakaera EAE-n **245**
GRAFIKOA III.4.5. Alokairuko etxebizitzen eskaintzaren eta alokairu libreko hileko batez besteko errentaren (€) bilakaera **246**
GRAFIKOA III.4.6. Etxebizitzen eraikuntzaren bilakaera lurraldeen arabera. Hasitako etxebizitzak. **248**
GRAFIKOA III.4.7. Indarreko hipoteka-maileguak dituzten EAE-ko familien portzentajearen bilakaera **250**
GRAFIKOA III.4.8. Hileko batez besteko hipoteka kuotaren eta soldata kostuaren arteko harremanaren bilakaera EAE-n eta estatuan. Datuak %-tan. **250**
GRAFIKOA III.4.9. Etxebideeen inskribatuta dauden pertsonek eskatutak etxebizitza motaren bilakaera **251**
GRAFIKOA III.4.10. Etxebiden inskribatutako eskaera espedienteen bilakaera **251**
GRAFIKOA III.4.11. Etxebizitzen salerosketaren bilakaera EAE-n, motaren arabera **253**
GRAFIKOA III.4.12. Etxebizitzen hutsen*proportzioaren bilakaera EAE-n **254**
GRAFIKOA III.4.13. Etxebizitzaren jabetzaren helburuak, lurraldeen arabera. 2011. **254**
GRAFIKOA III.4.14 Eusko jaurlaritzaren etxebizitza programaren gastuaren bilakaera kapituluka. Milioika eurotan adierazitako datuak. **254**
GRAFIKOA III.4.15. Alokairua sustatzeko laguntzen bilakaera. Milioika eurotan **257**
GRAFIKOA III.4.16. PFEZ-ko etxebizitzagatiko kenketen zenbatekoaren bilakaera eta kenketa guztien gaineko portzentajea **258**
GRAFIKOA III.4.17. PFEZ-ko kenketen errenta-tarteen araberako portzentajezko banaketa*. EAE, 2009. **259**
GRAFIKOA III.5.1. BEC. Bisitarien bilakaera **265**
GRAFIKOA IV.1.1. Gizarte zerbitzuetako gastuaren adierazleen bilakaera EAEn **275**
GRAFIKOA IV.2.1. Gizarte segurantzaren kotizazioengatiko* diru-bilketaren bilakaera EAEn **280**
GRAFIKOA IV.2.2. Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren prestazioen gastuaren bilakaera (milioika eurotan) **284**
GRAFIKOA IV.3.1. Epo-ren titular hartzaileen hileko bilakaera lurraldeka. 2010-2012ko urria. **286**
GRAFIKOA IV.3.2. Gizarte larrialdkko laguntzak: jasotzaile kopuruaren bilakaera lurraldearen arabera **287**
GRAFIKOA IV.4.1. Bgaeen bilakaera EAEn. Oinarrizko urtea: 2002 **290**
GRAFIKOA IV.4.2. Bgae-ei lotutako pertsonak EAE-n: atxikimenduak eta biztanleriaren gainean duen garrantzia. **290**
GRAFIKOA V.1.1. Eusko legebiltzarraren eta eusko jaurlaritzaren legegintza jarduera **300**
GRAFIKOA V.1.2. Lurralde historikoetako batzar nagusiek onetsitako foru arauak **301**